

1. GIZA-GORPUTZA

Atal honetan giza gorputzari dagokion lexikoa biltzen dugu. Informazioa hobeto emateko atal hau ondoko era honetara banatuta aurkezten dugu: burua, ahoa, begia, belarria, sudurra, ilea, gorputza, besoak, hankak, errainak, azala, gurariak eta loa.

1.1. BURUA

arasea: 1. matraila, masaila. 2. matraila hezurra. 3. aho sabaia, aho zerua

"Ta arasea da au goye (Z.)" - (Eta arasa da goi hau)

"Bardin deko arasea ganadu pe ta, ba goiko arasea esaten dako, eta bardin bardin deko ganadue pe arasea (Z.)" - (Berdin dauka arasa ganaduak ere eta, ba goiko arasa esaten zaio, eta berdin-berdin dauka ganaduak ere arasa)

"Goikoari esate otzegu guk arasea (Z.)" - (Goikoari esaten diogu guk arasa)

aurpegie, arpegie, eurpegie, eurpeidxe: aurpegia

"Sulotxu antzeko, asala soltu antzean ta sulos beterik, e, aurpegi gustie (Ll.)" - (Zulotxo antzeko, azala solte antzean eta zuloz beterik, aurpegi guztia)

"Esnean antzeko bat ixetan san, ta eurpegiem emon, karia emongo balekea les, orduen alantxe ixetan san (Z.)" - (Esnearen antzeko bat izaten zen, eta aurpegiem eman, karea emango balute legez, orduan halantxe izaten zen)

bekokie: bekokia, kopeta

"Bekokien ure, bustitte, eta olan gora adi pareta pasetan san (Ll.)" - (Bekokian ura, bustita, eta holan gora adi paratuta pasatzen zen) [buruko mina kentzeko egiten zen]

bigotea: bibotea

bixarra, bixerra: bixarra

"Ba lelangos emon ordureko bear itxeko sera, ba, lelengo brotxeagas, e, bixerra bigunduten eta gero berak eitxeuen, eta orretan, apurke apurke (K.)" - (Ba lehenengoz eman ordurako behar egiteko zera, ba, lehenengo brotxagaz,

bizarra biguntzen eta gero berak egiten zuen, eta horretan, apurka-apurka)

burue: burua

"Lenau esan bururik garbitxen, sera, selan esangot? e, baya trentzak eintxe, bururik garbitxan nik estot esetu iños, iñor (M.)" - (Lehenago ez zen bururik garbitzen, zera, zelan esango dut? baina trentzak eginda, bururik garbitzen nik ez dut ezagutu inoiz, inor)

idune: iduna, sama

"Solta itten dakea alan, a, eitten dakea olan, idunetan, idunetan ta musturrean bere bai, eitten dakea, eta eitten dakea, alan, a, sarnean modukoa, t'ulea yausi, baya pegeu itten baatzu gero! a kentxen geuse gatxenatarikoa (Z.)" - (Soltatu egiten zaie halan, egiten zaie holan, idunetan, idunetan eta musturrean ere bai, egiten zaie, eta egiten zaie, halan, sarnaren modukoa, eta ilea jausi, baina nahastu egiten bazaizu gero! hura kentzen gauza gaitzenetarikoa)

kokota: kokota, garondoa

"Ori sekorrak eukitxen deu ori kokotian, tuntur andidxe bai (L.)" - (Hori zekorrak edukitzen du hori kokotean, tuntur handia bai)

kokotaspie: kokot-azpia

matraille: 1. matraila, masaila. 2. matraila hezurra

okospea: okozpea, okotzazpia

okotza: okotza

okotzaspie: okotz-azpia

papue: masaila, papua

samea: sama, eztarria

"Samako gorgolle edo esate sotzen (Z.)" - (Samako gorgoila edo esaten zioten)

sena: sena, zentzua, konortea

sentzune: zentzua, sena

1.2. AHOA

adurre: adurra, lerdea

agiñe: hagin eta hortza

"Dxausiko serak, talleture, alantxe botaten siren agiñek (At.)" - (Jausiko zerak, teilatura, halantxe botatzen ziren haginak) [txikerretako haginak jausten direnean teilatura botatzearen gainean dabil]

"Eta surteko eutze ona ixen san beti, e? ta emen on siren pastoreak agiñe pere surteko eutzegas garbittu itten sittusen (Z.)" - (Eta surteko hautsa ona izan zen beti, e? eta hemen egon ziren artzainek haginak ere surteko hautsagaz garbitu egiten zituzten)

aginkedea: haginkada, hozkada

agoa: ahoa

agoserue: aho sabaia, aho zerua

"Agoserun dekot miñ (Bi.)" - (Aho zeruan daukat min)

atza: hatsa

babea: adurra, lerdea

barrea: barrea

barre faltzoa: barre faltsoa, behartuta, gogo barik egiten den barrea

barre santzoa: barre zantzoa, barre algara
"Barre santzoa, lagunek barre, ba txiste bat esaten dau onek, eta botate osu, ba barre santzoa, orrexeri esate otzu guk barre santzoa (Z.)" - (Barre zantzoa, lagunak barre, ba txiste bat esaten du honek, eta botatzen duzu, ba barre zantzoa, horrexeri esaten diogu guk barre zantzoa)

bosa: ahotsa

esneko agiñe: esneko hagina, umetan lehenengoz irteten duten hortz-haginak

espana: ezpaina

gustue: gustua

"Seuser dibujoagaitxik imiñitxe bataran batek eta, beste batzuk arri andidexek atarata bere bai ganian seuser imintxeko ta ori ba, bakotxa beran gustuek ixetan dires orrek (L.)" - (Zer edo zer marrazkiagatik ipinita, baten baten eta, beste batzuek harri handiak aterata ere bai gainean zer edo zer ipintzeko eta hori ba, bakoitza beraren gustuak izaten dira horiek)

gustu ille: gustu hila, gustu barik

irribarrea: irribarrea

"Bai irribarrea da, ba geuk, a, barre in barik irribarretxue in, eta seuri gusteko estatzun berbia beste batek esaten baotzu kontesteu barik, ba irribarretxu in, ori de irribarrea (Z.)" - (Bai irribarrea da, ba geuk, barre egin barik irribarretxoa egin, eta zeuri gustatuko ez zaizun berba beste batek esaten

badizu erantzun barik, ba irribarretxo egin, hori da irribarrea)

juisioko agiñe: juizioko hagina

kaskadea: haginkada

kirriskadia, karraskadia: kirriskada, hagnetako zarata, haginak kauskitzean sentitzen den kirriskada

lurrune: lurruna

matrallagiñe: matrail hagina

minpekoa: mihipekoa, mihipirua

"Minpekoa, ori, lagune pe batzuk eukitxeudean, lenau, iños entzun dot sikeran (At.)" - (Mihipekoa, hori, lagunak ere batzuek edukitzen zuten, lehenago, inoiz entzun dut behintzat)

"Onek esteko minpekorik (La.)" - (Honek ez dauka mihipekorik)

miñe: mihia

mosue: musua, pota, laztana

musturre: muturra, musturra, ezpainak

santzoa: zantzoa, irrintzia, algara

"Erantzun ori mendie pere itxen deu, santzoa erantzun mendie pere itxen deu (M.)" - (Erantzun hori mendiak ere egiten du, zantzoa erantzun mendiak ere egiten du)

"Orduen esaten seittuesan orrek gausek, santzo edo kasureko, ba persona bat ilten danean, eta orrek gausek oten sirela, nik neuk, estot esetu, oin santzoa pai, kasureko, ba nire koñeta pere, emen bixie tire, esta? eta, or ba basoan, mutil kuadrille, eta ain santzoak emeti besteak kontesteu, eta erroldariak, erroldan, a, neskatoakana etorten sirenak, ba oiñ onek estaus, e? oingo gasteak estekes orrek, orrek akabe siren, orrek estaus (Z.)" - (Orduan esaten zituzten gauza horiek, zantzo edo kasurako, ba pertsona bat hiltzen danean, eta gauza horiek egoten zirela, nik neuk, ez dut ezagutu, orain zantzoak bai, kasurako, ba nire koinatak ere, hemen biziak dira, ezta? eta, hor ba basoan, mutl taldea, eta haien zantzoak hemendik besteak erantzun, eta erroldariak, erroldan, neskatoengana etortzen zirenak, ba orain horiek ez dagoz, e? oraingo gazteek ez dauzkate horiek, horiek amaitu ziren, horiek ez dagoz)

trague: zurrutada, urrupada

txatxarra: txatxarra

"Agiñek txatxarrak yanta dekos (Bi.)" - (Haginak txatxarrak janda dauzka)

txistue: txistua, txua

uye, udxe: oia, hobia

"Ur otzaas edo olan, e, eitten sakon, apur bet sertu, uyetan (Ll.)" - (Ur hotzagaz edo holan, egiten zitzaion, apur bat zertu, oietan)

1.3. BEGIA

adikunea: adikunea, begirakunea

anpulue: anpulua, negarra

begie: begia

"Begik gorritute dekos (Bi.)" - (Begiak gorrituta dauzka)

begi argie: begi argia

begi asala: betazala

begi asule: begi urdina

begi baltza: begi beltza

begi biskorra: begi bizkorra

begi epela: begi epela, begirakune tristekoari esaten zaio

"Begi epela da ori (Bi.)" - (Begi epela da hori)

begi errea: begi errea

begi ertza: begi ertza

begi ganea: begi gaina

begi motela: begi motela

begi nabarra: begi nabarra, begi gaztainkara

begi ondoa: begi ondoa

begi surie: begi zuria, begi argiak dauzkanari esaten zaio

"Mutille bere ba gure da begi surie, ta, da delikedu, gafak, oba eron illunek, estaitt nik sek eitten dotzen, argik eitten dotzelako kalte giau edo (Bi.)" - (Mutila ere ba gurea da begi-zuria, eta, da delikatua, betaurrekoak, hobe eroan ilunak, ez dakit nik zerk egiten dien, argiak egiten dielako kalte gehiago edo)

begi surre: begi zuhurra

begiko niñoa: begiaren ninoa, begi santua, begi ninia

betasala: betazala

beterrea: beterrea, begietan katarroak edo marrantak eraginda egiten diren piztak eta

betulea: betilea, bekaina

"Anditxutxue oten da bertan, betuletxuten, txotorra esaten sakon (At.)" -

(Handituxoa egoten da bertan, betiletxoetan, txotorra esaten zitzaion)

bistea, bisdea: ikusmena

"Bisdea eukitxe seuen jentiak obia oingoa paño, aik, t'ukusi itxe seudean, oiñ elei ikusi (L.)" - (Ikusmena edukitzen zuen jendeak hobe oraingoak baino, eta ikusi egiten zuten, orain ez liteke ikus)

negarra: negarra, negar anpulua, malkoa

negarranpulue: negar anpulua, negarra, malkoa

niñoa: begiaren ninoa, begi santua, begi ninia

pestañea: betulea, betilea

pistea: pizta

sotiñe: zotena, negar zizpurua, negar egikeran egiten diren hasperenak

1.4. BELARRIA

astrapala: astrapalada, zarata handia

astrapalotza: astrapalotsa, zaratotsa

belarrie: belarria

"Belarrietara deko orrek, a, ser andie, noperari belarrietara sartzeko (Z.)" - (Belarrietara dauka horrek, zer handia norberari belarrietara sartzeko)

berbotza: berbotsa

durundue: durundua, burrunba

"Selau durundu daun or etzen (Bi.)" - (Zelako durundu dagoen hor etxean)

girrintzea, girrintzia: girrintza, intziria

irrintzie: irrintzia, zantzoa

kateotza: kateotsa

"Geubian, e, aputxu bet belu basatos, txakurrek edo, sorgiñek katiakas atzean segidu dostie ta estaitx ser ta, ta ser? kateotza asme ot eta, bai, ta ixerditxen etzera, galapan, ta katiak atzean (M.)" - (Gauean, apurtxo bat belu bazatoz, txakurrak edo, sorginak kateakaz atzean segitu didate eta ez dakit zer eta, eta zer? kateotsa asmatu dut eta, bai, eta izerditan etxera, galapan, eta kateak atzean)

saratea, sagatea: zarata

"Bai saratea itten deu baya, guk orrexeri, estotzegu iños, a, ba saratan serik sertu (Z.)" - (Bai zarata egiten du baina, guk horrexeri, ez diogu inoiz, ba zarataren zerik zertu)

"Geues sarata txikerra da andie (M.)" - (Gaeuz zarata txikerra da handia)

saratotza: zaratotsa

sokorrue: sokorra, alarua, garrasia, oihua

tanborrotza: danbor hotsa, ereleei egiten zaien zarata uxatzeko

1.5. SUDURRA

arnasea: arnasa

"*Arnasea artu esiñik paretan danean albañe (L.)*" - (Arnasa hartu ezinik paratzen denean albaina)

atza: hatsa, kiratsa

"*Selau atza dator! (T.)*" - (Zelako hatsa dator!)

botike usiñe: botika usaina

"*Botike asko itten badakea, botike usiñe, botike asko eiñeko frutea, botike usiñe, eitten espadako mantxea, ta kana sagarra edo nik euki dot, a, ona bastante emen, ona, kane esaten dotzegun sagarra (Z.)*" - (Botika asko egiten bazaie, botika usaina, botika asko egineko fruta, botika usaina, egiten ez bazaio espila, eta kana sagarra edo nik eduki dut, ona nahikoa hemen, ona, kana esaten diogun sagarra)

erre sundea: erre sunda

ixerdi atza: izerdi hatsa

"*Kikiri atza, ixerdi atz antzera edo satarran, e, sundea (Ll.)*" - (Kikiri hatsa, izerdi hats antzera edo zatarren, sunda)

kikiri atza: kikiri hatsa

"*Ori de giau bere, persona loye edo satarrak egon eitten dire ta, kikiri sundea deko (Ll.)*" - (Hori da gehiago ere, pertsona lohia edo zatarrak egon egiten dira eta, kikiri sunda dauka)

kikiri sundea: kikiri sunda

mokoa: mukia, mokoa

orio sundea: olio sunda

sundea: sunda

"*Sunde gosoa emote otzo (Ll.)*" - (Sunda gozoa ematen dio)

surpea: surpea, sudurpea, sudurrazpia

surre: surra, sudurra

surtzilloa: surtziloa

usiñe: usaina

"*Sundia terriblia euken, t'a eukitten sendun ekarri, ta sortzi bet egunien edo, egostuten san, ta aixe eittea komonidu ixetauen ganera, derrepentean bota baño solora, ta usiñe terriblia eukitteuen, usiñe edo atza edo, sundia edo, ta erresultadu ona emoteuen, jeneroa koiteko (Ll.)*" - (Sunda itzela zeukan, eta hura edukitzen zenuen ekarri, eta zortzi bat egunean edo, egosten zen, eta huraxe egitea komeni izaten zuen gainera, bat-batean bota baino sorora, eta usaina itzela edukitzen zuen, usaina edo hatsa edo, sunda edo, eta emaitza ona ematen zuen, jeneroa hartzeko)

1.6. ILEA

birrulea: birrilea, burukoa ez den ile mehea

bixerra: bizarra, burukoa ez den ilea

buruko saye: buruko zahia

errisue: kirrua

frekillue: kopetilea

"*Bai sati bet amen aurrean, ba, frekillu bet (Z.)*" - (Bai zati bat hamen aurrean, ba, kopetile bat)

galbarra: galbarra

girnea: girna, puntaz lotzen den ilea

"*Persona laski tausenean, eta, bustitte satusenean, ai selaseko girnek para dakosen! (Bi.)*" - (Pertsona laskiak dagozenez, eta, bustita zatozenez, ai zelaseko girnak paratu zaizkion!)

girtena: kirtena, ileetan puntaz geratzen direnak

"*Selaseko girtanak dekosen orrek! (Bi.)*" - (Zelaseko kirtanak dauzkan horrek!)

kalboa: uldunea

"*Ulia one teko, e, ie larotamar urte, ta aitxu, kalborik es (At.)*" - (Ilea honek dauka, ea larogeita hamar urte, eta aditu uldunerik ez)

kanea: ile zuria

kaskue: kaskagaina

"*Atzeko kaskuen imiñi orrasidxe ta, ulia an batu, ta gero pañelue imiñi, ta pañelue imiñi, ta errotxue olan, ta an moñotxue (At.)*" - (Azbeko kaskagainean ipini orrazia eta, ilea han batu, eta gero zapia ipini, eta zapia ipini, eta errotxoa holan, eta han moñotxoa)

kirrua: kirrua

moñetea: mototxoa

"Apur bet ulea alan gorantza altzeta amen, a, moñeta ba teko (Z.)" - (Apur bat ilea halan gorantza altxatuta hamen, mototxo bat dauka)

moñoa: moinoa, motoa

"Moño eitte seuden emen, atzen ule batu emen goyen, ta gero pañelues alan emetik, e, pañelu amarrate seuden ta moñotxue emen atzean (La.)" - (Moino egiten zuten hemen, atzean ilea batu hemen goian, eta gero zapiagaz halan hemendik, zapia amarratzen zuten eta moinotxoa hemen atzean)

mototxa: kopetilea, mototsa, aharitoena izaten da gehienetan, pertsonena izendatzeko figuratuki erabiltzen da

"Baya mototxa, e, sera, orduen ebate san ulea, a, danean, barberuek, esta? ta amen itxitten suren, suk esan dosun moduen, alan, a, mototxa, ori de mototxa (Z.)" - (Baina kopetilea, zera, orduan ebakitzen zen ilea, denean, bizarginak, ezta? eta hamen uzten zuten, zuk esan duzun moduan, halan, kopetilea, hori da kopetilea)

orrasie: orrazia

"Orrasie imintxen seudean ta, an orrasien gero ulea batu, eta gero pañelue (M.)" - (Orrazia ipintzen zuten eta, han orrazian gero ilea batu, eta gero zapia)

orrasí serratue, orrasí sarratue: orrazi zerratua

"Orrasi serratu asko egote san (La.)" - (Orrazi zarratua asko egoten zen)

sapea: sapa, txima

saye, saidxe: zahia

"Buru gusti deko sayes beterik (Bi.)" - (Buru guztia dauka zahiz beterik)

tirabosoya: kiribila

"Tenesa batzuk ote siren, eta aik tenesak, berotu surten, eta papel baten emon bueltea ta a papela erretan espadeu, ordun eitten sendusen aikas, a, tirabosoyak (Z.)" - (Tenaza batzuk egoten ziren, eta tenaza haiek, berotu surtan, eta paper baten eman buelta eta paper hura erretzen ez badu, orduan egiten zenituen haiekaz, kiribilak)

"Ba an bean biste san gure koñetea, esta? eta lobeari, uleak orrastan, orrek tirabosoyak eitten eseuen yakiñ, eta

nigana botateuen, asike orrexe tie tirabosoyak (Z.)" - (Ba han behean bizitzen zen gure koinata, ezta? eta lobeari ileak orrazten, kiribil horiek egiten ez zuen jakin, eta nigana botatzen zuen, halandaze horiexek dira kiribilak)

trentzea: ile txorta, ile mototsa, txirikorda

"Trentzea intxe emen batu itxeudean ta orrasie imiñi gero (M.)" - (Ile txorta hemen batu egiten zuten eta orrazia ipini gero)

txopetea: txopeta, ile pilo luze arteza

"Txopete itxitte deko (Bi.)" - (Txopeta utzita dauka)

txortea: txorta

ulea: ilea

"Lelengo lelengo afarie emo eusten, emon afarie, eta asi sen jentea agertan, eta yokoan danak, igual egon siren bost edo sei maye yokoan ta bueno, eta bata bat etor san, e, beste esunen bat, eta bueno, eik nire partes ta nik ulea ebai txe bixerra kendukot, eta olan alternate san, eta goxeko lauretarartean, yoa nitzen ba igual, e, bost edo sei bider edo, estaitx, apur be kora bera esango tzut, baya bestea bajan on san artean, ara yoaten sana o nitzen, eta alantxe itxe san (K.)" - (Lehenengo-lehenengo afaria eman zidan, eman afaria, eta hasi zen jendea agertzen, eta jokoan denak, beharbada egongo ziren bost edo sei mahai jokoan eta beno, eta baten bat etorri zen, beste ezagunen bat, eta beno, egin ezak nire orde z. eta nik ilea ebagi eta bizarra kenduko dut, eta holan txandakatzen zen, eta goizeko lauretara arte, joan nintzen ba beharbada, bost edo sei bider edo, ez dakit, apur bat gora-behera esango dizut, baina bestea bajan egon zen artean, hara joaten zena egon nintzen, eta halantxe egiten zen)

ule arrosa: ile harroa

ule baltza: ile beltza

ule bigune: ile biguna

ule errisaue: ile kizkurra, ile kirrua

ule fiñe: ile mengela

ule gogorra: ile gogorra

ulegorrie: ilegorria

"Ainbet on dire ulegorriek, eta sano gorriek, e! (K.)" - (Hainbat egon dira ilegorriak, eta sano gorriak, e!)

ule kirrua: ile kirrua

ule lisua: ile lisua

ule lodie: ile lodia
ule mea: ile mehea, ile fina
ule mengela: ile mengela
ule sapea: ile sapa, txima
ule sikue: ile sikua
ule surie: ile zuria, ile urdina
ule txorte: ile txorta, ile txirikorda
ule yoanak, ule dxoanak: ile joanak

1.7. GORPUTZA

alboa: alboa, gorputzaren alboa

altzoa: altzoa

"Imiñi, altzoa ta gero, es, pastelak es, kamaran dausen intxurrek eta sagarrak koyu kamaran ta aretxek yan (M.)" - (Ipini, altzoa eta gero, ez, pastelak ez, kamaran dagozen intxaurrek eta sagarrak hartu kamaran eta haiexek jan) [urtebarritan ematen zizkieten gauzen gainean dabil]

biskerra, biskarra: bizkarra

"Semea pelotarie ixenta, txarto, seuser, biskerreko seuser atarakon ta jodita egote san (E.)" - (Semea pelotaria izanda, txarto, zer edo zer, bizkarreko zer edo zer atera zitzaion eta jodituta egoten zen)

bulerra, bularra: 1. bularra, 2. bularra, titia

eperdie: ipurdia

"Olau, a, eukiskeon, bata bateri eperdidxe ikusi dotzesu suk, esaten san gero (At.)" - (Holakoa, edukiz gero, baten bati ipurdia ikusi diozu zuk, esaten zen gero)

garrie: gerria

gorputze: gorputza

lepoa: lepoa

"Au de lepoa, espaldia, samati bera, olan, igurdi, arisko trapu bet eukitxeuen amak gordeta, agas igurdi danian, danian, asunekas eiñ, leña, ta gero ekarri botillia, Tarragonako esate dxakon, edari antzeko bat, eta espabere koñaka, agas gero busti busti busti intxe, tapeute imiñi txe oyan (At.)" - (Hau da lepoa, bizkarra, samatik behera, holan, igurtzi, harizko trapu bat edukitzen zuen amak gordeta, haregaz igurtzi denean, denean, asunakaz egin, garrotea, eta gero ekarri botila,

Tarragonakoa esaten zitzaion, edari antzeko bat, eta espabere koinaka, haregaz gero busti-busti eginda, tapatuta ipini eta ohean) [gripea kentzeko egiten zen fregazioaren gainean dabil]

paparra: paparra

potroa: potroa, barrabila

silbota: zilbota

sille: zila

soñe: soina

sorbaldea: sorbalda

titie: titia

"Titi emote san atxiñe belurarte (Bi.)" - (Titia ematen zen antzina belura arte)

tripea: tripa, sabela

tripeko sille: tripako zila

txepea: konkorra

txikoa: txikoa, kokotazpiko gunea

uskie: uzkia

1.8. BESOAK

arrea: arra

asbixarra: azpizarra

"Bai urten gero, asatzalak yan ta ostean urten bai, ayek puntetxu gorriek urten, asbixarra esate otzea bai (E.)" - (Bai irten gero, atzazalak jan eta ostean irten bai, puntatxo gorri haiek irten, azpizarra esaten diete bai)

atzamarra: atzamarra

atzamar txikerra: atzamar txikerra

atzasala, asatzala: atzazala

"Neu bere ibil nas eusten baya, akabun miñ eineuen eskuen ta, asatzala dxausi saten orduen, e, ibilli or eta, sokeak estaitx selan koxu seusten (M.)" - (Neu ere ibili naiz eusten baina, azkenean min egin nuen eskuan eta, atzazala jausi zitzaidan orduan, ibili hor eta, sokak ez dakit zelan hartu zidan)

besapea: besapea

besarte: besarte

besoa: besoa

"Besoak sartu emetik, eta emen atzean, ta andik agarreute oñes irekasteko, taka takan moduen (M.)" - (Besoak sartu hemendik, eta hemen atzean, eta handik oratuta oinez irakasteko, taka-takaren moduan)

"Buena orre tires, e, besoa sartuteko dekesenak (E.)" - (Beno horiek dira, besoa sartzeko dauzkatena)

eskerra: ezker

"Eskerretara joan dire (K.)" - (Ezkerretara joan dira)

eskoya, eskoa: eskoa, eskoia

"Araxe bidean dau, errekarra allegekeran eskoatara (Ll.)" - (Haraxe bidean dago, errekarra ailegakeran eskoatara)

eskue: eskua

"A ixeta san aonen moduen kasureko, emen, kordelagas buelta gustien, eta gero ebai ametik sartuteko, eskue sartxeako, olan, ta a gonean barrutik (M.)" - (Hura izaten zen haonen moduan kasurako, hemen kordelagaz buelta guztian, eta gero ebaki hamendik sartzeko, eskua sartzeko, holan, eta hura gonaren barrutik) [gonaren patrikaren gainean dabil]

esku albo: esku-alboa

eskuarte: esku-arte

esku barrue: esku-barrua

esku ganea: esku gaina

eskuturre: eskuturra

orkoroa, erkoroa, erkerora: orkoroa, erkoroa

"Erkoroak yaten seuen, orreitxi dau lodien erkoroa, orreitxik dau lodien (M.)" - (Orkoroak jaten zuen, horregatik dago lodien erkoroa, horregatik dago lodien) [umeakaz egiten den atzamar olgetaren gainean dabil]

ukondoa: ukondoa

ukubille, ikubille: ukabila

yuntea, dxuntea: junta, artikulazioa

1.9. HANKAK

anke: hanka, zangoa; pertsona ez eze animaliena eta gauzena ere izan daiteke

ankapea: 1. hankapea, zankapea. 2. oinazpia

beatza, bietza: behatza

"Eron illundien, a, olan, a, beatz ganetan, miñau eitteuen ak ixurrek! olan yositte oten san ak! eta bota errekarra t'urreo goixean, a, ara bille ta koyu andik eta yantzi tte listo! (Z.)" - (Eroan ilundean, holan, behatz gainetan, minago egiten

zuen izur hark! holan josita egoten zen hark! eta bota errekarra eta hurrengo goizean, hara bila eta hartu handik eta jantzi eta listo!)

beleune, belune: belauna

"Ori beleune edo okertan sanean, sanatenes edo estaitt ser eitten sotzean (Ll.)" - (hori belauna edo okertzen zenean, zainetenez edo ez dakit zer egiten zioten)

belun atzea: belaur atzea

bernea: berna

bies puntea: behatz punta

isterra: izterrra

kadera albo: oin-alboa

kadera aspia: oinazpia

kadera ganea: oin gaina

kaderea: 1. oina, animaliena eta gauzena ere izan daiteke. 2. mokorra

"Kaderakas lotxen siren (Ll.)" - (Kaderakaz lotzen ziren)

oñaspia: oinazpia

oñetza: oinetza

orkatille: orkatila

orpoa: orpoa

pausue: pausua, urratsa

"Aittu, te ori de, se pares egonesketiño, bueltan yosten dosu les, beti leku beten urtetan dotzue soasenak, danak, darosusen, e, yosgarriek danak eta esin dosus batu, ta a da kanbiaten dotzena, pausue kanbiaten dotzena, soldadiskan bere estotzue esaten ixen, e? (E.)" - (Aitu, eta hori da, ze pareak egonez gero, bueltan josten duzunez, beti leku baten irteten dizute zoazenak, denak, daroatzazunak, josgarriak denak eta ezin dituzu batu, eta hura da aldatzen diena, pausua aldatzen diena, soldaduskan ere ez dizute esaten izan, e?)

saltue: saltoa, jauzia

sankapea: zankapea, belauraren atzea

trangu, trangoa: trangua, urrats handia

"Trangu andi deko orrek (Bi.)" - (Trangu handia dauka horrek)

txanke: txanka, bernaren atzea

1.10. ERRAINAK

asurre: hezurra

"Asurre beran lekuen sartxe seuen ak, baya miñ eitten deu (Ll.)" - (Hezurra beraren

lekuan sartzen zuen hark, baina min egiten du)

beastune, biostune: behaztuna

"Gibela teko alan, a, ser berde bat, beastune (Z.)" - (Gibelak dauka halan, zer berde bat behaztuna)

belun burue: belaun burua

bernasurre: bernazurra

biosturie: bihozturia, urdailaren hasierari esaten zaio

"Iru edo lau, geyau, sei bere bai artu dodas nik, sei egunean bere, segiduen, segiduen ixen bear deu, ta gero, ba beres pasetan da, ba gero orrek, e, nerbiotasuneas ta orrekas atzera urtetan deu orrek, nik estot eiñ aspaldien, e, b'amar urte edo geyau ixengo da baya, t'oin yekot emeko sera ta, batzuk, a, neskatoak diñost medikuek esan deuela sera dala, ser esan deu? e, ulserea dekotela, bai biosturikoa dekot nik, baya nik estot siñestan, se ori medikuek esteude topetan, ta neu nau pentzetan, e, orrek esanan ganera ba ete dekoten, urdillena, ta agas urdillenagas nauela serean, se orrek, larrittasunek emote ittus, eta penak, penak andiek eta larrittasunek (Ll.)" - (Hiru edo lau, gehiago, sei ere bai hartu ditut nik, sei egunean ere, segituan, segituan izan behar du, eta gero, ba berez pasatzen da, ba gero horrek, nerbiotasunagaz eta horiekaz atzera irteten du horrek, nik ez dut egin aspaldian, ba hamar urte edo gehiago izango da baina, eta orain daukat hemengo zera eta, batzuek, neskatoak dinost medikuak esan duela zera dela, zer esan du? ultzera daukadala, bai bihozturikoa daukat nik, baina nik ez dut sinesten, ze hori medikuek ez dute topatzen, eta neu nago pentsatzen, horien esanen gainera ba ete daukadan, urdailena, eta urdailen hazagaz nagoela zerean, ze horrek, larritasunak ematen ditu, eta minak, minak handiak eta larritasunak)

biotza, bidxotza: bihotza

birikie: birikia

biskerrasurre: bizkar hezurra

estea: hestea

estegorrie: hestegorria

estamangue, estemangue, estomague, estomangue: urdaila

"Bai estamangukoa da ori bere (Z.)" - (Bai urdailekoa da hori ere)

garnue: garnua

garrangille: garrangila

garunek: garaunak, muinak

gibela: gibela

gorgolle: gorgoila

guntzurrune: guntzurruna, kuntzurruna

iduneko asurre: iduneko hezurra

"Or bost uger edo sartu te, iduneko asurre apurtu ei euen ak (E.)" - (Hor bost iger edo sartu eta, iduneko hezurra apurtu ei zuen hark)

kaka: kaka

kokoteko asurre: kokoteko hezurra, lepazurra

matrallasurre: matrailezurra

mokordoa: mokordoa

nerbioa: zaina

"Ori dator desgustotik, nerbioak, a, sertu (Z.)" - (Hori dator desgustotik, zainak, zertu)

odola: odola

"Odola teko ori sera, grasea (Ll.)" - (Odolak dauka hori zera, koipea)

okotzeko asurre: okotzeko hezurra

pulmoya: biria, birikia

puxikea: puxika

sana: zaina

"A sana andixute ta dauen lekuen, estaitx, e, galtzerdidxegas eitxen basan bere santiretu, sana urrutu, sana bere lekuen sartu, ta ostabere, kurtzeak senbe perestai paya, olantxe itxeusen (At.)" - (Zain hura handituta eta dagoen lekuan, ez dakit, galtzerdiagaz egiten zen ere zaintiratua, zaina urratu, zaina bere lekuan sartu, eta ostera ere, gurutzek zenbat ere ez dakit baina, holantxe egiten zituen)

sayetza, sadxetza: saihetsa

txixe: txiza

"Oyan eingosu txixe (Z.)" - (Ohean egingo duzu txiza)

une: huna

urdille: urdaila

uskerra: uzkarra

yunte asurre: junta hezurra

"Operasiño asko ein seittusan, yunte asurrek danak kendute, ta ingiruek eta (E.)" -

(Ebakuntza asko egin zituen, junta hezurrak denak kenduta, eta inguruak eta)

1.11. AZALA

andittue, anditxue: handitua

aragie: haragia

aragi bixie: haragi bizia

asala: azala

"Asala kendute san orrotzagas, ba ekiñeskero ba (M.)" - (Azala kentzen zen orratzagaz, ba ekinez gero ba)

askordiñe: azkordina

baltzunea: beltzunea

"Analisiak eitten dodas sarri, esta? ta emen baltzune itzela eukitten dot (Ll.)" - (Analisiak egiten ditut sarri, ezta? eta hemen beltzune itzela edukitzen dut)

begitxindorra: begitxindorra

eridea: zauria

"Ori eride ba tauenean bere, ta soldute badau imiñi a, ta garbi garbi eridia itxen deu, asaltxue kendu olantxe imiñitxe euki, eta garbi garbi eridia itxen deu (At.)" - (Hori zauri bat dagoenean ere, eta zoltzen badago ipini hura, eta garbi-garbi zauria egiten du, azaltxoak kendu holantxe ipinita eduki, eta garbi-garbi zauria egiten du)

garie: garia, garatxa

"Garie kentxeako, entzun dot, neuk estot euki baya, nire lagun betek aurpegien euki seuen ta, ba urdeye, urdeye lurrean sartu, urdei satiegas igurdi, ta arripe baten itxi, ta beste batzuk, e, emeko Emerandoko batek eitten ixen deu sagarragas, sagarragas igurdi igurdi tte gero sagarra gero, ba lurrean imiñi, eta pasetan sakon (Ll.)" - (Garia kentzeko, entzun dut, neuk ez dut eduki baina, nire lagun batek aurpegian eduki zuen eta, ba urdaia, urdaia lurrean sartu, urdai zatiagaz igurtzi, eta harripe baten utzi, eta beste batzuek, hemengo Emerandoko batek egiten izan du sagarragaz, sagarragas igurtzi-igurtzi eta gero sagarra gero, ba lurrean ipini, eta pasatzen zitzaion)

"Aittu, orrek gariek, klase asko, seretara kentxe ittues, baya nire semeak euki

sittuen esku ganean, eta, onek esate ostean ba, ta ser dan, a, esan deistela eta ba posik sertuko tzetela, ba ser dan be pageko tzetela, t'orren amagana, ama, emen, a, goyen bixi ixen suen orrek, eurok orrek, a, sereko tire, emen, a, onantza sererantz, Santander parterantz, onek muebleak, a, orkoa tire orrek, eta, ba eroteko amari sagar bat, eta axegas sagarragas kenduko tzela, danak kendu sakosan, a sagarra antza, ba berak yan bear deu, sagarra darotzesu suk ari, eta ak emote otzu a sagarra seuri, eta ain sagarra, a, ba bestiagas lotxen da bera, bi direlako dekot eron bear dienak, sagar bi, eta bat seuk yan bear dosu baya asta ta gusti, e? bota eser beres, konpleto yan, bai muskil tte gusti dana yan, eta a bestia berak estalduten deu, ba, iñok estaki, non eitten deuen iñok estaki, eta a ustelduten danean aik gariek badoas, ta geurean, kendu otzes, neure semeari olantxe kentxe otzeas (Z.)" - (Aditu, gari horiek, mota asko, zeretara kentzen dituzte, baina nire semeak eduki zituen esku ganean, eta, honek esaten zidan ba, eta zer den, esan diezadala eta ba pozik zertuko diodala, ba zer den ere ordainduko diodala, eta horren amagana, ama, hemen, goian bizi izan zuen horrek, eurok horiek, zerekoak dira, hemen, honantz zererantz, Santander alderantz, altzari hauek, horkoak dira horiek, eta, ba eroateko amari sagar bat, eta sagar harexegaz kenduko diola, denak kendu zitzaizkion, sagar hura antza, ba berak jan behar du, sagarra daroakiozu zuk hari, eta hark ematen dizu sagar hura zeuri, eta haren sagarra, ba besteagaz lotzen da bera, bi direlako daukat eroan behar direnak, sagar bi, eta bat zeuk jan behar duzu baina aila eta guzti, e? bota ezer ere ez, guztiz jan, bai muskil eta guzti dena jan, eta beste hura berak estaltzen du, ba, inork ez daki, non egiten duen inork ez daki, eta hura usteltzen denean gari haiek badoaz, eta geurean, kendu dizkio, neure semeari holantxe kentzen dizkiote)

garoa: azalaren garaua

"Elgorrie da bat eta bestea, garoak urtete otzena, arek estaitt selan ixena euki deuen ba (Ll.)" - (Elgorria da bat eta bestea,

garoak irteten diena, hark ez dakit zelan izena eduki duen ba)

gorriunea: gorriunea

intzebaye: intzebagia, eskuetan egiten diren zauri txikerrak

ixerdie: izerdia

"Umea ixerditten dau (Z.)" - (Umea izerditan dago)

kalloa: kailoa, eskuetan eta oinazpietan egiten diren gogortuneak dira

mamiñe: mamia, haragia

markea: orbaina

materie: materia, zornea

"Ganaduena teko, ba olau, sera andie, punte bal baltza, t'onek bestia pa gero, materi botaten dales (Ll.)" - (Ganaduarenak dauka, ba holako, zera handia, punta beltz-beltza, eta beste honek ba gero, materia botatzen denez)

odolbatue: odol batua

pekea: peka, orezta

piltxikede: piltxikada, zimikoa

pustillea: postila, orbaina

"Pustille tosus, ba seusek piketan baotzu, urteta otzue, ba garoak (Z.)" - (Postilak dituzu, ba zer edo zerk pikatzen badizu, irteten dizuten, ba garauek)

saldarra: zaldarra

"Saldarra bai, saldarra kinpule erria imiñieskeron, egun beten edo, kinpulea erre orioagas ta, gero an imiñi tte mendeu, te saldarra sertxen da (Ll.)" - (Zaldarra bai, zaldarra kinpula errea ipiniz gero, egun baten edo, kinpula erre olioagaz eta, gero han ipini eta bendatu, eta zaldarra zertzen da)

sarnea, sarnia: sarna

soldunea: zoldunea

tunturre: tunturra, konkorra

"Ori tunturre lodieri itten dako, en jeneral (Ll)" - (Tuntur hori lodiarri egiten zaio, gehienetan)

txatxamarkadea: txatxamarkada, urratua

tximurre: tximurra

txotorra: begitxindorra, txotorra

"Beste batzuri eperdie ikustearren esaten da baya, beres bere urtetan deu orrek (Ll.)" - (Beste batzuei ipurdia ikustearren esaten da baina, berez ere irteten du horrek) [testu honetan begitxindorrak zergatik irteten duen azaltzen da]

urbatue: ur batua

"Atxurre pere urbatue eskuetan eitten deudea (Ll.)" - (Aitzurrek ere ur batua eskuetan egiten dute)

urrutedea: urratada

1.12. GURARIAK

askurea: hazkura

egarrie: egarria

"A egarrie kentzeko ona san, bai edan arren, e, asunbre erdie nai, e, iru kuartillu edan arren esetzen eraiñik eitten (Ll)" - (Hura egarria kentzeko ona zen, bai edan arren, azunbre erdia nahi, hiru kuartilu edan arren ez zion eraginik egiten)

gosea: gosea

"Yateko ba, kanpoko gausea gitxi yate san, etzeko iste san geyen bat, inyabak, goserik iños berestot pasa nik (A.)" - (Jateko ba, kanpoko gauza gutxi jaten zen, etzekoa izaten zen gehien bat, indabak, goserik inoiz ere ez dut pasatu nik)

kaka larrie: kaka larrria

logurea: logura

"Begiek epelduten dienean, a, ba edo denporala edo, logurea edo (E.)" - (Begiak epeltzen direnean, ba edo denborala edo, logura edo)

txixe larrie: txiza larrria

1.13. LOA

amesetea: ameseta, ametsa

arrosie: aharrausia

beskalostekoa: bazkalostekoa, biao

bidxaua: biao, berba hau Emerandon erabiltzen da

lo: lo

lo ariñe: lo arina

lo gogorra: lo gogorra

lo kukue: lo kukua, lo matua, lo taquia

"Lo kukue da ori (E.)" - (Lo kukua da hori)

lo motela: lo arina, lo motela

lo ostea: lo ostea, lo haserrea

"Bueno ori de kasureko umeak lotaldi ona eintte altzetan badatzus, orduen ba trankil trankil eitten datzus, ta lo gitxi eintte altzetan badatzus, ba umore txarren, eta lo oste txarra deko onek, esaten du guk (Z.)" -

(Beno hori da kasurako umeak lotaldi ona eginda altxatzen bazaizkizu, orduan ba trankil-trankil egiten zaizkizu, eta lo gutxi eginda altxatzen bazaizkizu, ba umore txarrean, eta lo oste txarra dauka honek, esaten dugu guk)

lo surre: lo zuhurra, lo arina

lo surrutedea: zurruna

lotaldie: lotaldia

sieste: biaoa, bazkalostekoa

2. OSASUNA

Atal honetan osasunagaz erlazionatuko berbak aurkezten ditugu. Atala lau azpi-ataletan banatu dugu: gaixoak, sintomak, erremedioak eta kolpeak.

2.1. GAIXOAK

begiko kargea: begiko karga, katarroa dagoenean begietan egiten dena

begiko katarroa: begiko katarroa

beraskoa: beherazkoa, beherakoa

"Umeak, agiñek urtetan deuenean, beti daus, e, orregas, beraskotan (Ll.)" - (Umeak, haginak irteten duenean, beti dagoz, horregaz, beherazkotan)

"Beraskoa kentxeako dxateko sikue dxan biar (At.)" - (Beherazkoa kentzeko jateko sikua jan behar)

biotzekoa, bidxotzekoa: bihotzekoa, bihotzeko gaixoa

bisgoa: begi okerreria

bixidxo, bixioa: bizioa

bixiena: biziena, minbizia

"Bixiena gaixo txarra da (At.)" - (Biziena gaixo txarra da)

bulerrekoa: bularretakoa, alborengoa

elgorrie, elgorridxe: elgorria

"Es, a en jeneralean, e, sera dekola ta etorte san, sera, elgorrie pasatan seuen len ta seoser lotuten saken beti, askori (Ll.)" - (Ez, hura gehienetan, zera daukala eta etortzen zen, zera, elgorria pasatzen zuten lehen eta zer edo zer lotzen zitzaien beti, askori)

"Elgorrie pasteko berotan euki, ta eutzek eta, ta otzittu barik oyan dausela, ta senbet eta gasteautan ariñau pasetan

sakean (Ll.)" - (Elgorria pasatzeko berotan eduki, eta hautsak eta, eta hoztu barik ohean dagozela, eta zenbat eta gazteagotan arinago pasatzen zitzaien)

"Nik, e, ni baño gasteaua esetu dot, ba olan, elgorridxegas, ta estai pa ser eitxe otzen ari, berotan euki edo (At.)" - (Nik, ni baino gazteagoa ezagutu dut, ba holan, elgorriagaz, eta ez dakit ba zer egiten zioten hari, berotan eduki edo)

erasona: erasorena

"Amen euki neuen erasona eintte, eta gero, ba serak, imiñi osten, seraas, e, mendea gogorragas, eta, ori, onek, e, pratikanteak imiñi osten menda bat gogorra, au ondo lotu dat, baya au beste au euki neuen, amabostan, ta esaosten eukixu amar egun giauuen, espabere estotzu ondo, ta oiñ onek, e, sertu itten deu, falleu itten deu, au ondo kurebakoa da (Ll.)" - (Hamen eduki nuen erasoarena eginda, eta gero, ba zerak, ipini ostean, zeragaz, benda gogorragaz, eta, hori, honek, praktikanteak ipini zidan benda bat gogorra, hau ondo lotu zait, baina beste hau eduki nuen, hamabostean, eta esan zidan eduki ezazu hamar egun gehiagoan, ezpabere ez doakizu ondo, eta orain honek, zertu egiten du, huts egiten du, hau ondo osatubakoa da)

gatxa: gaitza, gaixoa

geixoa, gaixoa: gaixoa

"Orrek, e, geixo biek pase ittus, baya ori beste ixena estai pa selan dan (Ll.)" - (Horrek, gaixo biak pasatu ditu, baina beste izen hori ez dakit ba zelan den)

gibelekoa: gibeledakoa, gibeledako gaixoa

"Geure aitxe defuntue on san gibeledakoagas apur beten (At.)" - (Geure aita difuntua egon zen gibeledakoagas apur baten)

gorra: gorrieria, gorra

gripea: gripea

kantzerra, kanserra: biziena, minbizia

"Nerbioana da ori, nerbioana da se, amen atzean, ba, para san bastante txarto, esta? eta, andreak kanserra, t'ordun entzun besan eitten, kanserra eta ba, arnasea bere betetu esiñik, t'orrexek, olan eiñ, ta nerbioak, a, sertute sittusen (Z.)" - (Nerbioana da hori, nerbioana da ze, hamen atzean, ba, paratu zen nahikoa txarto, ezta? eta, andreak biziena, eta orduan entzun ere ez zen egiten, biziena

eta ba, arnasa ere bete ezinik, eta horrexek, halan egin, eta nerbioak, zertzen zituen)

katarroa: katarroa

"Gure amak eitxeuen, katarroa edo samako miñe dauenian, tia, egosi kafian moduen, tia, esta? ta a bero berotan edan (At.)" - (Gure amak egiten zuen, katarroa edo samako mina dagoenean, tea, egosi kafearen moduan, tea, ezta? eta hura bero-berotan edan)

kokaldea: kokalda

kostipedue: kostipadua, marranta

kukurruku estule: kukurruku eztula

"Elgorridxe ta kukurruku estule alkarren atzian ibiltzen sien lenau bere (At.)" - (Elgorria eta kukurruku eztula elkarren atzean ibiltzen ziren lehenago ere)

legana, leana: legana

"Ba neuri nasteko baleskit bueno! dala berenoa garbie, konejuena eta leana (Z.)" - (Ba neuri nahastuko balitzait beno! dela pozoi garbia, untxiena eta legana)

"Leana ganaduk eukitten dure (Z.)" - (Legana ganaduek edukitzen dute)

nafarrerie, nafarreridxe: nafarrerria

"Guk, e, orren kontrako bakunek eitxen gendusen, nafarreridxe esaten gendun te, orren kontrako bakunek eitxen siren (At.)" - (Guk, horren kontrako bakunak egiten genituen, nafarrerria esaten genuen eta, horren kontrako bakunak egiten ziren)

"Nafarrerie, personatan bere bai, tte ganaduen bere bai, biena da bai, emen lenau, e, esetu dodas nik, erropa saltxen ibilte bere bai, ta kanpoti etorritte, osea, kastellanuek, etorrikoak, bayerue pere bai, eta, au asal au, e, yausitte antzean, soltuen eukitteudean, bai, ta esateudean nafarrerie paseukoa tirela (Ll.)" - (Nafarrerria, pertsonetan ere bai, eta ganaduan ere bai, biena da bai, hemen lehenago, ezagutu ditut nik, arropa saltzen ibilita ere bai, eta kanpotik etorrita, hau da, Gaztelakoak, etorrikoak, bahe saltzaileak ere bai, eta, azal hau, jausita antzean, solte edukitzen zuten, bai, eta esaten zuten nafarrerria pasatukoak direla)

osasune: osasuna

pulmonidxe: pulmonia, alborengoa

reume, erreume: erreuma, unorea

tirisie: ikterizia, min horia

unorea: umorea, erreuma

2.2. SINTOMAK

aldie: aldia, eraso, zorabioa

antojue: antojua, nazka

arnasistue, arnasestue: arnasestua

"Arnasestue dekosu (M.)" - (Arnasestua daukazu)

arnasoskea: arnasestua

biorkadea, bidxorkadea: bihurkada

biosganea: bihozganea, urdailaren larritasuna

biosganekoa: bihozgainekoa, urdailaren larritasuna

biotzerrea: bihotzerrea

damistikue: doministikua

dardakadea: dardakada

errebesue: errebesua, gomitua

estule: eztula

"Estule edo katarroa dauenian, tia, olan eitxeuen gure amak, berotu pañelu bet edo seuser, berotute ta imiñi amarreute, ta berotan euki bear da samia (At.)" - (Eztula edo katarroa dagoenean, tea, holan egiten zuen gure amak, berotu zapi bat edo zer edo zer, berotu eta ipini amarratuta, eta berotan eduki behar da sama)

galbanea: galbana, beroak eragindako nekadura

gonbittue: gonbitoa, errebesa

gorputzaldie: gorputzaldia, gorputzaren egoera

"Gorputzaldie, ba tenple txarragas basaus, emen ari esaten dako, gorputzaldi txarra dekot, arexeri tenple txarra edo buruko miñe edo (Z.)" - (Gorputzaldia, ba tenple txarragaz bazagoz, hemen hari esaten zaio, gorputzaldi txarra daukat, harexeri tenple txarra edo buruko mina edo)

gorroa: gorroa

"Gorro deko barrun lotute (Bi.)" - (Gorroa dauka barruan lotuta)

ikerea: ikara, dardara

infesiñoa: zoldura

inyarra, inyerra: indarra

kalenturea, kalenturia: sukarra, kalentura

"Kalenturia, eukitten seurenean, e, ba, alkola kadera aspian, galtzerdie busti busti intte

t'alkola imiñi (Ll.)" - (Kalentura, edukitzen zutenean, ba alkohola oin azpian, galtzerdia busti-busti eginda eta alkohola ipini)

kaltea: kaltea

larrie: larria, larritasuna

larrittasune: larrittasuna

"Nerbioakas, ba ori paraten da, ta gero ori, ori paseu artean, ba olantxe dau, penakas ta larrittasunek eta serak, eta nik neuk ori dekotelakoa dekot, e, gure neskatoari esan baño estau, ak esango leke, baya seure burutasune paya, ori, len bere euki ot olau sera, esta? eta nik neuk orixe dekotelakoa dekot, eta medikuek estotzue topetan (Ll.)" - (Nerbioakaz, ba hori paratzen da, eta gero hori, hori pasatu artean, ba holantxe dago, minakaz eta larritasunak eta zerak, eta nik neuk hori daukadalakoa daukat, gure neskatoari esan baino ez dago, hark esango luke, baina zeure burutasunak baina, hori, lehen ere eduki dut holako zera, ezta? eta nik neuk horixe daukadalakoa daukat, eta medikuek ez dizute topatzen)

lau dardan: lau dardan, dardakadaka

lausoa, lausue: lausoa

miñe: mina

"Oridxo aputxu bet eron etzeti ara (Arrietara) ta ango, ba oridxotara bota, ta nasteu te, bereinketukoa dau an, bota gero botilletxure ta etzera ekarri, eta a gero miñe dauenian, belarridxen, ollo lumetxuegas edo, eitxen san (At.)" - (Olio apurtxo bat eroan etxetik hara (Arrietara) eta hango, ba oliotara bota, eta nahastu eta, bedeinkatuta dago han, bota gero botilatxora eta etxera ekarri, eta hura gero mina dagoenean, belarrian, oilo lumatxoagaz edo, egiten zen)

mokoa: mokoa, mukia

nekea: nekea

odol lodie: odol lodia

odol mea: odol mehea

otzikerea, otzikeria: hotzikara

"Dana tire bardiñ antzekoak, e, otzikeria etorten dakea (M.)" - (Denak dira berdin antzekoak, hotzikara etortzen zaie)

penea: mina

takadea: taupada

tenplea: gorputza edo lurraren egoera, tenple ona, tenple txarra

tenple txarra: gorputzaldi txarra

tentziñoa: tentsioa

"Asunen ure da ona, ba, tentziñoantzako (Ll.)" - (Asunen ura da ona, ba, tentsioarentzat)

"Emetik eron eitte oskuen tentziñoantzako ta (T.)" - (Hemendik eroan egiten ziguten tentsioarentzat eta) [moko bedarraren gainean dabil]

txakurrestule: txakur-eztula

txokiñe: zotina

2.3. ERREMEDIOAK

alkola: alkohola

begiskoanes: begizkoa

belarriko miñe: belarrietako mina

"Bai egoten da baya, estaitt, e, balio badeu, yoan, eitten gintzesan baya, segun ori selau naturalesekoa dan belarriko miñe bere, belarriko miñe, ba gure sarrenak, txiki txikitxuten, sei illebetas edo, etor san olantxe, emeko Beñekabarreneko gixon bat, euntzek saltxen gendusen guk orduen, ta etorte san etzera, ba euntzegaittik edo olan, e, yayo eurrean edo ta, umia negar ta negar, ba tripetako miñe pere eseuen eukitten baya, olan sertu eitten seuen eskue gorantza iñ, txikerra dala, eta esaosten, e, gixon batek se, orrek belarriko miñe dekotzu Mari, selau belarriko miñe? ba on da ointxe puntu beten ta, momentu beten ixilik egote san ta, gero asten san ta lotu bere esan eitten, orreri eitzesu, orioa, errea, esaosten ta, orioa erre, eta gero epelduten danean guatetxueagas bota, eta ainbet denporan egon san ixili paya, ak ostantzean euki sera ta, atzera etorten sakon, egun bien edo on san olantxe, ta gero pasa sakon (Ll.)" - (Bai egoten da baina, ez dakit, balio duen, joan, egiten ginen baina, segun hori zelako naturalezakoa den belarriko mina ere, belarriko mina, ba gure zaharrenak, txiki-txikitxotan, sei hilabetegaz edo, etorri zen holantxe, hemengo Meñakabarreneko gizon bat, ahuntzak saltzen genituen guk orduan, eta etortzen zen etxera, ba

ahuntzagatik edo holan, jaió aurrean edo eta, umea negar eta negar, ba tripetako minak ere ez zituen edukitzen baina, holan zertu egiten zuen eskua gorantz egin, txikerra dela, eta esan zidan, gizon batek ze, horrek belarriko mina daukakizu Mari, zelako belarriko mina? ba egon da oraintxe puntu baten eta, momentu baten isilik egoten zen eta, gero hasten zen eta lotu ere ez zen egiten, horri egiozu, olioá, errea, esan zidan eta, olioá erre, eta gero epeltzen denean guatetxoagaz bota, eta hainbat denboran egon zen isilik baina, hark osterantzean eduki zera eta, atzera etortzen zitzaion, egun bian edo egon zen holantxe, eta gero pasatu zitzaion)

"Orio berotu te, apur bet epeltan danean, a ein gero, ta pasetan san (Ll.)" - (Olioá berotu eta, apur bat epeltzen denean, hura egin gero, eta pasatzen zen)

"Belarriko miñe edo egoten basan igual, ba orixe orio epeltxue (At.)" - (Belarriko mina edo egoten bazen beharbada, ba horixe olio epeltxoa)

"Ori itzela gure sarrenak, ba geuek gustiek eitten sittusen, sokorruke belarriko miñeas (Ll.)" - (Hori itzela gure zaharrenak, ba gauak guztiak egiten zituen, alarauka belarriko minagaz)

berakas kordia: berakatz korda

botikea: botika, medikamendua

botike gorrie: botika gorria, zaurietan eta ematen den botika gorria

enplastue: enplastoá

erremedioa, erremedioxo: erremedioá

"Orrek estekotzue erremediorik (Ll.)" - (Horiek ez daukakizute erremediorik)

etze erremedioa: etxe erremedioá

gripeá, gripiá: gripeá

"Asunekas yo, ta gorri gorri itten san, ta pasa itten san gripiá t'olan (Ll.)" - (Asunakaz jo, eta gorri-gorri egiten zen, eta pasatu egiten zen gripeá eta holan)

"Gripe edo olan, koisten basendun edo, esate seuen esne bero koñak aputxu betegas ta oira sartu (A.)" - (Gripeá edo holan, hartzen bazenuen edo, esaten zuen esne beroa koinak apurtxo bategaz eta ohera sartu)

ikoesnea: iko esnea, gariak kentzeko erabiltzen izan da

indesiñoa: injekzioá

"Ba medikue etor san etzera, eta esan seuen base, seuok konforme basaria, ill edo bixiko indesiño emon ber tzet, ta egon sales total txarto, ba esan geuntzen, emoixu, ta goxeko bostatan etor san gero, ba ia selan dauen, ta orduen ondo dauela esan seuen, a ordun grabedadea pasa dako, ta alan apurke-apurke (Ll.)" - (Ba medikua etorri zen etxera, eta esan zuen baze, zeuok ados bazarete, hil edo biziko injekzioá eman behar diot, eta egon zenez guztiz txarto, ba esan genion, emaiózu, eta goizeko bostetan etorri zen gero, ba ea zelan dagoen, eta orduan ondo dagoela esan zuen, orduan grabedade hura pasatu zaio, eta halan apurka-apurka)

kurea: osaketa, sendaketa

labatibea: labatiba

lurrune: lurruna

medikamentue: medikamendua

plegasiñoa: fregazioá, igurtzialdia

"Gure aitte defuntuek asunekas, artxe seuen beti, plegasiñoa (Ll.)" - (Gure aita defuntuak asunakaz, hartzen zuen beti, fregazioá)

sanatenes: zaintiratua

"Sanatenes, e, galtzerdi, seragas, laneagas, eitten seuden, firue, ta firue eikeran, eurekas orrotzakas, olan eukitten seuden, au, eta olan eiñ, gero onetara, onetara kurtzeak eiñ (Ll.)" - (Zaintiratua, galtzerdia, zeragaz, artileagaz, egiten zuten, firua, eta firua egikeran, eurakaz orratzakaz, holan edukitzen zuten, hau, eta holan egin, gero honetara, honetara gurutzak egin)

"Nire ixeko batek sanatenes eitte seuen (A.)" - (Nire izeko batek zaintiratua egiten zuen)

"Sanatenes da ori (Ll.)" - (Zaintiratua da hori)

"Santiretu sana urrutu sana bere lekuen sartu (A)" - (Zain tiratu zaina urratu zaina bere lekuan sartu)

"San urrutu, san tiretu sana bere lekun sartu (Ll.)" - (Zain urratu, zain tiratu zaina bere lekuan sartu)

unturea: ukentua

urdillena: urdailena

"Bai urdillena, urdillena itte? aur bian on da mutil bet, t'urdillena ei de, emen sille dekun lekuen, e, amontonetan ei dire,

nerbioak, eta aik nerbioak olan koyu, eta bera bajetute, bera bajetute, ori famoso ixen da, e? eta imintten dure, orioagas eitten dure alan, onetara bajetan dure, orkoroakas (Z.)" - (Bai urdailena, urdailena egitea? haor behean egon da mutil bat, eta urdailena ei da, hemen zila daukagun lekuan, pilatzen ei dira, zainak eta zain haiek holan hartu, eta behera bajatuta, hori ospetsua izan da, e? eta ipintzen dute, olioagaz egiten dute halan, honetara bajatzen dute, erkoroakaz)

"Urdillena ba olan sertxen deude, olan, alderdi betera edo olan, alderdi bietatik, sertu, baya miñ eitten deu, e? eta, paseu itten san (Ll.)" - (Urdailena ba holan zertzen dute, holan, alderdi batera edo holan, alderdi bietatik, zertu, baina min egiten du, e? eta, pasatu egiten zen)

"Nire aman osaba bat, ya il san, ortxe, orreri jente asko etorte sakon, urdillena itten edo (A.)" - (Nire amaren osaba bat, ja hil zen, hortxe, horri jente asko etortzen zitzaion, urdailena egiten edo)

2.4. KOLPEAK

alboskadea: bultzakada

belarrondokoa: belarriondokoa

bernatakoa: bernetakoa

besokoa: besokoa

betondokoa: betondokoa

bultzeskadea: bultzakada

dragoa: kolpea

"Be txarra euki deuelako, edo berak enbragea txarto euki deuelako edo, ori dragoak emoten yoan da (Ll.)" - (Behe txarra eduki duelako, edo berak enbragea txarto eduki duelako edo, hori dragoak ematen joan da)

eperdikoa: ipurdikoa

espanatakoa: ezpainetakoa

golpea: kolpea

"Dragoa da golpe bat emotea les, osea kasureko, eitten dot, ene seaitti diñosu ori drago ori? (Ll.)" - (Dragoa da kolpe bat ematea legez, hau da kasurako, egiten dut, ene zergatik dinozu drago hori?)

kokotekoa: kokotekoa

musturrekoa: muturrekoa

ostikede: ostikada

"Poperreka ori de ostikede etxatea (K.)" - (Popaerreka hori da ostikada botatzea)

plastadea: zaplastada

sapladea: zaplada, zaplastada

sartadea: zartakada

surtzilloatakoa: sudurtzuloetakoa

txaloea: txaloea

txankatakoa: txanketakoa

ukubilkadea: ukabilkada

3. FAMILIARTEKOAK

Atal honetan familia eta familia hartuemonei dagozkien berbak biltzen ditugu. Berbak hobeto sailkatzeko, atal honen azpi-atalak familia bera, senideak, familia erlazioak eta adin erlazioak izango dira.

3.1. FAMILIA

aiste: ahizta, ahizpa

"Neure aisteak euki ueles orreaitti tiñot, baya ori kendu itten dako (Z.)" - (Neure ahiztak eduki zuenez horregatik dinot, baina hori kendu egiten zaio)

aitte, aitxe:aita

"Amen on siren aitxe semeak eta osaba bat (K.)" - (Hamen egon ziren aita-semeak eta osaba bat)

aittite, attitte, aitxitxe: aिता

"Gure aittite san, ba, barberue, an (Z.)" - (Gure aिता zen, ba, bizargina, han)

"Baya orrek emekoak, oingoa pere badakie, aitxitxe ta amama yoan dire egurretan, askoria galdute, asarratu dire, orre pai oingoa pere badakitzues (M.)" - (Baina horiek hemengoek, oraingoek ere badakite, aिता eta amama joan dira egurretan, aizkora galduta, haserretu dira, horiek bain oraingoek ere badakitzues)

aitxeamak, aitteamak: aita-amak, gurasoak

"Gure aitxeama defuntuek, e, eroteuden plasara, ta saldu itxeudean" - (Gure guraso defuntuek, eroaten zuten plazara, eta saldu egiten zuten)

alabea, alabia: alaba

"Ak eseuen euki alabarik, seme bat euki euen ak (E.)" - (Hark ez zuen eduki alabarik, seme bat eduki zuen hark)

ama: ama

"Amagas etorte sien aik, e, gaue emoten ona (A.)" - (Amagaz etortzen ziren haiek, gaua ematen hona)

"Nik eneuen euki amarik (Em.)" - (Nik ez nuen eduki amarik)

amoma, amuma, amama: amama

"Amoma defuntiak esate seuen gelia (M.)" - (Amama zenak esaten zuen gela)

"Amama egote san beti a kantetan ta, guste itxen saten ba (M.)" - (Amama egoten zen beti hura kantatzen eta, gustatu egiten zitzaidan ba)

anayea, anaidxia, anadxia: anaia

"Gure anadxiak ni paño esne gedxau atarate otzo ganadueri (M.)" - (Gure anaiak nik baino esne gehiago ateratzen dio ganaduari)

andra gixonak: andra-gizonak

andrea: andrea, emaztea

"Seiñ etzetakoa da sure andrea? (Z.)" - (Zein etxetakoa da zure andrea?)

arrabea, arrebea: arreba

"Arraba bi oniñokarren neues egon siren ta ama (E.)" - (Arreba bi oraindikarren neugaz egon ziren eta ama)

"Gure arraba sarrena eskondu san Fikera (E.)" - (Gure arreba zaharrena ezkondu zen Fikara)

birlobea: birloba

birraititte, birraitxitxe: birraitaita

birramoma: birramama

familie, famelie: 1. familia, senideartekoak. 2. semealabak

"Segatxik? ba famelirik es edo ill edo seuser eingo balitxike atzera euki deyan legea (M.)" - (Zergatik? ba familiarik ez edo hil edo zer edo zer egingo balitz atzera eduki dezaten legea)

gixona: gizona, senarra

"Nire gixona begi suri da (Bi.)" - (Nire gizona begi zuria da)

gurosoak, guresoak: gurasoak

lobea: iloba

nebarrebak: neba-arrebak

"Nebarrebakas egote nitzenen, danori erdiñ imiñi, ta ala! antik gauen afarie (A.)" - (Neba-arrebakaz egoten

nintzenez, denori erdian ipini, eta hara! handik gauean afaria)

nebea: neba

"A etzea gero Josek erosi euen, se a ixen san nebarik sarrenana (E.)" - (Etxe hura gero Josek erosi zuen, ze hura izan zen nebarik zaharrenarena)

semea, semia: semea

"Nire semea pere ogetamar urte dekos sarrenak ya (A.)" - (Nire semeak ere hogeita hamar urte dauzka zaharrenak honezkerok)

semealabak: seme-alabak

3.2. SENIDEAK

bigarren lengusue: bigarren lehengusua

etzekoartekoa: etxe-artekoa

familiarra: familia-artekoa, ahaidea, senidea

familiartekoa, fameliartekoa: familia-artekoa

ixekoa: izekoa

"Ni, ba ixeko batzukes bixi nitzen, eta igual, esnekas yoate siren Bilbora, ta igual ekarte seuren, lantzen beiñen naranjak edo platanuk, eta ori ixeta san gause andi bateles (A.)" - (Ni izeko batzuekaz bixi nintzen, eta beharbada, esneakaz joaten ziren Bilbora, eta beharbada ekartzen zuten, lantzean behinean laranjak edo platanuak, eta hori izaten zen gauza handi baten legez)

lengusiñe: lehengusina

"Atzo egon da gixon bat neure lengusiñenian or bian (Em.)" - (Atzo egon da gizon bat neure lehengusinarenean hor behean)

"An egon siren, an, a, aistea euki euen nire enbra defunteak eta, an egon siren, artean bere egonta baya gero egon san, ba lengusiñe (E.)" - (Han egon ziren, han, ahizta eduki zuen nire andre difuntuak eta, han egon ziren, artean ere egonda baina gero egon zen, ba lehengusina)

"Butroin nik errena dekot, eta errenan, aman lengusiñe (Z.)" - (Butroen nik erraina daukat, eta errainaren, amaren lehengusina)

lengusue: lehengusua

"Pasa dan, e, astean euki du lengusu beten entierrue, serean, Gamisen, ta an egon gara ta gero domekan ostabere mesea

egon da ba ta, mesatik urten ta an egon gares, eta, pastorea ta andrea etor direz (E.)" - (Pasatu dan, astean eduki dugu lehengusu baten enterrua, zerean, Gamizen, eta han egon gara eta gero domekan ostera bere mezea egon da ba eta, artzaina eta andrea etorri dira)

lobea: loba

"Lobeari emon tzet (M.)" - (Lobeari eman diot)

"A dau nire lobeas eskondute (E.)" - (Hura dago nire lobagaz ezkondata)

osabea: osaba

"Neu, e, osabeas yoate nitzen korrittan (T.)" - (Neu, osabagaz joaten nintzen korritzen)

pariente: senidea, ahaidea

parienteartekoa: senide-artekoa

tia : izekoa

tio : osaba

3.3. FAMILIA ERLAZIOAK

aisteordea, aisteordekoa: ahiztaordea

aittebitxi, aitxebitxi: aitabitxi

"Aitte, eta amabitxi eta aittebitxi yoaten siren, ta beste lagun bet eusoko enbrea edo ba, a bere yoate san (LL.)" - (Aita, eta amabitxia eta aitabitxia joaten ziren, eta beste lagun bat auzoko andrazkoa edo ba, hura ere joaten zen)

aitteordekoa, aitxeordekoa: aitaordea

aittiteordea: aitaitaordea

"Eta ori aurrekoa ieudean ordeas, Jenaro Enderika deritxon batek, a ixen san usaba ta, año dozean, eta nire aittiteordea, bigarrenes nire amomagas eskondute on san, e, Migel Andi esateutzeana, ta ari entzutea neuken nik, an urten lapurrek, t'atzian segidu, onarte ta koyu es, altu san bera ta ajille, eta idi utzela atea, andria begire egon sala ta ortxe bertan asi sen sutean, eta astillek ein tte yaurti eitten saittun alderdi gustietara lapurre sartuteko or badau, osea, geu baten beres iñon seguru, iñor emen asaokorik danean, ganian ixetan siren, baya geyenak errikoak, e? (LL.)" - (Eta aurreko hori egin zuten ordeaz, Genaro Enderika deritzon batek, hura izan zen uzaba eta,

hamabigarren urtean, eta nire aitaitaordea, bigarrenez nire amamagaz ezkondata egon zen, Migel Handi esaten ziotena, eta hari entzutea neukan nik, han irten lapurrek, eta atzean segitu, honaino eta hartu ez, altua zen bera eta bizkorra, eta ireki ziola atea, andrea begira egon zela eta hortxe bertan hasi zen suetean, eta ezpalak egin eta jaurti egiten zituen alderdi guztietara lapurra sartzeko hor badago, hau da, gau baten ere ez inon ziur, inor hemen asagokorik denean, gainean izaten ziren, baina gehienak herrikoak, e?)

alabaordea: alabaordea

amabitxi: amabitxi

amaordekoa, amaordea: amaordekoa

anayordea, anaidxordea: anaiordea

andraskoa: andrazkoa

arribaordekoa, arribaordea: arribaordea

aubea, eubea: aubea, amaginarreba

besoatakoa, besotakoa: besoetakoa

errana, errena: erraina

"Au nire errena bixi dan lekuen, serean, Derion, bueno, arean moduko lurre, esparrague be koiteko moduko lurre (Z.)" - (Hau nire erraina bizi den lekuan, zerean, Derion, beno, harearen moduko lurra, zainzuria ere hartzeko moduko lurra)

"Errenak sei t'erdittan urtetan deu bearrera (Z.)" - (Errainak sei t'erdietan irteten du beharrera)

errangeye: erraingaia

esneko ama: esneko ama

"Gero bai, a, ote siren kasuek, ba lotxe san igual ama barik ume bat, edo eseun eukitten titirik igual amak, eta oingoko modun, a, farmasietan t'onetan esien oten umek asteko, adelanturik esan oten, t'ordun beste ama baten ba, bularraas, aste san umea, orreri esate otzen ba esneko ama, geure ama defuntek asi eun olan (At.)" - (Gero bai, egoten ziren kasuak, ba lotzen zen beharbada ama barik ume bat, edo ez zuen edukitzen titirik beharbada amak, eta oraingoko moduan, botiketari eta hauetan ez ziren egoten umeak hazteko, aurrerapenik ez zen egoten, eta orduan beste ama baten ba, bularragaz, hazten zen umea, horri esaten zioten ba esneko ama, geure ama difuntuak hazi zuen holan)

giñarrabea, giñarrebea: aitaginarreba

"Au Txomiñen giñarrabea, onen gurrarrabek eta orrek, alto iotzen (E.)" - (Txominen aitagarreba hau, honen aitagarrebak eta horiek, alto egin zioten)

koñatea, koñetea: koinata

"Koñate ixeneuen beran alabea, ta dot geur bere bixi de (Ll.)" - (Koinata izan nuen beraren alaba, eta dut gaur ere bizi da)

koñatakie: koinatagaia

koñatue, koñetue: koinatua

"Estot igertan, nik koñetu dekot Katikekoa bere bai (A.)" - (Ez dut igartzen, nik koinatua daukat Gatikakoa ere bai)

koñatukie: koinatugaia

nebaordekoa, nebaordea: nebaordekoa

semeordea, semeordekoa: semeordea

suegreia: amagarreba

suegroa: aitagarreba

suingeye, sungeye: suhingaia

suñe, suñe: suhina

umesurtze: umezurtza

"Artean egon san emen abade bat, e, estaipa, Juan Angel edo selan ixena euki euen, eron gure ixen nendun Gernikera, eskolak emoten, Benar t'orrek egon siren or, orrek an, umesurtz, orrek ixen siren (E.)" - (Artean egon zen hemen abade bat, ez dakit ba, Juan Angel edo zelan izena eduki zuen, eroan gura izan ninduen Gernikera, eskolak ematen, Bernar eta horiek egon ziren hor, horiek han, umezurtz, horiek izan ziren)

urikoa: hurikoa, huritik hartzen den umea

"Urikoa da, oiñ ospisioti ekarriko esate otzegune (K.)" - (Hurikoa da, orain huritik ekarrikoa esaten dioguna)

3.4. ADIN ERLAZIOAK

agurea: agurea

"Ba abarka pai esetu dodas eitxen, abarkak motorran gurrillen, e, motorran gurpillegas gastetxuentzat, eta eutomobillenagas sarrantzako eitxen seitxuen, umeantzako ta olan motorrenagas gure beste aldean ori itxen seuen agurea (M.)" - (Ba abarkak bai ezagutu ditut egiten, abarkak

motorraren gurrilaren, motorraren gurrilagaz gatzetxoentzat, eta automobilarenagaz zaharrentzat egiten zituen, umeentzat eta holan motorrarenagaz gure beste aldean hori egiten zuen agurea)

agure sarra: agure zaharra

andrea: andrea, andrazkoa, emakumea

"Gure eusoan on san, andratxu bet, ba ori len esan dotena narruegas, ardi narrue edo estaipa ser ixen san, ba a sertu itxe san bigundu, bustieskero papelan moduen bigun bigun pareta siren orrek, sikue dauenean ondo baya, euri itxen daueneko ta olan esiren serak ixetan (M.)" - (Gure auzoan egon zen, andretxo bat, ba hori lehen esan dudana narruagaz, ardi narrua edo ez dakit ba zer izan zen, ba hura zertu egiten zen bigundu, bustiz gero paperaren moduan bigun-bigun paratzen ziren horiek, sikua dagoenean ondo baina, euri egiten dueneko eta holan ez ziren zerak izaten)

angerue: ume txikia, lehen jaunartzea egin artekoa

atzoa: atsoa

atzoagurek: atso-agureak

atzo sarra: atso zaharra

bikotie: bikotia

bikotzak: bikoitzak

enbrea: 1. andrazkoa. 2. andrea, emaztea

"Kalerik kale bere bai, ibiltzen siren, ba etzerik etze bere bai, or Santutzitxi bere etorte siren ona sardiñek saltxean, e? ta otzarea buruen deula ta oñutzik enbrak (K.)" - (Kalerik kale ere bai, ibiltzen ziren, ba etzerik etxe ere bai, hor Santurtzititik ere etortzen ziren hona sardinak saltzen, e? eta otzara buruan duela eta oinutsik andreak)

"Gizona ona ixen san, baya enbrea okerra! (E.)" - (Gizona ona izan zen, baina andrea okerra!)

"Aitxu selan egon garan, e? gu selan egon garan, esklaba batzuk ixen gara gu, geur arte, esklabak ixen dire enbrak, ta gizonak ixen dire erregeak (M.)" - (Aitu zelan egon garen, e? gu zelan egon garen, esklabu batzuk izan gara gu, gaur arte, esklabu izan dira andrazkoak, eta gizonak izan dira erregeak)

"Eta enbra koitxedak ser eingo seudian? eser beres, ta gero eskondu in biar, se gizona bear gendun guk biximodue eroteko,

ostantzean eskondu beres, sue lau sueldu euki bagendun eskondu beres (M.)" - (Eta andrazko koitaduek zer egingo zuten? ezer ere ez, eta gero ezkondu egin behar, ze gizona behar genuen guk bizimodua eroateko, osterantzean ezkondu ere ez, zuen lako soldata eduki bagenuen ezkondu ere ez)

enbraskoa: andrazkoa

gixona: gizona

morroya: morroia

morroskoa: morroskoa, morroia

mutikoa, mutilkoa: mutikoa

mutil bardingoa: mutil berdingoa, ertaina
"Mutil bardingoa danak gero gabonak pasetan sirenian, ta atarikoakas (At.)" - (Mutil berdingo denak gero gabonak pasatzen zirenean, eta haietarikoakaz)

mutil bordoa: mutil bordoa, mutiloak

mutil makarra: mutil makarra, mutil berdingoa

"Gure aittitte, nik enendun esetu, baya karlistadan ibillitte, an ibilliko arma pere on dires gurean, baya neu mutil makartxue nasela, bakitt selan txatarreruek eron sittusen (E.)" - (Gure aittaita, nik ez nuen ezagutu, baina karlistadan ibilita, han ibiliko armak ere egon dira gurean, baina neu mutil makartxoa naizela, badakit zelan txatarreruak eroan zituen)

mutille: 1. mutila. 2. mutil zaharra

"Mutillek es, mutillik egon beres, neskato pakarrik (A.)" - (Mutilak ez, mutilik egon ere ez, neskatoak bakarrik)

"Ori da mutillik gasteena (Z.)" - (Hori da mutilik gazteena)

neskea: neska

"Or beko etzeko, neskea yosten etorten san ona makiñegas, ta berandutxurarte edo, berandu esan baya, makiñea bertan itxitte yoan san urrengo egunean etorteko, ta axeri bere da! urteutzen (Ll.)" - (Hor beheko etzeko, neska josten etortzen zen hona makinagaz, eta berandutxora arte edo, berandu ez zen baina, makina bertan utzita joan zen hurrengo egunean etortzeko, eta haxeri ere da! irten zion)

neska bardingoa: neska berdingoa

neskamutillek: neska-mutilak

neskatillea: neskabila

"Iguar dekosu amabi amairu urtekoa ta, batortzu bisitte bat itten etzera, eta ori edadekoa baikosu, neskatile itzela dekosu, e? (Z.)" - (Beharbada daukazu hamabihamahiru urtekoa eta, badatorkizu bisita bat egiten etxera, eta hori edadekoa badaukazu, neskabila itzela daukazu, e?)

neskatoa: neskatoa

"Neskatoan lagunak ixetan siren edo, ba, beran lagunak, seuser ixena eukiko euden baya, ni enas akordaten (E.)" - (Neskatoaren lagunak izaten ziren edo, ba, beraren lagunak, zer edo zer izena edukiko zuten baina, ni ez naiz gomutatzen)

"A surrau ixen san, a neskato gustiekas yoate san mendire (T.)" - (Hura zuhurragoa izan zen, hura neskato guztiakaz joaten zen mendira)

oyaleko umea, odxaleko umia: oihaleko umea

saspikie: zazpikia

señe: seina

"Ni seña ixenas, oñikarren banas, bai baya sarra ixenta bere, a seña da (Bi.)" - (Ni seina izan naiz, oraindikarren banaiz, bai baina zaharra izanda ere, hura seina da)

umea: umea

"Ume bi etor dire (Z.)" - (Ume bi etorri dira)

ume bardingoa: ume berdingoa

ume gorrie: ume gorria

ume mokoa: ume mokoa

4. ELIKADURA

Atal honetan giza elikaduraren gainean jasotako berbak biltzen ditugu. Berbok azpi-ataletan banatzea erraza ez den arren, azpi-atal batzuk egiten ahalegindu gara, irakurketa erraztekoan. Azpi-atalok, jatorduak, hastekoak, okela, txerrikia, arraina, arrautzak, ogia, esnea-gaztaia, gozokiak-postreak, eta edariak dira.

4.1. JATORDUAK

afarie: afaria

afari kopue: avari kopua

"Leku batzuten aulan eitxe san ta beste batzuten ba avari kopue dxan ta etzera

(L.)" - (*Leku batzuetan haolan egiten zen eta beste batzuetan ba afari kopua jan eta etxera*)

amakatakhoa: hamaiketakoa

"Ba egurdaten, egurdaten orixe yaten basan, orixe esan dotena, bearrak eintte osten, ba ori amakatakhoa edo (A.)" - (*Ba eguardiar-tean, eguardiar-tean horixe jaten bazen, horixe esan dudana, beharrak egin eta ostean, ba hori hamaiketakoa edo*)

armosue: armozua, gosaria

baraue: baraua

baraustekoa, bareustekoa: barauskarria

"Baraustekoa goxean, lelau edaten dan kopeari (At.)" - (*Baraustekoa goizean, lehenago edaten den kopari*)

berinye, beridxendea: beriendia, askaria

beskarie: bazkaria

kopue: kopua, mokaua

"Kopu bet? ba ori koite osu, ba ogi sati bet eta gastai sati bet, edo ba txorixo sati bet eta ogi sati bet, t'axe yan, kopu bet eiñ, ta arda u tragu bet edan (Z.)" - (*Kopu bat? ba hori hartzen duzu, ba ogi zati bat eta gastai zati bat, edo ba txorizo zati bat eta ogi zati bat, eta huraxe jan, kopu bat egin, eta arda u zurrutada bat edan*)

meriendea: askaria

yana, dxana: jana

yanarie, dxanarie: janaria

yatekoa, dxatekoa: jatekoa

"Yatekoa imin yot berotan (Z.)" - (*Jatekoa ipini dut berotan*)

yatordue, dxatordue: jatordua

"Akordate nasena bere, iltten sanean bat, ba yatordue itte san, iltten sanean, ba, yatordue itten san, a, famili gustie ta albokoakas ta, eta yate san, ba inyabak eta gixedue ta olan (T.)" - (*Gogoratzen naizena ere, hiltzen zenean bat, ba jatordua egiten zen, hiltzen zenean, ba, jatordua egiten zen, familia guztia eta albokoakaz eta, eta jaten zen, ba indabak eta gisatua eta holan*)

4.2. HASTEKOAK

arrosa: arroza

"Eta dana nastetan, ta guk es ostera, guk beti in yu, kinpulea, porrue eta arrosa, t'odola (Z.)" - (*Eta dena nahastean, eta guk ez ostera, guk beti egin dugu, kinpula, porrua eta arroza, eta odola*)

basie: bazia, plateretan jaki batzuekaz egiten den saltsa

berakas sopea: berakatz-zopa

"Berakas sopa, berakatzagas, ogi sikue, ogiñ asalagas, e, berakas sopea berakatz franko, e? askogas (La.)" - (*Berakatz-zopa, berakatzagaz, ogi sikua, ogiaren azalagaz, berakatz-zopa berakatz franko, e? askogaz*)

berdurea: berdura

"Berdurea yaten dot lodittu esitteko (Z.)" - (*Berdura jaten dut ez loditzeko*)

biñegrea, biñegria: ozpina

"Guk beti biñegriagas emon tzegu (Z.)" - (*Guk beti ozpinagaz eman diogu*)

bitze: bitsa

bustikoa: bustikoa, bazia

ensaladea: entsalada

"Ensalade be orixe esan yaten lar, olan tomatena ta, letxugea igual bai (A.)" - (*Entsalada ere horixe ez zen jaten lar, holan tomatearena eta, letxuga beharbada bai*)

fideo sopea: fideo zopa

garbantzue: garbantzua

"Sopea, ba domekatan garbantzuk eitten sirenen, ta berakas sopea bere bai itte san, gauetarako ori, lantzen beiñen (A.)" - (*Zopa, ba domeketan garbantzuak egiten zirenean, eta berakatz-zopa ere bai egiten zen, gauetarako hori, lantzean behinean*)

gatza: gatza

gindillea: piper mina

gixedue: gisatua, sukalkia

"Guk, a, batzuk eitten sittuesan, gibela kasureko, ba, armosten sati bet yaten san, se txarrie ill, eta gibela lelengo kendu eta eiñ, a, tajadak, kinpule partide bat, a, prijidu, eta ba tajada metxuk eiñ, eta an, ein gero gibela, eta sobrak, gibelanak, satiek, ba eitten gendusén, bekosuen, ein sue bean, esta? eta, seragas, onekas, a, orduen, oiñ estaus, se mukurrik estau oiñ, oiñ, a, bekosurik estau, eta artia edo orretarikoak eukittueles txinger beroa, atara eta parrillen imiñi, eta an erre, a gibela, eta an buelta bi edo iru emon eta

gero patatakas gixeduen imiñi (Z.)" - (Guk, batzuek egiten zituzten, gibela kasurako, ba, gosaltzen zati bat jaten zen, ze txerria hil, eta gibela lehenengo kendu eta egin, xerrak, kinpula partida bat, frijitu, eta ba xerra mehetxoak egin, eta han, egin gero gibela, eta hondakinak, gibelarenak, zatiak, ba egiten genituen, beheko suan, egin sua behean, ezta? eta, zeragaz, hauekaz, orduan, orain ez dagoz, ze mukurrik ez dago orain, orain, beheko surik ez dago, eta artea edo horietarikoak edukitzen zuenez txingar beroa, atera eta parrilan ipini, eta han erre, gibel hura, eta han buelta bi edo hiru eman eta gero patatakaz gisatuan ipini)

grasa: koipea

inyaba gorrie, indaba gorrie: indaba gorria

inyaba lapikoa: indaba lapikoa

inyaba saldea: indaba salda

inyaba surie, indaba surie: indaba zuria

koipea: koipea

"Bai, bai tripek gero, aparteu koyu este printzipala, ta ra ra ra ra, este printzipala koiten badotzu bueltara, bueltara, bueltara, este gustie apartan dosu, eta este artekoa lotxen da an, koipek (Z.)" - (Bai, bai tripak gero, apartatu hartu heste nagusia, eta ra-ra ra-ra, heste nagusia hartzen badiogu bueltara, bueltara, bueltara, heste guztia apartatzen duzu, eta heste artekoa lotzen da han, koipeak)

kosiñea: sukaldaritza

lapikokoa: lapikokoa

lentejea: lenteja

nardakea, nardakia: nardaka, plateretan eta lapikoetan erantsita lotzen den hondakina

"Orixe da nardakea, ganekoa (La.)" - (Horixe da nardaka gainekoa)

ogi sopea: ogi zopa, ogiagaz egiten den zopa

ollosaldea: oilo salda

ondakiñe: hondakina, hondarra

ondugarrie: ondugarria, lapikokoa ontzeko botatzen diren txerrikiak

"Orrexek tire ondugarriek (Z.)" - (Horiexek dira ondugarriak)

orioa, oridxo: olio

"Bai, andittute egoten da, barruen ure dauela baya orrentzako sera da, ori itten danean, ba, orioa edo, ba lejiagas pasatea da ona (Ll.)" - (Bai, handituta egoten da, barruan ura dagoela baina horrentzat zera da, hori egiten denean, ba, olio edo, ba lixibagaz pasatzea da ona)

orio asea, oridxo asea: olio aza

pistola sopea: pistola zopa, pistola deritzon ogiagaz egiten den zopa

porrusaldea: porru salda

saldea: salda

salda garbie: salda garbia

"Salda garbie, ollogas eiñekoa, len famili ixete seudenen andrak, ba, ori itte seuden beti (La.)" - (Salda garbia, oiloagaz eginekora, lehen familia izaten zutenean andreek, ba, hori egiten zuten beti)

saltza berdea: saltsa berdea

"Edo inyabak, edo patatak saltza berdean, eta osteko gauzerik, ni enas akordetan askorik yate sanik olan, igual bertako urditxue an aplastata txorixogas, eta gero ba frutea, etzeko egoten dana, denporakoa (A.)" - (Edo indabak, edo patatak saltsa berdean, eta osteko gauzarik, ni ez naiz gomutatzen askorik jaten zenik holan, beharbada bertako urdaitxoa han zapartuta txorizoagaz, eta gero ba fruta, etxekoa egoten dena, sasoikoa)

saltzea: saltsa

seboa: bilgorra

"Sebo ixeta san a, busterrin edeari esate yakona, narrueri, aik, emoteko, billerie (Z.)" - (Bilgorra izaten zen hura, buztarriaren hedeari ematen zitzaiona, narruari, haiek, emateko, bileria)

sobrea: hondakina

sopea: zopa

"Ba domekatan, nire etzean, asko, sope ta garbantzue, t'ondiño segidu itten du guk, ta domekatan igual seuser postre bere bai, edo arros koletxea, aputxu bet edo, eta okelea bere domekatarako, domekatan edo ba, tajadatxuek edo, eta sobretan basan astelenean igual (A.)" - (Ba domeketan, nire etxean, asko, zopa eta garbantzua, eta oraindino segitu egiten dugu guk, eta domeketan beharbada zer edo zer postre ere bai, edo arroz esnea, apurtxo bat edo, eta okela ere domeketarako, domeketan

edo ba, xerratxoak edo, eta sobratzen bazen astelehenean beharbada)

4.3. OKELA

artxoa: artxoa

faldea: falda, okela mota bat

gixena: gizona

"Kendu gixenak (A.)" - (Kendu gizenak)

mamiñe: mamia

okelea: okela

"Bigun dau ori okelea (A.)" - (Bigun dago okela hori)

"Oñ estaitt segan dabillen, baya len, sortzi ogerlekoan, a, sera, ta sortzi ogerleko ser da ba? bos killo sortzi ogerleko, esta dirurik, emen saldien okeleak esteu balio, espaukosu ba, askotxu saldiek, esta? ta Frantzire paseskeron bai, Frantzien emen baño ba saldien okelea giau yaten da, ganaduena gitxi, eta arako, badekosu bai, baya ostantzean onako es, emen total benta gitxi deko! total! (Z.)" - (Orain ez dakit zegan dabilen, baina lehen, zortzi ogerlekoan, zera, eta zortzi ogerleko zer da ba? bost kilo zortzi ogerleko, ez da dirurik, hemen zaldiaren okelak ez du balio, ez badaukazu ba, askotxo zaldiak, ezta? eta Frantzira pasatuz gero bai, Frantzia hemen baino ba zaldiaren okela gehiago jaten da, ganaduena gutxi, eta harako, badaukazu bai, baina osterantzean honako ez, hemen guztiz salmenta gutxi dauka! guztiz!)

sankarroya: zankarroia

sesiñe: zezina

"Orduen, ba sesiñe, oingo moduen esan aprobetxetan, se orduen eitten san il txala, txikertu eta gatzetan imiñi, gatz lodie ekarri eta gatzetan imiñi, ta gero, a lapikora ta botateko, geubean bota beratuten, eta gero, ba, inyabakas egosi, batzuk eitten suren inyabakas batera egosi, guk, a, es, se itten da saldea bildrie, bildrie esaten dako mia ta, kolore txarrekoa, ta guk eitten gendun, aparte euki, ba irikitten, eta gero bota, lapikora (Z.)" - (Orduan, ba zezina, oraingo moduan ez zen aprobetxatzen, ze orduan egiten zen hil

txahala, txikertu eta gatzetan ipini, gatz lodia ekarri eta gatzetan ipini, eta gero, hura lapikora eta botatzeko, gauean bota beratzen, eta gero, ba indabakaz egosi, batzuek egiten zuten indabakaz batera egosi, guk, ez, ze egiten da salda bildria, bildria esaten zaio mehea eta, kolore txarrekoa, eta guk egiten genuen, banan eduki, ba irakiten, eta gero bota, lapikora)

solomilloa: solomotxoa

tajadea: xerra

txuletea: txuleta

"Nik, e, oraintzu, ondiño esta denpora asko ganadue kendu dule eta nik beti domekatarako ta semeantzako, bueno gure seme sarrak, a, gastaya, ta inyabea eukieskero, ak txuletea atarata bere, ak esteu gure txuletarik (M.)" - (Nik, oraintsu, oraindino ez da denbora asko ganadua kendu dugula eta nik beti domekatarako eta semearentzat, beno gure seme zaharrak, gaztaia, eta indaba edukiz gero, hark txuleta aterata ere, hark ez du gura txuletarik)

4.4. TXERRIKIA

amasea: buzkantzak eta txorizoak egiteko prestatzen den oreka edo saltsagarria

barrukie: barrukia

"Barrukiek, a, dire, gibela, biotza, birikiek eta andarrakie (Z.)" - (Barrukiak, dira, gibela, bihotza, birikiak eta andarrakia)

bildrikie: bildrikia, dindirria

"Tripe aspiko urdie, ori ixetan san, tripean aspian dekon bildrikie, kendu, eta eskeitte iminte san, ba, edeak eta itteko, neu pere in yoas, aitte defuntuas, ainbet bider, suerte at eitte ta (Z.)" - (Tripa aspiko urdaia, hori izaten zen, triparen aspian daukan bildrikia, kendu, eta eskegita ipintzen zen, ba, hedeak eta egiteko, neuk ere egin ditut, aita difuntuagaz, hainbat bider, suertatu zait egitea eta)

biskarkie: bizkarkia, bizkarreko hezurra

buskentza: buzkantza

"Es, emen en jeneral bertoko jenteak, aldeatakoak, batekoak, bestekoak, olan, a, aldeatakoak etorten siren, gu-geuk matarifea akabu akabuen, baya ostantzean, ba koñatuek beti, eta, asko esta

ongo, nik pase oten beste pase deunik, oseake, neure yayetetzean, or bean dekot koñatea, an, eta emen, ba txarri asko iñ, ill eta buskentzak, makiñe bat eiñ ein yodas (Z.)" - (Ez, hemen gehienetan bertoko jendeak, baserrietakoak, batekoak, bestekoak, holan, baserrietakoak etortzen ziren, guk geuk matarifea azken-azkenean, baina osterantzean, ba koinatuak beti, eta, asko ez da egongo, nik pasatu dudan beste pasatu duenik, hau da, neure jaiotetxean, hor behean daukat koinata, han, eta hemen, ba txerri asko egin, hil eta buzkantzak, makina bat egin egin ditut)

"Bakixu ser pasten dan buskentza pere ya gitxiau itten dires (A.)" - (Badakizu zer pasatzen den buzkantzak ere ja gutxiago egiten dira)

entregiarrea, entregiarria: irugiharra

"Tripe aspiko urdie teko entregiarra, eta a ixtetan da, ba, sartenean nai, a, kasulan, imintte osune imintte osunean, gosoa, taloagas yateko, eta aik txintxortak, akaba artean, aittek eta amak esoskuen itxitten a urdie yaten, aittuixu selau miskeriegas asitte gausen, ta ni pakixu ser eineuen egun beten? eskean etorte san Oroskoko bat, t'euskeldune san gixona, eta brusegas ta fraka terlisekas ta olan etorte san, eta yoan karraderan kanpora, eta non dausen aitte t'ama ukusi nittusen eta sera yoten ibil siren, arto illedan bittarteko mokillek yoten, eta a eskekoa, portalen euki neuen, ta se i neuen yon karraderan, eta koyu papel bat, eta bota ara geyenak, a, txintxortak, ta eskekoari emon, nire aittek ukusi banendun, erongo neuen pasadia! pentzeu estot ein gure! eta ama defunteak esaosten, a, ia ango txingorrek, guk txingorrek beti tte, ango txingorrari ser ein yaken, ba nik estakittela, niri diñostesu? nik estakitt ama, neure artean, basenki ser in yoten! (Z.)" - (Tripa azpiko urdaiak dauka irugiharra, eta hura izaten da, ba, zartaginean nahi, kazolan, ipintzen duzuna ipintzen duzunean, gozoa, taloagaz jateko, eta txintxorta haiek, amaitu artean, aitak eta amak ez

ziguten uzten urdai hura jaten, adi ezazu zelako mizkeriagaz hazita gagozen, eta nik badakizu zer egin nuen egun baten? eskean etortzen zen Orozkoko bat, eta euskalduna zen gizona, eta brusagaz eta praka terlizakaz eta holan etortzen zen, eta joan karraderan kanpora, eta non dagozen aita eta ama ikusi nituen eta zera jotzen ibili ziren, arto ilararen bitarteko mokilak jotzen, eta eskeko hura, atarian eduki nuen, eta zer egin nuen joan karraderan, eta hartu paper bat, eta bota hara gehienak, txintxortak, eta eskekoari eman, nire aitak ikusi baninduen, eroango nuen jipoia! pentsatu ez dut egin gura! eta ama difuntuak esan zidan, ea hango txingorrek, guk txingorrek beti eta, hango txingorrei zer egin zaien, ba nik ez dakidala, niri dinostazu? nik ez dakit ama, neure artean, bazeneki zer egin dudan!)

gantzea: gantza

garrantziñoa: gardantzinoa, txorizoei egiten zaien urdina

"Garrantziñoa deko ba, sek esangot ni pa? okele pere pikaten bada, garrantziño deko, esta? eta txarrien urdie pere bai, garrantziño da ba, pikata (La.)" - (Gardantzinoa dauka ba, zerk esango dut nik ba? okelak ere usaintzen bada, gardantzinoa dauka, ezta? eta txerriaren urdaiak ere bai, gardantzinoa da ba, usainduta)

gatzure: gatzura

giarrea, gierrea, gidxarrea: giharra

"Ba txarrien giarrea, sayetza kentxen dosu eta sayetzatik eta urdire doana, ba, serak, eta bean faldea, ba mendela esate otzea sayeskieri, an dekona, gierria ta, urdie tekos entregierria, ba orrexe tire gierrak (Z.)" - (Ba txerriaren giharra, saihetsa kentzen duzu eta saihetsetik eta urdaira doana, ba, zerak, eta behean falda, ba mendela esaten diote saiheskiari, han daukana, giharra eta, urdaiak dauzka irugiharra, ba horiexek dira giharrak)

kalloa: tripakia

kirriskia: kirrizkia

lopea: lopea, buzkantzik lodiena

"Lopea da, ba lodiena, eta gero, ba besteak, ba, buskentzak eitteko, eta miak, dires txorixoak eitteko, klase bittera itten dire (Z.)" - (Lopea da, ba lodiena, eta gero, ba

besteak, ba, buzkantzak egiteko, eta meheak, dira txorizoak egiteko, mota bitara egiten dira)

odolestea: odolostea, buzkantzik meheena

pernille: pernila, urdaiazpikoa

"Pernille bere, bai, baya guk pernillek, gatzetan imintten gendusen, eta, ba gero pixu bet ganian, ondo aplaste dittesan, eta, batzuk pixutik eitten deure, onenbeste, pixu, amar kilo badekos, ogei edo ogetabi egunean euki gatzetan, doble, eta gero atara, eta piperra emon ta eskei, ta beste batzuk eukitten dure, lusero euki gure bosu, atzera beratu, beratute imiñi, eta, ba eskei, eta piperra emon baya pikantia, eulik edo ukutu estion, pikantia biñegriagas (Z.)" - (Pernila ere, bai, baina guk pernilak, gatzetan ipintzen genituen, eta, ba gero pisu bat gainean, ondo zapar daitezten, eta, batzuek pisutik egiten dute, honenbeste, pisu, hamar kilo badauzka, hogeit edo hogeita bi egunean eduki gatzetan, bikoitza, eta gero atera, eta piperra eman eta eskegi, eta beste batzuek edukitzen dute, luzero eduki gura baduzu, atzera beratu, beratzen ipini, eta, ba eskegi, eta piperra eman baina pikantea, euliak edo ikutu ez diezaion, pikantea ozpinagaz)

salmoa: salmoa, gatzura

saltzagarrie: saltsagarria, buzkantzak egiteko prestatzen diren osagaiak

sartenekoa: zartaginekoa, txerriki frijitua

"Ba sartenekoa orixe, urdie, etzen edo iltte san ba txarrie, eta gero ba a urditxue, untata edo, makallo bere bai, batzuk yate seuren makalloa, olan, a, satitxuek eiñ, orioyas imiñi eta, baya nik neuk, badiñot, nik estot eiñ (A.)" - (Ba zartaginekoa horixe, urdaia, etxean edo hiltzen zen ba txerria, eta gero ba urdaitxo hura, bazi eginda edo, makailoa ere bai, batzuek jaten zuten makailoa, holan, zatitxoak egin, olioagaz ipini eta, baina nik neuk, badinot, nik ez dut egin)

sayeskie, sadxeskidxe: saiheskia

"Sayeskie bere, igual, e, porrusalderi bere bai etxate sakon, porrusalde bere ba yate san, etzen porruiek edo, ta sayeskie porrusaldera (A.)" - (Saiheskia ere,

berdin, porru-saldari ere bai botatzen zitzaion, porru-salda ere ba jaten zen, etxean porruak edo, eta saiheskia porru-saldara)

solomoa: solomoa

"Aittu selan, a, ser dekon orrek, imintten dosu ba, gatzagas, eta, berakatzagas, ba balde betean, eta, sayeskie edo solomoa, edo an sartxeakoa, sartxe osu an, ta gero botate osu, arrotze bat, eta ak arrotzeak eitten deu gora ien, ta gora ietan deuenen, orduen ba (Z.)" - (Aittu zelan, zer daukan horrek, ipintzen duzu ba, gatzagaz, eta, berakatzagaz, ba balde betean, eta, saiheskia edo solomoa, edo han sartzerakoa, sartzen duzu han, eta gero botatzen duzu, arrautza bat, eta arrautza hark egiten du gora igan, eta gora igaten duenean, orduan ba)

soñe: soina

"Soñe esate otzegu eurreko besoko pernileri, soñe, t'atzekoari pernille (L.)" - (Soina esaten diogu aurreko besoko pernilari, soina, eta atzekoari pernila)

suringekoa: zuringakoa, heste zuringagaz egiten den buzkantza

tripe aspiko urdie: tripa azpiko urdaia

txarri belarrie: txerri belarria

txarrikie: txerrikia

"Len kostunbre ixen da, goixetan, talogas txarrikie, sarteneko (La.)" - (Lehen ekandua izan da, goizetan, taloagaz txerrikia, zartaginekoa)

txarri musturrek: txerri muturrak

txarri patak: txerri hankak; jateko direnak

"Ai, txarri patak ya diferenteao, aik neu pere yango nekes (Z.)" - (Ai, txerri hankak ja derberdinagoa, haiiek neuk ere jango nituzke)

txintxortea: txintxorta

txorixoa: txorizoa

"Estot ingo ba! txarriek, a, etxean il tte txorixoak eintte (Z.)" - (Ez dut egingo ba! txerriak, etxean hil eta txorizoak eginda)

"Bai koipetan, t'onena koipetan egoten san txorixoa, luseroan tardetako, koipetako txorixoa, ostantzean txorixoa gosoena, ba ein tte amabosta barru edo, ba eskeitte, onena (Z.)" - (Bai koipetan, eta onena koipetan egoten zen txorizoa, luzeroan belutzeko, koipetako txorizoa, osterantzean

txorizoa gozoena, ba egin eta hamabosta barru edo, ba eskegita, onena)

"Txorixoa siketan danen sartu bear da orioatan edo espabere koipetan, txarrin koipetan (La.)" - (Txorizoa sikatzen denean sartu behar da oliotan edo ezpabere koipetan, txarriaren koipetan)

txorixo kordea: txorizo korda

urdeye, urdie: urdaia

"Urdiek, guk, a, belu belurartian, gatzetan, gas neusienagas, gatzetan, eta gero, atara, eta, emon, a, sera, olantxe biñegrieagas piperra, eta eskei, ostantzean estu, urdiek, bai onek entregiarria, baya, onek nos yaten siren? nos yaten siren? neguen en jeneral, taloak erre ta, pare, etze bete ume egoten sales leku gustien (Z.)" - (Urdaiak, guk, belu-belura artean, gatzetan, gatz nagusienagaz, gatzetan, eta gero, atera, eta, eman, zera, holantxe ozpinagaz piperra, eta eskegi, osterantzean ez dugu, urdaiak, bai hauek irugiharra, baina, hauek noiz jaten ziren? noiz jaten ziren? neguan gehienetan, taloak erre eta, paratu, etxe bete ume egoten zenez leku guztian)

urdei asala: urdai azala

urdiñe: urdina

4.5. ARRAINA

angulea: angula

antxoa: antxoba

"Arrañe, antxoak, ni akordate nas, antxoak, ba etorte san, bertotik etorte san saltxen bat (A.)" - (Arraina, antxobak, ni gomutatzen naiz, antxobak, ba etortzen zen, bertotik etortzen zen saltzen bat)

arrañ asule: arrain urdina

arrain surie: arrain zuria

arrañe: arraina

atune: atuna

besegue: besigua

"Or egoten san ferie, eta etorten siren bermeanak, etorten siren, eta beseguek, ta gixonak, ba beseguek imiñi, bisekletan atzian amarreta, beste batzuk, a, bastoya lepoan, a, imintte,

t'orretarikoak, ote siren (Z.)" - (Hor egoten zen azoka, eta etortzen ziren bermeotarrak, etortzen ziren, eta besiguak, eta gizonak, ba besiguak ipini, bizikletaren atzean amarratuta, beste batzuk, makila lepoan, ipinita eta horietarikoak, egoten ziren)

lebatza: legatza

makalloa: makailoa

"Yan eingo gendun se goserik estot pasa, arrotzea etzekoa bere bai, makalloa bere bai yate san, orixe bai, makalloa (A.)" - (Jan egingo genuen ze goserik ez dut pasatu, arrautza etzekoa ere bai, makailoa ere bai jaten zen, horixe bai, makailoa)

sardiñe: sardina

sardiñe sarra: sardina zaharra

"Sardiñe sarrak ointxe asitte, oiñ etorko dire dendatara bere, bai, oin dendatara, eta batzuk koiten deure, ba, papelean imiñi, eta emon golpe batzuk, ta a eskamia kendu, eta orio gordiñe bota, talo erre eta agas yan, eta beste batzuk eitten deure, ba txapa ganean edo prasan, emon, a, bueltea, eta berakatz asko askogas, prijidu orioa eta ganetik bota eta talogas yan (Z.)" - (Sardina zaharrak oraintxe hasita, orain etorriko dira dendetara ere, bai, orain dendetara, eta batzuek hartzen dute, ba, paperean ipini, eta eman kolpe batzuk, eta eskata hura kendu, eta olio gordina bota, taloa erre eta haregaz jan, eta beste batzuk egiten dute, ba txapa ganean edo txigarrean, eman, buelta, eta beraktz asko-askogaz, frijitu olioia eta gainetik bota eta taloagaz jan)

txitxarroa: txitxarroa

4.6. ARRAUTZAK

arrotzasala: arrautzazala

arrotzea, arrutzea: arrautza

"Kantetan dauenian, orduen dxoan, eta iru edo lau arrotze edo gedxaues topetan gendun (At.)" - (Kantatzen duenean, orduan joan, eta hiru edo lau arrautza edo gehiagogaz topatzen genuen)

arrotze goringoa: arrautza goringoa

arrotze suringoa: arrautza zuringoa

"Ori, san juañ egunekoa? bueno, nik estaitx esakune bat, bada bere baya, bota uretara

arrotze suringoa, eta urtetan dauela san juanen barkuek eta san juanen, a, barkuek urtetan deuela, san juan egunian (M.)" - (Hori, San Juan egunekoak? beno, nik ez dakit esakuna bat, bada ere baina, bota uretara arrautza zuringoa, eta irteten duela San Juanen barkuak eta San Juanen, barkuak irteten duela, San Juan egunean)

asala: azala

asalbakoa: azalbakoa

gorringoa: goringoa

"Batzuk, a, goringo bi eukitxen txues, andidxe (At.)" - (Batzuek, goringo bi edukitzen dituzte, handiak)

"Goringo bikoa gero eitxen deude arrotzea (At.)" - (Goringo bikoa gero egiten dute arrautza)

kaskarea: azala

kaskarabakoa: azalbakoa

mintzea: mintza, arrautzaren barrukoa

mintzedune: mintzezko arrautza, azalbako arrautza

"Kaskarabakoa da ta, mintzedune esate san (At.)" - (Azalbakoa da eta, mintzeduna esaten zen)

suringoa: zuringoa

"Goringoa ta suringoa eukitxen txus (At.)" - (Goringoa eta zuringoa edukitzen ditu)

tortillea: tortila, arrautzopila

4.7. OGIA

agune: irin aguna, ondo ehoko irina

amasea: orea, masa

"Sera itte seuren taloa, an etxa urune, ta ure aputxu beteas ta gatzagas, eta a yote siren eitten, amasatxue, ondo ondo iñ eta taloa, goso eitte seuren taloa (A.)" - (Zera egiten zuten taloa, han bota irina, eta ur apurtxoATEGAZ eta gatzagaz, eta hura joaten ziren egiten, oretxoa, ondo-ondo egin eta taloa, gozo egiten zuten taloa)

artoa: arto irinez egiten den ogia

artoa beroa: hauspeko sorgina, txingarren azpian egiten den ogiaren izena

"Bai talo otzari ba esne beroa bota, eta ori esaten geuntzen, edo ostantzean, beste

geuse ba pe egoten san, eitte san taloa, arto beroa esaten sakean, kasuelan bekosuen, eitxen sana ba ogien lodiereea, ta gero a, ba asala loditxue ta, ogie ebaten dan moduen, ebate san, a, ori kutxilloagas ta, a esne berotara botata, ori bai, ori, baya ori de, taloa barik, arto beroa esaten geuntzen, kasuelean aspian erreta, ori nik gaste gastetxutan esetu dot (M.)" - (Bai talo hotzari ba esne beroa bota, eta hori esaten genion, edo osterantzean, beste gauza bat ere egoten zen, egiten zen taloa, arto beroa esaten zitzaien, kazolan beheko suan, egiten zena ba ogiaren lodiera, eta gero hura, ba azala loditxoa eta, ogia ebakitzen den moduan, ebakitzen zen, hori kutxiloagaz eta, hura esne berotara botata, hori bai, hori, baina hori da, taloa barik, arto beroa esaten genion, kazolaren azpian erreta, hori nik gazte-gaztetxotan ezagutu dut)

artoa urune: arto irina

"Ba, kalabasea egositxe, gastetan babia, kalabasea egositxe, urune, arto urune, ta lodi lodi eintxe (At.)" - (Ba, kalabaza egosita, gastetan baba, kalabaza egosita, irina, arto irina, eta lodi-lodi eginda)

asala: ogi azala

aye, aidxe: ahia

drungulue: drungulua, umeentzako egiten den papila

"Artogas eiñekoa da drungulue (A.)" - (Artoagaz eginekoko da drungulua)

esea: hezea, irin hezea, labetik pasatubako irina

fota: ogi mota bat

gari urune: gari irina

"Gari urune da gosagarri (Ll.)" - (Gari irina da gozagarria)

gosagarrie: gozagarria, arto irinagaz egineko oreari botatzen zaion gari irin apurraren izena

"Gosagarrie, da, esaten geuntzena guk, ba kasureko artoa taloa itxeko, artoa itxen du, eta, gosagarrie da, ba gari urune, ba gosagarrie orrexeri esaten sakon, eta orreri taloari, batzuri gustetan sakean, a gosagarrie botatea, se ak, e, beste gustutxu bet emoten deu, eta beste batzuk, ba, baperes, igual neu pere batzutan botaten dot, se ori botaeskero urruno egunerako, ba taloa bigundu itxen da, baya erre barik

itxi, sobretan dana bigundu itxen da urrungo egunerako, ori bota esik, ba, ondo, eitxen dan moduen, baya ori botaeskeron bigundu, eta, gustue taus, batzuri, niri aputxu betegas gustetan dat, sarri itxen dot nik, gosagarrie bota, ta orreri esaten geuntzen gosagarrie (M.)" - (Gozagarria, da, esaten geniona guk, ba kasurako artoa taloa egiteko, artoa egiten dugu, eta, gozagarria da, ba gari irina, eta talo horri, batzuei gustatzen zitzaien, gozagarri hura botatzea, ze hark, beste gustutxo bat ematen du, eta beste batzuek, ba, bat ere ez, beharbada neuk ere batzuetan botatzen dut, ze hori botaz gero hurrengo egunerako, ba taloa bigundu egiten da, baina erre barik utzi, sobratzen dena bigundu egiten da hurrengo egunerako, hori bota ezik, ba, ondo, egiten den moduan, baina hori botaz gero bigundu, eta, gustuak dagoz, batzuei, niri apurtxo bategaz gustatzen zait, sarri egiten dut nik, gozagarria bota, eta horri esaten genion gozagarria)

igerra: igerra, irin igerra

kuskurre: kuzkurra, kurruskua

labartoa: labartoa, labeko artoa; arto irinagaz egiten den ogi handi biribila

lebadurea: legamea

leorra: irin lehorra, txarto ehoko irina
"Leorra da fiñ estauna (Z.)" - (Lehorra da fin ez dagoena)

mamiñe: mamia

mamurre: mamurra, papurra

morokille: morokila

"Etzeko bat, ba apur bet estomagutik delikedu dala ta, eittte sotzon morokille, ona dala ta, urunegas (A.)" - (Etxeko bat, ba apur bat urdailetik delikatua dela eta, egiten zion morokila, ona dela eta, irinagaz)

ogie: ogia

"Baya alan ta gusti bere inyar andies etorten da, eta gero, ba imiñitte selan dausen bere bai, errotak selan dausen bere bai, kargu itten espatzesu, ba, txarto eyoten dotzu tanda bat igual, se lenau, errotara artotan eroten sana bere, bastarra bete, etzen koitan siren leku askotan, danak, ta gitxi, se lenau

ogi esan yaten, ogie, ba urten iru bider edo, lau bider, ardaua bere bai, iru bider edo lau bider (Z.)" - (Baina hala eta guztiz ere indar handiagaz etortzen da, eta gero, ba ipinita zelan dagozen ere bai, errotak zelan dagozen ere bai, kargu egiten ez badiozu, ba, txarto ehotzen dizu txanda bat beharbada, ze lehenago, errotara artotan eroaten zena ere, bazterrak bete, etxean hartzen ziren leku askotan, denak, eta gutxi, ze lehenago ogia ez zen jaten, ogia, ba urtean hiru bider edo, lau bider, ardaua ere bai, hiru bider edo lau bider)

ogi asala: ogi azala

ogi baltza: ogi beltza, zahai eta guzti egiten den ogia

ogi eskiñe: ogi ertza

ogi kuskurre: ogi kuzkurra, ogi kurruskua

ogi mamiñe: ogi mamia

ogi mamurre: ogi mamurra, ogi papurra

ogi ritxie: ogi ritxia, ogi mota bat

ogi sikue: ogi sikua

ogi sopak: ogi zopak

ogi surie, ogi suridxe: ogi zuria

ogi tremesa: ogi tremesa

ogi urune: ogi irina

opille: opila

"Otzagas ogoto bai, se espabe pika itten da bere, garrantziño itten dako, ari opilleri? garrantziño itten dako espabere (La.)" - (Hotzagaz hobeto bai, ze ezpabere garraztu egiten da ere, gardantzinoa egiten zaio, opil hari? gardantzinoa egiten zaio ezpabere)

orea: orea

pistolea: pistola, ogi mota bat, mehea eta luzea

ritxie, erritxie: ogi mota bat

taloo: taloa

"Bueno taloo, otza bai, eta esne beroa bota eta, baya gustue taus, askok bai yaten seuen lenau baya niri estoste grasirik orrek iños eiñ (M.)" - (Benoo taloo, hotza bai, eta esne beroa bota eta, baina gustuak dagoz, askok bai jaten zuen lehenago baina niri ez dit graziarik horrek inoiz egin)

"Esnea ta, taloo itte seuen (A.)" - (Esnea eta, taloo egiten zuten)

"Inyabia ta taloo ta esnea ortik esan pasetan (M.)" - (Indaba eta taloo eta esnea hortik ez zen pasatzen)

talola: talo-ohola, taloa jotzeko erabiltzen zen ohola

tremesa: tremesa, zahi eta guzti egiten den ogia

"Tremesa bere ogi antzeko ba ta (La.)" - (Tremesa ere ogi antzeko bat da)

urune: irina

"An eukitte seuren urune, bertan, eskiñe baten edo (A.)" - (Han edukitzen zuten irina, bertan, eskina baten edo)

urun agune: irin aguna, apatza, afoa, ondo ehokoa

"Urun agune ondo eiñeko urune, ondo eyoko urune, se errotak, errota pere diferentea taus, arrie pere diferentea taus, diferentzi andiko arri taus, arrik, a, asko oboto ta asko gosoau, urune eitten daudena taus batzuk (Z.)" - (Irin aguna ondo egineko irina, ondo ehoko irina, ze errotak, errotak ere desberdinak dagoz, harriak ere desberdinak dagoz, desberdintasun handiko harriak dagoz, harriak, asko hobeto eta asko gozoago, irina egiten dutenak dagoz batzuk)

urun esea: irin hezea, labetik pasatubakoa

urun igerra: irin igertuta, labetik pasatukoa

urun latza: irin latza, txarto ehokoa

urun leorra: irin lehorra, txarto ehoko irina

4.8. ESNEA-GAZTA

ardi esnea: ardi esnea

bei esnea: behi esnea

bitze: kipurra, esnegaina

esnea: esnea

"Arik eta ondo egosi artean, guk estu iños yan ori esnea (M.)" - (Harik eta ondo egosi arte, guk ez dugu inoiz jan esne hori)

"Umeak, a, ama barik lotxen direnak, astoan esneagas asten sittusen ordun, astoari esnea eratzitte (Z.)" - (Umeak, ama barik lotzen direnak, astoaren esneagaz hazten zituzten orduan, astoari esnea eraitsita)

esne loya: esne lohia

gaste otzarea: gaztotzara

"Gaste otzarak, lenau, siskoak egote siren, siskoak, eta gero etor siren orrek, e, portzelanea edo orretarikoak, sulotxuekas oraintzurarten euki dot nik atxiñeko ta, sar dauela ta bota i neuen (M.)" - (Gaztotzarak, lehenago, zihizkoak egoten ziren, zihizkoak, eta gero etorri ziren horiek, portzelana edo horietarikoak, zuloxoakaz oraintsura arte eduki dut nik antzinako eta, zahar dagoela eta bota egin nuen)

"Gastaya itxeko, balde baten ote san, ta apurtu gero gastaya in bear da, ta a gastaya in barik, ba learra emon ta artuten seuenean a, ba yateko ona dala esaten seudean (M.)" - (Gaztaia egiteko, balde baten egoten zen, eta apurtu gero, gaztaia egin behar da, eta gaztai hura egin barik, ba legarra eman eta hartzen zuenean hura, ba jateko ona dela esaten zuten)

gastai ure: gaztai ura, gaztaiak egikeran galtzen duen ura

gastaya: gaztaia, gazta

"Makiñe bat, a, gastai ein yure emen sutean aik (Z.)" - (Makina bat, gaztai egin dute hemen suetea haiek)

"Edo gastaya edo dirue, edo onenbeste gastai, edo ogei ogerleko, edo amar peseta edo, orduen esan ixengo asko (T.)" - (Edo gaztaia edo dirua, edo honenbeste gaztai, edo hoge ogerleko, edo hamar pezeta edo, orduan ez zen izango asko)

"Ixilik on ditten se, gastaitxu bet eron berko otzet (E.)" - (Isilik egon dadin ze, gastaitxo bat eroan beharko diot)

gastanberrea: gaztanbera

gatzatue: gatzatua

learra, liarra: legarra

"Ori ba esnea eratzi, ta epel oten da, eta, ba imiñi, bota liarra, eta sera, trapu bet imiñi gero otzixu estitzen, eta ori liarra meidea koxutea da printzipala, liar asko botaeskero lior urtetan deu, semet gitxiauges biguntxuau, baya giâu kostetan da batutea, batutea kostetan da, ostantzean, liar gitxiges gosoau urtetan deu (M.)" - (Hori ba esnea eraitsi, eta epel egoten da, eta, ba ipini, bota legarra, eta zera, trapu bat ipini gero hoztu ez dadin, eta legar hori neurria hartzea da garrantzitsua, legar asko botaz gero lehor irteten du, zenbat gutxiagogaz

biguntxoago, baina gehiago kostatzen da batzea, batzea kostatzen da, osterantzean, legar gutxigaz gozoago irtetzen du)

"Liarra botata ori, gastaya eitxe san, liarragas, lenau, geur, eutzegas eitxen da, baya lenau, artxoan liarra, artxoari iltxe sanean, kendute sakean ori liar ori (M.)" - (Legarra botata hori, gaztaia egiten zen, legarragaz, lehenago, gaur hautsagaz egiten da, baina lehenago, artxoaren legarra, artxoei hiltzen zenean, kentzen zitzaizen legar hori)

mantekillea: gurina

natea: bitsa, kipurra, pikorra

pasadorea: pasadora, iraztontzia, gaztaia egiteko erabiltzen dena

"Gero ba, istutu apur bet serean, pasadorean, istutu aputxu bet pasadorean, asko estot nik istututen se, gurean seme sarrari gustetan dako egun beratakoa, egun bet, ak, e, egun bi badekos ensegida gastayari igerri, baya egun beratakoa apur bet istutu, te asko istutu seuk, semet eta giau istutu, ba, serau, sikuau lotxen da (M.)" - (Gero ba, estutu apur bat zerean, pasadorean, estutu apurtxo bat pasadorean, asko ez dut nik estutzen ze, gurean seme zaharrari gustatzen zaio egun beratakoa, egun bat, hark, egun bi badauzka behingoan gaztaiari igarri, baina egun beratakoa apur bat estutu, eta asko estutu zeuk, zenbat eta gehiago estutu, ba, zerago, sikuago lotzen da)

4.9. GOZOKIAK-POSTREAK

alimerea, alimimerea: alimimera, ardautan egosiko frutak

"Almimerea? uregas imiñi sagarra egosten eta gero ardaua bota, ta irikiñ, ta alkola galdu itten dau (La.)" - (Almimera? uragaz ipini sagarra egosten eta gero ardaua bota, eta irakin, eta alkohola galdu egiten du)

ardau sopia: arda zopa

arroskoletxe: arroz-esnea

asukerea: azukrea

dultze kajea: gozoki kaxa

esne sopak: esne zopak, esne eta ogiagaz egiten direnak

estie: ezta

galletea: gaileta

"Mesa ostean emen, e, gure gaste denporan bere yoan tabernara ta, galletak, eskatu kopa bat, eta galletak atarateusen (K.)" - (Meza ostean hemen, gure gazte denboran ere joan tabernara eta, galletak, eskatu kopa bat, eta galletak ateratzen zituen)

iko pasea: iko pasa

intxur saltzea: intxaur saltsa

"Intxur saltzea? bueno ori, batzuk, klase bitxera itxen da, batzuk eitxen deude uregas beste batzuk esneagas, eta ba esneagas, kasik uregas geyau gustetan daku guri, esneagas pasetan dana ba, loditxu paretan da, eta, uregas ba agiltxuau, baya esneagas en jeneral, esneagas, intxurre yo, oiñ, lenau yoten san, almerise, almerise da, an tximiñen dekotena, ayetarikoa ta an yote san, baya geur, kafe errotea, eletrikue taus, orra bota asala kendu, intxur saltzek bear anditxue deko, ondo itxeko, asala kendu, mamiñeri, ta bota ara ta io, eta a egosten euki, loditxu artean, eta batzuk, esotzean botaten baya ogi mamiñe gero bota, ogi mamiñe, eta asukerea, t'esnea, besterik eser beres, egosten euki ba luserotxu bai, semet luseroau ba astuntxuau (M.)" - (Intxaur saltsa? beno hori, batzuk, era bitara egiten da, batzuek egiten dute uragaz beste batzuek esneagaz, eta ba esneagaz, kasik uragaz gehiago gustatzen zaigu guri, esneagaz pasatzen dena ba, loditxu paratzen da, eta, uragaz ba arinago, baina esneagaz gehienetan, esneagaz, intxaurra jo, orain, lehenago jotzen zen, almaiza, almaiza da, han tximinan daukadana, haietarikoa eta han jotzen zen, baina gaur, kafe errota, elektrikoak dagoz, horra bota azala kendu, intxaur saltsak behar handitxoa dauka, ondo egiteko, azala kendu, mamiari, eta bota hara eta eho, eta hura egosten eduki, loditu artean, eta batzuek, ez zioten botatzen baina ogi mamia gero bota, ogi mamia, eta azukrea, eta esnea, besterik ezer ere ez, egosten eduki ba luserotxu bai, zenbat luzeroago ba astuntxoago)

kakauesa: kakahuetea

kanela: kanela

"Alimerea da, ba geunatan ta itxen san, a, madariakas ta saltza bat, alimerea, ba ori, asukerea, bueno, madariak, e, kasu beterako, madariak suritxu, eta garbitxu, eta, ardaua imiñi lapikoan, eta ara bota gero, ta gero kanela aputxu bet bota, eta asukerea (M.)" - (Almimera da, ba gabonetan eta egiten zen, madariakaz eta saltsa bat, almimera, ba hori, azukrea, beno, madariak, kasu baterako, madariak zuritu, eta garbitu, eta, ardaua ipini lapikoan, eta hara bota gero, eta gero kanela apurtxo bat bota, eta azukrea)

kanela palue: kanela abarra

karameloa: karameloa

"Oñ edurri pere estau eitxen, eta lenau egote siren arek txupeteak eta arek, talletutik, aunelaseko, txupeteak, txupetea eitxen gendun geuk, t'arek txupetan egoten gintzesan karameloa tirela ta (M.)" - (Orain elurrik ere ez du egiten, eta lehenago egoten ziren txupete haiek eta haiek, teilatutik, haonelaseko, txupeteak, txupetea egiten genuen geuk, eta haiek milikatzen egoten ginen karameloak direla eta)

konpota: konpota

maspasea: mahats pasa

morokille: morokila

okaran pasia: okaran pasa

pasea: pasa

pastela: pastela

postrea: postrea

sopak: esne zopak, talo zopak

tostadea: tostada

turroya: turroia

txokolatea: txokolatea

"Goxeko sortzietako ela estaitt bederatzieta sartzen gintzesan ta etorri, ta gero egurdiko beskarie txokolatea ta ogie, edo seuser geyau itten basan eta espabere, atzera gero, goseagas yoaten gintzesan etzera (Ll.)" - (Goizeko zortzietako ala ez dakit bederatzieta sartzen ginen eta etorri, eta gero egurdiko bazkaria txokolatea eta ogia, edo zer edo zer gehiago egiten bazen eta espabere, atzera gero, goseagaz joaten ginen etxera)

urunesko tostadea: irinezko tostada

4.10. EDARIAK

anise: anisa

"Orixe san, datorrenean, ba txarri iltten, koñaka, eta anise, batzuk nasteta beste batzuk utzik, eta galletak, eta gero txarrien gibela, eta, makalloa piperrakas (Z.)" - (Horixe zen, datorrenean, ba txerria hiltzen, koinaka, eta anisa, batzuek nahastuta beste batzuek hutsik, eta galletak, eta gero txerriaren gibela, eta, makailoa piperrakaz)

ardaua: ardaua

"Au eskot bat ixen san, au eta beste, a Sabalondo partea, eskot bat ixen sien, emen guk, e, ardau asko ataraten gendun orduen (E.)" - (Hau eskot bat izan zen, hau eta beste, Zabalondo aldean, eskot bat izan ziren, hemen guk, ardau asko ateratzen genuen orduan)

"Nik emen esetu dodana, emen esetu dodana, ardaua bere, asko edateudenak, emen baño moskorti geyau emen kontornon baño esta ixen, emen baño moskorti geyau esta egon, baya ardaua edateuden, baya gero, aik ardaua edateudenak, sulok eukitte sittusen albon (Z.)" - (Nik hemen ezagutu dudana, hemen ezagutu dudana, ardaua ere, asko edaten zutenak, hemen baino moskorti gehiago hemen inguruan baino ez da izan, hemen baino moskorti gehiago ez da egon, baina ardaua edaten zuten, baina gero, ardaua edaten zuten haiek zuloak edukitzen zituen alboan)

ardau baltza: ardau beltza

ardau gorrie: ardau gorria

ardau gosoa: ardau gozoa

ardau surie: ardau zuria

edarie: edaria

kafea, kafia: kafea

"Illuntie sartu kafetan, ori neure aitteri entzunekoa da (Z.)" - (Ilentia sartu kafetan, hori neure aitari entzunekoa da)

"Ori de ariñau kafia, ru-ru! eitxen deu, ak kafiak ariñau bia ein deidxen (L.)" - (Hori da arinago kafea, ru-ru! egiten du, kafe hark arinago behean egin dezan) [testu honetan kafeari ilentia zergatik sartzen zitzaion azaltzen da]

koñaka: koinaka

"Barausteko koñaka, anise ta galletak (Z.)"
- (Barausteko koinaka, anisa eta galletak)

kopea: kopa

"Goxetan, kopa bat artxeuen ak, koñak kopa bat, eta agas (Z.)" - (Goizetan, kopa bat hartzen zuen hark, koinak kopa bat, eta hagaz)

likorra: likorra

limonadea: limonada

moskorra: mozkorra

mostoa: mostoa, muztioa

"Batzuk mostoa eitten dure (Z.)" - (Batzuek mostoa egiten dute)

pitikiñe, pitipiñe: pitipina, mahats hondarrakaz egiten den edaria

"An sobre datzusen, e, dollaran atara dosusen ondakiñekas, ure nasteu, eta, gero garbittuteudean, ta, usetan san edateko, garrafoyatan sartute, a usetan san ba, sortzi amar egunian edo, pitipiñe (Ll)" - (Han sobratu zaizkizun, dolarean atera dituzun hondakinakaz, ura nahastu, eta, gero garbitzen zuten, eta, usatzen zen edateko, garrafoietan sartuta, hura usatzen zen ba, zortzi hamar egunean edo, pitipina)

sagardua, sagardoa: sagardoa

"Eseagas bere bai, baya eseana ya, ori esan, esea, ser esangot? semiotxo bat, e, soldieute goitti bera yoatekoa san, baya ori bestia san, lau anka, tanbor bat, manilleagas, eta kajea botateko burriñeskoa, sagarrak botaten sendusen ara, ta eskus emon, e, ari manilleari tte yoaten sintzen txikitten txikitten txikitten, ta segun txikittues, tiñe batera, andik botaten sendusen, ba dollarera, ta dollaran su an yoaten sintzen kantidatea itten sendunean sakatan, txakoliñe itteko moduen ta bardin bardiñ ataraten san a (Ll)" - (Eseagaz ere bai, baina esearena ja, hori ez zen, esea, zer esango dut? zortzi erdi bat, soldatuta goitik behera joatekoa zen, baina beste hori zen, lau hanka, danbor bat, astagaz, eta kaxa botatzeko burdinazkoa, sagarrak botatzen zenituen hara, eta eskuz eman, asta hari eta joaten zinen txikitzen-txikitzen-txikitzen, eta segun txikituz, ba dolarera, eta dolarean zu han joaten

zinen kantidatea egiteko moduan eta berdin-berdin ateratzen zen hura)

"Ein ber da, sagarra txikittu, makiñe bat eoten san, orretarako, erramolatxea txikittakoa amen usetan ixen dan antzekoa (Ll)" - (Egin behar da, sagarra txikitu, makina bat egoten zen, horretarako, erremolatxa txikitzeak hamen usatzen izan den antzekoa)

sangrie: sangria

serbesea: garagardoa

"Beko kalean, a, serbeseagas eitxen san eskota, serbesea emoten san (K.)" - (Beheko kalean, garagardoagaz egiten zen eskota, garagardoa ematen zen)

txispea: mozkorra

"Lantzean batek txispeas etzera, gaubelatan, karo! gau gustie lusea da ta (K.)" - (Lantzean batek txispagaz etzera, gaubeletan, jakina! gau guztia luzea da eta)

txitxiparra: txitxiparra, koinaka eta anisa nahastuta egiten den edaria

"Amen geu bere bai gaste denporan, e, yoan sasprietako mesara ta gero, kopak, e, artxen gendusen, txitxiparra" - (Hamen geu ere bai gazte denboran, joan zazpietako mezara eta gero kopak, hartzen genituen, txitxiparra)

"Txitxiparra amen beti, anise ta koñaka nastean (K.)" - (Txitxiparra hamen beti, anisa eta koinaka nahastean)

ure: ura

"Eta baten ta bitten baño giatuen onas, oiñ emen ure franku dau, se, ya ba, Mungikoa koi de ta, baya orduen total ure txikerra, se or goyen, a, ba, amabosten artean ekarritte on san, ta emen goyen, a, depositue ta neguen baya, neguen erropea aklare ta itteko beste barrioantzako, ba etorte san, baya uden es, uden, a, orra trenbidea egon san lekurarten yoan bear ixeta neuen, erropakas, t'or labadero txikerrean, aiñ erropea garbittea es pentza bromea danik, e? an ardi artean ta ardiek bustitte ta (Z.)" - (Eta baten eta bitan baino gehiagotan egon naiz, orain hemen ura franko dago, ze, ja ba, Mungiakoa hartu da eta, baina orduan guztiz ura txikerra, ze hor goian, ba, hamabosten artean ekarrita egon zen, eta hemen goian, depositoa eta neguan baina, neguan arropa aklaratu eta egiteko

beste auzotegiarentzat, ba etortzen zen, baina udan ez, udan, horra trenbidea egon zen lekuraino joan behar izaten nuen, arropakaz, eta hor ikuztoki txikerrean, haien arropa garbitzea ez pentsa txantxa denik, e? han ardi artean eta ardiak bustita eta)

4.11. TXAKOLINA

astamatza: asta-mahatsa

"Astamatza da parratan egoten dana, bastante basto ori astamatza (Z.)" - (Asta-mahatsa da parretan egoten dena, nahiko latza hori asta-mahatsa)

"Amen astamatza esateutzean, emen usetan sanari, matz surie (Ll)" - (Hamen asta-mahatsa esaten zioten, hemen usatzen zenari, mahats zuria)

asufrea: azufrea, barrika garbitzeko erreta erabiltzen da

bagara arrie: bagara harria, dolarearen azpiko harria da

"Bagara arrie au txakoliñe itxen danari esaten dako (M.)" - (Bagara harria txakolina egiten den honi esaten zaio)

barrikoa: barrika, upela

"Guk, a, koñakagas, metxea guk gutxittan, akaba itten danean txakoliñe, bera barrikoa garbittu ondo, eta bota koñaka ta buelta batzuk eraiñ, ondo ondo eta ixi gero, siketuten danean, ganeko tapea kendu, barruko loye gustie kendu, eta, imintten gendun, ba sera, siketan, ta siketan danean gorde, ta gero betetan asteko, ba koñakagas garbittu, imintten siren, a, alan, a, poste andi bi, eta onen ganetan, barrikek, eta, ba sera, enbudo andi betzuk, eta pasador andi bet, eta ara bota gero a txakoliñe (Z.)" - (Guk, koinakagaz, metxa guk gutxitan, amaitu egiten denean txakolina, bera barrika garbitu ondo, eta bota koinaka eta buelta batzuk eragin, ondo-ondo eta itxi gero, sikatzen denean, gaineko tapa kendu, barruko lohia guztia kendu, eta, ipintzen genuen, ba zera, sikatzen, eta sikatzen denean gorde, eta gero betetzen hasteko, ba koinakagaz garbitu, ipintzen ziren, halan, poste handi bi, eta honen gainetan, barrikak,

eta, ba zera, onila handi batzuk, eta iraztontzi handi bat, eta hara bota gero txakolin hura)

barrikoa nausie: barrika nagusia

barrikoa txikerra: barrika txikerra

batza: hondakina

bukoya: bokoia, upel handia 600 litro ingurukoa

dollarea: dolarea

"Txakoliñe itten gendun guk, ba, sertu, batu matzak, eta bota tiñekuetara, eta kaderakas aplasteu, eta gero, dollarera bota, dollarea san olau katxarro andi bet, eta andik dollaretik urtetan deuen, barriketan sartu, eta gero ak txakoliñek irikiñ eitten deu, aik barrikek imin ber dosus, lelengo ondo garbittute (Z.)" - (Txakolina egiten genuen guk, ba, zertu, batu mahatsak, eta bota tinakoetara, eta oinakaz zapartu, eta gero, dolarera bota, dolarea zen holako katxarro handi bat, eta handik doilaretik irteten duena, barriketan sartu, eta gero txakolin hark irakin egiten du, barrika haiek ipini behar dituzu, lehenengo ondo garbituta)

"Dollarea da, kasureko, txakoliñe itteko asko eukenak useta euen emen bere, eitten san sementoagas edo, ladrilloagas ein bean, plataformea, atara kanala, eta, goitti bera, sartxean san, egurregas eintte, bittarteak deittule, burriñe alde bietara dauela baya, ori biribill ori erdi bi, sati bitten, eta biek onexetara engantxetan siren ta goitti bera tornilloa sartu, sujetetan san an, ta eiñ artean, ta ejeari goitti bera sartxe akosen trabesak, kurtziatara, ta goitti bera roskara geldi geldi, geldi geldi yoaten sintzen emoten, apurke apurke derrepentean barik (Ll)" - (Dolarea da, kasurako, txakolina egiteko asko zeukanak usatzen zuena, denek ez zeukaten, hainbatek eduki zuen hemen ere, egiten zen porlanagaz edo, adreiluagaz egin behean, plataforma, atera kanala, eta, goitik behera, sartzen zen, egurragaz eginda, bitarteak dituela, burdina alde bietara dagoela baina, biribil hori erdi bi, zati bitan, eta biak honexetara engantxatzen ziren eta goitik behera torlojuia sartu, eusten zen han, eta egin artean, eta ardatzari goitik behera sartzen zitzaizkion

trabesak, kurtzetara, eta goitik behera erroskara geldi-geldi, geldi-geldi joaten zinen ematen, apurka-apurka bat-batean barik)

enkortxadora: enkortxadora

kortxoa: kortxoa

madrea: txakolinari egiten zaion hondarra
"Surten, a, irikitten deuen moduen, irikitten deu ak, eta gero, ba tapetan da ta layek, andiek eitte ittusenean, a, madrea, bera bajetuten dako, t'orduen paretan da kristelan moduen, garbi garbi garbi paretan da (Z.)" - (Surtan, irakiten duen moduan, irakiten du hark, eta gero, ba tapatzen da eta leiak handiak egiten dituenen, hondarra, behera bajatzen zaio, eta orduan paratzen da kristalaren moduan, garbi-garbi-garbi paratzen da)

mastegie: mahastia

"Parran bere egoten san baya mastegietan egoten san imintte, estakakas imintte, baterik bestera (LI)" - (Parran ere egoten zen baina mahastietan egoten zen ipinita, taketakaz ipinita, batetik bestera)

matxikoa: mahastiei eusteko ipintzen zaien taketa

metxea: metxa, barrikari erretzen zitzaion garbitzeko

"Metxea errete yakon barrikeari (Z.)" - (Metxa erretzen zitzaion barrikari)

parrea: parra

sapotza: zapotza; barrika ixtekoa

txakolin baltza: txakolin beltza

txakolin gorrie: txakolin gorria

txakolin surie: txakolin zuria

txakoliñe: txakolina

"Eitten san gurian txakoliñe sasoi beten, esta? (LI)" - (Egiten zen gurean txakolina sasoi baten, ezta?)

"Txakoliñe itteko, emen en jeneral len, imintten san katxarro bat, bota ara, ta sapaldu sapaldu sapaldu eiñ, ta ataraten san, bean imintten san tiñekue, edo ser edo a, geuse garbie, ara koiten san, andik koyu, da barrike a artean ondo garbittu, edo, likorragas pasetan sendun en jeneral, a paseu otzittu te ostean, betetan sendun, ta bete, eta ganean, silloa botatekoan, parean, bustiñe imintte akon emen, bueltan, eta, ara, erdi ingerurarte betetan san

barrikea, artian euki bear sendun silloan barruen, a imintten san, seran, aiñ erdi ingerure, ta asten san, gaur betetan basendun, bier goixerako pri-pri, pri-pri, gerorau geitxuau irikitten irikitten yoaten san, eta, an atarateuen, batza esateakon, guk esaten geuntzen beintzet, an euken matz saborrie edo loittasune, ta botateuen kanpora, ta ori kendu in ber ixetan seuntzen, eta, mermeu itten sales gitxi asko irikinkeran, egunean bitten edo iruten bete in ber ixetan sendun, arik eta a loye botaten itxi artean edo bera kalmeu artean, orretako eukitten sendun garrafoyatan edo, non edo an, reserbeute, itxitte (LI)" - (Txakolina egiteko, hemen gehienetan lehen, ipintzen zen katxarro bat, bota hara, eta zapaldu-zapaldu-zapaldu egin, eta ateratzen zen, behean ipintzen zen tinakoa, edo zer edo hura, gauza garbia, hara hartzen zen, handik hartu, eta barrika hura artean ondo garbitu, edo, likorragaz pasatzen zenuen gehienetan, hura pasatu hotzitu eta ostean, betetzen zenuen, eta bete, eta ganean, zuloa botatzekoan, parean, buztina ipintzen zitzaion hemen, bueltan, eta, hara, erdi ingururaino betetzen zen barrika, artean eduki behar zenuen zuloaren barruan, hura ipintzen zen, zeraren, haren erdi ingurura, eta hasten zen, gaur betetzen bazenuen, bihar goizerako pri-pri, pri-pri, gerorago gehitxoago irakiten-irakiten joaten zen, eta, han ateratzen zuen, batza esaten zitzaion, guk esaten genion behintzat, han zeukan mahats zaborreria edo lohitasuna, eta botatzen zuen kanpora, eta hori kendu egin behar izaten zenion, eta, urritu egiten zenez, gutxi-asko irakikeran, egunean bitan edo hirutan bete egin behar izaten zenuen, harik eta lohi hura botatzen utzi artean edo bera baretu artean, horretarako edukitzen zenuen garrafoietan edo, non edo han, erreserbatuta, utzita)

"Matza emen egon da se, oñikarren bakot nik, txakoliñe itteko matza, txakoliñe itten dot eta, etzerako (Z.)" - (Mahatsa hemen egon da ze, oraindikarren badaukat nik, txakolina egiteko mahatsa, txakolina egiten dut eta, etxerako)

udxe, uye: oia, bikea; zahagi eta zahatoei barruan ematen zaiena kontserbatzeko

5. JANTZIAK

Jantzieraren gaineko berbak banatzeko egin ditugun azpi-atalak arropak, oinetakoak, osagarriak, apaingarriak eta, azkenik, joskigintza beharrari dagokiona izango dira.

5.1. ARROPAK

abrigoa: berokia

aidxebetea, ayibitxea: aiubeta, kordel mota bat, gorantza lotzeko lehen erabiltzen zena

alkondarea, arkondarea: alkondara

aspiko gonea: azpiko gona

atorrea: atorra

boltzea: 1. poltsikoa. 2. poltsa

"Beran sasoyan etorten bada emongo tzet nik boltza bete (Z.)" - (Beraren sasoiaren etortzen bada emango diot nik poltsa bete)

boltzilloa: poltsikoa

bruse: brusa, hau lehen nagusiek janzen zutena da

"Nik, e, gixonan erropak, a, ba bruse lenau, gastetxue ixte nitzenean bruse, sabalak mutile pere bai esetu nitxusen baya gaste gastetxue ixte nitzenean, brus sabalak terliseskoak, eta, gixon sarrak, bueno mutil gasteak, terlise edo orretarikoa ta gixon sarrak, ba sera, e, bruse, selan esangot? baltza, lanaskoa, eta lutue dauenean ta beluko mesara edo olan yoateko lanasko baltza, gixonak, ostantzean, ba perkalesko amentalak selan andrak erabiltze itxuesan, axe perkalgas bere bai, olan bitxarteatan ta ibiltzeko (M.)" - (Nik, gizonen arropak, ba brusa lehenago, gaxtetxoa izan nintzenen brusa, zabala mutilak ere bai ezagutu nituen baina gazte-gaxtetxoa izan nitzenean, brusa zabalak terlizezkoak, eta, gizon zaharrak, beno mutil gazteak, terliza edo horietarikoa eta gizon zaharrak, ba zera, brusa, zelan esango dut? beltza, artilezkoa, eta lutua dagoenean eta beluko mezara edo holan joateko

artilezko beltza, gizonak, osterantzean, ba perkalezko amentalak zelan andreak erabiltzen dituzten, perkal harexegaz ere bai, holan bitarteatan eta ibiltzeko)

bufandea: lepokoa

dxaskidxe: jazkia

elastikue: elastikoa, txaleko antzeko bat izan da hau

erropia, arropia: arropa

"Erropia be dana neu pe garbittu otzet, t'es oingo moduen labadorakas, e? (Z.)" - (Arropa ere dena neuk ere garbitu diet, eta ez oraingo moduan ikuzkailuakaz, e?)

faldoya: faldoia

"Oyela, faldoya gero etor san baya oyela (M.)" - (Oihala, faldoia gero etorri zen baina oihala)

frakea: praka

"Bai, ibilli itten san yosten, makiñea buruen deuela, etzerik etze, ibilte siren, eta etzean yosten seittuesan, ba oiñ esan dune, frakak olan kutxillotu, eta, kutxillotuteko balio esteurenak, ba, emen, e, atzetik, bera sano dekesan, a, satiek, solteta imiñi, eta umeari frakak, eta olan eitten siren, ai pere, aprobetxeu etzerik etze dabiltzesanak, yoskillek (Z.)" - (Bai, ibili egiten zen josten, makina buruan duela, etzerik etxe, ibiltzen ziren, eta etxean josten zituzten, ba orain esan duguna, prakak holan kutxilatu, eta, kutxilatzeko balio ez dutenak, ba, hemen, atzetik, behera ondo dauzkaten, zatiak, soltatuta ipini, eta umeei prakak, eta holan egiten ziren, haiek ere, aprobetxatu etzerik etxe dabiltzanak, joskileak)

"Se loyorra tiresen orrek frakak (Bi.)" - (Ze lohiorrak diren praka horiek)

galtzardie, galtzerdie, gantzardie, gantzerdie: galtzerdia

"Emen gitxi in ye, ba galtzardie, Larroi aldeti giau, ta Emerandon bere bai (Z.)" - (Hemen gutxi egin da, ba galtzerdia, Larrauri aldetik gehiago, eta Emerandon ere bai)

"Ba gantzardie imin bearrean mantea, ta onetara imintxeudean, onetara eta gero bueltan bueltan bueltan, gero amarrea onetara, gerorau gorau, gerorau gorau (M.)" - (Ba galtzerdia ipini beharrean manta, eta honetara ipintzen zuten, honetara eta gero bueltan-bueltan-bueltan,

gero amarrea honetara, gerorago gorago, gerorago gorago)

"Sarankada gantzerdi eiñ, eta Bilbora saltxian dxoate san (At.)" - (Zarankada galtzerdi egin, eta Bilbora saltzen joaten zen)

galtzardi lodie: galtzerdi lodia

galtzardi mea: galtzerdi mehea

galtzetia: galtzeta

galtzetiñe: galtzerdia

gonea: gona

"Gona bi baya aspikoa surie, nik estot besterik esetu, ganekoan modukorik, bi alkarren ganean estodas esetu nik, oin surie bai puntilleskoa (M.)" - (Gona bi baina azpikoa zuria, nik ez dut besterik, gainekoaren modukorik, bi elkarren gainean ez ditut ezagutu nik, orain zuria bai puntilazkoa)

"Emen imintxe seudean, ba ni tekot, e, gixonari entzunte, ba alan almude bat imintxea moduen, ta an barruen saye, saye badaki ser dan? eta an gero orrotz bategas, gonea, se ostantzean goneak pixuegas, gona lodiek ixetan sireles berantza eitxeuen, eta an orrotzagas imiñieskeroan es, ta sayegas olan, a, almudetxu beten moduen, olan imintxen ei seudean (M.)" - (Hemen ipintzen zuten, ba nik daukat, gizonari entzunda, ba halan burruko bat ipintzea moduan, eta han barruan zahia, zahia badaki zer dan? eta han gero orratz bategaz, gona, ze osterantzean gonak pisuagaz, gona lodiak izaten zirenez beherantza egiten zuen, eta han orratzagaz ipiniz gero ez, eta zahiagaz holan, burrukotxo baten moduan, holan ipintzen ei zuten)

gorantza: gonantza, gorantza

jersea: jertsea

jugoya: jugoia

kamisetea: kamiseta

kamisoya: kamisoia

kamixea: kamisa, mahukabako goitik beherako azpiko gona antzekoa

"Kamixea erabiltxe seuen, ak elixaldeko, len esan doten atzoak, ba emetik onako txalekoan moduen, eta mangakas kamixe surie, aonarten mangak, astegunean etzean erabiltxe seuen, ba ya etzean eiñeko tela fuertea, orrek garbitxuteko bere total gogorrek ixeta

siren (M.)" - (Kamisa erabiltzen zuen, elizaldeko hark, lehen esan dudan atsoak, ba hemendik honako txalekoaren moduan, eta mahukakaz kamisa zuria, haonaino mahukak, astegunean etxean erabiltzen zuen, ba ja etxean egineko ehun sendoa, horiek garbitzeko ere guztiz gogorrek izaten ziren)

kansonsillue: galtzontziloa

korsea: korsea

kuleroa: kuleroa

mantea: ume txikerrak estaltzeko erabiltzen zen mantarra

mantoya: mantoia

mariñerea: marinera

oyela, odxela: oihala

"Oyelan aspitxik trapu bet, ori esetu dot nik (M.)" - (Oihalaren azpitik trapu bat, hori ezagutu dut nik)

paxea, paxia: paxa

"Paxia, estemangue edo otzittu se dakion, garrikoa bakixu ser dan? ba aixen tipo tipokoa, baya puntuskua, puntu lodie, puntuskua, eta ukitte sittusen alan, a, kordel luse bi, eta a batxen sakon, buelta gustien, a, umeari, baya orduen eroten siren oyelak, oyelak esate akean, ba manta lusiak, ta au oyela emen lotuteko, agas paxeagas amarretan sakon (Z.)" - (Paxa, urdaila edo hotzitu ze dakion, gerrikua badakizu zer den? ba harexen era-erakoa, baina puntuzkoa, puntu lodia, puntuzkoa, eta edukitzen zituen halan, kordel luze bi, eta hura batzen zitzaion, buelta guztian, umeari, baina orduan eroaten ziren oihalak, oihalak esaten zitzaion, ba manta luzeak, eta oihal hau hemen lotzeko, paxa haregaz lotzen zitzaion)

pastore galtzardie: galtzerdi lodia, artilezkoa

soñekoa: soinekoa

sujetadora: titi-zorroa

tokillea: tokila

trapu surie: ume txikerrei ipintzen zitzaion sorki zuria txiza xurgatzeko

txalekoa: txalekoa

"Brusen aspian txalekoa eroateudean, mangabako txalekoa, mangabako txalekoa ixeta san ori, nik esetu dot olan (M.)" - (Brusaren aspian txalekoa eroaten zuten, mahukabako txalekoa, mahukabako txalekoa izaten zen hori, nik ezagutu dut holan)

txamarrea: txamarra

txapiñe: txapina, artilezko galtzerdia eta baita umeen galtzerdi txikerrei ere esaten zaie

yakea, yake, dxakia: jaka

"Nire eurrekoak, e, nik estot olaurik neuk esetu baya, yantzie pa sedaskoak, onek, e, yakeak, sedaskoak, ta gero, emen eskote andie baya, barrutik, petxeroak, puntillagas aonen meideko puntillea, eta tela sati bet emen imintxeudean, brusen barrutik, ixeta san ba, au euki bearrean, aalan tela, puntillagas, kuadrusko, telatxu bet, sedaskoa ixeta san, erabiltxeudean, puntillea goitxik, eta emen imiñi olan orrotzakas, ori esetu dot nik, eta amentala, amentala sedaskoa emen alboan, lasu andi betegas, lasue imiñi emen, bia yoten, eta plegea plegeakas (M.)" - (Nire aurrekoak, nik ez dut holakorik neuk ezagutu baina, jantziak ba zetazkoak, hauek, jakak, zetazkoak, eta gero, hemen eskote handia baina, barrutik, petxeroak, puntilagaz haonen neurriko puntilagaz, kuadruskoa, telatxo bat, zetazkoa izaten zen, erabiltzen zuten, puntila goitik, eta hemen ipini holan orratzakaz, hori ezagutu dut nik, eta amantala, amantala zetazkoa hemen alboan, begizta handi bategaz, begizta ipini hemen, behea jotzen, eta plegeak plegeakaz)

yake surie: jaka zuria, jaka dotorea izaten zen, jaieguneko jantzekoa

yantzie: jantzia

5.2. OINETAKOAK

abarka asala: abarka azala

"Imiñi kaderea eta olan, lapiseagas edo eitxe seuen, e, apur be gora bera, ta gero puntea imintxe otzon ta untzeakas yosi, buelta gustien untzeakas, ta bueno, abarka asalak ayek, e, etzean eitxe siren, Markaide gustientzat ei sitxusen ak (M.)" - (Ipini oina eta holan, lapitzagaz edo egiten zuen, apur bat gora behera, eta gero punta ipintzen zion eta iltzeakaz josi, buelta guztian iltzeakaz, eta beno, abarka azala haiek,

etxean egiten ziren, Markaida guztiarentzat egin zituen hark)

abarka kordela: abarka kordela

abarka mantak: abarka mantak

"Orrek, e, ba abarka mantak, abarkak, selan esplikeko tzut? abarkak eurek siren, erdien, olan, a, erdien ibille bat, ta alboatatik, lau ibille, t'aik abarkak eintte ote siren, ba, kotxean erruedeak, bakixu? barruko alderdittik selan dekon, a, sera, aixen moduko abarkak, se nik esetu doas segaittik? neuk, a, giputzek, edade andiko gixona, ukutte neuen emen, eta mantak, ixengo siren ba, au, maye betekoak es, baya esku gitxiaubakoak, mantak, mantea, algodoisko manta bat? satiek, eta galtzardien lekuen, a batxean suren, a, kaderan, eta gero imiñi abarkea (Z.)" - (Horiek, ba abarka mantak, abarkak, zelan azalduko dizut? abarkak eurak ziren, erdian, holan, erdian belarri bat, eta alboatatik, lau belarri, eta haiek abarkak eginda egoten ziren, ba, kotxearen gurpilak, badakizu? barruko alderditik zelan daukan, zera, haiexen moduko abarkak, ze nik ezagutu ditut zergatik? neuk, kiputzak, edade handiko gizona, edukitzen nuen hemen, eta mantak, izango ziren ba, hau, mahaia betekoak ez, baina esku gutxiagobakoak, mantak, manta, algodoizko manta bat? zatiak, eta galtzerdiaren lekuan, hura batzen zuten, oinean, eta gero ipini abarka)

abarkea: abarka

"Ba ak olantxe euki euen kaderea buelta emonta, ta klaro orrek, e, narruskoa paño esiñ erabilli, eta olauxe abarkakas esetu dot beti nik a, ta nik amabost urte euki nitxusen, e, amabost urte ingeru euki nitxusenean il sen ori andraori (M.)" - (Ba hark holantxe eduki zuen oina buelta emanda, eta jakina horrek, narruzkoak baino ezin erabili, eta holakoxe abarkakaz ezagutu dut beti nik hura, eta nik hamabost urte eduki nituen, hamabost urte inguru eduki nituenean hil zen andre hori)

abarketa kordela: abarketa kordela

abarketea: abarketa

"Eleganteaua abarketa surie ta gorrie apur bet bastotxuau, baya elegantea surie ixeta san, nik mutillek, gasteak esetu dodas, a, brusegas eta abarketa suriekas, denpora

onean, paskoatan Larraurire (M.)" - (Dotoreagoa abarketa zuria eta gorria apur bat laztxoagoa, baina dotorea zuria izaten zen, nik mutilak, gazteak ezagutu ditut, brusagaz eta abarketa zuriakaz, denbora onean, pazkoetan Larraurira)

abarkola: abarka-ohola, abarkak egiteko erabiltzen zen moldea

"Abarkola, ba, puntea sabalau eta atze estue, abarkola, puntea olan atarateko, abarkola (Z.)" - (Abarka-ohola, ba, punta zabalago eta atzea estua, abarka-ohola, punta holan ateratzeko, abarka-ohola)

abarkorrotza: abarka orratza, abarkak josteko orratz berezia

abarkuntzea: abarkuntzea, abarkak josteko eta zuloak egiteko erabiltzen den iltzea edo eztena

"Ori abarkuntzea ixen san amen seuk ori dekosun plumea, orrexen modukoa, ta gero emen ukitteuen, alan, a, esango tzut nik, onexen tamañu ingerukoa, ba kutxilloan modukoa, eta, ba orduen eitte seittuesan abarkak etzian, neuri bere sarri ein yostes aittek eta, erosi errementadeatan, a, ganadu geixoa kendukoak, narruek, eta, ebai, eta onetan, a, yantzatan dausen orrek, a, abarkak? orrexen modun yosi, agas eiñ, a, suloa, eta ba aikas eiñ, a, abarkak, eta ataraten seittuesan aunen moduko, ba serak, ugeltxuek, eta abarkuntzegas ein suloa eta andik paseu, a, ba a ugela, eta atzegiñoko, eta gero iri, ugel bieri tiretu, eta ixurres beterik pareta siren aik abarkak, eta, aik ixeta siren, labanak eta gogorak! (Z.)" - (Abarkuntze hori izan zen hamen zeuk hori daukazun luma, horrexen modukoa, eta gero hemen edukitzen zuen, halan, esango dizut nik, honexen tamainu ingurukoa, ba kutxiloaren modukoa, eta, ba orduan egiten zituzten abarkak etxean, neuri ere sarri egin dizkit aita eta, erosi erremadadetan, ganadu gaixoa kendukoak, narruak, eta, ebaki, eta hauetan, dantzetan dagozen horiek, abarkak? horiexen moduan josi, haregaz egin, zuloa, eta ba haiekaz egin, abarkak, eta ateratzen zituzten

haonen moduko, ba zerak, uhaltxoak, eta abarkuntzeagaz egin zuloa eta handik pasatu, ba uhal hura, eta atzeraino, eta gero ireki, uhal biei tiratu, eta izurrez beterik paratzen ziren haiek abarkak, eta, haiek izaten ziren, labanak eta gogorak!)

amarrea: lokarria

billeri: bileria, apabarroa, txizpegia; botei lustretzat ematen zaien koipea, txerriaren zilaren ingurukoa da

"Ori gause anditzet aukitte san atxiñe, billeri esate akon (Bi.)" - (Hori gauza handitzat edukitzen zen antzina, bileria esaten zitzaion)

bortzegie, borsegie: bortzegia

"Ba, oñetakoak bortzegie pere esetu dodas gastetxuten, eta beste batzuk, ardi narruegas edo estai pa ser eitxe san olan, eitxe seixuesan abarkak, eta abarka asalak, narruegas eiñ, ba labanak siren ayek, e? ayekas bueno, gero amarrea paseu, onetara, buelta gustien, ta amarrea istutu gero, andiegi badaus bardin da (M.)" - (Ba, oinetakoak bortzegiak ere ezagutu ditut gaztetxotan, eta beste batzuk, ardi narruagaz edo ez dakit ba zer egiten zen holan, egiten zituzten abarkak, eta abarka azalak, narruagaz egin, ba labanak ziren haiek, e? haiekaz beno, gero amarrea pasatu, honetara, buelta guztian, eta amarrea estutu gero, handiegi badagoz berdin da)

bortzegi sapatea: bortzegi zapata

botea: bota

eskubille: eskubila, oinetakoak garbitzeko erabiltzen da

ibillea: belarria

kordela: kordela, lokarria

kordoya: kordioa

lustrea: lustrea, betuna

lustre kajea: lustre kaxa

mendigosaie sapatea: mendigoizale zapata, bortzegi zapata

mengille: mingila, zapatak amarratzeko troinuaren gainean egiten dena

oñetakoa: oinetakoa

"Telebisiñoan be adi ego nas lengoan, orren adi, orrek ari eitxeko, oñetako koitxedue tire, orrek ba, abarketak, ta gusti sartute erabiltzekoak, txokoloak (M.)" - (Telebistan ere adi egon naiz lehengoan, horren adi, horiek hari egiteko, oinetako

koitaduak dira, horiek ba, abarketak, eta guzti sartuta erabiltzekoak, txokoloak)

sapata amarrea: zapata lokarria

sapata aspia: zapata azpia

sapata bortzegie, sapata borsegie: zapata bortzegia

sapata ganea: zapata goia, zapata gaina

sapata kajea: zapata kaxa

sapata kordela: zapata kordela

sapata sorue: zapata zorua

sapatea: zapata

"Sapatari emote sakean ori (M.)" - (Zapatei ematen zitzaien hori)

seboa: bilgorra, oinetakoei ematen zitzaien hobeto kontserbatzeko

sinttea, sintxia: zinta, abarketak lotzeko erabiltzen direnak

sorue: zorua

"Abarketa gero, ori soruegas aspitxik esetu dodas nik (M.)" - (Abarketa gero, hori zorueguz azpitik ezagutu ditut nik)

takoibako sapatea: takoibako zapata

takoidun sapatea: takoidun zapata

takoya: takoa

tirea: tira

"Olan ote san eskiñetik, orrek eukitxeudean, yositxe, ba aalan orrotzagaz yosten dan moduen ixetan san a, ba narruen tire bat, narrueri kendu tirea olan, ta a tirea imiñi, ba mantak amarretako luse (M.)" - (Holan egoten zen eskinatik, horiek edukitzen zuten, josita, ba haalan orratzagaz josten den moduan izaten zen hura, ba narruaren tira bat, narruari kendu tira holan, eta tira hura ipini, ba mantak amarratzeko luze)

txankloa: txankloa, gomazko zapatak abarken gainetik janzen zirenak kortarako edo

txatuela: tatxuela

"Ba bortzegie, onek, e, sapata bortzegie esaten sakean lenau, ba aspian untzea tekesenak edo txatuelak, txatuela tekesenak eta orrek (M.)" - (Ba bortzegia, hauek, zapata bortzegia esaten zitzaien lehenago, ba aspian iltzeak dauzkatena edo tatxuelak, tatxuelak dauzkatena eta horiek)

txokoloa: txokoloa, hauek egurrezkoak izaten ziren eta abarken gainetik janzen ziren

"Txokoloak, esetu in doadas, bai, erabilli bere bai, neu pere (M.)" - (Txokoloak, ezagutu egin ditut, bai, erabili ere bai, neuk ere)

5.3. OSAGARRIAK

adarra: buruko zapiaren adarra, erroa

amentalala: amantala

antiojuek: anteojuak, betaurrekoak

buru baltza: buru beltza

buruko pañelue: buruko zapia

"Pañelue imintxeko, au de lau kuadrukoa, baya dobleu, eta iru puntegas imiñi doleute, a buruen imiñi, onek eurok atzia bueltia emon, ta a atzeko trongoa, ba alderdi betera, au moño tapeute, ta bestiak amen godxen amarreu, ta iru errogas buruko pañelue (At.)" - (Zapia ipintzeko, hau da lau kuadrukoa, baina tolestu, eta hiru puntagaz ipini tolestuta, hura buruan ipini, hauek eurok atzea buelta eman, eta hura atzeko multzoa, ba alderdi batera, moino hau tapatuta, eta besteak hamen goian amarratu, eta hiru errogaz buruko zapia)

burukorrotza: buruko orrotza, orratz buru beltzak, buruko zapia lotzeko erabiltzen direnak

erroa: erroa, buruko zapiaren adarra

"Aik errotxue pere, orrostxuekas, emen bere, buruko uliari engantxeute, orros buru baltzakas (At.)" - (Errotxo haiek ere, orratzxoakaz, hemen ere, buruko ileari engantxatuta, orratz buru beltzakaz)

esku pañelue: esku zapia

gantxoa: gantxoa, buruko zapiari eta ileari eusteko erabiltzen dena

garrikoa: gerrikoa

garriko ugela: gerriko uhala

gordosola, goardasola: guardasola, aterkia

"Neu ixen nas, alaua, ixenas neu, ta gure aitte defuntueri esaten sotzon ba, Migel, orrentzako alabeantzako estekosu ba, medikurik? orreri seuser eitzesu, ixen bear ixeta sendun urdiñe ta lodie, ta ni baño sartxuauak, ba, egon siren gure eusoti bastante serian, eta aik baiñe pere batuten seittusen, imiñi, parran punten gordosola, ta urdiñ tte ederra plasara urtetako, ba

gordosolaas (Z.)" - (Neu izan naiz, halakoa, izan naiz neu, eta gure aita difuntuari esaten zion ba, Migel, alaba horrentzat ez daukazu ba, medikurik? horri zer edo zer egiozu, izan behar izaten zenuen urdina eta lodia, eta ni baino zahatxoagoak, ba, egon ziren gure auzotik nahiko zerean, eta haiek lekak ere batzen zituzten, ipini, parraren puntan guardasola, eta urdin eta ederra plazara irteteko, ba guardasolagaz)

guantea: eskularrua

iduneko pañelue: iduneko zapia

iru pikuko pañelue: hiru puntako zapia

karterea: kartera, diru-zorroa

metxerue: metxeroa

moko pañelue: muki zapia

orkille: gantxoak, ileari eustekoa

orros buru baltza: orratz buru beltzak, buruko zapia lotzeko erabiltzen direnak

pañelue: zapia

partikerea: patrika

"Ori oraintzuko da, ori gure ama defunteak, ta, ba ayen edadekoak danak erabiltzeudean partikerea (M.)" - (Hori oraintzuko da, hori gure ama difuntuak, eta, ba, haren edadekoek denek erabiltzen zuten patrika)

petakea: petaka

sapie: zapia

sinttea, sintxia: zinta

sintturie: uhala, garriko uhala

sonbrerue: kapela

sorkidxe: sorkia

txapela: txapela

txiskerue: metxeroa

txotoa, txoterue: txotoa

ugela: uhala, gerriko uhala

5.4. APAINGARRIAK

adornue: apaingarria

arrakadea: arrakada, belarrietakoa

"Estot esetu nik arrakada andirik (M.)" - (Ez dut ezagutu nik arrakada handirik)

arrakada suloa: arrakada zuloa

"Andrak oten siren, ba au, arrakada suloa epai itzela eintxe pixuegas, arrakada pixutzuek egote siren lenau (M.)" - (Andreak egoten ziren, ba hau,

arrakada zuloa epai itzela eginda pisuagaz, arrakada pisutsuak egoten ziren lehenago)

bolantea: bolantea

elastune, elestune: eraztuna

erlojue, erlejue: erlojua

katea: katea, lepokoari buruz esaten da

kollarra: idunekoa

lasue: bizdea, begizta

puntillea: puntila

txorie: txoria, bizdea, umeei uletan eta egiten zaizkien bizdeak edo lazuak

urree: urregorria, urrea

urregorrie: urregorria, urrea

urresurie: urrezuria, zilarra

5.5. JOSKIGINTZA

adabarridxe: adabua, ipinkia

adabue: adabua, ipinkia

"Adabue baya adabue, fraka barrien moduen eurrea, asko, es adabue bakarrik es, adabue barik, eurre barrie dana (M.)" - (Adabua baina adabua, praka berriaren moduan aurrea, asko, ez adabua bakarrik ez, adabua barik, aurre berria dena)

albandorrotza: albandorratza

algodoya: algodoia

ardatza: ardatza, gorua eta ardatza erabiltzen dira goruetan egikeran

"Lanea ekarri, garbitxu, ta ardatza gero, an ardatzean imiñi, ta ayegas orrastu, libreu, eta batzuk eitxeudean ardatzagas, ba nik txabilleagas, txabillea da alo egur satitxu et, erditxetik imiñi kakotxu et, olan kakotxu et eta an, au arie imintxen dan moduen, ta oneri bueltak emon esku betegas, eta arie iñ (M.)" - (Artilea ekarri, garbitu, eta ardatza gero, han ardatzean ipini, eta haregaz orraztu, libratu, eta batzuek egiten zuten ardatzagaz, ba nik txabilagaz, txabila da holako egur zatitxo bat, erdietatik ipini kakotxo bat, holan kakotxo bat eta han, hari hau ipintzen den moduan, eta honi bueltak eman esku bategaz, eta haria egin)

"On dire galtzerdidxek eintxe bere bai, baya, on dire, guk eitxen dun baño, igual beste orros batzuk edo, metxuaua, ara dxoateko esan ostien ta metxuaua, ta ardatzagas eitxen du guk, ardatza, ardatza da

egurresko, edo, sereskoa, burriñeskoa, ta agas eitxen du baya eurek, olagas atarata, d'euren dibujutxuegas, oleskoa antxe ikusi ot, baya oingo lanak, estire lenauko modukoak (Em.)" - (Egon dira galtzerdiak eginda ere bai, baina, egon dira, guk egiten dugun baino, beharbada beste orratz batzuk edo, mehetxoagoa, hara joateko esan zidaten eta mehetxoagoa, eta ardatzagaz egiten dugu guk, ardatza, ardatza da egurrezko, edo, zerezkoa, burdinazkoa, eta haregaz egiten dugu baina eurek, oholagaz aterata, eta euren marrazkitxoagaz, oholezkoa hantxe ikusi dut, baina oraingo artileak, ez dira lehenagoko modukoak)

ardi lanea: artilea

"Gero gantzardiek urtetan asi siren, onek, e, ardi laneas eitxen diren gantzardiek eta orrek asi siren urtetan, ta gero mantea ya gerorau gitxiau, gerorau gitxiau (M.)" - (Gero galtzerdiak irteten hasi ziren, hauek, ardi ileagaz egiten diren galtzerdiak eta horiek hasi ziren irteten, eta gero manta ja geroago gutxiago, geroago gutxiago)

arie, aridxe: haria

"Ni eskolara ibilli nitzenean, beti ukusten nitxusen nik orrek, e, imiñi samatik arie, ta gantzardie itxen, baya orrek atxiñe il siren (M.)" - (Ni eskolara ibili nitzenean, beti ikusten nituen nik horiek, ipini samatik haria, eta galtzerdia egiten, baina horiek antzina hil ziren)

artesiak: artaziak

aspilyurie: azpildura

barrena: barrena

"Barrena da au bia ixetea moduen (M.)" - (Barrena da hau beheha izatea moduan)

bayetia: ehun mota bat

botoya: botoia

bragetia: brageta

burusurie: orratz buru zuria, orratz buruduna

dobladillue: azpildura

erea: era, jantzietan iruntziaren kontrakoa

firue, firu: firua, haria

"Firue itten suren eurek (Z.)" - (Firua egiten zuten eurek)

"Bai, tiretu te bueltaka bueltaka eiñ, baya emen eskuen eukitten sendun ba, a lana pilloa, eta ari besteari, ari emote otzesu, ba firue in deitzen, eta gero, ba etzean eitten siren galtzardiek, eta imiñi olan a firue, eta olan esku biekas (Z.)" - (Bai, tiratu eta bueltaka-bueltaka egin, baina hemen eskuan edukitzen zenuen ba, artile pilo hura, eta beste hari, hari ematen diozu, ba firua egin diezaion, eta gero, ba etxean egiten ziren galtzerdiak, eta ipini holan firu hura, eta holan esku biakaz)

fraka barrena: praka barrena

fraka mendela: praka mendela, praka barrena

"Fraka mendel ori estekosu ondo (M.)" - (Praka mendel hori ez daukazu ondo)

galtzardi orrotza, galtzerdi orrotza: galtzerdi orratza

"Galtzerdi orrotzak diferentia taus, se etzian ikusi doas nik olan, batzu tire ba, orrotzan kolorekoak, batzuk, ta beste batzuk, bellegidxek, gantxotxue dekeanak (At.)" - (Galtzerdi orrotzak desberdinak dagoz, ze etxean ikusi ditut nik holan, batzuk dira ba, orratzaren kolorekoak, batzuk, eta beste batzuk, beilegiak, gantxotxoa daukatenak)

galtzetorrotza: galderdi orratza

gardea: garda

"Bai ama defuntek, gardak useta seittusen, onek, a, ardi lanea ekarri, eta alan, gardatute san lanea (Z.)" - (Bai ama difuntuak, gardak erabiltzen zituen, hauek, artilea ekarri, eta halan, gardatzen zen artilea)

gona barrena: gona barrena

gona magala: gona magala

gona mendela: gona mendela

gorue: gorua

"Pillo itteuen, e, sera, batu olan, eta emeti sartxeuen gorue, amarrau gorueri tte ra ra ra!, ardatzagas (E.)" - (Piloa egiten zuen, zera, batu holan, eta hemendik sartzen zuen gorua, amarratu goruan eta ra-ra-ra! ardatzagaz)

ilbiñe: ilbaina

iruntzie: iruntzia

isteko orrotza: ixteko orratza

isterganea: praken iztergainekoa

ixurre: izurra

"Ixurre lisue estana (At.)" - (Izurra lisua ez dena)

kirrue: kirrua, ehun mota bat
"Kirrue jenero ba ta (Em.)" - (Kirrua jenero bat da)
"Kirrue teleari esate sotzian (L.)" - (Kirrua telari esaten zioten)

kolkoa: kolkoa

koltxoi orrotza: koltxoi orratza

kollue: jantzien idunekoa

kortxeta: kortxeta

lanea: artilea

"Nire amak in yeu, alan, a, oiñ uleak orrastuteko onek sepillue pakixu selan dekusen? olauxek, aonen tamañukoak, asteagas, eta lanakas, olan eitten suren, a, eta gero, alan, a, tronpoyan moduko bateri, imintte sotzen a, ta ari emon bueltak, eta lania eitten suren, eta gero imiñi olan, a, serean, eta orrotzakas, galtzardiek (Z.)" - (Nire amak egin du, halan, orain ileak orrazteko eskubila hauek badakizu zelan dauzkagun? holakoxeak, haonen tamainukoak, astagaz, eta artileakaz, holan egiten zuten, eta gero, halan, tronpoiaren moduko bati, ipintzen zioten hura, eta hari eman bueltak, eta artilea egiten zuten, eta gero ipini holan, zerean, eta orratzakaz, galtzerdiak)

"Madejatzuek ixen siren, ba, se esango tzut? lania ixetia moduen, baya linoa, fiñaua (At.)" - (Matazatxoak izan ziren, ba, zer esango dizut? artilea izatea moduan, baina lihoa, finagoa)

linoa: lihoa

"Lania be bai, ta linoa be bai ein yeu gure amak (At.)" - (Artilea ere bai, eta lihoa ere bai egin du gure amak)

madejea: mataza

"Madejak ixen siren orrek linoak, pakete andi bet, aitxek ekarritze egon san (At.)" - (Matazak izan ziren liho horiek, pakete handi bat, aitak ekarrita egon zen)

magala: magala

"Magal asko deko, auxe beran sabaleria (At.)" - (Magal asko dauka, hauxe beraren zabalera)

mangea: mahuka

miese: mihisea, lihoaz egiten zen ehuna

miesasko erropea: mihisezko arropa

obillue, obilloa: obiloa

"Bija bat suk ein sendun te nik ei neuen bestia amagas, obilloak eroten baten ta bestian telia ekarten, Fikegiño, es Fiketi, ba Sorrontzagiño oñes, ta Sorrontzati tranbidxen Durangora (At.)" - (Bidaia bat zuk egin zenuen eta nik egin nuen bestea amagaz, obilloak eroaten baten eta bestean ehuna ekartzen, Fikaraino, ez Fikatik, ba Zornotzaraino oinez, eta Zornotzatik tranbian Durangora)

ojalea: botoi zuloa

orrostokie: orraztokia

"Orrostokie esaten geuntzen guk, orreri, orrotzak eta gordeta eukitxen sitxusen, gurean ama defunteak a beti, ta beti aldean erabilli bear (M.)" - (Orraztokia esaten genion guk, horri, orratzak eta gordeta edukitzen zituen, gurean ama difuntuak hura beti, eta beti aldean erabili behar)

orrotza: orratza

"Orrek orrotzak onek, gixonak, e, alanbra bat, ugerra itxen estakona emen, eta, egon san, ta ayegas alanbreagas, ei eustesan orrotzak, emen punten, alau kakotxue intxe, kakotxue koxuteko arie, onetara koxuteko, se lisuegas, e, giau kostetan da (M.)" - (Orratz horiek honek, gizonak, alanbre bat, ugerra egiten ez zaiona hemen, eta, egon zen, eta alanbre haregaz, egin zizkidan orratzak, hemen puntan, halako kakotxoa eginda, kakotxoa hartzeko haria, honetara hartzeko, ze lisuagaz, gehiago kostatzen da)

panea: pana, ehun mota bat

"Frakak, ba, panaskoak, negue bada, bueno uden bere bai batzuk igual baya, pana asko, nik esetu dot, eta ostantzean, e, lanaskoak eta baltza, orretariko sarrak (M.)" - (Prakak, ba panazkoak, negua bada, beno udan ere bai batzuek beharbada baina, pana asko, nik ezagutu dut, eta osterantzean, artilezkoak eta beltza, horietariko zaharrak)

pañue: oihala, ehuna

pasadora: pasadora

perkala: perkala, ehun mota bat

plegea: tolestura

puntue: puntua

serrapollerea: arropetan erabiltzen diren kortxeta antzekoak

taborrotza: traba-orratza

taloya: galtzerdien orpoa

"Lau orrotz, eta taloya eitteko, ba erdiek pasetan sendusen, a, atzera, atzeko bietara, eta beste erdiek eurrekora, au, a, orpoa eitteko, taloya? orpoa eitteko (Z.)" - (Lau orratz eta orpoa egiteko, ba erdiak pasatzen zenituen, atzera, atzeko bietara, eta beste erdiak aurrekora, hau, orpoa, egiteko, taloia? orpoa egiteko)

telea: ehuna, tela

"Baya orduen etzean eitxe san telia, eta, ba telia etzean eitxe sales, orrek ixeta siren, surie baya gogorra, gogorra, ixera pere itxe siren orduen etzean (M.)" - (Baina orduan etxean egiten zen ehuna, eta, ba ehuna etxean egiten zenez, horiek izaten ziren, zuria baina gogorra, gogorra izerak ere egiten ziren orduan etxean)

"Eulia tele itxen deuen, ixen san (At.)" - (Ehulea ehuna egiten duena, izan zen)

terlise: terliza, ehun mota bat

"Es, ori erremerire doasenean ta olan, ostantzean astegunean ba, terlise illune igual, esetu nitxusen nik, gastetxue ixe nitzenean, tela terlise lenau asko, kasureko bruse pere, terliseskoak asko egote siren gixonak erabiltzeko, terlise illune, ba aixetarikoak igual astegunean, eta negue bada bayetia, aonen kortiñen kolorea, baya kuadru txikerrauak, kuadru txikerrauakas, ta gero buelta gustien sintxe bi aolan imintxe, buelta gustien, aolau sintxetxu bi yositxe (M.)" - (Ez, hori erromeriara doazenean eta holan, osterantzean astegunean ba, terliza iluna beharbada, ezagutu nituen nik, gatzetxo izan nintzenean, ehuna terliza lehenago asko, kasurako brusak ere, telizezkoak asko egoten ziren gizonak erabiltzeko, terliza iluna, ba haiexetarikoak beharbada astegunean, eta negua bada baietea, haonen gortinaren kolorea, baina kuadru txikerragoak, kuadru txikerragoak, eta gero buelta guztian zinta bi haolan ipinita, buelta guztian, haolako zintatxo bi josita)

titerea: titarea

trabes orrotza: traba orratza, kate orratza

tronbille: tronbila, troinua

troñue, troñu: troinua, korapiloa

txabille: txabila

"Gorue, bai, gorue, batagas sein besteagas gorue, baya, batzuk txabillea, ta beste batzuk ardatza, ardatza da, esku bet bian imiñi txe bestea goyen, ta txabilleagas, olan da txabillea ta emon bueltak eta esku biek libre, ta niri txabillea gustetan saten, bai, ta nik emen ba suegrea sartxue ixen san, se, gixona ba gasteanatarikoa ixen san, ta ba, sartxue, ta nik ona etorri arten eneuen yakiñ eitxen, ba a ukusi, ta a ukusi neuenean, beste baten beste aldeko andrea ikusi neuen, txabilleagas, ta emekoa ardatzagas, baya ardatza baño fasillau topeta neuen txabillea, eta ein bere ba ariñau (M.)" - (Gorua, bai, gorua, batagaz zein besteagaz gorua, baina, batzuek txabila, eta beste batzuek ardatza, ardatza da, esku bat behean ipini eta bestea goian, eta txabilagaz, holan da txabila eta eman bueltak eta esku biak libre, eta niri txabila gustatzen zitzaidan, bai, eta nik hemen ba amaginarreba zahartxoa izan zen, ze, gizona ba gazteenetarikoa izan zen, eta ba, zahartxoa, eta nik hona etorri arte ez nuen jakin egiten, ba hura ikusi, eta hura ikusi nuenean, beste baten beste aldeko andrea ikusi nuen, txabilagaz, eta hemengoa ardatzagaz, baina ardatza baino errazago topatzen nuen txabila, eta egin ere ba arinago)

yosteko makiñea, dxosteko makiñia: josteko makina

"Yosteko makiñea apurtu da (Z.)" - (Josteko makina apurtu da)

yostorrotza, dxostorrotza: jostorrotza

"Dxostorrotzak eperdidxen deko suloa (At.)" - (Jostorrotzak ipurdian dauka zuloa)

yosturea: joskura

"Askatu in yaku, yosturetik askatu daku (Z.)" - (Askatu egin zaigu, joskuratik askatu zaigu)

6. BIZILEKUA

Bizilekuari emango diogun atal honetan etxearen inguruan batu ditugun berbak aurkeztuko dira. Azpi-atalak etxea egiteko materialak, etxearen egitura, etxearen banaketa, atea-leihoak-eskailera, sua, argia,

ura, sueteko tresnak, ontziteria, altzariak, etxeko arropak, bogada eta garbikuzia dira.

6.1. ETXEA EGITEKO MATERIALAK

aldamiñoa: aldamia

amasea: amasa, adreiluak ipintzeko egiten dena

"Amasa itxe osun lurre, talle itxekoa, lur klasea gogorra (L.)" - (Amasa egiten duzun lurra, teila egitekoa, lur mota gogorra)

area: harea

arearrie: hare-harria

"Geixori tau gurea, ori, arearrieri geixo bat etorten dako (E.)" - (Gaixorik dago gurea, hori, hare-harriari gaixo bat etortzen zaio)

"Ondo memorin dekot arri betegas, arearri betegas selan gasta eutzen, a, pintture, egoko pintture gastateko, arearrie artute, ba emen arearririk, e, egon bere esan eitten, bueno, sorrotzarriren bat edo, oin bere aor dau bat, arearririk emen egon bere esta, baya emen goyen semekure dau arearri tte, aitte defuntuk topeun arearrie latza bastante, ta, eurek, bertati etorri tte, ederto gero, ño! gause itzela san (Z.)" - (Ondo gogoan daukat harri bategaz, hare-harri bategaz zelan higatu zioten, pintura, hegoko pintura higatzeko, hare-harria hartuta, ba hemen hare-harririk, egon ere ez zen egiten, beno, zorrotzarriren bat edo, orain ere haor dago bat, hare-harririk hemen egon ere ez da, baina hemen goian zenbagura dago hare-harria eta, aita difuntuak topatu zuen hare-harria latza nahikoa, eta, eurak bertatik etorri eta, ederto gero, ño! gauza itzela zen)

arkue: arkua

"Arkue, lenau, olagas eitxen da, ta gero arridxeak, e, bian ganean dauela eitxen dosu bueltan bueltan imiñi txe gero (L.)" - (Arkua, lehenago, oholagaz egiten da, eta gero harriakaz, behearen gainean dagoela egiten duzu bueltan-bueltan ipini eta gero)

armasoya: armazoia

arrie, arridxe: harria

"Arridxeek erabiltzen bai, esetu dot orretariko baya satzakas guk iños es (M.)" - (Harriak erabiltzen bai, ezagutu dut horietariko baina satsakaz guk inoiz ez)

"Bai, arridxeek ataraten gendusen, Dxatan, Bakidxon artu gendun, e, depositxue urena eitxeko, arridxe atarata, dana geuk eintxe (L.)" - (Bai, harriak ateratzen genituen, Jatan, Bakion hartu genuen, biltegia urarena egiteko, harria aterata, dena geuk eginda)

arrilosea: harlauza

arri trabesa: harri trabesa, hormaren alde batetik bestera doan harria

basea: basa

"Es, karea ta area, e, batzutan, ta beste batzutan, e, baseagas, atxurtu, lurre, ta ain basia ta basiagas, etziak osoak ein dus guk baseagas be, baseas eiñ amasia ta (L.)" - (Ez, karea eta harea, batzuetan, eta beste batzuetan, basagaz, aitzurtu, lurra, eta haren basa eta basagaz, etxeak osoak egin ditugu guk basagaz ere, basagaz egin amasa eta)

burriñe: burdina

igeltzoa, idxeltzoa: igeltsoa

jere: jera, teilatua botatzen denean ipintzen den erramaren izena

karea: karea

"Kareak iltxen txus gause asko, baya sarritxen, lurrek, e, karetzuegi daus, da orduen kaltegarrie da (G.)" - (Kareak hiltzen ditu gauza asko, baina sarritan, lurrak, karetsuegi dagoz, eta orduan kaltegarria da)

kare bixie: kare bizia

ladrillue, ladrilloa: adreilua

losea: harlauza

morterue: mortairua, porlanaren orde z erabiltzen zen amasa

obrea: beharlekua

"T'ori obratan bere bai, talleture altzetako tallek eta amasea olantxe egote san, an talletuen imiñi puntel bat t'ari amarreu ori txirritxola ta, betik bat sokeas altzeu gora (L.)" - (Eta hori obretan ere bai, teiltatura altxatzeko teilak eta amasa holantxe egoten zen, han teiltatuan ipini zutoin bat eta hari amarratu txirritxol hori eta, behetik bat sokagaz altxatu gora)

ola: ohola

ormigoya: hormigoia

"Ba markeu, lelengo ba eskuadrakas, e, biar dan moduen ta, ein suloa sakon ta, bian asitxe arridxegas, oiñ ormigoyaas eitxen dire siminyuek beteteko, orduen es, orduen arridxekas, amaseas ta arridxegas, e, an suloan seu barruen sartute, eitxen eitxen gora (L.)" - (Ba markatu, lehenengo ba eskuadrakaz, behar den moduan eta, egin zuloa sakon eta, behean hasita harriagaz, orain hormigoia egiten dira oinarriak betetzeko, orduan ez, orduan harriakaz, amasagaz eta harriagaz, han zuloan zeu barruan sartuta, egiten egiten gora)

pinturea, pintura, pintxurea: pintura

porlana: porlana

"Oin porlana taus baya len esan oten, ta gero b'orrek atara ta atara, ta atara, ta gero pilloa itten san etzeondoan, edo etze ondoko soloan, parajen dan lekuen, eta gero, denporea datorrenean, satza bertan oten san, desiñ intte (Ll.)" - (Orain porlanak dagoz baina lehen ez zen egoten, eta gero ba horiek atera eta atera, eta atera, eta gero piloa egiten zen etxe-ondoan, edo etxe ondoko soroan, parajeen den lekuan, eta gero, denbora datorrenean, satsa bertan egoten zen, desegin eginda)

sementoa: porlana

"Latea da, tallea, abanta deiñ, orme, edo semento imintten dan moduen (Z.)" - (Lata da, teila, eutsi dezan, horma, edo porlana ipintzen den moduan)

sinbridxe: zinbria, arkuak egiteko erabiltzen den oholezko edo burdinazko armazoa

tabloya: ohol luzea, tabloia

6.2. ETXEAREN EGITURA

agea: hagea

"Agea, agea posteari esateutzean lenau askok, osea beti gora dauen posteari a bandia imintteko edo frontala, segun (Ll.)" - (Hagea, hagea zutabeari esaten zioten lehenago askok, hau da behetik gora dagoen zutabeari banda hura ipintzeko edo frontala, segun)

astillea: arrakala, arraildura, pitzadura

bandea: banda

"Arek, deko, bean botaten dosun luseak, orreri, ataraten dako agintxu bet, punten, aurretik eron esteyen, eta gero, andik gorakoa doa an ajusteta, eta bestekoa bere bai, eta gero erdien doanak, erdien doanak, eroten dau, an beko, ba, bandan, sulotxu bet alboatara in esteyen, baya arek, an kargeta imintten danean sakatu esteu iños eitten, gorantza baño, ta gorantza urten esteyen aspittik burrin bet eroten deu arek istutute, se ondo badau ak erdikoak esteu sakatu bear an, gora in baño, goyen semet eta sakatuau, aik alboatakoak eitte otze tiretu, ta a gora doa (E.)" - (Hark, dauka, behean botatzen duzun luzeak, horri ateratzen zaio hagintxo bat, puntan, aurretik eroan ez dezan, eta gero, handik gorakoa doa han ajustatuta, eta bestekoa ere bai, eta gero erdian doanak, erdian doanak, eroaten du, han beheko, ba, bandan, zuloa bat alboetara egin ez dezan, baina hark, han kargatuta ipintzen danean sakatu ez du inoiz egiten, gorantz baino, eta gorantz irten ez dezan azpitik burdina bat eroaten du hark estututa, ze ondo badago hark erdikoak ez du sakatu behar han, gora egin baino, goian zenbat eta sakatuago, haiek alboatakoek egiten diote tiratu, eta hura gora doa)

batzidxe: batzia, trangoa, zuloa

bea, bia: behea

bean ganea, bin ganea: behearen gaina

bittarte, bitxarte: bitarte

deposittue, depositxue: 1. txiza-putzua. 2. biltegia

"Nik, a, estaitt selan deken ixena, baya euki nittusen, aor, a, etzean kontra, ortxe deposittue dekoten lekuen, estaitt selan esate tzean, guri esakusen gustan orduen, oin gustetan dakus, baya, berretxikoak udebarrikoak, ta karue tire, e? ta guri esakusen gustan (T.)" - (Nik, ez dakit zelan daukaten izena, baina eduki nituen, haor, etxearen kontra, hortxe biltegia daukadan lekuan, ez dakit zelan esaten zioten, guri ez zitzaizkigun gustatzen orduan, orain gustatzen zaizkigu, baina, perretxikoak udaberrikoak, eta garestiak dira, e? eta guri ez zitzaizkigun gustatzen)

egala: hegala, teilatuaren hegala
erantzie, eraskiñe: erantzia, eranskina
"Erantzie da, kasureko alboan, añadidutea (E.)" - (Erantzia da, kasurako alboan, eranstea)

errasea: maila
"Orrek yan itte tzo justo justo justoan lurren errasetik, baya esta sague, pentze lei sague dala baya sague txatoa da (T.)" - (Horrek jan egiten dio justu-justu-justuan lurraren mailetik, baina ez da sagua, pentsa liteke sagua dela baina sagua txatoa da)

erresumia: erresuma
"Ba au postia geldi egon deitzen, andik, e, lurretik ona imintxen da alan egur bet eta ari erresumia esaten dako, dxosi edo godxen, atzera eta dxoan seditxen eusteko, olan talusian (L.)" - (Ba zutabe hau geldi egon dadin, handik, lurretik hona ipintzen da halan egur bat eta hari erresuma esaten zaio, josi edo goian, atzera eta joan ze dadin eusteko, holan talusean)

erretallea: erreteila, teilatuko teilak aldatzea
"Gu ibiltzen gintzesenean erretallek eta itxen, a, ori, txirritxola an talletuen imintxen da (L.)" - (Gu ibiltzen ginenean erretaileak eta egiten, hori, txirritxola han teilatuan ipintzen da)

eskiñe: eskina, kantoia, hegala
"Selan esaten geñun? ni astute bere banau selan esaten geñun, lau eskiñetan edo parata, bat, a, bat erdien, eta gero arek lekutxuek koiten bai (M.)" - (Zelan esaten genuen? ni ahaztuta ere banago zelan esaten genuen, lau eskinatan edo paratuta, bat, bat erdian, eta gero leku haiek hartzen bai)

frontala: frontala, teilatuko aurrekaldeko hage handia
"Kaperioa taus, osea, lenengo dau tallea, goitti bera asi gaittesan, siminyue itten eskara asi, espadase gora yoan bagara, tire segidu deigun baya dana dala bardin ye, tallea lenengo, latea gero, kaperioak gero, eta gero daus frontalak (Ll.)" - (Gaperioak dagoz, hau da, lehenengo dago teila, goitik behera has gaitezen, oinarria egiten ez gara hasi, ezpadaze gora joan bagara, tira segi

dezagun baina dena dela berdin da, teila lehenengo, lata gero, gaperioak gero, eta gero dagoz frontalak)

gallurre: gailurra
"Gallurre, lenengo erdien imintten dana gorengo (E.)" - (Gailurra, lehenengo erdian ipintzen dena goirengo)

goye: goia, sabaia

itxugiñe: itogina

kabrioa: kabrioa

"Len gallurre esan doten moduen dekea ba, kabrioa, kabrioa tatosenak gallurreti, posterik postera dosenak (K.)" - (Lehen gailurra esan dudan moduan daukate ba, kabrioa, kabrioak datozenak gailurretik, postetik postera doazenak)

kantoya: kantoia

kaperioa, kaperidxo: gapirioa

"Kaperioa tires arek, berantza datosenak (E.)" - (Gapirioak dira haiek, beherantz datozenak)

"Gallurre, bandak, eta kaperidxoak edo, eta gero latia ta (L.)" - (Gailurra, bandak, eta gaperioak edo, eta gero lata eta)

latea: lata

"Latea da aspikoa (Z.)" - (Lata da azpikoa)

listoya: listoia

miru bustena: miru buztana

"Miru bustena esaten dako, aune pere badeko etzeak, danak estekea, dekosu talletue, gallurre badoa gallurre da goikoa, e? doan, e, bandia, suk esan dosune, bandia goitti bera, eta, atzera allegeu baño lentxuau, lau bost metro eurrerau, atzeko ormia baño, amaittuten da, ori gallurrori, eta andik bera, orma ganera, bera begire, imintten dako triangulo forman, ataraten dako, alde bietatik kendu satie, ataraten dako, kaidea, orixe da miru bustena (Ll.)" - (Miru buztana esaten zaio, haonek ere badauka etxeak, denek ez daukate, daukazu teilatua, gailurra badoa gailurra da goikoa, e? doan, banda, zuk esan duzuna, banda goitik behera, eta, atzera ailegatu baino lehentxoago, lau bost metro aurrerago, atzeko horma baino, amaitzen da, gailur hori, eta handik behera, horma gainera, behera begira, ipintzen zaio hiruki itxuran, ateratzen zaio, alde bietatik kendu zatia, ateratzen zaio, jausikera, horixe da miru buztana)

ola: ohola

"Orrek olak onetara badekos, emekoak, bestean bestera deko ak, alrebes (E.)" - (Ohol horiek honetara badauzka, hemengoak bestean bestera dauka hark, aldrebes)

orma eskiñe: horma ertza

orma silloa: horma zuloa

ormea, ormia: horma

"Banda pere esate otzea bai, kasureko, emen ormean ganean doana, bandak (L.)" - (Bandak ere esaten diete bai, kasurako, hemen hormaren ganean doana, bandak)

pasaderea: pasadera, harri-pasadera

postea, postia: postea, zutabea

"Postia, postia, bai, leku batzuten, eitxen deude ori, sabala bada, portala andidxe bada edo (L.)" - (Postea, postea, bai, leku batzuetan, egiten dute hori, zabala bada, ataria handia bada edo)

poyala, pudxela: poiala, zutabeen behelaldean dagoen harrizko oinarria

puntela: zutoina

"Orman, e, imintxen da punte bat, ta amen beste atzen puntela, ta gero tabloya ganian, batetik erresumek artxen ta dxoan saitxesan (L.)" - (Horman, ipintzen da punta bat, eta hamen beste atzean zutoina, eta gero oholtzarra ganean, batetik erresumak hartzen eta joan zaitezten)

"Puntela da ori aspiko arridxe (L.)" - (Zutoina da hori aspiko harria)

salea, salia: behea, zola; gehienetan egurrezkoa izaten da

sapatea: zapata

"Au de gallurre, ta one tires bandak, ta au de sapatea, ormea ganean dauena, baya onek yoa leittikes ba, onartekoak nai ori satike, bakotxan, e, berenetik, ta gero onetara bestera latea (E.)" - (Hau da gailurra, eta hauek dira bandak, eta hau da zapata, horma ganean dagoena, baina hauek joan litezke ba, honainokoak nahi hori zatika, bakoitzaren, berenetik, eta gero honetara bestera lata)

"Sapatea, da, imintteutzeana, sati be ta, apur bet punte sorrotzera idi, eta arik postean ganean imintteutzen, e, bandian aspireko, deskantzu klasean, edo bi bat eitteko, ain ganean imintte san, osea

olan kuñera ebai bi, allegetan esanian eta bi ekarri, eta sapatia san aspian imintteutzena, ta a yositte imiñi postian ganian (L.)" - (Zapata, da, ipintzen ziotena, zati bat da, apur bat punta zorrotzera ireki, eta handik zutabearen ganean ipintzen zioten, bandaren azpirako, deskantsu eran, edo bi bat egiteko, haren ganean ipintzen zen, hau da holan talusean ebaki bi, ailegatzen ez zenean eta bi ekarri, eta zapata zen azpian ipintzen ziotena, eta hura josita ipini zutabearen ganean)

siminyue: oinarria

solibea: soliba

"Solibek, one parik, e, emen bean ganean, ola yosteko imintten diesanak, kamarakoak, kamarakoak (E.)" - (Solibak, hauek barik, hemen behearen ganean, ohola josteko ipintzen direnak, kamarakoak, kamarakoak)

tallea: teila

talletue, tellatue: teilatua

"Talletutan egote san ori, talletu ganen eintte (Z.)" - (Teilatuetan egoten zen hori, teilatua ganean eginda)

"Apaldidxen gedxen talletu sarrak arregletan, gedxen akabuen (L.)" - (Aspaldian gehien teilatua zaharrak konpontzen, gehien azkenean)

"Gero ba, lekure doanian, e, egur lodi bet ganian imiñi, gero talletue botateko, egur bet ganian (L.)" - (Gero ba, lekura doanean, egur lodi bat ganean ipini, gero teilatua botatzeko, egur bat ganean)

tijerea: teilatuko hagea

trabesa: trabesa, harri-trabesa

trabille: trabila

tranpea: tranpa, kamarara igotzeko dagoen atea

txixe posoa: txiza-putzua

"Peligro ote san orretan, e, baserrire yoatea, se baserrien, e, esetu esik ingerue ba, txixe posora, sera, sartu, edo beti pasten san seuser, an problemak oten siren baya amen kalean esan egoten problemarik (K.)" - (Arriskua egoten zen horretan, baserrira joatea, ze baserrian, ezagutu ezik ingurua ba, txiza-putzura, zera, sartu, edo beti pasatzen zen zer edo zer, han problemak egoten ziren baina hamen kalean ez zen egoten problemarik)

6.3. ETXEAREN BANAKETA

bastarra: bazterra

bixilekue: bizilekua

"Kuartu bari pere bai, bai, kuartu bari pai, bian biximodue ta godxen kamaria, artoa siketute, edo patatia edo ibiltzeko, kamaria lelengoan, bataran batzuk igual kuartu atarata bere bai baya, salle andidxe libre, inyabak siketute, dana antxe san, e, bixilekuen ganian (L.)" - (Logela barik ere bai, bai, logela barik bai, behean bizimodua eta goian kamara, artoa sikatuta, edo patata edo ibiltzeko, kamara lehenengoan, baten batzuek beharbada logela aterata ere bai baina, sail handia libre, indabak sikatuta, dena hantxe zen, bizilekuaren gainean)

bixitze: bizitza

bixitze bakarreako: bizitza bakarreako

bixitze biko etzea: bizitza biko etxea

bodegea: sotoa

"A lurrunetan egote san, e, ara sartute, onek, e, Riojako bodegatara yoanta, ba selan egoten dan, e, an, e, einparrien, alantxe egoten ixen da a, ketan (E.)" - (Hura lurrunetan egoten zen, hara sartuta hauek, Errioxako sotoetara joanda, ba zelan egoten den, han, eginbarrian, halantxe egoten izan da hura, ketan)

dutxea: dutxa

entraidea: sarrera

eskusaue: komuna

"Amen esta egon es argirik es, a, urik, es, a, eser beres, es eskusaurik (M.)" - (Hamen ez da egon ez argirik ez, urik, ez, ezer ere ez, ez komunik)

etzaridxe: karrajua

"Eron saran bete bedar igual, e, solotik, esta? ta aitxeri ba, aitxe non itxiku ba? aor etzaridxen itxi (Em.)" - (Eroan zaran bete belar beharbada, sorotik, ezta? eta aitari ba, aita non utziko dugu ba? haor etzarian utzi)

"Etzaridxe? portaletik eta gortara dauen bidia (Em.)" - (Etzaria? ataritik eta kortara dagoen bidea)

etzatzea: etxe atzea

etzaurrea, etze aurrea: etxe aurrea

"Akaburengo amen etzeaurrean berton egon san (Z.)" - (Azkena hamen etxe aurrean berton egon zen)

etzea: etxea

"Egon nas iru etzetan (K.)" - (Egon naiz hiru etzetan)

"Etze sarra ixen san gurea (K.)" - (Etxe zaharra izan zen gurea)

etze barrena: etxe barrena

"Ba urri, urriñ, san migel ingerun eitten dire, aor etze barrenen itzela tekodas bi (Z.)" - (Ba urria, urrian, San Migel inguruan egiten dira, haor etxe barrenean itzelak dauzkat bi)

etze bixitzia: etxe bizitza

etze bueltea: etxe ingurua

etze ingerue: etxe ingurua

etzeondoa: etxe ondoa

gelea: gela

goitxegie, goitxegidxe: goitegia, kamara eta teilatuaren artean lotzen den lekuari esaten zaio goitegia

"Goitxegidxe inyabak eskeitzeko edo goitxegidxe, bai, orixe esate sakon bai, goitxegidxe (M.)" - (Goitegia indabak eskegitzeko edo goitegia, bai, horixe esaten zitzaion bai, goitegia)

"Goitxegidxe, bai, inyabak siketako eitxen da ori, kamaran, e, egur batzuk imiñi altuau, nobera aspitzik ibiltzeko moduen, a gania betetu inyabakas, siketuteko goitxegidxe, inyabak siketuteko, inyabak siketuteko da ori (L.)" - (Goitegia, bai, indabak sikatzeko egiten da hori, kamaran, egur batzuk ipini altuago, norbera azpitik ibiltzeko moduan, gain hura bete indabakaz sikatzeko, indabak sikatzeko da hori)

iru bixitzeko etzea: hiru bizitzako etxea

"Au etzeau iru bixitzekoa san (Ll.)" - (Etxe hau hiru bizitzakoa zen)

kamarea: kamara, ganbara

"Gure kamaran badaus, gero erakutziko tzudes gure badosu (E.)" - (Gure kamaran badagoz, gero erakutsiko dizkizut gura baduzu)

karrajue: karrajua

"Leku askotan lurre egote san lenau portalian, atxiñe, sutean bere bai leku askotan, karrajuen bere bai (L.)" - (Leku askotan lurra egoten zen lehenago atarian,

*antzina, suetean ere bai leku askotan,
karrajuan ere bai)*

komedora: jantokia

komune: komuna

kuartue: logela

*"Atxiñe kuartu gitxi eukitxe saleas,
apartasiñoa pe eingo seixuesan (L.)" -
(Antzina logela gutxi edukitzen zenez,
banaketak ere egingo zituzten)*

lastegie, lastei: lastategia

okollue: okoilua

pasillue: iraganbidea

*"Lurre akabu santue! amen bertan
pasilluen on da lurre, neu, a, ona
etorriskeroan, t'ori lurre kendu eta gero
imin sen, a, sera (Z.)" - (Lurra akabu
santua! hamen bertan iraganbidean
egon da lurra, neu, hona etorri gero,
eta lur hori kendu eta gero ipini zen,
zera)*

pisue: solairua

portala: ataria

*"Ire pai, irek ekarrite portalen sabaltan ei
siren (Z.)" - (Irak bai, irak ekarrita
etartean zabaltzen ei ziren)*

salea: egongela

saloya: saloia, egongela

sutea, sutia: suetea, sukalde

*"Sutera pasa ixus sutera, se otz ongo da or
(M.)" - (Suetera pasa itzazu suetera, ze
hotz egongo da hor)*

tejabanea: tejabana

*"Aor goyen bere, aor goiko etzean bere,
neskatoakana yoan mutillek, eta andi
bera eurberea dau, ta gurdie andik
goitxi bera, ara beko erre kara bota
otzie, kargeta daun gurdie
tejabanapean, bota andi bera (M.)" -
(Haor goian ere, haor goiko etxean ere,
neskatoengana joan mutilak, eta handik
behera aurbehera dago, eta gurdia
handik goitik behera, hara beheko
erre kara bota diote, kargatuta dagoen
gurdia tejabanapean, bota handik
behera)*

6.4. ATEA-LEIHOAK-ESKILARA

aldabea: aldaba

atea: atea

*"Etor dire aterik ate (K.)" - (Etorri dira aterik
ate)*

ateburue: ateburua

ate kolomea: ate koloma

ate nausie: ate nagusia

ate txikerra: ate txikerra

balkoya: balkoia

*"Amentxe egon da, balkoyan ertzean egon da
alau satitxu bet, baya gero talletue intte
etzea in yanen alan lotu de ta (E.)" -
(Hamentxe egon da, balkoiaren ertzean
egon da halako zatitxo bat, baina gero
teilatua eginda etxea egin danean halan
lotu da eta)*

balustrea: balustra, leihoen kanpokaldean
egoten diren burdinazko hesiak

bantzue: eskailera bantzua, oralekua

barandea: baranda

barrena: barrena, eskailera barrena

bentanea: leihoa

*"Eta ayek euki euden, ba kasureko, sutea,
gortea orti okittea les ta, olan bentana bi
andiek iri tte ixi ittekoak, ta andi emote
otzean igual yaten, atzera yoan esittearren
(E.)" - (Eta haiek eduki zuten, ba kasurako,
sutea, korta hortik edukitzea legez eta,
holan leiho bi handiak ireki eta itxi
egitekoak, eta handik ematen zioten
beharbada jaten, atzera ez joatearren)*

*"Danak, berba iñ, e, igual, e, kontesta beres,
yo arren bentanea, segun selau konfiantza
dauen, baya ni nobiegana sarri yoa nas
(E.)" - (Denek, berba egin, beharbada,
erantzun ere ez, jo arren leihoa, segun
zelako konfiantza dagoen, baina ni
andregaiagana sarri joan naiz)*

bentana balustrea: leiho balustra

*"Bentana balustrek kuadradek egote siren
lenau (E.)" - (Leiho balustrak karratuak
egoten ziren lehenago)*

bentana kolomea: leiho koloma

bixegrea: bisagra

eskillerea: eskailera

eskillera bantzue: eskailera bantzua

eskillera barrena: eskailera barrena

eskillera burue: eskailera burua

eskillera malle: eskailera maila

eskillerapea: eskailerapea

giltze: giltza

kisketa: kisketa

kolomea: koloma

kristela: kristala

malle: maila, eskailera maila

pasadora: kisketa

sotz eskillerea: zotz eskailera

"Sotz eskillerea asko dau, lastire ta idxetako lelau sotz eskillerea (L.)" - (Zotz eskailera asko dago, latategira eta igateko lehenago zotz eskailera)

trabille: trabila

trankea, trangea: tranka

"Or albatean usate san ba, tranka bat, egur beteas, korredereas, ate bateti bestera pasau, aurren a, uekutxuakas, bixegra modure, esta? (K.)" - (Hor albatean usatzen zen ba, tranka bat, egur bategaz, korrederagaz, ate batetik bestera pasatu, aurrean, hutsunetxoakaz, bisagra modura, ezta?)

txaramela: txaramela

6.5. SUA

auspoa: hauspoa

autze, eutze: hautsa, errautsa

"Bai lelau atxiñe saltxen eroten ei euden, ori bai, entzunte, autze saldu eitten ei san lelau, eron ta saldu (Z.)" - (Bai lehenago antzina saltzen eroaten ei zuten, hori bai, entzunda, hautsa saldu egiten ei zen lehenago, eroan eta saldu)

bartzune: bartzuna, errautsa kentzeko erabiltzen den burdinazko tresna

"Bartzune lenau, e, prasia arantza edo onantza eroan eitzeko, alau burrin bet, e, aulan puntia okertute, a puntia alau sabaltxue ixeta sana, prasia eraitzeko, bekosue itxe sales, a erabiltzeko, bartzune ari esate sakon, asta lusiegas ta (L.)" - (Bartzuna lehenago, txingarra harantz edo honantz eroan egiteko, halako burdina bat, haolan punta okertuta, punta hura halako zabaltxoa izaten zena, txingarra eragiteko, beheko sua egiten zenez, hura erabiltzeko, bartzuna hari esaten zitzaion, asta luzeagaz eta)

bekosue: beheko sua

"Ardau beroa, imiñi bekosuen, olau, porselanasko katxarro, olan goye istue dekenak, ta an irikiñ eraiñ ardauri, eta bota kollarakada bi edo iru asukera eta gero, olan yarrak eoten siren, eta airi

yarrari kollara bat bota apurtu esteiñ irikitten deun serak (A)" - (Ardau beroa, ipini beheko suan, holako, protzelanazko katxarroak, holan goia estua daukatenak, eta han irakin eragin ardauari, eta bota koilarakada bi edo hiru azukrea eta gero, holan pitxarrak egoten ziren, eta pitxar hari koilara bat bota apurtu ez dezan irakiten duen zerak)

burruntzie: burruntzia

egurriketza: egurrikatza

"Bai, leku lisuune bat eitzen dosu, ta ota pillo andi bet imintxen da, an, aspidxen, ta areri plegeu egurre, egurre plegeu gorartian, ta goitxik sulo itxi, ari sue botateko, ari, ota pilloari, ta gero eitzen da, seuser imiñi iria edo onetarikoa ganian, ta gero soidxek eiñ, suloak atarata, soidxekas tapeu dana, ta arnasarik artu barik, ak suek amateu barik egon bear deu an (L.)" - (Bai, leku lisuune bat egiten duzu, eta ote pilo handi bat ipintzen da, han, azpian, eta hari ezarri egurra, egurra ezarri goraino, eta goitik zuloa utzi, hari sua botatzeko, hari, ote piloari, eta gero egiten da, zer edo zer ipini ira edo hauetarikoa gainean, eta gero zohiak egin, zuloak aterata, zohiakaz tapatu dena, eta arnasarik hartu barik, hark suak amatatu barik egon behar du han)

gantxoa: gantxoa

garra: garra, sugarra

ikes larrena: ikatz larrena

ikes txondorra, ices txonyorra: ikatz txondorra

ikeslekue: ikatz lekua

iketza: ikatza

"Segun egurre, mia bada sortzi egunean eintxe dau (L.)" - (Segun egurra, mehea bada zortzi egunean eginda dago)

"Orre pakixu non oten siren len asko? emen Leon partetik, Leon partetik oten siren, ba sera ataraten, iketza (Z.)" - (Horiek badakizu non egoten ziren lehen asko? hemen Leon aldetik, Leon aldetik egoten ziren, ba zera ateratzen, ikatza)

illentie, illuntie, illundidxe: ilentia

"Illuntie bueno, illuntie esate yakon egur sati bet, gorritute daunen, illuntiges ikusteko ta (Z.)" - (Ilentia beno, ilentia esaten zitzaion egur zati bat, gorrituta dagoenean, ilentiaz ikusteko eta)

"Surteko palueri illundidxe esaten tzekun atxiñe (L.)" - (Surtako makilari ilentia esaten genion antzina)

katea: katea, tximinia garbitzeko erabiltzen zen katea bat

kea: kea

"Eta umiak yayoten badire, kajan sartu ditxesen edo, biarran isteko igual, kea itxe otzea (M.)" - (Eta umeak jaiotzen badira, kaxan sar daitezzen edo, beharrean uzteko beharbada, kea egiten diete) [erleak uxatzeko egiten zaien kearen gainean dabil]

kearte: ke-arte

kedarrea: kedarra

"Nik pentza dot kedarra dala an, e, lotute lotxe san, e, an pegata lotxe san satie, kedarra, kedarrak yausi dire! (Z.)" - (Nik pentsatu dut kedarra dela han, lotuta lotzen zen, han itsatsita lotzen zen zatia, kedarra, kedarrak yausi dira!)

"Oliñe autze da, ta kedarrea bertan pegeta lotxen dana, umedadeas lotxen da ori an, kedarra ari esaten dako, ta oliñe da autze, autz fiñe, todo fiñe (L.)" - (Olina hautsa da eta kedarra bertan inkatuta lotzen dena, umeltasunagaz lotzen da hori han, kedarra hari esaten zaio, eta olina da hautsa, hauts fina, guztiz fina)

"Kedarrakas sarratu itxen da (L.)" - (Kedarrakaz itxi egiten da)

laratzue, labatzue: laratzua

"Bai, egosi, amen neu pere, amen tximiñe andi bet, amen, bat aulaseko, tupin bet imiñi, karburoa, atxiñeko karburoa, a, aiñ, a, katxarroari sulo bi eiñ, t'imiñi emen laratzu andi beteti eskeitte, ta sue in tte egosi, kalabasak, erremolatxak, eta gero, ba txarrieri emon (Z.)" - (Bai, egosi, hamen neuk ere, hamen tximinia handi bat, hamen, bat haolasekoa, tupin bat ipini, karburoa, antzinako karburoa, haren, katxarroari zulo bi egin, eta ipini hemen laratzu handi batetik eskegita, eta sua egin eta egosi, kalabazak, erremolatxak, eta gero, ba txerriei eman)

larrena: larrena; ikatza egiteko zeharrune artifiziala

limea: lima, sua bizteko erabiltzen zena

metxea: metxa

"Baya aik metxerues esiñ arreglau ixeten siren, aik misto andiek, metxeruk esetu doas nik, selaseko metxa pillo ba! olaseko metxa pillo deudela, metxeru lenau, sarrak danak (Z.)" - (Baina haiek metxeroagaz ezin moldatu izaten ziren, haiek misto handiak, metxeroak ezagutu ditut nik, zelaseko metxa pilo ba! holaseko metxa piloa dutela, metxero lehenago, zaharrek denek)

metxerue: metxeroa

"Metxeruk, ta agas sue ta, metxeruegas es, arriegas bere bai, amen arriegas (Z.)" - (Metxeroak, eta hagaz sua eta, metxeroagaz ez, harriagaz ere bai, hamen harriagaz)

mistoa: mistoa

"Mistoak beti euki dodas, nire denporan ya mistoak eta petroleo argie bere bai (Ll.)" - (Mistoak beti eduki ditut, nire denboran ja mistoak eta petroleo argia ere bai)

misto kajea: misto kutxa

mukurre: mukurra, sutan erabiltzen den egur enborra

olliñe: kedarraren hautsa

"Goitik amarra ta katea bota berantza, ta kate botakeran, olliñe esate yakon orreri, olliñe botate san, ta garbittu tximiñea, suek artxeun nosipeñen (Z.)" - (Goitik amarratu eta katea bota beherantz, eta katea botakeran, olina esaten zitzaion horri, olina botatzen zen, eta garbitu tximinia, suak hartzen zuen noizean behin)

parrillea: parrila

"Bekosuen egote san parrille bat, bueno parrillea oin bere oten da baya, parrille aolan, iru kaderako parrillea (La.)" - (Beheko suan egoten zen parrila bat, beno parrila orain ere egoten da baina, parrila haolan, hiru hankako parrila)

prasea, brasea: txingarra

sue: sua

"Sue artute an bekosuen ibillitxe, esta ibilli biar sue eskuen, txixe oyan eingo su te (L.)" - (Sua hartuta han beheko suan ibilita, ez da ibili behar sua eskuan, txiza ohean egingo duzu eta)

su bastarra: supazterra

sugarrie: sugarria, sua egiteko erregarria

surtea: surtea

surteko autze, surteko eutze: surteko hautsa

"Nire ausoko entradek, memorin dekot, aurren euki seuen, ba, alan errekatxu bet, lelau, oiñ estire, oiñ orrek aspaldiko urtetan estire, ba len labasuk eitteko, egote san etze aurretuxen, e, ba sera, errekatxuk egote siren, labe garbittuteko, ara yoan, ta surteko autzegas, ta an, ta garbi garbi imiñi, esta oingo les (La.)" - (Nire auzoko sarrerak, gogoan daukat, aurrean eduki zuen, ba, halan errekatxo bat, lehenago, orain ez dira, orain horiek aspaldiko urtetan ez dira, ba lehen labasuak egiteko, egoten zen etxe aurretxoan, ba zera, errekatxoak egoten ziren, labea garbitzeko, hara joan, eta surteko hautsagaz, eta han, eta garbi-garbi ipini, ez da oraingo legez)

susie: zuzia, tortxa

sutondoa: sutondoa

"Etzean, sei ume badaus, nai sortzi dausela erdi goses bere, etzean, ta sutondora batu te kontuek eusokoa pe etorritte ta an, kontuek kontetan (Ll.)" - (Etzean, sei ume badagoz, nahi zortzi dagozela erdi gosez ere, etzean, eta sutondora batu eta kontuak auzokoak ere etorrira eta han, kontuak kontatzen)

"Arek sarrak pasta euden, a, ordu bi edo iru an, lo ein bearrean, an sutondoan (T.)" - (Zahar haiek pasatzen zuten, ordu bi edo hiru han, lo egin beharrean, han sutondoan)

"Mutillek, e, domeka illundietan, e, dosenas etzean, tan tan atea yo ta, sutean, lagunek, an neskatoa, despeitxan orrek mutillek, geubeko amabitxan ta aitxe ta ama sutondoan, ta ortan ibiltxen siren, gero a paseta sana illundekoa, eta etorte siren gero ordu bataker inguruen, ta bentanarrik bentana (M.)" - (Mutilak, domeka ilundeetan, dozenaz etzean, tan-tan atea jo eta, suetean, lagunak, han neskatoa, agurtzen mutil horiek, gaueko hamabietan eta aita eta ama sutondoan, eta horretan ibiltzen ziren, gero hura pasatzen zena illundekoa, eta etortzen ziren gero ordu bataker inguruan, eta leihorik leiho)

talo burriñe: talaburdina

tanboliñe: danbolina, gaztainak erretzeko erabiltzen zen

"Ointxe bere a tanboliñe barri barri dau (A.)" - (Oraintxe ere danbolin hura berri-berri dago)

tenesak, tenasak: tenazak, txingarrak eta ilintiak hartzeko erabiltzen ziren

treberrea: trebedea

txapea: txapa

"Lelengo bekosue egon san, gero egon san ba, txapea, oiñ estau bekosue esta txapea beres alde etzetan (La.)" - (Lehenengo beheko sua egon zen, gero egon zen ba, txapa, orain ez dago beheko sua ezta txapa ere ez baserrietan)

tximiñe, tximiñidxe: tximinia

"Aldeako tximiñidxe sarri esan garbitxuko (L.)" - (Baserriko tximinia sarri ez zen garbituko)

txingerra: txingarra

"Bai, kafen barruen txingerra, sera bajatuteko (La.)" - (Bai, kafearen barruan txingarra, zera bajatzeko)

"Txingerra sue da, solte dekosen satidexek suegas dekosen tires, txingerra ta illundidxe egurre, sue puntan deuela (L.)" - (Txingarra sua da, solte dauzkan zatiak suagaz dauzkanak dira, txingarra eta ilentia egurra, sua puntan duela)

txiskerue: txiskeroa

txisparrie: txisparria, sua bizteko erabiltzen zen harria, era berean erremintak zorrozteko ere erabiltzen zen

txispea: txinparta

txondorra, txonyorra, txontorra: txondorra

6.6. ARGIA

argie: argia

"Guk, e, ara yoan gintzesenean imin gendun argie (Ll.)" - (Guk, hara joan ginenean ipini genuen argia)

"Afaritten gausela argie yoan da (Z.)" - (Afaltzen gagozela argia joan da)

argi mutille: argi mutila

"Argi mutille esateutzen, e, eukitxe seudian, e, egur bet, kakoakas kakoakas argi mutille ari esateutzen, ta petrolidxo argidxe, andi kakoti eskeitxe seudian (L.)" - (Argi mutila esaten zioten, edukitzen zuten, egur bat, kakoakaz-kakoakaz argi mutila hari esaten)

zioten, eta petrolio argia, handik kakotik eskegitzen zuten)

argixerie: argizaria

epertargie: ipurtargia, argi motelaren gainean esaten da

farola: farola

"Nik etzean esetu dot, ba esan egon argirik, ta karburoa, eta aldeia ixen sales, ba aldeia etzea, ganaduentzako, ba gortara farola, artu estayen sue, serak, kandelak, farolan barruen kandealea (La.)" - (Nik etxean ezagutu dut, ba ez zen egon argirik, eta karburoa, eta baserria izan zenez, ba baserria, ganaduarentzat, ba kortara farola, hartu ez dezan sua, zerak, kandelak, farolaren barruan kandela)

kandealea: kandela

"Kandele oin bere, usetan da ori, pixuetan bere argi kentxen deudenen ba kandealea da beti (La.)" - (Kandela orain ere, usatzen da hori, pisu-etxeetan ere argia kentzen dutenean ba kandela da beti)

"Se itxen san? mesak atara illekoari, eta dirus betetu abadiak, aori itxen san, se gure amak, ademas kandelak eta imintxe siren, a, sertxu bet imintxe san manteltxu betegas, a, eleixan a imintxen san, ta gure amak arek kandelak erosteko, sarritzen, arkatik koyu urune, ta plasara eron deu (M.)" - (Zer egiten zen? mezak atera hilekoei, eta diruz bete abadeak, haori egiten zen, ze gure amak, gainera kandelak eta ipintzen ziren, zertxo bat ipintzen zen zamautxo bategaz, elizan hura ipintzen zen, eta gure amak kandela haiek erosteko, sarritan, arkatik hartu irina, eta plazara eroan du)

kandela argie: kandela argia

kandela negarra: kandela negarra

"Kandealea, yausten bada sera, kandela negarra, ori de negarra an yausten dakona (La.)" - (Kandela, jausten bada zera, kandela negarra, hori da negarra han jausten zaiona)

kandelerue: kadeleroa

karburoa, karbudoa: karburoa

"Nik esetu dodas ba, karburoa esate yakona, arteraokoa estot esetu nik, karburoa eta farola esate yakona, orrexek biek, neuk emen etzean (Z.)" -

(Nik ezagutu ditut ba, karburoa esaten zitzaiona, arteragokoa ez dut ezagutu nik, karburoa eta farola esaten zitzaiona, horiexek biak, neuk hemen etxean)

karburo argie, karbudo argie: karburo argia

karburo latea: karburo lata

kinkea: kinkina

kurtzulue, kursulue: kurtzelua, kriseilua

"Kurtzulutxue ta, sañegas, e, argidxe itxe san orduen (L.)" - (Kurtzelutxoa eta, zainagaz, argia egiten zen orduan)

metxea: metxa

orio argie, oridxo argie: olio argia

petrolioia: petrolioia

petrolio argie, petroleo argie: petrolio argia

potea: olio argiaren ontzia

sañe: zaina, kurtzeluaren erregarria

"Sañe da petrolidxoan modukoa, igual antzekoa, oridxoa ta baño miaoa, fiñagoa, ta sue itxen seuen (L.)" - (Zaina da petrolioaren modukoa, berdin antzekoa, olioia eta baino meheagoa, finagoa, eta sua egiten zuen)

6.7. URA

arrie: harria, sukaltarria

"Sutera, arrire ekarri giñun ure (La.)" - (Suetera, harrira ekarri genuen ura)

arripea: harripea, sukaltarripea

deposittue, depositxue: depositua, biltegia

"Urentzako alan deposittu txikitxu bet euki seuen karburoak (La.)" - (Urarentzat halan depositu txikitxo bat eduki zuen karburoak)

"Ur depositxutik, te gero ara bera, ara bera, a da Iturbaltza (K.)" - (Ur biltegitik, eta gero hara behera, hara behera, hura da Iturbaltza)

erradea: errada, ura garraiatzeko erabiltzen zen ontzia

esne palue: esne makila, ur makila, ura eta esnea garraiatzeko erabiltzen zen makila, mutur bietan gantxo bina edukitzen zituen baldeak edo kantinak eskegitzeko

gantxoa: gantxoa, ur makilak edukitzen duena tankina bertan eskegitzeko

"Gu araxe yoten gintzen, kilometro bat ingeru uren bille, etzeko kontzumarako, eta ostantzekoa ekarten giñun ba olantxe, suk esan dosun modun, orrek paluek, imiñi,

eskaitte, or paluen, gantxo banagas or atzen (La.)" - (Gu haraxe joaten ginen, kilometro bat inguru uraren bila, etxeko kontsumorako, eta osterantzekoa ekartzen genuen ba holantxe, zuk esan duzun moduan, makila horiek, ipini, eskegita, hor makilan, gantxo banagaz hor atzean)

kakoa: kakoa, ur makilak edukitzen duena tankina bertan eskegitzeko

kantarue: kantarua, gubila, ura garraiatzeko erabiltzen zen ontzia

"Kantaruek egote siren, kantarues yoate san bille jentea (La.)" - (Kantaruak egoten ziren, kantuagaz joaten zen bila jendea)

potixe: potixa

"Potixe ba len erote seuden, e, solora, uregas potixe (La.)" - (Potixa ba lehen eroaten zuten, sorora uragaz potixa)

txorroa: 1. txorrota, giltza. 2. txorroa, txorrotada

"Ori igertea, ba gause gatxa da, esta? baya en jeneral denporeak berana tekos, se, bierko eurie sano anuntzieta dau, esta? ba, ortik kantarilleutik, eta basuretik ona, tufo itzela dator, eta esun esune ixetan da, aurrek arriko txorroa pere bera yausikeran, sarata diferentea ataraten deu (Z.)" - (Hori igartzea, ba gauza gaitza da, ezta? baina gehienetan eguraldiak berarenak dauzka, ze biharko euria sano iragarrita dago, ezta? ba, hortik estolderiatik, eta zaborretik hona, sunda itzela dator, eta ezagun ezaguna izaten da, haorrek harriko txorroak ere behera jausikeran, zarata desberdina ateratzen du)

ure: ura

6.8. SUETEKO TRESNAK

almerise: almaiza, motrailua

"Almerise esate otzu guk, bai or daus orrek, or daus sereskoak, orrek, kobreskoak ixeko diren (Z.)" - (Almaiza esaten diogu guk, bai hor dagoz horiek, hor dagoz zerezkoak, horiek kobrezkoak izango dira)

ardau botillea: arda botila

astea: asta, ontzien oralekua

baldea: baldea

balde sabala: balde zabala

bolingoya, bolongoya: bolingoia, garrafoia

"Bolingoya garrafoyari esetzen esaten ba? garrafoyari esateutzean bolingoya (E.)" - (Bolingoa garrafoiari ez zioten esaten ba? garrafoiari esaten zioten bolingoia)

"Ni agas pase nitzen, baya akorta nas, e, bestealdekoak eskatu trilladora ta, amak esan orretara, bai, estaitt nik batzuk bolongoyak edan eta selan eitte ittuesan gausek (E.)" - (Ni haregaz pasatu nintzen, baina gomutatzen naiz, beste aldekoak eskatu txilindroa eta, amak esan horretara, bai, ez dakit nik batzuek bolingoia edan eta zelan egiten dituzten gauzak)

botea: zahatoa

botillea: botila

"Nire aittek, e, ba nobienbren il ya ta oñikarren urte bete esta, ta or botillen eukitten ixen dau (Z.)" - (Nire aitak, ba zemendian hil da eta oraindinokarren urte bete ez da, eta hor botilan edukitzen izan du)

brotxea: brotxa

"Imiñi barrike andi beten, bota sulfatoa bota ure, ta gero, erramu, a, brotxa bat eiñ, erramu serakas, orrie edo erramatxu txikerrakas, amarreu ayek eta bereinkesiñoa, ayekas (G.)" - (Ipini barrika handi baten, bota sulfatoa bota ura, eta gero, erramu, brotxa bat egin, erramu zerakaz, orria edo adartxo txikerrakaz, amarratu haiek eta bedeinkazioa, haiekaz)

enbudoa: enbutua, onila

eperdie: lapiko eta kazolen ipurdia

esne baldea: esne baldea

fruterue: fruitontzia

galdarea: galdara

"Bai galdara baten imiñi ure, ta kutxilloa koxu te, busti trapues gania, ta arraskeu, dana arraskeu, buelta gustien, ta dana gania garbi garbi (At.)" - (Bai galdara baten ipini ura, eta kutxilloa hartu eta, busti trapuagaz gaina, eta karrankatu, dena karrankatu, buelta guztian, eta dena gaina garbi-garbi)

galdara gorrie: galdara gorria, kobrezko galdara

"Lapikoa ta galdarea, esne egostekoa, a galdara gorrie, emen egosi eta or gorde

(Z.)" - (*Lapikoa eta galdara, esnea egostekoa, galdara gorri hura, hemen egosi eta hor gorde*)

galdarillea, kalderillea: galdarila

"*Kalderillea edo, alan eskeitteko sera, tximiñetik, eskeitteko asteas ote san (La.)*" - (*Galdarila edo, halan eskegitzeko zera, tximiniatik, eskegitzeko astagaz egoten zen*)

gantxoa: gantxoa

garrafoya: garrafoia

"*Bai gure aitxek barriketan ekarte seuen, ta gero, ba garrafoetan, garrafoetan saldu, sagietan bere imintxen sitxusen (K.)*" - (*Bai gure aitak barriketan ekartzen zuen, eta gero, ba garrafoietan, garrafoietan saldu, zahagietan ere ipintzen zituen*)

kafe errotea: kafe errota

kafeterea: kafegailua

kajea: kaxa

kantiñe: tankina, kantina

kasue: kazua

kasuela, kasulea: kazola

kasuela gorrie: kazola gorria, kobrezko kazola

katxarrerrie: ontziteria

katxarroa: katxarroa

kortxoa: kortxoa

kosinëa: kozina, janariak prestatzeko suetean dagoen tresnaren gainean esaten da

kutxarillea: koilaratxoa

kutxerea: burruntzalia

labañe: labaina

lapikoa: lapikoa

"*Bekosue ta parrillea imintte san, aren ganen egositteko lapikoa (La.)*" - (*Beheko sua eta parrila ipintzen zen, haren gainean egosteko lapikoa*)

latea: latazko ontzia

lurrezko kasuelia: lurrezko kazola

lurrezko lapikoa: lurrezko lapikoa

"*Lurrezko lapikon eintte esetu dot, nik egosi inyabe ta gosoau (La.)*" - (*Lurrezko lapikoan egiten ezagutu dut, nik egosi indaba eta gozoago*)

marmintxe, marmitxe : marmita

morterue: morteroa, almaiza

onille: onila

palanganea: palangana

pasadorea: iraztontzia

plantxea: plantxa

potea: potea

sagie: zahagia

"*Ardaua sagiñ, len eukitte seuden ardaua (La.)*" - (*Ardaua zahagian, lehen edukitzen zuten ardaua*)

"*Atxurin bere bai, baya Atxuriñ, a, sarata asko ba ardau gitxi egoten san, sagi txikitxue, sagi txikitxue, orretan, a, sagiek itzelak, itzelak (K.)*" - (*Atxurin ere bai, baina Atxurin, zarata asko baina ardau gutxi egoten zen, zahagi txikitxoa, zahagi txikitxoa, horietan, zahagiak itzelak, itzelak*)

sapotza: zapotza

sartena: zartagina

"*Akorda itten dat emen bere, bueno! sartenetik, sartenkadia edo kasulia, en jeneral, au de niria, e? oneri es ukutu, au niria da, oneri bere es ukutu, e? eta an unteu, eta amak, a, taloak erre ta an kuadrillea (Z.)*" - (*Gomutatu egiten zait hemen ere, beno! zartaginetik, zartaginkada edo kazola, gehienetan, hau da nirea, e? honi ez ikutu, hau nirea da, honi ere ez ikutu, e? eta han bazitan egin, eta amak, taloak erre eta han taldea*)

sesterea: taloa gainean jartzeko egurrezko otzaratxo antzekoa

"*Sesterea, badekot kamaran, ondiño, ondiño an dekot, baya, akabuen kendu i neuen se, ori ba loitxu itxen san arintxu eta, ak sestereak be bitxartekoa tekoseles, garbitxuten geuse gatxa, eta kendu i neuen (M.)*" - (*Otzaratxoa, badaukat kamaran, oraindino, oraindino han daukat, baina, azkenean kendu egin nuen ze, hori ba lohitu egiten zen arintxo eta, otzaratxo hark ere bitartekoak dauzkanez, garbitzen gauza gaitza, eta kendu egin nuen*)

suteko tresnak: sueteko tresnak

tankea tankarra: tanka, tanga

tankiñe: tankina, kantina

"*Onek emen dekosunek burriñe tekos baya burrin bari pe egote san, onek beronek agiñe ta emen bestean agiñe ta, dak, or, e, sartxe san, a, tankiñen astea ta andixik eskeitte yoate san (E.)*" - (*Hemen daukazun honek burdinak dauzka baina burdina barik ere egoten zen, honek beronek hagina eta hemen bestearen hagina eta,*

dak! hor, sartzen zen, tankinaren asta eta handixik eskegita joaten zen)

tapea: tapa, sukaldeko ontzien estalkia

tarroa: potea

tarterea: tartera

terriñe: tankina, tarrina

"Ene! esniak eroate nitxusen nik, a, paluen imiñi terrin bet eurrean ta bestea atzean, eta, kamiñora ametik eta ara kamiño eukitxen gendun (M.)" - (Ene! esneak eroaten nituen nik, makilan ipini tankina bat aurrean eta bestea atzean, eta, kaminora hamendik eta hara kaminoa edukitzen genuen)

trapaserie: trastea, tramankulua

trastea, trastoa: trastea

tresnak: tresnak

tupiñe: tupina

6.9. ONTZITERIA

basiñea: bazina

basue: basua

"Basu bete ur edan du (K.)" - (Baso bete ur edan dugu)

katillue: katilua

"Nik ardau botille bat, beti txala eiñeskeron, e, emoten dotzet, eta biñegria ta gatzagas, uretara bota katillu betera edo olau katxarro batera ta, biñegria ta gatzagas lepoa ondo igurdi, berotu itxen deu, e, bedxe ta umetokidxe botaten deu oboto (M.)" - (Nik ardau botila bat, beti txahala eginez gero, ematen diot, eta ozpina eta gatzagas, uretara bota katilu batera edo holako katxarro batera eta, ozpina eta gatzagaz lepoa ondo igurtzi, berotu egiten du, behia eta umetokia botatzen du hobeto)

kollarea: koilara

kopea: kopa

"Alau kopak, an dekodas nik ondiño orrek kopak (T.)" - (Halako kopak, han dauzkat nik oraindino kopa horiek)

kutxarillea: koilaratxoa

kutxilloa, kutxillue: kutxiloa

platera: platera

plater axala: plater azala

plater sakona: plater sakona

tasea: txikera baino handiagoa denaren gainean esaten da

tenedora: sardexka

txikerea: xikara, kikara

yarrea, dxarria: pitxerra

6.10. ALTZARIAK

ankea: hanka

arkea: arka

armarioa, armaridxo: armairua, arasa

aspirea: azpira, oramahaia

"Aspiren gordete siren, etzen, eta ori itte san, arton opille itte san, an aspiren, talo itteko (La.)" - (Azpiran gordetzen ziren, etxean, eta hori egiten zen, artoaren opila egiten zen, han azpiran, taloa egiteko)

astoa: ohol bategaz mahaia osatzeko berorren azpian jartzen diren hankak

aurkie: aulkia, hau errespaldobakoa da, baita kortarako ganadua batzeko erabiltzen dena ere

baldea: 1. apalategia. 2. apala. 3. sukaldeko armairua

bañerea: bainuntzia

bankue: jesarlekua

baule: baula

erroperue: arropa armarioa

eskaparota, eskapalota: eskapalota, geletan egoten zen armairu handia arropa gordetzeko

espillue: ispilua

eurredea: ohearen aurea

gasun askea: gatzun aska, honetan pernirik, urdaia eta orohar txerrikia gordetzen zen gatzatan kontserbatzeko; bertan gatzatu ere egiten zen

"Batzuk piseute imintte suren, baya guk, piseta es gendun imintten, se piseta imintten baosus, aik, a, atara itten dosus eta gero, eskei, piper gorrie emon, eta berakatzagas ta seragas eiñ, binagreagas, eta orrek, baya guk bertan, a, akabe arten gasun askan, a, ba, ori noperan, a, diferentzie (Z.)" - (Batzuek pisatuta ipintzen zuten, baina guk, pisatuta ez genuen ipintzen, ze pisatuta ipintzen badituzu, haiek, atera egiten dituzu, eta gero, eskegi, piper gorria eman, eta berakatzagaz eta zeragaz egin, ozpinagaz, eta horiek, baina guk bertan, amaitu arte

gatzun askan, ba, hori norberaren, desberdintasuna)

kaderea: hanka

"Guk ostantzeko jeneroak ein yus, sillek eta olauk, baya sillen, e, kaderak eta itteko altza erabilte san (E.)" - (Guk osterantzeko gauzak egin ditugu, aulkiak eta holakoak, baina aulkiaren, hankak eta egiteko haltza erabiltzen zen)

kajea: kaxa

kajoya: tiradera

kakoa: kakoa

kaxea: kaixa

kolgadora: eskegitokia

koltxoya: koltxoia

komadea: komoda

kumea: kuma

kuxea: kuxa, ohearen armadizuan ohea eta hanken alderdiak dira kuxak

lastamarragea: lastamarraga, arto sapaz egiten zen koltxoia

maye: mahaia

"Mayek egote siren lantzen baserri beten, olan imiñitte ta goyen, orrek neu pe esetu doas baserrittatik (Z.)" - (Mahaia egoten ziren lantzean baserri baten, holan ipinita eta goian, horiek neuk ere ezagutu ditut baserrietatik)

"Emen olesko mayetxu bet egoten san, oleskoa, aonen modukoa (K.)" - (Hemen oholezko mahaitxo bat egoten zen, oholezkoa, haonen modukoa)

mesanotxea: mesanotxea, gau-mahaia

mollea: malgua, koltxoiaren azpian ipintzen dena

ogaserue, obaserue: ohe-zerua, antzinako oheek zeukaten estalkia, lau zutaberen gaineko zerua

"Aman, e, ta aitten, e, arreoko oya, ogaserudune ta, ogaserue bakixu ser dan? ori goiko katxarro ta orrek badekus (E.)" - (Amaren, eta aitaren, arreoko ohea, ohe-zeruduna eta, ohe-zerua badakizu zen den? hori goiko katxarroa eta horiek badauzkagu)

oreñala: orinala, txizontzia

oya: ohea

"Oyan egokeran dana kentxean san, baya tapeta ondo egon bear seuen, e? tapeta ondo ta arik eta, arik eta pasa artean, esta oittik altza bear ixen, orduen, baya

oiñ, e, beste seoser emote otzea ta ensegida daus sertute (Ll.)" - (Ohean egokeran dena kentzen zen, baina tapatuta ondo egon behar zuen, e? tapatuta ondo eta harik eta, harik eta pasatu arte, ez da ohetik altxatu behar izan, orduan, baina orain, beste zer edo zer ematen diete eta behingoan dagoz zertuta)

pertxea: arropa eskegi-lekua

sillea: aulkia, hau errespaldoduna izaten da

"Gause gustie teko beran trukoa, sillea bere, aspie, atzea ta aurrea altora baten eitten badosus, ganean yesarten sarenean, beti saus, eperdie, aurrera gureas, eskapan, atzea bear dau aputxu bet berau, are pere bai, orre pere bai, t'orre pere bai, orrek dana tekea ba pititxu bet berau, gero, atzeko kaderak, artesean ixenta bere sillea oker bardiñ ein siñie, sulotukeran segun se oker emoten dotzesun, atzerau edo aurrerau (E.)" - (Gauza guztiak dauka beraren trukoa, aulkia ere, azpia, atzea eta aurrea altuera baten egiten badituzu, gainean jesartzen zarenean, beti zagoz, ipurdia, aurrera guraz, eskapan, atzea behar du apurtxo bat beherago, haiek ere bai, horiek ere bai, eta horiek ere bai, horiek denek daukate ba apurtxo bat beherago, gero, atzeko hankak, artezean izanda ere aulkia oker berdin egin zenezake, zulatukeran segun ze oker ematen diozun, atzerago edo aurrerago)

tapea: tapa, estalkia

telebisiñoa: telebista

tiradora: tiradera, kajoia

txixillue: zizeilua, karrajuan edo suetean egoten zen jesarleku luzea

yarlekue, dxesarlekue: jarlekua, jesarlekua

"Gero ba, guk armaten du lenengo atzea, eta gero aurrea, eta gero atze t'aurrea alkarregas, sartu, ta yarlekue akabue imiñi (E.)" - (Gero ba, guk armatzen dugu lehenengo atzea, eta gero aurrea, eta gero atzea eta aurrea elkarregaz, sartu, eta jarlekua azkena ipini)

6.11. ETXEKO ARROPAK

almudea, elmuedia, elmudea: burukoa, burkoa

almude asala: buruko azala

antzar lumea: antzar luma
burrukoa, burrikoa: burukoa
edredoya: edredoia
esku sorkie: esku sorkia
eurredia: alde batetik besterako burrukoa
ixerea, ixeria: izara

"Oñ arrio ori perestaude itxen, oingo jentiak, lenau arrio eitxen urteak igual egoten siren, lantzean ixeratxu bet, bestetxu bet, eta gero dosena bat ixera, dosena bi toalle ta, oingoak olaurik estaude itxen (M.)" - (Orain arreo hori ere ez dute egiten, oraingo jendeak, lehenago arreo egiten urteak beharbada egoten ziren, lantzean izaratxo bat, bestetxo bat, eta gero dozena bat izara, dozena bi toaila eta, oraingoek holakorik ez dute egiten)

kirrusko ixeria: kirruzko izara
koltxea: koltxa
koltxa asala: koltxa azala
koltxille: koltxila, izaren gainean jartzen zen edredoi antzekoa

kortiñea: gortina

mantea: manta

"Atxiñe lumia egote san ganian, oin mantia egoteko lekuen, lumia, ta a ba funde baten moduen sartute san (L.)" - (Antzina luma egoten zen gainean, orain manta egoteko lekuan, luma, eta hura ba azal baten moduan sartzen zen)

mantela: zamaua, mahai-estalkia

"Lelau sera imintte san, gabonatan ta txakur amurrutuentzako ogi sati bet, a, mantelan aspian (T.)" - (Lehenago zera ipintzen zen, gabonetan eta txakur amorratuentzat ogi zati bat, zamauaren azpian)

sorkie: 1. sorkia, sukaldeko trapua. 2. zamak garraiatzeko buruan ipintzen zena

tapea: manta

toallia: esku oihala

trapue: sorkia

ule: ulea, mahai gainean ipintzen den plastiko antzekoa

6.12. BOGADA

anille: anila

balde sabala: zina, balde zabala, gehienetan arropa garbitzeko edo txerria hilkeran odola hartzeko erabiltzen dena da

barandea: baranda, arropa eskegitzeko erabiltzen dena

barreñue: barreinua

bogadea: bogada

"Gitxi esetu ot baya, entzutia, bogadiari eitxe sotziala, oñ lejia itxen dan moduen imiñi, eta ori botate sotziala, estai pa segas, e, eutze nasteu ureri (L.)" - (Gutxi ezagutu dut baina, entzutea, bogadari egiten ziotela, orain lixiba egiten den moduan ipini, eta hori botatzen ziotela, ez dakit ba zegaz, hautsa nahastu urari)

bogada arrie: bogada-harria, arropa-harria

gantxoa: arropa eskegitzeko gantxoa

lejia: lixiba

mantxea, mantxia: lohidura, espila

plantxea: plantxa

siñe, yiñe: zina

sosea: sosa

tiñe: tina

tiñekue: tinakoa, arropak garbitzeko erabiltzen zen egurrezko ontzia

"Imiñi baldian edo tiñekuen edo erropak eta, a bota ganeti, lejiatan oñ eukitxea les, a (L.)" - (Ipini baldean edo tinakoan edo arropak eta, hura bota gainetik, lixibetan orain edukitzea legez, hura)

yagoya, dxagoya: xaboia

6.13. GARBIKUZIA

arrikoa: harrikoa

autze, eutze: hautsa

basurea, basuria: zaborra, zarama

"Ori ixen san, Bilboko, basuria, egon san, estaitt oin badau, antxe La Peña aldetik, an goyen, on san, makiñeri bet imintte, ta tritureu itten a dana, dana apurtauen, eta, goyen, e, toberak eoten siren, a eyoteuena botateko, kamioa aspire sartu, ta kamioak giawko barik, euki saittun Bilbok, e, sei edo sortzi edo kamioyak (Ll.)" - (Hori izan zen, Bilboko, zaborra, egon zen, ez dakit orain dagoen, hantxe Abusu aldetik, han goian, egon zen, makinaria bat ipinita, eta birrindu egiten hura dena, dena apurtzen zuen, eta, goian, dolberak egoten ziren, hura ehotzen zuena botatzeko, kamioia

azpira sartu, eta kamioiak gehiagoko barik, eduki zituen Bilbok, sei edo zortzi edo kamioiak)

basurerue: zabortokia

erregosie: erregosia, atrikia, desordenuari esaten zaio

eskobea: erratza

eskubillea, eskobillea: eskubila

eskubille garratza: eskubila garratza

"Amen bere lurre ote san, eta lurretik gero sementoa, ta aik pastoreak, ba etorten siren, eta klaro, ba gastayak eitten asten siren denporan, bueno! ondatute sittuesan danak, ta emen egon sales, a, sementoa eskubille garratzagas, beluniko pareu, eta garbittute neuen nik au sutia, se gastai urek tufo andi botaten deu (Z.)" - (Hamen ere lurra egoten zen, eta lurretik gero porlana, eta artzain haiek, ba etortzen ziren, eta jakina, ba gaztaiak egiten hasten ziren sasoian, beno! hondatzen zituzten denak, eta hemen egon zenez, porlana eskubila garratzagaz, belauniko paratu, eta garbitzen nuen nik suete hau, ze gaztai urak sunda handia botatzen du)

"Orduen, eskubille garratza, eta onek, latigu! eta, onek, a, etze sarratan badaus oin bere, esta? ta kamiño eskiñetan ta, esenduesan ukusten? arri batzuk, a, are arri betzuk, are arri bet, aik arriek yo yo yo eiñ, esta? eta lejia eta estropajue koyu, eta biak areneu, a, eta suri suri itten siren, e? (Z.)" - (Orduan, eskubila garratza, eta hauek, latigo! eta, hauek, etxe zaharretan badagoz orain ere, ezta? eta kamino bazterretan eta, ez zenituen ikusten? harri batzuk, hare-harri batzuk, hare-harri bat, harri haiek jo jo jo egin, ezta? eta lexiba eta estropaxuagaz hartu, eta beheak hareatu, eta zuri-zuri egiten ziren, e?)

garbikusie: garbikuzia

loidxe, loye: lohia, ugerra

lumetxea: lumetxa

nardakia: nardaka

saburrerie, saborrerie: zaborreria

sastarra: zaborra

sepillue: eskubila

ugerra: ugerra

"Lenau ugerra baño esan egon, ser? garbitxu gitxi (M.)" - (Lehenago ugerra baino ez zen egon, zer? garbitu gutxi)

7. SINESKERAK

Atal honetan sineskerei buruzko berbak batzen ditugu; sineskera horietariko gehienak elizari dagozkio; beste batzuk, ostera, garaiteko sines-esparruetan koka ditzakegu. Gaia aurkezteko honako azpi-atalok egin ditugu: eliza, erlijioa, elizkizunak, kleroa eta gainerako sineskerak.

7.1. ELIZA

albakoa: albatakoa, goizeko kanpaiaren izena
altarea: aldara

amabiek, amabidzek: hamabiak, hamabietako kanpaiak

amaritxekoak, amaritxekoak,
abemarittakoak: abemarietako kanpaiak, ilundeko kanpaiak

"Egun beten, alabea, abemarittakotako estakolako etorri kanpoan itxi euen, kanpoan portalean (Z.)" - (Egun baten, alaba, abemarietakoetarako ez zaiolako etorri kanpoan utzi zuen, kanpoan atarian)

angeru parrandak: hamabietako kanpaiaren izena

"Ermintxetan bere bardiñ, amabietan kanpaya amabietakoa, aingeru parrandak (M.)" - (Baselizetan ere berdin, hamabietan kanpaia hamabietakoa, aingeru parrandak)

arimenak: arimenak, eguneko azken kanpaien izena

"Arimenak illundien dire, aimarisekoak lelengo ta arimenak gero (M.)" - (Arimenak ilundean dira, abemarietakoak lehenengo eta arimenak gero)

arriko maye: elizako harrizko mahaia

bagarea: elizako harrizko mahaia

bankue: bankua, jesarlekua

egurdiko kanpak: egurdiko kanpaiak

elespea, elispea: elizpea, elizaren arkupea

"Oin dau diferente ba orduen gorpue, portikurartean sartxe san, elispera, elispe edo portikue, ta oin sartxen da ba barrure,

elixan barrure, ta kanpoan oten siren, ba abade bat eta sera bere bai (K.)" - (Orain dago desberdin ba orduan gorpua, elizperaino sartzen zen, elizpera, elizpe edo portikua, eta orain sartzen da ba barrura, elizaren barrura, eta kanporan egoten ziren, ba abade bat eta zera ere bai)

elixa, eleixa: eliza

ermittea, ermittea, ermintxia, erreminttea: basiliza

"Esta itten, e, barriogan or ermitte ba tau eta ango erromeri bes, atxiñerik (A.)" - (Ez da egiten, auzotegian hor basiliza bat dago eta hango erromeria ere ez, antzinatik)

"Ta gero egon san, ta dau or, beste erremintte bat, San Lorenzo, or Bilbainan, or sentroan, dau San Lorenzo, ori geuk eiñe da ori bere (E.)" - (Eta gero egon zen, eta dago hor, beste basiliza bat, San Lorentzo, hor Bilbainan, hor erdian, dago San Lorentzo, hori geuk egin da hori ere)

erre kanpak: sutea dagoenean jotzen diren kanpaien izena

il kanpak: hil kanpaiak, gizonezkoa bada hiru jotaldi egiten ziren, andrazkoa bada bi

kandela bereinketue: kandela bedeinkatua

"Kandela bereinketuen moduen bistuten san a iñor iltten sanean bere (LL.)" - (Kandela bedeinkatuen moduan bizten zen hura inor hiltzen zenean ere)

kandelerue: kandeleroa

kanpea, kanpaya: kanpaia

kanpatorrea: kanpandorra

komentue: komentua

korue: korua

kurtzea: gurutzea

mantela: zamaua, sepulturetan ipintzen dena

mesa kanpea, mesa kanpaya: meza kanpaiak

ontzie: ontzia

parrokie: parrokia

portikue: elizpea

pulpitxue: pulpitua

sakristie: sakristia

san blas sinttea: san blas zinta, kordoia

"Emen eitten da, kandelario egunean, kandelak, eta san blas sinttek san blas egunean (Bi.)" - (Hemen egiten da, kandelario egunean, kandelak, eta san blas zintak san blas egunean)

sepulturea, sepultura: sepultura, elizan familiaren hilekoen oroimenez jartzen zen petrila eta beronen gainean sorki beltz bat zamau zuri batek estalia, beronetan kandelak biztuta egoten ziren

"Ta gero illekoari bere, urte betian edo bien edo imintxe sakon domekatan, sepultura (M.)" - (Eta gero hilekoari ere, urte betean edo bien edo ipintzen zitzaion domeketan, sepultura)

torrea: dorrea

txiliñe: txilina

txota lusea: kanpai hots luzea

ur bereinketue: ur bedeinkatua

ur bereinketu ontzie: ur bedeinkatu ontzia

yesarlekue: jesarlekua

7.2. ERLIJIOA

agur marie: agur maria

aitxearena: aitearena

aitxe gurea: aita gurea

amabirjiñe: amabirjina

andramarie: andramaria

angerue: aingerua

"Ori sutia garbitxute imiñi, geubian oira dxoan baño ariñau angeruek dxantzan ein didxiñ (L.)" - (Hori suetea garbituta ipini, gauean ohera joan baino arinago aingeruek dantzan egin dezaten)

arimea: arima

baraue: baraua

bereinkesiñoa: bedeinkazioa

bijilie: bijilia

birjiñe: amabirjina

buldea: bulda

debosiñoa: debozioa, fedea

demoniñoa: demonioa

dotriñe: doktrina

"Bueno egoten san dotriñe bere emen, e? elixan bere bai, domekatan ta, atzaldeko iruretan dotriñe emoteuden abadeak, abadeak, a, lau edo bost abade sartxen siren elixan ta dotriñe emoteuden (K.)" - (Beno egoten zen doktrina ere hemen, e? elizan ere bai, domeketan eta, arratsaldeko

hiruretan doktrina ematen zuten abadeek, abadeek, lau edo bost abade sartzzen ziren elizan eta doktrina ematen zuten)

"Orduen dotriñera, gastetxuterik, etzean bere bai agintxe otzuen, dotriñera yoan gero! (K.)" - (Orduan doktrinara, gaztetxutatik, etxean ere bai agintzen zizuten, doktrinara joan gero!)

elixe sartzaitte: eliza sartzaittea

"Oñ, e, egun biges edo iruges etorten direta, or dabiltes, estaitt nik, e, elixe sartzaitte itten badeudea (Ll.)" - (Orain, egun bigaz edo hirugaz etortzen dira eta, hor dabilta, ez dakit nik, eliza sartzaittea egiten duten)

"Elixer sartzaitte esaten dako besteari (Ll.)" - (Eliza sartzaittea esaten zaio besteari)

erlijioa: erlijioa

erresue: errezua, otoitza

"San Juan besperan letañeagas, abadea eurretik eta, bandereagas gixon bat eta kuadrillea atzean, bidean bidean erresuek eitxen, oñes, Beñakati txe Larraurixi, bidxetatik, Beñakati dxoate san kuadrille bat, eta Larraurixi beste abade bat (L.)" - (San Juan bezperan letaniagaz, abadea aurretik eta, banderagaz gizon bat eta taldea atzean, bidean-bidean orazioak egiten, oinez, Meñakatik eta Larrauritik, bideetatik, Meñakatik joaten zen talde bat, eta Larrauritik beste abade bat)

errogatibea: errogatiba

"Errogatiba pai, euririk eitxen eseuenean, a, errogatibak kaleatati eitxen siren (K.)" - (Errogatibak bai, euririk egiten ez zuenean, errogatibak kaleetatik egiten ziren)

"Ori errogatibetan eingo seudian (M.)" - (Hori errogatibetan egingo zuten)

etze batiretue: etxe bataioa

"Etze batiretu, eitten san, ba umea, egoten basan erdi makal edo serean, etzean batiretu eitten san, eta gero ba, gero ondo paretan basan eroango san edo espabere, alan ilko san igual (Ll.)" - (Etxe bataioa, egiten zen, ba umea, egoten bazen erdi makal edo zerean, etxean bataiatu egiten zen, eta gero ba, gero ondo paratzen bazen eroango zen

edo ezpabere, halan hilko zen beharbada)

"Etze batiretu ba, ume geixoak, baya nor ein yen askorik estaitt (Ll.)" - (Etxe bataioa ba, ume gaixoak, baina nor egin den askorik ez dakit)

fedea: fedea

gure jaune: gure jauna

infernue, ifernue: infernua

jangoikoa: jaungoikoa

kandela bereinketue: kandela bedeinkatua

konfesiñoa: konfesioa, aitortza

kredoa: kredoa

limosnea: limosna

linboa: linboa, bataiatubako umeak hiltzen zirenean linbora joaten ei ziren. Bestalde, lurpetzeko lekuari linboa ere esaten zaio.

misiñoa: misioa

orasiñoa: errezua, orazioa, otoitza

pekatue: bekatua

promesa: agindua

"Gure neba difuntuek belarritan eukitten ei eun seuser gaixoa, eta, promesagas Barrikera (Bi.)" - (Gure neba zenak belarrietan edukitzen ei zuen zer edo zer gaixoa, eta, aginduagaz Barrikera)

"Lenau eitxen siren promesak ba, santuekana, Sanantonio, San Juan, santuekana, eta promesa kunplidu itxen san, ein biar san, eta esin badeu berak kunplidu, urrungokoari, umiari agintzan sotzian, oye nik, an promesa dekot eintxe, ta umiak yoan siren aman promesa eitxen edo aitxena (M.)" - (Lehenago egiten ziren aginduak ba, santuekana, San Antonio, San Juan, santuekana, eta agindua bete egiten zen, egin behar zen, eta ezin badu berak bete, hurrengokoei, umeei agintzen zieten, a nik, han agindua daukat eginda, eta umeak joan ziren amaren agindua egiten edo aitarena)

prosesiñoa: prozesioa

"San Juan besperan prosesiñoa bakarrik, eseberes gedxau, ta mesia entzun te etzera gero (L.)" - (San Juan bezperan prozesioa bakarrik, ezer ere ez gehiago, eta meza entzun eta etxera gero)

purgatorioa, purgetoridxo: purgatorioa

santea: santua (f.)

santue: santua (m.)

serue: zerua

"Au kanta in bear da, esaten seuen se illeskeron serure yoaten da au kanteu

eskeron, esaten seuen ta (M.)" - (Hau kanta egin behar da, esaten zuen ze hilez gero zerura joaten da hau kantatuz geron, esaten zuen eta)

tentasiñoa: tentazioa

7.3. ELIZKIZUNAK

arime ondraz: arima ondraz

"Urtegarreneko arime ondra taus (M.)" - (Urtegarreneko arima ondraz dagoz)

bedratzi urrunek: bederatzi urrunak

"Bai ba errosarioak bederatzi urrunek, ixetan siren, eta lenau, lenau, eleixan barik, gorpuen etzian eitxen siren orrek errosarioak, bederatzi urrunek (M.)" - (Bai ba errosarioak bederatzi urrunak, izaten ziren, eta lehenago, lehenago, elizan barik, gorpuaren etxean egiten ziren errosario horiek, bederatzi urrunak)

beluko mesea: beluko meza, meza nagusia

eliskixune: elizkizuna

erresarioa, errosaridxo: errosarioa

errespontzoa: errespontzoa

"Kandela lodiek, eta errespontzo etxateko, trapue aurrean ta, ori bai esetu ot, ta sepulture pere oten sien, a, ol lodiegas edo eintxe ganean (K.)" - (Kandela lodiak, eta errespontzoa botatzeko, trapua aurrean eta, hori bai ezagutu dut, eta sepulturak ere egoten ziren, ohol lodiaz edo eginda ganean)

"Ta gero itxe sitxusen estasiñoen moduen, errespontzoa eskatu, paradak oten siren ta errespontzoak (K.)" - (Eta gero egiten zituen estazioen moduan, errespontzoa eskatu, lotualdiak egoten ziren eta errespontzoak)

funtziñoa: funtzioa

iru urrunek: hiru urruneko meza; hiru egunean segituan egiten diren mezak

iru urruneko mesea: hiru urruneko meza

komuniñoa: komunioa

kosagrasino: konsagrazioa

mesea: meza

"Orduen mesak oten siren, eta sera, kandelakas, sepulturek, erresuek, oiñ orrek akabe dire (Z.)" - (Orduan mezak egoten ziren, eta zera, kandelakaz,

sepulturak, otoitzak, orain horiek amaitu dira)

mesa barrie: abadeak egin berritan ematen duen lehen meza

mesa nausie: meza nagusia

mesa papelak: meza paperak

ondrea: ondra

sermoya: sermoia

"Nire osabeak, e, abadeak ein sermoya elixan ta etorri etzera ta bardin bardiñ eitte otzean (E.)" - (Nire osabak, abadeak egin sermoia elizan eta etorri etxera eta berdin-berdin egiten zien)

urtegarreneko mesea: urtegarreneko meza

7.4. KLEROA

abadea: abadea

"Ori Katiken dau abade (K.)" - (Hori Gatikan dago abade)

"Abadeak itxeron eitte otzon ordu imintte, elixan, kanpoko aldean edo elixako ateatan (Ll.)" - (Abadeak itxaron egiten zion ordua ipinita, elizan, kanpoko aldean edo elizako ateetan)

"Yataben egote san erromerie, ta etorte san abade sarra, yantzan dabilela ta katxabatxuegas, aparte itte sittusen (T.)" - (Jataben egoten zen erromeria, eta etortzen zen abade zaharra, dantzan dabilela eta makilatxoagaz, apartatu egiten zituen)

aitte santue: aita santua

fraidea, fraillea: fraidea

"Orrek, e, fraide edo egonta eskondute deko katikar bategas, e, semea (E.)" - (Horiek, fraide edo egonda ezkondata dauka gatikar bategaz, semea)

"Beste famosoa, fraillea, kamiñorik kamiño ibiltten sana selan ixen san il sana? (A.)" - (Beste ospetsua, fraidea, kaminorik kamino ibiltzen zena zelan izan zen hil zena?)

"Ebanjelioak, alan, a, biotza eta sertxu bet, bi ixetan siren, ori emoten suren onek, a, fraideak pasionistek edo onetarikoak (Z.)" - (Ebanjelioak, halan, bihotza eta zertxu bat, bi izaten ziren, hori ematen zuten hauek, fraideek pasionistek edo hauetarikoek)

jaune: jauna

mayordomue: baselizaren kargua daukana

"Bai, klaro, ermintxe mayordomue ixen san a, ta areri emoten sakon, ermintxan kargue, goberna dien ermintxea, ba bera ermintxan lurrek, se jeneralmente lurrek eukitxen txus ermintxeak (M.)" - (Bai, jakina, baseliza maiordomoa izan zen hura, eta hari ematen zitzaion, baselizaren kargua, goberna dezan baseliza, ba baselizaren beraren lurrak, ze gehienetan lurrak edukitzen dituzte baselizek)

mojea, monjea: moja

monagilloa: meza-laguna

"Monagilloa yoate san aurretik, txilin txilin, txilin txilin, ta, paste sanean danak beluniko, gastea ta sarra ta danak, danak beluniko parate siren (K.)" - (Meza-laguna joaten zen aurretik, txilin-txilin, txilin-txilin, eta, pasatzen zenean denak belauniko, gaztea eta zaharra eta denak, denak belauniko paratzen ziren)

obispue: apezpikoa, gotzaina

parrokoa: parrokoa, erretorea

sakristanea: sakristaua (f.)

sakristaua: sakristaua

"Abade ta sakristaua, kandelegas, urtetauen sakristauak kandelegas, ta gero pasta san barrure ta barruen bateatuteuden, erresibidu atean, elixeko atean (K.)" - (Abade eta sakristaua, kandelagaz, irteten zuen sakristauak kandelagaz, eta gero pasatzen zen barrura eta barruan bataiatzen zuten, hartu atean, elizako atean)

7.5. GAINERAKO SINESKERAK

anbotoko señoia: Anbotoko andrea

"Semekure Anbotoko señoia, Anbotoko señoia beti esan du guk, baya olau señoionari edo (M.)" - (Zenbagura Anbotoko andrea, Anbotoko andrea beti esan dugu guk, baina holako andreari edo)

"Anbotoko señoien antza deko orrek (M.)" - (Anbotoko andrearen antza dauka horrek)

astue: aztia, azturua

"Astu sorgiñeri esaten tze, esta? (A.)" - (Azturua sorginari esaten diote, ezta?)

"Aittu, ori begi txarra, gorrotoa edo ondo ukusi esiñe, edo ori de begi txarra, eta, amen ukusi ot, ba sortzi egunen bat edo da, mutil gaste bat, ta esuela eukitten esa euen berak osasunik, eta ba, onek brujak, astuek esaten sakean orduen, eta akabuen aixekana yoan sala, eta bota sotzosela kartak, t'esaotzola ba maldisiñoa, eta asi sala, ba, santo kristo bat atara ta ei otzosela estaitt semet kurtze, asi sala gonbittuten, gonbittetan ta gonbittetan, eta giau berak esetariko defetarik estekola esaeun, misterio esta ori?, ba orretarikoak, ba, orduen, a, sertute suren (Z.)" - (Aitu, hori begi txarra, gorrotoa edo ondo ikusi ezina, edo hori da begi txarra, eta, hamen ikusi dut, ba zortzi egunen bat edo da, mutil gazte bat, eta ez zuela edukitzen esan zuen berak osasunik, eta ba, sorgin hauek, aztiak esaten zitzaion orduan, eta azkenean haiexekana joan zela, eta bota zizkiola kartak, eta hasi zela, ba Kristo santu bat atera eta egiten zizkiola ez dakit zenbat gurutze, hasi zela gomitutan, botatzen eta botatzen, eta gehiago berak ezertariko akatsik ez daukala esan zuen, misterioa ez da hori? ba horietarikoak, ba, orduan, zertzen zuten)

iditxoa, iritxoa: iratxoa

kate saratea: kate zarata

lamiñe: lamina

"Orrek yentillek et'orrek, a, lamiñek et'orrek asko dekeas kontuek (M.)" - (Horiek jentilek eta horiek, laminek eta horiek asko dauzkate ipuinak)

ogi salatue: gabonetan zamauaren azpian txakurrak ez amorratzeko gordetzen den ogia

"Afarie asi baño lelau baya, gurean ogi salatue imixu aspian txakur amurrutuegaittik, mantelan aspian satitxu et (T.)" - (Afaria hasi baino lehenago baina, gurean ogi salatua ipin ezazu azpian txakur amarratuagatik, zamauaren azpian zatitxo bat)

orio sundea, oridxo sundea, orio usiñe: orio sundea, purgatorioko arimak penatzen dagozelako basoan asmatzen den sundari esaten zaio

sorgiñe: sorgina

"Bai, selan yoten siren sorgiñek, ba yon nonora, bija baten edo nonora ta gaube,

eta ondotik, a, dana kate sarate ta astrapalea ta olan begittu te iñor ikusi es, ta astrapala itzelak, sorgiñek orre pere, sorgiñek, ori esateudean sorgiñek ixete sirela, dana astrapalea, eta ser ete da? ta ikusi es eser, eta ikeratute selan ote san jentea (A.)" - (Bai, zelan joaten ziren sorginak, ba yoan non edo nora, bidaiia baten edo non edo nora eta gaua, eta ondotik, dena katea zarata eta astrapala eta holan begiratu eta inor ikusi ez, eta astrapala itzelak, sorginak horiek ere, sorginak, hori esaten zuten sorginak izaten zirela, dena astrapala, eta zer ete da? eta ikusi ez ezer, eta ikeratuta zelan egoten zen jendea)

"Goruetan igual eta sutondotxuen egon ta, sorgiñe tximiñen goyen ta, amama koitxedia, ser dabilzu or? goruetan, andik goitxik sorgiñek (M.)" - (Goruetan berdin eta sutondotxoan egon eta, sorgina tximiniaren goian eta, amama koitada, zer darabilzu hor? goruetan, handik goitik sorginak)

"Sorgiñek yantzan eingo deude ta garbitxu sutia, gaubetan, sutia (M.)" - (Sorginek dantzan egingo dute eta garbitu suetea, gauetan, suetea)

"Sorgiñek yantzan ein deyan, sutia garbitxu (M.)" - (Sorginek dantzan egin dezaten, suetea garbitu)

yentille, dxentille: jentila

"Yentillek esango tzut ni pa! yentillek agertan direla, dabiltzela, onakoxe, soldadue balittikeles, gixon andi batzuk, altuek! (Ll.)" - (Jentilak esango dizut nik ba! jentilak agertzen direla, dabiltzala, honakoxe, soldadua balitz legez, gizon handi batzuk, altuak!)

8. HERIOTZA

Atal honetan gizakiaren heriotzagaz lotuko lexikoa batzen dugu.

agonie: agonia, hiltoria

"Ba antxe egon san, urteak eta urteak eta urteak eta gerorau te txarrau, ta gerorau te txarrau, Pilar ixena euken, geure edadekoa ixen san, eta geu yoan gintzesan, batxian, etzerik etze dirue, ba

mesak ataretako a il deitzen, bai, eta emon biar ixetan san, asko es batek, semet eta geyauk mesea emoten deuden, gitxi, gitxi baya askok, inyar geyau dekola esaten geñun (M.)" - (Ba hantxe egon zen, urteak eta urteak eta urteak eta gerorago eta txarrago, eta gerorago eta txarrago, Pilar izena zeukan, geure edadekoa izan zen, eta geu joan ginen, batzen, etxerik etxe dirua, ba mezak ateratzeko hura hil dadin, bai, eta eman behar izaten zen, asko ez batek, zenbat eta gehiagok meza ematen duten, gutxi, gutxi baina askok, indar gehiago daukala esaten genuen)

"Batek olan poun emon es, espadase, asko batu baya gitxi bakotxak, eta aixe il deitzen emon gendun (M.)" - (Batek holan poun eman ez, ezpadaze, asko batu baina gutxi bakoitzak, eta huraxe hil dadin eman genuen)

andabidea: andabidea, gorpua etxetik elizara eroateko bidea

"Andabideak, se, gure etze aurretik esaten seuen gure amomak egon sala, ta Markaidetik, ba gurdien imiñitte ekarten sedean ara, ba, Plentzitti datorren kamiñorarte, ekarten sedean, auren sera, galdu esittearren ekarte sedean andik, ta gure etzean aurretik ixen san ori su tiñosune andabidea (T.)" - (Andabideak, ze, gure etxe aurretik esaten zuen gure amamak egon zela, eta Markaidatik, ba gurdian ipinita ekartzen zuten hara, ba, Plentziatik datorren kaminoraino, ekartzen zuten, euren zera, ez galtzarren ekartzen zuten handik, eta gure etxearen aurretik izan zen hori zuk dinozuna andabidea)

andarie: anda erolea, andaria

"Andariak yoate siren, a, kajeagas (M.)" - (Andariak joaten ziren, atauteagaz)

ataute: atautea, zerraldoa

"Oñ atautegas eitxen dales, barruen orduen atauteak esiren sartxean, a, elixan barruen (K.)" - (Orain atauteagaz egiten den legez, barruan orduan atauteak ez ziren sartzen, elizaren barruan)

aurrogie, eurrogie: aurrogia

"Aurrogie bai, ogi bet eroteuden, e, ba, neskatoak edo andreak, eta gixonak kurtzea, atauten aurretik (E.)" - (Aurrogia bai, ogi bat eroaten zuten, ba, neskatoak

edo andreak, eta gizonak gurutzea, atautearen aurretik)

"Lelengo lelengo erote seudian, a, ogitxue erote seudian, batek eroten seuen, otzaratxun, otzaratxuen erote seuen, aurrogie (M.)" - (Lehenengo lehenengo eroaten zuten, ogitxoa eroaten zuten, batek eroaten zuen, otzaratxoan, otzaratxoan eroaten zuen, aurrogia)

"Olan aurrogie, olan kurtzea, ta gero ataute, ta gero parienteak, eta gero barriokoak (Ll.)" - (Holan aurrogia, holan gurutzea, eta gero atautea, eta gero familia-artekoak, eta gero auzotegikoak)

bixie, bixitzea: bitziza

defuntue: difuntua, zendua, hilekoa

entierrie: enterrua, lurpetzea

eriotzea, eridxotzia: heriotza

"Orreas ta eriotzeas ta yayotzeas ta onekas esta agintten (Z.)" - (Horregaz eta heriotzagaz eta jaiotzagaz eta hauekaz ez da agintzen)

funerala: hileta

gauelea, gaubelia: gaubela

"Gaubelia da, gorpue dauenian, a, gaubelia ba ta, gorpue iltxe dauen gaube da gaubelia ori de (M.)" - (Gaubela da, gorpua dagoenean, gaubela ba eta, gorpua hilda dagoen gaua da gaubela hori da)

"Gaubela ba iltxen sanean bataran bat, gaubela usate san, an errosarioa edo erresetauen bataran batek eta an gaubelan jentea egoten san (K.)" - (Gaubela ba hiltzen zenean baten bat, gaubela usatzen zen, han errosarioa edo errezatzen zuen baten batek eta han gaubelan jendea egoten zen)

gorpue: gorpua

"Ba es, es, esan eroten edonondik, se, gorpue erotiak inyar andie euki seuen, a, gorpuen bidiak euki seuen inyar andie, andie, oso andie, e? atagiñoan ta, deretxo koiten seuen andixe jentia ibiltzeko, gorpuek, gorpuek inyar andie euki deu (M.)" - (Ba ez, ez, ez zen eroaten edonondik, ze, gorpua eroateak indar handia eduki zuen, gorpuen bideak eduki zuen indar handia, handia, sano handia, e? hataginoan eta, eskubidea hartzen zuen handixik jendea

ibiltzeko, gorpuek, gorpuek indar handia eduki du)

"Ori gero ya enterretan da gorpue, eta gero urrungoan, bederatzi egunian, errosarioa erresetan illundietan gorpuen etzera, barrio gustie, e? barrio gustie (M.)" - (Hori gero ja lurpetzen da gorpua, eta gero hurrengoan, bederatzi egunean, errosarioa errezatzen ilundeetan gorpuearen etxera, auzotegi guztia, e? auzotegi guztia)

"Gorpue elixara etorte san, ta gero elixatik, a, oin sartu itxe eixue elixan barruen baya orduen esan sartxean orduen, kanposantuen sartxean siren (K.)" - (Gorpua elizara etortzen zen, eta gero elizatik, orain sartu egiten dituzte elizaren barruan baina orduan ez zen sartzen orduan, kanposantuan sartzen ziren)

"Bide txarra egon san, orrek kamiñoak eitteko on siren ta, au gurera bidea intte egon san, au, onarte gurean, atxiñe in sen au, ba igual berrotamar urte baño giau eukiko ittus onek, ba arek ein barik egon siren, ta eurie ta, andi bera, ataute ba orduen, lepoan erote siren ba, ta aittek esaotzean ba andi yoan barik amatik, a, ametik, e, gureosue bajetu? ta bayetz, bayetz, gero, bakixu ser in yosuen? gorpue bajetuskeron, a, legea koiten da gero (T.)" - (Bide txarra egon zen, kamino horiek egiteko egon ziren eta, gurera bide hau eginda egon zen, hau, honaino gurean, antzina egin zen hau, ba beharbada berrogeita hamar urte baino gehiago edukiko ditu honek, ba haiek egin barik egon ziren, eta euria eta, handik behera, atauteak ba orduan, lepoan eroaten ziren ba, eta aitak esan zien ba handik joan barik hamendik, hamendik, gura duzue bajatu? eta baietz, baietz, gero, badakizu zer egin duzuen? gorpua bajatuz gero, legea hartzen da gero)

ille: hila, hilotza

kajea: zerraldoa

kanposantue: kanposantua, ortusantua, hilerria

"Kasureko kanposantue, enterretako a ixetan san bixitxen siren lekue, edo Morga edo Larrauri edo sera (K.)" - (Kasurako kanposantua, lurpetzeko hura izaten zen

bizitzen ziren lekua, edo Morga edo Larrauri edo zera)

lutue: lutoa

"Bai, bai, kasureko, urte bi guresoana, nebarrebana urte bete, ta lengusuena iru illebete edo olan ixetan san (M.)" - (Bai, bai, kasurako, gurasoena, nebarrebana urte bete, eta lehengusuena hiru hilabete edo holan izaten zen)

ortusantue: ortusantua, kanposantua

9. UMEZAROA

Atal honetan umezaroaren gaineko berbak batzen ditugu; azpi-atalak olgetak, umeakaz erabiltzen den lexikoa eta, azkenik, eskolari dagokiona batzen dugu.

9.1. UMEEN OLGETAK,

akinke: akinka, oin baten gainean ibiltzea

arretxiko: arretxikoa, batak bestea gainean eroatea

"Arretxiko, lepoan kodxute itxe san, lepoan kodxu lagune ta, arretxiko ori ixeta san (At.)" - (Arretxiko, lepoan hartuta egiten zen, lepoan hartu laguna eta, arretxiko hori izaten zen)

aspie: azpia, olgeta batzuetan zortean irtenda besteak topatzeko edo lo egiteko lotzen dena

"Eta akabu, akabukoa, eitxen sakonian akabukoa toketan sakonian a, aspi, begiek ixitxe egoten, ta gu yoaten gintzesan gero ostuten (M.)" - (Eta azkena, azkenekoa, egiten zitzaionean azkenekoa tokatzen zitzaionean hura, azpia, begiak itxita egoten, eta gu joaten ginen gero osten)

asto astoka: asto-astoka, bat makurtuta gainetik salto eginda egiten den olgeta, batzuetan makurtuta dagoenaren ipurdian ostikada ematen zen

baloya: baloia

bagarea: bagaraka jokoan esaten den berba lagunek mahai azpitik irten dezaten

bagaraka: bagaraka, elizako harrizko mahaiaren azpian eta gainean paratuta egiten den olgeta

bilbo ikusi: umea masailetatik oratuta altxatzea, altxatzeko Bilbo ikusiko dutela edo erakutsiko zaiela esaten zaie

botxike: botxoka, kanikak edo intxaurrak botxoan sartzeko lurlean egiten den olgeta

botxoa: kanikak edo intxaurrak sartzeko lurlean egiten den zuloaren izena

"Botxora, kanikekas ta eitxe san ori (At.)" - (Botxora, kanikakaz eta egiten zen hori)

botxoka: botxoka, intxaurrakaz egiten den jokoa

diabolora: diabolora

drogea: bihurrikeria

erregala: kuikan libratzeko esaten den berba

estrukuluke: iztertolaka, hankak zabal zabalik paratzea

etze etzeka: etxe-etxeka; latorri, harri, landare, eta abarrekaz etxea irudikatzen edo salerosteko egiten den olgeta

euntzerdera: ahuntz erdara

"Euntzederera iños entzun dosu? (M.)" - (Ahuntzerdera inoiz entzun duzu?)

"Euntzerdera gure aitxek eta sarritxen esate seudian euntzerdera (M.)" - (Ahuntzerdera gure aitak eta sarritan esaten zuten ahuntzerdera)

"Estaitx, baya ori berbia sarri entzuten ixen du euntzerdera, selan? ser esan dosu? ser esan dosu? euntzerdera esan bear datzu ela? (M.)" - (Ez dakit, baina berba hori sarri entzuten izan dugu ahuntzerdera, zelan? zer esan duzu? zer esan duzu? ahuntzerdera esan behar zaizu ala?)

"Ori ejenpleoa imingotzut, aitxu, etorri ona, por ejenplo, tie tita, tie tito, tirri tio tina, bai olantxe itxen gendun bai, bai, te imiñi, berba gustieri, te eurretik imiñi, eta pe bere bai askok imintxe sotzean es te, pe, pe bai (M.)" - (Adibide hori ipiniko dizut, aditu, etorri hona, esate baterako, tie tita, tie tito, tirri tio tina, bai holantxe egiten genuen bai, bai, eta ipini, berba guztiei, te aurretik ipini, eta pe ere bai askok ipintzen zioten ez te, pe, pe bai)

"Bai guk alkarregas olgetan alan ibiltxen gintzesan, bai, bai, bai, pe edo, piapa piapa, bueno piapa da, ba, piapa piapa da, ariñ arin yoan edo, olan da, piapa piapa, baya olantxe eitxen gendun bai (M.)" -

(Bai guk elkarregaz olgatzzen halan ibiltzen ginen, bai, bai, bai, pe edo, piapa piapa, beno piapa da, ba, piapa piapa da, arin arin joan edo, holan da, piapa piapa, baina holantxe egiten genuen bai)

itzu-itzuke: itsu-itsuka, batek begiak estalita ikututa lagunak harrapatu eta nortzuk diren igarri behar du

iturrie: umeek olgatzeko erabiltzen den botila tapoia

"Orduen, e, iturrie pere asko ote siren amen, se limonadiak egon siren berton eta yoaten giñen iturriek koisten, eta iturrieri imintxe akon, e, iru lau kortxo, kortxoas bete beterik (K.)" - (Orduan, iturriak ere asko egoten ziren hamen, ze limonadak egon ziren berton eta joaten ginen iturriak hartzen, eta iturriari ipintzen zitzaion, hiru-lau kortxo, kortxoagaz bete-beterik)

kakosinke: olgeta baten izena

kanike: kanika

"Kanikekas bai, sillotxue iñ, esta? ta ara bota gero kanikak, ba bakoitxari toketan dakosanak, sillora (Ll.)" - (Kanikakaz, bai zuloitxo egin, ezta? eta hara bota gero kanikak, ba bakoitxari tokatzen zaizkionak, zulora)

kaniketan: kaniketan

karneka: karneka, soka dantzan

kikili: kikili, arretxiko; umea hankak dandiliska bizkarrean jesarrita eroatea

kirrin karraka: kirrin-karraka

"Kirrin karraka bai gurdiegas, gurdiegas kirrin karraka (M.)" - (Kirrin-karraka bai gurdiagaz, gurdiagaz kirrin-karraka)

kirrin karran: kirrin-karran, bat gurdiaren puntan iztertolaka jesarrita paratzen da, garitekoek kamari sakatuta gora eta behera erabiltzen dute

kistor: kistorrera egiteko erabiltzen den intxaur txikerra

"Enei! intxurrekas? imiñi olan illedan igual, a, ogei intxur, esta? eta bat, a, atzerengo, kistor, atzerengo, eta olan bean bota, eta ia senbet libretan dosusen, eta kistorra yoten badosu, ta ataraten badosu an arraya intte daun lekuti danak seurek (A.)" - (Ene! intxaurrakaz? ipini holan ilaran

beharbada, hogeitxaur, ezta? eta bat, atzerengoa, kistor, atzerengoa, eta holan behean bota, eta ea zenbat libratzen dituzun, eta kistorra jotzen baduzu, eta ateratzen baduzu han marra eginda dagoen lekutik denak zeureak)

kistorrera, kistorrian: intxaurrakaz egiten den olgeta

klomoa, kromoa: kromoa

"Klomoak ekarri itten sittusen lantzean, e, txokolate batek edo, seuser saltzen oten sanak, serean ta, gero olan yo bean ta itten san, eskues altzeu gora (Ll.)" - (Kromoak ekarri egiten zituen lantzean, txokolate batek edo, zer edo zer saltzen egoten zenak, zerean eta, gero holan jo behean eta egiten zen, eskuagaz altxatu gora)

"Kromoa pai, gure osteko pere usa deureas (A.)" - (Kromoak bai, gure ostekoek ere usatu dituzte)

kromotara: kromotara

kui: kui, kuika olgetan ostutakoan esaten den berba, berba honegaz ostuta dagozela eta bilatzen has daitekeela adierazten da

"Ak, a, lo daunak, a, ikusi baño lelau allegaten bada ara libre, ak esauen lorik in berrixeten, kui esate san (A.)" - (Hark, lo dagoenak, ikusi baino lehenago ailegatzen bada hara libre, hark ez zuen lorik egin behar izaten, kui esaten zen)

kuike: kuika, ostaltara

"Kuike ostu, eta kui esan, ta gero ayek besteak nopera topetan (Ll.)" - (Kuika ostu, eta kui esan, eta gero beste haiek norbera topatzen)

"Kuike bere bai, kuike bai, orman atzen para batzuk, tapata ta bestek eskapa, ta gero arek topetan yoan (A.)" - (Kuika ere bai, kuika bai, hormaren atzean paratu batzuk, tapatuta eta besteek eskapatu, eta gero haiek topatzen joan)

"Kontetako kuike olgetan gendunian, kontetako selan? selan olgetan? enei! enei! enei! ser esango tzut? selan, oiñ astute dekodas baya (M.)" - (Kontatzeko kuika olgatzzen genuenean, kontatzeko zelan? zelan olgatzzen? enei! enei! enei! zer esango dizut? zelan, orain ahaztuta dauzkat baina)

kukulumixu: kukulumaiXu

"Kukulumixu? alan markurtute pareu, dxesarritxe beres, eta sutuni peres, baya

makurtute, kukulumixu (At.)" - (Kukulumaixu? halan makurtuta paratu, jesarrita ere ez, eta zutunik ere ez, baina makurtuta, kukulumiaixu)

laprimeraka: laprimeraka

lau txakur: lau txakur, katuka, katanarraz
"Lau txakur imiñi, ta tapeu irekas, ta sue emon (At.)" - (Lau txakur ipini, eta tapatu irakaz, eta sua eman)

lo iñ: lo egin, azpi izan, kuika moduko olgetetan begiak estalita, lagunak topatzeko kontatu behar duenak lo egiten du

lo lotu: lo lotu, kontatzeko lotu

lo para: lo paratu

marro: marro

"Marroka, ba orixe, alkar koyiten, marro, parate siren olan, a, illedan, esta? ta batek urtetan sauen eta a allega baño lelau beran lekure koyiten basaun marro (A.)" - (Marroka, ba horixe, elkar hartzen, marro, paratzen ziren holan, ilaran, ezta? eta batek irteten zuen eta hura ailegatu baino lehenago beraren lekura hartzen bazuen marro)

marroka: marroka, elkar harrapatzen

"Marroka bere eitten gendun baya selan, koyutera da marroka (Ll.)" - (Marroka ere egiten genuen baina zelan, hartzera da marroka)

"Kuika da bat, ta bestia da marroka (At.)" - (Kuika da bat, eta bestea da marroka)

"Kuikakoa da ori, marrokakoa kodxu itxen da, baya kuikakoa ikusi eskeron orduen beran ixena esan edo itxen salakoa dekot, eta gero a lo (At.)" - (Kuikakoa da hori, marrokakoa hartu egiten da, baina kuikakoa ikusiz gero orduan beraren izena esan edo egiten zelakoa daukat, eta gero hura lo)

muñekea: andrakila

"Guk estu erregeanik iños koyu, erregeanik eta muñekarik, iños beres, egundo beres (M.)" - (Guk ez dugu erregeanik inoiz hartu, erregeanik eta andrakilarik, inoiz ere ez, egundo ere ez)

olgetea: olgeta

ostu-ostuke: ostu-ostuka

parretilke, perratilke: trukamuka

parretille: trukamuka-harria

pelotea: pilota

pelotaka: pilotaka

sokara: sokara

soka yantza: soka dantza, soka saltoa

tabea: taba

"Tabaka bere in yu, baya tabaka gitxitten, se tabak lenau, esan egoten, e, serak, tabak falta siren (Ll.)" - (Tabaka ere egin dugu, baina tabaka gutxitan, ze tabak lehenago, ez zen egoten, zerak, tabak falta ziren)

"Tabak nik esetu doas, oki bere in yoas neure umeantzako baya ya esteure orrek... (A.)" - (Tabak nik ezagutu ditut, eduki ere egin ditut neure umeentzat baina ja ez dute horiek...)

tabaka: tabaka

"Tabaka ote siren, aittu serari, itte siren artxoak eta aumeak eta orreri a tabe kentxen sakean, eta tabak aukitte saudean alderri beteti lisu eta besteti alan, a, uekotxu bet eta kanike bat, bean imintte sien tabak igual sei taba, eta primerara, segunda, tercera eta cuartara itte san, eta kanike bota gora, eta a goitti daun arten bueltea, bateri, emon ber dotzesu buelte edo biri airi emon ber seuntzen bueltea eta gero danatara emoten sendunean ba, bota kanike gora a portodas danakas oiñ eta danak koyu ber ixeten sendusen yoko itteko (A.)" - (Tabaka egoten ziren, aditu zerari, egiten ziren artxoak eta aumeak eta horiei taba hura kentzen zitzaien, eta tabek edukitzen zuten alderdi batetik lisu eta bestetik halan, hutsunetxo bat eta kanika bat, behean ipintzen ziren tabak beharbada sei taba, eta lehengora, bigarrena, hirugarrena eta laugarrenera egiten zen, eta kanika bota gora, eta hura goitik dagoen artean buelta, bati, emon behar diozu buelta edo biri haiei eman behar zenien buelta eta gero denetara ematen zenuenean ba, bota kanika gora denen bila denakaz orain eta denak hartu behar izaten zenituen jokoa egiteko)

tabatara: tabatara

tardantze eskatu: tardantza eskatu, umeak astunduta, nor edo nogana joateko esaten zaie tardantza eskatzeko edo emateko, bide batez norberari baketan uzten diote

tiragomea: tiragoma

trokamera: trukamera

tronpatan: xibatana, tronpatan

tronpoya, tronpea: tronpoia, xiba

"Tronpoyakas bai, kordelagas batute bai, asko useta san lenau, asko (At.)" - (Tronpoiakaz bai, kordelagaz batuta bai, asko usatzen zen lehenago, asko)

tronpoi kordela: tronpoi kordela

trukame, trukeme: trukamera

trukameraka, trokameraka: trukameraka

"Olga itten gendun, kordelakas edo, arri bet imiñi tte kuadruk eiñ, trokamera esaten geuntzen, trokameraka, sokara, tabatara, kromotara (A.)" - (Olgatu egiten genuen, kordelakaz edo, harri bat eta kuadruak egin, trukamera esaten genion, trukameraka, sokara, tabatara, kromotara)

txapatan: txapatan

txikotan, txikon: txikoan

"An matza egote san beti ona, asta matza beti ona egote san, amen geu pere, sarri koyu dune baya aurten galdu ein yosku denporalak eta, ba igual eitteuden, e, bata bestean ganean txikon paraute matza ostuten ta, baya igual ama egote san bentanan erroldarie tausenean (E.)" - (Han mahatsa egoten zen beti ona, asta-mahatsa beti ona egoten zen, hamen geuk ere, sarri hartu duguna baina aurten galdu egin digu denboralak eta, ba beharbada egiten zuten, bata bestearen gainean txikoan paratuta mahatsa osten eta, baina beharbada ama egoten zen leihoan erroldariak dagozenez)

txilintxalanka: txilin-txalanka, zabuka

txinboa: txinboa

txinboka: txinboka

"Ba balkoiko seretik imiñi, ba sokia ta imintxen gendun te, txinboka (At.)" - (Ba balkoiko zeretik ipini, ba soka eta ipintzen genuen eta, txinboka)

txirie: txiria

txirinbueltea: txirinbuelta

txirritxola: txirritxola, txirrinkola

txorro-morro: txorro-morroa, jokoan honako hau esaten zen: "txorro morro piko tallo ke"

yokoa, dxokoa: jokoa

9.2. UMEEN LEXIKOA

ababa: ababa, lo egiteko esaten den berba

andi andi: handi-handi, paseoan joateko esten da

apa: apa, altxatzeko esaten zaie umeei

apapa iñ: eskapatu, joan

apapa: apapa, ibiltzeko esaten da

apatxe: apatxe, jesartzeko esaten da

apatxe iñ: apatxe, jesartzeko esaten da

atatan: atatan, paseoan joateko esaten da

aupa: aupu, altxatzeko esaten da

aupa iñ: aupu egin, altxatzeko esaten da

babalore: babalorea, deikari gisa erabiltzen da

barrabasa: barrabasa, okerra

dilin-dalan: dilin-dalan, kanpaiaren hotsa

dragoa: umeen jaurtakada

et: ez; zer edo zer egin ez dezaten edo arriskuaz jaube erazteko esaten zaie

etetet: ez ez

fu: fu, sua; erretzeko arriskua dagoenean ere esaten da

guau guau: txakurra

kakela: kaka

kili kili: kili-kili

kilikilik eiñ: kili-kili egin

kilin-kolon: kili-kolo, loka

koko: koko, txokolatea, gozokia

kokolo : kokoloa, inuzentea

lastana: lastana, deikari amoltsua

lolo: lo

lolo iñ : lo egin

mama: mama, ura

mañe: treta, maina

miau: katua

mixiña: mitxina, katua

mosu merke: musu merkea, beti musuka dabilen umea

nene: esnea

pa: musua

pa bota: musua bota

pa emon: musua eman

papa: papa, ogia

papatoa, papatak: zapata

papau: papaoa, umeak ikaratzeko papaoa etorriko dela esaten zaie

pipi: txoria

pitxi: pitxia, jostailua

pitxin: umeei amoltsuki esaten zaie

"Es eskapa gero neskatori ondo porta, e pitxin! (La.)" - (Ez eskapatu gero neskatoari ondo portatu, e pitxin!)

popak: zopak

popota: popota, kotxea

pospoliñe: neskatoei esaten zaie
pun: jausi
pun eiñ: jausi
punba: punba, jausi
punbala: jausi
pupu: mina
pupu iñ : min egin, min hartu
sapa sapa: arin joaten esaten da
sarkotxia: zaharkotxa, nagusien gauzak egiten dituen neskatoa
sarkotxo: zaharkotxoa, nagusien gauzak egiten dituen mutila
tas-tas: jotzearen onomatopeia
tas tas eiñ: tas-tas egin
"Tas tas eingo tzut (T.)" - (Tas-tas egingo dizut)
tato: umeari esaten zaio salto egiteko
tato iñ: salto egin
tiki taka: tiki-taka
toto: txakurra
tretia: treta, maina
txapiskola: neskatoei esaten zaie amultsuki
txatxa: fruitua
txatxurre: lehen haginak irtekeran esaten zaie
"An txatxurre tekos urtetan gure señek (Bi.)" - (Han txatxurrak dauzka irteten gure seinak)
txerea: txera
txetxe: txetxe, umea
txi: erre
txiñe: dirua
txintzarri: sonajeroa
txipli txapla: txipli-txapla
txipli txapla iñ: txipli-txapla egin
txitxi: okela
txupetea: txupetea
txurku-txurku: zurrut edan
yaurtakadea, yaurtikede: jaurtikada, bereziki umeek, haserre dagozela, ematen dituzten bultzakadei buruz esaten da
"Yaurtikede da, guresoari kasu beterako, seuser yaurtikeda bat eittea (E.)" - (Jaurtikada da, gurasoei kasu baterako, zer edo zer jaurtikada bat egitea)

9.3. ESKOLA

bakasiñoak: oporrak

erreglea: erregela

"Nik es ondo, se maistre euki neuen okerra ta, a beti yoten egote san, eguno olaurik esta emen ikusi, a segaittik edosegaittik, eta alan imiñi eskuek eta erregleagas yoten, orrexeaitti itxi eskolea ta yoa nitzen ni krieda, okerra ixen san a, iñor ixen bada a okerra ixen san, danak lau dardan egoten siren, grasiek neskato batzuk egoten sirena, apur bet, geyau dakienak, gitxiau dakienari irikasteko ta, ta aye tausenean pasa, baya ak gero lantzean, e, astean baten edo bitten egoten san sera, ba ayeri kentxean seuen berak, ta orduen dana garrote ixetan san! (Ll.)" - (Nik ez ondo, ze maistra eduki nuen okerra eta, hura beti jotzen egoten zen, egundo holakorik ez da hemen ikusi, hura zergatik edozergatik, eta halan ipini eskuak eta erregelagaz jotzen, horrexegatik utzi eskola eta joan nintzen ni neskame, okerra izan zen hura, inor izan bada hura okerra izan zen, denak lau dardan egoten ziren, eskerrak neskato batzuk egoten zirena, apur bat, gehiago dakitenak, gutxiago dakitenei irakasteko eta, eta haiek dagozenezan pasa, baina hark gero lantzean, astean baten edo bitan egoten zen zera, ba haiei kentzen zien berak, eta orduan dena garrote izaten zen!)

errekreo: atsedena

eskola umea: eskola umea

eskolea: eskola

"Gu eskolara Mungiñ, berton Mungiñ egon gintzesan (A.)" - (Gu eskolara Mungian, berton Mungian egon ginen)

gredea: klariona

"Ori ba itte san, greda edo suri beteas ba iñ igual sei kuadru edo sortzi, esta? kadera baten ganen in ber ixete san salta danak, eta gero igual esaten sendun bi era batera pasa ber dosusela edo iru (A.)" - (Hori ba egiten zen, klariona edo zuriATEGAZ ba egin beharbada sei kuadru edo zortzi, ezta? oin baten gainean egin behar izaten zen saltatu denak, eta gero beharbada esaten zenuen bi era batera pasatu behar dituzula edo hiru)

kartile: kartila, dotrina ikasteko liburua

katoya: abcedarioa ikasteko erabiltzen zena

kastigue: zigorra

"Ni neuri esteustea emon, es gure gureson aldetik eta es, a, eskolatan, nik estot artu kastigu andirik, esate seuren bayetz (A.)" - (Ni-neuri ez didate eman, ez gure gurasoen aldetik eta ez, eskolatan, nik ez dut hartu zigor handirik, esaten zuten baietz)

"Gero euki gendun beste kastigu et, egun erdi yorran ein bear (E.)" - (Gero eduki genuen zigor bat, egun erdi jorran egin behar)

kuadernoa: kuadernoa

lapise: lapitza

lesiñoa: ikasgaia

letria: letra

liburue, libirue: liburua

"Libiruek erosi estot pentzetan eitten sirenik emon eitten seittusen eskolatan (L.)" - (Liburuak erosi ez dut pentsatzen egiten zirenik eman egiten zituzten eskolatan)

maistrea: maistra

"Gero Mungidxera asi nitzen, saspri urte baño ariñau, ta amalau urterartian ibilli nitzen gero ni Mungidxen, alandase saspri urte baño ariñau, ta amalau urterarte saspri urte pasauen, e, Mungidxen ibil nas, ta Mungidxen ba erdera, euskera bere itxen gendun baya, maistre bere, erdaldunek maistrek (At.)" - (Gero Mungiara hasi nintzen, zazpi urte baino arinago, eta hamalau urtera arte ibili nintzen gero ni Mungian, halandaze zazpi urte baino arinago, eta hamalau urtera arte zazpi urte pasatuan, Mungian ibili naiz, eta Mungian ba erdara, euskara ere egiten genuen baina, maistra ere, erdaldunak maistrak)

maixue: maisua

"Bai beluniko pareta, puf! yo nai edoser eitteuen ak, oiñ egon basan, alau balittike, oiñ apur bet, e, gogortuten dana, uf! lenau, beste maixu be pere emen, serean egon san, Gamisen egon san ba maixu be pere emekoa, a pere, enei! ume gustiek eskolara yoan gure esik egoten siren (L.)" - (Bai belauniko paratuta, puf! jo nahi edozer egiten zuen hark, orain egon bazen, halakoa baliteke, orain apur bat, gogortzen dena, uf! lehenago, beste maisu bat ere

hemen, zerean egon zen, Gamizen egon zen ba maisu bat ere hemengoa, hark ere, ene! ume guztiak eskolara joan gura ezik egoten ziren)

maletea: maleta, umeek eskolara jatekoagaz eraoten zutena

numerue, numeroa: zenbakia

papela: papera

pisarrea: arbela

sasi eskolea: sasi eskola

tintia: tinta

10. DENBORA

Denborari buruzko berbak hobeto aurkezteko atal hau ondoko azpiataletan banatuta emango dugu: urtaroak, hilak, astegunak, denboraren banaketa, egunaren banaketa eta egunen arteko erlazioak

10.1. URTAROAK

negue: negua

"Orre pere neguen asko etorte siren lenau, oiñ esta ikusten (L.)" - (Horiek ere neguan asko etortzen ziren lehenago, orain ez da ikusten)

negu erraye: negu erraia, negu mina

"Otea eroteko bere prolemak oten siren, oki gendun basoa, or, etaria bi euki gendus, bueno, nik etaria bi tte bestealdekoak beste etaria bi, baya bideak txarrak, igual eskatu oskun neguko errayetan, osea, esiñ eron, nondik atara, dana basea, ortik gora dana basea ixen san, au bere bardiñ, au bere bardin dana basea (E.)" - (Otea erotateko ere arazoak egoten ziren, eduki genuen basoa, hor, hektarea bi eduki genituen, beno, nik hektarea bi eta beste aldekoak beste hektarea bi, baina bideak txarrak, beharbada eskatu zigun neguko erraietan, hau da, ezin eroan, nondik atera, dena basa, hortik gora dena basa izan zen, hau ere berdin, hau ere berdin dena basa)

udebarrie: udaberria

"Arek udebarrien egoten dire, mayetz ingeruen etorten dire arek ona ta emen bian ibiltxen dire orrek (M.)" - (Haiek udaberrian egoten dira, maiatz inguruan

*etortzen dira haiek hona eta hemen
behean ibiltzen dira horiek)*

udegoyena, udegodxena: udagoiena,
udazkena

*"Ori neusi ori beluaukoa da baya ori bere,
ariñ ustelduten da, euri apur bet, a,
udegoyen ona bada, orduen eleganteak
eitten dire ikoak baya ostantzean es
(Z.)" - (Nagusi hori beluagokoa da
baina hori ere, arin usteltzen da, euri
apur bat, udagoienez on bada,
orduan dotoreak egiten dira ikoak
baina osterantzean ez)*

udea: uda

10.2. HILAK

abendue: abendua

abustue, agostue: abuztua

*"Larotamaka eingodas datorren illen
amabien, ta orrek agostun dekos eintte
larotamar (Z.)" - (Larogeita hamaika
egingo ditut datorren hilaren hamabian,
eta horrek abuztuan dauzka eginda
larogeita hamar)*

aprille: apirila

bagille: bagila, ekaina

enero: urtarrila

*"Podeu itten dire, geuenatatik, geuen
eurrean gure aitte defuntuek beti eitten
sittusen, ba en jeneral, en jeneral,
nobienbren, or eta gero, enero
febreroan, imintten sittusen amarreta,
alanbretan ba, aik mimenakas,
mimenakas bueltaka bueltaka (Z.)" -
(Inausi egiten dira, gabonetatik, gabon
aurrean gure aita difuntuak beti egiten
zituen, ba gehienetan, gehienetan,
zemendian, hor eta gero, urtarril-
zezeilean, ipintzen zituen amarratuta,
alanbreetan ba, haiek mimenakaz,
mimenakaz bueltaka-bueltaka)*

febrero: zezeila, otsaila

*"Kanpoko bearra, oingo alden ordun
goxeti itte san, se idiekas edo beyekas
ein ber ixetan sales, apur bet soloak
erre dittesan, eta itten siren ba, beiñ, a,
febrero paseueskeroan, andik gora,
eitten siren (Z.)" - (Kanpoko beharra,
oraingo aldean orduan goizetik egiten
zen, ze idiakaz edo behiakaz egin behar*

*izaten zenez, apur bat soroak erre
daitezzen, eta egiten ziren ba, behin, zezeila
pasatuz gero, handik gora, egiten ziren)*

garagarrille: garagarrila, uztaila

iraille: iraila

julio: garagarrila, uztaila

junio: bagila, ekaina

martie: martia, martxo

*"Emen, etorte siren geuen eurretxuen, eta
yote siren, urtea ondo badator, denpora
onakas, abriren, e, asikeratan, abriren
erdie, martie akaba ta abril erdi ingeruen
martxeta suren, segun Aralarren se
denpora dauen (Z.)" - (Hemen, etortzen
ziren gabon aurretxoan, eta joaten ziren,
urtea ondo badator, eguraldi onakaz,
apirilean, hasikeretan, apirilaren erdia,
martia amaitu eta apiril erdi inguruan alde
egiten zuten, segun Aralarren ze eguraldi
dagoen)*

mayetza: maiatza

nobienbre: zemendia, azaroa

otubre: urria

*"Otubre akabu ingerue asitten san a, ta andi
gora illebeta ingerun, belu eraitten basan
bere eseun sertxen, or ingerun erain ber
ixeta san (Z.)" - (Urri amaiera inguru
hasten zen hura, eta handik gora hilabete
inguruan, belu ereiten bazen ere ez zuen
zertzen, hor inguruan erein behar izaten
zen)*

semendie: zemendia, azaroa

seselle: zezeila, otsaila

*"Bai, bai, bai, kandelak eta eskapularioak eta,
bai, ori, sesellen bien ixetan da bi edo
iruen (M.)" - (Bai, bai, bai, kandelak eta
eskapularioak eta, bai, hori, zezeilaren
bian izaten da bi edo hiruan)*

setienbre: iraila

urrie: urria

urtarrille, urterille, urterelle: urtarrila

*"Ein yana emen da atzeratu, patatia eraitxea,
se len eraitxen gendun patatia, ba,
urterelle edo sesellean edo or, eta oiñ, a,
mayetzen eraitxea bere bardin bardin
koiten da (M.)" - (Egin dena hemen da
atzeratu, patata ereitea, ze lehen ereiten
genuen patata, ba, urtarrila edo zezeilean
edo hor, eta orain, maiatzean ereitea ere
berdin-berdin hartzen da)*

10.3. ASTEGUNAK

astelena: astelehena

barikue: barikua, ostirala

"Oñ esta kobretan, pentzateot len ayuntamintxuek kobrate seuen ori bere, bariku gustitan paste san aguasille (K.)" - (Orain ez da kobratzen, pentsatzen dut lehen udalak kobratzen zuen hori ere, bariku guztietan pasatzen zen udaltzaina)

domekea: domeka, igandea

"Gero domekatan apur bet, a, diferentetxue, ori bai, neuk esetu dot (A.)" - (Gero domeketan apur bat, desberdintasuntxo, hori bai, neuk ezagutu dut)

"Egun beten, e, domeka baten esaneutzen, e, etzeari emongo tzeagus sei mille ogerleko (E.)" - (Egun baten, domeka baten esan nion, etzeari emango dizkiogu sei mila ogerleko)

eguen: eguena, osteguna

egustena: eguaztena, asteazkena

martitzena: martitzena, astearte

sapatue: zapatua, larunbata

"Ni nabilela pintxe ba akabuko urtean, edo nabilela, ya urtetako serean, ba, etorri askun orko, La Krusko tabernako bat, etorri san, amen beti ote san barberien sapatuten (K.)" - (Ni nabilela pintxe ba azken urtean, edo nabilela, ja irteteko zerean, ba, etorri zitzaigun horkoa, La Krusko tabernako bat, etorri zen, hamen beti egoten zen bizartegian zapatuetan)

10.4. DENBORAREN BANAKETA

aldie: aldia

"Urreo aldi beten yoa nitzen (E.)" - (Hurrengo aldi baten joan nintzen)

amabosta: hamabosta, hamabostaldia

"Amabostari beiñ, egote san Mungien ferie, ni akorta nas, nik bear ein dot aste gustien, eta domekatan bere itxen gendun bear, eta feri egunetan etorte siren, ba amabost eguneko bixerragas, edo igual illebetekoagas (K.)" - (Hamabostarik behin, egoten zen Mungian azoka, ni gomutatzen naiz, nik behar egin dut aste guztian, eta

domeketan ere egiten genuen behar, eta azoka egunetan etortzen ziren, ba hamabost eguneko bizarragas, edo beharbada hilabetekoagas)

"Astoa osabeana ixen san, eta osabeak esetu es, ta amabosta saldute dekola astoa (T.)" - (Astoa osabarena izan zen, eta osabak ezagutu ez, eta hamabosta salduta daukala astoa)

astea: astea

"Ametik lau astera yoan bear dot (K.)" - (Hamendik lau astera joan bear dut)

"Lau astean egon nas makalik (Z.)" - (Lau astean egon naiz makalik)

aste akabue: astegoiea

aste bitxartia: aste bitartea

astegune: asteguna

"Eta etorte san nobien etzera erroldan ta etorten siren geubeko orduetan astegunian eta, gause asko paseta san atxiñe (M.)" - (Eta etortzen zen andregaiaren etxera erroldan eta etortzen ziren gaueko orduetan astegunian eta, gauza asko pasatzen zen antzina)

astie: astia

bart: bart

bearregune: behar eguna

besperea, bisperea: bezpera

bider: bider

"Eta gero eurek amarretan dure olan trapu bet, ba, ara, estu estue, ta astean birriten, iru bider, olan eitten dure ori (Z.)" - (Eta gero eurek amarratzen dute holan trapu bat, ba, hara, estu-estua, eta astean birritan, hiru bider, holan egiten dute hori)

denporadea: denboraldia

denporea: denbora

"Guk Frantziko ganadue ekar due, denporatan ekar due! ta Frantzin txarrenak, Frantzin txarrenak emeko onena paño obak ixeten siren (Z.)" - (Guk Frantziako ganadua ekarri dugu, denboratan ekarri dugu! eta Frantzia txarrenak, Frantzia txarrenak hemengo onenak baino hobeak izaten ziren)

desordue: desordua, ordu desegokia

"Desorduen ein yeu, a, ollarrak kukurruku, se en jeneral eitten deude, ba sasoi bat antzean, eitten deude en jeneral (T.)" - (Desorduan egin du, ollarrak kukurruku, ze gehienetan egiten dute, ba sasoi bat antzean, egiten dute gehienetan)

egune: eguna

"Bost egunerako ardaia erosi daurea (Z.)"

- (Bost egunerako ardaia erosi dute)

"Senbet egunean egon sara kanpoan? (Z.)"

- (Zenbat egunean egon zara kanpoan?)

"Senbet egunerako dau bearra? (Z.)" -

(Zenbat egunerako dago beharra?)

egun erdie: egun erdia

epokea: sasoi, aldia

"Bueno orrek, e, euren epokea dekea, ba neguen ureberan (E.)" - (Beno horiek, euren sasoi daukate, ba neguan urak beheran)

"Txakoliñeri, segun se epokatan dan edo, selan koiten deuen ixao da (Ll)" - (Txakolinari, segun ze sasoitari den edo, zelan hartzen duen izango da)

gastañe denporea: gartzaina sasoi

gerra denporea: gerra sasoi

gerraostea: gerra ostea

"Su gerraosteko sara (A)" - (Zu gerra ostekoa zara)

gose sasoi: gose sasoi

illea: hila

illebetea: hilabetea

miñutue: minutua

"Erresue ba ta, ni takitzut, baya atxiñekoa da baya, eta, bos miñutu bere igual eingo nekes kantetan, kantetan edo (M.)" - (Otoitza bat da, nik dakitsut, baina antzinakoa da baina, eta, bost minutu ere beharbada egingo nituzke kantatzen, kantatzen edo)

momentue: momentua

"Estat akordeko momentuen sarri komenteu in yot baya (Ll.)" - (Ez zait gomutatuko momentuan sarri komentatu egin dut baina)

negutea: negutea

ordue: ordua

"Berreun orduko emoten daudea (Z.)" - (Berrehun orduko ematen dute)

"Txala in baño ordu bete lelau edo ordu bi lelau? urek, urek botate itxus (M.)" - (Txahala egin baino ordu bete lehenago edo ordu bi lehenago? urak, urak botatzen ditu)

ordu erdie: ordu erdia

ordu laurena: ordu laurena, ordu laurdena

"An egon siren, ordu lauren edo atean, an berbetan ibil siren (T.)" - (Han egon

ziren, ordu lauren edo atean, han berbetan ibili ziren)

pena unekadea: min unekada

"Pena unekadea pasatakon bertzotan bardin bardiñ eitte oskun oyan (E.)" - (Min unekada pasatzekotan bertzotan berdin-berdin egiten zigan ohean)

sartzarora: zahatzarora

"Gure aitteri, bakixu ya sartzaroran, ba danori pasaten dakun kontue, ba gixajoa bere ba, apur bet koittedutute egon san (E.)" - (Gure aitari, badakizu ja zahartzaroran, ba denoi pasatzen zaigun kontua, ba gixajoa ere ba, apur bat koitadututa egon zen)

sasoi: sasoi

"Orduen esan oten ordurik, orduen sasoyan, ba bedeatzietan edo sortzi t'erdietan edo yoan, eta ordu bietartean, eta gero ba iru t'erdiek lauretan asi txe, amaitxu artean, bueno bearra igual esan eoten segiduen baya, gaueko amabietan bere igual oten giñen barberien (K.)" - (Orduan ez zen egoten dirurik, orduan sasoiari, ba bederatziartean edo zortzi t'erdietan edo joan, eta ordu bietara arte, eta gero ba hiru t'erdiek lauretan hasi eta, amaitu arte, beno beharra beharbada ez zen egoten segituan baina, gaueko hamabietan ere beharbada egoten ginen bizartegian)

tertzidxo: tertzioa

unia: unea

unedea: unada

"Olo bi artu otzaran ta yoate san ara uneda baten bai egon san, uneda baten egon san baya (E.)" - (Oilo bi hartu otzaran eta joaten zen hara unada baten bai egon zen, unada baten egon zen baina)

unekadea: unea, unekada

"Gero unekada bat egon da, emen orrek kerixek galdu in dirensa kasik, esta egon, orrenbeste arbola, oiñ igual barriñ (A.)" - (Gero unekada bat egon da, hemen gerezia horiek galdu egin direna kasik, ez da egon horrenbeste arbola, orain beharbada berriro)

urtea: urtea

"Bakixu oin senbet urte diren? (A.)" - (Badakizu orain zenbat urte diren?)

"Orrek larotak urteak esin deus euki (Z.)" - (Horrek larogitak urteak ezin ditu eduki)

"Senbet urtekoa da au ardaia? (Z.)" - (Zenbat urtekoa da ardau hau?)

"Au Gamisti etor de, berrotamar urte dire (L.)" - (Hau Gamiztik etorri da, berrogeita hamar urte dira)

10.5. EGUNAREN BANAKETA

arrastie, arrastegie: arrastia

arrasti erdie: arrasti erdia

atzaldea: arratsaldea

atzalde erdie: arratsalde erdia

eguerdie, egurdie: eguerdia

"Egurdien iruretan urtetan deu bearretik, etzera allege orduko, iru t'erdie tire, beskari yan orduko laure tire (Z.)" - (Eguerdian hiruretan irteten du beharretik, etxera ailegatu orduko, hiru t'erdia dira, bazkari jan orduko laurak dira)

"Aonek gure erranak esan daules, e, ba egurdien biarren ta ointxe ingo neke lo (E.)" - (Haonek gure erranak esan duen legez, ba eguerdian beharrean eta oraintxe egingo nuke lo)

egunsentie: egunsentia

egurdatea: eguerdiarte

gaue, geue, geubia, gaubea: gaua

"Ni askotan yoanas, eta, gaueko bederatzitten bardiñ, igual orio falta sendun eta, yoan Justagana ta ekarri orioa, ta Justa afari yaten ote san lekuti altza, eta orioa saldute seuen, beste biximodu bet (A.)" - (Ni askotan joan naiz, eta, gaueko bederatzietan berdin, beharbada olioia falta zenuen eta, joan Justagana eta ekarri olioia, eta Justa afari jaten egoten zen lekutik altxatu, eta olioia saltzen zuen, beste bizimodu bat)

"Estire ukusten es, se orrek geubian dabiltes te gero egunes, e, arbolan edo etzian, Sumintxako elixeak barruen bobedea deko, baya talletutik bobedara lekue deko ta, antxe pareta siren asko lenau, an barruen (L.)" - (Ez dira ikusten ez, ze horiek gauean dabilta eta gero egunez, arbolan edo etxean, Zumintxako elizak barruan bobeda dauka, baina teilatutik bobedara lekua dauka eta, hantxe paratzen ziren asko lehenago, han barruan) [gautxorien gainean dabil]

gauerdie, geuberdie: gau erdia

gois erdie: goiz erdia

goixaldia, goxaldea: goizalde

"Amen bere, amen gu bixi garen lekuen, bixi siren amen, e, beste batzuk bixi siren ta euki euden krieda bi txe, orreri goxaldean etorte saken kantaten ta kriedak urteteuen bentanara (K.)" - (Hamen ere, hamen gu bixi garen lekuan, bixi ziren hamen, beste batzuk bixi ziren eta eduki zuten neskame bi eta, horiei goizaldean etortzen zitzairen kantatzen eta neskameak irteten zuen leihora)

"Orrek, e, goixaldian kantetan deu, su tabernati txe soasenean, e, lenau, oiñ esta entzuten ori, lenau entzuten san ori (L.)" - (Horiek, goizaldean kantatzen du, zu tabernatik eta zoazenean, lehenago, orain ez da entzuten hori, lehenago entzuten zen hori)

goixe, goxe: goiza

"Guk domekatan, feri domekatan, ba ie domeka goxe gustie bixerra itxen eitxen gendun (K.)" - (Guk domeketan, azoka domeketan, ba ea domeka goiz osoa bizarra egiten egiten genuen)

"Goixekoak selan euki deude ixena? (M.)" - (Goizekoek zelan eduki dute izena?)

illundea, illundie: ilundea

"Nik, a, etorte siren, selau morroskoak! barriokoak barriokoak, e? illundien ordun illundien aste siren, se alan asi bear da, oiñ edonos asten die, ba ordun illundien olan ondiño esien asten, ya farolakas ta illundien aste siren (T.)" - (Nik, etortzen ziren, zelako morroskoak! auzokoak auzokoak, e? ilundean orduan ilundean hasten ziren, ze halan hasi behar da, orain edonoiz hasten dira, ba orduan ilundean holan oraindino ez ziren hasten, ja farolakaz eta ilundean hasten ziren)

illundi nabarra: ilunde nabarra, ilunabarra

illuntzea: iluntzea

10.6. EGUNEN ARTEKO ERLAZIOAK

areñegun, ariñegun: herenegun

atzo: atzo

"Atzotik ona estot ikusi (Z.)" - (Atzotik hona ez dut ikusi)

bier, bidxer: bihar

"Umeran bat bier etorko da (Z.)" - (Umeren bat bihar etorriko da)

etzi: etzi

"Ak, geur te bier te etzi yan eitten deu leku beten (T.)" - (Hark, gaur eta bihar eta etzi jan egiten du leku baten)

etzi gerokoa: etzidamu

gaur, geur: gaur

11. METERELOGIA

Meteorologiari buruzko atal hau honako azpi-ataletan banatuta aurkezten dugu: eguraldia, euria, ekaitza, elurra-leia, haizea, lainoa-hedoia eta tenperatura.

11.1. EGURALDIA

aroa: aroa, eguraldia

"Aro ona dau (G.)" - (Aro ona dago)

denporea: eguraldia

denpora larrie: eguraldi larria

denpora ugerra: eguraldi ugerra

kuarta tenporak, karta denporak: kuarta denborak

"Urtean iru edo lau biderres eitten ixen dire, karta denporak (Z.)" - (Urtean hiru edo lau biderrez egiten izan dira, kuarta denborak)

siketea: sikatea

umedadea: umedadea

umedasiñoa: hezetasuna

"Loitxasune gustetan dakea ta umedasiñoa (G.)" - (Lohitasuna gustatzen zaie eta hezetasuna)

11.2. EURIA

afrontue, afruntue: afrontua

"Kasik danak, eitten dire gorantza adi se afrontu, ortik dator, atzeti dator (Bi.)" - (Kasik denak, egiten dira gorantz adi ze afrontua, hortik dator, atzetik dator)

argi unekadak: argiunea

arkoirixe: ostarkua

"Arkoirixe, auri apurren bat eingo dau (Bi.)" - (Ostarkua, euri apurren bat egingo du)

asaroa: azaroa, hau euri onuragarriaren gainean esaten da

"Asaroa da, ba eurie, erain tte laster antzean, a, asaro badator esaten da, erain tte, ba euri itten deuenan (Z.)" - (Azaroa da, ba euria, erein eta laster antzean, azaro badator esaten da, erein eta, ba euri egiten duenean)

"A se asaro ederra in daun! (Bi.)" - (Aze azaro ederra egin duen)

"Asaroa da euri itten deuenan, ona danian bai, biarrixena dauenian, edo ondo suerte danean (Ll.)" - (Azaroa da euri egiten duena, ona denean bai, beharrezana dagoenean, edo ondo suertatu denean)

aterri: aterri

aterrunea: aterrunea

basatzea: basatza

basea, basia: basa

"Lenau, sera, satza itteko, portaletan ote san, basia, ta agas eitten san sera (Ll.)" - (Lehenago, zera, satsa egiteko, atarrietan egoten zen, basa, eta haregaz egiten zen zera)

eurie, aurie: euria

"Oll oak erretiretan direnean bere, ointxe euri in bear deu (K.)" - (Oiloak erretiratzten direnean ere, oraintxe euri egin behar du)

euri edurre, auri edurre: euri elurra

euri garoa, auri garoa: euri garoa

euri gotea, auri gotea: euri txiztila, euri tanta

euri lanbrie, auri lanbrie, euri lanbroa: euri ugerra, euri lanbria

euri lanbrikie: euri lanbria

"Bueno euri lanbrikie, ta umedadiagas ta, eitten dakea ori ugerra, baya neuk sulfatoa botate otzet, ta gaueko frekurea bere, total da tomateantzako txarra, total txarra (Z.)" - (Beno euri lanbria, eta umedadeagaz eta, egiten zaie uger hori, baina neuk sulfatoa botatzen diot, eta gaueko ihintza ere, guztiz da tomateentzat txarra, guztiz txarra)

euri saparradea: euri zaparrada

euri sirie, auri sirie: euri ziria

euri trasea, auri trasea: euri itxura

euri txistille, auri txistille: euri txiztila

euri ugerra, auri ugerra: euri ugerra, euri tanta handiak baina bakanak

"Auri ugerra gatxa ekarten dauna da (Bi.)" - (Euri ugerra gaitza ekartzen duena da)

euritzea: euritza

garbiunedia: garbi unada

gotea: tangada

lupetzea: lupetza

posoa: putzua

potxingoa: potxingoa

pustille: puspulua

puxike: puspulua

"Bentanati adittute, ta puxikek, auri trasea, auri in ber dau (Bi.)" - (Leihotik adituta, eta puspuluak, euri traza, auri egin behar du)

saldi ganekoa, saldi gerrakoa: zaldi gerrakoa, euria ekartzen duten hedoiak

saldi karrerea: euria eta haizea batera direnean, euriak kaminoetan egiten duen karrari esaten zaio

saparradea: zaparrada

sirimirie, sirie: ziri-miria

"Auri ugerra ixetan da siri miri antzera, da orduen auri ugerra bere esaten dako, se orrek, ugerra ekarten deu, landareari (G.)" - (Euri ugerra izaten da ziri-miri antzera, eta orduan euri ugerra ere esaten zaio, ze horrek, ugerra ekartzen du, landareari)

txipristadea: zipriztada

"Ondatu in ber du txipristadakas (Bi.)" - (Hondatu egin behar dugu zipriztadakaz)

txistille: txiztila

ur andie: ur handia, uriola

uriolea, uridxola: uriola

11.3. EKAITZA

bromasoa: trumoiaren zarata

denporala: denborala, ekaitza

"Itxosoti dator denporala (Bi.)" - (Itsasotik dator denborala)

"Katue segun norantza adi dauen estulke, denporala dator (Ll.)" - (Katua segun norantz adi dagoen eztulka, denborala dator)

"Badator denporala se ardiek alkarregas, a, bueltaka ta karraderaka ta, saldik karraderan badabiltzes ta goitti bera bajetan badire sendalle txarra (Z.)" - (Badator denborala ze ardiak elkarregaz, bueltaka eta karraderaka eta, zaldiak karraderan badabiltza eta goitik behera bajatzen badira seinale txarra)

iñestue, iñusturi: oineztua

"Amen bian or ausoan, barberue san bera, ta olau trugoi iñestuek ibilli, ta yi! poun! yausi txe kitxu! (M.)" - (Hamen behean hor auzoan, bizargina zen bera, eta holako trumoi oineztuak ibili, eta yi! poun! jausi eta kito)

"Bai, bai, klaro il deitxusena! bai, ardiek eta, bai, iñestuek (M.)" - (Bai, bai, jakina hil dituen! bai, ardiak eta, bai, oineztuak)

trugoya: trumoia

"Trugoyak dxoeskeron, peligru egongo san (At.)" - (Trumoiak joez gero, arrisku egongo zen)

"Trugoyak kalte itte otzola esaunia oten da (Ll)" - (Trumoiak kalte egiten diola esakunea egoten da)

trugoi denporea: trumoi aroa, trumoi sasoia

"Trugoi denporan beti dekosu, beti garrastuten da esne (Bi.)" - (Trugoi sasoian beti daukazu, beti garrastuten da esnea)

trugonadea: trumonada, ekaitza

"Bero armiñe da trugonadea datorrenean (Z.)" - (Bero armina da trumonada datorrenean)

yusturi: jutzuria, tximista

11.4. ELURRA-LEHIA

abasusea: abazuza

arrie: harria, inetasi handia

edurre: elurra

edur aurie: elur euria, elur bustia

edur garoa: elur garoa

edur kandlea: elur kandela

"Edur kandlea da, onek, a, serak yausten dausela, goterak yausten dausela, geubian laye badator, alaseko kandelak lotxen dire (Z.)" - (Elur kandela da, hauek, zerak jausten dagozela, itesurak jausten dagozela, gauean leia badator, halaseko kandelak lotzen dira)

edur kopoa: elur metxa, elur maluta

edur lumetxea: elur metxa, elur maluta

edur metxia: elur metxa, elur maluta

edur txotorra: elur txotorra

edurtzea: elurtza

"Edurtzekas, a, akabeu igual serak eta yan eitte ittues, punték, punték, artea bera gogor dau baya yate tzea, apur bet yate

tzea, orri edo yate tzea apur bet (T.)" - (Elurtzakaz, amaitu beharbada zerak eta jan egiten dituzte, puntak, puntak, artea bera gogor dago baina jaten diote, apur bat jaten diote, orri edo jaten diote apur bat)

errusio: ihintza

freskurea: ihintza

"Altari tausenean batzutan, baya musturke itten deu txarriek, bero, esta? eta freskurea koyuteko (Z.)" - (Altarik dagozenez batzuetan, baina musturka egiten du txerriak, bero, ezta? eta ihintza hartzeko)

garoa: euriaren osteko garaua, freskura euri egin barik sortzen dena da; garoa, berriz, euri egin eta ostekoa

"Ta oten da, ba goxean garo itzela (Z.)" - (Eta egoten da, ba goizean garau itzela)

iñetasie, iñetasidxe: inetasia

"Iñetasie dau beste bat gogorrau oñikarren (Bi.)" - (Inetasia dago beste bat gogorragoa oraindikarren)

kandelea: lei kandela

kapadea: elurrak egiten duen geruza

kaskarea: kazkarabarra

kristela: kristala, ur potxingoetan izozten den leia

"Talletuti datosen, a, negarrak es baya kristela bai, gure portalen bere leku askotan egon da ta, baldetan ur lotu daun baldean, gaue dustin gogortute (Bi.)" - (Teilatutik datozen, negarrak ez baina kristala bai, gure atarian ere leku askotan egon da eta, baldeetan ur lotua dagoen baldean, gau osoan gogortuta)

kristelesko kandelak: elur kandela

leye, laye: leia

"Aspaldiko urtiokas es, ba emen Sanantontxu partean bueno! urte baten atan bere botauen, eta ordun on siren ta laye pere, ba, ogetak edo ein seittusen layek, eta ordun on siren edur kandelak (Z.)" - (Aspaldiko urteokaz ez, ba hemen San Antontxo aldean beno! urte baten hartan ere bota zuen, eta orduan egon ziren eta leiak ere, ba, hogeitak edo egin zituen leiak, eta orduan egon ziren elur kandelak)

"En jeneral lai furtea negun eitten deu igetargi betera (Z.)" - (Gehienetan lei

gogorra neguan egiten du iretargi betera)

lei baltza, lai baltza: lei beltza, ikusten ez den leia izaten da, baina ikusi ez arren lurra gogortu egiten du

"Otza mingotzau deko, barrure sartzen dan otza deko lei baltzak, e? ta osteria lei surie, asko bere suabeau da (Bi.)" - (Hotza mingotsago dauka, barrura sartzen den hotza dauka lei beltzak, e? eta osteria lei zuria, asko ere suabeagoa da)

"Gas giau lurreri tte bedarrari lai baltzak eitte otzo, edurrek ainbeste esteu eitten, arin kentxean bada, ostian layek espadatos, ba esteu eitten edurrek (Z.)" - (Gaitz gehiago lurrari eta belarrari lei beltzak egiten dio, elurrak hainbeste ez du egiten, arin kentzen bada, ostean leiak ez badatoz, ba ez du egiten elurrak)

lei gogorra: lei gogorra, kristelak egitea

lei surie, lai surie: lei zuria

metxe: metxa, maluta

"Metxa andi iñeskeron ordun dator, ba kapadea (Bi.)" - (Metxa handia eginez gero orduan dator, ba kapada)

negarra: lei negarra, itasuretatik ura leitzen denean

txotorra: txingor txikia, elur maluta txikia

"Batzuten txotorra, e, eitxen san, garoa gogortu barik yausten danean, a sabal sabala, pla-pla (G.)" - (Batzuetan txotorra, egiten zen, garoa gogortu barik jausten danean, hura zabal-zabal, pla-pla)

txotor sikue: txotor sikua, elur maluta txiki eta sikua

11.5. HAIZEA

aixea, axea: haizea

"Edurren ganeko axe esaten deude dala txarra (Bi.)" - (Elurraren gaineko haizea esaten dute dela txarra)

"Orrexek ixen dire axerik txarrenak, emen esetu dusenak (Bi.)" - (Horiexek izan dira haizerik txarrenak, hemen ezagutu ditugunak)

"Emen, a, geubeko amabittatik gora axeak norantza emoten deuen, emen olan esaten suren (Z.)" - (Hemen, gaueko hamabietatik gora haizeak norantz ematen duen, hemen holan esaten zuten)

arritteko axea: arrietako haizea

axe epela: haize epela

axe igerra: haize igarra

axe larrie: haize larria, beroa

axe otza: haize hotza

"Axe otza datorrenen Butroiko atzok, ba kafe asukere barik yaten dabiltes, Butroitti etorten danen axe otza, Butroiko atzo sarrak asukera barik kafe artxen daus (Bi.)" - (Haize hotza datorrenean Butroiko atsoak, ba kafea azukrea barik jaten dabilta, Butroitik etortzen denean haize hotza, Butroiko atso zaharrak azukre barik kafea hartzen dabilta)

enbra axea: hego haizea

erriko axea: herriko haizea, hego haizea

"Erriko axeak, gorputzaldie be txarra emote otzu (Z.)" - (Herriko haizeak, gorputzaldia ere txarra ematen dizu)

euntzek illeko aixia: ekialdeko haizeari buruz esaten da hotza dela adierazteko

gallegu axea: mendebaldeko haizea

"Itxosokoa otza da, eta emekoa gallegu axea en jeneral bastante fuertea, eta erriko axea bere bai (Z.)" - (Itxosokoa hotza da, eta hemengoa mendebaleko haizea gehienetan nahikoa indartsua, eta hego haizea ere bai)

iperra: ipar-ekialdeko haizea

iperraxea: ekialdeko haizea

"Au iperraxea dauenean laye fijoia (Z.)" - (Ekialdeko haize hau dagoenean leia ziburra)

itxosoko aixea: itsaso haizea

"Orreri esate otzu, ortik Sollube aldetik datorrenari iperraxea, emetik datorrenari itxosoko axea, eta besteari erriko axea (Z.)" - (Horri esaten diogu, hortik Sollube aldetik datorrenari ekialdeko haizea, hemendik datorrenari itsasoko haizea, eta besteari hego haizea)

korrientea: korrontea

mendabala: mendebaldeko haizea

mendabal axea: mendebaldeko haizea

nortea: iparra

urriko axea, urrittako axea: urriko hego haizea

"Urrittako axeak inyabak siketako ta bakixu, eta labasuek eta itteko (E.)" - (Urriko haizeak indabak sikatzeko eta badakizu, eta labasuak eta egiteko)

yatako axe: jata haizea

"Yatako axe, or portalen aguanta be esiñ iñ otzagas, se da, otza (Bi.)" - (Jatako haizea, hor atarian egon ere ezin egin hotzagaz, ze da, hotza)

11.6. LAINOA-HEDOIA

belañoa: behelainoa

edoya: hedoaia, hodeia

edoi baltza: hedoi beltza, hedoi montorra

edoi montorra: hedoi montorrak, euria dakarten hedoi beltz handiak

"En jeneral edoi montor andie taus, ixetan da, trugonadia eiñ eta montor surie tausenean, orduen (Z.)" - (Gehienetan hedoi montor handiak dagoz, izaten da, trumonada egin eta montor zuriak dagozenezan, orduan)

"Ortik, a, Yata alderdittik edoi montor illune padatos, sendalle txarra, denporala fijoia (Z.)" - (Hortik, Jata alderditik hedoi montor ilunak badatoz, seinale txarra, denborala ziburra)

edoi surie: hedoi zuria

lanbrie, lanbroa: lanbria

"Ori lanbrie da, ba siri miri baño oñiarren fiñao, antzekoa tire, diferentzi gitxi dau, e, auri siritxik auri lanbrire (G.)" - (Lanbri hori da, ba ziri-miri baino oraindikarren finagoa, antzekoak dira, desberdintasun gutxi dago, euri ziritik euri lanbrira)

lañoa: lainoa

laño baltza: laino beltza

laño gorridxe: laino gorria

montorra: montorra, hodei beltzak, euria iragartzen dutenak

sarrasoya: sarrasoia

"Sarrasoya da geubeko freskurea (Z.)" - (Sarrasoia da gaueko ihintza)

"Bai baya freskureagas nastean dator ori, bai sarrasoya dau baya, etorten da freskuria, goiko freskuria (Z.)" - (Bai baina ihintzagaz nahastean dator hori, bai sarrasoia dago baina, etortzen da ihintza, goiko ihintza)

11.7. TEMPERATURA

arbiñe, armiñe: arbina

beroa: beroa

bero arbiñe, bero armiñe: bero arbina
"Bero armiñe dau te geur yoko deu trugoyak (Z.)" - (Bero arbina dago eta gaur joko du trumoiak)
bero larrie: bero larria, likina
freskoa: freskoa, hoztxoa
oskirrie: hozkirria
otza: hotza
sargorie: sargoria
txangotadea: txangotada

12. ZERUA-ASTROAK

Atal honetan zerua eta astroei buruzko berbak batzen ditugu.

argittasune: argitasuna
eguskie: eguzkia
"Orrek eguskitten egon dire (Z.)" - (Horiek eguzkitan egon dira)
eguski begire: eguzkira begira
eguskidxen adi: eguzkira begira
eguski surie: eguzki zuria
eguski txangota: eguzki txangoa, eguzki txangota, sano berotzen duen eguzkialdia
eguski txangotadea: eguzki txangotada
gerispea: gerizpea
gerixea: gerizea, itzala
ilbera: ilbehera
ilgora: ilgora
illuntasune: iluntasuna
iretargie, igetargie, igitargie: iretargia
"Asko otz andiao, eta laye, eta inyarra seusena badeko, se, igetargie, ba inyartzue, ya betetutera badoa igetargie, en jeneral edoya be garbittu eitten deu, eta goxera orduko laye terriblea (Z.)" - (Askoz hotz handiagoa, eta leia, eta indarra zer edo zerena badauka, ze, iretargia, ba indartsua, betetzera badoa iretargia, gehienetan hedoia ere garbitu egiten du, eta goizera orduko leia itzela)
iretargi barridxe: iretargi berria, ilargi berria
iretargi betia: iretargi betea, ilargi betea
iretargi surie: iretargi zuria
ixerra: izarra
karroa: karro handia, hartz handia

karro txikerra: karro txikerra, hartz txikerra
kontrasola: kontrasola
norteko ixerra: ipar izarra
seru argie: zeru argia
serue: zerua
seru garbie: zeru garbia
seru gorrie: zeru gorria, oskorria
seru illune: zeru iluna
ur bera: uren behera
ur gora: uren gora
ure koran, uren goran, ure goran: uren goran
ure peran, uren beran, ure beran: uren beheran
"Uren beran beti, uren goran, intxurre, eta matza, et´orrek podetan baosus, tangadaka tangadaka tangadaka daus (Z.)" - (Uren beheran beti, uren goran, intxaurra, eta mahatsa, eta horiek inausten badituzu, tangadaka-tangadaka-tangadaka dagoz)

13. INGURUNEA

Inguruneari buruzko berbak aurkezten dira atal honetan. Azpi-atalak herria, eraikinak, mendia, lurra-soroa, bideak, errekak eta itsasoa izango dira.

13.1. HERRIA

albo errie: albo-herria
alkatea: alkatea
"Fruisko alkateagana yoaten giñen (E.)" - (Fruizko alkateagana joaten ginen)
"Berak agintta euen alkatea paño giau (T.)" - (Berak agintzen zuen alkateak baino gehiago)
barrioa, barridxo: auzoa
"Amen berton barriogan, aor atzean dekes, aiste bi dire solterak, aor paraje, ak, bedar aspíe pere, sagarran bedar aspíe, aspíe, bedar ba pere bari tekos, eta bueno! erejiek eitte ittus, botíkek eintte (Z.)" - (Hamen berton auzoan, haor atzean dauzkate, ahizta bi dira ezkonbakoak, haor paraje, hark, belar azpiak ere, sagarren belar azpia, azpia, belar bat ere barik dauzka, eta beno! herejiak egiten ditu, botíkek eginda)

"Es, barriogan esan egon eser beres, se au barri Mungi da ixetes danerako (A.)" - (Ez, auzoan ez zen egon ezer ere ez, ze auzo hau Mungia da izatez denerako)

"Atela da, bertan dau emen barrioa (Ll)" - (Atela da, bertan dago hemen auzotegia)

"Birle aor, a, serean, asten da, Taskako tabernan, emeti, a, bosteun metroan, errekatxu e toa, an asten da, ta Trobika bastante lusea da, e? Trobikak Mungi bere koiten deu satie, e? ori kalea Trobika da, ayuntaminttuti gorako kalea Trobika da (T.)" - (Bilela haor, zerean, hasten da, Taskako tabernan, hemendik, bostehun metroan, errekatxo bat doa, han hasten da, eta Trobika nahikoa luzea da, e? Trobikak Mungia ere hartzen du zatia, e? kale hori Trobika da, udaletxetik gorako kalea Trobika da)

"Sera be Trobika ixengo da, Larreta bere, an, a, Artxingo, Larreta estaitt bakixu seiñ ixengo dan (T.)" - (Zera ere Trobika izango da, Larreta ere, han, Artxingo, Larreta ez dakit dakizun zein izango den)

"Mungiñ andiko alderditi, institutuko, polideportiboan, a parean andiko alderditi bere Trobika da, Artxingoko mendien aspirarte pentzetot, ta non akabetan dan estaitt, barri Atela non asten dan (T.)" - (Mungian handiko alderdian, institutoko, polikiroldegiaren, parean handiko alderditik ere Trobika da, Artxingoko mendiaren azpiraino pentsatzen dut, eta non amaitzen den ez dakit, Atela auzoa non hasten den)

errie: herria

"Amen errien estau eskolarik (K.)" - (Hamen herrian ez dago eskolarik)

"Bai lantzean batek euki sitxuen orrek, erri beten igual, e, beste erri bikoak ara dxoan, eitxen gintzesan, emetik Meñakara kasu beterako gu dxoaten gintzesan, etzian noperak euki esitxeaitxik (M.)" - (Bai lantzean batek eduki zituen horiek, herri baten beharbada, egiten ginen, hementik Meñakara kasu baterako gu joaten

ginen, etxean norberak ez edukitzeagatik)

"Errientzako edo, erriko, soloatarako edo ibilkerarako eintte dauena (Ll.)" - (Herrientzat edo, herriko, soroetarako edo ibilkerarako eginda dagoena)

fabrikea: fabrika, beharlekua, lantokia

galipota: galipota, alkitrana

kalea: kalea

"Mungiko beresie en jeneral emen beko kaleko alderdittik, Bilborako kalia? or, oiñ otela dauen lekuen, or on san, ba jitanerie gustie, orko billurre ixetan san geyen partia (Z.)" - (Mungiako berezia gehienetan hemen beheko kaleko alderditik, Bilborako kalea? hor, orain hotela dagoen lekuan, hor egon zen, ba ijiteria guztia, horko bildurra izaten zen gehienetan)

"Ori dana ixen san txabola ta ganadue, or ganaduek oten siren bertan, amen bertan, amen errementarie, eta or urrengo kalean (K.)" - (Hori dena izan zen txabola eta ganadua, hor ganaduak egoten ziren bertan, hamen bertan, hamen errementaria, eta hor hurrengo kalean)

kantarillea: alkantarila

kantoya: kantoia

kaskue: herrigunea

konsejala: zinegotzia

plasea: plaza

urie: hiria

"Gu kasureko Mungiko urikoak gara, ni ni, ni emen yayota nau, ta one pa Mungiko urikoak estire ixengo igual, aldeakoak (K.)" - (Gu kasurako Mungiako hirikoak gara, ni ni, ni hemen jaiota nago, eta hauek ere Mungiako hirikoak ez dira izango beharbada, baserrietakoak)

uri ausoa, uri eusoa: hiri auzoa

"Orre tire Mungiko uri eusoak (K.)" - (Horiek dira Mungiako hiri auzoak)

"Uri ausoa da, igual an, a, Morga ondoan eukitteittus igual etze batzuk, orre tie uri ausoak esateutzenak, kasu beterako, Mungiek, e, ba, nuklearra ein san lekuen terrenoa euki deu (E.)" - (Hiri auzoa da, beharbada han, Morga ondoan eduki ditu beharbada etxe batzuk, horiek dira hiri auzoak esaten dietenak, kasu baterako, Mungiak, ba nuklearra egin zen lekuan terrenoa eduki du)

13.2. ERAIKINAK

abadetzea: abadetxea

"Oin barri intte dau abadetzea, antxe, orrek pisue tausen lekuen lenau abadetzea egon san (Ll.)" - (Orain berri eginda dago abadetxea, hantxe, pisu horiek dagozen lekuan lehenago abadetxea egon zen)

aldea: baserria

"Berton on da aldea (K.)" - (Berton egon da baserria)

"Bueno bai, etorten siren kiputze pere, bataren batzuk, bat edo bi etorten siren, ta gero, txarri asko aste san emen, a, aldeatan asten san emen Katiken ta etzeatan, txarrikumeak egoten siren bai (K.)" - (Beno bai, etortzen ziren giputzak ere, baten batzuk, bat edo bi etortzen ziren, eta gero, txerri asko hazten zen hemen, baserrietan hazten zen hemen Gatikan eta etxeetan, txerrikumeak egoten ziren bai)

aldetzea, aldea etzea, aldietzea: baserria

"Len labak ote sien aldetze gustietan (La.)" - (Lehen labeak egoten ziren baserri guztietan)

aparkamintxue: aparkalekua

ardi bordea: ardi borda

ardi txabolea: ardi txabola

arkue: arkua

"An atzean selan dan arku bet olan, antxe, antxe saltxe san arrañe, bermiotarrak etorten siren (K.)" - (Han etxean zelan den arku bat holan, hantxe, hantxe saltzen zen arraina, bermeotarrak etortzen ziren)

arkupea: arkupea

"An dau a, plasara sartukeran, eskoatati, ta beste alderdin daus arkupek an, ara, urte baten baño giautan, edurren aspitti, edurre iñ, an lau metron igual edurre, aspitti in tunela ta alde baterik bestera pasau (Z.)" - (Han dago hura, plazara sartukeran, eskoatatik, eta beste alderdian dagoz arkupeak han, hara, urte baten baino gehiagotan, elurraren azpitik, elurra egin, han lau metroan beharbada elurra, azpitik egin tunela eta alde batetik bestera pasatu)

ayuntaminttue,

ayuntamintxue,

adxuntamintxue: 1. udaletxea. 2. udala

"Elixean kontran on san ayuntamintxue (K.)" - (Elizaren kontra egon zen udaletxea)

barberie: bizartegia

"Usabak ebate sauen ulea, or elixa ondoan, egon san barberi bet (K.)" - (Uzabak ebakitzen zuen ilea, hor eliza ondoan, egon zen bizartegi bat)

barra: taberna

baserrie: baserria

"Amen berton kale kalean on dire baserriek, kale kalean, badiñotzut ametik, aori tabernea or bean dauena, ametik semet ongo da ba? berrogetamar metro, ori baserrie ixen da (K.)" - (Hamen berton kale-kalean egon dira baserriak, kale-kalean, badinotsut hamendik, haori taberna hor behean dagoena, hamendik zenbat egongo da ba? berrogeita hamar metro, hori baserria izan da)

"Ametik eun metrora baserriek on dire, ortik asitxe ta baserriek (K.)" - (Hamendik ehun metrora baserriak egon dira, hortik hasita eta baserriak)

bordea, borde: borda

botikea: farmazia

dendea: denda

"Ori dendara yoango baleittike berak erosi al ixengo leuke (Z.)" - (Hori dendara joango balitz berak erosi ahal izango luke)

"Ya dendatara etorten asitte daus (Z.)" - (Honezkero dendetara etortzen hasita dagoz)

etzaldea: baserria

"Or yoakeran, e, Plentzirantza or ondiño da etzaldea (T.)" - (Hori joakeran, Plentziarantz hor oraindino da baserria)

farmasie: farmazia, botika

"Ni enas akordetan, dendatara, asko erosten yoate sanik eta farmasittara beres (A.)" - (Ni ez naiz gomutatzen dendetara, asko erosten joaten zenik eta botiketara ere ez)

ferreterie: burdindenda

fonda: ostatua

frontoya: frontoia

"Frontoya egoten basan sabalik, ostantzean olau yokoakas pasta san amen denpora, ori txe kakauesak yan, besterik, gure gaste denporan esan oten, gaste gastetan (K.)" - (Frontoia egoten bazen zabalik, osterantzean holako jokoakaz pasatzen zen

hamen denbora, hori eta kakahueteak jan, besterik, gure gazte denboran ez zen egoten, gazte-gaztetan)

fruterie: fruitu denda

karneserie, karnaserie: harategia

"Gierrak? ba gierria kasuereko, ba bakasu suk karneserittik eta okelea esate otzea, gierrea, gierrea klase taus, se, ba guk, oiñ esaten du guk faldia, beste batzuk esate otzea tripe aspikoa, eta gierra tekosus, ba, bata isterrekoa, ohea, beste batzuk, eta gierria, txarrien gierreari esaten dako (Z.)" - (Giharrak? ba giharra kasurako, ba badakarzu zuk harategitik eta okela esaten diote, giharra, giharra motak dagoz, ze, ba guk, orain esaten dugu guk falda, beste batzuek esaten diote tripa azpikoa, eta giharrak dauzkazu, ba, bata izterrekoa, hobia, beste batzuk, eta giharra, txerriaren giharrari esaten zaio)

kartzela: gartzela

kastilloa, kastillue: gaztelua

labaderoa: garbitokia, ikuztokia

"Ur posoa pakarrik es, aor labadero txikerra pere oidialao kristela intte (Z.)" - (Ur putzuak bakarrik ez, haor garbitoki txikerrak ere ohidalako kristala eginda)

mataderoa: hiltegia

palasidxo: jauregia

panaderie: okindegia

pastelerie: pasteleria

pelukerie: ile apaindegia, bizartegia

"Len, enbra batek, esauen eroten, e, ume bat, mutil bet, pelukerire esegaitxi peres, esegaitxi peres, eta oiñ oster, badoas urteak ya, umeak eta ba, sera tatosena, baya len gure gaste denporan, guk, e, umeakas, kokoteraño egoten giñen, ulea ebaten umeari, e? (K.)" - (Lehen, andre batek, ez zuen eroaten, ume bat, mutil bat, bizartegira ezergatik ere ez, ezergatik ere ez, eta orain oster, badoaz urteak ja, umeak eta ba, zerak datozena, baina lehen gure gazte denboran, guk, ilea ebakitzen umeei, e?)

"Pelukerire estot pentzaten yoaten sienik (La.)" - (Ile-apaindegira ez dut pentsatzen joaten zirenik)

peskaderie: arraindegia

pisue, pixue: solairua

sapaterie: zapategia

"Batek, e, ni tiñotenak, batek sapaterie, baya ainbet urte da ordurik ona, e? kendute deko sapaterie (Z.)" - (Batek, nik dinodanak, batek zapategia, baina hainbat urte da ordurik hona, e? kenduta dauka zapategia)

tabernea: taberna

"Ferie bai, oingo moduen beti egon da, ordun oten siren ba, taberna gitxi, sano gitxi, taberna bi iru, olan egon siren Mungien, total gitxi (Z.)" - (Azoka bai, oraingo moduan beti egon da, orduan egoten ziren ba, taberna gutxi, sano gutxi, taberna bi-hiru, holan egon ziren Mungian, guztiz gutxi)

tallerra: tailerra

txabolea: txabola

"Orrek beti, len egote siren beti, negu neguen, a, txabolatara edo bajetan seittuesan serean, baya normalmenten beti kanpoan (Z.)" - (Horiek beti, lehen egoten ziren beti, negu-neguan, txaboletara edo bajatzen zituzten zerean, baina normalean beti kanpoan)

txornea: txosna, ardiak gordetzeko txabola

yayotetzea, yayetetzea, dxadxotetzia: jaiotetxea

13.3. MENDIA

abaroa: abaroa, baso zarratua, lohia

aldasbera: aldats behera

aldasgora : aldats gora

aldas pikea: aldats pika

aldatza: aldatsa

"Iturbaltza bestea da, an, a, aldatzean an eskerretara, an aldatzean goyen eskerretara (E.)" - (Iturbaltza bestea da, han, aldatsean han ezkerretara, han aldatzean goian ezkerretara)

aldrakia, aldrapea: aldraka

altakurre: altakurra, aldraka

"Altakurre esango tzut, ba mendi alture bat edo, ikusten basu salle baten, e, an goiko altakurrian dau (Ll.)" - (Altakurra esango dizut, ba mendi altuera bat edo, ikusten baduzu sail baten, han goiko altakurrean dago)

arbolartea: arbola-artea

arrie: harria

arriartia: harri artea

atxa: haitza

"Ure esan egoten, gu atxara yoaten gintzen mendi betera (La.)" - (Ura ez zen egoten, gu haitzetara joaten ginen mendi batera)

basoa: basoa, mendia

baso eskiñea: baso bazterra

bedar lekue: belar lekua, larrea

begea: ibarra

"Began esiñ ibilli ixete san, a, oin betetu deittues, eskonbroakas ta serakas, bege, ostantzean or, nik neure denporan estot esetu gurdiri pere pasetan, leku askotatik, ta oiñ, ederto dau bege imintte (E.)" - (Ibarrean ezin ibili izaten zen, orain bete dituzte, hondakinakaz eta zerakaz, ibarra, osterantzean hor, nik neure sasoiaren ez dut ezagutu gurdirik ere pasatzen, leku askotatik, eta orain, ederto dago ibarra ipinita)

begadea: ibarra

beresie: berezia

erri mendie: herri mendia

ertza: ertza

espaldea: malda

eurbera, aurberea: aurbehera

"Eurberea akabakeran asten da (E.)" - (Aurbehera amaitukeran hasten da)

frute lekue: fruita-lekua

ganea: gaina, bizkarra

kantaria: harrobia

"Gure kantaran dekos erlak eta erlakana etorten da ori, bearrian (M.)" - (Gure harrobian dauzka erleak eta erleengana etortzen da hori, beharrean)

karabie: karabia

"Karabie edo esaten daken lekuen egon san or baya, orkoa asko esan ixen, Busturiñ edo ortik ekarten seuden geyau (Ll.)" - (Karabia edo esaten zaien lekuan egon zen hor baina, horkoa asko ez zen izan, Busturian edo hortik ekartzen zuten gehiago)

"Karabi bai egon da emen (Z.)" - (Karabia bai egon da hemen)

karatxa: kare-haitza

kontrasola: kontrasola, ainubea

lekue: lekua

"Leku askotara yoan dire (Z.)" - (Leku askotara joan dira)

"Bai emen edo or edo an, emen iru edo lau lekuten ferie esetu ot nik (K.)" - (Bai hemen edo hor edo han, hemen hiru edo lau lekutan azoka ezagutu dut nik)

leorra: lehorra

lexea: leiza

mendie: mendia

"Mendi askotako lurre esta ona (Z.)" - (Mendi askotako lurra ez da ona)

"Yataben ainbet egon san, se Yataben mendie euki euden, Yata, ta ara botate sittusen Yataben (T.)" - (Jataben hainbat egon zen, ze Jataben mendia eduki zuten, Jata, eta hara botatzen zituzten Jataben)

mendi puntea: mendi tontorra

mundue: mundua

"Bai gure denpora eurretik geyau bere, orduen bai batu eusoak alkarregana ta, gero gure sasoireskeron ya mundue, beste klase batera pareute egon da, artean (Ll.)" - (Bai gure denbora aurretik gehiago ere, orduan bai batu auzoak elkarregana eta, gero gure sasoirazkero ja mundua, beste era batera paratuta egon da, artean)

parajea: ingurunea

sakosta: sakosta, troka

"Oiñ, siketan, gero or estau bixirik, e? baya ostantzean asko, eta Katiken bere, ba, goxetien emetiko partetik, emen baño lenau jeneroa koyuten da, ori be badau diferentzie, sakostan dauelako (Z.)" - (Orain, sikatzen, gero hor ez dago bizirik, e? baina osterantzean asko, eta Gatican ere, ba, goizetien hemendiko aldetik, hemen baino lehenago jeneroa hartzen da, hori ere badago desberdintasuna, sakostan dagoelako)

selaye: zelaia

sitxuskie: zingira

trokea: troka

"Troketan korritteuen manentialak (La.)" - (Troketan korritzen zuen manantialak)

"Txarrisiniñe esaten gentzen guk areri, antxe, Plentzitti Urdulisera allege baño lelau, antxe, beko trokan (T.)" - (Txerrizaina esaten genion guk hari, hantxe, Plentziatik Urdulizera ailegatu baino lehenago, hantxe, beheko trokan)

13.4. LURRA-SOROA

arearrie: hare-harria

are lurre: hare-lurra

argana: hargaina

artoartea: arto-artea, arto arloa

arto soloa: arto soroa

barrena: barrena, behikaldeko zedarria soroetan

barrobustiñe: basa-buztina

barrutie: barrutia

"Emen barruti ona badau, an ardiek yaten on arren bestera adi ongo san pastorea (Z.)" - (Hemen barruti ona badago, han ardiak jaten egon arren bestera adi egongo zen artzaina)

"Gnaduntzako barruti ona dau (Z.)" - (Gnaduentzat barruti ona dago)

"Barrutien esetu dodas sarri, ardie pere bai iltten siren, pastorea pere lenau emen, e, asko ibiltten san pastorea, esta? Gipuskoatik etorritte, eta aittu itteuen, e! nik estot gure au barrutiau, gitxi asko egon daus bedarrak, ta ensegida pustuten da ganadue, e? (Ll)" - (Barrutian ezagutu ditut sarri, ardiak ere bai hiltzen ziren, artzainak ere lehenago hemen, asko ibiltzen zen artzaina, ezta? Gipuzkoatik etorrita, eta aditu egiten zuen, e! nik ez dut gura barruti hau, gutxi-asko egon dagoz belarrak, eta behingoan puzten da ganadua, e?)

basabustiñe: basa buztina

basakortea: basakorta

"Basakortea da kasureko, nik neure eretxien ta entzutia dekotenetik txarto ongo nas igual baya, berreun gixelaneko salle bat badekosu, eta fulanon basakortea berreun gixelan dekos (Ll.)" - (Basakorta da kasurako, nik neure eritzian eta entzutea daukadanez txarto egongo naiz beharbada baina, berrehun gixelaneko sail bat badaukazu, eta urliaren basakortak berrehun gixelan dauzka)

"Berton, e, lekue entzutia euki ot, kasureko, fulanok basakorta bat, e, aunenbeste gixelanekoa deko, aonen lekuten, berton, berton, berton estot esetu nik olaurik, basakortea (Ll.)" - (Berton, lekua entzutea eduki dut, kasurako, urliak basakorta bat, haonenbeste

gizalanekoa dauka, haonen lekutan, berton, berton, berton ez dut ezagutu nik holakorik, basakorta)

baso lurre: baso lurra

bedar lekue: belar lekua, belardia

bedar lurre: belar lurra

bustin gorrie: buztin gorria

bustin lurre: buztin lurra

"Eta au unekadea da, bustin lurre, lur fuertea, eta inyertzuena (Z.)" - (Eta unekada hau da, buztin lurra, lur indartsua, eta indartsuena)

bustiñe: buztina

"A ixen san emen, a, onek terrenook toskoauk ixen dire, bustiñe dauleas, terreno toskoauk ixen dire ta emen ba, orrek, a, se beste leku betzutan, Atxurin, ta Katiken ta onetan, lurre, eitten da, mokill andi itxitten bada bere, ba iri, negun edo denporeagas, iri, ta emen mokill andi itxitten bada, andiaua ein baño esta eitten, emekoa, emekoa estau yaten, a, ese pere, denporalak es ese peres, emen a bustiñe dau (Z.)" - (Hura izan zen hemen, terreno hauek latzagoak izan dira, buztina dagoenez, terreno latzagoak izan dira eta hemen ba, horiek, ze beste leku batzuetan, Atxurin, eta Gatikan eta hauetan, lurra, egiten da, mokil handia uzten bada, handiago egin baino ez da egiten, hemengoa, hemengoa ez du jaten, ezerk ere, denboralak ez ezerk ere ez, hemen buztin hura dago)

bustin surie: buztin zuria

"Bai bustin suridxe bai, esetu in yot, baya biarrik estot eiñ, lenau usetan seuden ori gu gasteak ixen gintzesenean, portaleatan lurre egote san, suloak eitxen sien igual, ta ori bustin suridxe ekarten seuden topeta ta amasa intxe tximiñien suloan ta, aurretarako esetu ot ori bustin suridxe, portaleko suloak, batzidxe eitxeko (L.)" - (Bai buztin zuria bai, ezagutu egin dut, baina beharrik ez dut egin, lehenago usatzen zuten hori gu gazteak izan ginenean, atarietan lurra egoten zen, zuloak egiten ziren beharbada, eta hori buztin zuria ekartzen zuten topatuta eta amasa eginda tximiniaren zuloan eta, haorretarako ezagutu dut hori buztin zuria, atariko zuloak, batziak egiteko)

ertza: ertza

gari lurre: gari lurra

"Bueno emon ser itten deun geyena, se gari lurrek estire onek, onek bedar lurre tire, bedar basto lurrek, onek gari lurrek estire, kasureko, b'Atxurin, arrie paraje paraje daun lekun te toske dau, ba Atxurin, or salle baten, asko giau emoteun, Katiken, asko giau emen baño, emen asi itten san asko baya, garoa, esan eitten bear dan modun, garoa gero amen esan eitten, utzik lotxen san, utzao lotxen san, ta, en jeneral, en jeneral, marsela esaten yakona, en jeneral marsela ba useau sen, geyen useu sana marsela ixen san (Z.)" - (Benó eman zer egiten duen gehiena, ze gari lurrak ez dira hauek, hauek belar lurrak dira, belar latz lurrak, hauek gari lurrak ez dira, kasurako, ba Atxurin, harria paraje-paraje dagoen lekuan eta toska dago, ba Atxurin, hor sail baten, asko gehiago ematen zuen, Gatikan, asko gehiago hemen baino, hemen hazi egiten zen asko baina, garoa, ez zen egiten behar den moduan, garoa gero hamen ez zen egiten, hutsik lotzen zen, hutsago lotzen zen, eta, gehienetan, gehienetan, marzela esaten zitzaiona, gehienetan marzela ba usatuago zen, gehien usatu zena marzela izan zen)

gari soloa: gari soroa

goyena, godxena: goiena, soro goiena, soroaren goiko aldea

karkabea: karkaba

"Aor autopista dauen lekuen, soloa, amomak, ta amomak euken kriedue, onen panaderuen anayea, eta, ibil gintzen karkaba ataten, se orduen soloak ondo eukitte siren, karkaba ataten ibil gintzen (T.)" - (Haor autobidea dagoen lekuan, soroa, amomak, eta amomak zeukan morroia, okina honen anaia, eta, ibili ginen karkaba ateratzen, ze orduan soroak ondo edukitzen ziren, karkaba ateratzen ibili ginen)

kayuela, kadxuela: kaiuela

kayuela lurre, kadxuela lurre: kaiuela lurra

lanberatue: lanberatua

"Lanberatue labretan san lurreri (Ll.)" - (Lanberatua lantzen zen lurrari)

landamiñe: landa mina

"Landamiñe ya bedarlekue edo ganadue ibiltteko lekue, barrutien erabiltteko lekue (Ll.)" - (Landa mina ja belar lekua edo ganadua ibiltzeko lekua, barrutian erabiltzeko lekua)

landia: landa

lantzarra: lantzarra

"Lantzarra labrabakoa da, lantzar dau, lantzar itxi ber dot (Z.)" - (Lantzarra landubakoa da, lantzar dago, lantzar utzi behar dut)

lur baltza: lur beltza

"Lur baltzak Larroi aldekoak, eta lurrek, emetik gorantza, emetik gorantza daus ota lurrek (Z.)" - (Lur beltzak Larrauri aldekoak, eta lurrak, hemendik gorantz, hemendik gorantz dagoz ote lurrak)

lur barrie: lur berria

"Lur barrie da, lusero egon dan, e, lurre mogidu barik, lur barrie, ori ixeta san patate eraitteko ona (Z.)" - (Lur berria da, luzero egon den, lurra mugitu barik, lur berria, hori izaten zen patata ereiteko ona)

"Lur barrie da ostean basoa ixen eta, labreukoa (Ll.)" - (Lur berria da ostean basoa izan eta, landukoa)

lur gorrie: lur gorria

lur lodie: lur lodia

"Larroi aldean, nik, e, Emerando, Larroi, or arto inyabak eta koiteko, lurrek lodie taus, piperra pere bai, piperra pere ortik onak (Z.)" - (Larrauri aldean, nik, Emerando, Larrauri, hor arto-indabak eta hartzeko, lurrak lodiak dagoz, piperrak ere bai, piperrak ere hortik onak)

lur mea: lur mehea, lugama

lurmena: lurmena

"Lurmena bere estau busti (Bi.)" - (Lurmena ere ez du busti)

lurre: lurra

"Lur batzu taus, karea bear daudenak eta beste batzuk bear daudenak satza (G.)" - (Lur batzuk dagoz, karea behar dutenak eta beste batzuk behar dutenak satsa)

"Lur gitxi dekon lurre ixengo da (Z.)" - (Lur gutxi daukan lurra izango da)

lur salle: lur saila

munarrie: munarria

"Baya nik estaitx non dauen munarrie, baya, Bakiok aditxuten ixen tzo Sumintzeri, e? (M.)" - (Baina nik ez dakit non dagoen)

munarria, baina, Bakiok aditzen izan dio Zumintzari, e?)

"Seure separasiñoa konserbetako, se munarriek lenau, e, oingo antzean, e, bota eitten saittuen askok, ta a palatue botaten gas dau (Ll.)" - (Zure banaketa gordetzeko, ze munarriak lehenago, oraingo antzean, bota egiten zituzten askok, eta palatu hura botatzen gaitz dago)

munea: muna

"Guk euki dus matzak amen Sabalondon, baya munetan bakarrik, soloan, a, munetan goitti bera, ta txakoliñe eitten gendun (Z.)" - (Guk eduki ditugu mahatsak hamen Zabalondon, baina munetan bakarrik, sorotan, munetan goitik behera, eta txakolina egiten genuen)

okatza: okatza, txantela; soro mutur txikerrari esaten zaio

"Okatza, au ametik, e, olan, au puntea, oneri esaten dako okatza, au kuadruen ixetako lekuen, olan au puntea okatza (Z.)" - (Okatza, hau hemendik, holan, punta hau, honi esaten zaio okatza, hau kuadruan izateko lekuan, holan punta hau okatza)

"Okastxu beten dekot (Z.)" - (Okastxo baten daukat)

ortue: ortua

"An ortun bear eraitte oskun danori (La.)" - (Han ortuan behar eragiten zigun denoi)

"Mamukidxo ba da, ba alan biribill antzekoa tekos, onen ingerukoak, gurian ortuen egoten dires (M.)" - (Mamukioa ba da, ba halan biribil antzekoak dauzka, honen ingurukoak, gurean ortuan egoten dira)

ota lurre: ote lurra

"Ba batzu tire ota lurrek, beste batzu tire are lurrek, eta ba ortxe dau, diferentzie andie da lurrerik lurrera (Z.)" - (Ba batzuk dira ote lurrak, beste batzuk dira hare-lurrak, eta ba hortxe dago, desberdintasun handia da lurretik lurrera)

palatue: palatua

"Palatue da, lenau, sierrerik esan eitten ain barik alanbrakas ta, modu andiri peres, ta lurren separasiñorako, seure

munarritik, emen badaus munarriek, asi emen, ta ataraten sendun seure alderdire karkabea eta altzeute imiñi, alturea, ta andik lotxean san limitasiñoa seurea, terrenoa nondik den (Ll.)" - (Palatua da, lehenago, itxiturarik ez zen egiten haren barik alanbreakaz eta, modu handirik ere ez, eta lurraren banaketarako, zeure munarritik, hemen badagoz munarriak, hasi hemen, eta ateratzen zenuen zeure alderdira karkaba eta altxatuta ipini, altuera, eta handik lotzen zen muga zeurea, terrenoa nondik den)

salle: saila

"Sallek andiek bear deittues (Z.)" - (Sailak handiak behar dituzte)

"Bai eskus bere, orrek etorri arten, rodillo ta etorri arten eskus, a, pue! salle artute, salle artute artoa eraitteko, ori artorako serarako es, garireko es, garireko es baya artorako, sallek artute, dana apurtu (Z.)" - (Bai eskuz ere, horiek etorri arte, txilindro eta etorri arte eskuz, pue! saila hartuta, saila hartuta artoa eraitteko, hori artorako zerarako ez, garirako ez, garirako ez baina artorako, sailak hartuta, dena apurtu)

sanjea: lubana, lubakia

soloa: soroa

"Ori asi txikerratan eitten san, ori asi txikerratan eitten da, bedarra edo ainbako jeneroak, ba asi txikerra nondi eraitten dan ikusi ondo itteko, da utz eitten bada, ba, esta ernetan, se kasuroko, soloa oidalaseko solo bada noberak esin yeu domiñau sallea, ta sallen, klaro sallen, e, botaten dire paluek, ba ori asi txikerra eraitten danean, ta botaten dosu eta palue koiten dosu te palue, noberak domiñaten deuna, noberak domiñaten deun, a, salle artxen da ta, atariko ta, an paluk eiñ, kañaberatxuek edo ba, edoseiñ (Z.)" - (Hori hazi txikerretan egiten zen, hori hazi txikerretan egiten da, belarra edo hainbako jeneroak, ba hazi txikerra nondik ereiten den ikusi ondo egiteko, eta huts egiten bada, ba, ez da ernetzen, ze kasurako, soroa ohidalaseko soroa bada norberak, ezin deu menperatu saila, eta sailean, jakina sailean, botatzen dira makilak, ba hazi txiker hori ereiten denean, eta botatzen duzu eta makila hartzen duzu eta makila, norberak

menperatzen duena, norberak menperatzen duen, saila hartzen da eta, haietarikoa eta, han makilak egin, kanaberatxoak edo ba, edozein)

solobarrena: soro barrena

solo basterra: soro bazterra

solo ertza: soro ertza

solo eskiñea: soro bazterra

solo goyena, solo godxena: soro goiena

solo munea: soro muna

"Estot orreri iños entzun baya txinyorrari bai, ukusi bere in yot baten baño gedxautan, se, solo munetxuetan ta olau lekuetan eitxen deu txinyorrek abidxia ta kukuek, e, aren arrotzia ta, umia, asitxe dekolan txinyorrek (L.)" - (Ez dut horri (amilotxari) inoiz entzun baina txindorrari bai, ikusi ere egin dut baten baino gehiagotan, ze, soro munetxoetan eta holako lekuetan egiten du txindorrek habia eta kukuak, haren arrautza eta, umea, hazita daukalakoan txindorrek)

taketa: taketa

terrenoa: lur saila

"Bai terrenoa pai, mendiek edo, terrenoa bai, or Atxurin bere, ori Atxuriko ori erri ingerue, erriena san, emen, a, bere bai, beste sati bet, erriena san or estasiño ondoan bere bai, errien terrenoak (K.)" - (Bai lur sailak bai, mendiak edo, lur saila bai, hor Atxurin ere, hori Atxuriko hori herri ingurua, herriarena zen, hemen, ere bai, beste zati bat, herriarena zen hor geltoki ondoan ere bai, herriaren lur sailak)

toska lurre: toska lurra, lur mota bat

toskea: toska, lur mota bat

txatala: txantela, soro txikerra

unekadea: unekada

13.5. BIDEAK

atajue: laster bidea

basobidia: basabidea

bidea, bidia: bidea

"Emeti esan egoten biderik (Z.)" - (Hemendik ez zen egoten biderik)

"Sakatu eitxen dotzenian orre pa, olan paraten dire en jeneral bide istue edo dauen lekuen, ostantzian normalian

ibilli eskeronen ganadue esta olan paretan (M.)" - (Sakatu egiten dietenean horiek ba, holan paratzen dira gehienetan bide estua edo dagoen lekuan, osterantzean normalean ibiliz gero ganadua ez da holan paratzen)

"Bion artean ein gendun emeti bidia, orti bere euki gendun bidia, ta emeti oinbideti ibiltten gintzen (Ll.)" - (Bion artean egin genuen hemendik bidea, hortik ere eduki genuen bidea, eta hemendik oinbidetik ibiltzen ginen)

bide aldrakia: bide aldraka

bide ertza: bide ertza

bide eskiñia: bide ertza

bidegintzia: bidegintza

"Bidegintze itten? bai toto itten suren orduen bidegintze itteko (Z.)" - (Bidegintza egiten? bai toto egiten zuten orduan bidegintza egiteko)

bide samortxue: bide samurra

bidesiorra, bidesidxorra: bideziorra

burria: bihurtzea

erramadea, erramaria: erromada, egurren bidez egiten den barrera bideetan ganadua ez pasatzeko

"Erramaria da esakeria, esakeria ori de (Ll.)" - (Erromada da esakera, esakera hori da)

erramada lotue: erramada lotua, lata, ganadua ez pasatzeko egiten den atebako hesia.

"Bai eta emeti dekosu seuk pasetako beste ta barrien dekosu egurre ostabere ta ganadue esin sartu da esteko lekuri (Ll.)" - (Bai eta hemendik daukazu zeuk pasatzeko beste eta berriro daukazu egurra ostera ere eta ganadua ezin sartu da ez dauka lekuri)

errebuetia: bihurtzea

erri bidia: herri bidea

"Eittekotan, ametik betik, betiko erri bideti ekarrixu eta eskiñetik gora eroixu te solo osorik itxixu (Ll.)" - (Egitekotan, hamendik behetik, betiko herri bidetik ekar ezazu eta eskinatik gora eroan ezazu eta soro osorik utz ezazu)

"Gure etze barrien aurretixuen urtetan deu erri bidiak (Ll.)" - (Gure etxe berriaren aurretixuan irteten du herri bideak)

ertza: ertza

estratzia, estrasea, estratia: estratza

"Ganadu tropia lenau guk, e, ekarri bere eskendun eitxen, orrexeaitxik, estratza

istuetati ibilli biar ixetan gendulako, se ganadu tropia kabidu esta itxen, gurdidxen, e, gurtetza dxoten deu tripiagas, eta ondo kabitxan espada, a eskiñian altu, ta espada kabitxan bestiari sakate otzo (M.)" - (Ganadu dorpea lehenago guk, ekarri ere ez genuen egiten, horrexegatik, estratza estuetatik ibili behar izaten genuelako, ze ganadu dorpea sartu ez da egiten, gurdiaren, gurtetza jotzen du tripagaz, eta ondo sartzen ez bada, hura bazterrean altu, eta ez bada sartzen besteari sakatzen dio)

"Estratzeak saspi oiñ, ta erri bideak saspi oñetik, eta metro bat geyau, an pasorako, se aori da erri bidea, aori, paraje dauena, orti etorte siren Markaidetik eskolara (T.)" - (Estratzak zazpi oin, eta herri bideak zazpi oinetik, eta metro bat gehiago, han pasorako, ze haori da herri bidea, haori, paraje dagoena, hortik etortzen ziren Markaidatik eskolara)

gurpidea: gurpidea

"Gurpidea esaten dako, ya gurdien bidea (Ll.)" - (Gurpidea esaten zaio, ja gurdiaren bidea)

kamiñoa: kaminoa, errepidea

"Ia, amen berton, kamiñon beko alderdiko, lurrean koiten dan inyabea, eta goiko alderdin koiten dana, diferentzi itzela (Z.)" - (Ea, hamen berton, kaminoaren beheko alderdiko, lurrean hartzen den indaba, eta goiko alderdian hartzen dena, desberdintasun itzela)

"Ortik kamiñotik yoan dire (Z.)" - (Kamino horretatik joan dira)

"Lenaukoak, kostunbre bat ixen san, amen neuk euki neuen kasue, emetik kamiñoa neuk eintte dau (Ll.)" - (Lehenagokoak, ekandu bat izan zen, hamen neuk eduki nuen kasua, hemendik kaminoa neuk eginda dago)

kamiño eskiña: kamino ertza

"Trenbidea pasetan da kamiño eskiñetik (T.)" - (Trenbidea pasatzen da kamino ertzetik)

kurbea: bihurgunea

kurtzederoa, kurtzioa: bidegurutzea, kurtzioa

kurtzerue: bidegurutzea, kurtzioa

oinbidia: oinbidea

"Oinbidean en jeneral oten ixen da ori, ango pasoa ixeten ixen da (Ll.)" - (Oinbidean gehienetan egoten izan da hori, hango pasabidea izaten izan da)

oñes bidia: oinez-bidea

pasoa: pasabidea, bide artekoa

pistia: pista, baso bidea

silloa, suloa: zuloa

"Taladroas silloa eiñ, eta egurre sartu bete betekoa, istuen (Ll.)" - (Laratroagaz zuloa egin, eta egurra sartu bete-betekoa, estuan)

sintxia: zintarria, bide-bazterretan egoten den harrizko zinta

13.6. ERREKAK

emoya: emoia

errekea: erreka

"Errekea loi dau (Z.)" - (Erreka lohi dago)

"Bota gaubean erre kara t'urreo goixean, a, ekarri etzera ta saku betegas siketu, eta yantzi (Z.)" - (Bota gauean erre kara eta hurrengo goizean, ekarri etxera eta zaku bategaz sikatu, eta jantzi)

erreka ertza: errekaertza, ibaiertza

erreka eskiña: erreka bazterra

"Erreka eskiñetan ta munean, munean silloa intxe, munean sartxea san (A.)" - (Erreka bazterretan eta munean, munaren zuloa eginda, munean sartzen zen)

erreka munea: erreka muna

ibei: ibaia

itturrie, itxurridxe: iturria

korrientea: korrontea

manantiala, manentia: manantiala, iturburua

"Eta manentialekoa ara gora yoten gintzen, eleixean ondora, a dana da ure, oin bere bai, e? (La.)" - (Eta manantailekoa hara gora joaten ginen elizaren ondora, hura dena da ura, orain ere bai, e?)

metal ure: metal ura

patiña: patina

posoa: putzua

presea: uharka

subie: zubia

ur lotue: ur lotua, ur geldia

ur posoa: ur putzua

13.7. ITSASOA

area: harea

itxosoa, ittosoa: itsasoa

"Ak itxosaldea gitxi koiko deu, se, itxoso partea, esteueles koiten fruteak, lorea kontzerbeu ondo (Z.)" - (Hark itsasaldea gutxi hartuko du, ze, itsaso alderdia, ez duenez hartzen frutak, lorea kontserbatu ondo)

itxoso eskiñea: itsas ertza

kostea: kostaldea

marea bera, maria bera: marea beheara

marea gora, maria gora: marea gora

oleatue: olatua

playea: hondartza

"Keba! orduen playea! ya ya! orduen esan oten playarik (Z.)" - (Bai zera! orduan hondartza! ja ja! orduan ez zen egoten hondartzarik)

14. LANDARERIA

Landareria alorreko berbak ondoko azpi-ataletan banatuta aurkezten ditugu: arbolak, basa-landareak, ortuariak, fruituak, garia, artoa, belarra-zekaleak, landareen atalak, eta azkenik, jaso ditugun berba konposatuakaz, gainerakoak.

14.1. ARBOLAK

altza: haltza

"Mayatzean eta uregoran ebai bear da altza, baya asala kendu bear dako, al danik ariñen, e, se ariñen orduntxe galduten da ostantzean, nabartu te usteldu itten da, ba asala kendu eskeriñon es (E.)" - (Maiatzean eta urak goran ebaki behar da haltza, baina azala kendu behar zaio, ahal denik arinen, ze arinen orduantxe galtzen da osterantzean, nabartu eta usteldu egiten da, ba azala kenduz gero ez)

ametza: ametza

arbolea: arbola

arbustoa: zuhaixka

aretxea, aritxia: haritza

"Ori aritxe tausen lekun kantidedek urtetan dau (Z.)" - (Hori haritzak dagozen lekuan kantitateak irteten du)

aris tantaya: haritz tantaia

arkasie, askasie: arkazia

artea: artea

"Emon eitte akena ganadueri, eser esatauenean sera ixetan da, artea, arte puntak (T.)" - (Eman egiten zitzaiena ganaduei, ezer esaten zuenean zera izaten da, artea, arte puntak)

eukalittue, eukalitie: eukaliptoia

fagoa: pagoa

gastañea: gaztaina

"Eperdie, ori aspie sumintzeskoa gastañeagas ta bestea dau ba altza edo piñue edo bueno, sotzak lexarra eroten deittus, atzekoa ta aurrekoa, eta alboatakoak gastañea (E.)" - (Ipurdia, azpi hori zumintzeskoa gaztainagaz eta bestea dago ba haltza edo pinua edo beno, sotzak leizarra eroaten ditu, atzekoa eta aurrekoa, eta alboetakoak gaztaina)

gorostie, gorostegie: gorostia

gurbuxe, gurguxe, gurbixe: gurbitza

"Gurguxe onena, baya, esta leku danatan ori, a da onena (L.)" - (Gurbitza onena, baina, ez da leku denetan hori, hura da onena)

intxurre: intxaurra

"Intxurre siketu itten da ganera (Z.)" - (Intxaurra sikatu egiten da gainera)

leixarra, lexarra: leizarra

"Gastañea erabiltten du eta gastañea da onena baya atara leikio, bai kerixeari bere bai, urrutxeri bere bai, ta aritxeri bere bai ataraten dako, ta lexarrari bere bai, baya bakarrekkoa bada, sepakoa bada lexarrak estau balio, se alan bueltan biurrin ataraten dau sumintze ta (E.)" - (Gaztaina erabiltzen dugu eta gaztaina da onena baina atera lekiok, bai gereziari ere bai, hurritzari ere bai, eta haritzari ere bai ateratzen zaio, eta leizarrari ere bai, baina bakarrekkoa bada, ondokoa bada leizarrak ez du balio, ze halan bueltan ateratzen du zumintza eta)

"Guk aritxia, ta altza, ta lexarra, or, e, basoan an etze atzekoan ein gendun guk iketz asko (L.)" - (Guk haritza, eta haltza, eta leizarra, hor, basoan han etxe atzekoan egin genuen guk ikatz asko)

olmoa: zumarra

piñue: pinua

"Eta garbittu piñuek illeda pa, ta bagoas urreo egunean eta, garbittute egon sales, or doa euntze eta eume bi, eta garbittuko lekutik, ta! puntea yan, ta! puntea yan (T.)" - (Eta garbitu pinuak ilarak ba, eta bagoaz hurrengo egunean eta, garbituta egon zenez, hor doa ahuntza eta aume bi, eta garbituko lekutik, ta! punta jan, ta! punta jan)

saratz: sahatsa

sipresa: zipresa

tantaya: tantaia

txopoa: txopoa

urrutxe: hurritza, hurra

"Guk emen, e, sera, gastañea, olan, urrutxe edo eitteuden baya, gastañea normalen (E.)" - (Guk hemen, zera, gaztaina, holan, hurritza edo egiten zuten baina, gaztaina normalean)

14.2. BASA LANDAREAK

amar mandaminttue: hamar mandamendua

"Amar mandaminttu bai, neu tekot or imintte, orrek lorak emote ittus (Z.)" - (Hamar mandamendua bai, neuk daukat hor ipinita, horrek loreak ematen ditu)

angeru lorea: aingeru lorea

arkasatza: arkasatsa

"Arkasatza, ori sasi antzekoa da, orrie, gorostegie bakixu selau dan? arexen moduko orrie deko baya, pintxoak pintxoak, enredadera ba ta arkasatza (T.)" - (Arkasatsa, hori sasi antzekoa da, orria, gorostia badakizu zelakoa den? harexen moduko orria dauka baina, arantzak arantzak, igotzen duen bat da arkasatsa)

arrutze gorringoa: arrautza gorringoa, perretxiko mota

asune: asuna

baso okarana: baso okarana

batana: batana

"Gurean, a, batana ba usiñerako baya ortik, e, serari botate tzea yatekoari (T.)" - (Gurean, batana ba usainerako baina hortik, zerari botatzen diote jatekoari)

berbenea: berbena

berdiñe: berdina

berretxikoa: perretxikoa

"Berretxikoa esate tzea oneri oiñ agostuen urtetan deudenak amen bere, baya (T.)" - (Perretxikoa esaten diete hauei orain abuztuan irteten dutenak hamen ere, baina)

elorrantza, erlarrantza: elorrantza

"Bat baltzau dau, ta beste bat, e, argiskeaoa, bai elorrantza (Z.)" - (Bat beltzago dago, eta beste bat, argixkagoa, bai elorrantza)

erramue: erramua, ereinotza

erromerue: erromeroa

"Ganadueri emoteko, bedarra sera esetu ot nik, erromerue bere, ori de egosi ardauagas, bota erramatxu bet, egosi ardauagas, ta otzittan danean, botillen emon, eta enpatxue badeko libretako (LI)" - (Ganaduari emateko, belarra zera ezagutu dut nik, erromeroa ere, hori da egosi ardauagaz, bota abartxo bat, egosi ardauagaz, eta hozten denean, botilean eman, eta enpatxoa badauka libratzeko)

esne bedarra: esne belarra

"Beste ba tau esne bedarra, ganaduek ori yaten daunen esiñ edan esnerik (Z.)" - (Beste bat dago esne belarra, ganaduak hori jaten duenean ezin edan esnerik)

eusnar bedarra, ausnar bedarra: hausnar belarra

garrastea: garrazta

gibel urdiñe: gibel urdina

"Gibel urdiñek gosoa tirela esaten deude (T.)" - (Gibel urdinak gozoak direla esaten dute)

giñarrea: kinarra

grillu bedarra: txirri-txirri belarra

"Artesa, fin fintxue, ta goyen bellegi, orri bellegitxu tekosena, grillu bedarra (Z.)" - (Artesa, fin-fintxoa, eta goian beilegia, orri beilegitxoak dauzkana, txirri-txirri belarra)

indigastañea: indi gaztaina

intzurrie: huntzorria

"Intzurrie beste ba ta, ormatati ieten deuna da intzurrie (T.)" - (Huntzorria beste bat da, hormetatik igotzen duena da huntzorria)

irea, idea: ira

"Nik atzo karrotxillokada ederra ebai do pa! idea (E.)" - (Nik atzo karretilakada ederra ebaki dut ba! ira)

kañaberea: kanabera

kardue: kardua

"Kardu be tau, e, konejuk eta yaten daudena ta beste ba tau kardu latza (Z.)" - (Kardu bat dago, konejuak eta jaten dutena eta beste bat dago kardu latza)

kardu latza: kardu latza

karraskillea: karraskila

"Arbolea da ori, edoseiñ arbole ixetea les, baya sera tekos orrek, pintxoak, baya in ber deu, etzean ekarri, siketute, siketu etzean eta gero, karraskillean ure, ori karraskillean ure, egurre da, aonen tamatxue edo, batzuk egoten dire, ta beste batzuk aolauak, gurian aitte defuntuek, e, ori sera euki seueles, odol lodie ta sera, diabetise euki seuen a pere, eta odola lodi itteko, ayen ure artxen seuen, eta bajetuteko (Ll.)" - (Arbola da hori, edozein arbola izatea legez, baina zerak dauzka horrek, arantzak, baina egin behar du, etxean ekarri, sikatuta, sikatu etxean eta gero, karraskilaren ura, karraskilaren ur hori, egurra da, haonen tamaitxoa edo, batzuk egoten dira, eta beste batzuk haolakoak, gurean aita difuntuak, zer hori eduki zuenez, odol lodia eta zera, diabetisa eduki zuen hark ere, eta odola lodi egiteko, haren ura hartzen zuen, eta bajatzeko)

"Egosi itten da ori, orri seiñ, e, trongoa, eiñ, a, tirek, edo ein satiek, sartu uretan, eta egosi, eta goxean, goxean barauten artxeun, ta ensegida bajaten dau tentziñoa, karraskillea, ta da arten modukoa, antz antzekoa da (Z.)" - (Egosi egiten da hori, orria zein, enborra, egin, tirak, edo egin zatiak, sartu uretan, eta egosi, eta goizean, goizean barautan hartzen zuen, eta behingoan bajatzen du tentsioa, karraskila, eta da artearen modukoa, antz-antzekoa da)

klabeliñe: krabelina

kuku frakea: kuku praka

kuku lorea: kuku praka

kuku sagarra: kukusagarra

lapatzia: lapatza, pegatin belarra

larrosea: larrosa

liñe, linoa: lihoa

"Liñeagas aridxe itxen da ta aregas telia eitxe seudian lenau (L.)" - (Lihoagaz haria egiten da eta haregaz ehuna egiten zuten lehenago)

luki bustena: luki buztana

mamukidxea, mamukioa: mamukioa

"Mamukidxea eusnarrantza ta (M.)" - (Mamukioa hasnarrantzat da)

"Mamukidxea bedarra edo, arboleari inketa oten sienak, estaitx ixeten basiren edo (At.)" - (Mamukioa belarra edo, arbolari itsatsita egoten zirenak, ez dakit izaten ziren edo)

mamukio bedarra: mamukio belarra

mantzanillea: kamamila

"Mantzanillen ure gure ama defunteak, e, gois gustietan artxeuen, estamangue libretako (At.)" - (Kamamilaren ura gure ama difuntuak, goiz guztietan hartzen zuen, urdaila libratzeko)

masustea: masusta

mimena: mimena

"Mimenak bi daus, bata dau, e, bellegiaua, a da obea, ta bestea dau gorritxuaua, bellegi da obea, gitxiau apurtan da (Z.)" - (Mimenak bi dagoz, bata dago, beilegiagoa, hura da hobea, eta bestea dago gorritxoagoa)

mimosea: mimosa

misperrue: mizpila

moko bedarra: usturia, mihura

okeran txirpie, okeran txirrie: txirri okarana

"Okeran txirpie, or bean daus, erreka eskiñen daus, badaus, bi edo iru daus, baltzak, baya asurre eukitten dau andi orrek, ta mamiñe gitxi, okeran txirpie esaten tzegu guk (Z.)" - (Okaran txirpia, hor behean dagoz, erreka bazterrean dagoz, badagoz, bi edo hiru dagoz, beltzak, baina hezurra edukitzen du handia horrek, eta mamia gutxi, okeran txirpia esaten diogu guk)

ongoa: onddoa

"Ori da gaixo bat, ongo bat urtetan tzona sustrayen, da orduen, ori dauen lekuen, lurre teko ya ori, gatxa, ongoa formata (G.)" - (Hori da gaixo bat, onddo bat irteten diona sustraian, eta orduan, hori dagoen lekuan, lurrak dauka ja hori, gaitza, onddoa eginda)

orolgie: odolgia

osa bedarra: osa belarra

otabarra: otabarra

"Otabarrak, aye pere ba ekarten siren, ortik Markaidetik edo olan ekarten san, egur bet olan, guk beyek eta idiek euki genduseles, beyekas ekarte san a egurre, ta besteas, otabarra, otak olaseko ondoakas, e? (Ll.)" - (Otabarrak, haiek ere ba ekartzen ziren, hortik Markaidatik edo holan ekartzen zen, egur bat holan, guk behiak eta idiak eduki genituenez, behiakaz ekartzen zen egur hura, eta besteagaz, otabarra, oteak holaseko ondoakaz, e?)

otea: otea

"Otea baño oba ixetan san iria baya, ba, ta gero a onduteko itte san pilloa, ta gero ba solora eron (Ll.)" - (Otea baino hobea izaten zen ira baina, ba, eta gero hura ontzeko egiten zen piloa, eta gero ba sorora eroan)

patana: batana, menda

patan bedarra: batana, menda

plaustikue, plastikue: traustekia, saukua

"Plaustikue deko ixena, barru utze dekona (Z.)" - (Traustekia dauka izena, barru hutsa daukana)

"Guk plastikue itten gendun, a, sererako, olgetan gendun, tiroa itteko, plastikueri kentxen gentzen a barrukoa alanbra bategas, ta gero, papelak uretan busti, eta sartu an, atakeu, ta gero, bestea busti atzetik edo kortxo, olan, ta fuerte botateuden, e? pounba! (T.)" - (Guk traustekia egiten genuen, zererako olgatzen genuen, tiroa egiteko, traustekiari kentzen genion barruko hura alanbre bategaz, eta gero, paperak uretan busti, eta sartu han, atakatu, eta gero, bestea busti atzetik edo kortxo, holan, eta indartsu botatzen zuen, e? pounba!)

pulmoni bedarra: pulmoi belarra

putzatza: putzatsa

"Berretxikon antzekoa, esaten tzu putzatza (Z.)" - (Perretxikoaren antzekoa, esaten diogu putzatsa)

sagar txirpie: txirri sagarra, basa sagarra

san jose lorea: san jose lorea

sanbedarra: zain belarra

sapo bedarra: zapo-belarra

sasi morea: masusta

sasiarte: sasi-arte

sasie: sasía

"Euntzek egote siren edo sasi garbittearren edo, lantzen euns bet egoten siren (T.)" - (Ahuntzak egoten ziren edo sasi garbittearren edo, lantzean ahuntz bat egoten ziren)

sie: zihia

"Txakurrenak ixena nik estaitt selan dekon baya, kasureko, amarreta dekus guk txakurrek, esta? ta soltetan dus, ta, siek, sie padakixu sertzuzu tiren? bai, ta aitarara sietara yoan eta txakurrek eitte otzo, ra! txixe iñ, ta gero dekosu kostunbrea, yoan ta trast! kendu sie, agora, ba ortik formetan da pulmoyan, ur boltzak! t'ori geuse gatxa gatxa da garbittutea, gatxa bere gatxa garbittutea! amen, a, ba aunek pastoreak, emen daunen anayea, or bean bixi da, eta beorrek esteula eiñ tte beorrek esteula ta be serean, ta txarto enkontretan san, esta? eta medikuk esaotzon se, noonon txakurrekas, e, dauela, ta bera txakurrekas esetz, ia euki badeu kostunbrerik, a, olan koyu sie ta agoan ibiltteko, ta bayetz, ba ortixik etorritte dekosu, eta ba osasunik aren esteko, e? pulmoire itten deu, pulmoire, eta beste bat aorko, amekoa da baya Portugaleten bixi de bera, eta ba, txarto enkontraten dala ta arnasea estututen dakola ta serean, eta yon ei sen, e, medikuana, ta medikuk ensegida esan ei otzon, suk txakurre tekosus, bera estabillela txakurrekas, txakurrek badekosela berak, baya tallerrean, ta seuk tallerean eingo su bear? bai, baya bera yaten emoten bestala yoaten, ba orixe dekosu, eta iru bider edo opereta dau, baya atzera formetan da ori (Z.)" - (Txakurrenak izena nik ez dakit zelan daukan baina, kasurako, lotuta dauzkagu guk txakurrak, ezta? eta soltatzen ditugu, eta, zihia, zihia badakizu zertzuk diren? bai, eta haietara zihietara joan eta txakurrak egiten dio, ra! txiza egin, eta gero daukazu ekandua, joan eta trast! kendu zihia, ahora, ba hortik egiten da birikian, ur poltsak! eta hori gauza gaitza-gaitza da garbitzea, gaitza ere gaitza garbitzea! hamen, ba haonek artzainek, hemen dagoenaren anaia, hor behean bizi da, eta berorrek ez duela egin eta berorrek ez duela eta ere zerean, eta txarto egoten zen, ezta? eta medikuak esan zion ze, non

edo non txakurrakaz, dagoela, eta bera txakurrakaz ezetz, ea eduki duen ekandurik, holan hartu zihia eta ahoan ibiltzeko, eta baietz, ba hortixik etorrira daukazu, eta ba osasunik arean ez dauka, e? birikira egiten du, birikira, eta beste bat haorko, hamengoa da baina Portugaleten bizi da bera, eta ba, txarto egoten dela eta arnasa estutzen zaiola eta zerean, eta joan ei zen, medikuagana, eta medikuak behingoan esan ei zion, zuk txakurrak dauzkazu, bera ez dabilela txakurrakaz, txakurrak badauzkala berak, baina tailerlean, eta zeuk tailerlean egingo duzu behar? bai, baina bera jaten ematen ere ez dela joaten, ba horixe daukazu, eta hiru bider edo operatuta dago, baina atzera egiten da hori)

sugoi bedarra: sugoi belarra

traustikidxe, plaustikie: traustekia, saukua

txanpiñoia: txanpinoia

txibiritea: txiribita

txirri okarana: txirri okarana

txori kardue: txori kardua

"Txori kardua da txoriri asko gustaten daken kardua bet, eukitten dau punten, e, olau bellegitxue, eta bixerrak suriskekas, txori kardue, bai (Z.)" - (Txori kardua da txoriei asko gustatzen zaien kardua bat, edukitzen du puntan, holako beilegitxoa, eta bizarrak zurixkakaz, txori kardua, bai)

14.3. ORTUARIAK

arbie: arbia

arranbarren: patata mota bat

asea: aza

aselgea, asalge: azelga, zerba

"Asalge da suabea (La.)" - (Azelga da suabea)

babea: baba

bañapalue: bainapalua, landararen hazkundera artezteko erabiltzen diren makilak, gehienetan kanaberak

bañea, baiñe: leka

berakatza, berekatza: berakatza

berako iderra: beherako ilarra

berako indabea, berako inyabea: beherako indaba

berdurea: berdura

berekatz agiñe: berakatz alea

erremolaxia, erramolaxea: erremolaxa

"Oñ erosi itxen du, ba len, e, erremolaxia, pulpia, beti erosi, erosi beti, baya len etorte san, pulpia, fabriken kendute, granulaue sera, oin granulaue dau, ba len etorte san satidxe satidxe satidxe ba (M.)" - (Orain erosi egiten dugu, ba lehen, erremolaxa, pulpa, beti erosi, erosi beti, baina lehen etortzen zen, pulpa, fabrikan kenduta, granulatu zera, orain granulatu dago, ba lehen etortzen zen zatia-zatia-zatiak ba)

esparrague: esparragoa, zainzuria

gorako iderra: gorako ilarra

gorako indabea, gorako inyabea: gorako indaba

gorriñe: gorrina, landareen gaixoa

"Tomatetan gorriñe oten da (G.)" - (Tomateetan gorrina egoten da)

iderra: ilarra

"Onak babea ta iderrak, orrek esteudea esetariko tratamintxurik bear (G.)" - (Hauek baba eta ilarrak, horiek ez dute ezetariko tratamendurik behar)

inyabea, indabea: indaba

inyaba asala, indaba asala: indaba azala

inyaba baltza, indaba baltza: indaba beltza

inyaba gorri, indaba gorri: indaba gorria

inyaba surie, indaba surie: idaba zuria

kalabasea: kalabaza

"Guk, ba, biarra etzean, a, nik amen, a, emen len dana sagarra oten san, eta soltu erabiltte nittusen, soltu, esta? ta sagarra, ta naye intte etzera etorten sienean babea, artaburue, eta orretarikoa, es olan ogie ta, oñ emoten daken modun ogie edo, pentzue konpuestoa ta, orrek es, e? etzeko, etzean koitten dun, a, sera, kalabasea, erremolaxea, artaburue, eta urune, akabuko orduen, urune, arto urune (Z.)" - (Guk, ba, beharra etxean, nik hamen, hemen lehen dena sagarra egoten zen, eta solte erabiltzen nituen, solte, ezta? eta sagarra, eta nahia eginda etxera etortzen zirenean baba, artaburua, eta horietarikoa, ez holan ogia eta, orain ematen zaien moduan ogia edo, pentsua osotua eta, horiek ez, e? etzekoa, etxean

hartzen dugun, zera, kalabaza, erremolatxa, artaburua, eta irina, azken orduan, irina, arto irina)

kalabasiñe: kalabazina

kaspiedue: kaspeadua, indaba mota bat

kinpulea, kinpulia: kipula

"Guk kinpulea kantidadea euki du iges bere, bakiostarra pe asko eron deude (E.)" - (Guk kipula kantitatea eduki dugu iaz ere, bakiotzarrek ere asko eroan dute)

kinpule gorrie: kipula gorria

kinpule surie: kipula zuria

koniflora: azalorea

"Nik pentzatot emen koniflora baño giau, len ase (A.)" - (Nik pentsatzen dut hemen azalorea baino gehiago, lehen aza)

letxugea: letxuga

naboa: arbia

"Len, e, naboa ereiteko imintte san, e, batzuk igual surteko autze bere bai, abonoa gasta esittearren (E.)" - (Lehen, arbia ereiteko ipintzen zan, batzuk beharbada surteko hautsa bere bai, ongarria ez gastatzearren)

ortuarie: ortuaria

patatea: patata

patata gorrie: patata gorria

patata surie: patata zuria

patata txikerra: patata txikerra

perejille: perrexila

piper gorrie: piper gorria

piper lodie: piper lodia

piperra: piperra

"Senbet piper yan dosus? (Z.)" - (Zenbat piper jan dituzu?)

"Ona etorten da, piperretan ta etorten da, ta kinpuletan bere bai (E.)" - (Hona etortzen da, piperretan eta etortzen da, eta kinpuletan ere bai)

piper txorixerue: piper txorizeroa

porrue: porrua

"Birekatxa, da, urtetan deu, ser esango tzut? porru txiker bat balittike les, olauxe ser surie, sati suritxu bet, urtetan dauenak, andittu beten barruen, birekatxa axeri esaten dako (Ll.)" - (Birekaitza, da, irteten du, zer esango dizut? porru txiker bat balitz legez, holakoxe zer zuria, zati zuritxo bat,

irteten duenak, handitu baten barruan, birekaitza harexeri esaten zaio)

senaorie: azenaoria

tolosanea: indaba tolosarra

tomatea: tomatea

txakur ase: txakur aza

txorixerue: piper txorizeroa

ugerra: ugerra, landareen gaixoa

14.4. FRUITUAK

albertxikoa: mertxika

amerikanue: mahats mota bat

atxikoa: atxikoa, iko mota bat

bos kantai: bost kantoia, sagar mota bat

brebea: breba, iko mota bat

"Orrek brebak beste klase ba tire (Z.)" - (Horiek brebak beste mota bat dira)

brebaikoa: breba ikoa, iko mota bat

erreñetea: erreineta

frutea: fruitua

gasa sagarra: gaza sagarra

"Gasa sagarra bai, gasa sagarra euki be itxen gendun bai (G.)" - (Gaza sagarra bai, gaza sagarra eduki ere egiten genuen bai)

gastañea: gatzaina

gegon madarie, geuen madarie: gabon madaria

"Geuen madarie bere badau emen (Z.)" - (Gabon madaria ere badago hemen)

gorrittea: gorrita, sagar mota bat

"Gorrittea bere bai, baya gorrittea, gorritterik gorrittera bere, sagarratan diferentzie dau, se ta bastante da karuau ori gorri gorri gorrie, eta gorrittea da, bastante gorrittuten da baya, alan errayek, urdin sagarran estilo antzera itten dana da (Z.)" - (Gorrita ere bai, baina gorrita, gorritatik gorritara ere, sagarretan desberdintasuna dago, ze eta nahikoa da garestiagoa gorri-gorri-gorri hori, eta gorrita da, nahikoa gorritzen da baina, halan marrak, urdin sagarraren era antzera egiten dena da)

ikoa: ikoa

"Bai klase asko, ikoa, atxikoa, ba, atxikoa da alau biribil biribiltxue, eta, beste ba tau iko surie esaten dakona (Z.)" - (Bai mota asko, ikoa, atxikoa, ba, atxikoa da halako biribil-biribiltxoa, eta, beste bat dago iko zuria esaten zaiona)

iko baltza: iko beltza

iko gorrie: iko gorria

iko surie: iko zuria

"Gero lekuri lekure bere, ikoa pere, emen atxikoa ondo elduten da, eta au beste, ba, sera bere bai, iko surie bere, ondo elduten da, baya beste batzu taus, estirenak eltxean (Z.)" - (Gero lekutik lekura ere, ikoak ere, hemen atxikoa ondo heltzen da, eta beste hau, ba, zera ere bai, iko zuria ere, ondo heltzen da, baina beste batzuk dagoz, ez direnak heltzen)

intxurre: intxaurra

"Aittu onek bekoak bastarra pete emoten deu, ta amen goyen euki gendun beste bat, oiñ ori sinpresea dau, orrelasekoa baño andiaoa san a intxurre, se eun kilo batukoa nas, e? intxurre, eta klasea, onenatarikoa, alan koite klask! apurtan dana, eta oin deku or goyen bat, eta inyer ba padeko, eta nosonos bat edo bi emote ittus, eta, beste ba tau amen berton, atzian, t'orreri punten suloa lotuten dako, beres klaseak txarrak ixen (Z.)" - (Aitu beheko honek bazterrak bete ematen du, eta hamen goian eduki genuen beste bat, orain zipres hori dago, horrelasekoa baino handiagoa zen intxaur hura, ze ehun kilo batukoa naiz, e? intxaurra, eta mota, onenatarikoa, halan hartuta klask! apurtzen dena, eta orain daukagu hor goian bat, eta indar bat badauka, eta noiz edo noiz bat edo bi ematen ditu, eta, beste bat dago hamen berton, atzean, eta horri puntan zuloa lotzen zaio, berez motak txarrak izan)

iñurri madarie: inurri madaria, madari mota bat

kana sagarra: kana sagarra

kanea: kana sagarra

"Gaur, e, onentzat, dausenak, emen, kane ta sera dire (Z.)" - (Gaur onentzat, dagozenak, hemen kana eta zera dira)

kerixea: gerezia

"Gero ori bai frute, frute amen ainbet egote salako dekot, ba kerixen epokan ba kerixek, ba kerixek yan (A.)" - (Gero hori bai fruta, fruta hamen hainbat egoten zelakoa daukat, ba gerezien sasoian ba gereziak, ba gereziak jan)

kibie: kibia

kludie: klaudia, okaran mota bat

kutxillo madarie: kutxilo madaria

laranjea: laranja

larrabetzu sagarra: larrabetzu sagarra

"Esta txarra, ba tau atariko, Larrabetzu sagarra (Z.)" - (Ez da txarra, bat dago haietarikoa, larrabetzu sagarra)

limoya: limoia

madarie: madaria

"Madarie bai, se madari klase ona taus (Z.)" - (Madaria bai, ze madari mota onak dagoz)

"Senbet balio dau kilo bat madarik? (Z.)" - (Zenbat balio du kilo bat madarik?)

makatza: makatza, madari mota bat

"Da madarietan, ba gegon madarie ixeta san, a, eta makatza esaten tzegune, orrek, goixetikoa, makatza, e, or san juan, san pedro, sasoyan, eta gero belukoa, ba, gegon madarie (G.)" - (Eta madarietan, ba gabon madaria izaten zen, eta makatza esaten dioguna, horiek, goizetikoa, makatza, hor San Juan, San Pedro, sasoian, eta gero belukoa, ba, gabon madaria)

mallukie: mailukia, marrubia

"Suk malluki asko yan dosus (Z.)" - (Zuk mailuki asko jan dituzu)

matza: mahatsa

"Orrek, e, ba ser bi dekes, busten bi, matzatan ori asko egoten da (Z.)" - (Horiek, ba zer bi dauzkate, buztan bi, mahatsetan hori asko egoten da)

matzartea: mahats-artea

"Or semegure dau matzartean (T.)" - (Hor zenbagura dago mahats artean)

millikota, melokotoya: milikota, freskoa

naranjea: laranja

"Ori neuk ein yot nire umeakas, aplasta naranjea, edo platanue naranjea eta orrekas emon frutek atzaldetan eta yogurre bere bai, igual nastata (A.)" - (Hori neuk egin dut nire umeakaz, zapartu laranja, edo platanua laranja eta horiekaz eman frutak arratsaldeetan eta jogurra ere bai, igual nahastuta)

okerana: okarana

"Okeranatan badaus, klaudia, beste batau, a, ba gorriek, okeran gorrie, esaten dotzegunek, baya okeran gorrie pere klase bi daus, amen deku guk bat, eta dire gorriek, baya alan lusengak, eta baperesta

elduten, eltxen doasenen danak usteltan dire, nik estakitt segaittik, t'orrek okeran gorriek natural elduten dire, baya emen esteku guk orretarikorik (Z.)" - (Okaranetan badagoz, klaudia, beste bat dago, ba gorriak, okaran gorria, esaten diegunak, baina okaran gorriak ere mota bi dagoz, hamen daukagu guk bat, eta dira gorriak, baina halan luzengak, eta bat ere ez da heltzen, heltzen doazenean denak usteltzen dira, nik ez dakit zergatik, eta okaran gorri horiek natural heltzen dira, baina hemen ez daukagu guk horietarikoak)

okeran bellegie: okeran beilegia

okeran gorrie: okeran gorria

okeran klaudie: okeran klaudia

"Gero oten siren ba bueno, okeran klaudiek eta okeran gorriek, okeran bellegiek (G.)" - (Gero egoten ziren ba beno, okaran klaudiak eta okeran gorriak, okeran beilegiak)

orandille: orandila, madari mota bat

"Madaririk gosoena, neutzako topeta otena, ta urtzuea, sidiri madarie, orandillea bere, garan garana da, orandille madarie, baya, apur bet, a, noperantzako, sikue, orandillea (Z.)" - (Madaririk gozoena, neuretzat topatzen dudana, eta urtsuena, sidiri madaria, orandila ere, garan-garana da, orandila madaria, baina, apur bat, norberarentzat, sikua, orandila)

platanue: banana

sagarra: sagarra

"Frute lekuri frute lekure diferentzi itzela dau, se onek gure etze aurreko madariak ukusten baosus, orrie gañe madarie dekea, ta sagarra bere bastante, baya oin daus sagarrak, ba lar serratuegi, eta errame itten dakea asko, ta estire itten, a, sagarrak bear dan bestekoak (Z.)" - (Fruta lekuri fruta lekura desberdintasun itzela dago, ze gure etxe aurreko madari hauek ikusten badituzu, orria gaina madari daukate, eta sagarra ere nahiko, baina orain dagoz sagarrak, ba lar itxiagi, eta abarra egiten zaie asko, eta ez dira egiten, sagarrak behar den bestekoak)

saldi kerixea: zaldi gerezia

"Gureak emen dausenak, ba, korriente tire baya saldi kerixek neuseiek, eta besteak, oingo kerixek, ba, kerixe korrienteak, ointxe, sanantonio aurretik elduten direnak (Z.)" - (Gureak hemen dagozenak, ba, arruntak dira baina zaldi gereziak nagusiak, eta besteak, oraingo gereziak, ba, gerezi arruntak, oraintxe, San Antonio aurretik heltzen direnak)

samudio sagarra: zamudio sagarra

san juan madarie: san juan madaria

"Ederrak eitten dire, ba, txikerrena san juan madarie da, eta gero, nik estakitt se ixen esate otzean, ba iru edo lau klase daus (Z.)" - (Ederrak egiten dira, ba, txikerrena san juan madaria da, eta gero, nik ez dakit zer izen esaten zioten, ba hiru edo lau mota dagoz)

san juan sagarra: san juan sagarra

"Jenteak eukitte seun san juan sagarra esaten sotzenak (A.)" - (Jendeak edukitzen zuen san juan sagarra esaten ziotena)

san pedro sagarra: san pedro sagarra

santiago sagarra: santiago sagarra

"Gero dau, ba san pedro eta santiago, esaten geuntzena guk, beste gorri bet, gorri gorri bet, ba alperra da a bere, esta sagar ona bere (Z.)" - (Gero dago, ba san pedro, eta santiago esaten geniona guk, beste gorri bat, gorri-gorri bat)

santitolie: santitolia, sagar mota bat

"Emen parajea, egon da sagarra, san pedro sagarrak, gero san juan sagarrak, gero santittolik, santittoli estosu entzun? da, aunen tamañu ingeruko sagarra, eta biribil biribille, eta bellegi bellegi bellegi itten da, gero besteak, ba, serak onek, a, kana sagarrak, eta geuen madarie (Z.)" - (Hemen inguruan, egon da sagarra, san pedro sagarrak, gero san juan sagarrak, gero santitoliak, santitolia ez duzu entzun? da, haonen tamaino inguruko sagarra, eta biribil-biribila, eta beilegi-beilegi-beilegi egiten da, gero besteak, ba, zerak hauek, kana sagarrak, eta gabon madaria)

sarnea: sarna, ugerra, fuituen gaixoa

sidiri madarie: sidiri madaria

"Ba, uki in du guk sidiri madarie, baya oiñ esteku, sidirieri tte eitten dako sarnea, ostantzean gosoena (Z.)" - (Ba, eduki egin dugu guk sidiri madaria, baina orain ez

daukagu, sidiriari eta egiten zaio sarna, osterantzean gozoena)

txakolin matza: txakolin mahatsa

txarba sagarra: sagar mota bat

"Txarba sagarra, niri estat gustaten a bere (Z.)" - (Txarba sagarra, niri ez zait gustatzen hura ere)

urdin sagarra: urdin sagarra

"Urdin sagarra pai euki dus, baya, urdin sagarrak euki dus, dosena erdiren bat euki dus, estat gustetan (Z.)" - (Urdin sagarrak bai eduki ditugu, baina, urdin sagarrak eduki ditugu, dozena erdiren bat eduki ditugu, ez zait gustatzen)

"Urdin sagarra, gu urtenta gaus, esta? ustelorra da (Z.)" - (Urdin sagarra gu irtenda gagoz, ezta? ustelorra da)

urrutxe: hurritza

urte betea: urte bete, sagar mota bat

"Guk kanak eta urte betak eukitten gendus (A.)" - (Guk kanak eta urte beteak edukitzen genituen)

14.5. GARIA

asie: hazia

birsaye: birzahia

"Birsaye dau gero, bueno, ori birsaye badau, a trillaute, eitten da, a trillaute itten dana, orrek, birsaye, sayek eta birsayek daukea bearra, eñ, ba ta, ari nastau edosein jenero eitteko, balio deu ak (Z.)" - (Birzahia dago gero, beno, birzahi hori badago, hura trilatuta, egiten da, hura trilatuta egiten dena, horiek, birzahia, zahiak eta birzahiak daukate beharra, egin, ba eta, hari nahastu edozein gauza egiteko, balio du)

bixer garie: bizar garia

"Ori bixerra dekon garie da, bixerra dekon garieri, ba bixer garie esaten geuntzen, ak, bixerra andi eukitteun ak, olaseko bixerra, ba, bera buru dan besteko bixerra eukitteun, orrek (Z.)" - (Bizar hori daukan garia da, bizarra daukan gariari, ba bizar garia esaten genion, hark, bizarra handia edukitzen zuen hark, holaseko bizarra, ba, bera burua den besteko bizarra edukitzen zuen, horrek)

bixerbakoa: bizarbakoa, gari mota bat

bixerra: bizarra

burue: galburua

galautze, galeutze: galautsa

"Galautse, garin tapea, gari dau tapaute, ba, galautze axe da, garien tapea, a da, soltau in ber deuna a da, ta bero, senbet bero andiau dauen obeto, a soltateko (Z.)" - (Galautsa, garian tapa, garia dago tapatuta, ba, galautsa huraxe da, gariaren tapa, hura da, soltatu egin behar duena hura da, eta beroa, zenbat bero handiago dagoen hobeto, hura soltatzeko)

galtzu txolea: galtzu txola

galtzue: galtzua

"Ba txolea esaten dako, en jeneral eitten siren, txolak, eskuteda bi, ebai serreagas, eta eskuteda bi itten koitten san a, pillo batera bota, eta gero a, amarretan san, koyu, ba bost galtzu, lau bost galtzu koyu, eta a amarretan san (Z.)" - (Ba txola esaten zaio, gehienetan egiten ziren, txolak, eskutada bi, ebaki zerragaz, eta eskutada bi egiten hartzen zen hura, pilo batera bota, eta gero hura, amarratzen zen, hartu, ba bost galtzu, lau-bost galtzu hartu, eta hura amarratzen zen)

"Aik txolak eskus yokoak basiren bere bardiñ, or serratu, or apurke apurke basoas, sartxean, esku beteas eta besteas emoten, altzeu barrien ta sartu te txikittu, eta enpajadea esate akon emen orduen, ori galtzu ori bustitten san ur bero apur betegas (Ll.)" - (Txola haiek eskuz jokoak baziren ere berdin, hor zerratu, hor apurka-apurka bazoaz, sartzen, eskuATEGAZ eta besteagaz ematen, altxatu berriro eta sartu eta txikertu, eta enpajada esaten zitzaion hemen orduan, galtzu hori bustitzen zen ur bero apurATEGAZ)

garaua, garoa: garaua, alea, bihia

"Txolean puntea sartu, an eraitte aken bueltara, ta soltetan siren garoak eta yaurti txolea kanpora, osoa (Ll.)" - (Txolaren punta sartu, han eragiten zitzaian bueltara, eta soltatzen ziren garauak eta jaurti txola kanpora, osoa)

gari bixerra: gari bizarra

gari burue: gari burua

gari garaua, gari garoa: gari garaua

gari soloa: gari soroa

"Personen modun ikeratu deittesan txoriek, gari soloan, personen figure imiñi, ikeratu ein deittesan (Z.)" - (Pertsonaren moduan ikara daitezen txoriak, gari soroan, pertsonaren itxura ipini, ikeratu egin daitezen)

gari txolea: gari txola

gari yotea, gari dxotia: gari jotea

"Egune bero itten deunen, egune bero, yo itten danen, se, yo, lenau, eskus eitten siren orrek txolak, eskus, arrik imiñitte nik esetu dodas, se guk, a, etzalde bi erabil sittusen aitte defuntuk, au te a, Katikeri pere erdi gurera etorte san, Katiken osaba bat abade euki neuen nik, ta, Katikerik erdie etorten san, a, gari yoten ta emen, e, imiñi or kanpoko alderdien illadan or arriek eta dosena bat arri edo giau imiñi tte or gari yoten, eufa taufa taufa! gari yoten or (Z.)" - (Eguna beroa egiten duenean, eguna beroa, jo egiten denean, ze, jo, lehenago, eskuz egiten ziren txola horiek, eskuz, harriak ipinita nik ezagutu ditut, ze guk, etxalde bi erabili zituen aita difuntuak, hau eta hura, Gatikarik ere erdia gurera etortzen zen, Gatican osaba bat abade eduki nuen nik, eta, Gatikarik erdia etortzen zen, gari jotzen eta hemen, ipini hor kanpoko alderdian ilaran hor harriak eta hor gari jotzen, eufa eta eufa eta eufa! gari jotzen hor)

garie: garia

"Ba gari, esetuko esto pa! garie, gabilladorea, suok estosue yakingo ser dan gabilladorea, gabilladore bakixu ser dan? (Z.)" - (Ba garia, ezagutuko ez dut ba! garia gabilladorea, zuok ez duzue jakingo zer den gabilladorea, gabilladorea badakizu zer den?)

kosetxea: uzta

lodoya: lodoia

"Bai, lodoya, lodoya, ari lodoyari, etorri estakion, sulfatotan eukitte san garie, ogetalau orduen, sulfato, ba tiñek, tiñek esate yaken en jenral, ba barriken erdikiñek oten siren tiñek esaten yakenak, atarikon, e, nik esetu dot, bota garie, eta sulfatoa, urtu sulfato, sulfato asule, sera, garoa bera, sera, garoa bota eta an urtu, eta berde berde berde

egoten san ta an ogetalau ordu ingerun, orrek ebitateule esateuden, a, ori lodoya (Z.)" - (Bai, lodoia, lodoia, lodoi hari, etorri ez dakion, sulfatotan edukitzen zen garia, hogeita lau orduan, sulfatoa, ba tinak, tinak esaten zitzaien gehienetan, ba barrikaren erdikinak egoten ziren tinak esaten zitzaienak, haietarikoan, nik ezagutu dut, bota garia, eta sulfatoa, urtu sulfatoa, sulfato azula, zera, garoa bera, zera, garoa bota eta han urtu, eta berde-berde-berde egoten zen eta han hogeita lau ordu inguruan, horrek ekiditen zuela esaten zuten, lodoi hori)

marsela: marzela, gari mota bat

"Bixergarie eta marsela, marsela da bixerbakoa, eta bestea da bixergarie (Z.)" - (Bizar garia eta marzela, marzela da bizarbakoa, eta bestea da bizar garia)

meta nausie: meta nagusia

meta txikerra: meta txikerra

"Lenengo itten san, siketako meta txikerrak, esaten yakenak, senbet txola eukiko sittusen? ogetamar, ba anditxuau pere itten siren batzuk, leku batzutan beste batzutan, ogetamar, ogetamabi txola ingeru edo, eta gero itten siren siketu te untxe badaus pentzaten sienean, meta nausik, metak, a, an oten siren ta gero, beroa suk esan dosune bear san yo eiñ itteko, egun ona nos datorren begire (Z.)" - (Lehenengo egiten zen, sikatzeko meta txikerrak, esaten zitzaienak, zenbat txola edukiko zituen? hogeita hamar, ba handitxoagoa ere batzuetan, hogeita hamar, hogeita hamabi txola inguru edo, eta gero egiten ziren sikatu eta oraintxe badagoz pentsatzen zirenean, meta nagusiak, metak, han egoten ziren eta gero, beroa zuk esan duzuna behar zen jo egin egiteko, egun ona noiz datorren begira)

metea: meta

modorra: gari mota bat

"Marsela, bixer garie, eta gero, modorra edo esaten dakon gari, rapido bat etor san (Z.)" - (Marzela, bizar garia, eta gero, modorra edo esaten zaion garia, arin bat etorri zen)

rusoa: errusiarra, gari mota bat

"Ruso bere egon san, baya gitxi eraitten san ruso (Z.)" - (Errusiarra ere egon zen, baina gutxi ereiten zen errusiarra)

sai sabala: zahi zabala

saye, sadxe: zahia

"Bayati pasaten danen, a saye esaten dakona (Z.)" - (Bahetik pasatzen denean, zahia esaten zaion hura)

"Sadxe bere ona da (M.)" - (Zahia ere ona da)

txintxarrie: gari jotzeko harlauza

"Metatu olan, eta, amabosta, ba amabosta edo olan, a, ba siketan, a, tardetan sittusen, eta gero, ba, arri andi betzuk, aonen tamañuko arri betzuk imiñi, txintxarrie esaten dotzegun guk, esta? ta ain ganian beste arri bet olan, eta ain ganian yo gariak, t'orrek, txorixo lodiek, ordun yaten siren, eta ogie, postria, esniagas egositte ogies, pistolak, pistolak oten siren, eta me me ebai, eta ba galdarillek, galdarillek, sereskoak, kobresko galdarillek, eta aitan, a, egosi, asukeriagas, eta a postrea (Z.)" - (Metatu holan, eta, hamabosta, ba hamabosta edo holan, ba sikatzen, irauten zituen, eta gero, ba, harri handi batzuk, haonen tamainuko harri batzuk ipini, txintxarria esaten genion guk, ezta? eta haren gainean beste harri bat holan, eta haren gainean jo gariak, eta horiek, txorizo lodiak, orduan jaten ziren, eta ogia, postrea, esneagaz egosita ogiagaz, pistolak, pistolak egoten ziren, eta mehe-mehe ebaki, eta ba galdarilak, galdarilak, zerezkoak, kobrezko galdarilak, eta haietan, egosi azukreagaz, eta hura postrea)

txolea: txola

"Ari emoten tzegun, aulan koyu, esplikekotzut, aulan koyu, txolia, eta bueltea emon, emen bueltea emon, ta aunetara sartu, olan sartute imiñi, beragas galtzuegas (Z.)" - (Hari ematen genion, haolan hartu, azalduko dizut, haolan hartu, txola, eta buelta eman, hemen buelta eman, eta haonetara sartu, holan sartuta ipini, beragaz galtzuagaz)

"Galtzue lenau ebai itxe san serrakas, garidxe, ta, galtzue txolak eiñ, olauak,

ta aik serratu an (M.)" - (Galtzua lehenago ebaki egiten zen zerrakaz, garia, eta, galtzua txolak egin, holakoak, eta haiak zerratu han)

txori yagole: txori jagola

"Txori yagole bai, baya txori yagoleri ganen paraten yakosan, txorik, baya txori yagole baño perdigoya da obea, ostantzean txoriri, lenengo egunen, e, eskapeko deu baya txori bertan ganen paraten dako (Z.)" - (Txori-jagolea bai, baina txori jagoleari gainean paratzen zitzaizkion, txoriak, baina txori jagolea baino perdigoia da hobe, osterantzean txoriari, lehenengo egunean, ihes egingo du baina txoria bertan gainean paratzen zaio)

14.6. ARTOA

artaburue: artaburua

"Oñ estau artabururik (A.)" - (Orain ez dago artabururik)

"Bakixu nos kontetan soksusen guri aitzek orrek, a, orrek kontuek, orrek ipuiñek? ba artaburue suritxan egoten gintzesenian, paretan genduesan buelta bueltan danak artaburuek suritxan, urrungo egunian labasue itxeko, t'orrek, gu loak artxen soksun, t'orrek, a, orrek konteu eta (M.)" - (Badakizu noiz kontatzen zizkigun guri aitzak horiek, kontu horiek, ipuin horiek? ba artaburua zuritzen egoten ginenean, paratzen gintuen buelta-bueltan denak artaburuak zuritzen, hurrengo egunean labasua egiteko, eta horiek gu loak hartzen gintuen, eta horiek, horiek kontatu eta)

arto garea: arto gara

artagaroa: artagaraua

artoa: artoa

"Suk ori igual esetuko sendun artoa erosten ta ibiltte san orren aitte (E.)" - (Zuk hori beharbada ezagutuko zenuen artoa erosten eta ibiltzen zen horren aita)

arto artea: arto-artea, artotza

arto esea: arto hezea, labetik pasabakoa

arto igerra: arto igerra, labetik pasatukoa

"Guk esea artoari esaten dotzegu, igerra ta esea, igerra da laban pasaukoa eta esea da beres siketukoa (E.)" - (Guk hezea artoari esaten diogu, igerra eta hezea, igerra da

labean pasatutakoa eta hezea da berez sikatukoa)

arto kosetxea: arto uzta

"Len arto kosetxak koyute siren, ta a gero igertu itte san (La.)" - (Lehen arto uzta hartzen ziren, eta hura gero igertu egiten zen)

artobixerra: artabizarra

arto sapea: arto sapa

artosoloa: arto soroa

artosuritte: artazuritzea

"Artosuritten ta erresario erresa, eta bakixu an, a, kantzata umek serean ta, an artosuritten dabillega, olan, a, loak artute, lantzen artaburu yaurti ixartu, ixartu daittesan (A.)" - (Artazuritzean eta errosario errezatu, eta badakizu han, nekatuta umeak zerean eta, han artazuritzean dabilela, holan, loak hartuta, lantzean artaburua jaurti itzartu, itzar daitezen)

astoa: artoa garantzeko kaxa moduko bat zuloz betea

"Astoa esateutzean, bai astoa, artoa yotekoa, eitten san lau ankan ganian, trabes bi imintte akosan yositte lau ankari, eta ganien tabloi bi, sillos beterik, eta albotik egurre, osea egurre es ola, edo egurregas bere esetu ot len suk esan dosune, orrek, e, biortuteko, Katiken eta ixen diferente esan tzola, taketxue sartute imiñi, eta ola yosteko lekuen, aikas siorrakas, bueltara bueltara, buelta gustie artute, olan lekuen siorrakas eintte (Ll.)" - (Astoa esaten zioten, bai astoa, artoa jotzekoa, egiten zen lau hankaren gainean, trabes bi ipintzen zitzaizkion josita lau hankari, eta gainean oholtzar bi, zuloz beterik, eta albotik egurra, hau da egurra ez ohola edo egurragaz ere ezagutu dut lehen zuk esan duzuna, horiek, bihurtzeko, Gatikan eta izen desberdina esan diola, taketxo sartuta ipini, eta ohola josteko lekuan, haiekaz bidurrakaz, bueltara-bueltara, buelta guztia hartuta, oholaren lekuan bidurrakaz eginda)

bixerra: artobizarra

"Sape da ganeti dekona, ta bixerra da urteten dotzona, ba noberan moduko bixerra urteten dotzo, ta sape da ganen

artaburu tapetan dauna (Z.)" - (Sapa da gainetik daukana, eta bizarra da irteten diona, ba norberaren moduko bizarra irteten dio, eta sapa da gainean artaburua tapatzen dagoena)

burutxea: burutxa

"Burutxe lotxen da goyen ta bera yausten da garoa, astoa esate yakon orreri (Z.)" - (Burutxa lotzen da goian eta behera jausten da garoa, astoa esaten zitzaion horri)

gabillea: kabila

"Gare da puntea, ta gero txolea da, aik gabillek kendu, gabille kendu, eta moltzo itten dana beragas amarraten da gero (Z.)" - (Gara da punta, eta gero txola da, haiek kabilak kendu, kabila kendu, eta moltzo egiten dena beragaz amarratzen da gero)

garea: gara

"Txikerrenari bere gareak urtego tzo (Z.)" - (Txikerrenari ere garak irtengo dio)

lastoa: lastoa

"Lastoa bere txikittan san or, lastoa artaburu te gusti txikerra, ganadueri emoteko (Ll.)" - (Lastoa ere txikitzen zen hor, lastoa artaburu eta guzti txikerra, ganaduari emateko)

lupue: lupua, artoaren gaixoa

masoa: mazutoa

"Maso bat laburre, astuntxue mokille yotekoa (Ll.)" - (Mazuto bat laburra, astuntxoa mokila jotzekoa)

masutoa: mazutoa, artoa astoan garantzeko erabiltzen dena

"Kanpoan dau bai, masutoa ta astoa daus or (Z.)" - (Kanpoan dago bai, mazutoa eta astoa dagoz hor)

sapea: sapa

"Ni nau esetute, ori, oin bere esaten da, sarrak eta sarrak, Patxo Egi esaten otzena, Patxo Egi seosegaittik esango eutzen, e, ta Patxo Añiberrekoa, edade bat antzekok siren, ta barberire yoanta, ta bakixu umek, ba barberire yoaten sirenean, a, ba, sarrari bere adittute aik esaten sittusenak, gause asko ta, oiñ, a, elixen andiko alderdiñ, Luis barberue egon san, berori etorri baño lentxuau, Luis barberien egon san ta ara yoate nitzen ni, beti, an, ta andi tte, batxen dire orrek, a, agurek, sarrak an, koyu olan, a sapea, preparau barik ekarten

deu, atzasalak gogorak, atzasalak andik asten dire oiñ, a, oin proba andi itten deude atzasalak sartzaron, atzasalak andik eta, grak grak! grak grak! ebai puntak alde bittekoak, ta bota ara Ebre esaten dakon tabakoa, lenau, Ebre esaten dakona, olau kaja kuadradu betzuk edo sera, petaka kuadradu betzuk, bota ara ta erdi bera, ta beste erdi an lotxen san, ta imiñi tte, emon sue ta, praa dariola suten bera bere ta paute paute paute fumaten (Z.)" - (Ni nago ezagututa, hori, orain ere esaten da, zaharrak eta zaharrak, Patxo Egi esaten ziotena, Patxo Egi zer edo zergatik esago zioten, eta Patxo Añiberrekoa, edade bat antzekoak ziren, eta bizartegira joanda, eta badakizu umeak, ba bizartegira joaten zirenean, ba zaharrei ere adituta haiek esaten zituztenak, gauza asko eta, orain, elizaren handiko alderdian, Luis bizargina egon zen, berori etorri baino lehentxoago, Luis bizartegian egon zen eta hara joaten nintzen ni, beti, han, eta handik eta, batzen dira horiek, agureak, zaharrak han, hartu holan, sapa hura, prestatu barik, ekartzen du, atzasalak gogorak, atzasalak handiak hazten dira orain, orain proba handia egiten dute atzazalek zahartzaroan, atzasalak handiak eta, grak-grak! grak-grak! ebaki puntak alde bietakoak, eta bota hara Ebra esaten zitzaion tabakoa, lehenago, Ebra esaten zitzaiona, holako kaxa karratu batzuk edo zera, petaka karratu batzuk, bota hara eta erdia behera, eta beste erdia han lotzen zen, eta ipini eta, eman sua eta, praa dariola sutan behera ere eta pauta-pauta-pauta erretzen)

trongoa: enborra, lastoa

txolea: txola

"Txole da, gabelle da ak, buruti gorantza dekona, ta txolea da, aikas amarraute itten dana (Z.)" - (Txola da, kabila da hark, burutik gorantz daukana, eta txola da, haiekaz amarratuta egiten dana)

txagiñ artoa: txagin artoa

14.7. BELARRA-ZEKALEAK

abea: oloa

alfafea: alfalfa

"Alfafea eraiñ eta urte bi edo iru barru, eskapau, aren barik lotu (Z.)" - (Alfalfa erein eta urte bi edo hiru barru, eskapatu, arean barik lotu)

allurbe: ailorba

askie: azki belarra

"Askie da, e, olau bedar sarratu bet, askie txarra da ebaitteko bere (Z.)" - (Azkia da, holako belar zarratu bat, azkia txarra da ebakitzeke ere)

ayen eskerra, aidxen eskerra: aihen azkarra

bedarra: belarra

bedarrartea: belar-artea

errosario bedarra: errosario belarra, soroetako belar parasitua

frantzesa: frantzes belarra

"Frantzesa andi aste san, baya ebai in ber ixeta san San Jose ingeruen, ba a itxun eitten da (Z.)" - (Frantzesa handi hazten zen, baina ebaki egin behar izaten zen San Jose inguruan, ba hura etzan egiten da)

garagarra: garagarra

ider baltza: ilar baltza

oloa: oloa

sebadea: garagarra

sekule bedarra: sekula belarra

tabako bedarra: usta belarra

txomin bedarra : txomin belarra

"Txomin bedarra bat, e, txarrena, es ganadueri kalte itteko ta es, ganadueri unikue, gose sasoyan edo iños emen, ebai tte iños emon tzea se gaurko aldean jentea atzera egoan ta, unikue itteuena san estemangue estropieue, beraskoa emon, kaltegarri (Ll)" - (Txomin belarra bat, txarrena, ez ganaduari kalte egiteko eta ez, ganaduari bakarrik, gose sasoian edo inoiz hemen, ebaki eta inoiz eman diote ze gaurko aldean jendea atzera zegoen eta, bakarrik egiten zuena zen urdaila hondatu, beherazkoa eman, kaltegarri)

ustei bedarra: usta belarra

"Ustei bedarra senaori modukoa da (Z.)" - (Usta belarra azenaori modukoa da)

14.8. LANDAREEN ATALAK

arantzea: arantza

arbigarea: arbigara

asala: azala

"Ori ixengo san baya ori, ori esan deunak esteko serik, erramea, matxetagas tiretan badako, asala ebaten dako, gastañeri, tte ori, ori esta, gantxoa euki neun neu pere eintte, edoseiñ alanbre bat, edo serak, edosein jeneroas amarrau puntan ta, bajau itteko, erramea bajau itteko (Z.)" - (Hori izango zen baina hori, hori esan duenak ez dauka zerik, abarra, matxetagaz tiratzen bazaio, azala ebakitzen zaio, gartzainari, eta hori, hori ez da, gantxoa eduki nuen neuk ere eginda, edozein alanbre bat, edo zerak, edozein gauzagaz amarratu puntan eta, bajatu egiteko, abarra bajatu egiteko)

asie: hazia

"Asi gero emoten dau, baya arten sartzen da onenbeste ingerun lurren barruen (Z.)" - (Hazia gero ematen du, baina artean sartzen da, honenbeste inguruan lurraren barruan)

astea: piper edo fruituen asta

astillea: ezpala

ayena, aidxena: aihena

begie: 1. begia errama bien arteko lotugunea. 2. baba garaua zerukari lotzekoa. 3. patatei egiten zaiena zilak irteteko

brotea: ernakatza

"A puntako brote txiki txikitxue surie olan, a, bigun bigune yan itten deu (T.)" - (Puntako ernakatz txiki-txikitxo hura zuria holan, bigun-biguna jan egiten du)

burue: burua; aza, letxuga, gari, eta abarrena

egurre: egurra

"Ta gora dau, egur bet, ba igual sein partike bat balitze modun dau sartute (Z.)" - (Eta gora dago, egur bat, ba beharba zein partika bat balitz moduan dago sartuta)

eperdie: ipurdia, arbolak botata lurrean lotzen dena

erbatza: erbatza

erpea: sustraia

erramea: adarra

errepollue: burua

erretxiña: erretxina

frutue: fruitua

garoa: garaua

garridxe: arbolaren enborra

kimea: kima

kuskurre: ezkurra

labarotea: laberotea

"Bueno bardiñek estires, baya bear bat eittekoak ori labarota ebateko kodaña da (E.)" - (Beno berdinak ez dira, baina behar bat egitekoak hori laberotea ebakitze kodaina da)

"Orduen, e, labarotak ebaten gendusen labasuek eitteko (E.)" - (Orduan, laberoteak ebakitzen genituen labasuak egiteko)

landarea: landarea

"Puntea falta eskeron piñuek esteu proba itten gero, klaro! beste landara batzuk eñ itten tzue albotik edo (T.)" - (Punta faltatuz gero pinuak ez du proba egiten gero, jakina! beste landare batzuek egin egiten dizute albotik edo)

lorea: lorea

"Sagarrak loran daus (Z.)" - (Sagarrak loran dagoz)

"Lurre bai, a lurre errekoa, erre itxen deudia lorantzako edo eroaten seudian (L.)" - (Lurra bai, lur hura errekoa, erre egiten dute lorentzat edo eroaten zuten)

malletue: mailatua

masmordea: mahats morda

mendue: mentua

mingotza: mingotza, berde mina

"Berdurek, e, berdurek mingotza eukitten dau, berdure batzuk mingotza dekea (La.)" - (Berdurak, berdurak mingotsa edukitzen du, berdura batzuek mingotsa daukate)

mordea: morda

moskola: moskola

mukurre: mukurra

muskille: muskila

nabo lorea: arbigara

ondoa: ondoa, landarea

orbela: orbela

orrie: orria

"Orrie ikusten bada, ba, doblata edo sera dauela, orrek sorrie deko (G.)" - (Orria ikusten bada ba, tolestuta edo zera dagoela, horrek zorria dauka)

palue: makila

"Paluetan eskeitxe, ta eroten seitxuesan beseguek, paluetan eskeitxe bai (K.)" -

(Makiletan eskegita, eta eroaten zituzten bisiguak, makiletan eskegita bai)

pintxoa: erbatza, arantza

"Arkasatza da ori, olan, a, ieten deu arbolara, onen moduko orrie, baya pintxotxue tekos (T.)" - (Arkasatza da hori, holan, igotzen du arbolara, honen moduko orria, baina arantzatxoak dauzka)

piñu artaburue: pinu burua

sarminttue, sarmintxue, sarminyue, txarminttue: sarmientua

"Baya matza klase askotara itten da se matza kasu beterako, bueno emen badau erpea, e? ta sarminyue badeko andie, suk, emen lurreti sartu siñe ta beste batek urteta otzu, ta gero ebai siño a, nai antza brotera bere itten da (E.)" - (Baina mahatsa era askotara egiten da ze mahatsa kasu baterako, beno hemen badago erpea, e? eta sarmientua badauka handia, zuk, hemen lurretik sar zenezake eta beste batek irteten dizu, eta gero ebaki zeniezaioke hura, nahi antza ernakatzera ere egiten da)

sepea: ondoa

serukea: indaba, ilarra eta abarren azala

"Seruketi inyabea soltetako (Ll)" - (Lekatik indaba soltatzeko)

sille: zila, kipula eta holakoen gara

sotza: zotza

sustraye, sustreya: sustraia

"Suk emen badekosu sarminyue sartute, eta, bueno igual mias dekosu, illedea, eta gero, ba, basoas, sarratuten, kasu beterako, suk ein siño, au lurrera sartu, ta edoseñek ori, e? ikoa be bardiñ orretara, edoseiñ, ta sartxe osu lurrera, ta gero emen sustrayek emoteittusenean, ba au ebai (E.)" - (Zuk hemen badaukazu samientua sartuta, eta, beno beharbada mehatz daukazu, ilara, eta gero, ba, bazoaz, ixten, kasu baterako, zuk egin zeniezaioke, hau lurrera sartu, eta edozeinek hori, e? ikoa ere berdin horretara, edozein, eta sartzen duzu lurrera, eta gero hemen sustraiak ematen dituenean, ba hau ebaki)

tronbille: tronbila

trongoa, tronkoa: enborra

txirpie: sarmientua

txortea: txorta

"Piper txorta tire onek (Z.)" - (Piper txortak dira hauek)

urkulue: urkulua

14.9. GAINERAKOAK

arbola landarea: arbola landarea

aritz asala: haritz azala

aritz errama: haritz abarra

arto inyabak: arto-indabak

asa orrie, asorrie: azorria

"Guk bedar batzuk emote otzegus olau, e, pistidxen, e, olau ser batzuk emote otzegus asorridxen barruen ta (M.)" - (Guk belar batzuk ematen dizkiegu holako, piztien, holako zer batzuk ematen dizkiegu aza-orriaren barruan eta)

"Bai asorrie edo, olaun barruen sartu, eta emoteutzeasan (Ll)" - (Bai azorria edo, holakoaren barruan sartu, eta ematen zizkieten)

berekas burue: berakatz burua

gastañe asala: gaztaina azala

indaba serukea: indaba zeruka

intxur asala: intxaur azala

nabo asie: arbi hazia

"Oin nabo asirik eleittike eraiñ, esta asitten, nabo, nekes ukusku su emen nabo (Z.)" - (Orain arbi hazirik ez liteke erein, ez da hazten, arbia, nekez ikusiko duzu hemen arbia)

patata begie: patata begia

piñu erramea: pinu abarra

piper asie: piper hazia

porru asie: porru hazia

txirpie: arbola ondoa

15. ANIMALIAK

Atal honetako animaliei buruzko hiztegia aurkezteko honako azpi-atalak egin ditugu: ugaztunak, txoriak, narrastiak eta anfibioak, arrainak eta intsektuak.

15.1. UGAZTUNAK

abidxia, abie: habia, ugaztunek egiten dutena ere habia da

ardillea: katagorria

arratoya: arratoia

"Arratoi antzeko bat ixen san a (At.)" - (Arratoi antzeko bat izan zen hura)

askunarra, askonarra: azkonarra

basauntze, baseuntze: basahuntza

baso txarrie: basurdea

basokatue, basakatue: basakatua

basordea: basurdea

erbi abie: erbi habia

erbie: erbia

"Ta ementxe kantetan, edo olgetan gabiltzesela, erbi bet, ortixi kamiñoti, selaitti, selan karra karraka yon san, kaserurik esan egon ordun te (A.)" - (Eta hementxe kantatzen, edo olgatzan gabiltzala, erbi bat, hortixik kaminotik, zelaitik, zelan karra-karraka joan zen, ehiztaririk ez zen egon orduan eta)

katumixerra: katamixarra

kirikolatza: kirikolatza

konejue: konejua

loboa: otsoa

lukie: lukia

"Lukie ba, klaro len olloak eta eroten seitxuesan baya oiñ esteku ollorik eta (M.)" - (Lukia ba, jakina lehen oiloak eta eroaten zituzten baina orain ez daukagu oilorik eta)

mixerra: muxarra

ogigastaya, ogeigastaya: ogigaztaia

"Arratoyak bakixu, aldea etzetan asko egoten sien lelau, se artaburu te serak, eta ikusi dauela iños, a, ba ogigastaya bastarra pete arratoi, talletuen eskapa batera ta bestera ta, sera, ogigastaya auren atzean, ta ogigastayak ensegida batxe ittusela ta serak, eta ollo pere bai, ollo pere, olan bakixu lelau etzeondotan iñ alau txabolatxuk eta okitten dusenak, eta ogigastayak, a, egasti pere bai ill (A.)" - (Arratoiak badakizu, baserrietan asko egoten ziren lehenago, ze artaburua eta zerak, eta ikusi duela inoiz, ba ogigaztaia bazterrak bete arratoi, teilatuan eskapatu batera eta bestera eta, zera, ogigaztaia euren atzean, eta ogigaztaiak behingoan batzen dituela eta zerak, eta oiloak ere

bai, oiloak ere, holan badakizu lehenago etxe ondoetan egin halako txabolatxoak eta edukitzen ditugunak, eta ogigaztaiak, hegaztiak ere bai hil)

"Ogigastaya txarra san, estaitx nik olloatara eitxen bauen ak (At.)" - (Ogigaztaia txarra zen, ez dakit nik oiloetara egiten zuen hark)

otzoa: hartza

sague: sagua

"Ori satorran moduko musturre ta saguen modukoa da ori, baya musturren igertan dako, musturre deko lusea, ostantzean sague da, saguen tamañukoa (T.)" - (Hori satorraren moduko muturra eta saguaren modukoa da hori, baina muturrean igartzen zaio, muturra dauka luzea, osterantzean sagua da, saguaren tamainukoa)

sagusarra: saguzaharra

satorra: satorra

sator suloa: sator zuloa

sator yoa, sator dxoa: sator joa

urtxakurre: urtxakurra

urugoya, uroya: hudoa, erreka txerria

15.2. TXORIAK

abie, abidxia: habia

"Nik neure etze alboan len baño ainbet txori geyau, ta ainbet abi geyau te ori ikusten dot (G.)" - (Nik neure etxe alboan lehen baino hainbat txori gehiago, eta hainbat habia gehiago eta hori ikusten dut)

amea: amea

amillotxea: amilotxa

antzarra: antzarra

"Orrek oiñ, ametik orrantza yoango dire, pio pio kantetan yoango dire ortik, antzarrak (M.)" - (Horiek orain, hamendik horrantz joango dira, txio-txio kantatzen joango dira hortik, antzarrak)

artatxorie: artatxoria, kurloia

"Oiñ artatxori banaka batzuk eta olaua pai, eta gero etorten dire txinyorak (Z.)" - (Orain artatxori banaka batzuk eta holakoak bai, eta gero etortzen dira txindorak)

atxarranoa: haitz-arranoa

bandea: taldea, saldoa

basollarra: basoilarra

"Basollarra txikerraua da, gangartxuegas ta, gangarra deko ollarran moduen (L.)" - (Basoilarra txikerragoa da, gangartxoagaz eta, gangarra dauka oilarraren moduan)

"Basollarra da politxena (M.)" - (Basoilarra da politena)

belea: belea

"Emen, e, egoten dire klase bat, baya beste batzuk neguen etorten direna taus, e, emen egoten diesanak diferentea tires arek anditxuauak, emen bertoko bela padaus beti berton oten diesanak (L.)" - (Hemen, egoten dira mota bat, baina beste batzuk neguan etortzen direnak dagoz, hemen egoten direnak desberdinak dira haiek handitxoagoak, hemen bertoko beleak badagoz beti berton egoten direnak)

bela baltza: bele beltza

bela sarra: beletzarra

berduloya: berderoia

bidegarroa, biregarroa: birigarroa

"Asi dire biregarrok pasean baator denporala (Z.)" - (Hasi dira birigarroak pasean badator denborala)

"Olan biregarro, biregarro bandadea datosenean, ta emen dabilzeseanean, ene ase denporala ein bear deuen! (M.)" - (Holan birigarroa, birigarro taldea datozenean, eta hemen dabilzanean, ene a ze denborala egin behar duen!)

durdurea, durdure: durdura

"Durdurea bai, onek gastela sosoak etorten diesenean arekas nastean etorten dies (L.)" - (Durdura bai, gastela zozo hauek etortzen direnean haiekaz nahastean etortzen dira)

"Unekadatan etorten da ori durdure (M.)" - (Unekadatan etortzen da durdura hori)

egaberea: hegabera

"Egaberak eta orre tasonean ya denporala (M.)" - (Hegaberak eta horiek datozenean ja denborala)

elaya, eleya, elia: elaia

"Elia pere ba, etze, portalian be igual eitxen deu abidxia (L.)" - (Elaiak ere ba, etxe, atarian ere beharbada egite du habia)

"Elayak onantza datosenean, ederto se udea dator, baya aik setienbren arantza martxetan deure, e? (Z.)" - (Elaiak honantz datozenean, ederto ze uda dator, baina haiek irailean harantz joaten dira, e?)

eperra: eperra

epertikerea, eperdikerea: epertikara, buztanikara

epetxa: epetxa, txepetxa

"Ifernuko errasea dala esaten da epetxa (L.)" - (Infernuko arraza dela esaten da epetxa)

"Segaitxik? ba, epetxak jangoikoari kaka in sotzolako burure, eta txinyortxuek ekar sotzon ure eta elayak garbitxu sotzon (M.)" - (Zergatik? ba, epetxak jangoikoari kaka egin ziolako burura, eta txindortxoak ekarri zion ura eta elaiak garbitu zion)

eskulaoa, eskolaoa: oskilaoa

gabilloya: gabirola

"Mirue ta gabilloya ixetan dire txitxek koisten ditzusenak (At.)" - (Mirua eta gabirola izaten dira txitxak hartzen dituztenak)

"Gabilloya txikerrao dalako, ta egas doble ariñao korridu (L.)" - (Gabirola txikerragoa delako, eta hegaz birritan arinago korritu)

galeperra: galeperra

gastela soso: gastela zozoa

"Arek gastela soso paño andidaxoak durdurek (L.)" - (Haiek gastela zozoak baino handiagoak durdurak)

"Orixe ta gastela soso batera etorten dices (L.)" - (Horixe eta gastela zozoa batera etortzen dira)

gauontza, gauentza, gabontza, geubontza: gauontza

"Guk, e, geu txoriri esate otzegu gauentza, orrek oin bai yoten deure, oiñ asitte ba, yoten deure orrek (Z.)" - (Guk, gau txoriari esaten diogu gauontza, horiek orain bai jotzen dute, orain hasita ba, jotzen dute horiek)

gautxorie: gautxoria

jaulea: kaiola

jilgeroa: jilgeroa

"Gaur jilgeroa asko ikusten da (G.)" - (Gaur jilgeroa asko ikusten da)

kanpo biregarroa: kanpo birigarroa

"Kanpo biregarrok esate otzegu guk (Z.)" - (Kanpo birigarroak esaten diegu guk)

kukue: kukua

"A da txoririk ba onena, kukuek aren abidxen eitxen deu arrotzea ta arek asten tzo umea gero, txinyorran abidxen kukuek eitxen deu arrotzea, ta gero arek asten tzo (L.)" - (Hura da txoririk ba onena, kukuak haren habian egiten du arrautza eta hark hazten dio umea gero, txindorraren habian kukuak egiten du arrautza, eta gero hark hazten dio)

kurlinkea: kurlinka

kurlinke andie: kurlinka handia

kurlinke txikerra: kurlinka txikerra

larratxorie: larratxoria

marti soso: marti zozoa

"Marti soso bestea sosoan modukoa, ariñau abidxie itxen deuelako esate otzia marti soso (L.)" - (Marti zozoa bestea zozoaren modukoa, arinago habia egiten duelako esaten diote marti zozoa)

mikea: mika

mingorra: mingorra

"Mingorra bai, bueno, ori kaseruentzako, itzela da, mingorra, piku luse lusiegas, ollogorra baño txikerra, ure dauen seratan oten da, ori lenau asko (L.)" - (Mingorra bai, beno, hori ehiztariantzat, itzela da, mingorra, moko luze-luzeagaz, oilagorra baino txikerragoa, ura dagoen zeretan egoten da, hori lehenago asko)

mirue: mirua

"Orrek estire miruek (G.)" - (Horiek ez dira miruak)

"Mirue etor san, a, erbi koitan (Z.)" - (Mirua etorri zen, erbia hartzen)

"Miruek eta eroten soksuesan bai (M.)" - (Miruak eta eroaten zizkiguten bai)

nabasi txorie: nabazi txoria

"Nabasitxorie pai arek txikitxuek (M.)" - (Nabazi txoriak bai txikitxo haiek)

okille: okila; honi entzuten zaionean, euria ei dakar

"Okille, emen, asko es, e? emen estau okill asko (Z.)" - (Okila, hemen, asko ez, e? hemen ez dago okil asko)

okil nausie: okil nagusia

okil txikerra: okil txikia

ollogorra: oilagorra

"Gurean basoan, orrek ollogorra pere ainbe pider il dittu, eta erbi bere bai tte, gure, emeti Mungire en jeneral emeti

solotati, eta ona etorte san, Juanita ixen sales, ain tiagas eskolan urte askoan eiñekoa, eta Juantxu! gure bason il yosu oin bere erbie edo, ba ollogorra edo il yosu te (A.)" - (Gurean basoan, horrek oilagorrak ere hainbat bider hil ditu, eta erbia ere bai eta, gurea, hemendik Mungira gehienetan hemendik soroetatik, eta hona etortzen zen, Juanita izan zenez, haren izekoagaz eskolan urte askoan eginekua, eta Juantxu! gure basoan hil dozu orain ere erbia edo, ba oilagorra edo hil duzu eta)

palomea: usoa

"Gabilloya okerra da, gabilloyak, e, palomia bere artes koisten deu, paloma andidxek (L.)" - (Gabirola okerra da, gabirolak, usoa ere artez hartzen du, uso handiak)

paloma nausie: uso nagusia

paloma txikerra: uso txikia

pardilloa: pardiloa

pepetxiñe: pepetxina, amilotxa

pasoa: pasoa

patoa: ahatea

pipitxea: pipitxa, txori honek euria ei dakar

pospoliñe: pospolina, galeperra

sasitxorie: sasitxoria

soso: zozoa

"Andidxe esta soso baño anditxuaoa edo olan (L.)" - (Handia ez da zozoa baino handitxoagoa edo holan)

txinboa: txinboa

txindorra, txinyorra: txindorra

"Ote san, a, esakera bat, lenau, a, epetxak, a, Jesukriston irudidxeri, ba korotza i eutzela, ta txinyorrek garbitxu (L.)" - (Egoten zen, esakera bat, lehenago, epetxak, Jesukristoren irudian, ba gorotza egin ziola, eta txindorrek garbitu)

txintxarte: txintxarta

txioa: txioa

txirrie, txirripirrie: txirria

"Txirripirri, ariñ eitxen deu orrek egas, txirripirri (L.)" - (Txirria, arin egiten du horrek hegaz, txirria)

txirtea: txirta

txontea: txonta

txorie: txoria

"Estau txoririk, a, andirik, ariñao eitxen deuenik (L.)" - (Ez dago txoririk, handirik, arinago egiten duenik)

txori abia: txori habia

txorikumea: txorikumea
txotoa: txorien txotoa
umaldie: umaldia
urru medea: urrumada

15.3. NARRASTIAK-ANFIBIOAK

berenoa, benenoa: pozoia
"Beneno asko dekola esaten saudean (A.)"
Pozoi asko daukala esaten zuten)
"Berenoa eukitxeuen ak (At.)" - (Pozoia edukitzen zuen hark)
biborea: larrasugoa, larrasugea
lantzeta, lantza: sugearen lantza, eztena, miztoa
larra sugoya: larra sugoa
"Lenau bai, basoatan ibiltxe san larra sugoya (L.)" - (Lehenago bai, basoetan ibiltzen zen larra sugoa)
lupue: lupua, arrabioa
muskerra: muskerra
"Muskerrak emen, e, fama txarra eukitxeuen (At.)" - (Muskerrak hemen, ospe txarra edukitzen zuen)
puntzeta: sugearen lantza, eztena, miztoa
saguntxille, saluntxille, sumintxille: sugelandarea
"Sumintxille ta muskerra, orma silloatati urtenta berotan, sumintxille (At.)" - (Sugelandarea eta muskerra, horma zuloetatik irtenda berotan, sugelandarea)
sapaburue: zapaburua
sapoa: zapoa
siroya : zirauna
sugoya, sugoa: sugoa
"Kanpon beyek eta serak olan itxi, eta edan, errapeti sugoyak esnea (A.)" - (Kanpoan behiak eta zerak holan utzi, eta edan, errapetik sugoiak esnea)
"Seren, sugoyak, bason beyek, e, ibilli, eta esne edan, ori bai, ori sarritten aitteri entzun dotzet esaten (A.)" - (Zerean, sugoiak, basoan behiak, ibili, eta esnea edan, hori bai, hori sarritan aitari entzun diot esaten)
"Beyeri errapetik esnia edan, kanpoan, sugoyak, bai (M.)" - (Behiari errapetik esnea edan, kanpoan, sugoiak, bai)
"Esnia asko gustetan dakea sugoyari (M.)" - (Esnea asko gustatzen zaie sugoiei)

sugoikumea: sugekumea
"Ori entzun dot iños, ba sugoikumea uretan egon eta ure edan eta selan barrun asi bai (A.)" - (Hori entzun dut inoiz, ba sugoikumea uretan egon eta ura edan eta zelan barruan hazi bai)
urgeixoa, urgerixoa: urgarixoa

15.4. ARRAINAK-ITSASKIAK

angirea, angillea: angira
arrañe: arraina
arrankarie: arrankaria
barboa: barbua
kangrejue, kangrejoa: karramarroa
karramarroa: karramarroa
kiskille, kiskillue: kiskailua
lapea: lapa
mojojoya: mojojoi

15.5. INTSEKTUAK

akana: akaina
"Akana txikerra baya ya, akana urreo egunean itzela dekosu (T.)" - (Akaina txikerra baina ja, akaina hurrengo egunean itzela daukazu)
arañea: aramua
ar berdea: har berdea
"Orrek, a, ar berdea esate otzegu guk, ar berdea tire ta txarra tire, e? (Z.)" - (Horiek, har berdea esaten diegu guk, har berdeak dira eta txarrak dira, e?)
ardie: ardia, arkakusoa
ar gorrie: har gorria
"Ar gorrie, au, e, geyen ikusten dana, ona baño esta, se orrek, e, lurre ondu baño estau itxen (G.)" - (Har gorria, hau, gehien ikusten dena, ona baino ez da, ze horrek, lurra ondu baino ez du egiten)
armotroa: har-motroa
"Kotxoa, armotroa, orre tire, e, esteke diferentzi andirik (G.)" - (Kotxoa, har-motroa, horiek dira, ez daukate desberdintasun handirik)
arra: harra
"Arrak aspitti suloa eroten deu, artoari, baya orrek es, orrek puntea yateotzea (Z.)" - (Harrak azpitik zuloa eroaten du, artoari, baina horiek ez, horiek punta jaten diote)

"Karkaba ataten arrak urtetan deu beti, ba lantzen ar batek urtetan deu (T.)" - (Karkaba ateratzen harrak irteten du beti, ba lantzean har batek irteten du)

ar yoa, ar dxoa: har joa

barakille: barea

baspie: bazpia, bartza

bitxoa: mamarroa

"Uriolak aure pere ekarten deudea bitxo asko (G.)" - (Uriolak eurek ere ekartzen dute mamarro asko)

eltxoa: eltxoa

epertargie: epetargia

erugea: eruga

"Eurie takarrena baño, geixoa nik pentzetan dot, piñuek lorara datorrenean, eitten dakea erugea, ta ak erugeak botaten deun, a, bellegi bellegie sarri, eta, ba nire semeak, ibil ye, amar urtean edo piñudiek, suñek euki euen, a, edo suegroak serria, eta epoka onetan, esin yoan ixetan san basora, se sartxe akon alerji bet, se orrek erugeak eitte ittus boltzak, t'aitan eitte ittues umiak, eta ak ataaten deu berenoa, baya, baya (Z.)" - (Euriak dakarrena baino, gaixoa nik pentsatzen dut, pinuak lorera datorrenean, egiten zaie eruga, eta eruga hark botatzen duen, beilegi-beilegia sarri, eta, ba nire semeak, ibili da, hamar urtean edo pinudiak, suhinak eduki zuen, edo aitagarrebak zerratokia, eta sasoi honetan, ezin joan izaten zen basora, ze sartzen zitzaion alerjia bat, ze eruga horrek egiten ditu poltsak, eta haietan egiten dituzte umeak, eta hark ateratzen du pozoia, baina, baina)

eskarabajoa: eskarabajoa

"Gorrie eskarabajoa bai, ori txiki txiki txikitxue, gorrie, asko, gero beste batau eskarabajo andiaua, baya ak egas eitten deu, baterik bestera, ak egas eitten deu, ba ori gorrie, lelengo, orrek, a, egas eitten deuenak eitten deu, patatean aspian, ojean aspian, arrotzek, t'aik arrotze tire baltzak, eta andik yayoten da, eskarabajoa, b' eskarabajoa da, gorri gorri gorri dana paretan dana gero (Z.)" - (Gorria eskarabajoa bai, hori txiki-txiki-txikitxoa, gorria, asko, gero beste bat dago eskarabajo

handiagoo, baina hark hegaz egiten du, batetik bestera, hark hegaz egiten du, ba gorri hori, lehenengo, horrek, hegaz egiten duenak egiten du, patataren azpian, orriaren azpian, arrautzak, eta arrautza haiek dira beltzak, eta handik jaiotzen da, eskarabajoa, ba eskarabajoa da, gorri-gorri-gorri dena paratzen dena gero)

"Eskarabajoa bai, esetu gendun, guk gure denporan, karo orduen detano gora bera ixeten san (G.)" - (Eskarabajoa bai, ezagutu genuen, guk gure sasoiaren, jakina orduan detano gora-behera izaten zen)

esparea, espadia: ezpada

eulie aulie: eulia

"Euliek? berde berdea taus batzuk (T.)" - (Euliak? berde-berdeak dagoz batzuk)

"Txakurren bat iltte badau edo ganadue edo, orre tire, orre tire euli klase diferentek (T.)" - (Txakurren bat hilda badago edo ganadua edo, horiek dira, horiek dira euli mota desberdinak)

euli espadea: euli ezpada

"Euli espadea ori kaballoak eta eukitten deudena ixengo da busten aspian (T.)" - (Euli ezpada hori zaldiek eta edukitzen dutena izango da buztan azpian)

euli mandoa, auli mandoa: euli mandoa

gaune: gauna, aramu sarea

grillue: txirri-txirria

ifernuko katue: infernuko katua

"Ifernuko katue, ser esango tzu pa? olau bitxo ba ta, aonen tamañu ingerukoa, berdiskea (T.)" - (Infernuko katua, zer esango dizut ba? holako mamarro bat da, haonen tamainu ingurukoa, berdexka)

iñurrie: inurria

kakarraldoa: kakarraldoa

kaparra: kaparra

"Kaparra da bat, akana diferentea da, akana txupe ta lodittan da, ya tripe itzela itten dako, kaparra es, kaparra beti da igual, ta korridu (T.)" - (Kaparra da bat, akaina desberdina da, akaina xurgatu eta loditzen da, ja tripa itzela egiten zaio, kaparra ez, kaparra beti da berdina, eta korritu)

karakola: barraskiloa

kotxoa: kokoa, kotxoa

"Artoari eitten dako kotxoa, arra (Z.)" - (Artoari egiten zaio kotxoa, harra)

"Kotxoa, lurren barruen egoten da (G.)" - (Kotxoa, lurraren barruan egoten da)

kukaratxea: labe zomorroa

lupue: lupua

"Lupue tire, ba, alan, a, se esango tzut nik? seres betekoak, lumetxas bete bete betekoak, marroi illun illun betzu tire lupuek eta puntea yateotzea (Z.)" - (Lupuak dira, ba, halan, zer esango dizut nik? zerez betekoak, lumetxaz bete-bete-betekoak, marroi ilun-ilum batzuk dira lupuak eta punta jaten diote)

lur txakurre: lur txakurra

"Lur txakurre soloan dau baya, lurren aspittik, atxurreas edo ataate osu ños lur txakurre, esta andie, onen ingerukoa da (T.)" - (Lur txakurra soroan dago baina, lurraren azpitik, aitzurragaz edo ateratzen duzu inoiz lur txakurra, ez da handia, honen ingurukoa da)

mamarroa: mamarroa

"Bai mamarrotxu be ta, bai, alan gorritxu bet, gona gorridune (M.)" - (Bai mamarrotxu bat da, bai, halan gorritxu bat, gona gorriduna)

mariposea: txirpilota

maritxu talletako: maritxu teiletakoa, marigorringoa

mari urkulue: mari urkulua, mari artazia

moskittue, moskitxoa: eltxoa

pikedea: ziztada

saltamatxinoa, **saltamatxiñoa:**
saltamatxinoa

"Josus! saltamatxiñoak eta, bueno semet klasetakoak! armotroak, aonen tamañuko armotroak, oin bere asko dau orretariko armotroa, e? eta landara klasea, geyena yate otzue, trongoa, erpea yate otzea (Z.)" - (Josus! saltamatxinoak eta, beno zenbat motatakoak! har-motroak, haonen tamainuko har-motroak, orain ere asko dago horietariko har-motroa, e? eta landare mota, gehienak jaten dizute, enborra, erpea jaten diete)

sardiñera: mari urkulua

"Sardiñera, atzean deko ak, sera, ta ak miñ eitten dau (Z.)" - (Mari urkulua, antzean dauka hark, zera, eta hark min egiten du)

sardiñera kotxoa: mari urkulua

sitze: sitsa

sorgin mitxie: txirpilota

sorri baltza: zorri beltza

sorri berdea: zorri berdea

sorrie: zorria

"Sorrie itten dako bañeari, tomateari, amen euki ot nik asalga bat, amen, e, bentanean aurrean, eta eztotzo itxi asie itten bere, baltz baltz baltz ein yeu, a, sorriek, ta bañeari bere asko itten dako (Z.)" - (Zorria egiten zaio bainari, tomateari, hamen eduki dut nik azelga bat, hamen, leihoaren aurrean, eta ez dio utzi hazia egiten ere, beltz-beltz-beltz egin du, zorriak, eta bainari ere asko egiten zaio)

sorrikumea: bazpia, bartza

txintxea: tximintxa

urebioa, urubioa, urubidxoa: urubioa, kurubioa

usena: izaina

16. BEHARRA

Atal honetan nekazaritza eta abelazkuntza ez diren garaiteko ogibideen gainerako berbak emango ditugu. Horretarako, ogibideak, arotza, hargintza, errementaritza eta perragintza izeneko azpiatalak bereiziko ditugu.

16.1. OGIBIDEAK

abarketerue: abarketa egilea

abogadue: abokatua

"Pedro Lauro tratante bat san, eta, kiebra ei eun, ta, abogaduana yon san" - (Pedro Lauro tratante bat zen, eta, kiebra egin zuen, eta, abokatuagana joan zen)

aguasille, agosille: aguazila, udaltzaina

"Eta frakakas enbra pere, se Mungin geu pere esetu du, etorri Bilbotik, e, neskato bat, ta frakakas, eta aguasillek despatxau (K.)" - (Eta prakakaz andrazkoak ere, ze Mungian geuk ere ezagutu dugu, etorri Bilbotik, neskato bat, eta prakakaz, eta udaltzainak bota)

albañela, albañila: igeltseroa

"Nik, e, ba, neure, neure edadekoak eta, ba albañilak eta arotzak eta, ba lagunek, esetu eta ba, talle bodea euki du pasa dan sapatuen edo olan bai (K.)" - (Nik, ba, neure, neure edadekoak eta, ba igeltseroak

eta arotzak eta, ba lagunak, ezagutu eta ba, teila-boda eduki dugu pasatu den zapatuan edo holan bai)

aldeanea, aldianea: baserritarra, nekazaria (f.)

aldeanue, aldianue: baserritarra, nekazaria (m.)

"Laburtu edo bai, se goitxik, goitxi berantz, beko puntetxue itxitxe, ba ori, tratantiak en jeneral, aldianuek ori esteu eiñ en jeneral, tratantiak politxo egon daitxen feridxen atarateko, goitxi berantz, bian puntetxue itxitxe, me me imiñi bustena (M.)" - (Laburtu edo bai, ze goitik, goitik beherantz, beheko puntatxoa utzita, ba hori, tratanteak gehienetan, baserritarrak hori ez du egin gehienetan, tratanteak polito egon dadin azokan ateratzeko, goitik beherantz, behean puntatxoa utzita, mehe-mehe ipini buztana)

alogerekoa: alogerekoa

aministradorea, amistradorea: administradorea

"A goiko etze sarra erreta dauna ta an obrak ein ttusena, an etze sarrean euki gendun aministradorea (E.)" - (Goiko etxe zahar hura erreta dagoena eta han obrak egin dituztena, han etxe zaharrean eduki genuen administradorea)

aña: inudea

aña freska: inude freska

aña seka: inude sikua

argiñe: hargina

"Nire aittek ekarte sosten, ba, etzeak eta eiñ, a, sera ixen san, argiñe ixen san ta (T.)" - (Nire aitak ekartzen zidan, ba, etxeak eta egin, zera izan zen, hargina izan zen eta)

asur imintzailia, asur imintzaille: hezur ipintzailea

"Asur imintzaille bata Mungin, Mungiñ egon san (A.)" - (Hezur ipintzailea bata Mungian, Mungian egon zen)

"Asur imintzailia non oten san? (At.)" - (Hezur ipintzailea non egoten zen?)

barberue: barberoa, bizargina

"Gorantza goasela eskerretara, eta an, ba, barberu egon san (Z.)" - (Gorantza goazela ezkerretara, eta han, ba, bizargina egon zen)

basurerue: barrenderoa, kale garbitzailea

bayerue: bahe saltzailea

beargiñe: behargina

beterenaridtxoa, betenaidtxoa, beterenario, beteranadtxoa, beternarioa: albaitea

"Ganadue tratetako, lenau emen egon siren beterenarioak, ba! emoixu emoixu geuse biguntxue emoixu te ikus deigun, ikus deigun setara doan, ikus deigun, yateko gitxitxu te, ur otzik es emon, gitxi emon, e? emototzosunean gitxi emon ta, suabe suabe ta orretan, edo papeletaran bat eutzen batzuk, e, emoten tzuesan ta, a emon botilleti uregas, erremedio gitxi, gustis gitxi! (Ll)" - (Ganadua tratatzeko, lehenago hemen egon ziren albaitea, ba! emaiozu emaiozu gauza biguntxoa emaiozu eta ikus dezagun, ikus dezagun zertara doan, ikus dezagun, jateko gutxitxo eta, ur hotzik ez eman, gutxi eman, e? ematen diozunean gutxi eman eta, suabe-suabe eta horretan, edo papeletaren bat hautsen batzuk, ematen zizkizuten eta, hura eman botiletik uragaz, erremedio gutxi, guztiz gutxi!)

bonberue: suhiltzailea

enkargadue: enkargatua

erradorea: perratzailea

errematante: erremataria

"Gure aitxe bere orretariko ixen san, errematante edo orretariko ta, segun errematea euki basendun, a, alderri beten, ba ak deretxoak kobretauen, an, sartu basan ardaa, ta sartxen baseuen gaues edo ba esendun kobretan (K.)" - (Gure aita ere horietariko izan zen, erremataria edo horietariko eta, segun erremata eduki bazenuen, alderdi baten, ba hark eskubideak kobratzen zituen, han, sartu bazen ardaa, eta sartzen bazuen gauez edo ba ez zenuen kobratzen)

errotarie: errotaria

eulia: ehulea

"Etzian eiñ aridxe, eulia esate dxakon gero eitxen deuenari, ta ak eiñ eta gero ixerak eiñ (At.)" - (Etxean egin haria, ehulea esaten zitzaion gero egiten duenari, eta hark egin eta gero izarak egin)

"Eulia, baya eulia emekoa esan ixen, gero akabuen bixi ixen san emen (Em.)" - (Ehulea, baina ehulea hemengoa ez zen izan, gero azkenean bizi izan zen hemen)

fruterea: fruta saltzailea (f.)
fruterue: fruta saltzailea (m.)
guardea: basozaina
jornalerue: alogerekoa
jubiladue: jubilatua, erretiratua
kamarerue: zerbitzaria
kamiñerue: kamineroa, bide konpontzailea
karniserue, karnaserue: harakina
karreterue: karretero, itzaina
"Ego nas, Gastelu karreteru dala ordun, o esan ta o esan ta, arik eta basea daun lekurartean eron (E.)" - (Egon naiz, Gaztelu karretero dela orduan, o esan eta o esan eta, harik eta basa dagoen lekuraino eroan)
karterea: postari andrazkoa
karterue: postari gizonezkoa
kinkillerue: kinkailsaltzailea
kobradorea: kobradorea
kosiñerea: sukaldaria (f.)
kosiñerue: sukaldaria (m.)
kriedea, kridxedia: kriada, neskamea (f.)
"Ni krieda yoa nitzen, e, gaste gastetan (Ll.)" - (Ni neskame joan nintzen, gazte-gastetan)
"A egon san agas krieda ordun (E.)" - (Hura egon zen haregaz neskame orduan)
kriedue, kridxedue, kridue: kriadua, morroia
"Ori bota daude kriedu (Z.)" - (Hori bota dute morroi)
"Ni ara yoa nitzen kridu (E.)" - (Ni hara joan nintzen morroi)
letxerea: esneketaria (f.)
letxerue: esneketaria
mariñerue: marinela
matarifea: matarifea, piztia hiltzailea
"Ori trapun asuntue, odolagas, a, mantxe seditten, baya ostantzean es, e? ondo sangretan badure, andik estator, a, eta, ba narras eroteko edo ba batzuk, batzuk tekea kostunbrea baya, bada matarife ona, lelengo serean sartxe otzea, ta biotza piketan deueles, ba, ataraten da odola, ta batzuk odola bere, klase bittera koiten dure, gatza, baldera bota gatza, eta lodittu seditten, gogortu seditten odola, ni neuk iños estotzet bota (Z.)" - (Trapuaren gora-behera hori, odolagaz, lohitu ze dadin, baina

osterantzean ez, e? ondo odolusten badute, handik ez dator, eta, ba narras eroateko edo ba batzuek, batzuek daukate ekandua baina, bada matarife ona, lehenengo zerean sartzen diote, eta bihotza pikatzen duenez, ba, ateratzen da odola, eta batzuek odola ere, era bitara hartzen dute, gatza, baldera bota gatza, eta loditu ze dadin, gogortu ze dadin odola, nik neuk inoiz ez diot bota)

medikue: medikua

"Medikuana dxoaten san, ta etzera ekarri medikue gaixori tauenean (At.)" - (Medikuagana joaten zen, eta etxera ekarri medikua gaixorik dagoenean)

mielerue: ezti saltzailea

"Or dator mielerue (A.)" - (Hor dator ezti saltzailea)

obrerue: behargina, langilea

ofisioa, ofisidxo: ogibidea

"Amen gure sasoyan dana ixen san ofisioa, edo albañiltzan, edo arotzien, edo orretan, se esan egoten fabrikarik (K.)" - (Hamen gure sasoiaren dena izan zen ogibidea, edo igeltserotzan, edo arotzian, edo horietan, ze ez zen egoten fabrikarik)

oialaterue: iturgina

panaderue: okina

"Eta seme bi euki sittusen panaderuek (Z.)" - (Eta sene bi eduki zituen okinak)

parterea: emagina

"Partereagas egoten san, a, aldeetzetan (Ll.)" - (Emaginagaz egoten zen, baserrietan)

pastorea: artzaina

"Nire nebea ameriketean pastore dau (Z.)" - (Nire neba Ameriketean artzain dago)

"Gipuskoatik ona, etorte siren, oñes, oñes etorte siren, aitte, eta seme bi, iru, ardiekas, etapak, eurek etapak uki sittusen artute, etzeak, eta geur, a, ba kilometraje bat, bier beste bat, eta lo bidean eitten suren, eta allegetan siren, a, ona (Z.)" - (Gipuzkoatik hona, etortzen ziren, oinez, oinez etortzen ziren, aita, eta seme bi, hiru, ardiakaz, etapak, eurek etapak eduki zituzten hartuta, etxeak, eta gaur, ba kilometraia bat, bihar beste bat, eta lo bidean egiten zuten, eta ailegatzen ziren, hona)

"Pastoreak bakarrik, a, bedarra, bedarra saldu, dauena (T.)" - (Artzainak bakarrik, belarra, belarra saldu, dagoena)

"Pastorea gure ixeta euden usabak, se gero fasillau labreta san, a, soloa bedarrak, e, erdiek garbi garbi imintteuden, ta labre itte sales dana, garie ta artoa ta, es oingo moduen, dana labreta san orduen (T.)" - (Artzaina gura izaten zuten uzabek, ze gero errazago lantzen zen, soroa belarrak, erdiak garbi-garbi ipintzen zituzten, eta landu egiten zenez dena, garia eta artoa eta, ez oraingo moduan, dena lantzen zen orduan)

pelukerea: ile apaintzailea

peskadoria: arrantzalea

peskaterue: arrain saltzailea

pintxea: ofizialaren laguntzailea

"Ni asi nitzen, e, ba amalau urte in barik, asi nitzen beste, a, barberi beten asi nitzen pintxe, eta lelengo igual, e, sei illebete edo giau ego nitzen adi (K.)" - (Ni hasi nintzen, ba hamalau urte egin barik, hasi nintzen beste, bizartegi baten hasi nintzen pintxe, eta lehenengo beharbada, sei hilabete edo gehiago egon nintzen adi)

sakerue: zaku-eroslea

"Ori ondiño Mungiko sakeru bixi da (A.)" - (Hori oraindino Mungiako zaku-eroslea bizi da)

sapaterue: zapataria

sardiñerea: sardinera, arrain saltzailea

segalaridxe: segalaria

sekretarioa, sekretaridxo: idazkaria

"Orduen egon san, a, Justo sekretarioa, ayuntamientuen, katikarra ixen san a, eta Justo ta beste lesamar bi ibil siren etzeari tasasiñoa emoten, t'aik emotzean tasasiñoa sei mille ogerleko oneri etzeari (E.)" - (Orduan egon zen, Justo idazkaria, udaletxean, gatikarra izan zen hura, eta Justo eta beste lezamar bi ibili ziren etzeari tasazioa ematen, eta haiek eman zioten tasazioa sei mila ogerleko etxe honi)

serrarie: zerraria

"Beko kalean on siren kiputzek eta, lenauko, serrariek eta esateutzeanak eta, ain familiek sirelakoa neuk entzutea, aitte defuntueri beintzet (L.)" - (Beheko kalean egon ziren giputzak eta, lehenagoko, zerrariak eta esaten

zietenak eta, haien familiak zirelakoa neuk entzutea, aita defuntuari behintzat)

sesterue: otzara egilea

tabernerue: tabernaria

telerue: ehun saltzailea

txarrisiñe: txerrizaina, txerri saltzailea

"Emen txarrisiñek bertoko gixona pere asko egon siren, bertoko aldeatakoa pere (L.)" - (Hemen txarrizainak bertoko gizonak ere asko egon ziren, bertoko baserrietakoak ere)

"Txarrisiñe? txarriseiñek serean on siren Gerniken (At.)" - (Txerrizaina? txerrizainak zerean egon ziren Gernikan)

"Felipe txarrisiñe, ixen san, ta ori ixen san Gernike aldekoa edo, Mungidxeke ferire ta etorte san (At.)" - (Felipe txerrizaina, izan zen, eta hori izan zen Gernika aldekoa edo, Mungiako azokara eta etortzen zen)

txatarrerue: txatarrerua

txoferra: txoferra

yoskillea, dxokillia: joskilea, jostuna

"Yoskillea igual ote san egun bet edo bien, e, yosten aik, akabeu arten (M.)" - (Joskilea beharbada egoten zen egun bat edo bian, josten haiek, amaitu arte)

yostune, dxostune: jostuna

"Bai, ba sein sarrak arregleu sein tela barriegas, arkondara pere lenau etzean eitxe siren, fraka pere bai, eta oingo moduen yosiko erroparik esan egon orduen, lenau esan egon yositxe erroparik, eta, ba yostunek ibiltxe siren, lantzean etze batera (M.)" - (Bai, ba zein zaharrak konpondu zein ehun berriagaz, alkondarak ere lehenago etxean egiten ziren, prakak ere bai, eta oraingo moduan josiko arroparik ez zen egon orduan, lehenago ez zen egon josita arroparik, eta, ba jostunak ibiltzen ziren, lantzean etxe batera)

16.2. AROTZA

arotza: arotza

"Arotzak olaas eitxen deu te geuk, e, arridxegas (L.)" - (Arotzak ohologaz egiten du eta geuk, harriagaz)

arotzie: arotzia, aroztegia

"Neu bai ibil nas arotzien, bai bost urte soldadu yoan artean ei nendusen se ni ixen nitzen famelien gasteena (E.)" - (Neu bai

ibili naiz aroztegian, bai bost urte soldadu joan arte egin nituen ze ni izan nintzen familian gazteena)

astea: asta, kirtena

birbikiñe: birbikina, egurra zulatzeko erabiltzen den laratro berdingo antzekoa

egur takoa: egur takoa

egur totxoa: egur totxoa

erreminttea, erremintxia: erreminta

"Gixonantza ta akabuko erreminttea ori kodañea (E.)" - (Gizonarentzat da azken erreminta kodaina hori)

eskuadrea: eskuadra

formoya: formoia

garlopa: garlopa

ginbeleta: ginbaleta, egurra zulatzeko erabiltzen den laratrorik txikerrena

laratrillea: laratrillea, egurra zulatzeko erabiltzen dan erreminta, laratroa baino arean txikerragoa

"Laratrillea da beste bat (E.)" - (Laratrila da beste bat)

laratroa, laatroa: laratroa, daratulua

"Baya laratroa, daus, desberdiñek, batzu taus belarribakoak eta beste batzuk belarribakoak (E.)" - (Baina laratroa, dagoz, derberdinak, batzuk dagoz belarribakoak eta beste batzuk belarribakoak)

"Laatroa, andie da, otamairu milimetrokoa (Ll.)" - (Laratroa, handia da, hogeita hamahiru milimetrokoa)

limea: lima

mallue: mailua

masue: mazua

ojia: zerraren ahoa

porrea: porra, mailu mota bat

serra ola: zerra ohola

serra: zerra

serreridxe: zerra lekua

serrriñe: zerrautsa

serrotea: zerrota

taluse: enborrari egiten zaion ebakia kapatu eta ostean; ebaki hau ez da artez egiten

tenesak: tenazak

tornilloa: torlojua

tornue: dornua

"Sufaton serak arriek bakixu selau tiren, olauxe arriek, an barruen sartu, gero tornillogas ixi, tornues, ta ure botaten sakon goittik (La.)" - (Sulfatoaren zerak

harriak badakizu zelakoak diren, holakoxe harriak, han barruan sartu, gero torniloagaz itxi, dornuagaz, eta ura botatzen zitzaion goitik)

trontzea: trontza

txirlora: txirlora

untzea: untzea, iltzea

"Untzea pere geuk eitten dus (E.)" - (Iltzeak ere geuk egiten ditugu)

"Aune pere euki deittu, lengo obrakoak untze barik eintte (Ll.)" - (Haonek ere eduki ditu, lehengo obrakoak iltze barik eginda)

16.3. HARGINTZA

argiñe: hargina

arridxe: harria

arri autze: harri hautsa

bufardea: bufarda, harria lantzeko erabiltzen den mailua

"Bufardea, batzu taus, e, malluen modukoak, agiñekas, ta beste batzu taus, e, askorean modukoak baya agiñekas (L.)" - (Bufarda, batzuk dagoz, mailuaren modukoak, haginakaz, eta beste batzuk dagoz, aizkoraren modukoak baina haginakaz)

mallue: mailua

masetea: mazeta

palanke: palanka

"Ba tiroa bota arren arridxek, e, soltukoak kentxen direnean, batzuk, e, gatx lotxean dire ta arekas, koyu palankeas ta (L.)" - (Ba tiroa bota arren harriak, soltatukoak kentzen direnean, batzuk, gaitz lotzen dira eta haiekaz, hartu palankagaz eta)

pikotxoya: pikatxoa

punterue, punteroa: punteroa, harria lantzeko erabiltzen den erreminta

sintzela, sintxela: zintzela

16.4. ERREMENTARITZA

ara arrie: zorrozteko harria

auspoa: hauspoa

bujamantea: bujamanta

burriñe: burdina

erradorea: perratzailea

erradoridxe, errerie: perralekua

erradurea: perra

"Erradurea imintxen tzet (M.)" - (Perra ipintzen diot)

errematxea: errematxea

errementarie: errementaria

"Emekoak, ordun sasoyan errementari bakarrik, e, ganaduena eta kaballerie, baya eukitxeudean sano bear asko (K.)" - (Hemengoak, orduan sasoiaren errementari bakarrik, ganaduena eta zalditeria, baina edukitzen zuten sano behar asko)

"Aor, amen berau beste ba pere bai, amen kalean on siren bi, au errementari kalea orraitxi ta, bi egon siren sikan emen (K.)" - (Haor, hamen beherago beste bat ere bai, hamen kalean egon ziren bi, hau errementari kalea horregatik da, bi egon ziren behintzat hemen)

errementari untzea: errementari iltzea

euntegidxe, untegidxe: animaliak perratzeko erabiltzen den armadizoa

"Untegidxe Gerniken erosi neuen gero (M.)" - (Ehuntegia Gernikan erosi nuen gero)

galtzairue: galtzairua

limea: lima

mallue: mailua

sutegie: sutegia

"Sutegien berotu itteuden, gorritute imiñi, askorea mallueas suntu, eta gero uretan sartuteuen baya, a yakin bear ixetan san, e, se denpora, edo se, se a gogor eiñeskiño gero satie soltateuen arek (E.)" - (Sutegian berotu egiten zuten, gorrituta ipini, aizkora mailuagaz zuntu, eta gero uretan sartzen zuten baina, hura jakin behar izaten zen, ze denbora, edo zer, ze hura gogor eginez gero zatia soltatzen zuten hark)

tenesak: tenezak

tenplea: tenplea

"Baya an ur barik ibillieskero, erre itten datzu, tenplea galdu itten da (E.)" - (Baina han ur barik ibiliz gero, erre egiten zaizu, tenplea galdu egiten da)

txatarra: txatarra

ugerra: ugerra

"Ugerra da, pikeu itten da (Z.)" - (Ugerra da, pikatu egiten da)

untzea: iltzea

untze yoa: iltze joa

"Amen ote san, sapatuten egote san, e, ba plasea, baserriko jentea etorte san tomatea eta, ta etorte siren danak astoatan edo saldi karroa edo, baya geyena astoa, eta au oin dauen etzea, emen on siren ba, arbolak, au dana ixen san arboladie, eta emen, e, eongo siren igual amarrata eun asto inguru, se arbolarik arbolara ote san imintxe, katea, eta katetan amarraten siren, eta errementariak orrek, igual, e, sapatuko ba igual eingo seuden ogetamar edo ogei batzutan, beste batzutan ogetabost, orrek egurdate gustien bearrean oten siren eta gero aparte, astegunean etorte siren ba, idiek edo beyek, e, untze yoa, untze yoa esate aken, e, dekenan aspian, e, falloa, untze yoa dekola edo, edo imintxen serak, apatxa barriek, ebaten apatxak edo sera, beti eukitxeuden bearra, gero apurke apurke ori akabaten yoa san (K.)" - (Hamen egoten zen, zapatuetan egoten zen, ba plaza, baserriko jentea etortzen zen tomatea eta, eta etortzen ziren denak astoetan edo zaldi karroa edo, baina gehiena astoa, eta hau orain dagoen etxea, hemen egon ziren ba, arbolak, hau dena izan zen arboladia, eta hemen, egongo ziren beharbada amarratuta ehun asto inguru, ze arbolatik arbolara egoten zen ipinita, katea, eta kateetan amarratzen ziren, eta errementariak horiek, beharbada, zapatuko ba beharbada egingo zuten hogeita hamar edo hogeita batzuetan, beste batzuetan hogeita bost, horiek eguerdiarte guztian beharrean egoten ziren eta gero banan, astegunean etortzen ziren ba, idiak edo behiak, iltze joa, iltze joa esaten zitzaien, daukatenean azpian, akatsa, iltze joa daukala edo, edo ipintzen zerak, apatx berriak, ebakitzen apatxak edo zera, beti edukitzen zuten beharra, gero apurka-apurka hori amaitzen joan zen)

17. ABELAZKUNTZA

Abelazkuntzaren gaineko berbak aurkezteko, abere mota bakoitzaren araberrako ondoko sailkapena egin dugu: ganadua, ardiak eta ahuntzak, ekinoak, txerria, oiloak, erleak, txakurra, katua eta gainerakoak; azken

azpi-atal honetan arteragokoetan ezin sartu izan ditugun berbak agertuko dira.

17.1. GANADUA

adar apala: adar apala, adarra beherantz daukana

adar asala: adar azala

"Orrek, a, emen Katiken, a, sarritten ikus doas nik, a, adar asalak sartu, ta amarraute bere bai, sarritten ikus doas, b'ori suegas eitten dako, okertute, posture emon, suegas eitten dako, berotu, eta, beste edosein jenerogas, tubo bategas seiñ edosegas ra! adarra okertuten da, noberak gure deun lekure eroten da, oiñ, arbie in bear badako, miñ eitten dako eta esta lar sera baya, ostantzen puntak arreglau, berotute, adarra berotueskeron edosein lekutara mogittan da (Z.)" - (Horiek, hemen Gatikan, sarritan ikusi ditut nik, adar azalak sartu, eta amarratu ere bai, sarritan ikusi ditut, ba hori suagaz egiten zaio, okertuta, itxura eman, suagaz egiten zaio, berotu, eta, beste edozein jenerogaz, hodi bategaz zein edozegaz ra! adarra okertzen da, norberak gura duen lekura eroaten da, orain arbia egin behar bazaio, min egiten zaio eta ez da lar zera baina, osterantzean puntak konpondu, berotuta, adarra berotuz gero edozein lekutara mugitzen da)

adar motxoa: adar motxoa

adarkadia: adarkada

"Dxaurtikedia bere esaten du, dxaurtikedia ein yeu baya adarkadia (M.)" - (Jaurtakada ere esaten dugu, jaurtakada egin du baina adarkada)

adarra: adarra

"Adarrak politxo baekos, armera ona deko, bai, ori bai, armera politxe deko (M.)" - (Adarrak polito badauzka, armera ona dauka, bai, hori bai, armera polita dauka)

agin txikerrak: hagin txikerrak, hasierako haginak

aida: aida, ganaduari aurrera arinago egiteko esaten zaio

albañia: albaina, ganaduaren arnasoska

"Itxota dauenian, biar asko eraintxe, edo miñe atarata, beroagas, albañia deko (M.)" - (Itota dagoenean, behar asko eraginda, edo mihia aterata, beroagaz, albaina dauka)

aldidxe: ganaduaren zorabioa

"Aldidxe da, mareo bat emotea (L.)" - (Aldia da, zorabio bat ematea)

aldiena, aldidxena: aldiena, ganaduari jazotzen zaion zorabioa behar asko egin eta ostean

anilloa: paradako zekorrari sudurrean ipintzen zaion eratzuna

"Anilloa, surtzilloatati imintxe ta, orrek, e, nopera trage ingo leke momentuen, deskuidaskeron, berotu itxen dire eta (M.)" - (Eratzuna, sudurtzuloetatik ipinita eta, horiek, norberak tragatu egingo luke momentuan, deskuidatuz gero, berotu egiten dira eta)

ankea: hanka

antzue: antzua, esnea ematen ez duen behia

apala: armera apala

apatxa: apatxa

"Oin bai apatxan ta pintteute, baya, kaderan faltea dekenak, a, bai, galipota edo baltzan pintteu, bakixu astoak apatxak selan eukitte ittusen ta, orrek, a, bai baya, ixe leitte kittanuek edoser geuse ene! (T.)" - (Orain bai apatxan eta pintatuta, baina, hankan akatsa daukatena, hura bai, galipota edo baltzik pintatu, badakizu astoak apatxak zelan edukitzen dituen eta, horiek, bai baina, izan liteke ijitoek edozer gauza ene!)

apatxarte: apatx-arte

"Apatxartean, e, ba tau, e, formaten dana, ser bat, mamin bet, eta mamiñe kendu in ber da (M.)" - (Apatx-artean, bat dago, formatzen dena, zer bat, mami bat, eta mamia kendu egin behar da)

apatxartekoa: apatx-artekoa, ganaduaren gaixoa

arbie: arbia, apatxaren eta adarraren barruko haragia

"Arbie, gasteak, sarrak ya esteko, ya akaba itxen deu, adarra siketu itxen da (M.)" - (Arbia, gazteak, zaharrak ja ez dauka, ja amaitu egiten du, adarra sikatu egiten da)

"Arbie, separaten yakin bear da, or, kutxilloa manejaten yakin bear da, eta lelengo topau non daun gaixoa, puntue, ta gero

kutxilloas (M.)" - (Arbia, bereizten jakin behar da, hor, kutxiloa erabiltzen jakin behar da, eta lehenengo topatu non dagoen gaixoa, puntua, eta gero kutxiloagaz)

arille: opila, txahala egin eta ostean errapeko gaixoa

"Arillek ein yakos, esaten du, errapian baya gogortu, gogortu, errape alderdidxe dana es igual, igual alderdi bet edo erro ba pakarrik igual, gogortu, otzagas edo gogortu, edo infesiñoa euki, beres, esniak edo, esniak emonta edo (M.)" - (Opilak egin zaizkio, esaten dugu, errapean baina gogortu, gogortu, errape alderdia dena ez beharbada, beharbada alderdi bat edo erro bat bakarrik beharbada, gogortu, hotzagaz edo gogortu, edo zoldura eduki, berez, esneak edo, esneak emanda edo)

armerea: armera, ganaduaren adarrek osatzen dute armera

"Armera ona deko (M.)" - (Armera ona dauka)

armera apala: armera apala

"Armera apala olan badekos, apala (M.)" - (Armera apala holan badauzka, apala)

arrana: arrana

asala: azala

aspie: azpia, kortan egiten zaien ohea

"Andik, e, gortarako, ganadueri aspidxe imintxeko, otia bille bere onantza etorte siren asko (L.)" - (Handik kortarako, ganaduari azpia ipintzeko, otea bila ere honantz etortzen ziren asko)

aspigarrie: azpigarria

asteko txala: hazteko txahala

asturianue: asturiarra, ganadu enda bat

"Aorti gora egun beten, estratza istue ba, eta erosi, e, asturiano betzuk, esetara bere esiñ eron orti gora, eta atzera etzera etorri biar (M.)" - (Haortik gora egun baten, estratza estua ba, eta erosi, asturiar batzuk, ezertara ere ezin eroan hortik gora, eta atzera etxera etorri behar)

atze gitxikoa: atze gutxikoa

atzesabala: atze zabala

atzistue, atze istue: atze estua

"Atze istue ta atze sabala da, ganadue tekosus, isterrak sabal deittuela, persona tausent moduen kasureko, e?

dekosus ba kuadru sabalekoak, beste batzuk istu istuek dekos, atze istue esaten dako atze gitxi dekonari, goitti bera istu dekonari (L)" - (Atze estua eta atze zabala da, ganaduak dauzkazu, izterrak zabal dituztela, pertsonak dagozen moduan kasurako, e? dauzkazu ba kuadru zabalekoak, beste batzuk estu-estuak dauzka, atze estua esaten zaio atze gutxi daukanari)

baso beye: baso-behia

baso ganadue: baso ganadua

"Es oiñ ya akabata dau ori, gitxi dau ori, lengo baso ganadurik, sertxen yoan dire, errasak, eta lengo ganadue ba, euntze paño geitxuau ixen dire, baso ganadue (Z.)" - (Ez orain ja amaituta dago hori, gutxi dago hori, lehengo baso ganadurik, zertzen joan dira, endak, eta lehengo ganadua ba, ahuntzak baino gehitxoago izan dira, baso ganadua)

bayestea: bihurria, ibilkeran hanka kanporantza botatzen dutenen gainean esaten da

"Batzuk bayestia alan eitxen deude, albokoa koxu biarreko, bayestia kaderakas (M.)" - (Batzuek bihurria halan egiten dute, albokoa hartu beharrekoa, bihurria hankakaz)

"Bayestia deko edo esaten du guk, olan eitxen deuenian, kanpora olan botaten deuenian sera, bayestia deko (M.)" - (Bihurria dauka edo esaten dugu guk, holan egiten duenean, kanpora holan botatzen duenean zera, bihurria dauka)

begaye, begeye: bigantxa, bigaia

bei arra: behi arra, behi antzua

"Lotu itxen estana, ernari lotu itxen estana, da bei arra (M.)" - (Lotu egiten ez dena, ernari lotu egiten ez dena, eta behi arra)

"Bei arra esne gitxi dekona (L.)" - (Behi arra esne gutxi daukana)

bei esnea: behi esnea

bei gorrie: behi gorria

bekorotza: bekorotza

benga!: aurrera egiteko esaten den berba

besaka: besaka

"Baya au, besaka itten dauenari, partiken imintten dakea, trabes bat, alau totxo bat, se a puntea, sorrotza dales, lepoas tireka an asten danean besteari, kiñau itten dotze ta, ak apur bet artestuten dau baya,

kanporantza dauenak, ak, e, esteko arreglu onik (E.)" - (Baina hau, besaka egiten duenari, partikan ipintzen zaie, trabes bat, halako totxo bat, ze punta hura, zorrotza denez, lepoagaz tiraka han hasten denean besteari, kinatu egiten diote eta, hark apur bat artezten du baina, kanporantz dagoenak, hark, ez dauka konponketa onik)

"Sakatu eitxen deunian? besakia (M.)" - (Sakatu egiten duenean? besaka)

besatiria: besatira

"Besatiria itxen badeude bere, an beste etzian, a, turranko batzukes, sementoa dau lasteidxen, t'ara sartu gurdidxeas, bera dxauste siren ididxeak, besatiria, bata bestiari tireka, eta bera dxausi sien laban eintxe (M.)" - (Besatira egiten badute ere, han beste etxean, turranko batzukaz, porlana dago lastategian, eta hara sartu gurdiagaz, behera jausten ziren idiak, besatira, bata besteari tiraka, eta behera jausi ziren laban eginda)

besoa: aurreko hanka

beye, bedxe: behia

"Iru bei ekar deittusea (Z.)" - (Hiru behi ekarri dituzte)

bigantxia: bigantxa, bigaia

"Bigantxia bedxe ixen artian, urte bi badekos bere, bigantxia esaten du (M.)" - (Bigantxa behia izan arte, urte bi badauzka ere, bigantxa esaten dugu)

birekatxa: birekaitza, ganaduaren gaixoa

"Ori kallo bat les formaten da, kallo bate les da, birekatxa esaten du guk, esta? gaixo klase asko dau egon itxes, e? (M.)" - (Hori kailo bat legez osotzen da, kailo baten legez, birekaitza esaten dugu guk, ezta? gaixo mota asko dago egon egitez, e?)

buelta!: buelta, jeurt, ganaduari esaten zaio buelta egin dezan

buelta atzera: buelta atzera

bustena: buztana

"Ta loitxu te itxen sakeasan, e, loidxegas ta bustidxegas, bolak, bolatxuek eiñ, loidxegas, eta aik eta kendu, eta apur bet laburtu itxen geuntzen bustena (M.)" - (Eta lohitu egiten zitzaizkien, lohiagaz eta bustiagaz, bolak, bolatxoak egin,

lohiagaz, eta haiek eta kendu, eta apur bat laburtu egiten genion buztana)

busterri beye: buztarri behia

dindirrie: dindirria, txahala egin aurrean behiak naturatik botatzen duen lohitasuna

durangea: behi enda bat

durangoa: idi enda bat

dxuntia: hanketako juntura

enpajadea: enpajada, ganaduentzat egiten den jatekoa

"Gero enpajade itte san, enpajade itte san galtzu bota, busti, botate akon, e, ba saye edo olau, urune aputxu bet, ta ostabe, ur berogas pegata lotu ditten (Z.)" - (Gero enpajada egiten zen, enpajada egiten zen galtzua bota, busti, botatzen zitzaion, ba zahia edo holakoa, irina apurtxo bat, eta osterera ere, ur beroagaz pegatuta lotu dadin)

enpatxue: enpatxoa, ganaduaren gaixoa

"Mantzanille gure aitxe difuntue pai, guk estu iños, e, oiñ emon tzegu, iges edo enpatxuegas euki bedxe ta, mantzanille (M.)" - (Kamamila gure aita difuntuak bai, guk ez dugu inoiz, orain eman diegu, iaz edo enpatxoagaz eduki behia eta, kamamila)

ernari: ernari

errapea, errapia: errapea

"Errapia beti garbitxu, ba pañu beteas, pañusko erropa bateas (M.)" - (Errapea beti garbitu, ba painu bategaz, painuzko arropa bategaz)

erri beye: herri behia

"Oin txarolesak eta daus gorridxek edo, orrek, baya lenau, e, erri bedxe edo erri ididxek, esaten geuntzen, a, adar gorridxek, adar punte gorridxek, eta surtzilloa pe gorridxek (M.)" - (Orain txarolesak eta dagoz gorriak edo, horiek, baina lehenago, herri behia edo herri idiak, esaten genien, adar gorriak, adar punta gorriak, eta sudurtzuloak ere gorriak)

erri ganadue: herri ganadua

"Erri ganaduen antzeran, katanarra ya beste klase bat san (Ll)" - (Herri ganaduaren antzera, katanarra ja beste mota bat zen)

erri idie: herri idia

erroa: erroa

"Baya, igerten dako nos eingo deuen, a, apur be gora bera, se erroak beteten dakos,

eingo deuen, e, egune eingo deuen eurrian erroak betetu itxe itxus te brillante brillante paraten dakos, txala eñ eurretxuen, aik ondo ondo, preseiteu pareu artian esteu txalik eitxen (M.)" - (Baina, igartzen zaio noiz egingo duen, apur bat gora-behera, ze erroak betetzen zaizkio, egingo duen, eguna egingo duen aurrean erroak bete egiten ditu eta dirdir-dirdir paratzen zaizkio, txahala egin aurretxoan, haiek ondo-ondo, prentsaturatu paratu arte ez du txahalik egiten)

"Etor leikio erro batera, edo lauretara (Ll.)" - (Etor lekiok erro batera, edo lauretara)

esnatzia: esnatza

"Esne asko badeko esnatzia da (M.)" - (Esne asko badauka esnatza da)

esne askokoa: esne askokoa

"Bai esnatzea da en jeneral, esne askokoa bada (Ll)" - (Bai esnatza da gehienetan, esne askokoa bada)

esne arra: esne gutxiko behia

"Esne arra da gutxikoa bada (Ll)" - (Esne arra da gutxikoa bada)

esne barrie: esne berria

esne beye: esne behia

esne gutxikoa: esne gutxikoa

esne lodie, esne lodidxe: esne galdua, behiak txahala egin eta ostean ematen duen haserako esnea, oritza

"Esne lodidxe deko (M.)" - (Esne galdua dauka)

esne loye: oritza, esne galdua

espille: espila

"Espille da kasureko, ganadu betek buruen, kolore bardiñe deko, eta alau serotxu bet, edo triangulo antzera, edo lusenga, suriune bat, beste kolore diferentea dekonari (Ll)" - (Espila da kasurako, ganadu batek buruan kolore berdina dauka, eta halako zerotxo bat, edo hiruki antzera, edo luzenga, zuriune bat, beste kolore desberdina daukanari)

eurreko besoa: aurreko besoa, aurreko hanka

"An ser galtxen deuen apur be kora bera ba, andik, gero, atzitan se bultu, t'eurreko besoetan se bultu dekon bere bai, lusiaua bada bere bai (M.)" - (Hau zer galtzen duen apur bat gora-behera

ba, handik, gero, atzeetan ze zabalera, eta aurreko besoetan ze zabalera daukan ere bai, luzeagoa bada ere bai)

eurtz, eurt: ganaduari esaten zaio buelta egiteko

eusnarra, ausnarra: hausnarra

"Ganaduek eusnar eitxen deu (M.)" - (Ganaduak hausnar egiten du)

"Ausnarra ekarteko usetan san emen, asko, gustis asko, basoan otea ebaten eoten sanean, agertan siren, oteari inkeute, alau bolatxu betzuk, onakoxe esponjea balittike les antzerako, kasureko enotzu esaten esponja antzeko satitxu betzuk, t'aik batu itten gendusen, aitte defuntue pere beti, t'artekoa pe bai, eta aik emoten tziasan, orri beten, seuser orri berdean barruen, yan eraitten tzeasan (Ll)" - (Hausnarra ekartzeko usatzen zen hemen, asko, guztiz asko, basoan otea ebakitzen egoten zenean, agertzen ziren, oteari atxekita, halako bolatxo batzuk, honakoxe esponja balitz legez antzerako, kasurako ez noakizu esaten esponja antzeko zatitxo batzuk, eta haiek batu egiten genituen, aita difuntuak ere beti, eta arteragokoek ere bai, eta haiek ematen zizkieten, orri baten, zer edo zer orri berdearen barruan, jan eragiten zizkieten)

ganadu gorrie: ganadu gorria

ganadue: ganadua

"Ganadure bere jentea giau asi sen, eta ganadure asi sanean, jenteak itxi eutzen garie eraitteri (Z.)" - (Ganadura ere jendea gehiago hasi zen, eta ganadura hasi zenean, jendeak utzi zion garia ereiteari)

"Frantzitti ekar du guk ganaduten, a, Josus! estraperloan, edo ain barik, ain barik, a, ba ondo al danen, al danen ondo, ekarten siren baya estraperloan bere bai (Z.)" - (Frantziatik ekarri dugu guk ganadutan, Josus! estraperloan, edo hain barik, hain barik, ba ondo ahal denean, ahal denean ondo, ekartzen ziren baina estraperloan ere bai)

"Mogimintxuek eitxe itxues ganaduek, badau, lusero badau igual, e, bost sei orduen, kontus, e, estator ondo igual (M.)" - (Mugimenduak egiten dituzte ganaduek, badago, luzero badago beharbada, bost-sei orduan, kontuz, ez dator ondo beharbada)

ganadu bearra: ganadu beharra

"Ori oiñ, ondiño bere emen, pastore batzuk bixi dires, t'orrek igual ondiño estilako deure, se goxen orrek eitten deures ganadu bearrak eta gero nik pentzatot trankillau yaten deurela aputxu et (A.)" - (Hori orain, oraindino ere hemen, artzain batzuk bizi dira, eta horiek beharbada oraindino erabiliko dute, ze goizean horiek egiten dituzte ganadu beharrak eta gero nik pentsatzen dut trankilago jaten dutela apurtxo bat)

garrimea: gerri mehea

"Garrimea da, daus, tripe gitxi, eta istu dekianak goitti berakoa, osea biskarretik eta, sillen alturerakoa, ta beste batzu tekosus, serak, sayetzak eta nasai deittuela, eurreko besoak eta atzekoa pere bai, ta garrimeari bestia esaten dako (Ll)" - (Gerri mehea da, dagoz, tripa gutxi, eta estu daukatenak goitik beherakoa, hau da bizkarretik eta, zilaren altuerarakoa, eta beste batzuk dauzkazu, zerak, saihsak eta lasu dituztela, aurreko besoak eta atzekoak ere bai, eta gerri mehea bestea esaten zaio)

gartzetidxe, gartzelille: idiei egiten zaien jeitsiera bizkarrean, galtzaia

"Gartzelille da, ganaduen, bei beten kasureko, biskarra olan artes on ber deu eta badeko a erdigune baju, gartzelille ari esaten dako (Ll)" - (Galtzaia da, ganaduan, behi baten kasurako, bizkarra holan artez egon behar du eta badauka erdigune hura baxu, galtzaia hari esaten zaio)

griñe, girne: girna, ganaduaren belarrietako ilea

"Idiek egote sirenean ta, olan asko eukitteudenean, idie ona ixengo dala, griñe tekosenak belarrien, ta, ori dekot nik entzunte griñek (T.)" - (Idiak egoten zirenean eta, holan asko edukitzen zutenean, idia ona izango dela, girkak dauzkanak belarrian, eta, hori daukat nik entzunda girkak)

idie: idia

"Gatxa da irekaste batzuri, lelengo ba, idi bet euki bear dosu ona, seuk etzean, lengoa ta, barridxe erosten dosunean, e, gaste bat, eitxeko, aregas bustertan

dosu, ta arek domiñetan deu te, apur bet, e, ikesten ikesten deuena gero besteari, ta gero bidxek alkarregas, e, ostantzean bidxek estakidxenak lelengoti amarretan baosus, e, peligrosoa da (L.)" - (Gaitza da irakaste batzuei, lehenengo ba, idi bat eduki behar duzu ona, zeuk etxean, lehengoa eta, berria erosten duzunean, gazte bat, egiteko, haregaz buztartzen duzu, eta hark menperatzen du eta, apur bat, ikaste-ikaste duena gero besteari, eta gero biak elkarregaz, osterantzean biak ez dakitenak lehenengotik amarratzen badituzu, arriskutsua da)

ixo: ixo

kaderia: hanka

"Apatxatetik eta kaderatati pe txarrau satzan ganian, satzan ganian, oin garbidxen oboto daus kaderatetik ganaduek (M.)" - (Apatxetatetik eta hanketatetik ere txarrago satsaren gainean, satsaren gainean, orain garbian hobeto dagoz hanketatetik ganaduak)

kaskue: kaskua

katanarra: katanarra

"Bai katanarra da, pirinaikuen antzerara, eta gero baltzune edo, alan marroi baltzun bet, katanarra, orreri esaten dako katanarra, beyek egoten siren katanarrak (Ll)" - (Bai katanarra da, piriniarraren antzera, eta gero beltzune edo, halan marroi beltzune bat, katanarra, horri esaten zaio katanarra, behiak egoten ziren katanarrak)

korotza: gorotza

"Bai, beti egoten da diferentzidxe, se lenau, e, oin ba, garbitxu itxen deude oboto, korotza bere koyu te area bota ta, ba lenau libre egote san korotza, ta korotza koyuskero, ariñau itxe san (L.)" - (Bai, beti egoten da derberdintasuna, ze lehenago, orain ba, garbitu egiten dute hobeto, gorotza ere hartu eta harea bota eta, ba lehenago libre egoten zen gorotza, eta gorotza hartuz gero, arinago egiten zen) [idi proben gainean dabil]

korrontzie: ganaduaren beherazkoa

krotala: gaur egun markatzat ganaduei belarrian ipintzen zaiena

"Len, e, bueno ori, ogei urterik onantza edo olan asi da krotalak eta imintten, lelengo krotala imintteutzen metalikue, da gero, oin plastikuskoa, imintte otzea, oin bi

imintte otzeas, len bat, da oin bi (Z.)" - (Lehen, beno hori, hoge urtetik honantz edo holan hasi da krotalak eta ipintzen, lehenengo krotala ipintzen zioten metalikoa, eta gero, orain plastikozkoa, ipintzen diote, orain bi ipintzen dizkiote, lehen bat, eta orain bi)

mamitis: mamitisa, ganaduaren gaixoa

"Mamitis be klasia taus te, txarra pe badaus (M.)" - (Mamitisa ere motak dagoz, txarrak ere badagoz)

markea: marka

"Ori baso ganaduek beti, danak euki auden edo burriñegas marka eintte, bakotxak bere marka edo espabere, belarrien korte bat edo puntetxu bet, a, kendu, belarrien (Z.)" - (Hori baso ganaduak beti, denek eduki zuten edo burdinagaz marka eginda, bakoitzak bere marka edo ezpabere, belarran ebaki bat edo puntatxo bat, kendu, belarran)

matrise: matriza

matutea: matutoa, behi arraza bat

matutoa: matutoa, idi arraza bat

matxorria: matxorria, umerik egiten ez duen behia

"Bedxe matxorria umerik eitxen esteuena (L.)" - (Behia matxorria umerik egiten ez duena)

morruke, murruke: murruka

morruse, murrusea: murrusa

motxoa: ebagiko adarra

"Txikitxue tekosenean adar motxoak, gasteta edo dekosenean, motxoak, badaus, e, labur labur adarra tekosenak (M.)" - (Txikitxoak dauzkanean adar motxoak gastatuta edo dauzkanean, motxoak, badagoz, labur-labur adarrak dauzkanak)

murrukadia: murrukada, adarkada

musturre: muturra

"Kontrara bustertueskeron, espadire lagunak, ta kontrara ibillikoa bada bat, dxo musturretan ta bota atzes, eta orduen, e, igertan dako (M.)" - (Kontrara buztartuz gero, ez badira lagunak, eta kontrara ibilikoa bada bat, jo musturretan eta bota atzez, eta orduan, igartzen zaio)

nafarrerrie: nafarrerria

narrue: narrua, larrua

naturia: alua

o: ganaduari lotzeko esaten zaio

okelarako beye: okelarako behia

orroa: orroa

"Gurian bei betek eitxen seuen orroa, txala in txe ostian, alboan badabilko bere, ta beste bei betek eitxen badeu bere kostunbre eukitzen seuen berak, aixe orroa eitxeko, ta saratak itzelak eñ, e! (M.)" - (Gurean behi batek egiten zuen orroa, txahala egin eta ostean, alboan badabilkio ere, eta beste behi batek egiten badu ere ekandua edukitzen zuen berak, orro huraxe egiteko, eta zaratak itzelak egin, e!)

osalea, osalia: osala

"Ganadueri bere osalia emoten dxakian, loditxan dausenari, osalia (A.)" - (Ganaduei ere osala ematen zitzaien, loditzen dagozenei, osala)

ostikede: ostikada

palak: palak, ganaduaren aurreko haginak

paradia: parada, zekorra egoteko lekua

paradako sekorra: paradako zekorra

"Paradako sekorrak egoten sienak, kobretan egoten sien, ba, emen bere, Katiken, leku bitten edo egoten san ta geu pere Katikera eroten gendusen ameti bere, len, gero Atxurin bere imiñi eudean, ara bere bai unekada baten, eta olantxe sertxen siren (Z.)" - (Paradako zekorrak egoten zirenak, kobratzen egoten ziren, ba, hemen ere, Gatican, leku bitan edo egoten zen eta geuk ere Gatikara eroaten genituen hamendik ere, lehen, gero Atxurin ere ipini zuten, hara ere bai unekada baten, eta holantxe zertzen ziren)

partoa: erditzea

pentzue: pentsua

"Pentzuek dana berotu itxen deu (M.)" - (Pentsuak dena berotu egiten du)

pintea, pintxea: 1. espila. 2. behi mota, pinta edo espilduna

potroa: potroa

pulpia: pulpa

"Pulpia itxeko oiñ, e, olau rodillo batek eitxe itxus, e, garoak, aolau garoak eitxe itxus, onen lodidxerakoak, garoak eitxe itxu (M.)" - (Pulpa egiteko orain, holako txilindro batek egiten ditu, garauak, haolako garauak egiten ditu, honen lodierakoak, garauak egiten ditu)

sankarroya: zankarroia

"Asurren bestekalderditxi doan sana, sankarroya (M.)" - (Hezurraren besteko alderditik doan zaina, zankarroia)

sankastela: zankaztela, ganaduaren atzeko hanken belaun aldeko irtenunea

sekor parada: zekor parada

sekorra: zekorra

"Bigantxia da edo sekorra da (M.)" - (Begantxa da edo zekorra da)

"Sekorrari en jeneral eitten dako, idie pe eukitten deu es sekorraren beste, sekorrak eukitten deu en jeneral (Ll)" - (Zekorrari gehienetan egiten zaio, idiak ere edukitzen du ez zekorraren beste, zekorrak edukitzen du gehienetan)

sorburue: zekorraren bizkarrean egiten den kunkurra

"Sorburue esan eitxe otzea orreri kokoteko serari (L.)" - (Sorburua esan egiten diote kokoteko zer horri)

suisea: suizarra, behi enda bat

suisoa: suizarra, idi enda bat

"Aspaldiko urtitan, oin kanbidxeta dau, ba, beteranadxoak estere ba, orduen gure gaste denporan, suisoak eoten siren, e, leku gustidxen (M.)" - (Aspaldiko urteetan, orain aldatuta dago, ba, albaiteoek ez dute ba, orduan gure gazte sasoian, suizoak egoten ziren, leku guztian)

sulderra: zuldarra

"Sulderran antzerara, baya, sulderra, ya beste tipo bat edo beste, klase bat ixen eittes, baya berak urtetan deu birekatxak, e, ya barruen agarreute asurrean balego les (Ll.)" - (Zuldarraren antzera, baina, zuldarra, ja beste era bat edo beste, mota bat izan egitez, baina berak irteten du birekaitzak, ja barruan oratuta hezurrean balego legez)

susera: susara

tatuajea: tatuaiia, markatzeko erabiltzen dena

"Bueno Frantziñ ori, oiñ, a, berrogei urterik, a, dabill an tatuajea ta sera (Z.)" - (Beno Frantzian hori, orain, berrogei urtetik, dabil han tatuaiia eta zera)

terreña, terraña: behi enda bat

"Balmaseda, Arseniegan ori buelta gustie ixen da, ba terraña esaten dakona,

autotonoa, bertakoa (Z.)" - (Balmaseda, Artzeniegan inguru guzti hori izan da, ba terraina esaten zaiona, autotonoa, bertakoa)

tira: tira, aurrera egiteko esaten zaie

"Eurrera dxoateko tira, edo lotxeako, o, ta ulerten deu (M.)" - (Aurrera joateko tira, edo lotzeko, o, eta ulertzen du)

tireka: tiraka

tortia: torta, ganaduaren jatekoa

"Tortia bai, esne gedxau atateko, birsadxe moduko gause bat, baya, e, olau, aonen lodidxera ingeruko seratan etorte san ori, ta beratan imiñi, eitxen gendun, satidxek apurtute, beratan imiñi, selebresko gustue dekon bat, tortia (M.)" - (Torta bai, esne gehiago ateratzeko, birzahia moduko gauza bat, baina, holako, haonen lodiera inguruko zeretan etortzen zen hori, eta beratzen ipini, egiten genuen, zatiak apurtuta, beratzen ipini, xelebrezko gustua daukan bat, torta)

turrankea: turrangoa, behi enda bat

turrankoa: turrangoa, idi enda bat

"Idi bete pere bai, an beste etzian, idi turranko batzuk euki gendusen ba, eta umiak andik, e, Emerandokoak, sure barridxokoak, eta, sagarrak olan adarrakas bota, ta dxaten ididxe ta, umiak andik etorri, miñe atara, eta orroak terribliak eiñ! umiak egas! andik desaparecido momentuen (M.)" - (Idi batek ere bai, han beste etxean, idi turrango batzuk eduki genituen ba, eta umeak handik, Emerandokoak, zure auzokoak, eta, sagarrak holan adarrakaz bota, eta jaten idia eta, umeak handik etorri, mihia atera, eta orroak itzelak egin! umeak hegaz! handik desagertu momentuan)

txala: txahala

"Txala itxen deuenian? bai, albada bai ariñ, ostantzian, a, ba itxi, espadeu gure ta esin bada altzeu ba itxi txe estako eser pasetan, orreaitxik esta eser pasetan (M.)" - (Txahala egiten duenean? bai, ahal bada bai arin, osterantzean, ba utzi, ez badu gura eta ezin bada altxatu ba utzi eta ez zaio ezer pasatzen, horregatik ez da ezer pasatzen)

"Es txala in tte ostein, esnea emoten asten danean, ya esnean etorkerea golpean edo, eta, edo otzittu apur bet ein yatzuleko, edo

berandu erasten yoan saralako, luserotxu ordue paseute euki osuleko, beyek aguanteu esin tte, ba, etorten dako, ori kalenturea da (Ll.)" - (Ez txahala egin eta ostean, esnea ematen hasten denean, ja esnearen etorkera kolpean edo, eta, edo hoztu apur bat egin zaizulako, edo berandu erasten joan zarelako, luzerotxo ordua pasatuta eduki duzulako, behiak eutsi ezin eta, ba, etortzen zaio, hori kalentura da)

txalille: txahal hila

"Txalille da abortoa, normala, seuser barik estau iños, edo golperan bat artu deuelako, edo adarkadaran bat beste ganadu betek emon tzolako, en jeneral ixetan da, edo kostunbrea bere bai, batzuk, txala sasoi bateraskon botateko, euren bixittasunegas edo, badaus kostunbrea dekeanak beyek, sostenidu esiñik, ta indisiñoan porasus te sostenittan dakea (Ll)" - (Txahal hila da abortoa, normala, zer edo zer barik ez dago inoiz, edo kolperen bat hartu duelako, edo adarkadaren bat beste ganadu batek eman diolako, gehienetan izaten da, edo ekandua ere bai, batzuk, txahala sasoi baterazkero botatzeko, euren bizitasunagaz edo, badagoz ekandua daukatenak behiak, eutsi ezinik, eta injekzioen poderioz eta eusten zaie)

txarolesa: txarolesa, behi enda bat

"Kalidadia selaua dan, txarolesa bada, txarolesak esteko esnerik (M.)" - (Kalitatea zelakoa den, txarolesa bada, txarolesak ez dauka esnerik)

"Nik estot esetu ostantzekorik, e, nire gaste denporan, gero beteranadxoak asi sirenik gora bai, txarolesak eta (M.)" - (Nik ez dut ezagutu osterantzekorik, nire gazte sasoiari, gero albaiteroak hasi zirenik gora bai, txarolesak eta)

txiliñe: arran txikerra

umetokie: umetokia

urru medea: urrumada

utxarriñe: utxarrina, ganaduaren gaixoa

"Utxarriñe, errapeko gaixoa da (Ll.)" - (Utxarrina, errapeko gaixoa da)

"Bai, bai, ori sano txarra da, eta, utxarriñegas, e, ill esta itten, ba orregas besteas bai (Ll)" - (Bai, bai, hori sano

txarra da, eta, utxarrinagaz, hil ez da egiten, ba horregaz besteagaz bai)

17.2. ARDIAK-AHUNTZAK

akarra: akerra

"Es, es, Yataben bertan, ardie ta euntze, edo akarra asko egoten san len, gaur baño baso giau egoten san ta (Ll)" - (Ez, ez, Yataben bertan, ardia eta ahuntza, edo akerra asko egoten zen lehen, gaur baino baso gehiago egoten zen eta)

ardi arra: ardi antzua

ardie, ardidxe: ardia

"Nik sei urtean euki dodas pastoriak etzean, an, ba etzea, lurre apur bet berotuteko, esta? t'aik esaten suren, kamiños beko alderdittik dabiltesenen ardiek, eta goiko alderdire, esnean diferentzi andie, beko alderdikoa, esnea lodiaua bai, baya asko gitxiau, eta goiko alderdien, esnia, asko giau ardiek (Z.)" - (Nik sei urtean eduki ditut artzainak etxean, han, ba etxea, lurra apur bat berotzeko, ezta? eta haiek esaten zuten, kaminoz beheko alderditik dabilteanean ardiak, eta goiko alderdira, esnean desberdintasun handia, beheko alderdikoa, esnea lodiagoa bai, baina asko gutxiago, eta goiko alderdian, esnea asko gehiago ardiek)

"Dire, eurek ardidxek, andidxauak, okelako andidxaua, igual esnerako bere bai, baya gatxauak eitxen, ta eitxen dus oiñ, ebai itxen dxakia, emen eitxen siren, dxadxote siren, nai eneroan be igual, febreroan be bai, marsoan bai, idxe danak, aik ebaitxen siren, untxe sasoi onetan, airi ebate sakian ulia, sera, asko da miaua, oiñ apurtu ariñau itxen da baya biar oboto itxen da (Em.)" - (Dira, eurak ardiak, handiangoak, okelako handiagoa, beharbada esnerako ere bai, baina gaitzagoak egiten, eta egiten ditugu orain, ebaki egiten zaie, hemen egiten ziren, jaiotzen ziren, nahi urtarrilean ere beharbada, zezeilean ere bai, martian bai, ea denak, haiek ebakitzen ziren, oraintxe sasoi honetan, haiei ebakitzen zitzaien ilea, zera, asko da meheagoa, orain apurtu arinago egiten da baina behar hobeto egiten da)

"Emen berton ardiek etorrikoak, ontxe daus banaka batzuk, esta? Solluberarte esta egoten ixen, etorten ixen dire Nabarrati Gipuskoatik, gegon bueltan, ta yoaten siren, e, aprillen asikeran, erdi bueltara, barrien negue emen emon t'ostean, pastoreak etorten siren, artxeuden etze bat, errentan edo, selan edo alan, ta alan eitten saittuen emen lau bost illebeta, bai berton ostean, euntzen bat edo, soltuen, gitxi egon san emen, berton (Ll.)" - (Hemen berton ardiak etorrikoak, oraintxe dagoz banaka batzuk, ezta? Sollubera arte ez da egoten izan, etortzen izan dira Nafarroatik Gipuzkoatik, gabon bueltan, eta joaten ziren, apirilaren hasieran, erdi bueltara, berriro negua hemen eman eta ostean, artzainak etortzen ziren, hartzen zuten etxe bat, errentan edo, zelan edo halan, eta halan egiten zituzten hemen lau bost hilabete, bai berton ostean, ahuntzaren bat edo, solte, gutxi egon zen hemen, berton)

"Emeti bai ardi asko, bai, Markaiden ta Larraurin bere bai, Madaridixan ta egote siren, Elorridxon ta Emeandon leku askotan ta (L.)" - (Hemendik bai ardi asko, bai, Markaidan eta Larraurin ere bai, Madarian eta egoten ziren, Elorrioren eta Emerandon leku askotan eta)

"Ardiek, e, gitxi, emen, a, onek eukitteittu baya eskondu saneti gora, ostantzean, emen ardie nik estot esetu (T.)" - (Ardiak, gutxi, hemen, honek edukitzen ditu baina ezkondu zenetik gora, ostantzean, hemen ardia nik ez dut ezagutu)

ardi korotza: ardi gorotza

ardi narrue: ardi narrua

ardi sarra: ardi zaharra

ardi satza: ardi satsa

ardi txabolea: ardi txabola

ardi txakurre: ardi txakurra, artxakurra

aritto, aritxo: aharittoa

arkastea: urte biko ardi gaztea

artegie: artaldea

artxo: artxo

"Gabon ingeruen, mendien an edurre edo dauenean etorte sien arik eta pase arte, se orrek gero mendire botate sittusen,

ardiek uden, ta emen ote siren, sanjoseatan emen egote siren edoselan bere ondiño, sanjoseatan, a, fiyo, sanjoseatan egoten siren artxoak, a, yayota asko ta, emen danak egote siren se guk emoten gentzen bedarra, ba garbittako soloak, ta page itteuden apur bet baya (T.)" - (Gabon inguruan, mendian han elurra edo dagoenean etortzen ziren harik eta pasatu arte, ze horiek gero mendira botatzen zituzten, ardiak udan, eta hemen egoten ziren, san joseetan hemen egoten ziren edozelan ere oraindino, san joseetan, fixo, san joseetan egoten ziren artxoak, jaiota asko eta, hemen denak egoten ziren ze guk ematen genien belarra, ba garbitzeko soroak, eta ordaindu egiten zuten apur bat baina)

aumea, eumea: aumea

auntze, euntze: ahuntza

"Euntze pere bai egoten siren (Ll.)" - (Ahuntzak ere bai egoten ziren)

"Ori esaten deude, ori esaten deude baya, asko eingo deude egunean orrek eta, yaten deudena satie igertu esta ingo baya, egunean egunean kanpoan badau ya, se entzun dot, ardiek imintteus or, a, serean, bakosu txaletxu bet, ardiek, a, imintteittues garbi eukittearren, ta ardiek seiñ euntzek, badaus, an dauen arbolea, geldi geldi siketu ingo da, se beti aska edo an edo or edo, edo bestea, siketu itten ei deude (T.)" - (Hori esaten dute, hori esaten dute baina, asko egingo dute egunean horiek eta, jaten dutena zatia ihartu ez da egingo baina, egunean-egunean kanpoan badago ja, ze entzun dut, ardiak ipintzen ditugu hor, zerean, badaukazu txaletxo bat, ardiak, ipintzen dituzte garbi edukitzearren, eta ardiak zein ahuntzak, badagoz, han dagoen arbola, geldi-geldi sikatu egingo da, ze beti hazka edo han edo hor edo, edo bestea, sikatu egiten ei dute)

bekekorre, bekokorrea: bekekorra

erkera: arkara, ardi eta ahuntzen zela

markea: marka

mototxa: kopetilea

"Bai aurreko mototxa, baya ori dekea ba, serak, a, ardiek, onek, a, aritxoak, aritxo tekea ori, eta besteak es (Z.)" - (Bai aurreko kopetilea, baina hori daukate ba,

zerak, ardiek, hauek, aharitoek, aharitoek daukate hori, eta besteek ez)

txiringordea: txiringordoa, ardien ile kiskurra

urruse: urrusea, emea

"Urruse emea da (T.)" - (Urrusea emea da)

17.3. EKINOAK

alta: alta, behorren eta asto emearen zela

arrantzea: arrantza

"Arrantzaka daus (M.)" - (Arrantzaka dagoz)

arre: asto eta zaldiei aurrera egiteko esaten zaie

astoa: astoa

"Astoa pere bai, oin baño geyau, oiñ estau astorik (Ll.)" - (Astoak ere bai, orain baino gehiago, orain ez dago astorik)

"Piper pikantia eiñ, eperdien, esta? ta astoa, pentzeko seunke, Josus! au astoau braboa da, ta gero ekarri etzera ta, urruno egunean, ibilli esiñik astoa, sarran sarragas (Ll.)" - (Piper mina egin, ipurdian, ezta? eta astoa, pentsatuko zenuke, Josus! hau astoau braboa da, eta gero ekarri etxera eta, hurrengo egunean, ibili ezinik astoa, zaharraren zaharragaz)

astoarra: astoarra

"Burriñoa ba, astoa ta bioarragas atarakoa, astoarra ta biorragas atarakoa (K.)" - (Burrinoa ba, astoa eta behorragaz aterakoa, astoarra eta behorragaz aterakoa)

asto arrantzea: asto arrantza

astoemea: astoemea

asto esnea: asto esnea

"Asto esnea lelau umeak artu itteuden, ama ill edo eiñeskeron astoan esneas asten siren (T.)" - (Asto esnea lehenago umeek hartu egiten zuten, ama hil edo eginez gero astoaren esneagaz hazten ziren)

asto korotza: asto gorotza

astokumea: astokumea

"Baten etzean euki dus astokumeak guk (T.)" - (Baten etxean eduki ditugu astokumeak guk)

babea: astoen gaixoa

"Astoari bai, babea esaten gentzen, yan esiñ ixeteuen, babea miñen aspian, esateakon, ta errerien eitteutzean, burrin gorri betegas, agoa iri, ta erre, babea esaten tzen, babea ein yako astoari, esin yan (T.)" - (Astoari bai, baba esaten genion, jan ezin izaten zuen, baba mihiaren azpian, esaten zitzaion, eta errementarienean egiten zioten, burdina gorri betegaz, ahoa ireki, eta erre, baba esaten zioten, baba egin zaio astoari, ezin jan)

biorkia: behorka

biorkumea: behorkumea

biorra: behorra

"Bueno ori olaokoakas, karroagas es, karroagas pentzuek, urunek deskargeu te orrek anditxuau in garenean, ba amasapi urtegas edo olan, asitxe, amasapi urtegas aurrera, ostantzean, txikerretan, a, eskendun eukitxen a biorrik, astoa ta, ardaauak eroteko ona edo Katikera bere bai (K.)" - (Beno hori holakoakaz, karroagaz ez, karroagaz pentsuak, irinak deskargatu eta horiek handitxoago egin garenean, ba hamazazpi urtegaz edo holan, hasita, hamazazpi urtegaz aurrera, osterantzean, txikerretan, ez genuen edukitzen hura behorrik, astoa eta, ardaauak eroateko hona edo Gatikara ere bai)

burriñoa: burriñoa

"Burriñoa gogorraoa dala esaten da gogorraoa (K.)" - (Burrinoa gogorraoa dela esaten da gogorraoa)

"Burriñoa teke, saldien moduen estire burriñoak, e? astoan estilokoa tire (Z.)" - (Burrinoek daukate, zaldien moduan ez dira burriñoak, e? astoaren erakoak dira)

girne, griñe: grina, zurda

"Girnek, kaballok aukitte ittus girnek (Bi.)" - (Grinak, zaldiak edukitzen ditu grinak)

girrintzea, girrintzia: irrirtzia

ixo: ixo, zaldiari eta astoari lotzeko esaten zaie

kaballerie: zalditeria

kaballoa: zaldia

"Bai kaballoana bere, oingo moduen esta len ixen (Ll.)" - (Bai zaldiarena ere, oraingo moduan ez da lehen izan)

"Ni akorta nas ni, Birlen kridu o nitzenean, lauretan altzeta nitzen bostatako trenerako, ta kaballoas bajetan giñen

andik (E.)" - (Ni gomutatzen naiz ni, Birlen morroi egon nintzenean, lauretan altxatzen nintzen bostetako trenerako, eta zaldiaz bajatzen ginen handik)

kaskue: apatxa

mulea: mandoa

"Saldie baño, mulea bere gogorraoa da (K.)" - (Zaldia baino, mandoa ere gogorragoa da)

"Belarrie pere andiaoa tekos muleak (T.)" - (Belarriak ere handiagoak dauzka mandoak)

muloa: mandoa

o: o, zaldiari eta astoari lotzeko esaten zaie

paradako saldie: paradako zaldia

"Bai, oin bere bai, aor goiko etzen dau, paradako saldie (Z.)" - (Bai, orain ere bai, haor goiko etxean dago, paradako zaldia)

poparreka, poperreka: poparreka, astoa saltoka eta ostikoka hasten denean esaten da

"Atzeko kaderakas, a, gora botate ittusenean da poperreka, poperreka, atzekoak, a, altu botate ittusenean da (T.)" - (Atzeko hankakaz, gora botatzen dituenen da poparreka, poparreka, atzekoak, altu botatzen dituenen da)

saldi paradea: zaldi parada

"Paradea saldiena egote san giau (T.)" - (Parada zaldiena egoten zen gehiago)

saldie: zaldia

"Gurean esta saldirik eta olan egon (T.)" - (Gurean ez da saldirik eta olan egon)

"Segun, eskuarten diario badabiltzu, saldi listoanatarikoa da, e? eskuarteko sera bada, oiñ, basoko saldiek koiten gatxau daus, baya etxean asie badosu, saldie bueno! ta surre! (Z.)" - (Segun, esku artean egunero badarabilzu, zaldia zuhurrenetarikoa da, e? esku arteko zera bada, orain basoko zaldia hartzen gaitzago dagoz, baina etxean hazia baduzu, zaldia beno! eta zuhurra!)

"Ona nik, e, kamionetetan saldik ekarten ukusten dodas (Z.)" - (Hona nik, kamionetetan zaldia ekartzen ikusten ditut)

"Saldie okerra da ta, saldiges es ainbeste, baya sekorrakas bai, ori bai, baya (Z.)" - (Zaldia okerra da eta, zaldiaz ez

hainbeste, baina zekorrakaz bai, hori bai, baina)

saldikumea: zaldikumea

"Oin baño astokume giau ote san orduen, e? oiñ astoak non ukuste osus? amen goyen dekos barruti yatearren, eta eureri iños umerik estotzea eraiñ, t'ordun bai, e? saldikumek eta astokumek asko oten siren, asko, neu pere emen esetu ot eta (Z.)" - (Orain baino astokume gehiago egoten zen orduan, e? orain astoak non ikusten dituzu? hamen goian dauzka barrutia jatearren, eta eurei inoiz umerik ez diete eragin, eta orduan bai, e? zaldikumeak eta astokumeak asko egoten ziren, asko, neuk ere hemen ezagutu dut eta)

17.4. TXERRIA

anabakea: anabaka txerrien jatekoa

andarrakie: andarrakia, birikietako mintza

"Andarrakie beste bata, andarrakie, diferente da, andarrakie, en jeneral, en jeneral, sayeskien, a, seragas batera antzean, a, kentxean dure, bai andarrakie beste gause bata, baya estea, osoan doa, ibilli dabillenak eta yakin dakienak, tripek, e, apartan, ba, serakas, puxikea bere atara bear dako, e? puxikea, eta pustu, eta eskei, oiñ a, pastan dana, ba, koipea iñok esteueles gure baya orduen, puxike estimedu egote san, ara betetu, ba koipea, eta, patata prijidue pere, baten ta bitten baño giau (Z.)" - (Andarrakia beste bat da, andarrakia, desberdina da, andarrakia, gehienetan, gehienetan, saiheskiaren, zeragaz batera antzean, kentzen dute, bai andarrakia beste gauza bat da, baina hestea, osoan doa, ibili dabilenak eta yakin dakitenek, tripak, banatzen, ba zerakaz, puxika ere atera behar zaio, e? puxika dena, ba, koipea inork ez duenez gura baina orduan, puxika estimatu egoten zen, hara bete, ba koipea, eta, patata frijituak ere, baten eta bitan baino gehiago)

apoa: apoa, txerri arra

arkelea: arkela, txerri emea

"Emen esta egon txarrisiniñik, e? txarrie pai, igual lantzean batek asi ba, arkelea euki badeu, a, asi bai baya ostantzean es olan txarrisiniñik esta emen egon (T.)" - (Hemen

ez da egon txerrizainik, e? txerriak bai, beharbada lantzean batek hazi ba, arkela eduki badu, hazi bai baina osterantzean ez holan txerrizainik ez da hemen egon)

arkoa: makera, txerri eme kumak egiteko

"Arkoa san emea (Z.)" - (Arkoa zen emea)

aurreko besoa, eurreko besoa: aurreko besoa, aurreko pernila

"Aurreko besoa pai, aurreko besoa txikerraoa dales, a ganerengo imintte san (Z.)" - (Aurreko besoak bai, aurreko besoa txikerragoa denez gero, hura gainerengo ipintzen da)

barea: barea

baresarea, barasarea: bare sarea

"Ta barasaria bere, barasaria bere guk iños estu yan, ta da gibelan estilokoa, lusia, baya alan bastante lusia da (Z.)" - (Eta bare sarea ere, bare sarea ere guk inoiz ez dugu jan, eta da gibelaren estilokoa, luzea, baina halan nahiko luzea da)

billerie, bellerie: txizpegia, apabarroa, bileria

"Bellerie, ori ixeta san ba, txarrien seboa, ta a eskeitxe imiñi, ba gero, lantzen beñean emoteko, ba fuertean pare ditxen, bigundu in ditxen, e, sapatea (M.)" - (Bileria, hori izaten zen ba, txerriaren bilgorra, eta hura eskegita ipini, ba gero, lantzean behinean emateko, ba indartsuago para dadin, bigun egin dadin, zapata)

birikie: birikia

egosarie, egostarie: egosaria, txerrientzako egiten den jatekoa

"Erremolatxia ta egosi itxen gendusen, e, galdara andi beten, olau galdara andi beten egosi itxen gendusen geuk erremolatxia ta ganaduentzat egostaridxe (M.)" - (Erremolatxia eta egosi egiten genuen, galdara handi baten, holako galdara handi baten egosi egiten genituen geuk erremolatxia eta ganaduarentzat egosaria)

estea: hestea

"Guk, a, estot iños, ba sera padekos, orrek bixioa padekos espadekos, estakixu, ill, eta gero, erre kara soasenean estea garbittan, an urtetan deure, ostantzean neuk estot esetu etzean, emoten olan,

eta proba bere gitxiau itten de, eta bestean modun asiko, yan ta serean, gitxiau (Z.)" - (Guk, ez dut inoiz, ba zerak badauzka, bizio horiek badauzka ez badauzka, ez dakizu, hil, eta gero, erre kara zoazenean hestea garbitzen, han irteten dute, osterantzean neuk ez dut ezagutu etxean, ematen holan, eta proba ere gutxiago egiten du, ez da bestearen moduan haziko, jan eta zerean, gutxiago)

este gorrie: heste gorria

"Bai estegorrie da (Z.)" - (Bai hestegorria da)

este lodie: heste lodia

este mea: heste mehea

gantxoa: gantxoa, txerria hiltzeko sasoiari oratzeko erabiltzen dena

"Gantxoas aolan lotute eukitten deure, eta berak esteueles etorri gure ixetan edo, nik estai pa igerri itten badeu edo, edo jente desesune ukusikeran, a, sertuten badeu, gantxoa olau lekutik, e, gantxoagas, eta narras, gortatik, ona portalera, eta gero portalen alau maye moduko ser bat, guk en jeneral, tiñeku bi, te tiñeku bin ganean, olau mayea, ol bat, eta, laun artean koyu, bota mayen ganera, bixiri tauela, mayen ganera, eta gero, koiten dure a gantxoagas emetik engantxeta dauena, koyu olan gantxoagas, eta emen, a, sankapean imiñi, eta gero, ba sartu kutxilloa, eta ba, eurrean, ba sera koyuten, odola koyuten, odola koiten deuenan bere sur on bear da, se kaskadea, laster eingo leke, e? sur bere sur, egon bear da (Z.)" - (Gantxoagaz haolan lotuta edukitzen dute, eta berak ez duenez etorri gura izaten edo, nik ez dakit ba igarri egiten badu edo, edo jende dezezaguna ikuskeran, zertzen badu, gantxoa holako lekutik, gantxoagaz, eta narras, kortatik, hona atarira, eta gero atarian halako mahai moduko zer bat, guk gehienetan, tinako bi, eta tinako biren gainean, holako mahai, ohol bat, eta, lauren artean hartu, bota mahaiaren gainera, bizirik dagoela, mahaiaren gainera, eta gero, hartzen dute hura gantxoagaz hemendik engantxatuta dagoena, hartu holan gantxoagaz, eta hemen, zankapean ipini, eta gero, ba sartu kutxilloa, eta ba, aurrean, ba zera hartzen, odola hartzen, odola hartzen duenean ere zuhur egon behar da, ze kaskada, laster

egingo luke, e? zuhur ere zuhur, egon behar da)

gantzagie: gantzagia

"Mantilleagas, dator, ba barasarea, mantilleagas, eta gero datos, ba seragas, onek, a, gantzagiekas, guntzurrunek, datos, eta orrek, a, sera, ba, osoan ataate otzea batzuk, a, miñe ta sera segun, segun se maneju dekon, a, baya gibela ta biotza ta, ba ebai, a, miñe olan, eta atara, kanpora, orrek, uretan paseu, eta eskei (Z.)" - (Mantilagaz, dator, ba bare sarea, mantilagaz, eta gero datoz, ba zeragaz, hauek, gantzagiakaz, guntzurrunak, datoz, eta horiek, zera, ba, osoan ateratzen diote batzuek, mihia eta zera segun, segun ze erabilera daukan, baina gibela eta bihotza eta, ba ebaki, mihia holan, eta atera, kanpora, horiek, uretan pasatu, eta eskegi)

garrangille: garrangila

girrintzea, girrintzia: girrintzea

gorgolle: gorgoila

"Gorgolle batzuk, en jeneral, ona bada, gorgolle bere orrekas batera, ta gorgolletik eskeitten deure olan, gantxo bategas gora, eta, miñe gero kanpora ataraten deure (Z.)" - (Gorgoila batzuk, gehienetan, ona bada, gorgoila ere horiekaz batera, eta gorgoiletik eskegitzen dute holan, gantxo bategaz gora, eta, mihia gero kanpora ateratzen dute)

kurrun: txerriari deitzeko erabiltzen den berba

makeria: txerri emea kumak egin eta ostean

mantille: mantila

"Ya sangreu akaba itten danean, eron, a, kanpora, eta irekas erre, arraspeu ondo, tapakas edo kutxilloakas, asala garbittuteko, t'ureas, garbittu ondo, eta imiñi mayen ganean, eta goitti bera, ba iri, eta lelengo gantzagiek ataraten dakos, lelengo mantillea (Z.)" - (Ja odolustu amaitu egiten denean, eroan, kanpora, eta irakaz erre, karrankatu ondo, tapakaz edo kutxilloakaz, azala garbitzeko, eta uragaz, garbitu ondo, eta ipini mahaiaren gainean, eta goitik behera, ba ireki, eta lehenengo mantila)

"Mantille imintte san gero palu beten, agas koipe itte san gero (Z.)" - (Mantila ipintzen zen gero makila baten, haregaz koipea egiten zen gero)

matantze: hiltzea

mintze: mintza

"Eraiñ, eta beran, a, ba, dekosen mintzek, apurtu, ta airi itxi es gorgortuten, eta iños gatzik estotzet neuk bota (Z.)" - (Eragin, eta beraren, ba, dauzkan mintzak, apurtu, eta hari utzi ez gogortzen, eta inoiz gatzik ez diot neuk bota)

odol aldikadea: odol aldikada, txerriaren gaixoa

"Ori odol aldikadea da (Z.)" - (Hori odol aldikada da)

ordotza: ordotza, aketza

puxikea: puxika

"Len puxiken sartxe san koipea, txarrin puxiken, imiñi pustute asikeran, txarrie iltten deudenen (La.)" - (Lehen puxikan sartzen zen koipea, txerriaren puxikan, ipini puztuta hasikeran, txerria hiltzen dutenean)

sarea: sarea, bare sarea

suringea: zuringa, hestearen amaierako zatia

suringekoa: zuringa, hestearen amaierako zatia

"Suringekoa, a da, estamangutik, kanporagiñokoa, suringekoa (Z.)" - (Zuringakoa, hura da, urdailetik, kanporainokoa, zuringakoa)

tokie: tokia, txerriotokia

tripea: tripa

txarrie: txerria

"Or Bilbotik entradan, surtidoretik onantza, ori, orrek, e, etze txikerrak danak ixen dire baserriek, ori oin barrie dau intxe, ori illeda gustie? ori dana ixen da ganadue aspian, e, beyek edo txarrie edo, serak, ori dana ixen da baserrie (K.)" - (Hor Bilbotik sarreran, gasolindegitik honantz, hori, horiek, etxe txikerrak denak izan dira baserriak, hori orain berria dago eginda, ilara hori guztia? hori dena izan da ganadua azpian, behiak edo txerria edo, zerak, hori dena izan da baserria)

"Txarri asko, ogei txarri edo gedxau ekarte seuen ak (A.)" - (Txerri asko, hoguei txerri edo gehiago ekartzen zuen hark)

"Atxiñeko kontue tire orrek, eta orduen orixe itxen gendun ba, koyu txorixoa, se ba

txarrie beti iltxen gendun ba, txarrie iltxen, urte gustietan txarrie danak eitxen seudean, besterik esan egongo eser baya axe bai, a txarrie, ta taloa eron ta taloa yan (M.)" - (Antzinako kontuak dira horiek, eta orduan horixe egiten genuen ba, hartu txorizoa, ze ba txerria beti hiltzen genuen ba, txerria hiltzen, urte guztietan txerria denek egiten zuten, besterik ez zen egongo ezer baina huraxe bai, txerri hura, eta taloa eroan eta taloa jan)

txarri apoa: txerri apoa, txerri arra

txarri arkoa: txerri arkoa

"Eurek eurek txarrikumekas dausenean, ba orduen! bearrik, a, alde tekonic, a, igual txarrena ixengo da, txarri arkoa umeakas dauenean gobernatea, se igual eitte otzues ba sei, eta, klaro danak era batera esin yeules eiñ, olan, a, trabesetara etxuten dire, t'orduen, orduen sur on bear da, eta tokien es, e? puf tokire sartu bes! (Z.)" - (Eurak eurak txerrikumekaz dagozenean, ba orduan! beharrik, baserriak daukanik, beharbada txarrena izango da, txerri arkoa umeakaz dagoenean gobernatzea, ze beharbada egiten dizkizu ba sei, eta, jakina denak era batera ezin duenez egin, holan, trabesetara etzaten dira, eta orduan, orduan zuhur egon behar da, eta tokian ez, e? puf tokira sartu ere ez!)

txarri arra: txerri arra

txarribodea: txerriboda

txarri emea: txerri emea

txarri egosarie: txerri egosaria

"Amen eitte san, amentxe itten san, txarri egosarie, ta erremolatxea ta itte san egosi, txarri emoteko (Z.)" - (Hamen egiten zen, hamentxe egiten zen, txerri egosaria, eta erremolatxa eta egiten zen egosi, txerriei emateko)

txarri gaixoa: txerri gaixoa

"Batzuk bixioak, ostantzean, geuk, etzean estu txarri gaixorik euki iños, baya bixioa pai (Z.)" - (Batzuk bizioak, osterantzean, geuk, etxean ez dugu txerri gaixorik eduki inoiz, baina bizioak bai)

txarri girrintzia: txerri girrintza

txarrikumea: txerrikumea

"Txarrikumek saltxen ibiltzen sana, ori esan gureko deu (A.)" - (Txerrikumek saltzen ibiltzen zena, hori esan gurako du)

txarritokie: txerritokia

txarri matantzia: txerri hiltzea

txiki: txerriari deitzeko erabiltzen den berba

"Geittu txiki txiki, txiki txiki, t'etorte san karraderan etzera etorte siren, se eukitten suren, ba askan, ba eureri gustetan daken jeneroa, t'olan etorten siren (Z.)" - (Deitu txiki-txiki, txiki-txiki, eta etortzen zen karraderan etxera etortzen ziren, ze edukitzen zuten, ba askan, ba eurei gustatzen zaien jeneroa, eta holan etortzen ziren)

urdille: urdaila

"Urdille, deko, selan esplikoko tzut? urdille da, estamangue, gero urdilleti doas, beste seratarra, ta a itten da goitti bera iri, urdille, ba se esango tzut, onexen tamañu ingerukoa ixetan da, eta iri aulan, eta, egosi, tte kalloan klasean imintten da (Z.)" - (Urdaila, dauka, zelan azalduko dizut? urdaila da, estomangoa, gero urdailetik doaz, beste zeratarra, eta hura egiten da goitik behera ireki, urdaila, ba ze esango dizut, honexen tamainu ingurukoa izaten da, eta ireki haolan, eta, egosi, eta kailoaren erara ipintzen da)

17.5. OILOAK

abie, abidxe, abidxia: habia

"Bat imintxen dakia, eta eurek abi barridxe imintxen badeude ba pestauen lekuen eitxen deude arrotzia, ta araxe dxoaten dire, ta pilloa alan eitxen deude orrek (A.)" - (Bat ipintzen zaie, eta eurek habia berria ipintzen badute bat ere ez dagoen lekuan egiten dute arrautza, eta haraxe joaten dira, eta piloa halan egiten dute horiek)

"Bat imintte akean, ixetan san egurrekoa bere bai, eta lurrekoa ganetik, kolore surie emonta, an abien ein yeiyen, osea an abien arrutze in yeiyen, a arrutzek altzeu eta an itxitten san urrengo egunerako (Ll)" - (Bat ipintzen zitzaian, izaten zen egurrezkoa ere bai, eta lurrezkoa gainetik, kolore zuria emanda, han habian egin dezaten, hau da han habian arrautza egin

dezaten, hura arrautzak altxatu eta han uzten zen hurrengo egunerako)

abixerie: 1 abizaria, habian ezartzen den gezurrezko arrautza oiloak egiten bertara joan daitezen. 2. usteldutako arrautza

askea: aska, edateko zein jateko lekuari esaten zaio

astraka: aztraka

biroa: biroa

egoa: hegoa

erri ollarra: herri oilarra

erri olloa: herri oiloa

"Etzean asi txe itxen dan olloari erri olloa (L.)" - (Etxean hazi eta egiten den oiloari herri oiloa)

errotea: errota, hegaztien urdaila

espille: espila

gangarra: gangarra

kakaraka: kakaraka, oiloek egiten duten zarata

kapoya: kapoia

kukurrukue: kukurruku, oilarraren hotsa

kurra: kurra, oiloei deitzeko erabiltzen den berba

lokea: loka, oiloen zeloa

lumea: luma

mudea: muda

ollandea, ollendea: oilanda

"Ollendak, e, txikitxuek eitxen deitxues, lelengoak, txikitxuek (A.)" - (Oilandek, txikitxoak egiten dituzte, lehenengoak, txikitxoak)

ollarra: oilarra

"Ollarrak kukurruku ein yeu desorduen, se ollarrak en jeneral ordu beten eitten deu, baya desorduen eitten deuenean, ori entzunte bakot, e? (T.)" - (Ollarrak kukurruku egin du desorduan, ze oilarrak gehienetan ordu baten egiten du, baina desorduan egiten duenean, hori entzunda badaukat, e?)

olloa: oiloa

"Ollo batzuk andi kastak ixeten dire, beste batzuk txikitxuek (A.)" - (Oilo batzuk handi motakoak izaten dira, beste batzuk txikitxoak)

ollo abidxia, ollo abidxe: oilo habia

ollo baltza: oilo beltza, oilo mota bat

"Baltzak eseuen estimasiñorik eukitten, baltzak, kasureko, arrotzia gorrie deko, baya lodittute, olloa saldu bear

sendunean plasan, benta gitxiau euki euen, se ganetik eukitteuen asala baltziskeau, illunau, eta, erosten etorten siren erregeterak eta bellegie gure ixeta eudean, ak itxuria, txarrau dekola ta eseuen, e, presio gitxiaukoa san, ta baltzak eseuen orrenbeste inyerra euki (Ll)" - (Beltzak ez zuen estimaziorik edukitzen, beltzak, kasurako, arrautza gorria dauka, baina lodituta, oiloa saldu behar zenuenean plazan, salmenta gutxiago eduki zuen, ze gainetik edukitzen zuen azala beltzaxkagoa, ilunagoa, eta, erosten etortzen ziren erregaterak eta beilegia gura izaten zuten, hark itxura, txarrago daukala eta ez zuen, prezio gutxiagokoa zen, eta beltzak ez zuen horrenbeste indarra eduki)

ollo gorrie: oilo gorria, oilo mota bat

"Emen berton, normal bakarrik esta egon, emen gustiriko egon ein ye nastean, asko egon da ademas emen olloa, gustis asko, baya eukitten saittuesan gorriek, surie gitxien, surie berandu agertukoa da emen, gero granja asuntue asi sanian, ba artean gitxi, surie, eta oten siren gorriek, nabarrak, pintana antzekoak eta ya gustirikoa, esan kontrol bat egon, e, ollar bategas, e, ollo gustiekas ibiltten san ta txitxek, arrutzek, e, ba imintten siren ta urtetan dauena urtetan dauela, emen selesiño bat esan egon, gero etor dire onek, e, argittasunek, aonek arraseak giau emoten deu, a da probetxu giauakoa, ta etor dire baya ostean emen berton (Ll)" - (Hemen berton, normal bakarrik ez da egon, hemen guztiriko egon egin da nahastean, asko egon da gainera hemen oiloa, guztiz asko, baina edukitzen zituzten gorriak, zuria gutxien, zuria berandu agertukoa da hemen, gero granja gora-behera hasi zenean, ba artean gutxi, zuria, eta egoten ziren gorriak, nabarrak, espildun antzekoak eta ja guztirikoa, ez zen kontrol bat egon, oilar bategaz, oilo guztiekaz ibiltzen zen eta txitak, arrautzak, ba ipintzen ziren eta irteten duena irteten duela, hemen aukeraketa bat ez zen egon, gero etorri dira hauek, argitasunak, enda haonek gehiago ematen du, hura da probetxo gehiagokoa, eta etorri dira baina ostean hemen berton)

ollo granjea: oilo granja

ollo kantia: oilo kanta

"Kanpoan arrutzek eitxen batxus bere, gero kantara sur, arin gero kantia non dan belarririk topetan (A.)" - (Kanpoan arrautzak egiten baditu ere, gero kantara zuhur, arin gero kanta non den belarriz topatzen)

ollo korotza: oilo gorotza

ollo lokea: oilo loka

ollo nabarra: oilo nabarra, oilo mota bat

olloskoa: oilaskoa

ollo surie: oilo zuria, oilo mota bat

"Suriak suriskea deko, bai, eta gorriek eta baltzak, ollo baltzak, gorriskea (Ll)" - (Zuriak zurixka dauka, bai, eta gorriak eta beltzak, oilo beltzak, gorrixka)

ollotokie: oilotokia

otea: ota, oiloek lo egiteko lekua oilotokian

"Otean klase bai, olloan otean moduen, godxen inyabak siketuteko (L.)" - (Otaren era bai, oiloen otaren moduan, goian indabak sikatzeko)

pikue: mokoa

pintanea: espildun oiloa

pipittea: pepita, oiloen gaixoa, mihiaren azpian egiten zaien mintza

txitxe: txita

"Txitxekas etorten siren (A.)" - (Txitakaz etortzen ziren)

"Nik, e, egitzet estot euki neuk, esan eitteudean olan trugoya ta, oten san ollo bi edo iru esarrite igual ta, ene gure arrotzak ontxe alperrik galduko dire, baya urteta eudian txitxek (Ll)" - (Nik, egiazat ez dut eduki neuk, esan egiten zuten holan trumoia eta, egoten zen oilo bi edo hiru esarrita beharbada eta, ene gure arrautzak oraintxe alperrik galduko dira, baina irteten zuten txitek)

urra: urra, oiloei deitzeko erabiltzen den berba

17.6. ERLEAK

argixerie, argiseridxe: argizaria

"Aregas panalagas eitxen da argixeridxe (L.)" - (Zapar haregaz egiten da argizaria)

erlea: erlea

"Eta ori da, e? trugoi denporan, trugoya yoten badeu bertan lotxen dire, ori oiñ, oin bere baukia ori erleak, trugoi denporan esteude eskapetan, eta atxiñekoak eitxe sotzian tanborra yo trugoya dala pentza deyan (M.)" - (Eta hori da, e? trumoi sasoian, trumoia jotzen badu bertan lotzen dira, hori orain, orain ere badaukate hori erleek, trumoi sasoian ez dute eskapatzen, eta antzinakoek egiten zieten danborra jo trumoia dela pentsa dezaten)

"Ba, beronek, beronek beronek euki seixusenan, a, Armintzen euki seixusenan, gurian bere bai txe Armintzen bere bai, eta astoa soltuen egon, ta astoa yoan san arekana, eta astoa ill, ein sotzian erlak (M.)" - (Ba, beronek, beronek beronek eduki zituen han, Armintzan eduki zituen, gurean ere bai eta Armintzan ere bai, eta astoa solte egon, eta astoa joan zen haiekana, eta astoa hil, egin zioten erleek)

"Bai arian bai, gitxi, esetu arian ein yu, iños euki du erlia baya gitxi (L.)" - (Bai arean bai, gutxi, ezagutu arean egin dugu, inoiz eduki dugu erlea baina gutxi)

"Guk estu iños emon, baya kasu beteko ume bat koisten basoas an kanpoan dauena kajeari bai asukereas ta ardaugas barrue busti busti eiñ, ara batuteko, ori bai eitxen geuntzen (L.)" - (Guk ez dugu inoiz eman, baina kasu baterako ume bat hartzen bazoaz han kanpoan dagoena erlautzari bai azukreagaz eta ardaugaz barrua busti-busti egin, hara batzeko, hori bai egiten genion)

erlakumea: erlakumea

erletokie: erletokia

erregiñe: erregina

estena: eztena

estie, estidxe: eztia

"Eurek biarrik esteude emoten aik, estidxe ataraten (L.)" - (Eurek beharrik ez dute ematen haiek, eztia ateratzen)

"Estidxe atarateko, oiñ erremintxe asko dau, edo serak, ba geuk eitxen geuntzen, burutxek atxiñe oten siren, burutxek, ta aik burutxekas, a, pillo andidxe ta kia, eta kia esteude gu ixetan ta, nopera ibiltzeko an kia bota eureri, eurek dxoan ditxesan (L.)" - (Eztia ateratzeko, orain erreminta asko dago, edo zerak, ba geuk egiten genion,

burutxak antzina egoten ziren, burutxak, eta burutxa haiek, pilo handia eta kea, eta kea ez dute gura izaten eta, norbera ibiltzeko han kea bota eurei, eurak joan daitezzen)

panala: zaparra

"Panala da saparra, sulos betekoa, ta aitan suloatan, betetuten dies estidxegas, ta panal osoak eitxen da gero, oin kasureko ori an eitxen deude, ta olagas ataraten dires, oin modernue taus danak, lenau es, lenau, e, kutxillueas ebai txe a panal osoa ataraten sendun (L.)" - (Panala da zaparra, zuloz betekoa, eta zulo haietan, betetzen dira eztiagaz, eta zapar osoak egiten da gero, orain kasurako hori han egiten dute, eta oholagaz ateratzen dira, orain modernoak dagoz denak, lehenago ez, lehenago, kutxiloagaz ebaki eta zapar hura osoa ateratzen zenuen)

saparra: zaparra

"Bai baya oiñ, e, imiñi itxen tzeas orrek eitxeko, imiñi, oiñ, e, len eurek eitxe seudian, eurek eitxe seudian a saparra (M.)" - (Bai baina orain, ipini egiten dizkiete horiek egiteko, ipini, orain, lehen eurek egiten zuten, eurek egiten zuten zapar hura)

17.7. TXAKURRA

alaurie: alaurua

"Guk alaurie esaten tzu, negar moduen eitten deuenean (T.)" - (Guk alaurua esaten diogu, negar moduan egiten duenean)

alaurike: alauruka

"Txakurrek alaurike dabiltes ta seuser pasatan da (T.)" - (Txakurrak alauruka dabilta eta zer edo zer pasatzen da)

"Txakurre alaurike dabil (A.)" - (Txakurra alauruka dabil)

amorrue, amurrue: amorrua

"Onek, a, bakunek etor direnik ona, oiñ amorrurik esta esetuten (Z.)" - (Hauek, txertoak etorri direnik hona, orain amorrurik ez da ezagutzen)

ardi txakurre: ardi txakurra, artxakurra

"Ardi txakurre edo, kasa txakurre edo, erbi txakurre edo, beti egon dire (T.)" - (Ardi txakurra edo, ehiza-txakurra edo, erbi txakurra edo, beti egon dira)

arratoi txakurre: arratoi txakurra

arratonerue: arratoi txakurra

ausie, eusidxe: ahausia

erbi txakurre: erbi txakurra

"Erbi txakurre da ori belarri andiek, alan beraño dekosenak, erbi txakurrek luseak, eta belarriek andie tekosenak (T.)" - (Erbi txakurra da hori belarri handiak, halan beheraino dauzkanak, erbi-txakurrak luzeak, eta belarriak handiak dauzkanak)

girrintzea, girrintzia: girrintza

kasa txakurre: ehiza txakurra

"Kasa txakurre ba, diferente asko dau (T.)" - (Ehiza-txakurra ba, desberdin asko dago)

ogera: txakur emearen zela

otxe, otxetxe: txakurrari esaten zaio eraso egin dezan

toma: txakurrari etortzeko esaten zaio

tomaki: txakurra uxatzeko erabiltzen den berba

txakur amorrotue, txakur amurrutue: txakur amorratua

"Gurean iños ein yotzo, ein yosku iños emen txakurrek, orko goiko neskatoari ein yeutzen aginke ta txakurre ill, txakurre il tte gero, ba klaro, txakurre illeskeron gurean amurrutuen sera egon sales, burue koite eron aittek analisetan, burue kendu te gero barrue, ta onak urteuen baya, billur itzela egote san (T.)" - (Gurean inoiz egin dio, egin digu inoiz hemen txakurrak, horko goiko neskatoari egin zion haginka eta txakurra hil, txakurra hil eta gero, ba jakina, txakurra hilez gero gurean amorratuen zera egon zenez, burua hartuta eroan aitak aztertzen, burua kendu eta gero barrua, eta onak irten zuen baina, bildur itzela egoten zen)

"Txakurre gure amak esaten deu txakur amurrutue ikusitte dauela bera, olan antza ba, ya babea dariola egoten dire antza (T.)" - (Txakurra gure amak esaten du txakur amorratua ikusita dagoela bera, holan antza ba, ja adurra dariola egoten dira antza)

txakurkumea: txakurkumea

txakurre: txakurra

"Seuser usiñe badeko se, eitxe otzo paradea txakurrek, txakur ona bada (L.)" - (Zer edo zer usaina badauka ze, egiten dio lotukera txakurrak, txakur ona bada)

txakurrarra: txakur-arra

txakurremia: txakur-emea

urrumedaka: urrumadaka

"Urrumedaka dabil txakurre (T.)" - (Urrumadaka dabil txakurra)

urrumedeia: urrumada

"Urrumedeia, urrumede itten deu txakurrek, ori ya errittarako dau, edo aginke itteko (T.)" - (Urrumada, urrumada egiten du txakurrak, hori ja erriarako dago, edo haginka egiteko)

17.8. KATUA

erpea: erpa

ixapi: katua uxatzeko erabiltzen den berba

katarra: katarra

katue: katua

"Iru katu daus gurean ointxe bere, esta? (A.)" - (Hiru katu dagoz gurean oraintxe ere, ezta?)

katuemia: katu-emea

katu katarra: katu katarra

katukumia: katakumea

miau: miau

mitxiña: mitxina, katuari deitzeko erabiltzen da

txerpea: txerpa, erpa

urrumedeia: urrumada

"Katun sarategas ba askok esaten dau se denpora ingo daun, beyen urrumedeas bere bai (Bi.)" - (Katuen zarategaz ba askok esaten du ze eguraldi egingo duen urrumadagaz ere bai)

17.9. GAINERAKOAK

antzarra: antzarra

arra: arra

"Beti egote san nonon arra ta (T.)" - (Beti egoten zen non edo non arra eta)

egastie: hegastia

emea: emea

errasea, arrasea: enda, arraza

"Lengo errasak, e, gure denporan, e, suisia ta olandesa, eta erri ganadue bere bai, orrek estaitx nongoa tiresan, a, gorridzek (M.)" - (Lehengo endak, gure sasoian, suiza eta holandarra, eta herri ganadua ere bai, horiek ez dakit nongoak diren, gorriak)

"Errasak klaro dausena olloatan (Ll)" - (Arrazak jakina dagozema oiloetan)

"Onek, errasa bat egote san, onek belarri andiek, oiñ estau aretarikorik, ikusi esta itten (T.)" - (Hauek, enda bat egoten zen, hauek, belarri handiak, orain ez dago haietakorik, ikusi ez da egiten)

konejue, koneju: untxia

"Eta nik konejuk euki nittusen, eta konejueri etorten dakea sarnea musturren, ta eun de piku euki nittusen (Z.)" - (Eta nik untxiak eduki nituen, eta untxiei etortzen zaie sarna musturrean, eta ehundazak eduki nituen)

kumea: kumea, umea

markea: marka

palomea: usoa

patoa: ahatea

pistie: piztia

"Guk, e, pistiren bat iltte dau te atza dator, non edo an pistiren ba tau nonon iltte (Ll.)" - (Guk, piztiaren bat hilda dago eta hatsa dator, non edo han piztiaren bat dago non edo non hilda)

"Agertukera bat kasureko, pisti andie edo, idi tipoan edo (Ll.)" - (Agertukera bat kasurako, piztia handia edo, idi eran edo)

"Igual orretan pistitan inyertzuena burriñoa (Z.)" - (Beharbada pizti horietan indartsuena burriñoa)

umea: kumea, umea

"Txikitxue danian, e, aiñ umia? bedxen umia, txala guk esaten tzu, txala (M.)" - (Txikitxoa denean, haren umea? behiaren umea, txahala guk esaten diogu, txahala)

urrumedeia: urrumada

18. NEKAZARITZA

Nekazaritza alorreko berbak banatzeko, jarduera bakoitzaren arabera sailkatzeko, ondoko azpi-atalak egin ditugu: lurra lantzeko tresnak, soro lanketa, basoa, egurra, belarra, otzarak, errota, labea, gurdia, asto garraioa eta gorta.

18.1. LURRA LANTZEKO TRESNAK

alperrarrie: alper-harria, mokilak hausteko erabiltzen den harri biribil handia

are ortza: are hortza

are subille: are-zubila, arearen armazoia egiteko makila bakoitza, makila hauetan hortzak egoten dira sartuta

area: area

"Ba makiñetu, eta, bota, eta makiñetu, eta bota olan, a, eta seragas paseu, areakas, oiñ arerik eta ukusi besta itten, baya areakas, eta gero, ba serreagas unekada baten ebaten siren, baya gero makiñek asi sirenen etorten, trilladorak, trilladora paya, puntea bakarrik eitten dakenak, lelengo etor siren, eta aitarako, serreagas ebaten gendun, eta gero, dana ya trillu eitten asi sirenean, aitarako, ba areagas eiñ, eta txilindroa paseta otzen, ba kodañeagas ebateko (Z.)" - (Ba makinatu, eta, bota, eta makinatu, eta bota holan, eta zeragaz pasatu, areakaz, orain arerik eta ikusi ere ez da egiten, baina areakaz, eta gero, ba zerragaz unekada baten ebakitzen ziren, baina gero makinak hasi zirenean etortzen, triladoreak, triladoreak baina, punta bakarrik egiten zaienak, lehenengo etorri ziren, eta haietarikoa, zerragaz ebakitzen genuen, eta gero, dena ja trilua egiten hasi zirenean, haietariko, ba areagaz egin, eta txilindroa pasatzen zioten, ba kodainagaz ebakitzeko)

arestoa: are-estoa, iltze narra

"Gurdiek barrie pe in yoas nik, ta areak eta arestoak eta orrek (E.)" - (Gurdiak berriak ere egin ditut nik, eta areak eta are-estoa eta horiek)

armasoya: armazoia, egitura

astea: arearen eskudela

bidurre: bidurra, bihurra; estoa egiteko erabiltzen diren egur bihurtuak

bostortza: bostortza

egoa: goldearen hegoa

eskudela: eskudela, areari eusteko lekua

estoa: estoa, narra; soroko mokilak hausteko erabiltzen zen tresna.

Egurrezko armazoi baten bidurrez egiten zen behea.

"Ori estoa da, onek egurrek olan, emen guk estus eukitten ixen, onek bestea pai, baya onek satike intte daus, baya emen, guk oneri emon bueltea ostabere oneri, beroneri biortu te atzera, ta an bere bueltea emon ta ona, ta orti barik, ametik amarraten ixen tzegu, aurretik katea (E.)" - (Hori estoa da, egur hauek holan, hemen guk ez ditugu edukitzen izan, beste hauek bai, baina hauek zatika eginda dagoz, baina hemen, guk honi eman buelta osterera ere honi, beroni bihurtu eta atzera, eta han ere buelta eman eta hona, eta hortik barik, hamendik amarratzen izan diogu, aurretik katea)

"Guk estoa esaten dotzu, ta beste batzuk narra esate otzea (M.)" - (Guk estoa esaten diogu, eta beste batzuek narra esaten diote)

esto siorra: esto ziorra, bidurra

exea, eixea: exea, pertika eta burdinazko aho bakarreko tresna, ilarak markatzeko erabiltzen zen

"Exea da, baya onen tipoko barik, guk eitten gendusen artesa olan gora, ta emen asteagas, ta gero emetik, ta emen eukitteuen tornillo bat aulan, laxatu edo sertu itteko (E.)" - (Exea da, baina honen moduko barik, guk egiten genituen arteza holan gora, eta hemen astagaz, eta gero hemendik, eta hemen edukitzen zuen torloju bat haolan, laxatu edo zertu egiteko)

gabilladorea: gabiladorea

"Gabilladore bere, neuk euki neuen Biskain lenengo (Z.)" - (Gabiladorea ere, neuk eduki nuen Bizkaian lehenengo)

goldea: goldea, aho bakarreko makina izan zen; behin ilara bat eginez gero, atzera egin behar izaten zen berriro ekiteko. Honen ostean makina deritzona etorri zen.

"Makiñek etor siren, ni txikerra nasela, goldak? makiñek, ego batekok, orduntxe etor siren, ni txikerra ixe nitzenen etor siren, ta lenengo ekarri euen, ementxe bean, a, entradan sutegie euki eun errementari betek, Juan esaten yakona, ta alogeren erabiltteun, a makiñe alogeren emoteun, a, ta, olan esiñ ibil littike ta aitte defuntu ondo memorin dekot selan ekarri

eun, eta, ekarritte ortxe bean, pabelloya tausen, a, beko alderdiñ, e, lenengo seren, ta, esiñ, a, manejauden, ugerra, seragas egon, pintureas, ta pinture derditxedu te esiñ, a, sertu te, ondo memorin dekot, a, orre pere Bitturitti etorte siren, Ajuriak? Ajuriak eiñekok, Ajurian entzutea eukiko su? (Z.)" - (Makinak etorri ziren, ni txikerra naizela, goldeak? makinak, hego batekoak, orduantxe etorri ziren, ni txikerra izan nintzenean etorri ziren, eta lehenengo ekarri zuen, hementxe behean, sarreran sutegia eduki zuen errementari batek, Juan esaten zitzaiona, eta alogerean erabiltzen zuen, makina hura alogerean ematen zuen, eta holan ezin ibil liteke eta aita zena ondo gogoan daukat zelan ekarri zuen, eta, ekarrita hortxe behean, pabeiloiak dagozen, beheko alderdian, lehenengo zerean, eta, ezin, maneiatu zuten, ugerra, zeragaz egon, pinturagaz, eta pintura asko eta ezin, zertu eta, ondo gogoan daukat, horiek ere Gasteizetik etortzen ziren, Ajuriak? Ajuriak eginekoak, Ajuriaren entzutea edukiko duzu?)

itaurrean, itxaurrian: itaurrean

itaurrekoa, itxaurrekoa: itaurrekoa

kakarraldoa: karramarroa, lurra lantzeko erabiltzen den burdinazko hortz okerreko makina

"Guk oneri kakarraldoa esaten dotzegu eta Atxurin tarrantana (E.)" - (Guk honi kakarraldoa esaten diogu eta Atxurin tarrantana)

karramarroa: karramarroa

katea: katea

"Au emen imintten sakon ba, trabes bat, eta kate bi, sartute san saldie ta, ak ederto maneiateueun ori (E.)" - (Hau hemen ipintzen zitzaion ba, trabes bat, eta katea bi, sartzen zen zaldia eta, hark ederto maneiitzen zuen hori)

laye, leye: laia

"Bai, ta laye pere badekus (E.)" - (Bai, eta laiak ere badauzkagu)

"Bai baya gitxi nik, layek esetu dodas, esetu dodas baya gitxi, gitxi, lairik, etzean, a, esetu ein yodas baya, layek ta oñoarren bere or ongo dire, bata bat

egongo da, esetu ein yodas baya, bearren etzen esdodas esetu, esetu dodasenak, ementxe atzeko etzen, binoteru tekon etzen esetu dodas, ak kriedu bet euken, a, Arrietakoa, ta aixek esetu doas iru lagun, amentxe beko solon, a, layetan, a, ikusi leku askotan ein yot, Arratia alden ta, ba, bastante asko (Z.)" - (Bai baina gutxi nik, laiak ezagutu ditut, ezagutu ditut baina gutxi, gutxi, lairik, etxean ezagutu egin ditut baina, laiak eta oraindinokarren ere hor egongo dira, baten bat egongo da, ezagutu egin ditut baina, beharrean etxean ez ditut ezagutu, ezagutu ditudanak, hementxe atzeko etxean, ardaudunak daukan etxean ezagutu ditut, hark morroi bat zeukan, Arrietakoa, eta haiexek ezagutu ditut hiru lagun, hamentxe beheko soroan, laiatzen, ikusi leku askotan egin dut, Arratia aldean eta, ba, nahiko asko)

"Laye taus eskerra ta eskoya (Z.)" - (Laiak dagoz ezkerra eta eskoi)

makiñea: lurra lantzeko makina, aho bikoa makinari esaten zaio

"Eta mutillek kuadrillek batxean siren, ba etzera etorteko, oñes etorri biar ixetan seudian ta, eta akorten sakian, txarrak ein biar txuesela, se geuri bere itxen soskuesan, ta su pere badakixu ondo, arbolian punten ta areak eta, se len areak eta makiñek et'orrek soloan itxitxen siren esta oingo moduen tratora ekarri eta ya esta, bertan soloan, estoa, areak kakarraldoa t'orrek (M.)" - (Eta mutilak taldeak batzen ziren, ba etxera etortzeko, oinez etorri behar izaten zuten eta, eta gogoratzen zitzaien, txarrak egin behar zituztela, ze geuri ere egiten zizkiguten, eta zuk ere badakizu ondo, arbolaren puntan eta areak eta, ze lehen areak eta makinak eta horiek soroan uzten ziren ez da oraingo moduan tratora ekarri eta kito, bertan soroan, estoa, areak kakarraldoa eta horiek)

markadora: markadora

miñe: exearen mihia edo hegoa

"Oneri baño, onek emen burrintxu bet eukitteuen ta arek eukitteuen, miñe esate ako ari (E.)" - (Honi baino, honek hemen burdinatxo bat edukitzen zuen eta hark edukitzen zuen, mihia esaten zaio hari)

narra: narra

"Estoa da, ba egurrekas eiñe, ta ekarri urrutxe, urrutxe edo saratza, ta uretan euki, ta gero biurtu eitte san, orreri estoa, ta gero beste narra, pintxokas (Z.)" - (Estoa da, ba egurrekaz egina, eta ekarri hurritza, hurritza edo sahatsa, eta uretan eduki, eta gero bihurtu egiten zen, horri estoa, eta gero bestea narra, iltzeakaz)

"Yoan ara ta narrean bajau labarotea, ba idiegas, oiñ andik, e, Bilbainak, kamiñoa deko eintte, antxe oki gendusen guk lau gixelan edo (E.)" - (Joan hara eta narrean bajatu laberotea, ba idiagaz, orain handik, Bilbainak, kaminoa dauka eginda, hantxe eduki genituen guk lau gizalan edo)

ortza: hortza, erreminten burdinazko hortza

porkerea: porkera, bostortza

rodilloa: txilindroa

siorra: bidurra

subille: zubila, arearen armazoiaren makila

tratora: traktora

trilladora: txilindroa, makina honek dauzkan txilindroak horzdunak izaten dira

"Sasoi baten, e, gerraostean, e, Ajuriak, a, eseittusen eitten orrek trilladorak, orduen ganaduekas ibiltteko orrek gantxodunek (E.)" - (Sasoi baten, gerra ostean, Ajuriak, ez zituen egiten horiek txilindroak, orduan ganaduakaz ibiltzeko gantxodun horiek)

trillue: trilatzeako makina

txilindroa: txilindroa

"A san alan, a, or erpa batzuk eukesena, erpa batzuk, eta eukesan, a, bi, lau, sei rodillo, ta aik bueltaka ibiltten siren, ganeti sertute, buelte emoten yakon, ta iru errueda eukesan, ta iru erruedagas eroaten san ba (Z.)" - (Hura zen halan, hor erpe batzuk zeuzkana, erpe batzuk, eta zeuzkan, bi, lau, sei txilindro, eta haiek bueltaka ibiltzen ziren, gainetik zertuta, buelta ematen zitzaion, eta hiru gurpil zeuzkan, eta hiru gurpilegaz eroaten zen ba)

18.2. SORO LANKETA

abonoa, abonue: ongarria

"Surteko eutze bai, e, bedarra, obeto urten deidxen fiñagoak, e, munen, lenau munetan, botate san, abonorik esan egoten ta (L.)" - (Surteko hautsa bai, belarra, hobeto irten dezan finagoak, munan, lehenago munetan, botatzen zen, ongarririk ez zen egoten eta)

alanbraduridxe: burdin hariz egindako hesia

alanbrea: alanbrea, burdin haria

"Desifetetako aik erretan saittuen, alanbra batetik eskeitte, sue emon, eta sillotik sartute imintten siren, tapeute, a desinfetetako dala esateudian (Ll)" - (Desinfektatzeko haiek erretzen zituzten, alanbre batetik eskegita, sua eman, eta zulotik sartuta ipintzen ziren, tapatuta, hura desinfektatzeko dela esaten zuten)

amarrea: amarra, lokarria

"Amarrarako estire ixetan onak (T.)" - (Amarrerako ez dira izaten onak)

areatxurre, aratxurre: are-aitzurra

arratxurre: arraitzurra, larraitzurra

"Arratxurre estuau da ta luseau da (Z.)" - (Arraitzurra estuagoa da eta luzeagoa da)

"Atxurre ta arratxurre ba, a beste luseaua (T.)" - (Aitzurra eta arraitzurra ba, beste hura luzeagoa)

arto bittartea, arto bitxartea: arto bitartea

"Arto bittartetik ibiltteko da ori (E.)" - (Arto bitartetik ibiltzeko da hori)

artayorra, arto yorra: arto jorra, artajorra

"Askok, e, ba, arto yorra pere, eitten seittusen (Ll.)" - (Askok, ba, arto jorrak ere, egiten zituen)

"Artayorran ta lur txakurre, ta estaitt ser yaten deun orre pa, sustrie yaten badeu (T.)" - (Artajorran eta lur txakurra, eta ez dakit zer jaten duen horrek ba, sustraia jaten duen)

asala: lurrari landu eta ostean egiten jakon azala; sarritan azal ona edo azal txarra esaten da

asal ona: azal ona

"A badoa siketan apurke apurke ta, gure soloak asal ona koi deu (Ll.)" - (Hura badoa sikatzen apurka-apurka eta, gure soroak azal ona hartu du)

asal txarra: azal txarra

"Eurie etor badako asal txarra da (Ll.)" - (Euria etorri bazaio azal txarra da)

asatza: azatza; soroan ereiten ibiltzen denean, hazia non bota den jakiteko ezagungarri batzuk jartzen dira, horiexek dira azatzak

"Asatza, an lotuten dakon bittarteari esate akon asatza, emeti badarusu illeda ta orti bestea ba, gero ereitten soasenean ba, andik arartekoa (E.)" - (Azatza, han lotzen zaion bitarteari esaten zitzaion azatza, hemendik badarozu ilara eta hortik bestea ba, gero ereiten zoazenean ba, handik hara artekoa)

astea: asta, kirtena; kodainarena eta garaiteko erremintena izaten da

"Sartu olan, eta au eitten dako, okertu, eure taukea, ikusiko sendun layek selao okerra dekon astegas? ta sartu olan ta, altzaten san, a, lur apur bet eta gero inyer eintte bota ta, itxundu (Z.)" - (Sartu holan, eta hau egiten zaio, okertu, eurek daukate, ikusiko zenuen laiak zelako okerra daukan astagaz? eta sartu holan eta, altxatzen zen, lur apur bat eta gero indar eginda bota eta, etzan)

astoa: artoa garantzeko ipurdia zuloz beterik zeukan kaxa bat erabiltzen zen; bertan artaburuak sartu eta mazu bategaz jotzen ziren, kaxan burutxak lotzen ziren eta garaua ipurdiko zuloetatik jausten zen

asufrea, sufria: azufrea, sufrea

atxurre: aitzurra

"Suloa da atxurrena, ta begie da bestea (E.)" - (Zuloa da aitzurrarena, eta begia da bestearena)

"Emen emen es ainbeste, baya, au etzeatzea, bidea orti gorakoa, nire gixon defuntuek eta orko serak ein suren t'ordun eitten san bidegintzea atxurrekas ta palakas, eta au kamiñoa emetik gora, gero sertukoa da (Z.)" - (Hemen hemen ez hainbeste, baina, etxeatze hau, bidea hortik gorakoa, nire gizon difuntuak eta horko zerak egin zuten eta orduan egiten zen bidegintza aitzurraz eta parakaz, eta kamino hau hemendik gora, gero zertukoa da)

atxur burue: aitzur burua

baña palue, bañe palue: baina makila

begie: begia, begizta; sokari muturrean egiten zaion mingila lotu ahal izateko

botikea: 1. botika, ongarri kimikoaren gainean esaten da. 2. mamarroak hiltzeko erabiltzen den hilgarri kimikoa

"Gurean baten bota dakeselako dekot, botikek (Z.)" - (Gurean baten bota zaizkielakoa daukat, botikak)

detanoa: detanoa, ddt

"Orduen detanoa ibiltxen gendun danerako (G.)" - (Orduan detanoa erabiltzen genuen denerako)

erraturea: erratura, soroko belarrak eratzita erre egitea ongarri moduan erabiltzeko

"Es erraturea da, ori, orrek imiñi pilloan, su emon ta erretan dana da erraturea, a pilloa (E.)" - (Ez erratura, hori, horiek ipini pilloan, su eman eta erretzen dena da erratura, pilo hura)

erremesea: txanda, erremesa

erremintea: lanabesa, erreminta

esea: esea

"Es eote san, aolau ixeta san, olau oja bi, ori erdiñ, erdin palue sartu ta agas, txikertako, aska bat imintte san, eta naboa ta erremolatxe dana agas, yo ta triskate san, esea (Z.)" - (Ez egoten zen, haolakoa izaten zen, holako aho bi, hori erdian, erdian makila sartu eta haregaz, txikertzeko, aska bat ipintzen zen, eta arbia eta erremolatxa dena haregaz, jo eta triskatzen zen, esea)

esku serria: esku zerra, igitaia

estakea: taketa

exabarra: exa erabilia egiten den ildo

gantxo: gantxo

gorriñe: gorrina, landareen gaixoa

illadea, illedea: ilara

"Laya biges eta, illeda andiaoa bada, giâu itteuden, illeda txikerra badoa, ba padabil ba, lau layegas bada, aloa, a, distantzie bakarri ein ber (Z.)" - (Lai bigaz eta, ilara handiagoa bada, gehiago egiten zuten, ilara txikerra badoa, bat badabil ba, lau laiagaz bada, haolako, distantzia bakarrik egin behar)

illedara: ilarara, ereiteko era

inyaba kargea: indaba karga

irola: irolako satsa, larrenako satsa, lur satsa

irolako satza, iroulako satza: irolako satsa, larrenako satsa, lur satsa. Etxeurretan egiten zen zulo bat bertan otea botata, saskeleriakaz egiten zen sats motari esaten zaio

"Iroulako satza, ori, emen guk estu in baya, lenau ingo san emen bere igual, baya, etzerik gedxenantzat an eitxe san lenau iroulakoa, sasteidxen, gortian aurrian edo sasteidxen, ori etzerik gedxenatan (M.)" - (Irolako satsa, hori, hemen guk ez dugu egin baina, lehenago egingo zen hemen ere beharbada, baina, etxerik gehienentzat han egiten zen lehenago irolakoa, sastegian, kortaren aurrean edo sastegian, hori etxerik gehienetan)

kakoa: kakoa

"Nik esetu otenu da, kakoa en jeneral, atxurtu itteko, kakoa bakixu ser dan? ortz biges egoten san (Ll)" - (Nik ezagutu dudana da, kakoa gehienetan, aitzurtu egiteko, kakoa badakizu zer den? hortz bigaz egoten zen)

kanala: ubidea

karkabea: karkaba

kordea: korda, piperrak, berakatzak, e.a. amarratzeko egiten diren kordak

labrantzea: laborantza, lugintza

"Labrantzea in bear da (G.)" - (Lurgintza egin behar da)

lerroa: lerroa

"Su padekosu, ser bat, esta? sati on bat, indaba, eta ekusten dosu ondo datorrena dana bat batean, eta, egun beteri bestera, ekusten dosu lerro baten, ba sertu itxen dala, epeldu, eta ekusten dosu gatxa ba tekona (G.)" - (Zuk badaukazu, zer bat, ezta? zati on bat, indaba, eta ikusten duzu ondo datorrena dena bat-batean, eta, egun batetik bestera, ikusten duzu lerro baten, ba zertu egiten dela, epeldu, eta ikusten duzu gaitz bat daukana)

lur satza: lur satsa, irolako satsa

"Ori itteudean, satza eitteagaittik, lur satza eitteagaittik, kasureko amen etzean aurrian, sakosta eukitteuden en jeneral geyenak etzeak danak, ta botateudean an, e, otea, eta ganetik ibilkeran gurdiekas ta ganaduegas ta a sapaltan san ta, usteltan san, ta gero satzagas nasteta eudean, ta atxurtu, ta satora, artoa edo inyabea edo eraitteko edo ortuarireko serbitta eudean (Ll.)" - (Hori egiten zuten, satsa egiteagatik, lur satsa egiteagatik, kasurako hamen

etxearen aurrean, sakosta edukitzen zuten gehienetan gehienek etxeek denek, eta botatzen zuten han, otea, eta gainetik ibilkeran gurdiakaz eta ganaduagaz eta hura zapaltzen zen eta, usteltzen zen, eta gero satsagaz nahasten zuten, eta aitzurtu, eta satora, artoa edo indaba edo ereiteko edo ortuarirako balio zuten)

markea: marka, soroan egiten dena ereiteko

masparra: mahats-parra

masue: mazua, mokilak hausteko erabiltzen zena

"Masu, masu betzukes, masuk, e, apropos eintte, oin bere badau guren masue, oiñ useu esta itten (Z.)" - (Mazua, mazu batzuekaz, mazuak, apropos eginda, orain ere badago gurean mazua, orain usatu ez da egiten)

masutoa: mazutoa; mokilak hausteko eta astoan artoa garantzeko erabiltzen zena

"Gero yo itxeudean seguru masutoagas edo ta telia itxeudean (M.)" - (Gero jo egiten zuten antza mazutoagaz edo eta ehuna egiten zuten)

melenea: belena

"Melenea asko gastetan san uneda baten (T.)" - (Belena asko erabiltzen zen uneda baten)

mintegia: mintegia

"Mintegie, arbola landarak eraitten diren lekue, edo txirpiek imintten diren lekueri esateutzen mintegie (Ll.)" - (Mintegia, arbola landareak ereiten diren lekua, edo txirpiak ipintzen diren lekuari esaten zioten mintegia)

mokil yotekoa, mokili dxotekoa: mokil jotekoa, mokilak hausteko erabiltzen zen mazoa

mokilla: mokilla

"Mokillerako egoten san, narra bat imiñi, eta, apurtuten san, a, ganeko sera, gero etor san, rodillo esaten dakona, txilindro, euskera txilindro, rodillo erdera, baya txilindro esaten geuntzen, a, ser bat etor san, ta a (Z.)" - (Mokilerako egoten zen, narra bat ipini, eta, apurtzen zen, gaineko zera, gero etorri zen, txilindro esaten zaiona, txilindro, euskaraz txilindro, rodillo erdaraz, baina txilindro esaten genion, zer bat etorri zen, eta hura)

ollo satza: oilo satsa

"Olo satza, kasik obia, ollo satzak eitten dauena da, orre pesteak, e, errestu itteuen

lurre, solteu, artean ba, bustiñe edo, bada bere, orrek soltoau imintteuen, ta erresau labreute, kosetxa koiteko ohea san melenea, ollo satzak inyerra badeko ta derrepentean ataraten dau sustentzie, lurreri badekona, bestea paño denpora gitxiauan, orreaittik bear deu alimentasiño geyau (Ll.)" - (Oilo satsa, kasik hobea, oilo satsak egiten duena da, horrek besteak, erraztu egiten zuen lurra, soltatu artean ba, buztina edo, bada ere, horrek solteago ipintzen zuen, eta errazago landuta, uzta hartzeko hobea zen belena, oilo satsak indarra badauka eta bat-batean ateratzen du sustantzia, lurrari badaukana, besteak baino denbora gutxiagoan, horregatik behar du elikagai gehiago)

ondatxurre: ondaitzurra, arraitzurra, aitzur handia basoan bereziki behar egiteko erabiltzen dena

ospikoa: sarda kakoa

parrea: parra

podako artesiek: inaus-artaziak

sarda ospikoa: sarda kakoa

saspilloa: sastegia, sats-piloa

"Satzak atarateko, burdien atarate siren, lelengo saspillo egote san gortan (Z.)" - (Satsak ateratzeko, gurdian ateratzen ziren, lehenengo sats-piloa egoten zen kortan)

"En jeneral eukitten du, saspilloa eñeko eperdien edo olan, eta ya bedarrak estau, gitxik urtetan dau (E.)" - (Gehienetan edukitzen dugu, sats piloa egineko ipurdian edo holan, eta belarrak ez du, gutxik irteten du)

sastegie, sasteye, sastokie: sastegia, sats-
lekua

satza: satsa

"Es, ori satza, baya orretarako obligasiñoa eukitteudean, satza estimedue on san orduen emen, se satz barik lurre labratea alperrik sen, eta, otea, aspigarrie prest euki ber ixetauen, etzedunek, a satza, eitteuen ardiekas, an itxi ber ixetauen aintzako, aiiñ alderako (Ll.)" - (Ez, sats hori, baina horretarako derrigorra edukitzen zuten, satsa estimatua egon zen orduan hemen, ze sats barik lurra lantzea alperrik zen, eta, otea, azpigarria prest eduki behar

izaten zuen, etxedunak, sats hura, egiten zuen ardiakaz, han utzi behar izaten zuen harentzat, haren alderako)

serrea: zerra

"Bitturitti ekar neun nik, gabilladorea neuk ekar neun, eta idi betzuk euki nendusen, itteurrekori pere bear eseudenak, aurrekorik bear eseuden, a, idik euki nendusen, ta, ebai asko eitte neun neuk, baya asti eskendun eukitten yoteko ba, baya ostantzen kasik, a, emen, e, egoten sirenak gustik, b'artean, ebaten siren, ba serrara, serreagas, ta gero kodañeagas asi giñen gu, kodañeagas bota bera, eta illedan botaten gendusen, bedarra botatea moduen baya, olau, a, ser esango tzut? asta bat, asta bat aonen alture ingerukoa, asta bat, imintten yakon ta alanbrek eukitte seittusen gantxoakas onetara ta, an irulitte botaten san eskus agarreu barik, kodañeagas, aolan botaten san, ta gero batu a, eta txolak eitten siren (Z.)" - (Gasteztik ekarri nuen nik, gabiladorea neuk ekarri nuen, eta idi batzuk eduki nituen, itaurrekorik ere behar ez zutenak, aurrekorik behar ez zuten, idiak eduki nituen, eta, ebaki asko egiten nuen neuk, baina astia ez genuen edukitzen jotzeko ba, baina osterantzean kasik, hemen, egoten zirenak guztiak, ba artean, ebakitzen ziren, ba zerrara, zerragaz, eta gero kodainagaz hasi ginen gu, kodainagaz bota behera, eta ilaran botatzen genituen, belarra botatzea moduan baina, holakoa, zer esango dizut? asta bat, asta bat haonen altuera ingurukoa, asta bat, ipintzen zitzaion eta alanbreak edukitzen zituen gantxoakaz honetara eta, han iraulita botatzen zen eskuz oratu barik, kodainagaz, haolan botatzen zen, eta gero batu hura, eta txolak egiten ziren)

simintterea, simintxerea: mintegia

"Simintterea bere ba eraitteko asiek edo seuk eraitten dosunean (Ll.)" - (Mintegia ere ba ereiteko haziak edo zeuk ereiten duzunean)

"Kinpulia eraitxeko eta simintxerak eitxeko bere aditxuten tzegu (M.)" - (Kinpula ereiteko eta mintegiak egiteko ere aditzen diogu)

soidxe, soye: zohia

"Guk emen, e, txilindro esaten tzegun, soye, e, lurre apurtako, txilindroa (Z.)" - (Guk

hemen, txilindro esaten genion, zohia, lurra apurtzeko, txilindroa)

"Bai, geubia an bertan txabolia alboan einxe, geubian nosepiñian altzeta, aditxu, t'igual nosonos eitxen da, sulotxue iñ, t'andik yeu! urtetan deu suek, ta ein bear da geubian ba altze ta dxoan eta, a suloa sarratu te, soidxekas imiñi tapeta (L.)" - (Bai, gaua han bertan txabola alboan eginda, gauean noizean behin altxatuta, aditu, eta beharbada noiz edo noiz egiten da, zulotxoa egin, eta handik deu! irteten du suak, eta egin behar da gauean ba altxatu eta joan eta, zulo hura itxi eta, zohiakaz ipini tapatuta)

sokea: soka

soskakoa: sats-kakoa

sostraye: sustraia, kodainaren eraztuna

sotoa: sotoa, txorkoa

"Labrantzea ixeta san, ba, makiñea pasau, gero areak ganean, gero estoa ganean, eta gero ya sotoak eitxe siren, satora botate san satza, da asie, a tapaten san (G.)" - (Lantzea izaten zen, ba, makina pasatu, gero areak ganean, gero estoa ganean, eta gero ja sotoak egiten ziren, satora botatzen zen satsa, eta hazia, hura tapatzen zen)

sotora: ereiteko era; ereiteko era nagusi bi bereizten dira edo satora, banan-banan, edo tirora. Gauza batzuk era batera eta beste batzuk bestera egiten dira

"Sotora botaeskeiñoan estosu bear, a, markarik, se sotoan bertan dekosu markea (E.)" - (Sotora botaz gero ez duzu behar, markarik, ze sotoan bertan daukazu marka)

sotzarde: bost hortzeko sarda

sulfatoa, sufatoa: sulfatoa

"Detanoa ixen san gause barrie, detano aurrean, e, sulfatoa (G.)" - (Detanoa izan zen gauza berria, detano aurrean, sulfatoa)

taketa: taketa

tirora : ereiteko era

txirritxola: txirritola; zamak ieroateko erabiltzen den polea

"Ori, aur daus, or tejabanan daus orretarikoak, txirritxol batzuk olan, e, gantxoa, burriñesko rodillo bat, bueltaka dekosena, an godxen

eskeitxeko lekue eukiskero pola bat, e, bota, andik txirritxolatik baja ta emetik eskiñetik tirtute or bestia gora doa (L.)" - (Hori, haor dagoz, hor tejabanan dagoz horietarikoak, txirritol batzuk holan, gantxoa, burdinazko txilindro bat, bueltaka dauzkana, han goian eskegitzeko lekua edukiz gero polea bat, bota, handik txirritoletik bajatu eta hemendik eskinatik tiratuta hor bestea gora doa)

txorkoa: txorkoa, sotoa

txortia: txorta

yibitxea, yibittea, dxibitxia: indabak jotzeko erabiltzen zen erreminta

"Lenau inyabak, a, yote siren, a, ba sera, yibitxea (M.)" - (Lehenago indabak, jotzen ziren, ba zera, jibita)

"Yibittia da, inyabak yoteko palu bi, lenauko ganadu, narru sati betegas goyen engantxeu, ari palueri atarate akon, auxe lodiera ingeruko paluek, eta samia atarate akon, goiko burue ebai barik itxi, eta gasteu bekalderdie, ara sartu, eta agas yoten siren inyanbak (Ll)" - (Jibita da, indabak jotzeko makila bi, lehenagoko ganadu, narru zati bategaz goian engantxatu, makila hari ateratzen zitzaion, lodiera hauxe inguruko makilak, eta sama ateratzen zitzaion, goiko burua ebaki barik utzi, eta gastatu beheko alderdia, hara sartu, eta hazaz jotzen ziren indabak)

yorra, dxorra: jorra

yorraye, dxorraidxe: jorraia

18.3. BASOA

agiñe: erremintei ahoan egiten zaizkien akatzak

agoa: aizkora ahoa

apea: apea, ebakiko eta prestatuko enborra

askora begie: aizkora begia

"Askoreana begie, baya besteari sulo esaten tzegu, ta da biribille ta bestea da lusengea, askoreana da lusengea, eta, atxurrena da biribille (E.)" - (Aizkorarena begia, baina besteari zuloa esaten diogu, eta da biribila eta bestea da luzenga, aizkorarena da luzenga, eta, aitzurrarena da biribila)

askora burue: aizkora-burua

askorea: aizkora

astea: astea, kirtena

astalekue: asta-lekua, kirten zuloa
astillia: zozpala, ezpala; zozpal hau handia izaten da
astoa: astoa, basoan enborrak ebakitzeko egiten den armazoa; beronen gainean enborrak ipintzen dira
ayotza, adxotza: aihotza
"Ayotza, burriñesko katxarro bat, ba, astea bere burriñe dekona (E.)" - (Aihotza, burdinazko katxarro bat, ba, asta ere burdina dekona)
"Ayotza da, ba, burrin bet, karneseritten bere, usaten dire orrek, burrin utze, aste bere burriñeskoa, ta sera, deukenak (Z.)" - (Aihotza da, ba, burdina bat, harategietan ere, usatzen dira horiek, burdina hutsa, asta ere burdinazkoa, eta zera, daukatenak)
barandea: makila edo ohol luzea
bardea: barda
"Barda bat artute, palu bet, palu me bat aproposko (Z.)" - (Barda bat hartuta, makila bat, makila mehe bat aproposkoa)
begie: begia, aizkora-begia
dorue: dorua, aizkora-buruaren atzea
egurre: egurra
egur totxoa: egur totxoa
"Asteagas, ba, aonen tamañuko, totxo bat, egur totxo bat, ta astea sartxe yakon, ta agas (Z.)" - (Astagaz, ba, haonen tamainuko, totxo bat, egur totxo bat, eta asta sartzen zitzaion, eta haregaz)
entresakia: entresaka, arboladietan egiten den mehazketa
gabille: egur txola
gantxoa: gantxoa
"Gantxoa in tte bajatu, erramea koitako ondo dau, aginbako gantxo intte, baya ori sorrotza bada erramea fastidiaten deu (Z.)" - (Gantxoa egin eta bajatu, abarra hartzeko ondo dago, haginbako gantxoa eginda, baina hori zorrotza bada abarra hondatzen du)
garrotea: egur zamak lotzeko erabiltzen den egurra, katea estutzeko balio du
garrotxue: garrotxoa, enborrak kateagaz ateratzeko erabiltzen den amarrearen izena
"Es, emen beste ixen ba teko, garrotxue, bai an sartuten dana, eta gero sotza sartuten dako areri atzera urten esteyen

(E.)" - (Ez, hemen beste izen bat dauka, garrotxoa, bai han sartzen dena, eta gero zotza sartzen zaio hari atzera irten ez dezan)

girtena: kirtena

"Girtena guk esate otzegu, ba, astari (Z.)" - (Kirtena guk esaten diogu, ba, astari)

kortea: ahoa, ebakitzeko alderdia

matxeta: matxeta; aihotza eta matxeta gauza bi dira

"A da ayotza ta matxeta da beste, estilo baten datorrena (Z.)" - (Hura da aihotza eta matxeta da bestea, era baten datorrena)

"Matxeta beste gause ba ta, baya ebai itten dana da matxeta (Z.)" - (Matxeta beste gauza bat da, baina ebaki egiten dena da matxeta)

mendue: mentua

mukurre: mukurra, esate baterako sutarako egiten den enborra

nardie: nardaia, garratxua, basoan enborrak ateratzeko erabiltzen zen gantxo modukoa

pikadora: taukia, egurra aizkoraz txikertzeko erabiltzen den egur mukur handia

podea: inausketa

"Podak eta bere ilberan eitten dire, esta? arbolak eta (M.)" - (Inausketak eta ere ilbeheran egiten dira, ezta? arbolak eta)

porrea: porra, mailu modukoa baino handiagoa

serrea: zerra

"Ori itten san, kabellete bi imintten siren, eta ganean botaten san piesea baterik bestera, ta serra, agarradero biko serrea doblea botaten san ta bat goyen paretan san ta bestea bean, ta gora bera gora bera, frontala in bear dala edo kaperioak ein bear direla eitten saittuen, esetu dot ementxe urrengo etzian, aldietzian, egon san kiputze, bat, olan etorritte, bueno, anaye bi egon siren, Inasio Mugurutzta deritxon bat, eta a ibil sen bat or biarrian, anaye Iturbaltzan eskondute, t'a bere etorten san orra (Ll.)" - (Hori egiten zen, asto bi ipintzen ziren, eta gainean botatzen zen pieza batetik bestera, eta zerra, asta biko zerra bikoitza botatzen zen eta bat goian paratzen zen eta bestea behean, eta gora behera gora behera, frontala egin behar dela edo gaperioak egin behar direla egiten zituzten, ezagutu dut hementxe hurrengo etxean, baserrian,

egon zen giputza, bat, holan etorrira, beno, anaia bi egon ziren, Inazio Mugurutza deritzan bat, eta hura ibili zen bat hor beharrean, anaia Iturbaltzan ezkondata, eta hura ere etortzen zen horra)

sie: ziria, enborrari sartzen zaizkio ziri bi eta porragaz jota erdibitu egiten da

sospela: zozpala, ezpala

sotza: zotza

subide: subidea, sailen artean egiten den bidea sua ebakitzeko

totxoa: totxoa

trontzea, trontzia: trontza, trontza-zerra

18.4. BELARRA

adarra: adarra, zorroztarria eroateko erabiltzen dena

"Es, badeko bere grasie, an, e, beran uregas ta, adarrean eronta (E.)" - (Ez, badauka bere grazia, han, beraren uregaz eta, adarrean eroanda)

allea, allia: kodaina ahoa estutzeko erabiltzen dena

"Allea? beste ba ta, allea da, kodañea olan datorrenean emen dekosun, e, ba egurren edo astan, sartuten dakon, e, a bittarte se a allea bajuegi edo altuegi dekola ba, batzuk, e, garri biortu gure estaudenak ixeten dires, ta a berotu te altzau edo bajatu itten dotzea (E.)" - (Aila? beste bat da, aila da, kodaina holan datorrenean hemen daukazu, ba egurrean edo astan, sartzen zaion, bitarte hura ze aila hura bajuegi edo altuegi daukala ba, batzuk, garri bihurtu gura ez dutenak izaten dira, eta hura berotu eta altxatu edo bajatu egiten diote)

"Allean altzau edo bajatu, ori kodañek, e, dekon, astea, allea, allean, e, gorau edo berau, neu pe bai se, badeko diferentzi, e? ebaitteko, gorau eukitterik berau eukittera (Z.)" - (Ailan altxatu edo bajatu, hori kodainak, daukan, asta, aila, ailan, gorago edo beherago, neuk ere bai ze, badauka desberdintasuna, e? ebakitzeko, gorago edukitzetik beherago edukitzera)

astea: kodainaren asta edo kirtena

astalekue: asta-lekua, kirten-lekua

bedar bastoa: belar bastoa

bedar freskoa: belar freskoa, belar berdea

bedar metia: belar meta

bedar pilloa: belar piloa

bedar sikue: belar sikua

"Es ude partean, a, udebarrien asitte edo, eser bere, eurek mantenitten dire, kasu beterako eurtengo siketan, a, agostuen asitte ibil gara emoten, a, sera, laguntziño apur bet emon ein bear, pentzurik es baya bueno forrajea, emoten ixen dake, bedarra, bolak edo bedar sikue edo galtzue edo, beti (Z.)" - (Ez uda sasoiari, udaberrian hasita edo, ezer ere, eurak mantentzen dira, kasu baterako aurtengo sikatean, abuztuan hasita ibili gara ematen, zera, laguntza apur bat eman egin behar, pentsurik ez baina beno forrajea, ematen izan zaie, belarra, bolak edo belar sikua edo galtzua edo, beti)

"Amaka bedar siku alperrik galdu deu baserrietan satsak, se barruen eukitte on dala, ta gero arek barruen neguen, e, lurrune, ta lasteire pasate san ta bueno (E.)" - (Hamaika belar siku alperrik galdu du baserrietan satsak, ze barruan edukitzea on dela, eta gero haiek barruan neguan, lurruna, eta lastegira pasatzen zen eta beno)

bedarra: belarra

bedartzia: belartza

eskuberea: eskuarea

fardoa: fardoa

giltze: giltza, kodaina-ahoa estutzeko erabiltzen dena

kakoa: kakoa

"Bedarrak saraneti gora kargeu, ta gero yausi esteitten, erdi erdi erditik, areri esaten gentzen guk kakoa, se eintte ote sien aonen ingeruko paluek sorrotza puntan dauela, ta bedarra sujete itteuen arek (T.)" - (Belarrak zaranetik gora kargatu, eta gero jausi ez dadin, erdi-erdi-erditik, hari esaten genion guk kakoa, ze eginda egoten ziren haonen inguruko makilak zorrotza puntan dagoela, eta belarrari eutsi egiten zion hark)

kodañea: kodaina

"Berak, e, berak kodañea pere beran tipoa behar deu, eta norbera pere bai (E.)" -

(Berak, berak kodainak ere beraren forma behar du, eta norberak ere bai)

kodañe eskerra: kodaina ezkerria

"Or errotakoa, Jose Errota ta anayea biek, errementarie ta anayea biek ixen siren eskertiek, ta kodañe eskerra esin topau ixeuden, ta topau eudenean kaja bat ekarri euden ta oin bere or ongo dire, kodañe eskerrak (E.)" - (Hor errotakoa, Jose Errota eta anaia biak, errementaria eta anaia biak izan ziren ezkerriak, eta kodaina ezkerria ezin topatu izan zuten, eta topatu zutenean kaxa bat ekarri zuten eta orain ere hor egongo dira, kodaina ezkerriak)

kortea: ebakia

mallue: mailua, kodaina pikatzeko erabiltzen dena

metea: meta

ojia: aila

"Oja bat egon san baya nik bearren estot iños sekule esetu, baya ikusi in yot (E.)" - (Aila bat egon zen baina nik beharrean ez dut inoiz sekula ezagutu, baina ikusi egin dut)

pika malluek, pika malluek: pika mailu kodaina pikatzeko erabiltzen diren mailu eta jungada

pilloa: piloa

sardea : sarda

serrea: zerra, igitaia

"A serreas ebaitte san, se kodañeas esiñ ebai ixeta san se itxunte egote san beti (Z.)" - (Hura zerragaz ebakitzen zen, ze kodainagaz ezin ebaki izaten zen ze etzanda egoten zen beti)

sorrostarrie, sorrotzarrie: zorrotzarria, kodaina zorrotzeko erabiltzen dena

"Ure ta biñegrea, ona ixeteko, biñegrea botate otzea batzuk, obeto agarra deiñ (E.)" - (Ura eta ozpina, ona izateko, ozpina botatzen diote batzuek, hobeto oratu diezaion) [zorrotzarria eroateko adarrean egiten den nahastearen gainean dabil]

sostraye, sustraye: kodainaren aila eta kirtena elkarregaz eusteko dagoen burdinazko eraztuna

"Giltze baya, lengo sustrayek, e, yungedeak eukitteuen puntan aren neurrie, ta arexekas istute sien, yungede, bean imintten dosunek,

lurren sartuten dosunek, eukitteuen a kuadrue, areri tokaten dakon kuadrue, ta areas beragas (E.)" - (Giltza baina, lehengo sustraiak, jungadak edukitzen zuen puntan haren neurria, eta haiexekaz estutzen ziren, jungada, behean ipintzen duzunak, lurrean sartzen duzunak, edukitzen zuen lauki hura, hari tokatzen zitzaion laukia, eta haregaz beragas)

yungede, dxungadea: junguda, kodaina pikatzeko lurrean sartzen dena

18.5. OTZARAK

asta biko kutxilloa: asta biko kutxiloa

"Guk asta biko kutxilloa erabiltten du (E.)" - (Guk asta biko kutxilloa erabiltzen dugu)

bankue: otzarak egiteko erabiltzen zen armadizoa

"Bueno au, e, batzuk esaten dotzea astoa, beste batzuk bankue, baya au de landutekoa, landu lisutu edo, gogortuteko jeneroak (E.)" - (Beno hau, batzuek esaten diote astoa, beste batzuek bankua, baina hau da lantzekoa, landu lisutu edo, gogortzeko gaiak)

etxe sestoa: etxe otzara

karela: otzararen ahoko makila

"Karela da ori, or gastañea da (E.)" - (Karela da hori, hor gaztaina da)

kutxillea, kutxilloa: kutxiloa

"Au bankuau de, orretarako, emen imiñi tte aregas kutxilloagas lisututeko, orre taus ya lisutute (E.)" - (Banku hau da, horretarako, hemen ipini eta haregaz kutxilloagaz lisutzeko, horiek dagoz ja lisututa)

lapotzarea: lapotzara

matxeta: matxeta

"Laban berotu, len, lentxuau etorri basintzen or ibilli gares, orixe bearrori itten, t'or dekus atarata, ta oin dekoas barrien egurrek, e, sartute, urrungorako barrien berotuteko, laban sartu, eta, ba uretan egonta dauseles, a umedo dau, ta a irikitten paraten da, irikitten, ure dariola, ta yo matxetagas erdien, eta tiretu te kadereagas ta, seragas, iritten da (E.)" - (Labean berotu, lehen, lehentxoago etorri bazinen hor ibili gara, horixe beharri egiten, eta hor dauzkagu aterata, eta orain

dauzkat berriro egurrak, sartuta hurrengorako berriro berotzeko, labean sartu, eta, ba uretan egonda dagozenez, hura heze dago, eta hura irakiten paratzen da, irakiten, ura dariola, eta jo matxetaz erdian, eta tiratu eta oinagaz eta, zeragaz, irekitzen da)

obratarako sestoa: obratarako otzara

otzarea: otzara

"Aor, ba Geldoatara pasaeskeriñoan, ortiko alderdire, Berreaga andiko alderdire pasaeskeriño, orreri bendejarako otzarari bere karpanak esaten dotze or (E.)" - (Haor, ba Geldora pasatuz gero, hortiko alderdira, Berreaga handiko alderdira pasatuz gero, horri bendejarako otzarari ere karpanak esaten diote hor)

otzara sabala: otzara zabala

"Are tires otzara sabalak, dires, olau kuadrukoak, metro erdi ingiruko kuadrukoak, ta arek otzara sabalak, usetan san, lenau, e, neskatoa eskondute sanean, baserrire, arreoan eroteko, beran neskato lagunek eta eroteuden buruen, an imiñi, ba bueno, aspian sorkie bai, baya ganean, e, ba etzeko yoan da etorrie, ba tresnak edo jeneroa, eta gero ak serbittan sotzen nobieri plasara yoateko, baya gero beste bat egote san, a baño txikerraua eta axalaua, a san partikotzarea, ta a san, saranan ganean imintten sana, plasan, jenerorik onenak erakusteko, partikotzarea san a (E.)" - (Haiek dira otzara zabalak, dira, holako kuadrukoak, metro erdi inguruko kuadrukoak, eta haiek otzara zabalak, usatzen zen, lehenago, neskatoa ezkontzen zenean, baserrira, arreoan eroateko, beraren neskato lagunek eta eroaten zuten buruan, han ipini, ba beno, azpian sorkia bai, baina ganean, ba etxeko joan eta etorria, ba tresnak edo jeneroa, eta gero hark balio izaten zion andregaiari plazara joateko, baina gero beste bat egoten zen, hura baino txikerragoa eta aizalagoa, hura zen partiko-otzara, eta hura zen, zaranaren ganean ipintzen zena, plazan, jenerorik onenak erakusteko, partiko-otzara zen hura)

partikotzarea: otzara txikerra eta azala

puntzeta: puntzeta, otzarak egiteko erreminta
"Es matxeta, puntzeta, ori itteko estau beste misteriorik (E.)" - (Ez matxeta, puntzeta, hori egiteko ez dago beste misteriorik)

sarana, sarena: zarana

"Gero sarana tekosus, sarana, normala emen erabiltten dana anegakoa ixeten da, anega bat gero kabitten deuna, gero tomaterue dau, esaten dakona beste bat txikerragoa, gero sestoa, etze sestoa, obratarakoa (E.)" - (Gero zaranak dauzkazu, zarana, arrunta hemen erabiltzen dena anegakoa izaten da, anega bat gero hartzen duena, gero tomateroa dago, esaten zaiona beste bat txikerragoa, gero otzara, etxe-otzara, obretarakoa)

sestia: otzaratxo

sestoa: otzara

sesto nausie: otzara nagusia

sesto txikerra: otzara txikerra

sumintzea, sumitzea: zumitza, otzarak egiteko erabiltzen den materiala

"Ori de gastañea, ortixik urteten dau tirek, sumintzek (E.)" - (Hori da gaztaina, hortixik irteten du tirak, zumintzak)

"Bueno ori aspittik asten da, bean ganean imiñi, ta batzuk ganera ta beste batzuk aspire, ta aspie kuadrue artuten danean, e, yosies bueltan bueltan, eta orrek, imintten dosus imintten dosusenak, pares urtetan deude beti, baya pares esteu balio, nones urten bear deu, ta bat erdibittuten dako, nones eitteko, ta orrek fijetan basara, bat, ortariko bat erdi bi intte deko, eukiko deu (E.)" - (Beno hori azpitik hasten da, behearen ganean ipini, eta batzuk gainera eta beste batzuk azpira, eta azpia karratua hartzen denean, josiz bueltan-bueltan, eta horiek, ipintzen dituzu ipintzen dituzunak, pareak irteten dute beti, baina pareak ez du balio, noneak irten behar du, eta bat erdibitzen zaio, noneak egiteko, eta horiek fijatzen bazara, bat, horietariko bat erdi bi eginda dauka, edukiko du)

"Ori aparte itten da orregas sumintzegas (E.)" - (Hori banan egiten da horregaz zumitzagaz)

tomaterue: otzara mota bat

18.6. ERROTA

andaparea: antapara, aldaparoa

"Andaparan, e, nik or estot esetu, ba reguletako serik, egongo siren igual, e, errota, onetan errota andiautan egongo siren igual, baya eser pasau eseitteko, ori, ixengo dana, ba gause, arbolaren bat edo ekarri esteiñ edo (Z.)" - (Antaparan, nik hor ez dut ezagutu, ba erregulatzeko zerik, egongo ziren beharbada, errota, errota handiago hauetan egongo ziren beharbada, baina ezer ez pasatzeko, hori, izango dena, ba gauza, arbolaren bat edo ekar ez dezan)

ardatza: ardatza

"Ardatza dau beti, beko txifloitti, txifloya da ure datorrena, eta, an deko, ser bat errueda bat, ta a dau, selan esangot? sera tekos, topek an, aulau ser bat, ta emen yoten deu, a, urek, beko, inyer ein yayon, ta axe tarabill (Z.)" - (Ardatza dago behetik, beheko txifloitik, txifloia da ura datorrena, eta, han dauka, zer bat txirrinka bat, eta hura dago, zelan esango dut? zerak dauzka, topeak han, haolako zer bat, eta hemen jotzen du, urak, beheko, indar egin diezaion, eta harexek darabil)

artzea: artza, zumitzezko galbahe modukoa, alderdi batetik irekia eta asta bikoa, indabak eta garbitzeko erabiltzen zen

baya: bahea

doberea, toberea: dolbera

errotarie: errotaria

errotarrie: errotarria

"Dxatan biarrian ibil nas ni ainbet bider, baya errotarridzek eitxeko arridzek ataraten (L.)" - (Jatan beharrean ibili naiz ni hainbat bider, baina errotarriak egiteko harriak ateratzen)

errotea: errota

"Orrek ixenak guk, a, oiñ astute bere baukodas eukittes, bakixu senbet urte diren, irutamar urte, dire, ia nik errotarik esetu estodala, irutamar urte edo geyau (Z.)" - (Izen horiek guk, orain ahaztuta ere badauzkat edukitzez, badakizu zenbat urte diren, hirurogeita hamar urte, dira, ia nik errotarik ezagutu ez dudala, hirurogeita hamar urte edo gehiago)

"Ikusteko gause politte da erroten, a, sera (Z.)" - (Ikusteko gauza polita da errotaren, zera)

erruedea: errotarriaren azpiko txirrinka

galbaya: galbahea

kaltzea: kaltza, errotara ura eroateko bidea

"Ure pere inyarra, giau, ta gitxiau selan datorren bere bai, selan dausen kaltzak, kaltzak esaten dakea, ure don, a, ba serak karkabak, ta selan dausen, ta gaur euri asko eitten deu igual, ta badatortzu giau ta txifloyak inyar giau deko, ta orre pai (Z.)" - (Urak ere indarra, gehiago, eta gutxiago zelan datorren ere bai, zelan dagozen kaltzak, kaltzak esaten zaie, ura doan, ba zerak karkabak, eta zelan dagozen, eta gaur euri asko egiten du beharbada, eta badatorkizu gehiago eta txifloiak indar gehiago dauka, eta horiek bai)

kanala: harriaren kanala

konportea: konporta

"Konportak, orre tire, ba ure, kasuroko, baator uriola andi bet, badator, libre bear deu, a, urek, urek libre daun lekure itten deu (Z.)" - (Konportak, horiek dira, ba ura, kasurako, badator uriola handi bat, badator, libre behar du, urak, urak libre dagoen lekura egiten du)

mendea: menda, errotariari ordain saritzat ematen zaion zatia

muxerea, muserea: musera, errotaren zati bat

"Ardatzak, e, sertxen deuna goyen, golpe emoten deuna ixengo da, muxerea axe ixengo da (Z.)" - (Ardatzak, zertzen duena goian, kolpe ematen duena izango da, musera huraxe izango da)

opille: opila, ardatzaren oinarria

"Opille, opille beko, eje bat sartute egoten da bean, burrin beten ganean, beste burrin bet, a sartxen dako, goiko ardatzari, ardatza esaten dakonari sartxen dako a, a da txorie (Z.)" - (Opila, opila behekoa, ardatz bat sartuta egoten da behean, burdina baten ganean, beste burdina bat, hura sartzen zaio, goiko ardatzari, ardatza esaten zaionari sartzen zaio hura, hura da txoria)

presea: presa, uharka

sakue: zakua

sakutoa: zakutoa

sorroa: zorroa

trigerue: trigerua, galbahea

"A trigerue! garoa pasateko trigerue (Z.)"
- (Hura trigerua! garaua pasatzeko trigerua)

txangalea: txangala

txifloia: txifloia

tximingerea: tximingera

txorie: txoria

ubetue, ugetue: ugetua

"Ugetu san, andapare beteten san ta ixi txifloia ta, andapare beteten san, e? eta botaten san andando ta ure akabaten sanean, ba, esan ibiltten errotea, axe san ugetue (Z.)" - (Ugetua zen, antaparea betetzen zen eta ixi txifloia, antaparea betetzen zen, e? eta botatzen zen martxan eta ura amaitzen zenean, ba, ez zen ibiltzen errota, huraxe zen ugetua)

urun askea: irin aska

"Urun aska, aska ba tau, en jeneral, a, bastante andie, urun askara dator (Z.)"
- (Irin aska, aska bat dago, gehienetan, nahikoa handia, irin askara dator)

18.7. LABEA

agoa: ahoa

basnerea: basnera, irakaz egiten zen ginarra modukoa, hau busti eta labea beronegaz garbitzen zen

birikie, belekie: belakia, labean txingarrak ateratzeko eta artoari buelta eragiteko erabiltzen zen makila luzea

kaskue: labe-zerua

"Labian kaskue itxeko, aparteko lurre egoten da, salagoa, salagoa, amasia itxen bere gatxa, ta gero eser barik eitxen da, beragas lurregas utzian, e, arkue labiana barruen (L.)" - (Labe-zerua egiteko, aparteko lurra egoten da, zailagoa, zailagoa, amasa egiten ere gaitza, eta gero ezer barik, egiten da, beragaz lurregaz hutsean, arkua labearena barruan)

labagarrie: labagarria, laban sua egiteko erabiltzen den materiala

labarotarako kodaña: labarotarako kodaña

labarotea: labarako otea

labasue: labasua

labaurrea: labaurrea

labea: labea

"Labeari, txabola baten moduen eitxen sus lau ormak eta gero a barruen, e, bueltia ladrilluegas, seu barruen pareu erdidxen ta, geldi geldi soas erdirentza erdirentza baperes eitxen akabuen burue bakarrik geldiko sara agiridxen, ta gero itxen dako, sestotxue imiñi aspidxen, a, seure buruen besteko suloa bakarri tekonean, ta andik alderdixi estutu gero a, ta gero kendu sestotxue (L.)" - (Labeari, txabola baten moduan egiten dituzu lau hormak eta gero hura barruan, buelta adreiluagaz, zeu barruan paratu erdian eta, geldi-geldi zoaz erdirantz-erdirantz bat ere ez egiten azkenean burua bakarrik lotuko zara agerian, eta gero egiten zaio, zarantxoia ipini azpian, zeure buruaren besteko zuloa bakarrik daukanean, eta handik alderditik estutu gero hura, eta gero kendu zarantxoia)

palea: para

tapea: tapa, labearen ahoa ixtekoa

urkulue: urkulua, egurrezko sarda otea labean sartzekoa

"Orrek koitako erremintterik nik, e, estot esetu, erremintte esetu dodana da, orrek koitako, neuk eitten dodana, urkulu bet, egon eingo da, egongo da, pentzaten dot egongo dala, baya urkulu bet ebaten da, ta punte ebaten dako, ta koiten dosu te tenasa modun (Z.)" - (Horiek hartzeko erremintarik nik, ez dut ezagutu, erreminta ezagutu dudana da, horiek hartzeko, neuk egiten dudana, urkulu bat, egon eingo da, egongo da, pentsatzen dut egongo dela, baina urkulu bat ebakitzen da, eta punta ebakitzen zaio, eta hartzen duzu eta tenaza moduan)

18.8. GURDIAK

akarra: atzakarra, gurkamaren atzeko makila
akulue: akuilua, ganadua kintzeko erabiltzen den makila

albo ola: gurdiaren albotan jartzen diren oholak

aldamena: aldamena, gurkamaren alboetan dagozen makilak

ardi narrue: ardi narrua, buztarriaren gainean ipintzen dena

"Ba gero ganadueri, ardi narrue, ganetik, ba busti edo, euriek edo sertu esteyen (E.)" - (Ba gero ganaduari, ardi narrua, gainetik, ba busti edo, euriak zertu ez dezan)

aspiola: azpi ohola, garraio batzuetarako gurkamaren azpiko aldean ipintzen diren oholak

asto karroa: asto karroa

astoa: astoa, aldamenen azpian ardatzari eusteko dagoen egurra

atzera kargea: atzera karga

aurrera kargea: aurrera karga

bantzue: bantzua

"Bantzue esate aken, e, gero imintte aken, e, batzuk burriñeas eukitteuden, gurdie erruedean parean, ba ganean kargetan dosunean a istutu esteyen (E.)" - (Bantzua esaten zitzaien, gero ipintzen zitzaien, batzuek burdinagaz edukitzen zuten, gurdia gurpilaren parean, ba ganean kargatzen duzunean hura estu ez dezan)

bolantia: gurdi bolantea

burrukoa: burrukoa

"Burrukoa lenau be esate sakon oneri bedxen busterridxen ganekoari (L.)" - (Burrukoa lehenago ere esaten zitzaion behien buztarriaren gaineko honi)

"Bedxen busterridxen ganekoari burrukoa, gero narrue imintxeko (L.)" - (Behien buztarriaren gainekoari burrukoa, gero narrua ipintzeko)

busterri bakarra: buztarri bakarra

"Bai, exea, ori markadora ta exea, exea san, eraitteko geyen usetan sana emen, ta solo labretako bere, ganeti ona bastante, ona exea, baya eraitteko, exeas eraitten siren kasik danak guren, egoten san, edo astoa onen antzeko egoten san guren, ona astoa egoten san beti, ona, ba sano ona asto, ta, or ganadues bere bai eitten san, busterri bakarren imintte edo, bien egon san guren, e, exe, ta orretara eraitten siren (Z.)" - (Bai, exea, hori markadora eta exea, exea zen, ereiteko gehien usatzen zena hemen, eta soroa labratzeko ere, gainetik ona nahikoa, ona exea, baina ereiteko, exeagaz ereiten ziren kasik denak gurean, egoten zen, edo astoa onen antzekoa egoten zen beti, ona, ba

sano ona astoa, eta, hor ganaduagaz ere bai egiten zen, buztarri bakarrean ipinita edo, behean egon zen gurean, exea, eta horretara ereiten ziren)

busterrie: buztarria

"Lenau busterrie pere itten siren (E.)" - (Lehenago buztarriak ere egiten ziren)

"Bilerkotzekoak, badaki itten busterriek (E.)" - (Bilerkotzekoak, badaki egiten buztarriak)

edea: hedea, uhala

"Gurtedea, edeagas eitte san a (E.)" - (Gurtedea, hedeagaz egiten zen hura)

"Bai baya, es gurtedea itteko, a edeagas eitte san baya, edeakas bustertu, ganadue, beyek edo idiek itteko eukitte sittun adarretatik amarrateko beran serak (E.)" - (Bai baina, ez gurtedea egiteko, hura hedeagaz egiten zen baina, hedeakaz buztartu, ganadua, behiak edo idiak egiteko edukitzen zituen adarretik amarratzeko beraren zerak)

elmuedea: burrukoa

erraillea: errailak, aldamen batetik bestera doazen makilak gurkama osatzeko

errueda itzue: txirrinka itsua

erruedea: gurpila

"Barruko alderritik eukitten dau arek, ba, erruedea itzue danean, aren kontrara beste bat, aren besteak, e, olak, onetara badires, onetara, arek kontrara (E.)" - (Barruko alderditik edukitzen du hark, ba, gurpil itsua danean, haren kontrara beste bat, haren besteak, oholak, honetara badira, honetara, haiek kontrara)

espatea: ezpata, gurkamaren aurreko aldean tente jartzen den makila

eurredidxe: aurredia

urrera kargea: aurrera-karga

eutzegurre: euts egurra

"Eutzegurre, ori de, gurdie buelteu esteitten, mendien, goitti bera edo albos datorrenean, eitte akon, gurdie kargeute dauenari, ganean surrune botate akon, e? espatan sartu, ta atzeko akarrera, ta sokeagas istutu da bera ekarten san, aiñ aspiko alderdittik sartxen san, albotik egur luse bat, sorrostute, ta alboti era gixon batek, inyar andie, gustis andie itteuen sostenittako (Ll.)" - (Euts egurra, hori da, gurdia bueltatu ez dadin, mendian, goitik behera edo alboz datorrenean, egiten

zitzaion, gurdia kargatuta dagoenari, gainean zurruna botatzen zitzaion, e? ezpatan sartu, eta atzeko akerrara, eta sokagaz estutu eta behera ekartzen zen, haren azpiko alderditik sartzen zen, albotik egur luze bat, zorrozuta, eta albotikara gizon batek, indar handia, gustiz handia egiten zuen eusteko)

fronerea: frontera, sapa, buztartzeko ganaduren kopetetan jartzen direnak

galgea: galga, balazta

"Galgea da baya, derrigorreskoa (E.)" - (Galga da baina, derrigorrezkoa)

gana: gana, kina, akuiluak puntan daukan iltzea

gurdi bolantea: gurdi bolantea

"Gurdi bolantea an ikusi osus erruedak? bueno, aixe tire gurdi bolantianak (Ll.)" - (Gurdi bolantea han ikusi dituzu gurdipilak? beno, haiexek dira gurdi bolantearenak)

gurdi itzue: gurdi itsua

"Es, gurdi itzuen es, ori de kateakas erabiltteko (E.)" - (Ez, gurdi itsuan ez, hori da kateakaz erabiltzeko)

gurdi lotue: gurdi lotua

"Suk lotue esan gurosu, gurdi lotuena, lotuenak, gurtetza eroten deu an, eta besteak, orrasiek edo esate otzena, are pai (E.)" - (Zuk lotua esan gura duzu, gurdi lotuarena, lotuarenak, gurtetza eroaten du han, eta besteak, orraziak edo esaten diotena, haiak bai)

gurdie: gurdia

"Ekar du gurdi bete bedar (Z.)" - (Ekarri dugu gurdi bete belar)

"Au geurea tekon moduen, osea, albatea albora ta, len eseuen euki, e? len albatea euki euen baya afrontu te, ta au, au dana ixen san basea, e? bueno! gurdi be pere esin eron ñora, idiek ixen esik (E.)" - (Hau geureak daukan moduan, hau da, albatea albora eta, lehen ez zuen eduki, e? lehen albatea eduki zuen baina afrontua eta, eta hau, hau dena izan zen basa, e? beno! gurdi bat ere ezin eroan inora, idiak izan ezik)

"Gurdietan, ta semet eta gurdi geyau, posau, eta gurdie pere girritze in diela (M.)" - (Gurdietan, eta zenbat eta gurdi gehiago, pozago, eta gurdiak ere girrintza egin dezala)

gurdixille: gurdixila

"Gurdixille da, emen, basoatatik atarateko, piesak, ganean imiñi, osea gurdie txikerra san laburre, eta, ain ganean astoa imiñi, astoa esate akon an imintte akosen age lodieri deskantzeu deyen, eta, an ganian imiñi tte narras ekarten saittuen idiekas, gurdixille ari esaten dako (Ll.)" - (Gurdixila da, hemen, basoetatik ateratzeko, piezak, ganean ipini, hau da gurdia txikerra zen laburra, eta haren gainean astoa ipini, astoa esaten zitzaion han ipintzen zitzaizkion hage lodiarri deskantsa dezan, eta han gainean ipini eta narras ekartzen zituzten idiakaz, gurdixila hari esaten zaio)

gurkamia: gurkama

gurdipille: gurdipila, txirrinka

gurdipuntea: gurdipunta

gursotza: gursotza, larakoa. Buztatu eta ostean, partikoa mugi ez dadin puntan gursotz bi sartzen dira buztarriari eusteko

"Gursotza sartu, eta gursotzak eukitteuen atzean, ba sulotxu bet, eta andik sulotik beste ede sati betegas, ra! partikea buelteta san ta amarreta imiñi, se, a, sera, urten eiñ esteyen (E.)" - (Gursotza sartu, eta gursotzak edukitzen zuen atzean, ba zulo txiki bat, eta handik zulo txiki beste hede zati bategaz, ra! partika bueltatzen zen eta amarratuta ipini ze, zera, irten egin ez dezan)

gurtakarra: gurtakarra, gurkamaren atzeko aldean tente jartzen den makila

gurtekoa: gurtekoa, buztarriak daukan uhalezko uztai modukoa partikoa sartzeko

"Satzan alderako, ta ogetak gurtekoa, ba otea nire gizon defuntuek ebatzen suttusen, e, eta nik kargeu, ta metatu (Z.)" - (Satsaren alderako, eta hogeitak gurtadak, ba otea nire gizon defuntuak ebakitzen zituen, eta nik kargatu, eta metatu)

gurtetza: ardatza

"Besteak egurreko gurtetza deko, gurtetza egurreko, leixarraas eintte, eta a, alboti era, siek goitti bera sartzen dakos aldamenari silloa eintte, ta ari itten dako kurbe antzera, erdiunen, ta a istutute imintten san a gurtetza, osea, selan esaten dako ba? selan esan dot len? etxat akordeko momentuen, a egurreko gurtetza san ixetes, istututeuen, eta axek sosegeute

yoaten san, baya karga andietaraskeron ta, a lusero badabill, lusero bide lusean badator, berotu itten san, ta berotute sue igual artxeuen, erre itten san ta bai, edo gasteu edo apurtu itten san, ta nik neure aitteri esetu otzet, ortxe beko errotan, Latxaganian, lapur lekuko, mukurrek ekarten etorri, ta apurtu te ortxe yausi akon, yausi san, orduentxe ieuen aittek gurdi bolantia esate akona, errementarie egon san ortxe berton, atzeko tabernan, Jose errementari esateutziana, ta axek ei euen, ta eitten siren, errueda andiaukoak eta txikerraukoak, emen aurrekoa aittittek ei euen errueda andikoa, ta guriak, mendien espaldan, oteagas kargeta datorrenean yausi esteitten, bueltea artu esteyen errueda txikerraukoa ei euen (Ll.)" - (Besteak egurrezko ardatza dauka, ardatza egurrezkoa, leizarragaz eginda, eta hura, albotikara, ziriak goitik behera sartzen zaizkio aldamenari zuloa eginda, eta hari egiten zaio kurba antzera, erdiunean, eta hura estututa ipintzen zen ardatz hura, hau da, zelan esaten zaio ba? zelan esan dut lehen? ez zait gomutatuko momentuan, hura egurrezko ardatza zen izatez, estutzen zuen, eta harexek baretuta joaten zen, baina karga handietarazkero eta, hura luzero badabil, luzero bide luzean badator, berotu egiten zen, eta berotuta sua beharbada hartzen zuen, erre egiten zen eta bai, edo gastatu edo apurtu egiten zen, eta nik neure aitari ezagutu diot, hortxe beheko errotan, Latxaganean, lapur lekuko, mukurrak ekartzen etorri eta apurtu eta hortxe jausi zitzaion, jausi zen, orduantxe egin zuen aitagurdi bolantea esaten zitzaiona, errementaria egon zen hortxe berton, atzeko tabernan, Jose errementari esaten ziotena, eta harexek egin zuen, eta egiten ziren, gurpil handiagokoak eta txikerragokoak, hemen aurrekoa aitaitak egin zuen gurpil handikoa, eta gureak, mendiaren maldan, oteagaz kargatuta datorrenean jausi ez dadin, buelta hartu ez dezan gurpil txikerragokoa egin zuen)

gurtola: gurtola

idi busterrie: idi pareta, idi buztarria

"Yoan siren ferire ta idiek gustu sakesan, idi busterrie ta" - (Joan ziren azokara eta idiak gustatu zitzaizkien, idi buztarria eta)

kamea: gurdikama

kargea: karga, zama

"Lenau, e, estratzak oten sien estuek, bide estuek eta, ikeste seudean an estratzian sabiltzela, alboko munetan kaderak einye alkarreri inyarka, ididiek ikeste seudian, ta kamiñoan bere bai, kamiñoan bere lenau, e, ba, Mungidxera seiñ Algortarartian ta dxoate sien, ta Katiketi pere ididiekas lenau, karge eroaten ta, ta ikesten deudea, kantzetan diredenean, alkarreri tireka, atrabeseu alkarreri txe, eurek beres ikesten deude, ta gero eitxeutzeas, e, ametiko belarritxi ididxen, e, beste busterrikoan belarrire soka bat amarreu te tiren imiñi, kanpora adi pare ditxesan ta (L.)" - (Lehenago, estratzak egoten ziren estuak, bide estuak eta, ikasten zuten han estratzean zabiltzala, alboko munetan hankak eginda elkarri indarka, idiek ikasten zuten, eta kaminoan ere bai, kaminoan ere lehenago, ba, Mungiarra zein Algortara eta joaten ziren, eta Gatikatik ere idiakaz lehenago, zama eroaten eta, eta ikasten dute, nekatzen direnean, elkarri tiraka, trabestu elkarri eta, eurek berez ikasten dute, eta gero egiten dizkiete, hamendiko belarritik idien, beste buztarrikoaren belarrira soka bat amarratu eta tiran ipini, kanpora adi para daitezzen eta)

karroa: karroa; gurdia eta karroa desberdinak dira, gurdia itxiari esaten zaio, karroa, berriz, astoakaz edo ibiltzen denari edo irikiari

"Ni txikerretarik ba ori, deskargan, karroagas, a, gure aitxek taberna bere euki euen, a, alondiga bere bai txe, ardaauak errepartidu edo, kantara erdiek, orduen kantara erdiek edo (K.)" - (Ni txikerretatik ba hori, deskargan, karroagaz, gure aitagurdi taberna ere eduki zuen, ahalondiga ere bai eta, ardaauak banatu edo, kantara erdiak, orduan kantara erdiak edo)

kartola: kartola, gurtola

mastarra: maztarra, gurpilaren barnealdeko egur nagusia besteei eusteko

nardie: nardaia

narrue: narrua, buztarriaren gainean ipintzen dena, gehienetan ardi narrua

okatza: okatza

"Sulotxue bai asi itteko, baya gero amarretako ba, beran serak, edea pai baya beran serak eukitte seittusen ak, okatzak (E.)" - (Zulotxoa bai hasi egiteko, baina gero amarratzeko ba, beraren zerak, hedeak bai baina beraren zerak edukitzen zituen hark, okatzak)

ola: ohola

orrasie: orrazia, aldamenetatik goitik behera ardatzari eusten dioten egurrak

"Arek orrasiek istutu sagata geyau ein deyan jentea adi imintxeko (M.)" - (Orrazi haiek estutu zarata gehiago egin dezaten jendea adi ipintzeko)

partikea: partika

"Garrotxue bera da, ta gero ba, an sartuten dana ba, egurrekoa bere ba egoten da baya, gure denporan, burriñeskoa ya useta san, e, pasetakoa, ta a ba, gurdin puntako sotza, se arek sotzak balio ixeteuen bai gurdieri, partike lotueri sartuteko, eta bai garrotxueri sartuteko (E.)" - (Garrotxoa bera da, eta gero ba, han sartzen dena ba, egurrezkoa ere ba egoten da baina, gure sasoian, burrinazkoa ja erabiltzen zen, pasatzekoa, eta hura ba, gurdiaren puntako zotza, ze zotz haiek balio izaten zuten bai gurdiari, partika lotuari sartzeko, eta bai garrotxoari sartzeko)

pistiñe: piztina, frontera dindirria

"Pistiñea, an begietan, e, euliekaittik, e, ba imintten dakonari (E.)" - (Piztina, han begietan, euliengatik, ba ipintzen zaionari)

saldi karroa: zaldi karroa

surrune: zurruna

"A barrabasa! a bera bere, Tetuane Atxurin dau, Tetuaneko bentanatik barrure sartu burue, ta atzera atara esintte nobien aittek surrunegas, barroteak, e, sabaldute atara euen (E.)" - (Hura barrabasa! hura bera ere, Tetuane Atxurin dago, Tetuaneko

leihotik barrura sartu burua, eta atzera atara ezinda andregaiaren aitak zurrunagaz, barroteak, zabaldua atara zuen)

taketa: taketak, aldamenetan ipintzen diren egur txikerrak

ugela: uhala, larakoak edo burzotzak daukan uhaltxoari esaten zaio

ugetza: ugetza

"Ugetza adarra imintxeko sera, bitxartia (L.)" - (Ugetza adarra ipintzeko zera, bitartea)

usteye: uztaia

"Gurdien puntea ta eitten gendusen guk olan, e, apurtu itten danean, ba sati bet kendu, te eskapa esteyen, ta gero usteye, usteye esaten sakon ari burriñeri, errementariiek sartuten sotzena, istututeko, ta karo arek istutute egokeran, aren agiñek ba esotzen itxitten atarateko (E.)" - (Gurdiaren punta eta egiten genituen guk holan, apurtu egiten denean, ba zati bat kendu, eta eskapa ez dezan, eta gero uztaia, uztaia esaten zitzaion burdina hari, errementariak sartzen ziona, estutzeko, eta jakina haiek estututa egokeran, haren haginek ez zioten uzten ateratzeko)

18.9. ASTO GARRAIOA

aparejue: aparejua

astotzarea: astotzara

"Ori dau neurrire intte baya ostantzean, e, ba, normalean orren estilokoa astotzarea ixeten da, astoak albo banatan eroateusen estilokoa (E.)" - (Hori dago neurrira eginda baina osterantzean, ba, normalean horren erakoa astotzara izaten da, astoak albo banatan eroaten zituen erakoa)

bastea: basta

girletea: girleta

kabeserea, kabeseria: kabezera

"Kabesearegas, soka luseagas, onetan amarreta bai, baya orretariko gitxi, se orrek eitte utzean, ba apur bet, a, serean, eratzi onek, ebai itte otzeas, apatxan ganeak, t'eridek eitte otzeas (Z.)" - (Kabezera gaz, soka luze gaz, honetan lotuta bai, baina horietariko gutxi, ze horiek egiten zioten, ba apur bat, zerean, eratzi hauek, ebaki egiten dizkiete, apatxan gainak, eta zauriak egiten dizkiete)

kollarra: koilarra

"Guk olau euki du, txikerrean bere, saldiek erabiltzeko, emetik imintte, saldie euki gendun, e, bakarrik eitten dauena, ta, kollarragas (E.)" - (Guk holakoa eduki dugu, txikerrean ere, zaldia erabiltzeko, hemendik ipinita, zaldia eduki genuen, bakarrik egiten duena, eta, koilarragaz)

kollarra katia: koilarra katea

petrala: petrala

silletea: sileta

txintxia: zintxa

ugela, uela: uhala

urke: txalma

18.10. KORTA

albatea: albatea

"Albate esaten tzu guk gortati urtekerako ateari (K.)" - (Albatea esaten diogu guk kortatik irtekerako ateari)

"Ate biko ixeten da albatea (K.)" - (Ate bikoia izaten da albatea)

askea: aska

aurkie: aulkia, behiak erasteko erabiltzen den aulki txikerra da

eskubillea, eskobille: eskubila

eskubille garratza, eskobille garratza: eskubila garratza

estramiñe: 1. estramina, kortan asken artean dagoen bitartea. 2. suetetik kortara ganaduari jatekoa botatzeko egoten ziren leiho txikerrak

"Estramiñe esetu su? estosu esetu, nik esetu ot, emen es, e? gurean es, baya koñetue bixi san lekuen, e, esetu neuen ori, estramiñea, sutea, eta sutetik alan, a, bentana bate les, iri, eta yaten emoteko (E.)" - (Estramina ezagutu duzu? ez duzu ezagutu, nik ezagutu dut, hemen ez, e? gurean ez, baina koinatua bizi zen lekuan, ezagutu nuen hori, estramina, sutea, eta suetetik halan, leiho baten legez, ireki, eta jaten emateko)

galtzu serrea: galtzu-zerra, lastoak ebakitzeko erabiltzen ziren igitaiak; gehienetan kortako zutaberen baten egoten zen; han ebakitzeko ziren lastoak ganadurari ematen zitzaizkion pentsutzat

"Ori de galtzu serrea, lenau garie eraitten san asko emen, eta, eskus ebaten siren, yo bere eskus, arik eta makiñek agertan asi artean (Ll.)" - (Hori da galtzu-zerra, lehenago garia ereiten zen asko hemen, eta, eskuz ebakitzeko ziren, jo ere eskuz, harik eta makinak agertzen hasi arte)

gorrea, kortea: korta

"Gorrea eulis beteri tau (Z.)" - (Korta euliz beterik dago)

karretillea: karretila

"Oñ, e, karretilleas ataraten du guk pillora gortatik, baya lenau gurdidxe (M.)" - (Orain, karretilagaz ateratzen dugu guk pillora kortatik, baina lehenago gurdia)

ojia: orria

sardea: sarda

sarrantxea: txarrantxa

19. GIZARTEA

Gizarte bizimoduari buruzko atal honetako lexikoa merkatu-azoka, dirua, neurriak, jendea, kortesia formulak, jabetza erlazioak, auzoen erlazioak-elkarteak, ezkontza, musika-dantza, kirola, aisia, karta jokoak, ehiza-arrantza, jaiegunak, euskara, eta gerratea-soldaduska izeneko azpi-gaietan banatuta ematen dugu.

19.1. MERKATU-AZOKA

agintzaridxe: eskaintza, agintza

asto tratue: asto-tratua

"Asto tratuen, a, jittanuek usabak siren (T.)" - (Asto-tratuan, ijitoak uzabak ziren)

balantzea: pisatzeko balantza

baskulea: baskula

bendejea: bendeja, plazara saltzeko erooten den jeneroa

"Ta etorte sirenean posik, se jentea ba, esales egoten, emen Mungi ingeruen emen eston eser eser bere, emen on dana ixen da serra bi, non irebasirik esan oten, ba bakotxak, a, bendejia edo ser edo a in bear ixetan gendun, biximodue aurrera ataateko (Z.)" - (Eta etortzen zirenean pozik, ze jendea ba, ez zenez egoten, hemen Mungia inguruan hemen ez da egon ezer ezer ere, hemen egon dena izan da zerratoki bi, non

irabazirik ez zen egoten, ba bakoitzak, bendeja edo zer edo hura egin behar izaten genuen, bizimodua aurrera ateratzeko)

bendejerea: bedejera

beserea: bezeroa (f.)

beserie: bezeria

beserue: bezeroa

erregaterea, erregeterea: erre kardaria, erosi eta saldu egiten duena plazan edo azokan (f.)

erregaterue: erre kardaria, erosi eta saldu egiten duena plazan edo azokan (m.)

"Erregateru pere bai etorte siren (A.)" - (Errekardariak ere bai etortzen ziren)

errekadue: 1. errekadua, mandatua. 2. gaztigua, mezua

ferie: azoka

feri egune: azoka eguna

feri lekue: azoka lekua

fielatoa: fielatoa

"Fielatoa egote san Bilbon Askaon bere, fielatoa egote san orduen bere, jeneroak, a, deklarretako, beti tranpe itte otzean (T.)" - (Fielatoa egoten zen Bilbon Askaon ere, fielatoa egoten zen orduan ere, gauzak, deklaratzeko, beti tranpa egiten zieten)

ganadu ferie: ganadu azoka

gastue: gastua

konprea: erosketa

plasea: plaza, azoka

"Nik, bai, nik plase beti esetu dot Mungiñ (A.)" - (Nik, bai, nik plaza beti ezagutu dut Mungian)

"Oñ erropak eta an egoten diresan lekuen len an eitte san plasea (A.)" - (Orain arropak eta han egoten diren lekuan lehen han egiten zen plaza)

postue: merkatuko saltokia

presioa: prezioa

"Diferentzi andie deko, alde andie deko, presioan bertan bere (Ll)" - (Alde handia dauka, alde handia dauka, prezioan bertan ere)

sorroa: zorroa, zakua

tratantea: tratantea

"Or Laukis aldean, e, egon san tratante bat, e, astoakas eta kaballoakas ibiltten sana (Ll.)" - (Hor Laukiz aldean, egon zen tratante bat, astoakaz eta zaldiakaz ibiltzen zena)

tratue: tratua

"Tratu gustittan irebasi deula esa eutzen abogaduri berak, ta kiebra ei eun ta, sorrak (Z.)" - (Tratu guztietan irabazi duela esan zion abokatuari berak, eta kiebra egin zuen eta, zorrak)

txarri ferie: txerri azoka

"Sanantontxu te San Sebastian, San Sebastian egune ixetan san, txarrientzako, txarri ferie (Z.)" - (Sanantontxo eta San Sebastian, San Sebastian eguna izaten zen, txerrientzat, txerri azoka)

"Emeretzi ogedxen, eneroan, orduntxe egon san txarri feridxe (A.)" - (Hemeretzi hogeian, urtarrilean, orduantxe egon zen txerri azoka)

txarri tratue: txerri-tratua

"Emen ingeruen, a, txarri tratue gutxi, geyenak giputzek ixen dire, emetik ibil direnak, txarri tte, emen, neure ama defuntea pere, ba, nire ama Larroikoa ixen da, ta neu bere Larroññ yayoa nas, gero Larroittik Sabalondora, ta andik ona eskondu nitzen, eta asi itten sittusen sasoyatan txarriek, ba besterik, seri turetirik esalako egoten, segas edo agas bakotzak, a, biximodue, ba atara in bear, t'alandxe (Z.)" - (Hemen inguruan, txerri-tratua gutxi, gehienak giputzak izan dira, hemendik ibili direnak, txerria eta, hemen, neure ama difuntuak ere, ba, nire ama Larraurikoa izan da, eta neu ere Larraurin jaioa naiz, gero Larrauritik Zabalondora, eta handik hona ezkondu nintzen, eta hazi egiten zituen sasoietan txerriak, ba besterik, zeri tiraturik ez zelako egoten, zegaz edo hazaz bakoitzak, bizimodua, ba atera egin behar, eta halantxe)

19.2. DIRUA

alogerea, alagorea: alogera, soldata

deskontue: deskontua

dirue: dirua

"Estekot dirurik (Z.)" - (Ez daukat dirurik)

"Diruten, e, euko eudean, batzu pai beste batzuk es, segun se obligasiñoas edo se lokal edo senbet okupetan deuen diferentzi andie dau (Ll.)" - (Dirutan, edukiko zuten, batzuek bai beste batzuek ez, segun ze

betebeharragaz edo ze lokal edo zenbat betetzen duen alde handia dago)

erreal, errela, erriala: erreala

"Errelak eta bere olan asko gustate sakean, pesete esan berren lau errel, bost errel (A.)" - (Errealak eta ere holan asko gustatzen zitzaien, pezeta esan beharrean lau erreal, bost erreal)

"Saspi mille errial eta, onen amak ekar seixusen ona saspi mille errial (M.)" - (Zazpi mila erreal eta, honen amak ekarri zituen hona zazpi mila erreal)

"Ogetamasei mille erreal, e, imiñi seittuesan amen, ba orduen ogetamasei mille erreal diru asko ixen san (E.)" - (Hogeita hamasei mila erreal, ipini zituzten hamen, ba orduan hogeita hamasei mila erreal diru asko izan zen)

jornala: alogera

ogerlekoa: ogerlekoa

"Au etzea, amasortzi urte uki sittusen, nire gixonak, ogetabat mille ogerleko pageta dau (Z.)" - (Etxe hau, hamazortzi urte eduki zituenean, nire gizonak, hogeita bat mila ogerleko ordainduta dago)

"Ogerleko bat edo bi atara igual edo, igual ogerleko ba pereseuden atarako baya, olantxe ibiltxe siren sonularidzek" - (Ogerleko bat edo bi atera beharbada edo, beharbada ogerleko bat ere ez zuten aterako baina, holantxe ibiltzen ziren soinulariak)

pagea: saria, ordaina

pague: ordaina

pesetea: pezeta

"Olloskoa aun pesetan dau (Z.)" - (Oilaskoa ehun pezetan dago)

"Seuri mille peseta ixetako lekuen, iru mille peseta emongo atzus (E.)" - (Zeuri mila pezeta izateko lekuan, hiru mila pezeta emango zaizkizu)

sorra: zorra

"A sor askoas pare san (E.)" - (Hura zor askogaz paratu zen)

trukea: truke

txakurrandie: txakurrandia

"Ni txikitxuten ibiltte nau olan errepartitten ta, ganera posik ibiltte nitzen se emoteosten, a, seusertxu diru aputxu bet edo txakurrandi bet edo bi (Z.)" - (Ni txikitxotan ibilita nago holan

banatzen eta, gainera pozik ibiltzen nintzen ze ematen zidaten, zer edo zertxo diru aputxo bat edo txakurrandi bat edo bi)

txakur txikerra: txakur txikerra

19.3. NEURRIAK

alturea, altorea: altuera

"Lenengo kaderak, altorea artu, non bear dosusen suloak markau, antxe eiñ, suloak, ta gero sotzak (E.)" - (Lehenengo oinak, altuera hartu, non behar dituzun zuloak markatu, hantxe egin, zuloak, eta gero zotzak)

altzie: hatza, neurri moduan erabiltzen dena, kasurako joskigintzan

altzi erdie: hatz erdia

anegea: anega

"Anegako onenbeste baya, amabi libre edo (Z.)" - (Anegako honenbeste baina, hamabi libra edo)

anega erdie: anega erdia

arrea: arra

"Saspi arra ta erdi dekosenak, berrogei erralde, eta gero arra erdiko amar erralde gedxau (M.)" - (Zazpi arra eta erdi dauzkanak, berrogei erralde, eta gero arra erdiko hamar erralde gehiago)

arra erdie: arra erdia

arrobea: arroba

asunbrea, asunbria: azunbrea

asunbre erdie: azunbre erdia

atza: hatza

begidxe: begia, neurri-kordelaren oralekua, egiten den troinua atzamarra sartzeko

distantzidxe: tartea, bitartea

dosena erdie: dozena erdia

dosenea: dozena

"Numero fijos estau, segaitti se olloa selaua dan aittu bear da, dosena t' erdi, dosena bi imintteko gustis andie ber san olloa, se ondo tapeute espadaus, segiduen, galdu itten dire arrotzak (Ll)" - (Zenbaki finkorik ez dago, zeren oiloa zelakoa den aditu behar den, dozena eta erdi, dozena bi ipintzeko guztiz handia behar zen oiloa, ze ondo tapatuta ez badagoz, segituan, galdu egiten dira arrautzak)

erdie: erdia

"Au erdi bana yango due (Z.)" - (Hau erdi bana jango dugu)

erdikiñe: erdikina

erraldea: erraldea, bost kiloko pisua

"*Saspi txerdiges berrogei erralde, sortzigos berrotamar, sortzi txerdiges, irurogei, bederatziges irurotamar ta olan, baya or dau noperak bisdia eron ber deu or se, batzu taus, armera sera dekenak, gartzelidxe itxen deuenak, orrek, e, eurreko besoan ganeti, au itxen deudenak, ganadu batzuk, ta beste batzuk, a biskerra artes dekeanak, t'or, or kalkuleu biar deu noperak, se an aldia oidalaua dau (M.)*" - (Zazpi eta erdigaz berrogei erralde, zortzigaz berrogeita hamar, zortzi eta erdigaz, hirurogei, bederatzigaz hirurogeita hamar eta holan, baina hor dago norberak ikusmena eroan behar du hor ze, batzuk dagoz, armera zera daukatenak, gartzelia egiten duenak, horiek, aurreko besoaren gainetik, hau egiten dutenak, ganadu batzuk, eta beste batzuek, bizkar hura artez daukatenak, eta hor, hor kalkulatu behar du norberak, ze han aldea ohidalakoa dago)

estatu: estatua, gizalanak neurtzeko erabiltzen den era

"*Eun estatukoa eta irutamar estatukoa dau, emen, Yataben asi tte arantza or kostan, irutamar estatukoa (Ll.)*" - (Ehun estatukoa eta hirurogeita hamar estatukoa dago, hemen, Jataben hasi eta harantz hor itsasaldean, hirurogeita hamar estatukoa)

"*Eun estatu dekoso emekoak (Ll.)*" - (Ehun estatu dauzka hemengoak)

eunekoa: ehunekoa

"*Onak esan gure deu, il ganadue ta tripena ta deskontue, ganaduek senbet ingeru eukitxen deuen, eunekoa (M.)*" - (Honek esan gura dau, hil ganadua eta tripena eta deskontua, ganaduak zenbat inguru edukitzen duen, ehunekoa)

gixelana: gixelana, honek 380 metro karratu dauka

gixelan andie: gizalan handia

gixelan txikerra: gizalan txikerra

imiña: imina

"*Selemiña ta imiña, esetu ittus berorrek? (Z.)*" - (Zelemiña eta imina, ezagutu ditu berorrek?)

iru lauren: hiru lauren

kana erdie: kana erdia

kanea: kana, ehuna neurtzeko neurria

"*Kanea meideari esate sakon ordun (M.)*" - (Kana neurriari esaten zitzaion orduan)

kantara erdie: kantara erdia

"*Kantara erdie, eta kantarea, garrafoyak egon siren, ta beste bat on san lau litrokoa (K.)*" - (Kantara erdia, eta kantara, garrafoiak egon ziren, eta beste bat egon zen lau litrokoa)

kantarea: kantara

kantidadea: kantitatea

kiloa, killoa: kiloa

"*Ekar daudea aun kiloko arrie (Z.)*" - (Ekarri dute ehun kiloko harria)

kilo erdie, killo erdie: kilo erdia

kilometroa: kilometroa

kintxela: kintala

kuarteroya: kuarteroia

kuartillue: kuartilua

kuartillu erdie: kuartilu erdia

laurena: laurena

liber laurena: libra laurena

liberdie: liberdia, libra erdia

librea: libra

"*Baya gero kantze itte san se eseuen proba itten ta, igual erosi euns bi tte, euki iru illebeteen ta libre bat irebasitte (T.)*" - (Baina gero nekatu egiten zen ze ez zuen praba egiten eta, beharbada erosi ahuntz bi eta, eduki hiru hilabeteen eta libra bat irabazita)

litroa: litroa

litro erdie: litro erdia

megidea, meidea: neurria

metroa: metroa

"*Berreun metroan esi lei iñ eser bere (Z.)*" - (Berrehun metroan ezin liteke egin ezer ere)

moltzoa: multzoa

mortxoladea: multzokada

neurrie: neurria

"*An gallurretik kaperioak imintteko, etzeak, e, neurri andie eukitten deu, eta bien bittartean bandak yoan bear deude (E.)*" - (Han gailurretik gapirioak ipintzeko, etxeak, neurri handia edukitzen du, eta bien bitartean bandek joan behar dute)

neurri kordela: neurri kordela, ganaduaren pisua kalkulatzeko erabiltzen den kordela

"*An andiko kajan dau, andiko kajan dau ori, neurri kordela (M.)*" - (Han handiko kaxan

dago, handiko kaxan dago hori, neurri kordela)

"Neuk eiñe baya neurri kordela biar dan modukoa neuk eintxe dau au (M.)" - (Neuk egina baina neurri kordela behar den modukoa neuk eginga dago hau)

oiñe: oina, lehen bideetan erabiltzen zen neurri mota

"Len saspí oiñekoa txikerrena, lengo denporatan, oiñ, gobiernuek, eskubide geyau emonta dauela diñue, estakiu legeraskeron ser ixengo littiken (Ll.)" - (Lehen zazpi oinekora txikerrena, lehengo sasoietan, orain, gobernuak, eskubide gehiago emanda dagoela dinote, ez dakigu legerazkero zer izango litzatekeen)

ontzea: ontza

"Atxiñe atxiñe ni lelauas asi nitzenian, eitxe san, e, ididxek pixetako pixue esan egoten komenentzirik eta, eitxe san kordelagas meidu, neurri kordelagas, pixu bi imiñi, bota ididxen aspitxi koyute, punte bidxek ididxen ganetik albo banatan ta, killoko pixu bana puntan amarreu kordelari, ta arek eitxe seuen meidia, ta gero ontzako, killo bat edo bi, kargeu, a arridxena, imintxe sitxuen kana bi txe igual sortzi arrati, ta sortzi tx'erdi bakos ba, aunenbeste, ser dekos, onenbeste killo gidxau, oin ba pixuas eitxen da, ba lenau es, lenau gu asi gintzesenean kordelagas eitxe san (L.)" - (Antzina-antzina ni lehenagoagaz hasi nintzenean, egiten zen, idiak pisatzeko pisua ez zen egoten komenentziarik eta, egiten zen kordelagaz neurtu, neurri kordelagaz, pisu bi ipini, bota idiaren azpitik hartuta, punta biak idiaren gainetik albo banatan eta, kiloko pisu bana puntan amarratu kordelari, eta hark egiten zuen neurria, eta gero ontzako, kilo bat edo bi, kargatu, hura harriarena, ipintzen zituen kana bi eta beharbada zortzi arratik, eta zortzi eta erdi badauzka ba, haonenbeste, zer dauzka, honenbeste kilo gehiago, orain ba pisuagaz egiten da, ba lehenago ez, lehenago gu hasi ginenean kordelagaz egiten zen)

ontza erdie: ontza erdia

pare bat: pare bat

parea: pareia

parejea: bikotea

partidea: partida, piloa

"Karburoa oiñkarren esta olan urte partideri pere (La.)" - (Karburoa oraindikaren ez da holan urte partidarik ere)

pilloa: piloa

pixue, pisue: pisua

romanea: erromana

"Romanea bakixu ser dan? romanea nik esetu dot beti (Z.)" - (Erromana badakizu zer den? erromana nik ezagutu dut beti)

satie: zatia

selemiñe: zelemina

"Selemiñe, a, ebaten san, listoi bateas, e, ra! ebaitte selemiñe, ta imiñea dariola, imiñea, punte, bueno aolan, a, kaja kuadrado bet, lusetxue, ta gero emen ebai tte ola seren daula, ta ak berak ere dekon, a, sakure bota (Z.)" - (Zelemina, ebakitzen zen, listoi bategaz, ra! ebakita zelemina, eta imina dariola, imina, punta, beno haolan, kaxa karratu bat, luzetxoa, eta gero hemen ebaki eta ohola zerean dagoela, eta hark berak era daukan, zakura bota)

sentimetroa: zentimetroa

sientoa: ehunekoa, landareak saltzeko eta erosteko neurria

siento erdie: ehuneko erdia

siento laurena: ehuneko laurena

tamañue: tamainua

"Goyen dau ori gero, beste ser kuadrado betegas imiñitte, kuadrado es, e, beste eje bat olan daula, ba dekos beran ranurek, ranurek, ta ak ranurek, ta ak botaten deu garoa, regulau ak eitten deu, a geyau botateko, gitxiau botateko, ta ak regulaten deu, se, esin badeu, esin badeu pasau, asko yausten badako ta esin badeu pasau bere itto itten da, ta tamañue an koyu ber dako (Z.)" - (Goian dago hori gero, beste zer karratu bategaz ipinita, karratua ez, beste ardatz bat holan dagoela, ba dauzka beraren zirrikituak, zirrikituak, eta zirrikitu hark, eta hark erregulatzen du, ze, ezin badu, ezin badu pasatu, asko jausten bazaio eta ezin badu pasatu ere ito egiten da, eta tamainua han hartu behar zaio)

tramue: tartea

19.4. JENDEA

eskekoa: eskekoa, eskalea

jentea: jendea

"Oin baño jente giau ibiltxe san gaues ortik eta bildur barik, e! (K.)" - (Orain baino jende gehiago ibiltzen zen gauez hortik eta bildur barik, e!)

jente modue: jende modua

jitanue, jittanue, jitanoa, kittanue: ijitoa

"Jitanuek paño jente pobrea, jente, se esango tzu nik? onetariko jentea, jente bandido asko, neu pere, esetu dot eta, neu bere yoa nas, jornalean ibilli neure gixona, eta goiko pisure, esta? esanotzon, ni enas geyau yoango ba, se beko sotanure enitzen etorri, ta, aik dediketan siren nai patatak ataraten nai danatariko itten, dediketan san jentea (Z.)" - (Ijitoak baino jende txiroa, jente, ze esango dizut nik? hauetariko jentea, jente bandido asko, neuk ere, ezagutu dut eta, neu ere joan naiz, alogerean ibili neure gizona, eta goiko solairura, ezta? esan nion, ni ez naiz gehiago joango ba, ze beheko satora ez nintzen etorri, eta, haiek dedikatzen ziren nahi patatak ateratzen nahi denetarikoa egiten, dedikatzen zen jentea)

"Jitanuek etorte siren astoakas, en jeneral (K.)" - (Ijitoak etortzen ziren astoakaz, gehienetan)

lagune: 1. laguna. 2. pertsona

"Beragas lagun errotakoa etorten da (Z.)" - (Beragaz lagun errotakoa etortzen da)

"Euki daude laguntzet (Z.)" - (Eduki dute laguntzat)

"Esteude gu istan batzuk, e, euren arrutze kodxu deidxen lagunak (A.)" - (Ez dute gura izaten batzuek, euren arrautza hartu dezan lagunak)

"Arridxeakas ba ukus dot nik, lagun biñ artian (M.)" - (Harriakaz ba ikusi dut nik, lagun biren artean)

lapurre: lapurra

"Nik, e, bai, batak lapurrek urten dotzea, besteak ostu dotze baya, olan, a, julano ta bengano, esateko moduen nik es, ostantzean bai, orrek famea beti euki deu, lapur famea beti, Beko Kalea (Z.)" - (Nik, bai, batak lapurrek irten diote, besteak ostu diote baina, holan, urlia eta barandia, esateko moduan nik ez,

osterantzean bai, horrek, ospea beti eduki du, lapur ospea beti, Beheko Kalea)

"Baya txarren a ixetan san, a egon san beresi, nik esetu ot, or biberoa eiñ orduko, aritxe satarra ta ba, txiker andiek mukur sarra ta, ta leku loye ixen san, or euki eudean euren urtekerea lapurrek (Ll.)" - (Baina txarren hura izaten zen, hura egon zen berezi, nik ezagutu dut, hor mintegia egin orduko, haritz zatarra eta ba, txiker handiak mukurtzarra eta, eta leku lohia izan zen, hor eduki zuten euren irtekera lapurrek)

lapur lekue: lapur lekua

"Mungiko beresie beste ba ta, e? ortxe, Grera selan bajekeria ein yeuden? or, kamiño barrien urtekeran, axe ixen san, e, Mortondo beresi, Mortondo, ango etzeak aingo usabanak euki euden ta beresi esateutzen, lapur lekue a san (Ll.)" - (Mungiako berezia beste bat da, e? hortxe, Grera zelan bajakera egin duten? hor, kamino berriaren irtekeran, huraxe izan zen, Mortondo berezi, Mortondo, hango etxeak hareneko uzabenek eduki zuten eta berezi esaten zioten, lapur lekua hura zen)

moroa: mairua

"Itzela, ori sen lenau moroak eiñeko etzea, etze ederra dau or Beñakabarrenen (Ll.)" - (Itzela, hori zen lehenago mairuek egineko etxea, etxe ederra dago hor Meñakabarrenan)

persona modue: pertsona modua

personea: pertsona

taberna gixona: taberna gizona

taberna mutille: taberna mutila

txokoa: txokoa

19.5. KORTESIA FORMULAK

agur: agur

alan ekarri!: halan ekarri!

arrastion: arrasti on

"Amen goyen egon abadea, eta gu aor Lau Bidean, aor bean, ikusi, eun metro eun de ogei metro ingeru daus eta adi, eta andik, e, ak sugoyak txorieri itxen tzonan moduen, aditxueskeron, andik betik, karraderan etorri bear ona ta arrastion esan bear abadeari ortik yoateko (K.)" - (Hemen goian egon abadea, eta gu haor Lau Bidean, haor behean, ikusi, ehun metro

ehun eta hoge metro inguru dagoz eta adi, eta handik, hark sugoiak txoriari egiten dionaren moduan, adituz gero, handik behetik, karraderan etorri behar hona eta arrasti on esan behar abadeari hortik joateko)

arratzaldeon: arratsalde on

aspaldiko: aspaldikoa

egunon jangoikoak emon deixule!: egun on jaungoikoak eman diezazuela!

egunon: egun on

ekarri bostekoa: ekarri bostekoa

eskerrik asko: eskerrik asko

eup: aup, eup, kaixo

eupadia: aupada

gero arte: gero arte

geubon, gebon: gau on

gorantzik, gorantziek, gorantxidxek: gorantziak

"Gorantziek emon tzos gugaittik (E.)" - (Gorantziak eman dizkio gugatik)

ikusi arte: ikusi arte

jangoikoak alan emon: jaungoikoak halan eman, hau erantzun moduan erabiltzen da

mesedes: mesedez

ola: kaixo

on ein deixuela: on egin dezazuela

ondo ibilli: ondo ibili

ondo ixen deixule!: ondo izan dezazula! ama izango denari opatzen zaio

ondo lo eiñ: ondo lo egin

sorionak, soridxonak: zorionak

urte askotan: urte askotan, aurkezpenak egikeran erabiltzen den konplimentu era

19.6. JABETZA ERLAZIOAK

alkar poderoso: elkar poderoso

"Ba alkar poderoso, estakitx ixengo bada ori, se guresoak erote seudean, seuser paseskeron, se atxiñe, fameli ixenkeran bere, ba jentea ill itte san, se etzean, jente asko iltxen san, oin baño geyau, se oiñ esta iltxen iñor, baya lenau bai itxen siren, se esetu dodas nik bi edo iru edo lau bere bai (M.)" - (Ba elkar poderosoa, ez dakit izango den hori, ze gurasoek eroaten zuten, zer edo zer pasatuz gero, ze antzina, familia izakeran ere, ba jendea hil egiten zen,

ze etxean, jende asko hiltzen zen, orain baino gehiago, ze orain ez da hiltzen inor, baina lehenago bai egiten ziren, ze ezagutu ditut nik bi edo hiru edo lau ere bai)

errentadoria: errentadorea

errentia: errenta

"Guk aministradoreari orduen, e, ba, berrotamar, e, ogerleko, errentea, ta kontribusiñoak, eta gurdi bete ota eron bear ixetan geuntzen (E.)" - (Guk aministradoreari orduan, ba, berrogeita hamar, ogerleko, eta kontribuzioak, eta gurdi bete ote eroan behar izaten genion)

etzeko andria: etzeko andrea

gosamena: gozamena

"Fiken lengusuek ixen siren, baya bat gosamenen egon san, koñetue, eskondu sana gosamenen egon san ta (E.)" - (Fikan lehengusuak izan ziren, baina bat gozamenean egon zen, koinatua, ezkondu zena gozamenean egon zen eta)

kontribusiñoa: kontribuzio zerga

"Arek Orabillek etorte siren kontribusiñoa pagetan Mungire, astoakas neuk ikuste nittusen, a, angoa tirela ta Mungiko kontribusiñoa pagetan Mungire etorte siren (T.)" - (Haiek Orabilak etortzen ziren kontribuzioa ordaintzen Mungiara, astoakaz neuk ikusten nituen, hangoak direla eta Mungiako kontribuzioa ordaintzen Mungiara etortzen ziren)

medeliñe: medelina

"Medeliñe, etzian apartasiñoa gortia eta sutia apartetako erdiko ormia, da medeliñe (L.)" - (Medelina, etxearen banaketa korta eta suetea banatzeko erdiko horma, da medelina)

"Bixitze bikoetan bere, ori gortea dana tekia aparteta ormiagas, ta a da medeliñe (L.)" - (Bizitza bikoetan ere, hori korta denek daukate banatuta hormagaz, eta hura da medelina)

propiedadea: ondasuna, propietatea

propietaria: jaubea, etxe andrea

"Enei! eta propietariak ixeneskeron, guk amari, igual ba eskatan geuntzen ba, gu pere erropa barritxuek eta, lagunakas ibiltzeko, ba erropa barritxuek eta gure, ai baya arek ein yeude erropea ta geu pere ba, seuserxu te, ai arek propietarioa tire, baya suek errentadoriak saria (M.)" - (Enei! eta jaubeak izanez gero, guk amari,

beharbada ba eskatzen genion ba, guk ere arropa berritxoak eta, lagunakaz ibiltzeko, ba arropa berritxoak eta gura, ai baina haiek egin dute arropa eta geuk ere ba, zer edo zertxo eta, ai haiek jaubeak dira, baina zuek errentadoreak zarete)

propietarioa: jaubea, etxe jauna

publikue: publikoa

usaba: ugazaba, uzaba

"Guk usabarik kasik esetu bere estu eiñ, ba amistradorea euki gendun (E.)" - (Guk uzabarik kasik ezagutu ere ez dugu egin, ba administradorea eduki genuen)

usabandrea: ugazaba andrea

yaubea, dxeubia: jabea

19.7. AUZOEN ERLAZIOAK

alborkea, albrokea: albrokea, ganadu tratua egin eta ostean egiten den kopua

"Albrokerik ein yosu iños ala? ta albroke beti andie, ba axek galdu sittu (M.)" - (Albrokarik egin duzu inoiz ala? eta albrokea beti handia, ba harekek galdu zaitu)

arto afarie: arto afaria; lagun batzuen artean baten artoak egin eta ostean jaten zen afaria

artuemona: hartuemona

ausoa, eusoa: auzoa

ausokoa, eusokoa: auzokoa

"Txikitxuten asto ganean ibilli, ta, sera, galtzuen, e, denporea san, e, galtzue yoteko, lenau eskus yote siren arri beten galtzuek, eta asto ganean ibilli, gastetxue karala, ba eusokoak, danok pareu filen ta bakotxak, e, buelta bi edo astoa, asto txiker bategas, an, eusoko seragas, emeko, eusoko geure urrengo etzekoagas an, astoan ibil gintzesan, ta, an, e, ango etzekoak etor siren, onek serean, e, emen, e, estasiño ondoan bixi siren, ta ara etor siren, e, osabea euki euden ayek eta, ba txoleagas yo seuen gero, astoa, yo ta bera (Ll.)" - (Txikitxotan asto ganean ibili, eta, zera, galtzuaren, sasoia zen, galtzua jotzeko, lehenago eskuz jotzen ziren harri baten galtzuak, eta asto ganean ibili, gaztetxoak garela, ba auzokoak,

denok paratu ilaran eta bakoitzak, buelta bi edo astoa, asto txiker bategaz, han, auzoko zeragaz, hemengo, auzoko gure hurrengo etzekoagaz han, astoan ibili ginen, eta, han, hango etzekoak etorri ziren, hauek zerean, hemen, geltoki ondoan bizi ziren, eta hara etorri ziren, osaba eduki zuten haiek eta, ba txolagaz jo zuen gero, astoa, jo eta behera)

bandea: banda, taldea

"Ni enas iños yoan baya, gure sasoikoa paño, apur bet sarraoak emen, e, banda andie egon san, soñue ta gusti yoaten siren (E.)" - (Ni ez naiz inoiz joan baina, gure sasoikoak baino, apur bat zaharragoak hemen, talde handia egon zen, soñua eta guzti joaten ziren)

bela muerta: errematan erabiltzen den esakuna amaitu dela adierazteko

besinoa: auzoa

"Or Laukisetik Ametzara egon san bidea eintte, bide partikular bat, kasureko ba, gurdientzat edo olan aurek eintte aurek besinoak eintte, guk amen euki gendun moduen (E.)" - (Hor Laukizetik Ametzara egon zen bidea eginda, bide partikular bat, kasurako ba, gurdientzat edo holan eurek eginda eurek auzoek eginda, guk hamen eduki genuen moduan)

bestalde bestaldekoak: bestealde-
bestealdekoak

beste aldekoa: beste aldekoa, etxe bereko auzoa

bestaldea, beste aldea: auzoa, beste aldeko auzoa

"Koñetue ta bestealdean bixi ixen siren (E.)" - (Koinatua eta beste aldean bizi izan ziren)

erregalue: erregaloa, oparia

erremandadea: ermandadea, baserritarren arteko elkarte

"Erremadadana ixeta san, e, gu Atxuriñ egoten gintzen, Atxuriñ egote san erremandadea, eta ixeta san ba, ote siren, e, bakotxak emoten sittusen, e, ba dekosen, e, serak, ta gero mayordomo esate yakona etorte san, ba etorte siren, ille birik edo iru illebeteri peiñ edo (Z.)" - (Ermandadarena izaten zen, gu Atxurin egoten ginen, Atxurin egoten zen ermandadea, eta izaten zen ba, egoten ziren, bakoitzak ematen zituen, ba dauzkan, zerak, eta gero maiordomoa esaten zitzaiona etortzen zen,

ba etortzen ziren, hil birik edo hiru hilabeterik behin edo)

"Ganadue, atxiñe, erremadadera botaten san, esta? geixorik edo, seuser, e, koxorik edo badau, seuser pasetan badako, t'orreri ser esaten sotzesuen ba? (M.)" - (Ganadua, antzina, ermandadara botatzen zen, ezta? gaixorik edo, zer edo zer, koxorik edo badago, zer edo zer pasatzen bazaio, eta horri zer esaten zenioten ba?)

errematea: erremata

"Kasureko ayuntamintxueri pagetan sakona, yoaten san, a, erriko erremata dau, ta yoaten san ba, pujen yoaten san a, mistoak bistute, bela muerta edo esateuden (K.)" - (Kasurako udalari ordaintzen zitzaiona, joaten zen, herriko erremata dago, eta joaten zen ba, pujan joaten zen, mistoak biztuta, 'bela muerta' edo esaten zuten)

erreuniñoa: batzarra

kabue: kabua, udalaren aginduz totoa egiten ziren beharren arduraduna auzoan

"Kabu bet, ba kamiñoan bear eitten deuen bat (Z.)" - (Kabu bat, ba kaminoan behar egiten duen bat)

kare totoa: kare totoa

"Kare totoa es, baya karea geu pere iños ekar du, kamioikadak (L.)" - (Kare totoa ez, baina karea geuk ere inoiz ekarri dugu, kamioikadaka)

katea: katea

"Ori kalea pasetako bere page in bear ixetaudean, ganaduek, ori pasetako, katea, katea, Mungiko katea san ori, katea, ta, saldiek eukitxen basitxusen, biorrak, a, lau kadera suriek, ba libre eukitxeuden (K.)" - (Kale hori pasatzeko ere ordaindu egin behar izaten zuten, ganaduek, hori pasatzeko, katea, katea, Mungiako katea zen hori, katea, eta, zaldia edukitzen bazituen, behorrak, lau hanka zuriak, ba libre edukitzen zuten)

konbidedue: gonbidatua

"Andramariko elixan aspian bixi ixen gara beti txe, konbideduek guk beti euki dus (K.)" - (Andramariko elizaren azpian bizi izan gara beti eta, gonbidatuak guk beti eduki ditugu)

konbidedutzea: gonbidatutza

kuadrillea: lagun taldea

"Santzoa botate suren, erromeri egunetan kuadrilletan, kuadrilletan neskatoakas, eta olau lekuetan (Z.)" - (Zantzoa botatzen zuten, erromeria egunetan lagun taldeetan, lagun taldeetan neskatoakaz, eta holako lekuetan)

laguntziñoa: laguntza

legea: legea

listerue: listeroa

mayordomoa, madxordomoa: maiordomoa

mesedia: mesedea

monyorra: teila boda, teilatua egikeran egiten den jatordua

mutil kuadrillea: mutil taldea

mutil lagune: mutil laguna

"Nik mutil lagun bet euki neuen, e, eskolara ibillikoa (E.)" - (Nik mutil lagun bat eduki nuen, eskolara ibilikoa)

neska lagune: neska laguna

"Egon san, geure neska lagun bet, geure neska lagun bet, nik ba semet urte? amasei, amasaspi, amasortzi, eta egon sen ba, bulerretik egon san (M.)" - (Egon zen, geure neska lagun bat, geure neska lagun bat, nik ba zenbat urte? hamasei, hamazazpi, hamazortzi, eta egon zen ba, bularretik egon zen)

neskato lagune: neska laguna

pujea: puja

sastotoa: sats totoa, satsak ateratzeko egiten zen totoa

sindikatoa: sindikatoa

"Nik sortzi urte tesoseru ein yodas sindikatoan Mungikoan (E.)" - (Nik zortzi urte diruzain egin ditut sindikatoan Mungiakoan)

talle bodea: teila-boda

"Kostunbre itzela egon san, talle bodea, eitxea (K.)" - (Ekandu itzela egon zen, teila-boda egitea)

"Talle boda pere bai, diferentzikoak, an etzian, guk an ein gendunian, e, talle bodea, lasteidxen sementoa bota sotzon ta, lasteidxen ein seuen, e, geur egunean beskaridxe, t'urreo eguneko beskarirartean egon gintzesan an, e, talle bode itxen (L.)" - (Teila-bodak ere bai, desberdinak, han etxean, guk han egin genuenean, teila-boda, lastegian porlana bota zion eta, lastegian egin zuen, gaur

egunean bazkaria, eta hurrengo eguneko bazkarira arte egon ginen han, teila-boda egiten)

tasadoria: tasadorea, ermandadaren izenean ganadua tasatzen joaten zena

totoa: auzoen artean egiten den lan komunala

"Totoa da ba, jentea batu, eta totoan, e, etorri itten datzus te gero yatordu bet emon ta agas sertu (Ll.)" - (Totoa da ba, jentea batu, eta totoan, etorri egiten zaizkizu eta gero jatordu bat eman eta haregaz zertu)

txarribodea: txerriboda

ume kuadrillea: ume taldea

19.8. EZKONTZA

alargune: alarguna

"Gero ama alargun ba gurea, ni oñokarren ba gaste, nik orduen, e, ba semet euki nittun ba? sortzi urte inguru (E.)" - (Gero ama alargun ba gurea, ni oraindinokarren ba gazte, nik orduan, ba zenbat eduki nituen ba? zortzi urte inguru)

andrageye: andrageia

arreo, arrioa: arreo, ezkondukeran etxe berrira eroaten dena

"Arreo da gausek, tresnerie edo etzeko trasteak, ori de arreo, arreo yoate san lenau, gurdietan, ta gurdi asko, asko imintxera, semet eta gurdi geyau, ba klaro arreo andiagoo, ohea, esta? kaxak eta, kaxak eta eroten siren lenau arreoan (M.)" - (Arreo da gauzak, tresneria edo etzeko trasteak, hori da arreo, arreo joaten zen lehenago, gurdietan, eta gurdi asko, asko ipintzera, zenbat eta gurdi gehiago, ba jakina arreo handiagoo, hobea, ezta? kaxak eta, kaxak eta eroaten ziren lehenago arreoan)

"Arrioa eitxen san, eta gero eusoko enbrari abisetan sakian, arrioa imiñi olan, a, danak sabal sabal ixerak eta, arrioa, toallek eta kamisoyak imiñi txe erakutzi, eta txokolatea emon gero areri (M.)" - (Arreo egiten zen, eta gero auzoko andrazkoei abisatzen zitzairen, arreo ipini holan, denak zabal-zabal

izarak eta, arreo, toailak eta kamisoiak ipini eta erakutsi, eta txokolatea eman gero haiei)

bixialargune: bizi-alarguna, banatua, dibortziatua

"Ba apartaute, bixiri tauela gixona alargundute, se ostantzean alargune da, gixona bixi bada, bixialargune (E.)" - (Ba banatuta, bizirik dagoela gizona alargunduta, ze osterantzean alarguna da, gizona bizi bada, bizi-alarguna)

bodea: ezkontza, boda

dotia: dotea

"Dotea da, dirue emoten dakona da dotea (M.)" - (Dotea da, dirua ematen zaiona da dotea)

errekadue: errekadua

"Errekadue, ba batzuk, e, aittek eta ama pere eskontzak asko eitten seittuesan (E.)" - (Errekadua, ba batzuek, aitak eta amak ere ezkontzak asko egiten zituzten)

erroldea, errondea: erronda, etxerik etxe joatea neskak kortejatzeko

"Erroldea beste gause ba ta, erroldan igual ba kuadrillea (E.)" - (Erronda beste gauza bat da, errondan beharbada ba taldea)

"Ori usau itte san orduen, igual neskatoak bandan yoate siren, esta? fillen etzera, eta igual turetute seuntzen ta, ta! atzeratu te alan san, atzeratu noberagana, bera apartau kuadrilleti, besteak aurrera (E.)" - (Hori usatu egiten zen orduan, beharbada neskatoak taldean joaten ziren, ezta? ilaran etxera, eta beharbada tiratzen zenion eta, ta! atzeratu eta halan zen, atzeratu norberagana, bera aldendu taldetik, besteak aurrera)

eskongeye: ezkongai

eskontzea: ezkontza

"Lenau, nik estaitx, baya guresoa pere, asko, eskontza asko itxe seudean (M.)" - (Lehenago, nik ez dakit, baina gurasoek ere, asko, ezkontza asko egiten zuten)

eskontza tratue: ezkontza tratua

geyerak: deierak, ezkon-deiak

gixongeye: gizongaia

matrimoniñoa: andra-gizonak

mutilsarra: mutil zaharra

"Ondiñokarren oraintzu, Katiken, batek, esan dosku se, mutil sar batek, e, au bere mutil sarra da baya, orretarañon estau ondiñokarren, ba, mutil sar batek, e, ba,

gortako satzak atara barik, esta? akabuen urten bere esiñ eiñ, eta, orrek, lasteiko bandan, e, aspittik beyek (E.)" - (Oraindinokarren oraintsu, Gatikan, batek, esan digu ze, mutil zahar batek, hau ere mutil zaharra da baina, horretaraino ez dago oraindinokarren, ba, mutil zahar batek, ba, kortako satsak atera barik, ezta? azkenean irten ere ezin egin, eta, horiek, lastegiko bandaren, azpitik behiak)

"Eta eskatu neutzen ama defunteari permisoa eskontako, ta klaro, nik arraba bi euki nittusen oniñokarren neu baño sarraoak, se gasteaoo ixte nas ta, aurreti tte, esausten ama defunteak, a, es semetxue, arraba sarraoa tekosusela eskonduko sara? lenau esausten, oye ta iños eitten espadire orduen mutil sar lotuko nas ela? esaneutzen, esta egie ori ela? (E.)" - (Eta eskatu nion ama difuntuari baimena ezkontzeko, eta jakina, nik arreba bi eduki nituen oraindinokarren neu baino zaharragoak, ze gazteagoa izan naiz eta, aurretik eta, esan zidan ama difuntuak, ez semetxoa, arreba zaharragoak daukazula ezkontuko zara? lehenago esan zidan, zu eta inoiz egiten ez badira orduan mutil zahar lotuko naiz ala? esan nion, ez da egia hori ala?)

neska sarra: neska zaharra

neskato sarra: neska zaharra

nobie, nobidxia: emaztegaia

"Nik euki neuen, e, gastetan baya, beste nobi bet, ba, urte bete ingeruen ibillite (E.)" - (Nik eduki nuen, gastetan baina, beste andregai bat, ba, urte bete inguruan ibilita)

nobioa, nobidxo: senargaia

nobio-nobiek, nobidxo-nobidxe: senar-emaztegaia

senserradea: zentzerrada

"Alargun bi eskontan sirenean, senserradea egote san (E.)" - (Alargun bi ezkontzen zirenean, zentzerrada egoten zen)

"A egon san eskondute, gixonan alabeagas, iru alaba euki sittusen gixonak, ta eskondu san gero beste alargun beteas edo, ta nik entzu neuen

ari yo eutzeala senserradea, illundietan yoan ta yoteutzen etze ondora yoanta, tanbor otza ta estaitt olau gausek (E.)" - (Hura egon zen ezkontuta, gizonaren alabagaz, hiru alaba eduki zituen gizonak, eta ezkondu zen gero beste alargun bategaz edo, eta nik entzun nuen hari jo ziotela zentzerrada, ilundeetan joan eta jotzen zioten etxe ondora joanda, danbor hotsa eta ez dakit holako gauzak)

solterea: ezkonbakoa (f.)

"Emen, a, aor dekos batek bi edo iru, eta geuk, a, an solteratan bere, ba asten gendun, a, baya emen asko es, baya nik sei urtean pastoreak euki doas giputzek, t'aiñera yoate nitzen uden, eta basoan Alalarrean, an bai, baya emen gitxi (Z.)" - (Hemen, haor dauzka batek bi edo hiru, eta geuk, han ezkonbakotan ere, ba hazten genuen, baina hemen asko ez, baina nik sei urtean artzainak eduki ditut giputzak, eta haienera joaten nintzen udan, eta basoan Aralarren, han bai, baina hemen gutxi)

solterue: ezkonbakoa (m.)

19.9. MUSIKA-DANTZA

agarradue: dantza lotua

ariñ ariñ: arin-arin

atzeskue: atzeskua, auresku-kordaren azkena

aureskue: aureskua

aureskularie: aureskularia

baltzeoa, baltzigoa: baltzigoa, dantza lotua

bandea: musika banda

biribilketa: biribilketa

dultzaiñe: dultzaina

dultzaiñerue, dultzaiñerue: dultzainerua

"Dultzaiñerue bai esetu ot, dultzaiñeas, e, ba, lenau erremeridxetan, e, ba tanbolitxeruen ordes, e, esetu ot ori (L.)" - (Dultzainerua bai ezagutu dut, dultzainagaz, ba, lehenago erromerietan, ba danbolinteruaren orde, ezagutu dut hori)

dxantza korroa: dantza korroa

espatea: ezpata

espatayantzarie: ezpatadantzaria

espatayantzea: ezpatadantza

fandangoa: fandangoa

fanderoa: panderoa

gitarra, gitxarria: gitarra

gramolea: gramola

"Gramolea euki gendun gerraostean (L.)" -

(Gramola eduki genuen gerra ostean)

jotea: jota

kantea: kanta

kordea: korda, dantzan egiten dena

korroa: korrua, dantza korrua

musikea: musika

musike bandea: musika banda

panderoa, fanderoa: panderoa

parejea: bikotea

porrusaldea: porru-salda, dantza mota bat

sonu andie: soinu handia

sonu txikerra: soinu txikerra

"Sonu txikerraas beste geuse asko dxo be esi lei eiñ, lenaukoakas (L.)" - (Soinu txikerragaz beste gauza asko jo ere ezin liteke egin, lehenagokoakaz)

soñue, sonue: soinua

"Nortzuk ongo siren emen ba? soñu yoten deunak, bai len onek Korrontzi tte ba, orrek artistek ixen siren Korrontzi tte fameli gustie (T.)" - (Nortzuk egongo ziren hemen ba? soinu jotzen dutenak, bai lehen hauek Korrotzi eta ba, horiek artistak izan ziren Korrontzi eta familia osoa)

soñularie, sonularie: soinularia

"Katikera bere, igual etorten siren, a, Samarko egunen, igual ogei soñulari, an ogei puestu, soñuegas oten siren, gero onek gausek galtxean galtxean galtxean yoan dire (K.)" - (Gatikara ere, beharbada etortzen ziren, San Markos egunean, beharbada hogeitsoinulari, han hogeitsoinuagaz egoten ziren, gero gauza hauek galtzen-galtzen-galtzen joan dira)

"Erremeritxan asko ibiltxe siren olau sonulari, sonu txikerdunek (L.)" - (Erromerietan asko ibiltzen ziren holako soinulari, soinu txikerdunak)

"Ori soñularie ixen san bertzolarie es (T.)" - (Hori soinularia izan zen bertsolaria ez)

sueldue: dantza suelta

tanbolinterue, tanbolitxerue: danbolin jolea

tanboliñe: danbolina

"Umiak urtetan deuenian, umia botaten deu orrek igual urtian bi iru, ta dxoaten da, ta tanboliñe dxo lotu ditxen (L.)" - (Umeak irteten duenean, umea botatzen

du horrek beharbada urtean bi-hiru, eta joaten da, eta danbolina jo lotu dadin) [erleei egiten zaien danbolin hotsaren gainean dabil]

tanborra: danborra

"Tanborra yote sotzean (M.)" - (Danborra jotzen zioten)

txistue: txistua

"Txistue yoten ikisi dau (Z.)" - (Txistua jotzen ikasi du)

txistularie: txistularia

"Txistulariek on siren bi, anayak (K.)" - (Txistulariak egon ziren bi, anaiak)

yantzea, dxantzia: dantza

"Ba or egote san gure denporan, yantzea (A.)" - (Ba hor egoten zen gure sasoiandantza)

yantzarie, dxantzardixe: dantzaria

"Dan danak es, nik estot iños, yantzarie enas ixen ni baya, yantzan asko egosan yantzan ondo eitxen deudenak emen (K.)" - (Dendenak ez, nik ez dut inoiz, dantzaria ez naiz izan ni baina, dantzan asko zegozen dantzan ondo egiten dutenak hemen)

yantza sueltue: dantza soltua

yolasa, dxolasa: plazan egiten zen dantzaldia
"Paseoan espasabiltzes, ba yolasean, kasu baterako, nik beti ein yot edoseñegas yantzan (E.)" - (Paseoan ez bazabiltza, ba, jolasean, kasu baterako, nik beti egin dut edozeinegaz dantzan)

19.10. KIROLA

akularidxe: akuilaria, akuilatzailea

aparejue: aparejua

aritxo topeka: ahari topeka

arrie: harria

"Orduen eskiñeti bere libre egote san. kasue, au bada eskiñea emeti kanpora arridzek danak urtetan espadeu erdis erdis dxoaten itxitxe otzuen, ba oiñ es, se oiñ ari eskiñeari ukutueskero buelte artu bear da (L.)" - (Orduan eskinatik ere libre egoten zen kasua, hau bada eskina hemendik kanpora harriak denak irteten ez badu erdiz-erdiz joaten uzten zizuten, ba orain ez, ze orain eskina hari ikutuz gero buelta hartu behar da)

"Lenau arri danak urten esik, e, balidxoko ixen san (L.)" - (Lehenago harri denak irten ezik, balioko izan zen)

"Iños entzun dotzesu? eskiñera elduten sienian arridxegas ta, atzera eraitxeko beidxeri edo ididxeri, ta esate otzianian, a, bota arri txinbon! txinbon bota (Em.)" - (Inoiz entzun diozu? eskinara heltzen zirenean harriagaz eta, atzera eragiteko, behiei edo idiei, eta esaten zionean, bota harri txinbon! txinbon bota!)

arri nausie: harri nagusia

"Orreri arri nausi orreri, Birlen daunari iru imintxeutesan beti, iru karreteru, ta beste txikerraoari ba bi (K.)" - (Horri harri nagusi horri, Birlen dagoenari hiru ipintzen zizkioten beti, hiru karretero, eta beste txikerragoari ba bi)

arri txikerra: harri txikerra

askolarie: aizkolaria

asto probia: asto proba

bentajea: abantaila

bolea: bola

bolatokie, bolalekue: bolatokia, bolalekua

"Emen, e, bolatokie, aor Aretzan egon san (E.)" - (Hemen, bolatokia, haor Aretzan egon zen)

boloa: boloa

boloka: boloka

"Bai mesa ostein ta jente asko batxen san, a, boloka ta (K.)" - (Bai meza ostein eta jende asko batzen zen, boloka eta)

desafioa, desafidxo: desafioa, erronka

"Geu bere Bergarara dxoan gintzesan ididxekas probatan, geuriakas, ta irugarren edo lotu gintzesan ta gero imin seudian, iru lelengo ein seudenakas, e, desafidxo bat, aunenbestegarren egunian, ta dxoan gintzen ara ta ango usabak abiseu oskun besperan dxoateko, ididxek oboto oten diela ta, ta arek euki seuen, e, ortu bet, ta an ortuen euki seuen gortea, ta an gortan dauela leku ona ta antxe eukikusela ta, eroan ara ididxek eta an gortan itxi, geubian, ta dxoan lo ta urreo goixian ididxe adarra loka loka dauela bat, geuriari pase akon ori Bergaran (L.)" - (Geu ere Bergarara joan ginen idiakaz probetan, geureakaz, eta hirugarren edo lotu ginen eta gero

ipini zuten, hiru lehenengo egin zutenakaz, erronka bat, haonenbestegarren egunean, eta joan ginen hara eta hango uzabak abisatu zigun bezperan joateko, idiak hobeto egoten direla eta, eta hark eduki zuen, ortu bat, han ortuan eduki zuen korta, eta han kortan dagoela leku ona eta hantxe edukiko ditugula eta, eroan hara idiak eta han kortan utzi, gauean, eta joan lo eta hurrengo goizean idia adarra loka loka dagoela bat, geureari pasatu zitzaion hori Bergaran)

enkatxoa: engantxoa, probalekuaren behearen izena

entrenamintxue: entrenamendua

"Orduen lenau igual, e, egur beteri amarreta ta andidxegas erabiltzen edo, oingo, entrenamintxuek ordureko eseuen balidxo (L.)" - (Orduan lehenago, beharbada, egur bati amarratuta eta handiagaz erabiltzen edo, oraingo, entrenamenduak ordurako ez zuen balio)

faltea: falta

federasiñoa: federazioa

gixon proba: gizon proba

idi busterrrie: idi buztarria

"Ori eitten deudea, ba etorten dices, e, idi busterriges, ta gurdi, adornata lorakas ta, eta beste gixon bi, olan, orrek lelauko brusek, brusek esate aken, oiñ estaitt orrek eroten badires, oin bere espatayantzarik edo olan seuser, gixon bi etorte siren idi busterrrie, ta gurdie yantzitte, etorte san, Mungire etorte siren, ta sagie erote seuden, sagiñ erote seuden ardaua, ta gero a emon eitte san, ta jente yoate san, tortillekas yoate san etzetik (La.)" - (Hori egiten dute, ba etortzen dira, idi buztarriagaz, eta gurdia, apainduta loreakaz eta, eta beste gizon bi, holan, horiek lehenagoko brusak, brusak esaten zitzaien, orain ez dakit horiek eroaten diren, orain ere ezpatadantzariak edo holan zer edo zer, gizon bi etortzen ziren idi buztarria, eta gurdia jantzita, etortzen zen, Mungira etortzen ziren, eta zahagia eroaten zuten, zahagian eroaten zuten ardaua, eta gero hura eman egiten zen, eta jendea joaten zen, tortilakaz joaten zen etxetik)

idi proba: idi proba

"Oĩn estau emen eser, emen, a, idi probak asko itxen siren len, emen probaderoa egon da, an, a, Boiren, a, botiken atzean, an bere bai, gero amen, a, Akatxe, Akatxeko or terrenoan, or atzean bere bai, probadero ona or egon san, emen afisiño andi egon da probatara (K.)" - (Orain ez dago hemen ezer, hemen, idi probak asko egiten ziren lehen, hemen probaleku egon da, han, Boiraren, botikaren atzean, han ere bai, gero hamen, Akatxe, Akatxeko hor lur sailean, hor atzean ere bai, probaleku ona hor egon zen, hemen zaletasun handia egon da probatara)

"Amen Elorridxon, e, ointxe, pase dan martitzenean, bederatzi gixon egon dire ididxeri eusten, itxo in biar ididxek akabe deuenian probia, larregi estutu akabuen ta itxo in biar ta bederatzi gixon eusten on dires ainbeste denporan, busterritxi solte barik, dxausi seditxen, ta beste bat indesiñoak emoten, e, bidxotza asi dakidxon, ointxe pase da aste onetan (L.)" - (Hamen Elorrión, oraintxe, pasatu den martitzenean, bederatzi gizon egon dira idiari eusten, ito egin behar idiak amaitu duenean proba, larregi estutu azkenean eta ito egin behar eta bederatzi gizon eusten egon dira hainbeste denboran, buztarritik soltatu barik, jausi ze dadin, eta beste bat injekzioak ematen, bihotza hasi dakion, oraintxe pasatu da aste honetan)

juesa: epailea

kantxerue: kantxa jagolea

kargea: zama idiei kargatzen zaien gainkarga

"Segun, e, imiñi, komisiñoak selan imintxeitxusen ididxek, bederatzieun de berrotamar killoti edo mille killoti edo mille ta euneti, oin mille t'euneti ibiltxen dire, t'orduen ibiltxe siren bederatzieun de berrotamarreti txe milleti, ta bederatzieun de berrotamar pixetan baitxus, iru gixon eroate sitxusen lagunduteko, ta mille badekos bi ta gero milleti gora bakos killoko killo bi kargeu (L.)" - (Segun, ipini, batzordeak zelan ipini dituen idiak, bederatziehun eta berrogeita hamar

kilotik edo mila kilotik edo mila eta ehunetik, orain mila eta ehunetik ibiltzen dira, eta orduan ibiltzen ziren bederatziehun eta berrogeita hamarretik eta milatik, eta bederatziehun eta berrogeita hamar pisatzen baditu, hiru gizon eroaten zituen laguntzeko, eta mila badauzka bi eta gero milatik gora badauzka kiloko kilo bi kargatu)

karrajue: karrajua, idiak probalekuan ibiltzen diren lekua

karrerea: lasterketa

"Are pilloatan eitxen siren karrerak (K.)" - (Hare piloetan egiten ziren lasterketak)

karreterue: karretero, itzaina

katxiñe: katxina, bolo txikerraren izena

korredoria: postura korredorea

partidue: partidua

pelotea: pelota

pelotaka: pelotaka

pelotan: pelotan

pelota partidue: pelota partidua

pelotarie: pilotaria

"A Rako ixen san beti frontoyan dabillena, ta gero Martin bere pelotarie ixen san (E.)" - (Hura Rako izan zen beti frontoian dabilena, eta gero Martin ere pelotaria izan zen)

pixu libre: pisu askea

posturea: postura, apostua

premioa, premidxo: saria

"Lenau, urte danatan Mungidxen ote sien, e, bertzolaridxen premidxoak, dxantzaridxenak eta aurreksularidxenak eta eitxen dan moduen, bertzolaridxena pere bai (L.)" - (Lehenago urte denetan Mungian egoten ziren, bertsolarien sariak, dantzarienak eta aurreksularienak eta egiten den moduan, bertsolarienak ere bai)

proba idie: proba idia

probea, probia: proba, idi proba

probaderoa: probalekua

"Probaderoa pere egote siren, ariagas, aretan arridxe sartute ta, mogidu eitxe sales gatxau ixeta san ibiltxen, oin sementoan imintxeitxues ta geldi geldi daus te, fasillau da asko bere arridxe ibiltxeko (L.)" - (Probalekuak ere egoten ziren, haregaz, hareatan harria sartuta eta, mugitu egiten zenez gaitzago izaten zen ibiltzen, orain porlanetan ipintzen

dituzte eta geldi-geldi dagoz eta, errazago da asko ere harria ibiltzeko)

probalarie: probalaria

probalekue: probalekua

saldi probia: zaldi-proba

sinttea: zinta

sobrekargea: gainkarga, idi-probetan kiloko kilo eta erdiko gainkarga ipintzen zaie idiei, 1100 kilotik gora badaukate

tantue: tantua

trabesa: postura

tranpea: tranpa

"Tranpa gidxau lenau egote san oin baño oiñ oboto kontroleta dau (L.)" - (Tranpa gehiago lehenago egoten zen orain baino orain hobeto kontrolatuta dago)

"Dxaboi eutze, onetan fraka mendelatan eroanta, katea amarretan ta sabiltzela bera bota ta ene! (L.)" - (Jaboi hautsa, prakamendel hauetan eroanda, katea amarratzen eta zabiltzala behera bota eta ene!)

"Ori dana ixen da tranpea, ta oin bere bardiñ, edo drogeute dausela, edo a edo ori bestea! (E.)" - (Hori dena izan da tranpa, eta orain ere berdin, drogatuta dagozela, edo hura edo hori bestea!)

txirloa: txirloa, bolo-jokoan handiaren izenea

"Ori ixen san, e, estaipa semet metro oko sittusen baya, bastante asko, emetik eta ara gure, gortako atera ta, ingeuren edo geitxuao, ta, ixeta san, kasureko erdien altakurre bat, e? ta, aldardi bietatik ola, aspian, ta bola bat, e, neu pere yokatu dot ainbet biderres, ta gusteta aten asko, e? asko gusteta aten, ta gero oki euen kuadrotxu bet goyen, kasureko sure aldardien ixetea les kuadru bet, ta an imintte sien txirloak sutunik, katxiñe edo sera aldardi beten dala, eskoako aldardien dala, katxiñe botaeskeron, a, ba tantu giau, onenbeste tantu, ba museko asuntue les, eta bueno, botate sendun bolea ta, yoate san bide batetik, ta bueno ra! eitteen ak errekorridoa ta semet botate osun tantuek, ta beste aldarditik igual etorte san atzera, edo bertatik igual, segun, se bidean topetan badeu tropesu bet, emeti etor bearreko lekuen gero atzera yoaneko lekuti etorte

san (E.)" - (Hori izan zen, ez dakit ba zenbat metro edukiko zituen baina, nahiko asko, hemendik eta hara gure, kortako atera eta, inguruan edo gehitxoago, eta, izaten zen, kasurako erdian altakurra bat, e? eta, alderdi bietatik ohola, azpian, eta bola bat, neuk ere jokatu dut hainbat biderrez, eta gustatzen zitzaidan asko, e? asko gustatzen zitzaidan, eta gero eduki zuen laukitxo bat goian, kasurako zure alderdian izatea legez lauki bat, eta han ipintzen ziren txirloak zutunik, katxina edo zera alderdi baten dela, eskoako alderdian dela, katxina botaz gero, ba tantu gehiago, honenbeste tantu, ba museko gora-beheran legez, eta beno, botatzen zenuen bola eta, joaten zen bide batetik, eta beno ra! egiten zuen hark ibilbidea eta zenbat botatzen duzun tantuak, eta beste alderditik beharbada etortzen zen atzera, edo bertatik beharbada, segun, ze bidean topatzen badu enbarazu bat, hemendik etorri beharreko lekuan gero atzera joaneko lekutik etortzen zen)

untzea: iltzea

"An ostera ogetak untzeak eitxe seitxuesan aregas arridxegas (L.)" - (Han ostera hogeitak iltzeak egiten zituzten harri haregaz)

untze erdidxe: iltze erdia

untze laurena: iltze laurena

untze osoa: iltze osoa

"Untze osoa ta erdidxe ta laurena, marketa egoten dires, probaderoan erdi erdidxen egoten da sintxe bat eta, ostabe beste erdidxetan laurenak (L.)" - (Iltze osoa eta erdia eta laurena, markatuta egoten dira, probalekuaren erdi-erdian egoten da zinta bat eta, ostera ere beste erdietan laurenak)

ustela: ustela, harriak karrajutik irteten duenean ustela egiten da

yokoa, dxokoa: jokoa

19.11. AISIA

aginaldoa: aginaldoa, jai-saria

bertzoa: bertsoa

"Yaki neuen selan, a, bertzoa botako deuen, ba akaburarte begire o nitzten (T.)" - (Jakin nuen zelan, bertsoa botako duen, ba azkenera arte begira egon nintzen)

"Orrek danak, e, total galdu dire, bertzoak es ondiño, bertzoa bastante, baya oin pasten dana orrek santzolariiek, eta, ba illundeko erromeriek, orrek estauseles, orrek ya, orrek yoan dire, orrek estaus oiñ (Z.)" - (Horiek denak, guztiz galdu dira, bertsoak ez oraindino, bertsoa nahikoa, baina orain pasatzen dena zantzolari horiek, eta, ba ilundeko erromeriak, horiek ez dagozenez, horiek ja, horiek joan dira, horiek ez dagoz orain)

bertzo afarie: bertso afaria

bertzolarie: bertsolaria

"Taket edo ori, ori bai ori ondo esetu ot nik, ta beste bat Bakidxon ote san altu bet, argal bat, Katike esate sotzian, orren modu antzeko bat, ta Bartolo gero beste bat, e, Belakon, a bere orren modu antzekoa edo (L.)" - (Taket edo hori, hori bai hori ondo ezagutu dut nik, eta beste bat Bakion egoten zen altu bat, argal bat, Katike esaten zioten, horren modu antzeko bat, eta Bartolo gero beste bat, Belakon, hura ere horren modu antzekoa edo)

"Berak kantetaeuen politto, ba aitte defuntuek irekatzie ixen san, se aitte euki euen bertzolarie ak (E.)" - (Berak kantatzen zuen polito, ba aita difuntuak irakatsia izan zen, ze aita eduki zuen bertsolaria hark)

"Emen bertzolarie sera san Arnagako Esteban, au Iturbaltzako semea, kamiñerue, a san bertzolarie, ona (T.)" - (Hemen bertsolaria zera zen Arnagako Esteban, hau Iturbaltzako semea, kamineroa, hura zen bertsolaria, ona)

"Bartolo t'orrek, orrek ixen dire, bertzolariek beres, beres datorkenak, ikisibakoak, oin bertzolariek ikisikoa tire liburutik, baya esta iguala (T.)" - (Bartolo eta horiek, horiek izan dira, bertsolariak berez, berez datorkienak, ikasibakoak, orain bertsolariak ikasikoak dira liburutik, baina ez da berdina)

"Larrauriko kiputze, Mungin bere sarri bertzoak ein ttus (T.)" - (Larrauriko giputza, Mungian ere sarri bertsoak egin ditu)

bertzo papela: bertso papera

bolandaria: bolandera

erremeri egune: erremeri eguna

erremeri, erromerie: erromeria

"Uderaskiñon emen edonon erromeriek! (E.)"

- (Udarazkero hemen edonon erromeriak!)

eskota: eskota, arda banatzea erromerietan

"Ba preparate seuren barrio gustiko gasteak, karroa, adornate seurean eta gero, yote siren, ba emeti Mungiraño, yantzan, eta erote seuren gero, ori sagie estai nik Mungin koisten baseuren edo selan ixeta san, ta sagies etorte siren onantza bere yantzan, bide gustien (A.)" - (Ba prestatzen zuten auzo guztiko gazteek, karroa, apaintzen zuten eta gero, joaten ziren, ba hemendik Mungiaraino, dantzan, eta eroaten zuten gero, zahagi hori ez dakit nik Mungian hartzen zuten edo zelan izaten zen, eta zahagiagaz etortzen ziren honantz ere dantzan, bide osoan)

"Eskotik andienak ixetan siren, au Laukariskoa, eta sera, Elordiganekoa (K.)"

- (Eskotik handienak izaten ziren,

Laukarizko hau, eta zera, Elordiganekoa)

"Eskotagaskoak, au, Laukaris, eta Atxuri, ta Santantoi, iru (E.)" - (Eskotagazkoak, hau, Laukariz, eta Atxuri, eta San Antoi, hiru)

etorrie: etorria

juergea: parranda

koplarie: koplaria

koplea: kopla

testoa: testua, testolariek egiten dutenaren gainean esaten da

testolarie: testolaria

"Testolariek orrek danak ixen dire, orrek, orrek, e, ontxe esaten gabiltzesenak, danak testolariek (M.)" - (Testolariak horiek denak izan dira, horiek, horiek, oraintxe esaten gabiltzanak denak testolariak)

19.12. KARTA JOKOAK

amarrekoa: hamarrekoa

aspikoa: azpikoa, azpia

bastoa: bastoa

batekoa: batekoa

bikoa: bikoa karta jokoan

bostekoa: bostekoa

briskan: briskan

"Brisken libre dau berba itxea, gusurre seiñ egie (K.)" - (Briskan libre dago berba egitea, gezurra zein egia)

briskea: briska, azpi karta jokoan

"Briskan, briskan eitxen du, enbrana briskea da, baya tutean bere ondo dakigu, e? (M.)" - (Briskan, briskan egiten dugu, andrazkoena briska da, baina tutean ere ondo dakigu, e?)

enbidoa: enbidoa

erregea: erregea

espatea: ezpata

fue: fua, azpia

gure: gura, eduki

iretargie: bateko urreari ematen zaion izena

"Bateko urreari iretargie (M.)" - (Bateko urreari iretargia)

irukoa: hirukoa

kaballoa: zaldia

kartea: karta

karta yokoa: karta jokoan

"Bueno, karta yokoan ein bear da (T.)" - (Beno, karta jokoan egin behar da)

kiñue: keinua

"Onerako edo txarrerako berba beti itxen ixen da, ta kiñue ba, inportantea, kiñu barik brisken gatxa da yokatea (K.)" - (Onerako edo txarrerako berba beti egiten izan da, eta kinua ba, garrantzitsua, kinu barik briskan gaitza da jokatzea)

kopea: kopa karta jokoan

laukoa: laukoa

laukunen: laukunean, briskan egiten den jokia lau lagun artean

muse: musa

musean, musen: musean

nausie: nagusia

ogetamaka: hogeita hamaika, karta joko mota bat

pareak: pareak

puntue: puntua

saldie: zaldia

saspikoa: zaspikoa

seikoa: seikoa

seikunekoa: seikunekoa, briskan egiten den jokia

seikunen: briskan egiten den jokia sei lagun artean

"Seikunen da politxe (K.)" - (Seikunean da polita)

seiseska: seiko urrean

"Seiseska edo geuk esaten tzegune, seikoak imiñi erdien, eta gero erdiek, gorantzakoak alderdi betera ta berantzakoak beste alderdire (M.)" - (Seiko urrea edo geuk esaten dioguna, seikoak ipini erdian, eta gero erdiak, goranzkoak alderdi batera eta beheranzkoak beste alderdira)

sotea: txanka

tantue: tantua

triunfoa: azpia, fua

"Se triunfo ixen da? (K.)" - (Ze azpi izan da?)

tutea: tute, karta joko bat

tuten: tutean

txankille: txanka

txikerra: txikerra, txikia musean

urre: urrea

yoko, dxokoa: jokoan

"Domeka atzaldean, e, yokoan pasateudean arrasti gustie (K.)" - (Domeka arratsaldean, jokoan pasatzen zuten arrasti guztia)

19.13. EHIZA-ARRANTZA

amue: amua

arrastoa: zidurria, arrastoa

eskupetea, eskopetea: eskopeta

"Ta gure aitte difuntue, ara basora yon beyek yagoten edo, ta eskupetea sakun barrun eron, eta an ill erbie, etzera sakun ekarri atzera, eta ama difuntea agirika baten, koitten basittues, seure, bere bixiko in ber dotzu ba, ta ixilik saus, ixilik saus, ta olan adi, non dausen e, korotzak, erbin korotzak non dausen ta, adi bason (A.)" - (Eta gure aita difuntua, hara basora joan behiak jagoten edo, eta eskopeta zakuaeren barruan eroan, eta hil erbia, etxera zakuan ekarri atzera, eta ama difuntua agirika baten, hartzen bazaituzte, zeure, bere bizikoa egin behar dizu ba, eta isilik zagoz, isilik zagoz, eta holan adi, non dagozen eta, adi basoan)

kasan: ehizan

kasea: ehiza

kaserue: ehiztaria

"Kaserue pere apur bet gerorau te asau yon bear deudea (G.)" - (Ehiztariak ere apur bat gerorago eta asagoago joan behar dute)

lasue: lazoa
miskela: miskela, lika
oñetza: oinetza
pasoa: pasabidea, piztiak daukaten pasabidea
peskan: arrantzan
peskea: arrantza
sarea: sarea
sepoa: zepoa
sidurrie: aztarna, lorratza
tiroa: tiroa
"Orrek tiro bat yo dotzo burueri (Z.)" - (Horrek tiro bat jo dio buruari)
tranpea: tranpa

19.14. JAIEGUNAK

andramari egune: andramari eguna
aratoste: aratostea
"Iru domeka segidoan ixen siren orrek, aratosteak (M.)" - (Hiru domeka segituan izan ziren horiek, aratosteak)
arimen egune: arimen eguna
"Arimen egune illean bien, santuen egune illean bat, eta bien arimen egune ixetan san (M.)" - (Arimen eguna hilaren bian, santuen eguna hilaren bat, eta bian arimen eguna izaten zen)
astegune: asteguna
astesantue: aste santua
autzen egune: hautsen eguna
bariku guren: bariku gurena
bariku guren egune: bariku guren eguna
basaratoste: basatostea, txitxiburruntzia
"Ba orduen bai, txorixoa ta taloa yan eitxen gendusin guk basoan, aratostea, basaratoste ta, iru domeka dire aratosteak garixume, estaitx nos ixetan, garixume ingeruen ixetan dire, aratoste, basaratoste ta saldun aratoste, eta basora yoaten gintzesan, txorixoa ta taloa koyu ta aixe yan (M.)" - (Ba orduan bai, txorizoa eta taloa jan egiten genituen guk basoan, aratostea, basaratostea eta, hiru domeka dira aratosteak garizuma, ez dakit noiz izaten, garizuma inguruan izaten dira, aratoste, basaratoste eta zaldun aratoste, eta basora joaten ginen, txorizoa eta taloa hartu eta huraxe jan)
bisperea, besperea: bezpera

"Baya gaubean, gaubean etorte siren onetara, gaubean ixeten san, bispera gaubian klaro (M.)" - (Baina gauean, gauean etortzen ziren honetara, gauean izaten zen, bezpera gauean jakina)

defuntuen egune: arimen eguna, zemendiaren bia

domisanturu, domusantue: domu santua

"Ba, domisanturuetan asi, eta, geuona paño lenaurik ixen ber deu, garie, eta garbittuten gendun, lodoye itten sakon garieri, eta a garbittuten gendun, ba sulfatoagas, arrie egoten san sulfatoa, eta ara bota, agas garbittuten gendun, ori lodoye etor se dakion (Z.)" - (Ba, domu santuetan hasi, eta, gabonak baino lehenagotik izan behar du, garia, eta garbitzen genuen, lodoia egiten zitzaion gariari, eta hura garbitzen genuen, ba sulfatoagaz, harria egoten zen sulfatoa, eta hara bota, haregaz garbitzen genuen, lodoi hori etor ze dakion)

"Ointxe domusanture, ointxe akabuko ostikedatan daus (M.)" - (Oraintxe domu santura, oraintxe azken ostikadetan dagoz)

eguen guren: eguen gurena

"Tabernea ote san baya, tabernea, esaren itxitxen kartaka eitxen, eguen guren ta bariku guren esan egoten kartarik (K.)" - (Taberna egoten zen baina, taberna, ez zuten uzten kartaka egiten, eguen guren eta bariku guren ez zen egoten kartarik)

eguen guren egune: eguen guren eguna

erramu egune: erramu eguna

erregeana: erregeen eguna

errege egune, erregean egune: erregeen eguna

"Bai bai kuadrillen parata, alkarrerri agarrata parata yoaten gintzen, ori bestealdekoari kantaten gentzean ta ausokoari bere bai, apalasio da erregean egunian, apalasio ixen san (M.)" - (Bai bai taldean paratuta, elkarri oratuta paratuta joaten ginen, hori beste-aldekoari kantatzen genion eta auzokoei ere bai, apalazio da erregeen egunean, apalazio izan zen)

erremeri egune, erromeri egune: errenta eguna

errenta egune: errenta eguna

gabon egune: gabon eguna

gabon gaue: gabon gaua

gabon sar egune: gabon zahar eguna

gabonak, gebonak, geunak, gegonak:

gabonak

"Bai geunatarako ori geuse elegantea, oin bere itxen dot nik, e? oin bere beti itxen dot nik, antxe lenau ikusitxe, eta beste geuse ba pere bai, intxur saltzea (M.)" - (Bai gabonatarako hori gauza dotorea, orain ere egiten dut nik, e? orain ere beti egiten dut nik, hantxe lehenago ikusita, eta beste gauza bat ere bai, intxaur saltsa)

garixumea: garizuma**gorpusti egune:** gorpuzti eguna**gorpusti:** gorpuztia**iñusente egune:** inuzenteen eguna**kandelario egune:** kandelario eguna**karnabala:** aratostea**konbidedu egune:** gonbidatu eguna**natabittate egune, natabitxate egune:**

natabitxate eguna

paskoa: pazkoa

"Pasko famadu ixen san (Bi.)" - (Pazkoa famatua izan zen)

pasko egune: pazko eguna**saldun aratoste:** basatostea**san blas egune:** San Blas eguna**saninasio egune:** San Inazio eguna**sanisidro egune:** San Isidro eguna

"Sanisidro egunen ein da beti emen yaye, sanisidro egunean, a, aldianuen yaye mesea t'orre pai (K.)" - (San Isidro egunean egin da beti hemen jaia, San Isidro egunean, baserritarren jaia meza eta horiek bai)

san juan egune: San Juan eguna

"San Juanen, ba irudik urtetan daua gero ta, amarittekook illundien yoten deittusenean ure imiñi basu beten, eta arrotze suringoa ara bota, ta esaten dau base gero an San Juanen irudik urtetan dauela (A.)" - (San Juanen, ba, irudiak irteten duela gero eta, abemarietakoak ilundean jotzen dituen ura ipini baso baten, eta arrautza zuringoa hara bota, eta esaten du baze gero han San Juanen irudiak irteten duela)

"Ai bai, san juan egunian bai, guk eitxen geñun san juan egunian, bisperan, gure aitxek, irek ekarten seixusen gurdien, beyekas, idiek eskendusen euki guk, ekarten seixusen, ta urrutxek edo arbolak eukitxen gendusen, a, etzean

ondoan ba, eta aren aspian, usiñe, bota deyan aren aspian, ires betetuten seuen, ta an itxunte parata egoten gintzesan irekas, gero leixarrak, a, ori bai, leixarrak ba soloatan ori bai, ori, eta es a, portaleatan bere bai, leixarra alan adorneute, lorakas adorneute, eta baya irek, irek (M.)" - (Ai bai, san juan egunean bai, guk egiten genuen san juan egunean, bezperan, gure aitak, irak ekartzen zituen gurdian, behiakaz, idiak ez genituen eduki guk, ekartzen zituen, eta hurritzak edo arbolak edukitzen genituen, etxearen ondoan ba, eta haien azpian, usaina, bota dezaten haien azpian, iraz betetzen zuen, eta han etzanda paratuta egoten ginen irakaz, gero leixarrak, hori bai, leixarrak ba soroetan hori bai, hori, eta ez hura, portaleatan ere bai, leixarra halan apainduta, loreakaz apainduta, eta baina irak, irak)

san roke egune: San Roke eguna

"Eskota eitte san, Santiago egunen, Santana ixeta san yayek angoak, oin datorren illean julioan, ta gero beste bat ixen san San Roke, ta San Roke egunen etorte siren, ba, idi busterrie, gurdie adornata, ori gause politte, ilusiñokoa ixete san (La.)" - (Eskota egiten zen, Santiago egunean, Santa Ana izaten zen jaiak hangoak, orain datorren hilean garagarrilean, eta gero beste bat izan zen San Roke, eta San Roke egunean etortzen ziren, ba, idi buztarria, gurdia apainduta, hori gauza polita, ilusiokoa izan zen)

san sebastian egune: San Sebastian eguna**santiago egune:** Santiago eguna**sanantontxu egune:** San Antontxo eguna

"Emen besegue tipikue sanantontxuk, ixeta san, len, sanantontxu ingerue, se ordun merketu itte seuren ganera besegue ta ordun ixeta san, ta gabonatan bere bai besegue (A.)" - (Hemen bisigua betikoa San Antontxoak, izaten zen, lehen, San Antontxo ingurua, ze orduan merkatu egiten zuten gainera, bisigua eta orduan izaten zen, eta gabonetan ere bai bisigua)

sanantontxuek: san antontxoak**sanjuanadea:** sanjuanada**santa ageda egune:** Santa Ageda eguna

"Santa Ageda bueno ori kanteu, beti in yu guk Santa Ageda (M.)" - (Santa Ageda beno

hori kantatu, beti egin dugu guk Santa Ageda)

santana egune: Santa Ana eguna

"Santana egunen berinyedakas yoate san, ori, ni yoa nas eskondu te osten bere bai, ta erote san, tortillea, se ixeta san, Santana ba julion, ta ordun egote siren piperrak, solokoak, eta tortille piperrakas, tipikue (A.)" - (Santa Ana egunean askariakaz joaten zen, hori, ni joan naiz ezkondu eta ostean ere bai, eta eroaten zen, tortila, ze izaten zen, Santa Ana ba garagarrilean, eta orduan egoten ziren piperrak, sorokoak, eta tortila piperrakaz, betikoa)

sapatu guren egune: zapatu guren eguna

tostada egune: tostada eguna

txitxi burruntzie: txitxiburduntzia

"Lelau itte san ori txitxiburruntzie beko prasan, txorixoa, e, edo urdie (La.)" - (Lehenago egiten zen hori txitxiburduntzia beheko txingarran, txorizoa, edo urdaia)

urtebarri: urte barria

urtebarri egune: urtebarri eguna

yaye, dxadx: jai

"Emen esate baterako, agostuko irugarren domeka, San Benardo ba emeko yayek (A.)" - (Hemen esate baterako, abuztuko hirugarren domeka, San Bernardo ba hemengo jaiak)

"Orrek ixeten siren yayek, es oingoak (M.)" - (Horiek izaten ziren jaiak, ez oraingoak)

yayegune, dxadxegune: jai eguna

19.15. EUSKARA

berbea: berba

"Berba bateas akabeta san dana (G.)" - (Berba bategaz amaitzen zen dena)

berori: berorika tratamendua

"Oñ, a, apur bet, a, ori, astuten do ori, esta? baya, len, a, ba mediku bet etorten basan ta gure gurosoak eta ba, berori esate otzean, beori jaune (K.)" - (Orain, apur bat, hori, ahazten doa hori, ezta? baina, lehen, ba mediku bat etortzen bazen eta gure gurasoak eta ba, berori esaten zioten, berori jauna)

erderea: erdara

"Erderarik esuren yakiñ (Z.)" - (Erdararik ez zuten jakin)

"Klaro, emetik euskera utzegas, bost urteko ume bat, aldean egon beti, eta sartuten tzu derrepente, erderas, se ordun klaro esan egon telebisiñori peres erdera ikesteko, radioa bere, orduntxe asiko san igual, eta erderas (A.)" - (Jakina, hemendik euskara hutsagaz, bost urteko ume bat, baserrian egon beti, eta sartzen dizu bat-batean, erdaraz, ze orduan jakina ez zen egon telebistarik ere ez erdara ikasteko, irratia ere, orduantxe hasiko zen beharbada, eta erdaraz)

estok eta badok: eztok eta badok, hiketanao, hika tratamendua

"Orduen igual asarratueskeron bai, estok ori olan, edo a, edo ori bestea, segun, oin normalmentean, a, ba sarraoari estako eitten ori (E.)" - (Orduan beharbada haserretuz gero bai, ez duk hori holan, edo hura, edo beste hori, segun, orain gehienetan, ba zaharragoari ez zaio egiten hori)

estona ta badona: andrazkoen hika tratamenduaren izena

euskerea, auskerea: euskara

"Batzuk, kasureko, giputzek, guk, a, oneri bentaneari bentanea esate otzegu, giputzek leyoa, esate otzean (Z.)" - (Batzuek, kasurako, giputzek, guk, leiho honi bentana esaten diogu, giputzek leihoa, esaten zioten)

"Mesara etorri, amaka t'erditteko mesara, esta? eta guardo sibillek ibil siren, yoten, garrotea emoten euskera eitten deuenari, gixon asko, ferietan, garrote otzean ibiltten sittuesan emen, e, euskera eitten deudelako, se lenau beti etorte san, a, jentia, ferire geur baño geyau, eta berbetan asmeu, esta? ta garrotia, geure aitteri bere, einte daus (Ll.)" - (Mezara etorri, hamaika t'erdietako mezara, ezta? eta guardia zibilak ibili ziren, jotzen, garrotea ematen euskara egiten duenari, gizon asko, azoketan, garrote hotsean erabiltzen zituzten hemen, euskara egiten dutelako, ze lehenago beti etortzen zen, jendea, azokara gaur baino gehiago, eta berbetan asmatu, ezta? eta garrotea, geure aitari ere, eginda dagoz)

"Guk ya eskolan erderas eingo gendun, baya guk emen gero, guresok eta, beti euskera ein yules, guk euskera in yu beti, asike or esteure euki guri euskerarik kentxerik gure ixenta beres (A.)" - (Guk ja eskolan erdaraz egingo genuen, baina guk hemen gero, gurasoak eta, beti euskaraz egin dugunez, guk euskara egin dugu beti, halandaze hor ez dute eduki guri euskararik kentzerik gura izanda ere ez)

"Birlek giâu eitten deu Yatabera ta Katikera (T.)" - (Bilelak gehiago egiten du Jatabera eta Gatikara)

"Gero erririk erri bere dekosu, ametik Gamisera bere, ba, ikututen dau, urrengo, au barrioa Gamise yo arten doa, eta, arek 'ididxe', 'bedxe', 'txarridxe' eta bestea ta, ba 'pitxerra' ta, bueno, guk 'yarrea' esaten tzegu (E.)" - (Gero herririk herri ere daukazu, hemendik Gamizera ere, ba, ikutzen dago, hurrengo, auzotegi hau Gamiz jo arte doa, eta, haiek 'ididxe', 'bedxe', 'txarridxe' eta bestea eta, ba 'pitxerra' eta, beno, guk 'yarrea' esaten dugu)

"Guk estu eser ikisi, guk aittek eta amak, se gure amak, e, ba, il sanean bere esauen yakiñ erderarik eser bes (E.)" - (Guk ez dugu ezer ikasi, guk aita eta amak, ze gure amak, ba, hil zenean ere ez zuen jakin erdararik ezer ere ez)

"Emen bueltan auskere bardin bardiñe da (La.)" - (Hemen bueltan euskara bardin-bardina da)

"Ididxe esaten du guk eta onek idie (M.)" - ('Ididxe' esaten dugu guk eta hauek 'idie')

"Emen erri baterik bestera berbetan bere alde andie oten da (Ll.)" - (Hemen herri batetik bestera berbetan ere alde handia egoten da)

"Nik, aa, nik esangotzut gause bat, guk, e, auskera esatkiu ondo ta erdera beres (E.)" - (Nik, hara, nik esango dizut gauza bat, guk, euskaraz ez dakigu ondo eta erdaraz ere ez)

"Batzuk asentoan dekea diferentzie ostantzean es (T.)" - (Batzuek azentuan daukate desberdintasuna osterantzean ez)

"Emen ingeruen Katikekoakas geyen, orkoak, Katikekoakas, se Katikeko esaten deude guk Katikekoa (T.)" - (Hemen inguruan Gatikakoakaz gehien, horkoak, Gatikakoakaz, ze Katikeko esaten dute guk Katikekoa)

"Katiken apur bet sertzauau itten da, ortxe itten da geyen, ostantzean nik estot barruntan, ori, Iturbaltza, emen (T.)" - (Gatican apur bat zertxoago egiten da, hortxe egiten da gehien, osterantzean nik ez dut barruntatzen, hori, Iturbaltza, hemen)

"Laraurin arean diferente ingo da bai, arean arean diferenteau Laraurin, baya, ser esango tzut? bardiñ antzean, emen, Gamisen sein Fike (T.)" - (Laraurin arean desberdin egingo da bai, arean-arean desberdinago Laraurin, baina, zer esango dizut? berdina antzean hemen, Gamizen zein Fika)

"Esakunek diferentea taus, e, erri bateti bestera (L.)" - (Esakuneak desberdinak dagoz, herri batetik bestera)

19.16. GERRATEA-SOLDADUSKA

armia: arma

bakea: bakea

"Oin bere, San Migel egunean bake badot eingot nik ori (L.)" - (Orain ere, San Migel egunean bake badut egingo dut nik hori)

"Onakas bake ohea ta goasen gure ofisioan euntzek erosten (T.)" - (Hauekaz bake hobia eta goazen gure ogibidean ahuntzak erosten)

gatzesko tiroa: gatzesko tiroa

gerrea: gerra, gerla

"San Migelatan, a, Bakioti, danak Bakioti, ta guria ixen, Mungie ixen, Bakio, ayuntamintus ta dana da a Mungie, geuk irebasitxe, ademas, gerran, eta kamiñoa es eiñ emetik areri, andi Bakioti pase biar, ori esaten dot nik, ori esaten dot nik, eta ori eureri bere, esango neuskio entzun gure deuenari danari (M.)" - (San Migeletan, Bakiotik, denak Bakiotik, eta gurea izan, Mungia izan, Bakio, udalerriz eta dena da hura Mungia, geuk irabazita, gainera, gerran, eta kaminoa ez egin hemendik haiei, handik Bakiotik pasatu behar, hori

esaten dut nik, hori esaten dut nik, eta hori eurei ere, esango nioke entzun gura duenari denei)

"Ka! Mungie orretarañon es, gerreak bai asko apurtu euen baya, Mungie orretarañon es (E.)" - (Ka! Mungia horretaraino ez, gerrak bai asko apurtu zuen baina, Mungia horretaraino ez)

gerratea: gerratea

gudarie: gudaria

kintia: kinta

kintoa: kintoa

presoa: presoa

soldadiskea: soldaduzka

soldadue: soldadua

"Gero, nik, e, ni soldadu yoateko, nik irekatzi notzen anai beteri, eta ni yoa nitzen soldadiskera eta gero ni etor nitzenean a yoan san pelotaka (K.)" - (Gero, nik, ni soldadu joateko, nik irakatsi nion anaia bati, eta ni joan nintzen soldaduzkara eta gero ni etorri nintzenean hura joan zen pelotaka)

tiroa: 1. tiroa. 2. barrenoaren leherketa

"Barrenoas sulo intxe tiroa bota (L.)" - (Barrenoagaz zulo eginda tiroa bota)

20. OROKORRA

Atal honetako berbak ezin sartu izan ditugu arteragoko ataletan, izan ere, batekoak baino gehiagokoak izan daitezke; halandaze, hona hemen denak jarraian.

aberie: aberia

abioya: hegazkina

abisue: abisua

afana: gogoa, nahia, grina

afisiñoa: zaletasuna

agirika: agiraka, errieta

akabue: 1. amaiera. 2. azkena

akabukoa: azkena, amaiera

akaso: akaso, beharbada

akordue: akordua, gomuta

aldea: aldea, desberdintasuna

"Alde andie dau Atxuritti ona (LI)" - (Alde handia dago Atxuritik hona)

aldea bearra: baserri beharra, baserri lana

alegiñe: ahalegina

amarrea: kordela, odolosteak eta lotzekoa

amenasue: zemaia, mehatxua

antza: antza

"Orrek aitten antza deko (Z.)" - (Horrek aitaren antza dauka)

"Ak esate osten base, bai, ba ik, e, Iñision antza dekok Iñisiona (E.)" - (Hark esaten zidan baze, bai, ba hik, Inazioren antza dekok Inaziorena)

apellidue: abizena, deitura

"Selan deke apellidu orrek? (E.)" - (Zelan daukate abizena horiek?)

apenas: ez dirudi, ez du ematen, antza

"Gero apenas ein yeu lorik gero biskortu in ya antza atzera (E.)" - (Gero ez dirudi lorik egin duenik gero bizkortu egin da antza atzera)

aprobea: aproba, proba

"Bai ein yot, baya eiñ, estot eiñ, e, aprobarako baño (Em.) (Bai egin dut, baina egin, ez dut egin, aprobarako baino)

ardurea: ardura

arrasoya, errasoya: arrazoia

"Errasoya euki euen se neu pere makiñe bat lekuten yan dot Bilbon, baya antzekori peres (E.)" - (Arrazoia eduki zuen ze neuk ere makina bat lekutan jan dut Bilbon, baina antzekorik ere ez)

arratoi botikea: arratoi botika, arratoiak hiltzeko erabiltzen den botika

arreglue: konponketa

arri biarra: harri-beharra

"Arri biarra akabetan asi sanian gero, talletu sarrak arregletan, etze sarrak arregletan gedxen, gortak eta (L.)" - (Harri-beharra amaitzen hasi zenean gero, teilatu zaharrak konpontzen, etxe zaharrak konpontzen gehien, kortak eta)

arrimue: babesia

arrisgue: arriskua

artekoa: artekoa, arteragokoa

asuntue: gorabehera, arazoa

atakea: eraso

atasea: ataza, betebeharra

"Atasea da, suk badekosu bear bat eitteko, ba, axe in ber dot, atasa bat, atasea ori de (Z.)" - (Ataza da, zuk badaukazu behar bat egiteko, ba, huraxe egin behar dut, ataza bat, ataza hori da)

atxakie: aitzakia

aurki, eurki: aurki, beharbada

"Ondiñokarren, e, urte pillorik esta, aor Butroiñ, e, ba batek, e, beran bidetik esin yoan ta bestean solotik, ta beste solokoak lotu otzean, e, serari tte bota se, artean ibiltte siren aurki beti lioan, ta a pasaesketiñon ba (E.)" - (Oraindinokarren, urte pilorik ez da, haor Butroen, ba batek, beraren bidetik ezin joan eta bestearen sorotik, eta beste sorokoak lotu zien, zerari eta bota ze, artean ibiltzen ziren aurki beti erronkan, eta hura pasatuz gero ba) [gorpua eroakeran bidea publiko bihurtzearen gainean dabil]

"Onek Jesukristo yayo baño lenaukoak aurki ixao dire (E.)" - (Hauek Jesukristo jaio baino lehenagokoak aurki izango dira)

automobile, eutomobile: automobila

bai: bai

balioa, balidxo: balioa

balorea: 1. balorea. 2. balioa

bañue: bainua

baporea: bapora, untzi mota

barkue: barkua, untzia

barrie: berria, albistea

bayetz: baietz

"Urdille bayetz esaten dure (Z.)" - (Urdaila baietz esaten dute)

"Bayetz geur orreri nobie kendu (T.)" - (Baietz gaur horri andregaia kendu)

bayetza: baietza

bearra: 1. beharra, lana. 2. beharra, premia
"Eskus in yeure bearra (Z.)" - (Eskuz egin dute beharra)

"Estekosu emeti setan pasaurik eta, andik beko basatzatik bota sittusen seguru te, ori estaola ondo eintte esaeuden ta karo estauena ondo intte, baya, beste bere estau ondo eintte ba, orrek gause bie ties arregla bearrekoak (E.)" - (Ez daukazu hemendik zertan pasaturik eta, handik beheko basatzatik bota zituen antza eta, hori ez dagoela ondo eginda esan zuten eta jakina ez dagoena ondo eginda, baina, bestea ere ez dago ondo eginda ba, gauza horiek biak dira konpondu beharrekoak)

bangano: barandia

bentajea: abantaila

berbea: berba

berrixena, bierrixena: beharizana

bestea: bestea

bijea: bidaia

"Ori esan egoten duderi peres, lau bija eitten gendusen oñes, goixean, Mungire, an, a, estai nik, eskolea se orduterarten ixeta san, egurdiñ etzera yaten oñes, yan beskarie ta oñes Mungire, ta atzalden oñes etzera lau bija (A.)" - (Hori ez zen egoten dudarik ere, lau bidaia egiten genituen oinez, goizean, Mungiara, han, ez dakit nik, eskola ze ordutara arte izaten zen, eguerdian etxera jaten oinez, jan bazkaria eta oinez Mungiara, eta arratsaldean oinez etxera lau bidaia)

bildrie: bildria

bildurre, billurre: bildurra

"Orrek yausteko bildurre deko (Z.)" - (Horrek jausteko bildurra dauka)

"Billurres bai bai bai, bein geueraskeron, e, billur andiegas, bakarrik etor gure esik eta, lagunik topeu esin tte orduen ibilkera bere gitxiau (Ll.)" - (Bildurrez bai bai bai, behin gauerazkero, bildur handiagaz, bakarrik etorri gura ezik eta, lagunik topatu ezin eta orduan ibilkera ere gutxiago)

biribilloa: biribiloa, biribila

"Ai ederto! erres erres erres! kable bat alan biribillo bat, a, imintxen tzea, eske geure mutillek ein txues ainbeste, bai dosena erdi txe olan bai txe, eta alan bidetxue tope bear dakea nondi datosen, eta amarretan tzea kablea, lusea, amarretan tzea an ta, a biribillotxue, an pasetan dan lekuen, eta andixi pasetan dire (M.)" - (Ai ederto! erraz-erraz-erraz! kable bat halan biribilo bat, ipintzen diote, ze geure mutilek egin dituzte hainbeste, bai dozena erdi eta holan bai eta, eta halan bidetxoa topatu behar zaie nondik datozen, eta amarratzen diete kablea, luzea, amarratzen diete han eta, biribilotxoa, han pasatzen den lekuan, eta handixik pasatzen dira)

bisikletea, bisekletea: bizikleta

"Ordun esegon komunikasiñorik, oñes ta bisikletak egoten siren (Z.)" - (Orduan ez zegoen komunikaziorik, oinez eta bizikletak egoten ziren)

bisioa: bizioa, ajea

biximodue: bizimodua

bitzuek: bitzuk

bolea: bola

botea: txalupa

brilloa: dizdira

bromea: txantxa

bueltea: buelta

"Ak, e, geixorik egon sales, ta yaten deuenta botaten ospitalera makiñe bat buelta ein yot nik agas! makiñe bat buelta artu deu ak, eta ba, ori sera, indisiño emo eutzean ayeri (Ll.)" - (Hark, gaixorik egon zenez, eta jaten duena botatzen hospitalera makina bat buelta egin dut nik haregaz! makina bat buelta hartu du hark, eta ba, hori zera, injekzio eman zioten hari)

burlea: trufa, burla

derrigorra: derrigorra

desgrasie: ezbeharra

deskantzue: deskantsua

dodxe: dohea

drogea: droga, bihurrikeria

dudea: ezbaia

"Ori bai, ori dude barik ixen bear deu, frute bat esin ya gause danik koyu (Z.)" - (Hori bai, hori ezbai barik izan behar du, fruta bat ezin da gauza danik hartu)

egie: egia

ei: ei, omen

"Bai baya esta yakin bear, selan kenduten dan, esan ei sotzon (Ll.)" - (Bai baina ez da jakin behar, zelan kentzen den, esan ei zion)

enbarasue: enbarazua, eragozpena

"Enbarasue badeko, baya badeko bere bentajea (E.)" - (Enbarazua badauka baina badauka ere abantaila)

enbididxe: bekaitza

endredoa: endredoa

engañue: engainua, amarrua

enkargue: enkargua

entzutea: entzutea

epai: ebakia

erea: era

"Batzuk bietari pere dakienak egoten dire, egoten dires baya, dana tekea bakotxak bere era (E.)" - (Batzuk bietatik ere dakitenak egoten dira, egoten dira baina, denek daukate bakoitzak bere era)

erañe: eragina

erantzune: erantzuna

erbestia: erbestea

eretxie: iritzia

ernegue: ernegua

errastue: zidurria, arrastoa

erraye: marra

erregea: erregea

errefujidxo: aterpea

errekadue: erosketa, mandatua

erremesea: erremesa

"Bueno, ein gendun erremesea baya gana barik eitteuen nobioa pa ordun (T.)" - (Beno, egin genuen erremesa baina gogo barik egiten zuen gizongaiak ba orduan)

erreparue: erreparua

errespeta: begirunea

erresultadue: emaitza, ondorioa

erretolike: erretolika

erretratue: argazkia, erretratua

"Estostesu erretratuen atarako, e? (Z.)" - (Ez didazu erretratuan aterako, e?)

errimue, arrimue: babes, aterpea

erritte, erritxea, errettea: errieta

"Erromerietan, en jeneral, baserriko erromerietan erritxeak urteteuen (K.)" - (Erromerietan, gehienetan, baserriko erromerietan errietak irteten zuen)

"Nik estot esetu ori erritxea (K.)" - (Nik ez dut ezagutu errieta hori)

"Neues erreitta asko eiñekoa ganera gero, eskolan ibil giñenean biok erreittan beti ibiltten giñen (E.)" - (Neugaz errieta asko eginekua gainera gero, eskolan ibili ginenean biok errietan beti ibiltzen ginen)

erronkea: erronka, borroka, agirika, harrokeria

errue: errua

es: ez

esabidea: esapidea

esetz: ezetz

"Esetz eneke esango (Z.)" - (Ezetz ez nuke esango)

esetza: ezetza

esiñe: ezina

esixena: ezizena

eskarie: eskaria

eskasie: eskasia

esker ona: esker ona

esker txarra: esker txarra

esku bearra: esku beharra

eskubidea: eskubidea

eskutue: izkutua

estiloa: era, moldea

"*Areak, are tires, onek estire emeko estilokoak (E.)*" - (*Areak, areak dira, hauek ez dira hemengo moldekoak*)

estorbue: enbarazua, eragozpena

"*Danok batu giñenean gero ona, emen, e, besteari estorbu te, asuntu txarrak (E.)*" - (*Denok batu ginenean gero hona, hemen, besteei enbarazu eta, gora-behera txarrak*)

ete: ete, ote

eutobusea: autobusa

faltea: falta

"*Ori sirkulasiño faltea dalako da (Ll.)*" - (*Hori zirkulazio falta delako da*)

famea: fama, ospea

"*Ogigastayak fama txarra eukitxeuen (A.)*" - (*Ogigaztaiak ospe txarra edukitzen zuen*)

fatxadaea: fatxada, itxura, moldea

fetxea: data

filea: ilara

figurea: itxura

firmea: sinadura

"*Gure aitxek eta esaten seudian, gure aitxek eta amak esaten seudian, neskatoa, euren firmea bota eskeron naiko da, itxurrian! (M.)*" - (*Gure aitak eta esaten zuten, gure aitak eta amak esaten zuten, neskatoa, euren sinadura botaz gero nahikoa da, itaurrean!*)

forma: irudia, itxura

"*Forma barik lotu ingo dire antza (T.)*" - (*Itxura barik lotu egingo dira antza*)

gabarra: gabarra

ganea: gogoa

ganorea: ganora

garrotea: garrotea, egurra

gastue: gastua

gausea, geusea: gauza

"*Geroao ta gause gao dau (Z.)*" - (*Geroago eta gauza gehiago dago*)

"*Txakoliñe itteko geusek eta euki seittuesan (E.)*" - (*Txakolina egiteko gauzak eta eduki zituzten*)

"*Ori eurek ein bear deuren gausea da, etorko dala esan eitten deu baya esta etorten ta (Z.)*" - (*Hori eurek egin behar duten gauza da, etorriko dela esan egiten du baina ez da etortzen eta*)

gedarra: deia

gogoa: gogoa

gomia: goma

goraberea: gorabehera

gorrotoa: gorrotoa

grasie: grazia

gusurre: gezurra

idea: ideia

"*Esta bardiñe ba, entzunte, se entzunte bakarrik, seuk idea bat eitten dosu alau ixengo da (E.)*" - (*Ez da berdina ba, entzunda, ze entzunda bakarrik, zeuk ideia bat egiten duzu halakoa izango da*)

"*Estekot ideari pere ba (La.)*" - (*Ez daukat ideiarik ere ba*)

igol: berdina, beharbada

interesa: interesa

ipuiñe: ipuina

"*Lelau ipuiñ asko ixete san (A.)*" - (*Lehenago ipuin asko izaten zen*)

"*Orrek aitxek konteta soksusen guri orrek ipuiñok (M.)*" - (*Horiek aitak kontatzen zizkigun guri ipuin horiek*)

"*Orrek, e, klaro orrek ipuiñek ixetan siren, umeari kontetan sotziasenak, umeari, gure aitxek amaka biderres konte doskus, a, artaburu suritxeatan, ordun ixetan siren kontuek, ostantzean lo itxen gendun te, eta a kontuek kontetan ta gu artaburu suritxan, baya, Peruxe ta Mariñe (M.)*" - (*Horiek, jakina, horiek ipuinak izaten ziren, umeei kontatzen zizkietenak, umeei, gure aitak hamaika biderrez kontatu dizkigu, artaburu zuriteetan, orduan izaten ziren kontuak, osterantzean lo egiten genuen eta, eta hura kontuak kontatzen eta gu artaburu zuritzen, baina, Peruxe eta Mariñe*)

irudie: irudia

istoriala: istorioa

istorie: istorioa

"*Lukiñ isturi pere entzungo gendusen guk makiñe ba pider se gure aitte kaseru ixen san eta, amakatxu isturi (A.)*" - (*Lukiaren ipuinak ere entzungo genituen guk makina bat bider ze gure aita ehiztaria izan zen eta, hamaikatxo ipuin*)

itxurea, etxurea: itxura

"*Oin dekosu itxurea suk! ta oin sutunik oteko esara gause ta oira yon ber (A.)*" - (*Orain daukazu itxura zuk! eta orain zutunik egoteko ez zara gauza eta ohera joan behar*)

ixena: izena

"*Iñisio euki euen nire osabeak, e, ixena (E.)*" - (*Inazio eduki zuen nire osabak, izena*)

"Nik yakiñ es arren dana tekea ixena (Bi.)"
- (Nik jakin ez arren denek daukate izena)

"Buruti ondo egon sanak Jose euki euen ixena (E.)" - (Burutik ondo egon zenak Jose eduki zuen izena)

jeneroa: gauza, jeneroa

"Jenero gusti teko gaixoa (Z.)" - (Jenero guztiak dauka gaixoa)

"Matzatan jenero asko ein ya (E.)" - (Mahatsetan gauza asko egin da)

julano: urlia

kajea: kaxa

kamioya: kamioia

kanbioa, kanbidxoa, kanbidxue: aldaketa

kankarrue: kankarroa

kargue: kargua

karraderea: karradera, korrikaldia

"Yan eser beres, baya orixe, freskurea ta apur bet eguski beroa koitten badeu, sulo itzela itten deu, eta an sendoan egoten da, eta txarriri karraderari pe esi lio eraiñ, e? gorritu akaba intte ta ittoten paraten da (Z.)" - (Jan ezer ere ez, baina horixe, freskura eta apur bat eguzki beroa hartzen badu, zulo itzela egiten du, eta han sendoan egoten da, eta txerriari karraderarik ere ezin dakioker eragin, e? gorritu amaitu eginda eta itotzen paratzen da)

kartea: gutuna, eskutitza

kasue: kasua

kategorie: kategoria

kejea: kexa

kinkalle: kinkaila

kiñue: keinua

klasea: klasea, mota

"Sagarra klase ona pere euki dodas nik (Z.)" - (Sagar mota onak ere eduki ditut nik)

kolorea: kolorea

"Etzeko arrutzek, e, txitxek atarateko imiñi tte gero kolore bardiñe taus beti etzian (A.)" - (Etxeko arrautzak, txitak ateratzeko ipini eta gero kolore berdinak dagoz beti etxean)

kolorgea: kolorga

konforme: ados

kontrabandoa: kontrabandoa

"Ta kontrabando bere sartzen san Mungin, baterik bestera, sagiekas lepoan artute kontrabando sartu, batak besteari (K.)"

- (Eta kontrabandoa ere sartzen zen Mungian, batetik bestera, zahagiakaz lepoan hartuta kontrabandoa sartu, batak besteari)

"Page in bear ixetan san, baya page es itxeko kontrabando sartxe seuden gaues (K.)" - (Ordaindu egin behar izaten zen, baina ez ordaintzeko kontrabandoa sartzen zuten gauetz)

kontrakoa: kontrakoa

kontrarioa: arerioa, kontrarioa

kontue: 1. kontua, istorioa. 2. kontua

"Negun, a, sue iñ ye bekosuen ta an bueltan para ta, senbet kontu kontau sarrak (A.)" - (Neguan, sua egin eta beheko suan eta han bueltan paratu eta, zenbat kontu kontatu zaharrek)

"Ori beste kontu be ta (E.)" - (Hori beste kontu bat da)

kontzejue: aholkua

koplea: kopla

kordia: korda

kostunbrea: ohitura

"Ordun, a, olaurik, e, kostunbre be esan on eitten, olaurik esan akostunbretan ordun (Z.)" - (Orduan, holakorik, ekandua ere ez zen egon egiten, holakorik ez zen usatzen orduan)

kotxea: autoa

"Lau kotxe Mungien egon siren nik esetu dodas, laurek tasisek ixen siren (M.)" - (Lau auto Mungian egon ziren nik ezagutu ditut, laurak taxiak izan ziren)

kuadrue: laukia

kuntzumoia: kontsumoia

lapur famea: lapur ospea

lastimea: lastima

leba: leba, ardura

lotzea: lotsa

"Niri lotza emote osten bertzotan urtetek (Bi.)" - (Niri lotsa ematen zidan bertzotan irteteak)

makiñea: makina

malesie: malezia

manejue: moldaera

markea: marka

martxea: martxa

matrakea: matraka

memorie: oroimena, gogoia

mendea: benda

meritxue, meritue: meritua

mesedia: mesedea

metxerue: metxerua
minerala: minerala
mintze: mintza
miserie, miseridxe: miseria
modue: modua
modia: moldea
motorra: motorra
nagie: nagia
nastea, nastia: nahastea
"Osalia, nastia eintxe, osalia pentzuegas ta nastia eintxe (M.)" - (Osala, nahaste eginda, osala pentsuagaz eta nahastea eginda)
notesie: albiste
"Notesi txarra ekarko deu, alaurike dabil txakurre (A.)" - (Albiste txarra ekarriko du, alauruka dabil txakurra)
"Eta txinyortxuek ekarten deitxusen notesik ser? (M.)" - (Eta txindortxoak ekartzen dituen albisteak zer?)
ordia: ordea
ostabere: ostera ere
ostantzean, ostantzian, ostantzen: osterantzean, bestela
ostatue: ostatua
palanke: palanka
palisea: jipoia
paradea: parada, zita, hitzordua
pasadea: jipoia
pasadisue: pasadizua
paseoa: paseoa
"A bere, oño nobie ibil san, ni bere, neure enbra defunteagas, paseoan, ta a bere bai (E.)" - (Hura ere, oraindino andregaia ibili zen, ni ere, neure andre difuntuagaz, paseoan, eta hura ere bai)
pasoa: pasabidea
peligroa, peligrue: arriskua
penea: pena, samina, mina
permisoa: baimena
petakea: petaka
pipea: pipa
plantea: itxura, planta
plastikue: plastikoa
plomoa: beruna
portzelana: protzelana
posa: poza
posturea: postura
"Bai esaten seudean geubean, estala posturerik ein biar (M.)" - (Bai esaten zuten gauean, ez dela posturarik egin behar)

preguntea: itauna
premioa, premidxo: saria
presoa: presoa
prisea: presa
probea: proba
probetxue: probetxua
prolema: arazoa
propine: eskupekoa
puntea: punta
radioa, radidxo: irratia
sastarra: zaztarra
seguru: 1. ziur. 2. beharbada, antza
señalea, sendallea, senallea: aztarna, seinalea
"A da senallea, selan talle bodea itxen dotzean, senallea itxeko da ori, ta imintxe san erramue, talle bode senallea (L.)" - (Hura da seinalea, zelan teila boda egiten dioten, seinalea egiteko da hori, eta ipintzen zen erramua, teila boda seinalea)
"Saldie bera bajetan bada sendalle txarra, eta ardie bere bai (Z.)" - (Zaldia behera bajatzen bada seinale txarra, eta ardia ere bai)
sera: zera
sereñe: zeregina
serikusie, seikusie: zerikusia
sidurrie: zidurria, aztarna, lorratza
sigarroa: zigarroa
sobrea: sobrakina
subertea, suertea: zortea
"Ollar baltza, esaten gendun guk atxiñe, ba orrek, e, suberte txarra, suberte txarra, ta katu baltza pere bai, suberte txarra (M.)" - (Oilar beltza, esaten genuen guk antzina, ba horrek, zorte txarra, zorte txarra, eta katu beltzak ere bai, zorte txarra)
"Gero urteuden ta bai, ta suerte andi bet ein gendun (E.)" - (Gero irten zuten eta bai, eta zorte handi bat egin genuen)
surrumurrue: zurrumurrua
tabakoa: tabakoa
tandea: txanda
"Eta guk emen bidean eitten gendun, bidean, Mungittik ona, tanda bi, etzera, sera atzalden ya, se atzalden ya trankill etorten gintzesan, eta, ori barrio gustie, barri intte dauna or Mungitti urtekeran, or aldatzan lotuten gintzesan lelengo, ta itten gendun kuadru bet eta or olgetan gendun, trokameraka, lelengo tandea, ta gero emen ingiruen ostabere, beste tanda bat, etzera

allega baño lelau (A.)" - (Eta guk hemen bidean egiten genuen, bidean, Mungiatik hona, txanda bi, etxera, zera arratsaldean ja, ze arratsaldean ja trankil etortzen ginen, eta, auzo guzti hori, berri eginda dagoena hor Mungiatik irtekeran, hor aldatsean lotzen ginen lehenengo, eta egiten genuen lauki bat eta hor olgatzten genuen, trukameraka, lehenengo txanda, eta gero hemen inguruan osterare, beste txanda bat, etxera ailegatu baino lehenago)

tapea: tapa, estalkia

telefonoa: telefonoa

tipoa: era, moldea

tirea: tira

topea: topea

trabesa: trabesa

"Emen beste bat, onetariko beste trabes bat geyau dareude ta, au aurreko au burriñeskoa barik, egurrekoa (E.)" - (Hemen beste bat, hauetariko beste trabes bat gehiago daroate eta, hau aurreko hau burdinazkoa barik, egurrezkoa)

tranpea: tranpa

trasea: itxura

trena: trena

"Lelau astoakas baya gero trenean yoate siren, emeti, emeti sikeran (T.)" - (Lehenago astoakaz baina gero trenean joaten ziren, hemendik, hemendik behintzat)

trenbidea: trenbidea

"Neu bere semet urte ixengo dire ba, osaba defuntuegas yoan, a, Busturire, ta an Gerniketi Busturire bidean, an, trenbidea pastan da alan (T.)" - (Neu ere zenbat urte izango dira ba, osaba zenagaz joan, Busturira, eta han Gernikatik Busturira bidean, han, trenbidea pasatzen da halan)

trentiñe: trentina, andana, ganora

tretea: treta, maina

trillue: hondamena

tronbille: tronbila

txantela: txantela

uekue: hutsunea

"Baya arek, emen ertzean burriñeskoa oten dana, ixeten dires au ueku beten eroteko emetik onakoa egurre imiñi, eta emetik

eta emetik imintten dosunek eskapa esteyen, istututeko (E.)" - (Baina haiek, hemen ertzean burdinazkoa egoten dena, izaten dira hau hutsune baten eroateko hemendik honakoa egurra ipini, eta hemendik eta hemendik ipintzen duzunak eskapa ez dezan, estutzeko)

ukusi esiñe: ikusi ezina

ukutue: ikutua

umorea: aldartea

"Umora txarren altzaten dire lotik umeak, ba lo oste txarra deko (La.)" - (Aldarte txarrean altxatzen dira lotik umeak, ba lo oste txarra dauka)

yakitturie; dxakixurie: jakituria

yasa, dxasa: 1 itxura, planta, tajua 2 -teko yasa, ohitura, ekandua

yoanetorrie, dxoanetorridxe: joan-etorria

21. ADJEKTIBOAK

Atal honetan adjektibo bakunak biltzen ditugu, noizean behin eratorriren bat ager daitekeen arren, hauetariko gehienak berba eratorrien atalean agertuko dira. Bestalde, adjektibo konposatuak eta adjektibotzat erabiltzen direnak esakunen atalean agertuko dira. Azkenik, kolorei buruzko berbak azpi-atal berezian agertuko dira amaieran.

21.1. ADJEKTIBO BAKUNAK

aberatza: aberatsa

"Aberatzak edo ser andikoak ixen bear, a, playara yoateko, ostantzen pentza beres! (Z.)" - (Aberatsak edo zer handikoak izan behar, hondartzara joateko, osterantzean pentsatu ere ez!)

afisiñedua, afesiñedua: zalea

afoa: afoa

agune: aguna, ondo ehoko arto irina

ajille: bizkorra

akabukoa: amaierakoa

"Gixonantzta ta akabuko erreminttea ori kodañea (E.)" - (Gizonarentzat da azken erreminta kodaina hori)

aldestayo: okerra, baldarra

alegre: alaia

alperra: alperra

alperrikoa: alperrikoa
"Alperriko alderrire, eitten dau inyar ta, aurrera in bearren albora (E.)" - (Alperriko alderdira, egiten du indar eta, aurrera egin beharrean albora)

altea: altua (f)

altue: altua
"Basorik altuena Gorbea da (Z.)" - (Basorik altuena Gorbea da)

amotza: amotza

andie: handia
"Errie andie da (Z.)" - (Herria handia da)
"Ori salle andie ixen san (K.)" - (Sail hori handia izan zen)

andikie: handikia

antzekoa: antzekoa

antzue: antzua
"Antzue, ba, ernari espada antzu dau baya, ostantzian, e, bei arra orixe, lotxian estanari edo (M.)" - (Antzua, ba, ernari ez bada antzu dago baina, osterantzean, behi arra horixe, lotzen ez denari edo)

apala: apala

apartekoa: apartekoa

apatza: apatza

aproposa: aproposa

aproposkoa: aproposkoa

arbiñe: armina, beroari buruz esaten da bero larria denean

argala: argala
"Ori esta aiñ argala (Z.)" - (Hori ez da hain argala)

argie: argia

argiskea: argixka

ariñe: arina
"Ogetalau ordu barruen edo bai sikan, ogetalau ordu edo berrotasortzi edo estaitx ixetan basan, ariñ ariñ (K.)" - (Hogeita lau ordu barruan edo bai behintzat, hogeita lau ordu edo berrogeita zortzi edo ez dakit izaten bazen, arin-arin)

arraroa: arraroa

arroa: 1. harroa. 2. jagia

arterakoa, arteraokoa: arteragokoa

artega: artega

artesa: arteza
"Ta beste batzuk, a biskerra artes dekeanak (M.)" - (Eta beste batzuk, bizkar hura artez daukatenak)

asala: azala, aixala

askena: azkena

"Bai gitxi asko ementxe askena itten esetu dot (Ll.)" - (Bai gutxi-asko hementxe azkena egiten ezagutu dut)

askenengoa: azkenengoa

aspaldikoa: aspaldikoa

astune: astuna
"Egosten euki ba luserotxu bai, semet luseroau ba astuntxuau (M.)" - (Egosten eduki ba luserotxo bai, zenbat luzeroago ba astuntxoago)

atrebidea: ausarta (f.)

atrebidue: ausarta

atxiñekoa: antzinakoa
"Errementariñ aitte atxiñeko maixu ixen san (Bi.)" - (Errementariaren aita antzinako maisua izan zen)

axala, aixala: azala, sakonaren kontrakoa

bajue: baxua
"Etziak ixen siren lenau, baju bajuek (M.)" - (Etxeak izan ziren lehenago, baxu-baxuak)

bajutoa: bajutoa

bakana: bakana

bakarra: bakarra

balientea: ausarta, trebea

baltzingoa: beltzingoa, beltzarana

bardiñe: berdina
"Ori txolea itten san segas? papela balego bere bardiñ ei lei (Z.)" - (Txola hori egiten zen zegaz? papera balego ere berdin egin liteke)

bardingoa: berdingoa, ertaina

barea: barea

barrabana: barrabana

barrabasa: barrabasa

barrie: berria

bastoa: latza, lakatza, tropea
"Umedade giau daulako, eta inyabea koiten da bastoaua, beko alderdien, eta goikoa da inyabea, asko fiñaua, goiko alderdikoa (Z.)" - (Umeltasun gehiago dagoelako, eta indaba hartzen da latzagoa, beheko alderdian, eta goikoa da indaba, asko finagoa, goiko alderdikoa)

beargiñe: behargina

belukoa: belukoa

benetakoa: benetakoa

berbaltue: berbaltua, tartamutua

beroa: beroa

beterrea: beterrea, okerra

betikoa: betikoa

bigune: biguna

biribille: biribila

"Biribil biribillek egoten siren, sillotxuegas da, aonetara sartu alanbretik eta, bi edo iru edo, barrikoa segun selaua dan, andie edo txikerra ser dan imintte akosan (Ll)" - (Biribil-biribilak egoten ziren, zulotxoagaz eta, haonetara sartu alanbretik eta, bi edo hiru edo, barrika segun zelakoa den, handia edo txikerra zer den ipintzen zitzaizkion)

bisgoa: betokerra

biskorra: bizkorra

biurrie: bihurria

"Aalan, sertxuegas imiñi biurritxuegas eiñ, a, paluen, ta imiñi untzetxuek an urten esteyan ba (M.)" - (Haalan zertxoagaz ipini bihurritxoagaz egin, makilan, eta ipini iltzetxoak han irten ez dezan ba)

bixie: bizia

bondroa: balastragua, bastoa

brillantea: dirdiratsua

defuntea, difuntea: difuntua (f.)

"Meidetxue apur be gora bera, koxueskeroan, esteko, alimerea orreri esaten geuntzen lenau, oiñ esta, gitxi entzuten da ori, baya alimerea, ba sarrak, gure ama defunteak eta alimerea esateutzen orreri (M.)" - (Neurritxoa apur bat gora-behera hartuz gero, ez dauka, almimera horri esaten genion lehenago, orain ez da, gutxi entzuten da hori, baina almimera, ba zaharrek, gure ama difuntuak eta almimera esaten zioten horri)

defuntue, difuntue: difuntua

delikedue: delikatua

derditxedue: ugaria

desbardiñe: desberdina

desesune: desezaguna

"Kuadrillen badaus edo badator beste bat desesune areri bere bai itxen tzea, orro itxen tzea (M.)" - (Taldean badagoz edo badator beste bat desezaguna hari ere bai egiten diote, orro egiten diote)

diferentea: desberdina

"Gero albo erromeri gustietara yoaten sien, oin domekako diferente taus (K.)" - (Gero albo erromeria guztietara joaten ziren, orain domekako desberdin dagoz)

dotoria: dotorea

dultzea: gozoa, ezitia

edadekoa: edadekoa, adinekoa, zaharra

ederra: ederra

elegantea: dotorea

"Ta gardak eleganteak eurten ikusi doas ganera (Em.)" - (Eta gardak dotoreak aurten ikusi ditut gainera)

"Elegante euki euen ak (E.)" - (Dotore eduki zuen hark)

eletrikue: elektrikoa

epela: epela

erakoa: erakoa, ganorazkoa, itxurakoa

erkiñe: erkina

"Ume erkiñe da geixokie, geixoa ta, estana edadera desarrolletan, et'orretarikoa, da ume erkiñe (Z.)" - (Ume erkina da gaixokia, gaixoa eta, ez dena adinera garatzen, eta horietarikoa, da ume erkina)

ernegadue: ernegatua

erosoa: eroso

erresa: erraza

errubie: ilegorria (f.)

errubioa: ilegorria

esiñe: ezina

eskasa: eskasa

"Erremintxe eskasa ixen san (K.)" - (Erreminta eskasa izan zen)

"Gero abadeak yango euen, orduen eskas on san ta (E.)" - (Gero abadeak jango zuen, orduan eskas egon zen eta)

eskerra: ezkertia

"Ni, eskerra nas neu, baya eskoyagas beti ebai dot (E.)" - (Ni, ezkerra naiz neu, baina eskoiaz beti ebaki dut)

estimedue: estimatua

estue, istue: estua

"Orduko denporan ba, ordun geusek, e, istu egon siren, gerra aurrean istu egon siren geusek (E.)" - (Orduko sasoian ba, orduan gauzak, estu egon ziren, gerra aurrean estu egon ziren gauzak)

esune: ezaguna

faltzoa: faltsoa

famadue: famatua, ospetsua

fasille: erraza

"Ori fasille da ittea (Z.)" - (Hori erraza da egitea)

fijoa: fixoa

"Eta orduen asko useta san karroatan bere bai, karroatan eroteko, ba plasara, saldie baño, fijoaoa, saldie tekos, batzuk, geuk emen euki dune pere, ukitte sittusen artu itxiek, pareta san, bueno! eta gero urrao aldien, ba ba pere tiretu gure esik, baya

orre tire fijoaoak (Z.)" - (Eta orduan asko usatzen zen karroetan ere bai, karroetan eroateko, ba plazara, zaldia baino, finkoagoa, zaldiak dauzka, batzuek, geuk hemen eduki dugunak ere, edukitzen zituen hartu-utziak, paratzen zen, beno! eta gero hurrengo aldian, ba bat ere tiratu gura ezik, baina horiek dira finkoagoak)

fiñe: fina

formala: zintzoa

"A pere, egun beten, e, etorri lagunegas ta, erlea jodidu euen an, mutil formala da ta mutil formala dala esateuen, e, giñarraba defuntuek baya, estie atara eutzean, erlea euki euen ta galdu erlea gustie (E.)" - (Hark ere, egun baten, etorri lagunagaz eta, erlea joditu zuen han, mutil formala da eta mutil formala dela esaten zuen, aitagarreba difuntuak baina, ezta atera zioten, erlea eduki zuen eta galdu erlea guztia)

"Emen ote sana formala ixen san (T.)" - (Hemen egoten zena formala izan zen)

freskoa: freskoa

fuerte: indartsua

gaixoa: gaixoa

gaixokie, geixokie: gaixokia

"Goldena bere sagar txarra esta baya gaixoki da, gaixoki da sano, nik dana tekodas mendaute (Z.)" - (Goldena ere sagar txarra ez da baina gaixokia da, gaixokia da sano, nik denak dauzkat mendatuta)

galanta: galanta

"Billurre galanta aukitten gendun ogigastayana (A.)" - (Bildurra galanta edukitzen genuen ogigaztaiarena)

garbie: garbia

garratza: garratza

gasa: gaza, geza

"Gero denpora giaun euki edo gitxiaun euki, urtetaun gasiau edo gasau (Z.)" - (Gero denbora gehiagoan eduki edo gutxiagoan eduki, irteten zuen gaziago edo gazago)

gasie: gazia

"Txarrin koipea esta gasie, gatza bota esik (La.)" - (Txerriaren koipea ez da gazia, gatza bota ezik)

gastea: gaztea

"Andratarik gasteana esta etorri (Z.)" - (Andrerik gazteena ez da etorri)

gatxa: gaitza, zaila

"Berde berde itte ittus ganera eskue pere, ta garbittan dire gatxak (Z.)" - (Berde-berde egiten ditu gainera eskuak ere, eta garbitzen dira gaitzak)

"Nik legitten gatxa dot auskera, e? (La.)" - (Nik irakurtzen gaitza dut euskera, e?)

giputze, kiputze: giputza

"Kiputzek kaderea ataraten deude, olan belunen bittartean imintte, baya guk ataraten du bestera, emen imintte beste eskuegas oratu eta (E.)" - (Giputzak oina ateratzen dute, holan belaunaren bitartean ipinita, baina guk ateratzen dugu bestera, hemen ipinita beste eskuagaz oratu eta)

gixajea: gajoa, gixajoa (f.)

gixajoa: gixajoa

gogorra: gogorra

gordine: gordina

"Tomate gordine barri barri da (Z.)" - (Tomate gordina berri-berria da)

gorra: gorra

gosekille: gosekila

gosoa: gozoa

"Eingo euden igual se usine dekoles gosoa (T.)" - (Eingo zuten beharbada ze usaina daukanez gozoa)

goxetikoa: goizetikoa

guapea: polita (f.)

guapoa: polita (m.)

igerra: igerra, labetik pasatukoa

igual, igola: berdina

illune: iluna

inportantea: garrantzitsua

inutentea: inuzentea, leloa, ergela

"Inutentezat artu daurea (Z.)" - (Inutentezat hartu dute)

"A erdi inutentezat imintteuden beste bat, a, ak urtetauen askoreagas (E.)" - (Hura erdi inutentezat ipini zuten beste bat, hark irteten zuen aizkoragaz)

istue: estua

itzela: itzela

itzue: itsua

"Es orrek estires itzuek (E.)" - (Ez horiek ez dira itsuak)

ixille: isila

kalboa: burusoila

kapasa: gai, gauza

karue: garestia

killiberea: kilibera

"Batzuk, e, killibera taus ganaduek, eta estue gure istan, noperari bere igual ostikedia, ta orreatxi bere igual ixengo da txalana bere, okasiño batzutan (M.)" - (Batzuk, kiliberak dagoz ganaduak, eta ez dute gura izaten, norberari ere beharbada ostikada, eta horregatik ere beharbada izango da txahalarena ere, batzuetan)

kiskorra: kizkorra

klarue: argia

koipelustre: koipelustrea, zuritzailea

koittedue, koitxedue: koitadua

"Yan eitxen gendusen guk, bidian yan koitxeduek, bidian yan (M.)" - (Jan egiten genituen guk, bidean jan koitaduak, bidean jan)

koittedea, koitxede: koitadua (f.)

kokolea: kokoloa (f.)

kokoloa: kokoloa

konpletoa: osoa

kontrakoa: kontrakoa

koxoa, koixoa: herrera

kuadradue: karratua

"Arri kuadradu bet ixeta san beti (K.)" - (Harri karratu bat izaten zen beti)

labana: labaina

laburre: laburra

"Gustosoao da ganadu bere, adar laburreas, erabiltteko bere gustosoao da (Z.)" - (Erosoagoa da ganadua ere, adar laburragaz, erabiltzeko ere erosoagoa da)

larrie: larria

lasa, laxa: lasua

laskiñe, laskie: laskia

latza: latza

laune: leuna

"Eta gero an ataraten danean esta egoten lisu, laun laun estau urtetan, eskus an urtetan dauena ta (E.)" - (Eta gero han ateratzen denean ez da egoten lisu, leun-leun ez du irteten, eskuz han irteten duena eta)

lelia: leloa (f.)

leloa: leloa

leorra, liorra: lehorra

lerdia: lerdoa (f.)

lerdoa: lerdoa

librea: librea, askea

"Ensegida gaus libre (M.)" - (Behingoan gagoz libre)

listoa: argia, azkarra

lisue: laua

lodie: lodia

loye: lohia

lupue: lupua, zitala, ziztrina

lusea: luzea

lusengea: luzenga

"Lusenga batzu dire orrek (Z.)" - (Luzenga batzuk dira horiek)

madariketue: madarikatua

majea: polita, izakera onekoa, begikoa (f)

majoa: polita, izakera onekoa, begikoa

makala: makala, gaixoa

"Esta makala gero! (L.)" - (Ez da makala gero)

"Esan ixen au makala, se iru andra euki ttus (Z.)" - (Ez zen izan hau makala, ze hiru andre eduki ditu)

makarra: makarra, txikerra, eskasa

maketea: makettoa (f)

makettoa: makettoa

makurre: makurra

mamala: mamala

mankue: besamotza

mantzoa: otzana

mari mutille: mari mutila

masala: mazala

"Batzuk masalak eukitxen txue, aplasteko moduen (A.)" - (Batzuk mazalak edukitzen dituzte, zapartuko moduan)

mea: mehea

meatza: mehatza

"Aurie yausten dauenean meatz, estat akordetan (G.)" - (Eurria jausten dagoenean mehatz, ez zait gomutatzen)

mengela: fina, mehea

"Ule fin fiñe orixe da, mengela (K.)" - (Ile fin-fina horixe da, mengela)

merkea: merkea

metalikue: metalezkoa

milikie: milika

mingorra: mingorra, mingarria

mingotza: mingotsa

"Ori mingos dau (Z.)" - (Hori mingots dago)

misketue: mizkatua

morenea: beltzarana (f.)

"Oñ alrrebes, oñ ixen bear deu morena (Z.)" - (Orain aldrebes, orain izan behar du beltzarana)

morenoa: beltzarana

morroskoa: morroskoa

"*Ser pastan da morrosko ba? diñoste euskera (T.)*" - (*Zer pasatzen da morrosko ba? dinost euskara*)

motela: motela

motza: motza

mutue: mutua

nasaye: lasua

naturala: naturala

nausie, neusie: nagusia

normala: normala

obea: hobia

"*Ori de obea (Z.)*" - (*Hori da hobia*)

"*Au hori baño obea da (Z.)*" - (*Hau hori baino hobia da*)

"*Atzera aik eitten asi baño oba ill! (E.)*" - (*Atzera haiek egiten hasi baino hobe hil*)

oidalaseko: ohidalasekoa

"*Oidalaseko auki sauen (A.)*" - (*Ohidalasekoa eduki zuen*)

"*Orko arrik eitten deu sue oidalaseko (Z.)*" - (*Horko harriak egiten du sua ohidalasekoa*)

oidalau: ohidalakoa

"*Ak etzekoak ekar badeu a, oidalautxu ari bere, berak ekar deun beste emon ber ixete sakon (K.)*" - (*Hark etzekoak ekarri badu hura, ohidalakotxoa hari ere, berak ekarri duen beste eman behar izaten zitzaion*)

okerra: okerra

"*Txarrie okerra da, okerra, okerra! (Z.)*" - (*Txerria okerra da, okerra, okerra!*)

ona: ona

osoa: osoa

"*En jeneral emoten deu buelta osoa, e? ibiltten dire batzuten erdi yausien, baya akabuen buelta osoa emoten deude (T.)*" - (*Gehienetan ematen du buelta osoa, e? ibiltzen dira batzuetan erdi jausian, baina azkenean buelta osoa ematen dute*)

osokoa: osokoa

otza: hotza

otzakille: hozpera

pika: pika

"*Pike dau aldatza (K.)*" - (*Pika dago aldatsa*)

pobrea: txiroa

politte, politxe: polita

potolea: potoloa (f.)

potoloa: potoloa (m.)

printzipala: nagusia, gorengoa

putze: putza

rubioa: ilegorria

sabala: zabala

"*Beyek egoten dire sabala tirenak eta istue tirenak (K.)*" - (*Behiak egoten dira zabalak direnak eta estuak direnak*)

sagradue: sakratua

"*Txori sagradutzet lenau aditxuten sakon orreri, t'elea pere bai, orre pere sagraduek, txinyorra t'eleak (L.)*" - (*Txori sakratutzat lehenago aditzen zitzaion horri, eta elaiak ere bai, horiek ere sakratuak, txindorra eta elaiak*)

sakona: sakona

sala: zaila

"*Orrek ataraten diesenean, egurrek, biribille ixeten da egurre, baya klaro ertzean urtetan dotzu istuaoak eta erdien lodiaoak, osea urtenes urtenes doas, baya a erdikoa samurrena ixeten da, salena ertza da, ta arek yoaten dires apartaten, segun se bearretarako bear dosun (E.)*" - (*Horiek ateratzen direnean, egurrak, biribila izaten da egurra, baina jakina ertzean irteten dizu estuagoak eta erdian lodiagoak, hau da irtenez-irtenez doaz, baina hura erdikoa samurrena izaten da, zailena ertza da, eta haiek joaten dira apartatzen, segun ze beharretarako behar duzun*)

salea: zalea

"*Bai, betetuteko, ori tte lopea, buskentzasale salea danak, ba, orrexe piek, geyena gustetan dakonak (Z.)*" - (*Bai, betetzeko, hori eta lopea, buzkantzazale-zalea denak, ba, horiexek biak, gehiena gustatzen zaizkionak*)

samurre: samurra

sapala: zapala

saparra: zaparra

sarra: zaharra

"*Gure aitte sarra ixen san, eta beran lagune pere sarrak (Ll.)*" - (*Gure aita zaharra izan zen, eta beraren lagunak ere zaharrak*)

"*Sarra famoso ixen san emen (Z.)*" - (*Zaharra famatua izan zen hemen*)

"*Bai baya sartxue da, esateusten, agas elei euki umerik (E.)*" - (*Bai baina zahartxoa da, esaten zuen, haregaz ez liteke eduki umerik*)

saskela: zikina

sastarra: zatarra, zantarra

"*Diputasiño bari pere egon eitten siren baya diputasiño barik ganadu sastarra, onenak diputasiñok eukitten sittusen ta andik ekarri esik, ba esegon serik (Z.)*" - (Aldundi barik ere egon egiten ziren baina aldundi barik ganadu zantarra, onenak aldundiak edukitzen zituen eta handik ekarri ezik, ba ez zegoen zerik)

satarra: zatarra

"*Egon siren! egon siren, a, sonatxuek, lapurrek urtetan seuden sonak egon siren, bai egon siren, an Arnaga ingeruen, andik, andik, an Bilbora bidian, an Arnaga, Arnagatik arantza, an urtetan ei seudian bai (M.)*" - (Egon ziren! egon ziren, ingurutxoak, lapurrak irteten zuten inguruak egon ziren, bai egon ziren, han Arnaga inguruan, handik, handik, han Bilbora bidean, han Arnaga, Arnagatik harantz, han irteten ei zuten bai)

sea: xehea

seatza, siatza: zehatza

segurue: 1. ziurra. 2. antza, dirudienez

selebrea: xelebrea

"*Orrek ixen selebre ba teko ba (Z.)*" - (Horrek izen xelebrea bat dauka ba)

sendoa: sendoa

seridxo: serioa

sietza: 1. zehatza. 2. zintzoa

"*Olan ibiltxe siren mutil bardingoak eta, au sie sietz ebaitxe, ta emen txototxue luse itxitxe (M.)*" - (Holan ibiltzen ziren mutil berdingoak eta, hau zehatz-zehatz ebakita, eta hemen txototxoa luze utzita)

sikue: sikua

sistriñe: ziztrina

sittela, sitxela: zitala

solie: zolia

"*Se neska soli dan! (Bi.)*" - (Ze neska zoli den!)

soroa: zoroa

sorrotza: zorrotza

suabea: suabea

sueldue: soltea, soltua

surre: zuhurra

"*Ni baño surrau ego litxeke mille bider (Em.)*" - (Ni baino zuhurrago egon liteke mila bider)

"*A baño neu o nitzen surrau, neu o nitzen ori itteko moduen (E.)*" - (Hura baino neu egon nintzen zuhurrago, neu egon nintzen hori egiteko moduan)

temosoa: tematia

terkoa: tematia

terriblea: itzela

torpea: dorpea

trankille: lasaia

trastoa: bihurria

"*Bai umeakaitti da ori, umea bada trastoa, edo, ori de, ba, guk, batzuk esaten dure trastoa, eta beste batzuk, bada sittela edo umea bada sera, inparablea, esate otzue, beterre au d'ori, etorko espalitteke (Z.)*" - (Bai umeengatik da hori, umea bada bihurria, edo, hori da, ba, guk, batzuek esaten dute bihurria, eta beste batzuek, bada zitala edo umea bada zera, lotuezina, esaten diogu, beterre hau, eta hori, etorriko ez balitz)

tristea: tristea

tropea, torpea: astuna, tropea, dorpea

"*Torpe yaten danen edo da ori (Bi.)*" - (Astun jaten denean edo da hori)

tuertoa: begibakarra

txarra: txarra

"*Ori de txarraoa (Z.)*" - (Hori da txarragoa)

"*Bidxe tire txarrak, bidxe tire txarrak sano (M.)*" - (Biak dira txarrak, biak dira txarrak sano)

txatoa: txatoa

txikerra: txikerra

"*Matza txikerra, txikerra baya, ba mas sarratue, ortik, e, Errioxaldeko klaseko matza (Z.)*" - (Mahatsa txikerra, txikerra baina, ba mahats itxia, hortik, Errioxaldeko motako mahatsa)

"*Al danik txikerrena ekarri ber da (Z.)*" - (Ahal denik txikerrena ekarri behar da)

txikitxue: txikitxoa

"*Bat txikitxue da, an elixaurrean bixi da, txikutxu et (E.)*" - (Bat txikitxoa da, han eliza aurrean bizi da txikitxo bat)

txotxolia: txotxoloa (f.)

txotxoloa: txotxoloa

ugerie: ugaria

umedue, umedo: hezea

urdiñe: zurbila

"*Orduen urdiñek ixen bear ixetan suren, eta lodiek (Z.)*" - (Orduan urdinak izan behar izaten zuten, eta lodiak)

urrengoa, urrungoa, urreoa: hurrengoa
"Arrutzek altzeu eta an itxitten san urrengo egunerako (Ll)" - (Arrautzak altxatu eta han uzten zen hurrengo egunerako)
"Urreo eguneko beskarirartean egon gintzesan an, e, talle bode itxen (L.)" - (Hurrengo eguneko bazkarira arte egon ginen han, teila boda egiten)
urrie: urria
ustela: ustela
utze: hutsa
yakana, dxakana: jakana, txarto eta gutxi jaten duena
yasekoa, dxasekoa: jasekoa, itxurakoa

21.2. KOLOREAK

asule: urdina
asuliskea: urdinxka
baltza: beltza
baltziskea, baltzuskea: belxka
bellegie: beilegia, horia
"Bellegi bellegi paretan dire, esne utzegas pentzetan dot (A.)" - (Beilegi-beilegi paratzen dira, esne hutsagaz pentsatzen dut)
"Aonen tamañu ingeruko, bola bellegitxu batzuk siren, ixena selan euki euen a pa? (Ll)" - (Haonen tamainu inguruko, bola beilegitxo batzuk ziren, izena zelan eduki zuen hark ba?)
bellegiskea: beilegixka, horixka
berdea: berdea
"Kordelari sartute, berdia edo diferentia, bera suridxe bada ba berdia edo aridxe sartute (M.)" - (Kordelari sartuta, berdea edo desberdina, bera zuria bada ba berdea edo haria sartuta)
berdeskiñe: berdexka
berdiskea: berdexka
gorrie: gorria
"Etze gorrie ikus du (Z.)" - (Etxe gorria ikusi dugu)
gorrisketa: gorrixka
gorriskiñe: gorrixka
"Antxe egon san orretariko koloreko lur gorriskiñe, gogorra (L.)" - (Hantxe egon zen horietariko koloreko lur gorrixka, gogorra)
gorristiñe: gorrixka, gorrixkina

"Gorristiñek on dire gurian beti (A.)" - (Gorrixkinak egon dira gurean beti)
grise: grisa
"Egoten dire beste batzuk, e, se kolore esangot? e, gris antzeko kolorian egoten dire, batzuk, ba gurian beti eon dire gorristiñek (A.)" - (Egoten dira beste batzuk, ze kolore esango dut? gris antzeko kolorean egoten dira, batzuk, ba gurean beti egon dira gorrixkinak)
kolorgea: kolorgea
marroya: marroia
marroiskea: marroixka
moraue: moratua
nabarra: nabarra
surie: zuria
"Koipe da txarrik eukitten dauna, a suri surie (La.)" - (Koipea da txerriak edukitzen duena, hura zuri-zuria)
suriskea: zurixka

22. ADITZONDOAK

Batu ditugun aditzondoak sailkatzeko euron esangura hartu dugu oinarritzat. Era honetara, atal honetako azpi-atalak denbora aditzondoak, leku eta kokaguneak, modu aditzondoak, maila aditzondoak eta zenbatekoak izango dira.

22.1. DENBORA ADITZONDOAK

ariñ: arin, laster
"Ariñau abidxie itxen deuelako esate otzia marti soso (L.)" - (Arinago habia egiten duelako esaten diote marti zozoa)
arreskero: harrezkero
artean, arten: artean, lehen
"Artean geyau, nire denporan bere bai, eta, gero emen, e, au tenikas idraulikas, amaittuten dan lekuen, ber'on siren bost edo sei piñu, t'ortxe on siren urtekera bi alde bietatik, ta ortxe bere bai askok urteteuen (Ll.)" - (Artean gehiago, nire sasoiaren ere bai, eta, gero hemen, hau Técnicas Hidráulicas, amaitzen den lekuan, ere egon ziren bost edo sei pinu, eta hortxe egon ziren irteera bi alde bietatik, eta hortxe ere bai askok irteten zuen)

arterakoa, arteraukoa: arteragoko, lehenagoko

"Arteraukoak eukitteuden, sulo bat onen, e, aldatz andietan, ba amarrau andik (E.)" - (Arteragokoek edukitzen zuten, zulo bat hauen, aldats handietan, ba amarratu handik)

aspaldi: aspaldi

aspaldiñ, aspaldixen: aspaldian

"Aspaldiñ eskara usau orrekas gausekas (La.)" - (Aspaldian ez gara usatu gauza horiekaz)

atoan, aton: atoan, berehala

"Deskuidaskon atoan sartzen da (E.)" - (Deskuidatuz gero atoan sartzen da)

atxiñe: antzina

"Atxiñe esnegas, umeak, geyenak aste siren (A.)" - (Antzina esneagaz, umeak, gehienak hazten ziren)

atzera: atzera, berriz

"Atzera etorten sakon (Ll.)" - (Atzera etortzen zitzaion)

aurten, eurten: aurten

"Kasu beterako eurtengo siketan, a, agostuen asitte ibil gara emoten (Z.)" - (Kasu baterako aurtengo sikatean, abuztuan hasita ibili gara ematen)

barrien, barridixen: barriro, berriz

"A bueltaterik esegoan ak ein berreun utzittu, barrien kargeu (Ll.)" - (Hura bueltatzerik ez zegoen, hark egin behar zuen hustu, berriro kargatu)

beingoan, beingon: behingoan

beiñ: behin

"Ni urtean bein yoate nas ara (E.)" - (Ni urtean behin joaten naiz hara)

beiñipeiñ: behinik behin

belu, berandu: belu, berandu

"A yosten ibilli san Bilbon, ta arik eta ba eskondu artean, eseuen pentzetan eskontarik esebe, belu eskondu san, ta akabuen belu ibillien bere seme bat euki euen (E.)" - (Hura josten ibili zen Bilbon, eta harik eta ba ezkondu arte, ez zuen pentsatzen ezkontzerik ezer ere, belu ezkondu zen, eta azkenean belu ibilian ere seme bat eduki zuen)

"Beluau ikisi gendun guk yaten gordiñik (A.)" - (Beluago ikasi genuen guk jaten gordinik)

beluskoan: beluzkoan

"Bai ingo eutzean ori erropea garbittu ingo eutzean baya yatekoa aparte pentzetot nik, se orrek, a, en jeneral eitteuden, a, beskari bet egunean, armostan surrut, atzaldean, a, beluskoan eitteuden, ta kittu! (T.)" - (Bai egingo zieten hori arropa garbitu egingo zieten baina jatekoa aparte pentsatzen dut nik, ze horiek, gehienetan egiten zuten, bazkari bat egunean, gosarian zurrut, arratsaldean, beluzkoan egiten zuten, eta kitu!)

beti: beti

"Gorristiñek on dire gurian beti (A.)" - (Gorrixkinak egon dira gurean beti)

bider: bider

"Ori astean bi bider etorten da (Z.)" - (Hori astean bi bider etortzen da)

birriten, birritxen: birritan

"Kuartela eiñeskeron, baten edo, birriten bakarrik pase nas andi kamiñoti (E.)" - (Kuartela eginez gero, baten edo, birritan bakarrik pasatu naiz handik kaminotik)

birritteko aldiz, birritxiko aldiz: birritako aldiz

daborduko: daborduko

egundo, eguno: egundo

"Ori urdille yosi itten dure batzuk, baya guk eguno estu eiñ, t'ori kargetan dure, nik estaipa seas, igual barrukiekas, kargeko dure (Z.)" - (Urdail hori josi egiten dure batzuek, baina guk egundo ez dugu egin, eta hori kargatzen dure, nik ez dakit ba zegaz, beharbada barrukiakaz, kargatuko dure)

"Eguno enas kantzeu orretan asuntuen (E.)" - (Egundo ez naiz nekatu gora-behera horretan)

eguno beti: egundo, egundo beti

en jeneral: gehienetan

"Ari en jeneral ara yoaten sakosen (Z.)" - (Hari gehienetan hara joaten zitzaizkion)

ensegida: behingoan, atoan

"Beste seoser emote otzea ta ensegida daus sertute (Ll.)" - (Beste zer edo zer ematen diete eta behingoan dagoz zertuta)

gero: gero

"Ori de gerorao andiao (Z.)" - (Hori da gerorago handiagoa)

"Ori de gerorao sarrao (Z.)" - (Hori da gerorago zaharrago)

gesu beten: behingoan, berehala

geyenen: gehiengan

goixeti, goxetik: goizetik

"Kanpoko bearra, oingo alden ordun goxeti itte san (Z.)" - (Kanpoko beharra, oraingo aldean orduan goizetik egiten zen)

iges, ies: iaz, igaz

"Oñ emon tzegu, iges edo enpatxuegas euki bedxe ta, mantzanille (M.)" - (Orain eman diegu, iaz edo enpatxoagaz eduki behia eta, kamamila)

jeneralean, jeneralen: gehienetan

lantzen, lantzean, lantzian: lantzean, noizean behin

"Ori orrelasekoa emen esta usetan ixen, e? oñ akabuen lantzean bat agertuten ixen dires, gortako ganaduen, e, satzak atarateko baya ostantzean (E.)" - (Hori horrelasekoa hemen ez da usatzen izan, e? orain azkenean lantzean bat agertzen izan dira, kortako ganaduen, satsak ateratzeko baina osterantzean)

"Oñ akabuen lantzean bat agertuten ixen dires (E.)" - (Orain azkenean lantzean bat agertzen izan dira)

"Beyetan egoten dire ta, lantzean bat, eta ba ixengo da (T.)" - (Behietan egoten dira eta, lantzean bat, eta ba izango da)

lantzen baten, lantzian baten: lantzean baten

lantzen beiñ, lantzen beiñen, lantzen beñean: lantzean behin, noizean behin

"Bellerie, ori ixeta san ba, txarrien seboa, ta a eskeitxe imiñi, ba gero, lantzen beñean emoteko, ba fuerteau pare ditxen, bigundu in ditxen, e, sapatea (M.)" - (Bileria, hori izaten zen ba, txerriaren bilgorra, eta hura eskegita ipini, ba gero, lantzean behin emateko, ba indartsuago para dadin, bigun egin dadin, zapata)

"Lantzen beiñen naranjak edo platanuk, eta ori ixeta san gause andi bateles (A.)" - (Lantzean behin laranjak edo platanuak, eta hori izaten zen gauza handi baten legez)

laster: laster

"Nire loba takie ni paño ogeto, balegos amen laster kanteko leskixue (M.)" - (Nire lobek dakite nik baino hobeto, balegoz hamen laster kantatuko lizukete)

lelengo: lehenengo

len: lehen

"Orrek beti, len egote siren beti (Z.)" - (Horiek beti, lehen egoten ziren beti)

lengo aldien, lengo aldiñ: lehenengo aldian

"Ni lengo aldien o nitzen ferien ta, ba, semet ganadu ongo siren? ogei bei, eta dosena bat txal ta, baya len ganadu asko ote san (K.)" - (Ni lehenengo aldian egon nintzen azokan eta, ba, zenbat ganadu egongo ziren? hogeitahi, eta dozena bat txahal eta, baina lehen ganadu asko egoten zen)

lengoan: lehengoan

"Telebisiñoan be adi ego nas lengoan (M.)" - (Telebistan ere adi egon naiz lehengoan)

nosgure: noizgura

nosipeñen, nosepiñian: noizean behin

"Nosipeñen yango san (A.)" - (Noizean behin jango zen)

oiñ: orain

"Tranpa gidxau lenau egote san oin baño oiñ oboto kontroleta dau (L.)" - (Tranpa gehiago lehenago egoten zen orain baino orain hobeto kontrolatuta dago)

ondiño, oño: ondino

"Alau kopak, an dekodas nik ondiño orrek kopak (T.)" - (Halako kopak, han dauzkat nik oraindik kopa horiek)

ondiñokarren, oñikarren, oñokarren, oñiarren: ondinokarren

"Ama oyan oñikarren, ba, ume batiretuten eroten sanean (K.)" - (Ama ohean oraindikokarren, ba, umea bataiatzen eroaten zenean)

oraintzu: oraintsu

"Nik, e, oraintzu, ondiño esta denpora asko ganadue kendu dule (M.)" - (Nik, oraintsu, oraindik ez da denbora asko ganadua kendu dugula)

orduen, ordun: orduan

"Ordurik ona esta etorri (Z.)" - (Ordutik hona ez da etorri)

ostabere: berriro, ostera ere

"Bai eta emeti dekosu seuk pasetako beste ta barrien dekosu egurre ostabere ta ganadue esin sartu da esteko lekurik (Ll.)" - (Bai eta hemendik daukazu zeuk pasatzeko beste eta berriro daukazu egurra ostera ere eta ganadua ezin sartu da ez dauka lekurik)

ostean, osten: ostean

"Bai mesa ostean ta jente asko batxen san, a, boloka ta (K.)" - (Bai meza ostean eta jende asko batzen zen, boloka eta)

sarri: sarri

"Gastaya itxen? gastaya sarri ein dot neu pere (M.)" - (Gaztaia egiten? gaztaia sarri egin dut neuk ere)

sarritten, sarritzen: sarritan

"Sarritten ikus doas nik (Z.)" - (Sarritan ikusi ditut nik)

segiduen: segituan

"Oñ estaus eskiñetan, baya, itxi bere estotze ingo, baya len beti oten siren aparkata edo or, e, Bilbora bidean, edo Belakon edo estasiñoan edo, ametik beti oten sien, jitanoak, e, segiduen oten siren len (K.)" - (Orain ez dagoz eskinetan, baina, utzi ere ez diete egingo, baina lehen beti egoten ziren aparkatuta edo hor, Bilbora bidean, edo Belakon edo geltokian edo, hamendik beti egoten ziren, ijitoak, segituan egoten ziren lehen)

sekule: sekula

"Orrek txori andidzek amen, oñ esetuten dusenak sekule estus esetu (G.)" - (Txori handi horiek hamen, orain ezagutzen ditugunak sekula ez ditugu ezagutu)

22.2. LEKUA-KOKAGUNEAK

akabun, akabuen: amaieran, azkenean

"Akabuen belu ibillien bere seme bat euki euen (E.)" - (Azkenean belu ibilian ere seme bat eduki zuen)

alboa: alboa

"Geu, e, alboatatik pasakeran, ta dxo barik, sera, apur bet laburrau (M.)" - (Geu, alboatatik pasakeran, eta jo barik, zera, apur bat laburrago)

aldea: aldea

"Itxoso aldea dauenean tapata ba euri, lañoa taus edo (K.)" - (Itsaso aldea dagoenean estalita ba euria, lainoak dagoz edo)

alderdie, aldarrie, alderrie: alderdia, aldea

"Emetik kanpoko alderritxi au gastetan bada, olan eitxen deu adarrak, barrure (M.)" - (Hemendik kanpoko alderditik hau gastatzen bada, holan egiten du adarrak barrura)

"Are pere Trobika direlakot, ta beste alderdien, a gustie Trobika da, Trobika

da a bere, oidalau sallea da, e? (T.)" - (Haiek ere Trobika direlakoa dut, eta beste alderdian, hura guztia Trobika da, Trobika da hura ere, ohidalako saila da, e?)

aparte: banan

asao, asau: urrun, asago

"Len guri Mungi asau eritxitte soksun, e? aunke oñes ibilli, asau (A.)" - (Lehen guri Mungia asago erizten zigun, e?)

"Orren asao itxiko siren astoak? (T.)" - (Horren asago utziko ziren astoak?)

aspie: azpia

atzea: atzea

"Oin soas aiñ atzen (E.)" - (Orain zoaz haren atzean)

"Kasureko aunek, e, geureak lenau eseuken euki ori, baya nik lenengo ei nendun, au erosi, eta atzea, barrie (E.)" - (Kasurako haonek, geureak lehenago ez zuen eduki hori, baina nik lehenengo egin nuen, hau erosi, eta atzea, berria)

atzekalderdie: atzeko alderdia

aurrea, eurria: aurrea

"Adabue baya adabue, fraka barrien moduen eurrea, asko, es adabue bakarrik es, adabue barik, eurre barrie dana (M.)" - (Adabua baina adabua, praka berriaren moduan aurrea, asko, ez adabua bakarrik ez, adabua barik, aurre berria dena)

barrena: barrena

barrue: barrua

"Emetik kanpoko alderritxi au gastetan bada, olan eitxen deu adarrak, barrure (M.)" - (Hemendik kanpoko alderditik hau gastatzen bada, holan egiten du adarrak barrura)

bea, bia: behea

"Lasu andi betegas, lasue imiñi emen, bia yoten, eta plegea plegeakas (M.)" - (Begizta ipini hemen, behea jotzen, eta plegea plegeakaz)

bittartea, bitxartea: bitartea

"Allea? beste ba ta, allea da, kodañea olan datorrenean emen dekosun, e, ba egurren edo astan, sartuten dakon, e, a bittartea se a allea bajuegi edo altuegi dekola ba, batzuk, e, garri biortu gure estaudenak ixeten dires, ta a berotu te altzau edo bajatu itten dotzea (E.)" - (Aila? beste bat da, aila da, kodaina holan datorrenean hemen daukazun, ba egurrean edo astan, sartzen zaion, bitarte hura ze aila hura

bajuegi edo altuegi daukala ba, batzuk, garri bihurtu gura ez dutenak izaten dira, eta hura berotu eta altxatu edo bajatu egiten diote)

erdie: erdia

"Ama emekoa, ta aitte bere ba, orkoa, Sabalondokoa, antxe, bueno Sabalondo, erdi erdi antzeko ixen da aitte, ama ixen da nire beti emekoa (Z.)" - (Ama hemengoa, eta aita ere ba, horkoa, Zabalondokoa, hantxe, beno Zabalondo, erdi-erdi antzekoa izan da aita, ama izan da nirea beti hemengoa)

eskutue: ezkutua

gane: gaina

"Arkue, lenau, olagas eitxen da, ta gero arridxeakas, e, bian ganean dauela eitxen dosu bueltan bueltan imiñi txe gero (L.)" - (Arkuia, lehenago, oholagaz egiten da, eta gero harriakaz, behearen gainean dagoela egiten duzu bueltan-bueltan ipini eta gero)

goye: goia

"Are pere bakos untzeak an goyen (E.)" - (Hark ere badauzka iltzeak han goian)

ingerue: ingurua

"Bai terrenoa pai, mendiek edo, terrenoa bai, or Atxurin bere, ori Atxuriko ori erri ingerue, erriena san (K.)" - (Bai lur sailak bai, mendiak edo, lur saila bai, hor Atxurin ere, hori Atxuriko hori herri ingurua, herriarena zen)

kanpoa: kanpoa

"Bayestia deko edo esaten du guk, olan eitxen deuenian, kanpora olan botaten deuenian sera, bayestia deko (M.)" - (Bihurria dauka edo esaten dugu guk, holan egiten duenean, kanpora holan botatzen duenean zera, bihurria dauka)

ondoa: ondoa

paraje: paraje, hurbil

"Bastante dau paraje estasiño (Z.)" - (Nahikoa dago paraje geltokia)

"Gafa barik estot ondo ukusten nik, parajekoa txarto ukuste ot (M.)" - (Betaurreko barik ez dut ondo ikusten nik, parajekoa txarto ikusten dut)

"Armintze parajeau dau emetik (A.)" - (Armintza parajeago dago hemendik)

parea: parea, aurea

parean: parean

partea: aldea

puntea: punta, muturra

22.3. MODU ADITZONDOAK

abiedan, abidxedan: abiadan

ademas: gainera

adi: adi

"Nobera atzian distantzian, dosena bat metro ta, atzera adi pareu te bapes dxoan abire, abire dxoan es, atzera adi pareute beste leku betera (A.)" - (Norbera atzean distantzian, dozena bat metro eta, atzera adi paratu eta bat ere ez joan habiara, habiara joan ez, atzera adi paratuta beste leku batera)

agirien, agiridxen: agerian

"Aik entradan oki euden ba, goye agirien dala ser bat, ure sartxeako moduen (E.)" - (Haiek sarreran eduki zuten ba, goia agirian dela zer bat, ura sartzeko moduan)

airean, aidean: airean

albos: alboz

"Goitti bera edo albos datorrenean, eitte akon (L.)" - (Goitik behera edo alboz datorrenean, egiten zitzaion)

alogerean, alogeren: alogeran

"Alogeren erabilteun, a makiñe alogeren emoteun (Z.)" - (Alogeran erabiltzen zuen, makina hura alogeran ematen zuen)

alrebes: alderantziz

"Orrek olak onetara badekos, emekoak, bestean bestera deko ak, alrebes (E.)" - (Ohol horiek honetara badauzka, hemengoak bestean bestera dauka hark, aldrebes)

amarran, amarren: amarran

amesetan: amesetan

andan: andan

apropos: apropos, nahita

"Masu, masu betzukes, masuk, e, apropos eintte, oin bere badau guren masue, oiñ useu esta itten (Z.)" - (Mazua, mazu batzuekaz, mazuak, apropos eginda, orain ere badago gurean mazua, orain usatu ez da egiten)

artega: artega, urduri

asarre: haserre

askoran: aizkoran

atxurren: aitzurren

atzes: atzez

"Atzes bere dxadxoten da, ba atzes peligr osoa da, itxo i litxike txala (M.)" - (Atzez ere jaiotzen da, ba atzez arriskutsua da, ito egin liteke txahala)

aurre: aurrez

bakarrean: bakarrean

banan: banan

"Guk pentzaten gendun banan, konpletamente gausela Mungitti, ori bai (A.)" - (Guk pentsatzen genuen banan, guztiz gagozela Mungiatik, hori bai)

barauten: barautan

barres: berriz

bearrean, biarrian, biarren, biarrean: beharrean

"Aitte yaten datorrenerako ni bearrean nau ya (Z.)" - (Aita jaten datorrenerako ni beharrean nago ja)

beintzet: behintzat

"Guk esaten geuntzen beintzet (LL.)" - (Guk esaten genion behintzat)

beleuniko, beluniko: belauniko

"Bai beleuniko paretan san jentea, kamiñoan bere igual, a pastan dan lekuen, a, beleuniko paretan san (K.)" - (Bai belauniko paratzen zen jentea, kaminoan ere beharbada, hura pasatzen den lekuan, belauniko paratzen zen)

benetan: benetan

berbas: berbaz

berbetan: berbetan

"Emen erri baterik bestera berbetan bere alde andie oten da (LL.)" - (Hemen herri batetik bestera berbetan ere alde handia egoten da)

beres: berez

"Gero beres dator asikeria topaeskero (M.)" - (Gero berez dator hasikera topatuz gero)

bestela: bestela, ederto

bide bates: bide batez

biñen-biñen: binan-binan

biurrien: bihurrian

buelgara: bueltara

burus: buruz

dana dala: dena dela

dana dalako: dena delakoa

dandarres: dandarrez

dardakadan: dardakadan

"Bein larogei urteraskero ba, batzuk dardakadan gaus (E.)" - (Behin larogei

urterazkero ba, batzuk dardakadan gagoz)

derrepente, derrepentean: bapatean, halako baten

derrigor: derrigor

"Bai uki ber du derrigor (Z.)" - (Bai eduki behar dugu derrigor)

"A derrigor bear deu txalak (M.)" - (Hura derrigor behar du txahalak)

derrigorres: derrigorrez

deskargan: deskargan

drogan: drogan, bihurrikerietan

egas: hegaz

"Gabilloya txikerrao dalako, ta egas doble ariñao korridu (L.)" - (Gabirola txikerragoa delako, eta hagaz birritan arinago korritu)

erara: erara

eras: eraz, eskura

erdera: erdaraz

erdi bana: erdi bana

errentan: errentan

"Artxeuden etze bat, errentan edo (LL.)" - (Hartzen zuten etxe bat, errentan edo)

erresen: mailan

erreskan: ilaran, erreskan

"Orrek beste ixen ba tekea, orrek alan erreskan urtetan deude (T.)" - (Horiek beste izen bat daukate, horiek halan erreskan irteten dute)

errolldan: errolldan

"Andik urten ta, bueno, oin yoan bear du, aurreko etzera, ta, bagoas aurreko etzera ta, errolldan ba atea, yo ta atea iri itteuden (T.)" - (Handik irten eta, beno, orain joan behar dugu, aurreko etxera, eta, bagoaz aurreko etxera eta, errolldan ba atea, jo eta atea ireki egiten zuten)

"Errolldan ori san, errolldan ixen san, orixe, etzerik etze (T.)" - (Errolldan hori zen, errolldan izan zen, horixe, etzerik etxe)

eskapan: eskapan, iheska

"Iñok topeu esteidxen, dxoaten dire basora, euren arrutze iñok kodxu esteidxen, eskapan (A.)" - (Inork topa ez dezan, joaten dira basora, euren arrautza inork har ez dezan, eskapan)

"Bai, etorri baño ariñao asten da olloa eskapan (L.)" - (Bai, etorri baino arinago hasten da oiloa eskapan)

eskean, esken: eskean

"Eskean etorte san Oroskoko bat (Z.)" - (Eskean etortzen zen Orozkoko bat)

eskus: eskuz

"Lenau eskus yote siren arri beten galtzuek (Ll.)" - (Lehenago eskuz jotzen ziren harri baten galtzuak)

etxures: itxuraz

"Aministradoreari ba, bakixu ser pasetan dan? etxures eron gure, esta? ta aputxu bet sabal edo, ondo kargeu, ni bastante ixenas ona gurdie kargetan (E.)" - (Administradoreari ba, badakizu zer pasatzen den? itxuraz eroan gura, ezta? eta apurtxo bat zabal edo, ondo kargatu, ni nahikoa izan naiz ona gurdia kargatzen)

euskera, auskera: euskaraz

"Beran amak beti itte otzo euskera (Z.)" - (Beraren amak beti egiten dio euskaraz)

fatxadaz: fatxadaz, itxuraz, moldez

fijo: ziur

"Ongo dire, bai, fijo ongo direna! (Z.)" - (Egongo dira, bai, ziur egongo direna!)

galapan: galapan, karraderan

"Bera dauen puestue yo, ta a bille dan artean, eskiñetatik nondik diren etorri andik galapan ta ormea koyu (M.)" - (Bera dagoen postua jo, eta hura bila den artean, eskinetatik nondik diren etorri handik galapan eta horma hartu)

ganera: gainera

gedarres: gedarrez, deiez

geldi: geldi

"Ba au postia geldi egon deitzen, andik, e, lurretik ona imintxen da (L.)" - (Ba zutabe hau geldi egon dadin, handik, lurretik hona ipintzen da)

goses: gosez

gusture: gustura

ia, idxe: ea

"Ia nik errotarik esetu estodala, irutamar urte edo geyau (Z.)" - (Ea nik errotarik ezagutu ez dudala, hirurogeita hamar urte edo gehiago)

igol, igual: beharbada

illedan: ilaran

"Marroka, ba orixe, alkar koyiten, marro, parate siren olan, a, illedan, esta? (A.)" - (Marroka, ba horixe, elkar hartzen, marro, paratzen ziren holan, ilaran, ezta?)

jeneralmentian: gehienetan

justo: justu

"Ganadue justo antzian badabill, ganaduek adarra altzeu igual eitxen deu (M.)" - (Ganadua justu antzean badabil, ganaduak adarra altxatu beharbada egiten du)

justo-justoan: justu-justu, oztaz-oztaz

juston: justuan

karraderan: korrika, karraderan

"Karraderan etzera etorte siren (Z.)" - (Karraderan etxera etortzen ziren)

kasan: ehizan

kejas: kexaz

konforme: ados

"Seuok konforme basaria, ill edo bixiko indesiño emon ber tzet (Ll.)" - (Zeuok ados bazarete, hil edo biziko injekzioa eman behar diot)

kontrara: kontrara

kontus: kontuz

"Aittu urdille, karakolak eta kalloakas, kontus, e! (Z.)" - (Aditu urdaila, barraskiloak eta kailoakaz, kontuz, e!)

kurioso: kontuz

kurtzietara, kurtzetara: gurutzetara

lapurretan: lapurretan

larri: larri

lau dardan: lau dardan, dardakadaka

lepoan: lepoan

libre: libre, aske

"Brisken libre dau berba itxea, gusurre seiñ egie (K.)" - (Briskan libre dago berba egitea, gezurra zein egia)

lo: lo

lo gogorrean: lo gogorrean

lotan: lotan

martxan: martxan

megiden: neurrian

memoris: buruz

mesedes: mesedez

musen: musean

narres, narras: narraz

"An ganian imiñi tte narras ekarten saittuen idiekas (Ll.)" - (Han gainean ipini eta narraz ekartzen zituzten idiakaz)

nastean, nasten: nahastean

"Txitxiparra amen beti, anise ta koñaka nastean (K.)" - (Txitxiparra hamen beti, anisa eta koinaka nahastean)

negarres: negarrez

nekes: nekez

normalean: normalean

normalmentean, normalmenten: normalean

"Orrek beti, len egote siren beti, negu neguen, a, txabolatara edo bajetan seittuesan serean, baya normalmenten beti kanpoan (Z.)" - (Horiek beti, lehen egoten ziren beti, negu-neguan, txaboletara edo bajatzen zituzten zerean, baina normalean beti kanpoan)

oñes: oinez

"Oinbidea nopera oñes ibilttekoa (Ll.)" - (Oinbidea norbera oinez ibiltzekoa)

onean: onean

osoan: osoan

ostatuen: ostatuan

peskan: arrantzan

prest: prest

"Aspigarrie prest euki ber ixetauen (Ll.)" - (Azipigarria prest eduki behar izaten zuen)

prisas: presaz

puntez: puntaz

"Girtenak puntas dekus, nik sarri eukitten dodas (Z.)" - (Kirtanak puntaz dauzkagu, nik sarri edukitzen ditut)

sabalean, sabalian: zabalean

"Klaro tripe ganian barasaria dau, bai, ta a imintxe san gero soloan sabalian, e, barasaria, siketako (A.)" - (Jakina tripa gainean bare-sarea dago, bai, eta hura ipintzen zen gero soroan zabalean, bare-sarea, sikatzeko)

sallen: sailean

segiduen: segituan

segun: segun

seguru: 1. ziur. 2. antza denez

sendoan: sendoan

sikeran: sikeran

"Txarrianean sikeran, gibelean, a, koyu te a kendu te bota itten da (Z.)" - (Txerriarenean behintzat, gibelean, hartu eta hura kendu eta bota egiten da)

"Arek beti etorte sien sikeran plasara ardiekas, sanjoseatan ta (T.)" - (Haiek beti etortzen ziren behintzat plazara ardiakaz, san joseetan eta)

sobran: sobran

soltean, soltuen: solte

"Amen sartutea les, e, baterik bestera ta, ba a soltean egon estaitten, ba oneri bueltea emoteko (E.)" - (Hamen sartzea legez, batetik bestera eta, ba hura soltean egon ez dadin, ba honi buelta emateko)

soltu: solte

"Soltu erabilte nittusen, soltu, esta? (Z.)" - (Solte erabiltzen nituen, solte, ezta?)

surrut: zurrut

trabes: trabes

trabesetara: trabesetara

"Trabesetara etxuten dire" - (Trabesetara etzaten dira)

trakill: trankil, lasai

txarrean: txarrean

"Txarrean txarrean bere gurean bastante ondo yagon dires orrek gausok (E.)" - (Txarrean-txarrean ere gurean nahiko ondo jagon dira gauza horiek)

utzean: hutsean

"A txikerra orretarako usetan san utzean, ori karreteru ibiltten sienak basoatan useta eudian, ain barik es (Ll.)" - (Txiker hura horretarako usatzen zen hutsean, hori karretero ibiltzen zirenek basoetan usatzen zuten, hain barik ez)

yantzan, dxantzan: dantzan

"Karroa, adornate seurean eta gero, yote siren, ba emeti Mungiraño, yantzan (A.)" - (Karroa, apaintzen zuten eta gero, joaten ziren, ba hemendik Mungiaraino, dantzan)

yorran, dxorran: jorran

"Eta yoan giñen, e, yorran, ta atzalde baten etor san, usaban seme bat (E.)" - (Eta joan ginen, jorran, eta arratsalde baten etorri zen, uzabaren seme bat)

22.4. MAILA ADITZONDOAK

aiñ: hain

"Ori esta aiñ argala (Z.)" - (Hori ez da hain argala)

ainbet: hainbat

"Gastañe ainbe tekot nik (Z.)" - (Gaztaina hainbat daukat nik)

"Ainbe taus berton bere (Bi.)" - (Hainbat dagoz berton ere)

apur bet: apur bat

"Ori apur bet lodie da (Z.)" - (Hori apur bat lodia da)

aputxu bet: apurtxo bat

bastante: nahikoa

"Nerbioana da ori, nerbioana da se, amen atzean, ba, para san bastante txarto, esta? (Z.)" - (Nerbioana da hori, nerbioana da

ze, hamen atzean, ba, paratu zen nahikoa txarto, ezta?)

begi: apur bat

"Ori de kasureko labreta osu, ta lurrek urteotzu umedo, umedo begire edo (Ll.)" - (Hori da kasurako lantzen duzu, eta lurrak irteten dizu heze, heze begira)

gustis: guztiz

"Ixena beuken baya ni orduen gustis txikerra ixen nitzen (Ll.)" - (Izena bazeukan baina ni orduan guztiz txikerra izan nintzen)

konpleto: guztiz

"Gero garie eraitteri konpleto itxi yakon (Z.)" - (Gero garia ereiteari guztiz utzi zitzaion)

lar: lar

"Okela lar yan daurea (Z.)" - (Okela lar jan dute)

"Baya oin daus sagarrak, ba lar serratuegi (Z.)" - (Baina orain dagoz sagarrak, ba lar itxiegi)

neiko, naiko: nahiko

"Ori neiko andie da (Z.)" - (Hori nahiko handia da)

"Kilo ba sagarregas estau naiko (Z.)" - (Kilo bat sagarraz ez dago nahikoa)

ondo: ondo, nahikoa

"Laukarisen bere bai, ondo politto, asi Laukarisen eta Mungiraño yote siren (A.)" - (Laukarizen ere bai, ondo polito, hasi Laukarizen eta Mungiaraino joaten ziren)

orren: horren

"Ni enas orren lodie (Z.)" - (Ni ez naiz horren lodia)

sano: sano

"Sano altue da (Z.)" - (Sano altua da)

"Sano gastea da (Z.)" - (Sano gaztea da)

"Eskolara gitxi yon dala esate saun, sano gitxi (Bi.)" - (Eskolara gutxi joan dela esaten zuen, sano gutxi)

seatz, sietz: zehatz, guztiz

total: guztiz

"Ta egon sales total txarto, ba esan geuntzen, emoixu (Ll.)" - (Eta egon zenez guztiz txarto, ba esan genion, emaiozu)

23.5. ZENBATEKOAK

ainbeste: hainbeste

"Ainbeste diru deko setan gasta bere estaki (Z.)" - (Hainbeste diru dauka zertan gastatu ere ez daki)

ainbet: hainbat

"Ainbet on dire ulegorriek, eta sano gorriek, e! (K.)" - (Hainbat egon dira ilegorriak, eta sano gorriak, e!)

amaka: hamaika

"Atxiñeko sarrak amakatxu bet kontu kontate sauden atxiñekok (A.)" - (Antzinako zaharrek hamaikatxo bat kontu kontatzen zuten antzinakoek)

"Bost ogerleko emoten badittus, bost ogerleko bere, antxe etxuren, a, saltzeko bear dire, estau besterik, amaka idi sarrari kendu tzet nik, e, adarra (Z.)" - (Bost ogerleko ematen baditu, bost ogerleko ere, hantxe itxuran, saltzeko behar dira, ez dago besterik, hamaika idi zaharri kendu diet nik, adarra)

apur bet: apur bat

"Bedar apur bet emoyosue beyeri (Z.)" - (Belar apur bat emaiozu behiari)

"Gu asi giñenean, e, itxe san danatariko apur bet, esta? (K.)" - (Gu hasi ginenean, egiten zen denetariko apur bat, ezta?)

apurtxu bet: apurtxo bat

arean, aren: arean, zertxobait, apur bat

"Alfafa eraiñ eta urte bi edo iru barru, eskapau, aren barik lotu (Z.)" - (Alfafa erein eta urte bi edo hiru barru, eskapatu, arean barik lotu)

"Larraurin ixen leitte igual, arean arean diferentzi egotea Larraurin (T.)" - (Larraurin izan liteke beharbada, arean-arean desberdintasun egotea Larraurin)

asko: asko

"Su leku askotan egon sara (Z.)" - (Zu leku askotan egon zara)

"Ori ameriketan eon da urte askotan (Z.)" - (Hori Ameriketako egon da urte askotan)

"Ori asko bere fasillaoa da (Z.)" - (Hori asko ere errazagoa da)

"Ori de asko gatxaoa (Z.)" - (Hori da asko gaitzagoa)

"Guk galtzue asko ekar du (M.)" - (Guk galtzua asko ekarri dugu)

banaka bat: banaka bat

bastante: nahiko

batzuk: batzuk

"Atxurikoak ya beste atzuk ixen siren, ayek atxurittarrak ixen sien (E.)" - (Atxurikoak ja beste batzuk izan ziren, haiek atxurittarrak izan ziren)

dana: dena

"Danen, danen pasaten da erasten erasten (Z.)" - (Denean, denean pasatzen da eraisten-eraisten)

eskandalue: asko

"Orrek ixen eskandalue dekea! enei! (T.)" - (Horiek izen asko daukate! enei!)

franko: franko

"Berakas sopa, berakatzagas, ogi sikue, ogiñ asalagas, e, berakas sopea berakatz franko, e? askogas (La.)" - (Berakatz-zopa, berakatzagas, ogi sikua, ogiaren azalagaz, berakatz-zopa berakatz franko, e? askogaz)

garittekoak: garaitekoak, gainontzekoak

geyau, gedxau, gïao, gïau: gehiago

"Asko bere gïao ekarri daurea (Z.)" - (Asko ere gehiago ekarri dute)

"Ni paño geyau ekar dosu (Z.)" - (Nik baino gehiago ekarri duzu)

geyena, gedxena: gehienak

"Gero bedarra erosi in bear euden, ta geyenak kobre itteuden (T.)" - (Gero belarra erosi egin behar zuten, eta gehienek kobratu egiten zuten)

gitxi: gutxi

"Ori leku gitxitten ikuskosu (Z.)" - (Hori leku gutxitan ikusiko duzu)

gitxiao, gitxïau: gutxiago

"Asko bere gitxiao erosi daurea (Z.)" - (Asko ere gutxiago erosi dute)

gitxi asko: gutxi-asko

"Bai gitxi asko ementxe askena itten esetu dot (Ll.)" - (Bai gutxi-asko hementxe azkena egiten ezagutu dut)

gitxieneti: gutxienik

gusti, dusti: guzti

"Urte dustitten egoten dires, egun betzuk, edo txar txarrak edo on onak (Bi.)" - (Urte guztietan egoten dira, egun batzuk, edo txar-txarrak edo on-onak)

ingerue, ingirue: inguru

"Amar ingeru etor dire (Z.)" - (Hamar inguru etorri dira)

"Afaritten yoango gara amabost ingeru (Z.)" - (Afaltzen joango gara hamabost inguru)

konpleto: osotoro

lar: lar

"Okela lar yan daurea (Z.)" - (Okela lar jan dute)

"Eroan deittue piper lar (Z.)" - (Eroan dituzte piper lar)

larregi, larrei: larregi, lar

"Bai, baya iri tte ixi bere bai, ixi bere bai errotakoa ixi, errotarakoa asko etorri estitten, larregi etorri estitten, ixi a, eta bestea, leku beteko sabaldu bere bai (Z.)" - (Bai, baina ireki eta itxi ere bai, itxi ere bai errotakoa itxi, errotarakoa asko etor ez dadin, larregi etor ez dadin, itxi hura, eta bestea, leku batekoa zabaldu ere bai)

makiñe bat: makina bat

"Ein ber da, sagarra txikittu, makiñe bat eoten san (Ll)" - (Egin behar da, sagarra txikitu, makina bat egoten zen)

naye, nadxe: nahia, zenbatgura, asko

"Ta sagarra, ta naye intte etzera etorten sienean babea, artaburue, eta orretarikoa, es olan ogie ta, oiñ emoten daken modun ogie edo (Z.)" - (Eta sagarra, eta nahia eginda etxera etortzen zirenean baba, artaburua, eta horietarikoa, ez holan ogia eta, orain ematen zaien moduan ogia edo)

"An ein gendun txakoliñe ta gastañe naye yan (T.)" - (Han egin genuen txakolina eta gaztaina nahia jan)

neiko, naiko: nahikoa

"Amen neiko ardirik dau (Z.)" - (Hamen nahiko ardirik dago)

"Ekar deittue naiko kinpulerik (Z.)" - (Ekarri dituzte nahiko kinpularik)

oidales: ohidalez, asko, ugari, nahikoa

"Emen eitteittus erremesak, e, baya, bai oidales yoten deu ya, e? (T.)" - (Hemen egiten ditu erremesak, baina, bai ohidalez jotzen du honezkero, e?)

"Ta bestea bere oidales esan dotelakoa dekot (M.)" - (Eta bestea ere ohidalez esan dudalakoa daukat)

onenbeste: honenbeste

"Anegako onenbeste baya, amabi libre edo (Z.)" - (Anegako honenbeste baina, hamabi libra edo)

orrenbeste: horrenbeste

"Nik estekot orrenbeste diru (Z.)" - (Nik ez daukat horrenbeste diru)

"Suk estekosu orrenbeste urte (Z.)" - (Zuk ez daukazu horrenbeste urte)

"Dxoan ei nas baya, es orrenbeste (Em.)" -

(Joan egin naiz baina, ez horrenbeste)

pillo bat: pilo bat

"Bai, leku lisuune bat eitxen dosu, ta ota pillo andi bet imintxen da (L.)" - (Bai, leku lisuune bat egiten duzu, eta ote pilo handi bat ipintzen da)

pititxue: pititxoa, apurtxoa

semekure, senbegure: zenbagura

"Baya emen goyen semekure dau are arri tte (Z.)" - (Baina hemen goian zenbagura dago hare-harria eta)

ugeri: ugarria

23. ADITZAK

Atal honetan aditz partizipio bakunak eta konposatuak aurkeztu eta ostean, partizipio eta aditz izenen erabileraz jardungo dugu, horretarako partizipio soilen erabilera, partizipioei eransten zaizkienak eta aditz izenen erabileren gainerako adibideak emango ditugu.

23.1. ADITZ BAKUNAK

abantau, abanteu, abanta: 1. eutsi. 2. iraun

"Latea da, tallea, abanta deiñ, orme, edo semento imintten dan moduen (Z.)" - (Lata da, teila, eutsi dezan, horma, edo porlana ipintzen den moduan)

abarotu: abarotu, basoa itxi, lohitu

aberastu: aberastu

aberittu: aberiatu, matxuratu

abisau, abiseu, abisa: abisatu

"Ango usabak abiseu oskun besperan dxoateko (L.)" - (Hango uzabak abisatu zigun bezperan joateko)

abixerittu: arraultzak usteldu, abizaritu

"Arrotzak, beluen, denpora asko tardaten dosunen batxen eitten dire abixerittu (Bi.)" - (Arrautzak, belu, denbora handia tardatzen duzunean batzen egiten dira abizaritu)

aboneu: ordaindu

abrosidu: abrozidu, gogaitu, aspertu

"Bera abrosidu eitten deuela, yoan siren eta nobiek urteuen ba (T.)" - (Bera

abrozidu egiten duela, joan ziren eta andregaiak irten zuen ba)

adabatu: adabatu, adabakitu

adisketu: adiskidetu

adittu, aittu, aditxu, aitsu: aditu, begiratu

"Aittu billur itzela aukitte gendun, a, entzuneskero, ogigastaya emen ikusi de (A.)" - (Aditu bildur itzela edukitzen genuen, entzunez gero, ogigaztaia hemen ikusi da)

"Alkarrerri aittu dotzea (Z.)" - (Elkarri aditu diote)

"Aittu a selan dabillen bueltaka (Ll.)" - (Aditu hura zelan dabilen bueltaka)

afotu: afotu

agarrau, agarreu, agarra: oratu

"Eurreko ankakas agarreu batek edo bik eta atzekoakas beste batzuk, eta ra! an imiñi eta besteak kutxilloa sartu (A.)" - (Aurreko hankakaz oratu batek edo bik eta atzekoakaz beste batzuek, eta ra! han ipini eta besteak kutxilloa sartu)

agertu: agertu

"Agertuko san lenau igual, gu ibil garenatan esta agertu (L.)" - (Agertuko zen lehenago beharbada, gu ibili garenatan ez da agertu)

agindu, aginyu: 1. bidali. 2. agindu. 3. opetsi, eskeini, agindu

"Beste jenero askoas emen agintten da baya orreas esta agintten (Z.)" - (Beste gauza askogaz hemen agintzen da baina horregaz ez da agintzen)

"Au te au aginyu geuntzen (E.)" - (Hau eta hau agindu genion)

"Orduen esa neutzen pageu in ber tzut, a, aginyuko sorra (E.)" - (Orduan esan nion ordaindu behar dizut, aginduko zorra)

agortu: agortu

aguantau, aguanteu, aguanta: 1. iraun 2. eutsi

"Illebete erdi ingeru edo olan aguanteuen ak (A.)" - (Hilabete erdi inguru edo holan irauten zuen hark)

airetu, airatu: aireatu

aittetu, aitxetu: aiatu, aipatu

ajustau, ajusta: ajustatu

"Andik gorakoa doa an ajusteta (E.)" - (Handik gorakoa doa han ajustatuta)

akabau, akabeu, akaba: akabatu, amaitu

"Alan edo olan akaba iñ ber da (Z.)" - (Halan edo holan amaitu egin behar da)

akanpa: akanpatu
aklara, aklaratu: aklaratu, xaboia kendu
"Neguen erropea aklare ta itteko beste barriozako, ba etorte san (Z.)" - (Neguan arropa aklaratu eta egiteko beste auzoentzat, ba etortzen zen)
akordau, akorda, akordeu: gogoratu, gomutatu
"Akorda nas erosteagas (Z.)" - (Gomutatu naiz erosteagaz)
akostunbreu, akostunbra: usatu, ekandu, ohitu
"Geuk estules iños akostunbreu (Z.)" - (Geuk ez dugunez inoiz usatu)
alargundu: alargundu
alboratu: alboratu
aldeanutu: baserritartu
aldendu: aldendu, galdu, desagertu
alegindu, aleginyu: ahalegindu, saiatu
alegratu, alegrau: alaitu
alkartu: elkartu
alkileu, alkila: alokatu
allegau, allega, allegeu: heldu, ailegatu
"Alan edo olan gorarte allegako dire (Z.)" - (Halan edo holan goraino ailegatuko dira)
"Bai, bai, ta junta gintzen Mungire allega baño lelau, ortxe, estaitt or, non ixen san ba? baya paraje, emeti paraje (La.)" - (Bai, bai, eta elkartu ginen Mungiarra ailegatu baino lehenago, hortxe, ez dakit hor, non izan zen ba? baina paraje, hemendik paraje)
alpertu: alpertu
altzau, altza, altzeu: altxatu
"Kamarako sillo bat eote san, kamaran, ta andi etxa katia bera, a engantxeu ondo eiñ, ta gora altzeu, ta siketu artean an, orduetan (A.)" - (Kamarako zulo bat egoten zen, kamaran, eta handik bota katea behera, hura engantxatu ondo egin, eta gora altxatu, eta sikatu arte han, orduetan)
"Al danik ariñen altzetia deu ona bedxek (M.)" - (Ahal denik arinen altxatzea du ona behiak)
altziketu: altzikatu, gaztainei ebaki bat egitea erretzeko
"Altziketu gastañek eitten dire (Z.)" - (Altzikatu gaztainak egiten dira)
amaittu, amaitxu: amaitu

"Lau bost metro eurrerau, atzeko ormia baño, amaittuten da, ori gallurrori (Ll.)" - (Lau bost metro aurrerago, atzeko horma baino, amaitzen da, gailur hori)
amarrau, amarra, amarreu: lotu
"Txakurrek amarreta daus (Z.)" - (Txakurrak amarratuta dagoz)
amasau, amaseu, amasa: amasatu, orea egin
amatau, amata, amateu: amatatu
"Mistoa amata artean egoten san (K)" - (Mistoa amatatu artean egoten zen)
amenaseu, amenasa: zemaitu, mehatxatu
amostu: amoztu
amurrutu, amorrotu: amorratu
"Ori esetu te billurre bere bai antza, gurean aman aitte, nire aittitte, dau yoanta, amak esan deu beti, txakurrek aginke, txakurkumetxuek ein tte txakurre ill, eta, serera, ba yoaneskeron Salbatierrara, Bitturitik Salbatierrara non dauen, oñes yoanta etorri ein tte, esakon eser paseu, baya ara buelte ei euden atoan, Salbatierrara oñes yoan, ta oñes etorri, ori amurrutu esteitten bera (T.)" - (Hori ezagutu eta bildurra ere bai antza, gurean amaren aita, nire aitaita, dago joanda, amak esan du beti, txakurrak haginka, txakurkumetxoak egin eta txakurra hil, eta, zerera, ba joanez gero Agurainera, Gasteizetik Agurainera non dagoen, oinez joanda etorri egin eta, ez zitzaion ezer pasatu, baina hara buelta egin zuten atoan, Agurainera oinez joan, eta oinez etorri, hori amorra ez dadin bera)
andittu, anditxu: handitu
"Aginke iñeskero ba anditxu edo itxen san (A.)" - (Haginka eginez gero ba handitu edo egiten zen)
andratu: andretu
antojeu, antoja: antojatu, nazkatu
antzutu: antzutu
"Artian txalak eitxen ibillitxe, ta antzutu (M.)" - (Artean txahalak egiten ibilita, eta antzutu)
"Antzutute dauenak eiñ eitxen deu umia, matxorriak esteu umerik eitxen, antzutu eitxen da, igual umea in txe gero, ba geldi geldi, geldi geldi esnia gitxitxuten gitxitxuten dxoan denporeagas ta, antzutu areri esaten dako (L.)" - (Antzututa dagoenak egin egiten du umea, matxorrak ez du umerik egiten, antzutu egiten da,

beharbada umea egin eta gero, ba geldi-geldi-geldi esnea gutxitzen-gutxitzen joan denboragaz eta, antzutu hari esaten zaio)

anula: anulatu

apareu, apara: aparatu

aparkau: aparkatu

apartau, aparteu, aparta: 1 apartatu. 2 bizi alargundu, dibortziatu

"Ba apartaute, bixiri tauela gizona alargundute, se ostantzean alargune da (E.)" - (Ba bananduta, bizirik dagoela gizona alargunduta, ze osterantzean alarguna da)

aplasta: zapartu

"Batzuk masalak eukitxen txue, aplasteko moduen (A.)" - (Btzuk mazalak edukitzen dituzte, zapartuko moduan)

apresia: apreziatu, preziatu

aprobau, aprobeu, aproba: aprobatu, aproba egin

aprobetxau, aprobetxeu, aprobetxa: baliatu, aprobetxatu

"Estekot memorien guk beti bota du ori, txalak gure espadeu bota, geuk estu iños aprobetxeu (M.)" - (Ez daukat gogoan guk beti bota dugu hori, txahalak gura ez badu bota, geuk ez dugu inoiz aprobetxatu)

apuntau, apunteu, apunta: apuntatu

"Ta tiretu eutzen, a, erbiri, berak apunta eutzela baya, suertea euki berak (Z.)" - (Eta tiratu zion, erbiari, berak apuntatu ziola baina, zortea eduki berak)

apurtu: apurtu

"Bai ba pasadorak, ba sulotxuek sulotxue tekos, ta sakatuskero, ba urek urten eitxen deu, te sakatu apur bet eiñ ein bear dako se ostantzean, bueltia emokeran, ba apurtu ingo litxeke (M.)" - (Bai ba iraztontziak, ba zulotxoak-zulotxoak dauzka, eta sakatuz gero, ba urak irten egiten du, eta sakatu apur bat egin egin behar zaio ze osterantzean, buelta emakeran, ba apurtu egingo litzateke)

arduretu: arduratu

areatu, ariatu: areatu

arena: hareatu

argaldu: argaldu

argittu, argitxu: argitu

arindu, arinyu: arindu

armau: armatu

arminyu, arbinyu, arbindu: arbindu

arrakalatu: arrakalatu

arrankau, arrankeu, arranka: 1. arrankatu, martxan paratu. 2. erauzi

arrapeu: harrapatu

arrarotu: arrarotu

arraseu: suntsitu

arraskau, arraskeu, arraska: 1. hazka egin. 2. karrankatu

"Arraska edo itxen badeu, segun nondik gastaten deuen, kanpotik eitxen badeu barrure itxen dako, barrutik eitxen badeu kanpora barres (M.)" - (Karrankatu edo egiten badu, segun nondik gastatzen duen, kanpotik egiten badu barrura egiten zaio, barrutik egiten badu kanpora berriz)

arrastau: narraztu

arreglau, arregleu, arregla: konpondu

"Esiren arregletan barrioak barrioakas (M.)" - (Ez ziren konpontzen auzotegiak auzotegiakaz)

"Ori gastetan ein bear da, arregleu, diresiñoa emoteko gaste ta, eitxeotze ori (L.)" - (Hori gaztetan egin behar da, konpondu, norabidea emateko gastatu eta, egiten diote hori)

arrimau, arrimeu, arrima: parajetu, hurbildu

arrittu, arritxu: harrikatu

arroto: harrotu

artega: artegatu

artesa, arteseu, artesa: zuzendu, konpondu

artestu: arteztu, zuzendu

"Oñ enei ondo artestu (At.)" - (Orain ez nezake ondo arteztu)

artu: hartu

artzatu: artza erabilia eralgi

asarratu: haserretu

"Emen eskolia itxen asi in siren ta asarratu te bertan itxi, siminyuek atarata (Em.)" - (Hemen eskola egiten hasi egin ziren eta haserretu eta bertan utzi, oinarriak aterata)

"Estot asarratu gure (E.)" - (Ez dut haserretu gura)

"Baya bestea be esan yoan gero giau, asarratu in siren (T.)" - (Baina bestea ere ez zen joan gero gehiago, haserretu egin ziren)

asaskeu: asaskatu

asegura: aseguratu

asertau, aserteu, aserta: asmatu, aparatu
asetu: 1 ase. 2. ase arte busti
asfalta: asfaltatu
asi: 1. hasi. 2. hazi
"Yaten asi dire (Z.)" - (Jaten hasi dira)
"Gu gaste ixen gintzesenean, asikoa da ori (A.)" - (Gu gazte izan ginenean, hasikoa da hori)
"Nik estaitt setatik asiko san ori (A.)" - (Nik ez dakit zertatik hasiko zen hori)
"Atxiñe esnegas, umeak, geyenak aste siren (A.)" - (Antzina esneagaz, umeak, gehienak hazten ziren)
"Nik estakides lelengoti asitte (E.)" - (Nik ez dakizkit lehenengotik hasita)
asittu, asitxu: hazitu, haziz bete
askatu: askatu
askoratu: aizkoratu
asma, asmeu: sentitu, asmatu
"Unekadatan selau atza datorren, sera dau or, estosu asmetan? (Z.)" - (Unekadetan zelako hatsa datorren, zera dago, hor, ez duzu asmatzen?)
astilletu: arrakalatu
astraka: aztrakatu, azterkatu
astu: ahaztu
"Atea istea astu dast (Z.)" - (Atea ixtea ahaztu zait)
"Gero segidu esean astu itten dire onek (L.)" - (Gero segitu ezean ahaztu egiten dira hauek)
atakeu, atakau, ataka: eraso
"Sapaldueskeron bai, noberak, ataketan dotzo sugoyak noberari (A.)" - (Zapalduz gero bai, norberak, erasotzen dio sugeak norberari)
atara: atera
"Atara in berko seudean (A.)" - (Atera egin beharko zuten)
atendidu: atenditu
atertu: atertu
atondu: atondu
atrebidu: ausartu
"Atrebidu in ye koyuten (Z.)" - (Ausartu egin da hartzen)
atxurto: atxurto
"Bestegas ba, eratzi dosu, ba bedarrak ebai bittartekoak, a, atxurreas ebai tte itxi eta yorratu dosu, ba atxurregas, lurregas betetu, atxurtuen ganera, landarak (E.)" - (Besteagaz ba eratzi duzu, ba belarrak ebaki bitartekoak,

aitzurragaz ebaki eta utzi eta jorratu duzu, ba aitzurragaz, lurragaz bete, aitzurtuaren gainera, landareak)

atzeratu: atzeratu

auki, euki, oki: eduki

"Irek ebaitxe imintxe euki, prest, a bian imiñi itxunte, ta sue emon (A.)" - (Irak ebakita ipinita eduki, prest, hura behean, ipini etzanda, eta sua eman)

aumenteu: gehitu

aurreratu, eurreratu: aurreratu

ausi: hautsi

austu: haustu

autzi, eutzi: eutsi

axaldu: azaldu

"Beran, e, erea deko jeneroak makiñetan edo olan ibillieskeriño, sakonegi badoa ba axaldu ori beste asuntu be ta (E.)" - (Beraren, era dauka jeneroak makinatzen edo holan ibiliz gero, sakonegi badoa ba azaldu hori beste gora-behera bat da)

ayotu: galtzairatu

bajatu, bajetu, bajau, baja: jaitsi, bajatu

balorau, baloreu, balora: baloratu

baltzittu, baltzixu: belztu, baltzitu

banandu: banandu

bañeu, baña: bainu hartu

barausi: barautsi, barau hautsi

bardindu, bardinyu: berdindu

baretu: baretu

barristeu, barrista: berriztatu

barristu: berriztatu

barruntau, barrunteu, barrunta: barruntatu, sentitu

"Lengoa pere seuser barruntetauden (G.)" - (Lehengoek ere zer edo zer barruntatzen zuten)

batiretu, bateatu: bataiatu

"Len edoselan bere, ba umeak, e, yayo ta laster batiretuten siren (K.)" - (Lehen edozelan ere, ba umeak, jaiio eta laster bataiatzen ziren)

"Ama oyan oñikarren, ba, ume batiretuten eroten sanean (K.)" - (Ama ohean oraindikarren, ba, umea bataiatzen eroaten zenean)

batu: batu

bautiseu, bautisa: bataiatu

begisteu: begiztatu

bellegittu, bellegitxu: beilegitu, horitu

"Gibelekoagas bellegitxute oten siren (At.)" - (Gibelekoagaz beilegituta egoten ziren)

belunikotu: belaunikatu

benda: bendatu

bengeu: mendekatu

beratu: beratu

berinyeu: askari jan

"Piper prijiduek artu, ta ardaua koyu eskotekoa ta berinyetan Laukiser, t'orrek fama andie euki euen, musike ta gusti egote san or (E.)" - (Piper frijituak hartu, eta ardaua hartu eskotakoa eta askari jaten Laukarizera, eta horrek ospe handia eduki zuen, musika eta guzti egoten zen hor)

berdetu, berdatu: berdetu, haserretu

bereinketu, bedeinketu: bedeinkatu

"Danak batera, bereinketu itxen seitxusen (M.)" - (Denak batera, bedeinkatu egiten zituen)

berotu: berotu

bertakotu: bertakotu

bertokotu: bertokotu

beskaldu: bazkaldu

betatu, betetu: bete

"Gurdie yoateko lekue ba, igual orren altoran soloak eta emetik gurdie, ta gero ureas betetute san au eta ganaduek uretan, uretatik (E.)" - (Gurdia joateko lekua ba, beharbada horren altueran soroak eta hemendik gurdia, eta gero uragaz betetzen zen hau eta ganaduak uretan, uretatik)

bigundu: bigundu

bijila, bijileu: zelatatu

bildurtu, bilyurtu, billurtu: bildurtu

billetu: bilatu

biortu, biurtu, bidxortu: bihurtu

biribilyu: biribildu

birrindu: birrindu

bisiteu, bisita: bisitatu

biskortu: bizkortu

bistu: biztu

"Baya egoten sanean gaixo bat edo bateran bat etzian ta abadia etorte sanian, kandelatxue bistu eta urtetan gendun, a, kamiñora, amen kamiñora por ejemplo, kamiñora, ta gero kandelatxuekas etorten gintzesan danak, gaixoagana (M.)" - (Baina egoten zenean gaixo bat edo baten bat etxean eta abadea etortzen zenean, kandelatxoa biztu eta irteten genuen, kaminora, hamen kaminora esate

baterako, kaminora, eta gero kandelatxoakaz etortzen ginenean denak, gaixoagana)

biurtu: bihurtu

bixittu: bizitu, biziagotu

bordeu, borda: bordatu

borreu, borrau: buelta hartu

bota: 1. bota. 2. bidali

"Errekara bota deu beran burue (Z.)" - (Errekara bota du beraren burua)

"Beste bat egon san an, tabernea, a gero kamiño egikeran bota eudean (At.)" - (Beste bat egon zen han, taberna, hura gero kaminoa egikeran bota zuten)

brotau, broteu, brota: erne

bueltau, buelteu, buelta: bueltatu, itzuli

"Gatxa, geuse gatxa, se inyarra bear san ta nondik agarreu, ta selan agarreu, te ser dauen ganera, gurdien kargeute, kasureko, sasoya baño berandutxuauan artoa ta inyabea ta kargeute etorri tte buelteu eskeron ak, agarretako modue eukitteuen ta laguntziñoa batxeako, modue giau, ba basora yoaneskeron len ekarten san, oiturea emen on san moduen, otea kargeute, a bueltaterik esegoan ak ein berreun utzittu, barrien kargeu (Ll.)" - (Gaitza, gauza gaitza, ze indarra behar zen eta nondik oratu, eta zelan oratu, eta zer dagoen gainera, gurdian kargatuta, kasurako, sasoa baino berandutxoagoan artoa eta indaba eta kargatuta etorri eta irauliz gero hark, oratzeko modua edukitzen zuen eta laguntza batzeko, modua gehiago, ba basora joanez gero lehen ekartzen zen, ekandua hemen egon zen moduan, otea kargatuta, hura bueltatzerik ez zegoen, hark egin behar zuen hustu, berriro kargatu)

burutu: burutu

"Garie, burutu eitten da, mayetza, or, or ingerun, mayetza pardue, ta bagille klarue, gari ona koitako (Z.)" - (Garia, burutu egiten da, maiatza, hor, hor inguruan, maiatza pardua, eta bagila klarua, gari ona hartzeko)

bustertu: buztartu

busti: busti

"Baya an uregas busti kaderak eta eskilleretati gora ta, esatesan gusteu (E.)" - (Baina han uragaz busti oinak eta

eskaileretatik gora eta, ez zitzaizkidan gustatu)

damutu: damutu

"Damututen dast dana yan esittea (Z.)" - (Damutzen zait dena ez jatea)

dardieu: dardakatu

"Lokatu, de dardieu, bota kanpora batzuk eitxeitxus igual, gitxi, ganekoak edo, baya besteak lokatute isteitxus te gero palankeas aik eitxen dires (L.)" - (Lokatu, da dardakatu, bota kanpora batzuk egiten ditu beharbada, gutxi, gainekoak edo, baina besteak lokatuta uzten ditu eta gero palankagaz haiek egiten dira)

dedikau, dedikeu, dedika: dedikatu

"Ba dedike itte siren batzuk, barriotan bat edo bi, dedike itte siren orretan (A.)" - (Ba dedikatu egiten ziren batzuk, auzotegiren bat edo bi, dedikatu egiten ziren horretan)

"Orretara dediketan danak, e, dxakingo itxus orrek ondo (M.)" - (Horretara dedikatzen denak, jakingo ditu horiek ondo)

defendidu: defendatu

demostreu: erakutsi

dendatu: dendatu

desaparesidu: desagertu

desarmeu: desarmatu, desegin

desegñ, desñ: desegin

deskantzau, deskantza, deskantzeu: deskantsatu

deskargau, deskargu, deskarga: deskargatu

"Odola emoteko, belarrik ebai, belarrik ebai, eta andik odola deskargau eraiñ, eitten san (Z.)" - (Odola emateko, belarriak ebaki, belarriak ebaki, eta handik odola deskargatu eragin, egiten zen)

"Ba gu, dediketan giñen, ba orti estasiñoti, treneti deskargetan, a, kargak panaderire ta, sindikatora ta, ba merkantza ona, matza edo datorrena (K.)" - (Ba gu, dedikatzen ginen, ba hortik geltokitik, trenetik deskargatzen, kargak okindegira eta, sindikatora eta, ba merkaderia ona, mahatsa edo datorrena)

deskuideu, deskideu: deskuidatu

desmonteu: desmontatu

despresia: mezpreziatu

destenpleu, destenpla: tenplea galdu

desterrau: desterratu

detenidu: atxilotu

dibujeu: marraztu

dimitidu: dimititu

dirijidu: bideratu, zuzendu

dirutu: dirutu, aberastu

diskutidu: eztabadatu

"Goxerik gauera, ba, diskutiduko du seuk gurusun teman baya kondesiño bategas, ta segas? ta akabuen, a, asarratu barik apartetakotan (E.)" - (Goizetik gauera, ba, eztabadatuko dugu zeuk gura duzun gaian baina baldintza bategaz, eta zegaz? eta azkenean, haserretu barik banatzekotan)

doblau, dobleu, dobla: tolestu

domiñau, domiñeu, domiña: menperatu

drogau, drogeu, droga: drogatu

dutxa: dutxatu

dureu: iraun

"Kutxilletu ba, eurre barriek, eurre euki ba gasteute, ta atzea barri, eta kutxilletueskero ba, atzean beste ostabere dureta seuen ak (M.)" - (Kutxilatatu ba, aurre berriak, aurrea eduki ba hingatuta, eta atzea berri, eta kutxiletuz gero ba, atzean beste ostera ere irauten zuen hark)

dutxeu: dutxatu

ebai, ebei: ebaki, ebagi

"Serreagas unekada baten ebaten siren (Z.)" - (Zerragaz unekada baten ebakitzen ziren)

edan: edan

"Beste ba tau esne bedarra, ganaduek ori yaten daunen esiñ edan esnerik (Z.)" - (Beste bat dago esne belarra, ganaduak hori jaten duenean ezin edan esnerik)

egarritu: egarritu

egon, eon, on: 1. egon. 2. itxaron

"Basoa suten egon da (Z.)" - (Basoa sutan egon da)

"Akar Landa emeti egon ber deu nonon (A.)" - (Akar Landa hemendik egon behar du non edo non)

"Emen nonon ongo da ayetarikoa (Ll.)" - (Hemen non edo non egongo da haietarikoa)

egosi: egosi

"Egosi, siketute badaus obeto, ta egosi, eta gero ba, axe edan (Ll.)" - (Egosi, sikatuta badagoz hobeto, eta egosi, eta gero ba, huraxe edan)

egostu: egostu, beroa eta izerdiagatik azala erre

eiñ, iñ: egin
"Sure ama pere bauko eintxe or (M.)" - (Zure amak ere badauka eginda hor)

ekarri: ekarri
"Estot eser ekarri (Z.)" - (Ez dut ezer ekarri)
"Onek ogiek ekar dodas (Z.)" - (Ogi hauek ekarri ditut)

ekiñ: ekin

eldu: 1. heldu. 2. pertsona heldu

elejidu: aukeratu, hautatu

emon: 1. eman. 2. itxura eduki, iruditu
"Yaten emon dostea (Z.)" - (Jaten eman didate)
"Onena emoten ba olandesa edo, orrek ixen diren onenak (M.)" - (Onena ematen ba holandarra edo, horiek izan dira onenak)

enbarkau: enbarkatu, ontziratu

enboteu, enbota: enbotatu

endekatu: endekatu, indargetu
"Endekatu, endekatu sikuegas edo, aspittik, a, kotxoak yaten badeu edo olan bai (Z.)" - (Endekatu, endekatu sikuagaz edo, azpitik, kotxoak jaten badu edo holan bai)

endredeu, endreda: endredatu, drogan ibili

engañau, engañeu, engaña: engainatu
"One pere lagune bear dauela ta, a t'ori tte bestea ta, ser da ta, engañeuden ama defuntea ta ona etor siren (E.)" - (Honek ere laguna behar duela eta, hura eta hori eta bestea eta, zer da eta, engainatu zuten ama difuntua eta hona etorri ziren)

engantxau, engantxeu, engantxa: engantxatu

enkajau: enkajatu

enkargeu, enkarga: enkargatu

enpalma: erantsi

enpatau, enpateu, enpata: hainbanatu, parra egin

enpatxeu, enpatxa: enpatxatu

enreda: endredatu

ensayau: entsaiatu

enterau, entereu, entera: enteratu

enterrau, enterreu, enterra: ehortzi
"Nik estoas esetu baya esan eitxeudean elixan enterretan siela orduen (K.)" -

(Nik ez ditut ezagutu baina esan egiten zuten elizan lurpetzen zirela orduan)

entregau, entregeu, entrega: eman

entreneu, entrena: entrenatu

entretenu: entretenitu

entzun: entzun

"Estot ori entzun iños (M.)" - (Ez dut hori entzun inoiz)

epeldu: epeldu

erabili: erabili

eraiñ, ereiñ: 1. erein. 2. eragin. 3. eragin faktitiboa

"Beragas amarreu, eta puntea, puntea imintten yakon beti, ba yoteko, yoteko alderdire puntea ataraten yako, t'a aprobetxatako, garie, garoa aprobetxatako, beran, a, sera ta, orretara itten san, eta gero, ni orti asko ibiltte nitzen, a, Bitturitti tte beti ibiltte nitzen, a, serean ta, ikus neun an ta, useuko bat artu neun gero, e? ordu diru gitxi eoten san, dirue ikusi bere esan eitten ia, iñon, obeto esateko ta, useko bat artu neun, ta ekarritte, jo! a san gero! emen, e, geuse itzela! ta gari ainbet eraitten san emen (Z.)" - (Beragaz amarratu, eta punta, punta ipintzen zitzaion beti, ba jotzeko, jotzeko alderdira punta ateratzen zaio, eta hura aprobetxatzeko, garia, garoa aprobetxatzeko, beraren, zera eta, horretara egiten zen, eta gero, ni hortik asko ibiltzen nintzen, Gasteiztik eta beti ibiltzen nintzen, zerean eta, ikusi nuen han eta, usatuko bat hartu nuen gero, e? orduan diru gutxi egoten zen, dirua ikusi ere ez zen egiten ia, inon, hobeto esateko eta, usatuko bat hartu nuen, eta ekarrita, jo! hura zen gero! hemen, gauza itzela! eta garia hainbat ereiten zen hemen)

erakutzi: erakutsi

eralgi: eralgi

erantzi: 1. erantzi. 2. erantsi

erantzun: erantzun

"Neuk pageko tzut beti gorako itxitten baosu ara gorartean, erdie, biarragas erantzungo tzut gastuas erantzungo tzut, ta bion artean ein yeigun (Ll.)" - (Neuk ordainduko dizut behetik gorako uzten baduzu hara goraino, erdia, beharragaz erantzungo dizut gastuagaz erantzungo dizut, eta bion artean egin dezagun)

erason: eraso, meza ematen lagundu

eratz: 1. eratzi. 2. eraitsi, jaitsi

"Ardiek eratzi itten diren bai, tte beye pere bai (E.)" - (Ardiak eraitsi egiten dira bai, eta behia ere bai)

"Ba nik eratzi, eta onek eratzi, oneri esne gitxiau emote otzea (M.)" - (Ba nik eraitsi, eta honek eraitsi, honi esne gutxiago ematen diote)

erdibittu, erdibitxu: erdibitu

erdu, erduse: erdu, erduze; etortzeko agintera moduan erabiltzen dira

"Peruxe ta Mariñe baya estakides, baya, erdu datorren illean ostabere (M.)" - (Peruxe eta Mariñe baina ez dakizkit, baina erdu datorren hilean osterera ere)

eretxi, eritxi: eritzi, iritzi

"Orreri dana imiñi eutzean, arrietar batek, Juantxu deritxon batek, famelibakoa ixen san (E.)" - (Horiei dena ipini zien, arrietar batek, Juantxu deritzon batek, familiabakoa izan zen)

erne: erne

"Bestea da beres erneta datorrena (Z.)" - (Bestea da berez erneta datorrena)

ernegau, ernega, ernegau: ernegatu

eroan, eron: eroan

"Au ekar dot seuk eroteko (Z.)" - (Hau ekarri dut zeuk eroateko)

"Batzuk, neskato batzuk, euren nobiek eta estaipa neskatoren batzuk eron suttuesan bakarrik, esta? yator dure, ta gero ordun apurtu san, gero, urregoan, a, esaeuden, batzuk eron eta beste batzuk eron es, edo danak eron edo bapes (E.)" - (Batzuk, neskato batzuk, euren andregaiak eta ez dakit ba neskatoren batzuk eroan zituzten bakarrik, ezta, jator dura, eta gero orduan apurtu zen, gero, hurrengoan, esan zuten, batzuk eroan eta beste batzuk eroan ez, edo denak eroan edo bat ere ez)

erosi: erosi

"Au erosi dot umeari emoteko (Z.)" - (Hau erosi dut umeari emateko)

"Erosi an otea, ta saldu gure es otea (E.)" - (Erosi han otea, eta saldu gura ez otea)

erradureu: perratu

"Gure amak esaten deu se erradurea bere bai, astoak amarretako lekue, eta erradorea, erradure in bearko sien

astoa pe ta (T.)" - (Gure amak esaten du ze perra ere bai, astoak amarratzeko lekua, eta errementaria, perratu egin beharko ziren astoak ere eta)

erratu: erratu

"Estaitx erratute banau (G.)" - (Ez dakit erratuta nagoen)

erre: erre

errebaja: errebajatu

erregalau, erregaleu, erregala: erregalatu, opaldu

"Ni yoa nas etzerik etze, buskantzak erregalaten ta bueno ori ixeta san yairik andiña umeantzako (A.)" - (Ni joan naiz etxerik etxe, buzkantzak erregalatzek eta beno hori izaten zen jairik handiena umeentzat)

erregatea: erregateatu

erregau, erregeu, errega: ureztatu, ura egin

"Kinpulea ideagas tapeta, ta gero erregau ganeti asko obeto ernetan da (E.)" - (Kipula iragaz tapatuta, eta gero ura egin gainetik asko hobeto ernetzen da)

erreklaueu: erreklamatu

errekisteu: errekistatu

errekupereu: errekuperatu

"Sasoyan sartxean baotzesu kaltzioa ensegida errekuperetan da (Ll)" - (Sasoian sartzen badiozu kaltzioa behingoan errekuperatzen da)

erremata: errematan eman

errematxeu, errematxa: errematxatu

errementau, errementeu, errementa: lehertu

errendidu: etsi

errepertidu: banatu, banandu

errepaseu, errepasa: errepasatu

errepertidu: errepikatu

erresau, erreseu, erresa: otoitz egin, erregutu

"Errese bere itxen salako dekot nik, bai erreseu euki dot memoridxen (At.)" - (Erregutu ere egiten zelakoa daukat nik, bai erregutu eduki dut gogoan)

erresibidu: errezibitu, hartu

errespetau, errespeteu, errespeta: errespetatu

errestu: erraztu

erresultau, erresulteu, erresulta: erresultatu

erretirau, erretireu, erretira: erretiratu

erretreiteu: erretreatatu, argazki egin

errikotu: herrikotu

errimau, errimeu, errima, arrimau:
parajetu, gerturatu
"Neuk, es, baya estualdiek paseta badaus, ume txikerrakas dausenean, txarrrikana es errime bere iñ! errime beres (Z.)" - (Neuk, ez, baina estualdiak pasatuta badagoz, ume txikerrakaz dagozenez, txerriakana ez parajetu ere egin! parajetu ere ez)

errisa: kizkurto

esan: 1. esan. 2. tratatu
"Orixe esateko onatzu (G.)" - (Horixe esateko egon natzaizu)

esarri: ezarri, oiloak habian txitak ateratzeko jesartzen denean esaten da

esetu: ezagutu
"An esetu dodas krieda ego nasen lekuen, geuk erabilitxen gendusen (M.)" - (Han ezagutu ditut neskame egon naizen lekuan, geuk erabiltzen genituen)
"Orrek esetu nittun etorten, ta emen bixi direla ta an dabilzela (Ll.)" - (Horiek ezagutu nituen etortzen, eta hemen bizi direla eta han dabilzala)

esistidu: existitu, izan

eskapau, eskapeu, eskapa: ihes egin
"Kridu eskape neuen (E.)" - (Morroi eskapatu nuen)

eskastu: eskastu

eskatu: eskatu

eskei, eskai: eskegi
"Ta gero eskei, kamarati edo etxa katia, ta, imiñi engantxeute, ta, onen alturen edo, eskeitxe euki an siketu artean (A.)" - (Eta gero eskegi, kamaratik edo bota katea, eta ipini engantxatuta, eta, honen altueran edo, eskegita eduki han sikatu arte)

eskondu: ezkondu
"Ak eskondu in gu ixueen, apur bet belutxu, baya eskondu in gu ixueen (E.)" - (Hark ezkondu egin gura izan zuen, apur bat belutxo, baina ezkondu egin gura izan zuen)
"Selan esango yotze pa esan banentzen esoan eskonduko ta (E.)" - (Zelan esango zioat bat esan banioan ez zuan ezkonduko eta)

eskribidu: idatzi

esplikau, esplika, esplikeu: azaldu

"Burriñoa da, oiñ estot esplikeko ondo (T.)" - (Burrinoa da, orain ez dut azalduko ondo)

estaldu: estali, izkutatu

estimau, estimeu, estima: preziatu

estreñau, estraña, estreñeu: estreinatu
"Ondiño bere estraña barik, bi edo iru baus, kamaran estraña barik (E.)" - (Oraindino ere estrenatu barik, bi edo hiru badagoz, kamaran estrenatu barik)

estropesa, estropeseu: estropezatu

estudiaiu, estudia, estudidxeu, estudieu:
estudiatu
"Estudia, asi siren ya nire epokan batzuk ya Mungiñ eitten, eta yote siren esamiñaten Bilbora, baya estudia Mungiñ eitte seuren, berton, monjatan eta (A.)" - (Estudiatu, hasi ziren ja nire sasoiari batzuk ja Mungian egiten, eta joaten ziren aztertzen Bilbora, baina estudiatu Mungian egiten zuten, berton, mojetan eta)

estutu, istutu: estutu

etorri: etorri
"Egunokas enas etorri (Z.)" - (Egunokaz ez naiz etorri)
"Mungidxeke matarifea etorte san (A.)" - (Mungiako matarifea etortzen zen)

etxa: bota
"Soloa labrata dauela, etxa karea, eta gero areakas paseu soloa (Ll.)" - (Soroa landuta dagoela, bota karea, eta gero areakaz pasatu soroa)

etxundu, itxundu, intxun, itxun, etxun:
etzan
"Txarridxe, ba ill, imiñi sutean, edo bian itxunte, ta orduen kopatxu bana edo artu (A.)" - (Txerria, ba hil, ipini suetean, edo behean etzanda, eta orduan kopatxu bana edo hartu)

euki: eduki

eurreratu: aurreratu

eusi: hautsi

eutzi: eutsi

exatu: exa erabilia behar egitea

eyo, io, eidxo, iyo: eho
"Birsaye teko, ba, e, arri autze, edo kolore bera teko, sera, saye baño merkeau, eyo eta birsaye beti ixen da (Z.)" - (Birzahiak dauka, ba, harri hautsa, edo kolore berak dauka, zera, zahia baino merkeago, eho eta birzahia beti izan da)
"Eta karrokadea eron, eta Torrontegik berak urten gurdiegas, t'iyó t'ekarri etzera (E.)"

- (*Eta karrokada eroan, eta Torrontegik berak irten gurdiagaz, eta eho eta ekarri etxera*)

falleu, falla: huts egin

faltau, falteu, falta: faltatu

fasildu: erraztu

fermentau, fermenteu, fermenta:
fermentatu, garrastu

"*Gaixoa oin bere eukitxen deude baya, pentzetot nik, ak, e, fermente itxen da satza (M.)*" - (*Gaixoa orain ere edukitzen dute baina, pentsatzen dut nik, hark, fermentatu egiten da satsa*)

fia, fidxeu, fieu: fida izan, fidatu

fijau, fija, fijeu: fijatu

filtrau, filtra: iragazi

findu, finyu: findu

firmeu: sinatu

formau, formeu, forma: formatu

frenau: galgatu

"*Frenetako bueno, guk bastante, ba, modernotxuauak eitten ixen dus nire denporan, ta imintten sakean atzean, trabes bat, ta ba, gero burrin betegas, a, puntetik roskeas tiretu baya, arteraukoak eukitteuden, sulo bat onen, e, aldatz andietan, ba amarrau andik, e, ba aldamenera edo serera ta, txirritxin narres ekarteko (E.)*" - (*Galgatzeke beno, guk nahiko, ba, modernotxoagoak egiten izan ditugu nire sasoian, eta ipintzen zitzairen atzean, trabes bat, eta ba, gero burdina bategaz, puntatik erroskagaz tiratu baina, arteragokoek edukitzen zuten, zulo bat hauen, aldats handietan, ba amarratu handik, ba aldamenera edo zerera eta, txirritxin narraz ekartzeko*)

freskau, freskotu: freskatu

fumau, fumeu, fuma: erre

"*Orrek ikus dau beran semea fumaten (Z.)*"
- (*Horrek ikusi du beraren semea erretzen*)

funtzioneu, funtziona: funtzionatu

gaixotu, geixotu: gaixotu

galarason, galason, galaso: galarazo, galazo, debekatu

"*Baten pasaueskero illekua anti, ba bidea galason eseitteko seguru ixen da (E.)*" - (*Baten pasatuz gero hilekoa handik, ba bidea galarazo ez egiteko seguru izan da*)

galdrostu, goldastu, galdostu: gardorostu

galdu: 1. galdu. 2. hil

garandu: garandu, aletu

garatu: garatu

garbittu, garbitxu: 1. garbitu. 2. hil

gardatu: gardatu, artilea gardaz landu

"*Eta gero firu itten san, tronpoyan moduko bategas, bea tronpoyan modukoa, ta alan, ba sera, burrin bet, burriñe baya mea, aalan, eta ari, emon bueltak, eta koyu olan gardatuko lana pilloa ta (Z.)*" - (*Eta gero firua egiten zen, tronpoiaren moduko bategaz, beha tronpoiaren modukoa, eta halan, ba zera, burdina bat, burdina baina mehea, haalan, eta hari, eman bueltak, eta hartu holan gardatuko artile piloa eta*)

garrantziñotu: garrantziotu

garrastu: garraztu

gasatu: gezaldu

gasittu, gasitxu: gazitu

gastau, gasta, gasteu: 1. gastatu. 2. higatu

gastetu: gaztetu

geittu, geitxu: deitu

gitxittu, gitxitxu: gutxitu

gixa: gisatu

gixondu: gizondu

gobernau, goberneu, goberna: gobernatu

gogortu: gogortu

"*Urtu te gero an lotxen da ba, gogortute, puxiken barruen (La.)*" - (*Urtu eta gero han lotzen da ba, gogortuta, puxikaren barruan*)

gonbitteu: gonbitatu

gorde: gorde

gorittu, goritxu: goritu

gorrittu, gorritxu: gorritu

"*Yone selan begik gorrittute dekosusen (Bi.)*"
- (*Jone zelan begiak gorrituta dauzkazun*)

gortu: gortu

gosatu: gozatu

gosetu: gosetu

gosotu: gozotu

grabeu, graba: grabatu

gustau, gusta, gasteu: gustatu

"*Amak lapikoa imin yeu surten (Z.)*" - (*Amak lapikoa ipini du surtan*)

ibilli: 1. ibili. 2. erabili

"*Kalerik kale ibil dire (Z.)*" - (*Kalerik kale ibili dira*)

idi, iri: ireki

"*Bentanan yokotzen ba, nobioak, neskatoa barruen badau, iritten baotzen, irikotzen ta*

irriten espadotzo... (T.)" - (Leihoan joko zioten ba, gizongaiak, neskatoa barruan badago, irekitzen bazion, irekiko zion eta irekitzen ez badio...)

idxen, ien: igan

"Kadereas ien ganera ta ra! ien ganera ta, ra! sartxeuden, tamañu beten sartu te gero aiñ aspian, oñokarren, aiñ aspiñ, a, laye bota bera ta golpe emon ta sati altzau te itxi arroao, airosoao lotu ditten (Z.)" - (Oinagaz igan gainera eta ra! igan gainera eta, ra! sartzen zuten, tamaina baten sartu eta gero haren azpian, oraindinokarren, haren azpian, laia bota behera eta kolpea eman eta zatia altxatu eta utzi harroago, jagiago lotu dadin)

iertu: ihartu

igeron, ieron: iragon, garraiatu

igerri: igarri

"Espadiñostea estot igertan, es Yatabeko bada, es, a, Atxuriko bada, es Katikeko bada (A.)" - (Ez badinostate ez dut igartzen, ez Jatabekoa den, ez, Atxurikoa den, ez Gatikakoa den)

"Igerri itten dakea, se beste alegerantzi bet emoteutzea, baya, olan asentoa (T.)" - (Igarri egiten zaie, ze beste alegerantza bat ematen diote, baina, holan azentua)

igertu: 1. igertu. 2. ihartu

"Ostantzean sati bet kendu arren estot pentzetan arbole igertuko lekenik (T.)" - (Osterantzean zati bat kendu arren ez dut pentsatzen arbola ihartuko luketenik)

igurdi, igordi, igosi: igurtzi

ikeratu: ikaratu

ikesi, ikisi: ikasi

ikusi, ukusi: ikusi

"Etorri nas ama ikusten (Z.)" - (Etorri naiz ama ikusten)

"Oñ ukusten direnak, a, es, orrek ukusi bere esien eitten, emen bakarrik orrek, emen bakarrik itten siren orretarikoak, oin dator, ba kanpoti datorrelako txarrie ta orrek (Z.)" - (Orain ikusten direnak, ez, horiek ikusi ere ez ziren egiten, hemen bakarrik horiek, hemen bakarrik egiten ziren horietarikoak, orain dator, ba kanpotik datorrelako txerria eta horiek)

"Egunokas estot ikusi (Z.)" - (Egunokaz ez dut ikusi)

ikutu, ukutu: ikutu

"Akabuko etze Atxuriko ta lelengo Katikekoa, ba ukututen daus kasik (A.)" - (Azken etxea Atxurikoa eta lehenengo Gatikakoa, ba ikutzen dagoz kasik)

ilbainyu, ilbinyu: ilbaindu

ill: hil

illundu: ilundu

imiñi: ipini

"Mantak ak, uf! kategorien imintxe sitxusen mantak (M.)" - (Mantak hark, uf! kategorian ipintzen zituen mantak)

"Ori bai, eta ixeta san, e, amen eskeitte imiñi, eta egosteko bere bai gausek (Z.)" - (Hori bai, eta izaten zen, hamen eskegita ipini, eta egosteko ere bai gauzak)

iñ: egin

inbiteu: gonbidatu

ingetu: ingatu, sakatu

inkau, inkeu, inka: inkatu

interesau, intereseu, interesa: interesatu

"Partikular, e, nopera pere euki seukean etzian baya intereseu es bakotxari (M.)" - (Partikular, norberak ere eduki zezakeen etxean baina interesatu ez bakoitzari)

inyergatu, inyarkatu: indargatu

"Aspidixen egongo da igual inyarkatute, b'or Dxataben, Dxatabetik Dxatarantz or, or ote san asko, Dxataberantzako alderditxik, or eitxe san iketz asko gurguxeas (L.)" - (Azpian egongo da beharbada indargatuta, ba hor Jataben, Jatabetik Jatarantz hor, hor egoten zen asko, Jatarantzko alderditik, hor egiten zen ikatz asko gurbitzagaz)

iñusentetu: inuzentetu

iñusi: uxarkatu

io, eyo: eho

irebasi: irabazi

"Orretan baño giau irebasten ixen da, ba, bear normala intxe (K.)" - (Horretan baino gehiago irabazten izan da, ba, bear normala eginda)

irekatzi: irakatsi

"Irekatzu dotzet itten (Z.)" - (Irakatsi diot egiten)

"Ikisitxe erosi bere bai, eta etzian irekatzi bere in tzegue, gastetxuek erositxe (M.)" - (Ikasita erosi ere bai, eta etxean irakatsi ere egin diegu, gaztetxoak erosit)

iri: ireki, zabaldu

irikiñ: irakin

"Edo irikiñen dauenian, kasureko, einparritten, eitteittus sortzi amar egun edo irikitten ta, orduen eraingotzo akaso (L)" - (Edo irakinean dagoenean, kasurako, eginbarritan, egiten ditu zortzi-hamar egun edo irakiten eta, orduan eragingo dio akaso)

irukurtzi: irukurtzi

iruli: irauli

"Iruli estaittesan bai, baya iruli tte ostean, e, surrunen, e, surrunen olan aldapan badarosu, andik surrunen aspittik sartxe sakon luse bat eta, an puntan parau eskeitteko goiko alderritik, baya ya bueltauesketiñon, e, utzittu barik... (E.)" - (Iraul ez daitezen bai, baina irauli eta ostean, zurruna, zurrunean holan aldapan badarozu, handik zurrunaren azpitik sartzan zitzaion luze bat eta, han puntan paratu eskegitzeko goiko alderditik, baina ja bueltatuz gero, hutsitu barik...)

iruntzi: 1 irentsi 2 iruntzi

istutu: estutu

itto, itxo: ito

itxedon, itxeron: itxaron

itxi: utzi

"Pasetan itxi in yostea (Z.)" - (Pasatzen utzi didate)

itzutu: itsutu

ixartu: itzartu

ixen: 1. izan. 2. izan, joan

ixenteu: izendatu

ixerditu: izerditu

ixerratu: izarratu

ixi: itxi

"Sera ixitte ongo da, itxeron (Z.)" - (Zera itxita egongo da, itxaron)

ixildu, ixeldu, ixilyu: isildu

jodidu: joditu

jubileu, jubila: jubilatuz, erretiratu

juntau, junta, junteu: elkartu, batu

"Nondik etorritte junta gintzen or, non ixengo san ba? (La.)" - (Nondik etorrita elkartu ginen hor, non izango zen ba?)

kabidu: sartu, eden

kakarraldotu: kakarraldotu, kakarraldoa erabiliz behar egitea

"Bueno klaro, egote san beste bat kakarraldo esate yakona, kakarraldotu

esate otzu guk, ak astrakan eitte seuen (Z.)" - (Beno jakina, egoten zen beste bat kakarraldo esaten zitzaiona, kakarraldotu esaten diogu guk, hark aztrakan egiten zuen)

kakotu: kakotu, aitzurtu

kalkuleu, kalkula: kalkulatu

"Ori kalkuletan gatxa da (L.)" - (Hori kalkulatzan gaitza da)

kalmeu: baretu

kanbiau, kanbia, kanbidxau, kanbidxeu: aldatu

kanta, kantau, kanteu: kantatu

"Au, e, mesan eoten dok, e, kantetan aiñ alabea (E.)" - (Hau, mezan egoten duk, kantatzen haren alaba)

kantzau, kantza, kanteu: nekatu

"Kantzaute dau ori bere (Z.)" - (Nekatuta dago hori ere)

kapeu, kapa: 1. irendu. 2. arbolak kapatu

"A, sorburue, guk esaten ixen tzegu bai, sorburue, ori itxen dakea sekorrari txe, kapeubako sekorrari itxen dako asko ori (M.)" - (Hura, sorburua, guk esaten izan diogu bai, sorburua, hori egiten zaie zekorrei eta, kapatubako sekorrari egiten zaio asko hori)

kargau, kargeu, karga: kargatu

"Kargau olan, e, aritx errama bi, bija bitten gurtedea bajau bera idiekas, kargau bean, eta gero bidean iruli (E.)" - (Kargatu holan, haritz abar bi, bidaia bitan gurtada bajatu beheara idiakaz, kargatu behean, eta gero bidean irauli)

kargutu: kargutu

karutu: garestitu

kastigeu, kastiga: zigortu

"Lenau emen kalboa itxen sakean, orrasie sartute seurielako emen, ta gero trentzea batuteudean orrasien, baya gero kalboa itxen sakean or, orrasiek, ulea, tireka tireka beti daueles kastigeu (M.)" - (Lehenago hemen uldunea egiten zitzaien, orrazia sartzan zutelako hemen, eta gero ile txorta batzen zuten orrazian, baina gero uldunea egiten zitzaien hor, orraziak, ilea, tiraka-tiraka beti dagoenez zigortu)

katiretu, katietu: katiratu

kauskitu: kauskitu

"Kauskittu dakos agiñek (Bi.)" - (Kauskitu zaizkio haginak)

"Kauskittu, agiñek kauskittu eiñ, sagarra yaten dosunen, sagarra, eldubako sagarra yaten dosunen esaten da ori, ai selan agiñe tekodasen kauskittute (Bi.)" - (Kauskitu, haginak kauskitu egin, sagarra jaten duzunean, sagarra, heldubako sagarra jaten duzunean esaten da hori, ai zelan haginak dauzkadan kauskituta)

keja, kejeu: kexatu

kendu: kendu

"Nire aisteak euki sitxun asko, euki sitxun, ta ara eron seuen amak, eta esa otzon se Rikardok onek aittu deu eskue onek selan dekon, eta, bai baya orrek esin kendu leis (Ll.)" - (Nire ahiztak eduki zituen asko, eduki zituen, eta hara eroan zuen amak, eta esan zion ze Rikardok honek aditu du eskua honek zelan daukan, eta, bai baina horiek ezin ken daitezke)

ketu: ketu

kikilyu: kikildu

kima: kimatu, gimatu

kiñau, kiñeu, kiña, kiñetu: kinatu

"Ba senbet eta pixu gedxauko arridxe ganadue justo antzian badabill, ganaduek adarra altzeu igual eitxen deu, se istu dabil txe, eron esiñi padabill txe sano txarto badabill, igual adarra altzeu te ein gure es, kiñeute bere ein gure es (M.)" - (Ba zenbat eta pisu gehiagoko harria ganadua justu antzean badabil, ganaduak adarra altxatu beharbada egiten du, ze estu dabil eta, eroan ezinik badabil eta sano txarto badabil, beharbada adarra altxatu eta egin gura ez, kinatuta ere egin gura ez)

"Adarratati agarreta ak, e, atzean bere bardin kiñetuteuen idie, edonon (E.)" - (Adarretatik oratuta hark, atzean ere berdin kinatzen zuen idia, edonon)

kita: kendu

kobrau, kobreu, kobra: kobratu

"Kobraten daudea kiloko aun (Z.)" - (Kobratzen dute kiloko ehun)

koittedutu: koitadutu

kolokeu: ezarri

komenidu, komonidu: komeni izan

"Ure gora danean ba esta komenidu, ure bera danean (G.)" - (Ura gora denean ba ez da komeni, ura behera denean)

komulgau, komulgeu, komulga: komulgatu

konbida, konbideu: gonbidatu

konfesau, konfeseu, konfesa: autortu

konfundidu: okertu

konpondu: konpondu

konserba, kontzerbeu, kontzerba: kontserbatu

"Lurresko lapikon ure bere, antza, ogoto kontzerbaten da gosoau (La.)" - (Lurrezko lapikoan ura ere antza, hobeto kontzerbatzen da gozoago)

kontau, konteu, konta: 1. kontatu. 2. zenbatu

"Bai ba baya gero bille yoateko, batzutan eunerarte kontaten geñun, ta beste batzutan bale esaten geñun te (M.)" - (Bai ba baina gero bila joateko, batzuetan ehunera arte kontatzen genuen, eta beste batzuetan bale esaten genuen eta)

kontestau, kontesteu, kontesta: erantzun

kontroleu, kontrola: kontrolatu

konturetu, konturotu: konturatu

"Eta alan, a, konturotu sen, sortzigarren egunen edo, ta eskue garbi-garbi euki seuen (Ll.)" - (Eta halan, konturatu zen, zortzigarren egunean edo, eta eskua garbi-garbi eduki zuen)

kontzegidu: lortu

kordatu: kordatu, txortatu

korridu: korritu

"Orrek korridu itte otzo, egas esteu itten orrek (Z.)" - (Horrek korritu egiten dio, hegaz ez du egiten horrek)

kostau, kosteu, kosta: kostatu

"Page gendun beskarie erdi bana, ta, or akabe san asuntue, baya koste san! (E.)" - (Ordaindu genuen bazkaria erdi bana, eta, hor amaitu zen gora-behera, baina kostatu zen!)

kostunbreu: usatu, ekandu

koxotu: koxotu

koxu, koyu, kodxu, koixu: hartu, harrapatu

"Koyuixu orixe (Z.)" - (Har ezazu horixe)

"Gure soloak asal ona koi deu (Ll.)" - (Gure soroak azal ona hartu du)

kunplidu: bete, egin

"Promesa kunplidu, ein bear ixeta san (M.)" - (Promesa bete, egin behar izaten zen)

kureu, kura: ondu, heldu

"A gorritasune, kureta dauselako dire orrek (Z.)" - (Gorritasun hura, onduta dagozelako dira horiek)

kurtzieu, kurtzea: gurutzatu

kutxilletu, kutxillatu, kutxillotu: kutxilatatu

"Kutxillatu fraka pakixu ser dan? frakak, oiñ estau serrarik, baya serriegas ibiltten gintzeseles, bedarra ebaten munetan ta, belunetatik, a, apurtu frakak, en jeneral, ba, eperditti pe apurtu, t'eitten sotzeasan, emetik eta, eurreko alderdiek, imiñi ba adabuek, olan, a, satiek, eta, atzeari bere bai, eta aik, a, beste satiek, aprobetxeta siren, ba, esales oten, a, ba, diru gitxiu gasteta, kutxillotu (Z.)" - (Kutxilatatu prakak badakizu zer den? prakak, orain ez dago zerrarik, baina zerragaz ibiltzen ginenez, belarra ebakitzen munetan eta, belaunetatik, apurtu prakak, gehienetan, ba, ipurditik ere apurtu, eta egiten zizkioten, hemendik eta, aurreko alderdiak, ipini ba adabuak, holan, zatiak, eta, atzeari ere bai, eta haiek, beste zatiak, aprobetxatzen ziren, ba, ez zenez egoten, ba, diru gutxiago gastatuta, kitxilatatu)

labandu: labandu

"Bai labandu itten da, ta labandu konpleto itten bada, estau ondo bear eitten se, koiten deu, garo koiten deu, garo doberati esaten dakona, doa garie, eta, edo garoa, eta garo koiten deu te garoa, bertan erabilli barik, yaurti eitten deu, e, labana badau, ta batzuk apurtuko ittus ondo baya beste batzuk es, ta ondo pikeute badau, beran kamiñokas ta ondo pikeute badau, pikede emoten dako, arri biribille bada, ba biribille dan modun bueltan bueltan, bueltan bueltan emoten dako pikede, esta? pikede an, a, beti doa mamurtuten, mamurtuten, mamurtuten, beran a, seren, eta pikekeran bere diferentzi andie, dau, diferentzi andie! piketan gustue espauko errotari ona esta (Z.)" - (Bai labandu egiten da, eta labandu guztiz egiten bada, ez du ondo behar egiten ze, hartzen du, garaua hartzen du, garaua dolberatik esaten zaiona,

doa garia, eta, edo garaua, eta garaua hartzen du eta garaua, bertan erabilli barik, jaurti egiten du, labana badago beste batzuek ez, eta ondo pikatuta badago, beraren kaminoakaz eta ondo pikatuta badago, pikada ematen zaio, harri biribila bada, ba biribila den moduan bueltan-bueltan, bueltan-bueltan ematen zaio pikada, ezta? pikada han, behetik doa mamurtzen, beraren, zerean, eta pikakeran ere desberdintasun handia, dago, desberdintasun handia! pikatzen gustua ez badauka errotari ona ezta)

labrau, labreu, labra: laiatu, landu

"Geuk landuten gendun bai, eskiñe arridrek eta eitxeko etzia eitxeko, arrisko etziak eitxen sirenian ba, eskiñekoak labra in bear dire erdikoak es (L.)" - (Geuk lantzen genuen bai, eskina-harriak eta egiteko etxea egiteko, harrizko etxeak egiten zirenean ba, eskinetakoak landu egin behar dira erdikoak ez)

laburtu: laburtu

"Ebai puntia bai, sarri ebai tzegue, bustenan puntia, mamiñe es, e! baya beran ulia pai, laburtu (M.)" - (Ebaki punta bai, sarri ebaki diegu, buztanaren punta, mamia ez, e! baina beraren ileak bai, laburtu)

lagundu: lagundu

"Monagilloak, e, ba lagunte otzen, abadeari (K.)" - (Meza-lagunak, ba laguntzen zion, abadeari)

"Igual nosonos lagundu arren bere, ba bueno, ba, erremeritxik soas, ta laguntan sus baya eurrerako bide barik igual (Em.)" - (Beharbada noiz edo noiz lagundu arren ere, ba beno, ba, erromeriatik zoaz, eta laguntzen dituzu baina aurrerako bide barik beharbada)

landu: landu

lañotu: lainotu

larga, largeu: utzi, soltatu

larrittu, larritxu: larritu

"Es ori es, astoa estau Beñekan erositte baya gero apur bet larrittu in san (T.)" - (Ez hori ez, astoa ez dago Meñakan erosita baina gero apur bat larritu egin zen)

lasau, lasatu: lasatu, nasaitu

laskittu, laskitxu: lardaskatu, laskitu

"Orrek, e, denporeak, e, laskitxu ein dosku geure bearra (G.)" - (Horiek, eguraldiak, laskitu egin digu geure beharra)

lastandu: laztandu

laurendu: laurendu

laxatu: lasatu

layetu: laiatu

leidu, legidu: irakurri

"*Umea ikusi dot liburu bet leiduten (Z.)*" -
(*Umea ikusi dut liburu bat irakurtzen*)

"*Asko kostaten daste ya, auskera legidu eittea bere (La.)*" - (*Asko kostatzen zait ja, euskeraz irakurri egitea ere*)

leortu, liortu: lehortu

lexatu: leizatu

libra, libreu: 1. libratu. 2. umea egin

"*Akabuen ie ill ixeeuen, kaderakas, justoan libre san (T.)*" - (*Azkenean ea hil izan zuen, hankakaz, justo libratu zen*)

limetu: limatu

lisutu: lisutu

lodittu, loditxu: loditu

loguretu: loguretu

loittu, loitxu: lohitu

lokatu: lokatu

loratu: loratu

lorrinyu: lorrindu

lotu: gelditu, lotu

"*Amen lotutea gure dot (Z.)*" - (*Hamen lotzea gura dut*)

"*Au gitxitten lotuten da lo (Z.)*" - (*Hau gutxitan lotzen da lo*)

"*Afaritten lotu da (Z.)*" - (*Afaltzen lotu da*)

lotzatu: lotsatu

lumetu: lumatu

lusetu: luzatu

"*Au bere kasureko dau, ser esango tzut, e? metro at ingeru lusetute ta beste metro bat ingeru sabaldute, len egon sanik (E.)*" - (*Hau ere kasurako dago, zer esango dizut, e? metro bat inguru luzatuta eta beste metro bat inguru zabalduta, lehen egon zenik*)

maistu: hondatu

makaldu: makaldu, gaixotu

makiñetu: makinatu, goldatu

"*Prepareu lurre, eser eser bere es besterik, makiñetu, makiñetu goldeagas paseu eta arekas apurtu, eraiñ, ta arekas apurtu (Z.)*" - (*Prestatu lurra, ezer ezer ere ez besterik, makinatu, makinatu goldeagaz pasatu eta arekak apurtu, erein, eta arekak apurtu*)

makurtu: makurtu

malletu: mailetu

mamurtu: mamurtu

manejau, manejeu, maneja: manejatu

mantenidu: mantendu

manteu: mantatu

"*Manteu bere bai len, oiñ, e, gitxiau, baya len mantia bere bai imiñi, os badau (M.)*" - (*Mantatu ere bai lehen, gutxiago, baina lehen manta ere bai ipini, hotz badau*)

marea: zorabiatu

markau, markeu, marka: markatu

"*Markeu, tatueu te dana itten dire, belarrien tatuejea dekea, da gero numerasiñoa (Z.)*" - (*Markatu, tatuatu eta dena egiten dire, belarrian tatuaiia daukate, eta gero numerazioa*)

"*Orixe ba markau, eta beragas tapau, markau exegas ta beragas tapau, alboti eroten san, marke emeti eiñ, eta emeti alboti eroten san, ta beragas (Z.)*" - (*Horixe ba markatu, eta beragas tapatu, markatu exeagaz eta beragas tapatu, albotik eroaten zen, marka hemendik egin, ete hemendik albotik eroaten zen, eta beragas*)

martxeu, martxa: alde egin

masaldu: mailetu

maskaldu: mazkaldu

mastu: maiztu, hondatu

"*Ai selan mastute daun, e, selan sartute daun esan bearrean (Bi.)*" - (*Ai zelan maiztuta dagoen, zelan zahartuta dagoen esan beharrean*)

matxaka: txikitu, zapartu

meastu: mehaztu

meidu: neurtu

"*Nik ukus dot oiñkarren oraintxe, Mungidxeko feridxen, onetarikoagas, e, txala meitxan, senbet pixu ingeru dekon dxakitxeko (M.)*" - (*Nik ikusi dut oraindinokarren oraintxe, Mungiako azokan, hauetarikoagaz, txahala neurtzen, zenbat pisu inguru daukan jakiteko*)

mendau, mendeu, menda: 1. mendatu. 2. bendatu

"*Uren beran ixen bear deuela mendetako bere esaten daude (M.)*" - (*Ilbeheran izan behar duela mendatzeko ere esaten dute*)

meresidu: merezitu, merezi izan

merketu: merketu

metatu: metatu

metu: mehetu

miestu: mehaztu

miketu: mikatu

"Miketu ba, olloa ixen bastante ona ta gero eser esean lotu (T.)" - (Mikatu ba, oiloa izan nahikoa ona eta gero ezer ezean lotu)

mingostu: mingostu

minyu: mindu

miska, miskeu: mizkatu, miatzkatu

"Guk beti eitxen du ba, txala eitxen deuenian, ba txala ondotik kendu edo, ta, kiñeu eta altzeu ta txala ondora eron miske didxen (M.)" - (Guk beti egiten dugu ba, txahala egiten duenean, ba txahala ondotik kendu edo, eta, kinatu eta altxatu eta txahala ondora eroan mizka dezan)

misketu: milikitu

mogidu, mobidu: mugitu

"Gurdiak mogittan dauena, an mogitta imintten dauen lurre, urioleak artu te eron, eta urrengo bere eron ta eron, ta a geroau berau doa (E.)" - (Gurdiak mugitzen duena, han mugituta ipintzen duen lurra, uriolak hartu eta eroan, eta hurrengo ere eroan eta eroan eta hura geroago beherago doa)

"Mogidueskon esteu urtetan giau, bedarra ebai arren urtetan deu, baya atxurregas edo yo ta desaparecido itten da, or munen desaparecido in san (T.)" - (Mugituz gero ez du irteten gehiago, belarra ebaki arren irteten du, baina aitzurragaz edo jo eta desagertu egiten da, hor munan desagertu egin zen)

monteu: montatu

moskortu: mozkortu

moteldu: moteldu

motxotu: adarrak ebaki

motzittu: motzitu, itsustu

mudeu: mudatu, arropa aldatu

munarritu, munarritxu: munarritu

mutildu, mutilyu: 1. ilea ebaki. 2. ardiei ilea eratzi. 3. arbolaren abarrak kendu

"Mutilyu, kasureko, nik entzutea neu tekotenetik, aritze bat podetan basoas su, erramak ebaten, berak gorputzek proba in yeyen edo gora (...) ta erramak geyenak ebai, eta mutilyute itxitten baosu arbolea, errama gitxiges gorako giau artxean, orixe esate akon, arbolea mutilyute itxi deu (Ll.)" - (Mutildu, kasurako, nik entzutea neuk daukadanetik, haritz bat inausten

bazoaz zu, abarrak ebakitzen, berak gorputzak proba egin dezan edo gora (...) eta abarrak gehienak ebaki, eta mutilduta uzten baduzu arbola, abar gutxigaz gorako gehiago hartzen, horixe esaten zitzaion, arbola mutilduta utzi du)

"Mutilyute, ulia ebaikereari espadiñotzea, nik bestera arboleana, neuk alan (Ll.)" - (Mutilduta, ilea ebakierari ez badinotsate, nik bestera arbolena, neuk halan)

mututu: mututu

nabartu: nabartu

"Guk, nabartuten daunan, denpora larritu, edo kanbiaten danen, ontxe denpora nabartuten dau (Bi.)" - (Guk, nabartzen dagoenean, eguraldia larritu, edo aldatzen denean, oraintxe eguraldia nabartzen dago)

narrutu: narrutu

nastau, nasteu, nasta: 1.nahastu. 2.nahastu, kutsatu. 3 karta jokoan nahastu

"Niri etxaten nasteu, se ni pasabakoa nasela, beti entzun dot eta (At.)" - (Niri ez zitzaidan nahastu, ze ni pasatubakoa naizela, beti entzun dut eta)

"Emen beternario bat on san, beternario gaste bat, eta txarto bere txarto on san, e? olan nasteta (Z.)" - (Hemen albaitero bat egon zen, albaitero gazte bat, eta txarto ere txarto egon zen, e? holan nahastuta)

negeu: ukatu

obedesidu: obeditu

obetu: hobetu

obligu, obliga: behartu

"Arnasoskia, eta paraten da, odolaren kolorean paraten da, aren obligetan bada, txarrie ixen bear deu, barrure sartzeako bere, onean, gedar eñ, igosi, eta emon edo, ba baba apur bet edo artagaroa, edo olan noperan atze, bestera asten bada txarrie elei barrure sartu (Z.)" - (Arnasoska, eta paratzen da, odolaren kolorean paratzen da, arean behartzen bada, txerria izan behar du, barrura sartzeko ere, onean, gedar egin, igurtzi, eta eman edo, ba baba apur bat edo artagaroa, edo holan norberaren atzea, bestera hasten bada txerria ez liteke barrura sar)

ofresidu: agindu, opetsi

okertu: 1 okertu. 2. okertu, gaiztotu

oki: eduki

okupeu: okupatu

olgau, olgeu, olga: olgatu
"Amen olgetea gustaten dast (Z.)" - (Hamen olgatzea gustatzen zait)
"Guk estu asko olgeu bere in (Ll.)" - (Guk ez dugu asko olgatu ere egin)
on: egon
ondata: 1. hondatu. 2. guztiz busti
ondu: ondu
opereu, opera: operatu
oratu: oratu
orbistau, orbisteu, orbista: orbiztu, gorbiztatu, orbiztatu
"Orbistetan danean, ordun doas inyertzu gorantz (Z.)" - (Orbiztatzen denean, orduan doaz indartsu gorantz)
ordena, ordeneu: tajutu
organiseu, organisa: antolatu
ornidu: hornitu
orrastu: orraztu
osatu: osatu
osotu: osotu
ostu: 1. ostendu 2. ostu
"Gu Simon ta biok pare gintzen ostute, ostute pare gintzen Simon ta biok, matzan kontra (T.)" - (Gu Simon eta biok paratu ginen ostuta, ostuta paratu ginen Simon eta biok, mahatsen kontra)
otzittu, otzixu: hotzitu, hoztu
paga, pagau, pageu: ordaindu
"Pagaten deu baya, asko es, arek, pastoreri kentxen dakenagas, e, estosu fraka barri asko eingo (E.)" - (Ordaintzen du baina asko ez, hark, artzainei kentzen zaienagaz, ez duzu praka berri asko egingo)
parajetu: parajetu, hurbildu
parau, para, pareu: paratu, jarri
"Ori kendu i neuen denpora baño lenau, eta esaosten se, estatzu ondo pareko (Ll.)" - (Hori kendu egin nuen denbora baino lehenago, eta esan zidan ze, ez zaizu ondo paratuko)
"Gurdidxen partike puntian pareu, esta? ta atzetik sakatu, ta gora (At.)" - (Gurdiaren partika puntan paratu, ezta? eta atzetik sakatu, eta gora)
parkatu: parkatu
partidu: banatu
pasau, pasa, paseu: pasatu
"Orrek beres pasetan dire (Ll.)" - (Horiek berez pasatzen dira)
pegau, pega, pegeu: erantsi, atxeki

"A iru satitten eitten da, sati bet, eta gero bestea, ebatekoa da bat eta bestea ganeko burue pegau itten dotzea (E.)" - (Hura hiru zatitan egiten da, zati bat, eta gero bestea, ebakitzekoa da bat eta bestea gaineko burua erantsi egiten diote)
pentzau, pentza, pentzeu: 1. pentsatu. 2. iruditu, eman
permitidu: baimendu, zilegi izan
pertzegidu: pertsegitu, jarraitu
pikau, pikeu, pika: 1. haginka egitea, sugeek, mamarroek, e. abarrek. 2. xehatu, txikitu
"Onetan, e, diferentek, a, pikeu, arrie ta latz, piketan bada, arriek latza botaten deu, geyau pasau in eitten deu, arrie pikeu in ber da errotan, errotea or euki gendun guk eta, errote pikeu in ber da, ondo, piketan grasi andie ber da, piketan grasie espauko estau ondo bear eingo (Z.)" - (Honetan, desberdinak, pikatu, harria eta latz, pikatzen bada, harriak latza botatzen du, gehiago pasatu egin egiten du, harria pikatu egin behar da errotan, errota hor eduki genuen guk eta, errota pikatu egin behar da, ondo, pikatzen grazia handia behar da, pikatzen grazia ez badauka ez du ondo behar egingo)
pillotu: pilotu
pintteu, pinta: pintatu
pintxa, pintxeu: ziztatu
pixa, pixau, pixeu: pisatu
plantau, planteu, planta: 1. plantatu, paratu. 2. landatu
plantxeu, plantxa: plantxatu, lisatu
plegeu, plegau, plega: tolestu
podau, podeu, poda: inausi
"Neure ume denporan, klaro nik, e, aitxe euki neun, a, podateuena, arbolak, eta serak eta frutalak, eta bos kantoi gero, arreskero, entzun doten frutea da es neure ume denporan, e? (G.)" - (Neure ume sasoian, jakina nik, aita eduki nuen, inausten zuena, arbolak, eta zerak eta frutalak, eta bost kantoi gero, harrezkero, entzun dudan fruta da ez neure ume sasoian, e?)
porkeratu: porkeratu
postu: poztu
preguntau, pregunta, pregunteu: itaundu
prentza, prentzeu: prentzatu
preparau, prepareu, prepara: prestatu

"Fruisera yoan ei siren, e, ya preparata errixea (K.)" - (Fruizera joan ei ziren, ja prestatuta errieta)

presentau, presenteu, presenta: aukeztu

prestau, presteu, presta: prestatu

prijidu: prijitu, frijitu

probau, probeu, proba: 1. probatu, dastatu. 2. hazi

produsidu: ekoitzi

proibidu: galarazo

pujeu: pujatu

"Ta gero geyen pujeteuenak, ba, mistoa amata artean egoten san ta, beste bat espadau geyau pujetan dauena ba, arentzako lotxean san (K.)" - (Eta gero gehien pujatzen zuenak, ba, mistoa amatatu artean egoten zen eta, beste bat ez badago gehiago pujatzen duena ba, harentzat lotzen zen)

pustu: puztu

putzittu, putzitxu: puztu

sabaldu: zabaldu

"Palakas sabaltan san (Ll.)" - (Parakaz zabaltzen zen)

safa: zafatu

sakatu: sakatu

"Para an, an, a, sera, partiken yesarri tte atzeti danak gurdiri sakatu te ara gora (A.)" - (Paratu han, han, zera, partikan jesarri eta atzetik denek gurdiari sakatu eta hara gora)

"Baya ondo intte espadau, ba ak sakatu itten dotze (E.)" - (Baina ondo eginda ez badago, ba ba hark sakatu egiten dio)

sakondu: sakondu

salbau, salbeu, salba: salbatu

saldu: saldu

salta, salteu: saltatu

saludau, saluda: agurtu

sangrau, sangreu, sangra: odolustu

sapaldu: zapaldu

sarratu, serratu: zarratu, itxi

sartu: 1. sartu. 2. zahartu

"Ketan sartu dire (K.)" - (Ketan sartu dira)

"Batzuk sartxe otze guk ños estotzegu sartu (Z.)" - (Batzuek sartzen diote guk inoiz ez diogu sartu)

satittu, satitxu: zatitu

satzittu, satzitxu: satsitu

seatu: xehatu

segidu: segitu

"Orrek estudiaten segitten deu (Z.)" - (Horrek estudiantzen segitzen du)

"Oñ estaitx, e, segitxan bada (K.)" - (Orain ez dakit, segitzen den)

sekortu: zekortu

sebrau, sebra: ospatu

"Eneuen ori ondo topau, seaitti se, eskota bape, goyen ein ya beti eskota, esta? ba goyen sebre ber da, gauekoa bere, dana (E.)" - (Ez nuen hori ondo topatu, zeren, eskota bat ere, goian egin eta behetik eskota, ezta? ba goian ospatu behar da, gauekoa ere, dena)

sentidu: 1. sentitu. 2. txahala egiteko unean behia sentituta egoten da. 3. tristetu

"A, sentidute dauenian ba, eñ eingo deuen, e, egunian bai, sentidute (M.)" - (Hura, sentituta dagoenean ba, egin egingo duen, egunean bai, sentituta)

separau, separa: banandu

serbidu: zerbitzatu

serratu: zerratu, zerran ebagi

sertu: zertu

siketu: sikatu

"Lenengo bearra, ba basotik ekarri, ta bueno, e, siketu artean, bada, laban sartu, eta atara lei, baya, denporada baten bakarrik balio dau, se a ekarten dosun egurre siketuten doa, eta a siketu esteitten, uren barruen sartu bear da, ta au uren barruen dau (E.)" - (Lehenengo beharra, ba basotik ekarri, eta beno, e, sikatu arte, bada, labean sartu, eta atera liteke, baina, denboraldi baten bakarrik balio du, ze ekartzen duzun egur hura sikatzen doa, eta hura sika ez dadin, uraren barruan sartu behar da, eta hau uraren barruan dago)

silyu, sildu: zildu

simeldu: zimeldu

siñestu: sinestu, sinetsi

sobrau, sobreu, sobra: sobratu

soldu: zoldu

soltau, solteu, solta: soltatu

soratu: zoratu

sorrostu: zorroztu

"A lisutu in bear da, edo pikau edo sorrostu edo kendu in bear da ba, ostantzean (E.)" - (Hura lisutu egin behar da, edo pikatu edo zorroztu edo kendu egin behar da ba, osterantzean)

sostenidu: eutsi

"Usteye da an, e, egurre ta ori alkarreas sostenittakoa (E.)" - (Uztaia da han, egurra eta hori elkarri eustekoa)

sozazaldu: lantzar egon den soro bati gaineko belarra aitzurrez kentzea landu ahal izateko

"Sozazaldu esate otzegu guk orreri, ganea, atxurregas kendu (E.)" - (Zotzasaldu esaten diogu guk horri, gaina, aitzurragaz kendu)

subasteu: errematan eman

suertau, sueteu, suerta: suertatu

"Esta suerta eiñ, esta? (Bi.)" - (Ez da suertatu egin, ezta?)

sufridu: sufritu, jasan

sujeta, sujeteu: eutsi

sulotu: zulatu

"Orrek, ba, len, e, orre pere eskus eitten siren laratro seragas, sulotute, baya oin ba apur bet badeku taladroa ta orrek jeneroak (E.)" - (Horiek, ba, lehen, horiek ere eskuz egiten ziren, laratro zeragaz, zulatuta, baina orain ba apur bat badaukagu daratulua eta gauza horiek)

sume: batu

surittu, suritxu: 1. zuritu, azala kendu. 2. zuritu, zuri egin

surtu: zuhurtu

"Gero batzuk apur bet surtu siren ta, se orduen, Santiagotan, e, estaitt nik semet sagi edate sien (E.)" - (Gero batzuk apur bat zuhurtu ziren eta, ze orduan, Santiagotan, ez dakit nik zenbat zahagi edaten ziren)

suseratu: suseratu

sutundu: zutundu

tapau, tapeu, tapa: 1. tapatu, estali. 2. probetan eta kiroletan markak ondu, tapatu

"Es urtute imiñiskeron a an dau, tapeta dau uregas ta (Z.)" - (Ez urtuta ipiniz gero hura han dago, tapatuta dago uragaz eta)

tardau, tardeu, tarda: belutu, berandutu

tasau, tasa, taseu: tasatu

tatuau: tatuatu

tematu: tematu

tenpleu, tenpla: kaldatu

tinteu: tindatu

tiretu: 1. tiratu. 2. tiro egin

"Ori, koloresko bat nastetautzean eus bet, eta, olan tiretu te dak! soltateudean golpean, gora tiretute imintte, eta soltetauen eutze ta markeute lotxen san (Ll.)" - (Hori kolorezko bat nahasten zioten hauts bat, eta, holan tiratu eta dak! soltatzen zuten kolpean, gora tiratuta ipinita, eta soltatzen zuen hautsa eta markatuta lotzen zen)

tokau, tokeu, toka: tokatu

topa, topau, topeu: topatu

tostau, tosteu, tosta: igertu

"Tosteu, muskerra olau andidxe, lodidxe, ta, kendu asala ta dxan dauen moduen, muskerra dxan deu jentiak (At.)" - (Igertu, muskerra holako handia, lodia, eta, kendu azala eta jan dagoen moduan, muskarra jan du jendeak)

trabestu: trabestu

trabeu: trabatu

tragau, trageu, traga: 1. irentsi. 2. tragatu, piztiak hil, tragatu, akabatu

trateu, trata: tratatu

trentzeu: trentzatu

trilla, trillau: txikitu, xehetu

triskatu, triskeu: birrindu, triskatu

trituru: birrindu

trokau, trokeu: trokatu

tronbildu: tronbildu

"Ule laskittuten danen, tronbildute dekosus sapak esaten da (Bi.)" - (Ilea laskitzen denean, tronbilduta dauzkazu sapak esaten da)

tropesu: eztropezatu

tropetu: dorpetu

txikertu: txikertu, txikitu

"Il baño lenau, a, ba sertu, buskantzak eitteko, kinpule txikertu, porru txikertu, eta ba preparatiboak, emen guk, ta arrosa, guk emen, eta ostera Lesaman, beran barrukiek, botate otzeas, gibela, eta birikiek, eta biotza (Z.)" - (Hil baino lehenago, ba zertu, buzkantzak egiteko, kinpula txikertu, porrua txikertu, eta ba prestakuntzak, hemen guk, eta arroza, guk hemen, eta ostera Lezaman, beraren barrukiak, botatzen dizkiote, gibela, eta birikiak eta bihotza)

txikittu, txikitxu: txikitu, txikertu

tximurtu: tximurtu

txotxatu: txotxatu andreak

txotxolotu: txotxolotu

txotxotu: txotxatu gizonak

txupau, txupeu, txupa: lamiskatu

ugerittu, ugeritxu: ugaritu

ugertu: ugertu

ukusi: ikusi

ukutu: ikutu

ulertu: ulertu

"Oñ, karo ibiltten gares, ba, bai gipuskoatik eta, guk sera andiek eta, ulertu danari itten tzegue, e? (E.)" - (Orain, jakina ibiltzen gara, ba, bai Gipuzkoatik eta, guk zera handiak eta, ulertu denei egiten diegu, e?)

umedatu: umeldu

unidu: batu, batzandu

unteu, unta: gantzutu, koipea eman, bazitan egin

urdinyu: urdindu

"Urdinyu, urdinyu itten da gause bat alan ganen gause suri bet itten dakonean, surittute ba, paraten bada ganean, urdinyu (La.)" - (Urdindu, urdindu egiten da gauza bat halan ganean gauza zuri bat egiten zaionean, zurituta ba, paratzen bada ganean, urdindu)

urketu: urkatu

urritu: urratu

urten: irten

"Telebisiñon estot urtengo, esta? (Z.)" - (Telebistan ez dut irtengo, ezta?)

urtu: urtu

"Ori urtu, ta lurreko lapikok ote siren, ta txorixo kontzerbateko se txorixo espabere esta kontzerbaten, se piperrak galtzen dau, imiñi orio erdie, orio mea erdie, eta beste koipe erdie aputxu bet urtu, se koipe gogortu itten da, eta sartzeko txorixok a koipe itten da aputxu bet urtu, apur apur bet (La.)" - (Hori urtu eta lurrezko lapikoak egoten ziren, eta txorizoa kontserbatzeko ze txorizoa ezpabere ez da kontserbatzen, ze piperrak galtzen du, ipini olio erdia, olio mehea erdia, eta beste koipe erdia apurtxo bat urtu, ze koipea gogortu egiten da, eta sartzeko txorizoak koipe hura egiten da apurtxo bat urtu, apur-apur bat)

usau, usa, useu: erabili

usindu: usaindu

usteldu: usteldu

"Ba, usteldu gitxiau eitxeko, bia altuau egon deitzen betik, lurretik, egurre,

usteldu gitxiau eitxeko (L.)" - (Ba usteldu gutxiago egiteko, behea altuago egon dadin behetik, lurretik egurra, usteldu gutxiago egiteko)

"Esteko beste serik orrek, bian, e, arridxegas, ein basea, base ondo artxe otzesu, ta puntela imintxe su ganian, ta aren ganian imiñi gero, gitxiau usteltearren eperdidxe egurreri (L.)" - (Ez dauka beste zerik horrek, behean, harriagaz, egin basa, oinarria ondo hartzen diozu, eta zutoina ipintzen duzu ganean, eta haren ganean ipini gero, gutxiago usteltzearren ipurdia egurrari)

utzittu, utzitxu: hustu

uxetu: uxatu

yagi, dxagi: jagi

yagon, dxagon: jagon, zaindu

"Gero pasetan da ba, urteak yoan etorri, orreri gauzeri estake inportantzirik emon, eta yoan dire galdues, eta txarrean txarrean bere gurean bastante ondo yagon dires orrek gausok (E.)" - (Gero pasatzen da ba, urteak joan etorri, gauza horiei ez zaie garrantzirik eman, eta joan dira galduz, eta txarrean-txarrean ere gurean nahiko ondo jagon dira gauza horiek)

"Bear asko esuden eitten, ardi yagoten gelditoten sien ta (T.)" - (Behar asko ez zuten egiten, ardi jagoten gelditoten ziren eta)

yagona, dxaboneu, dxagoneu: xaboiztatu

yakiñ, dxakiñ: jakin

"Gure amak yakingo sittusen orre paya (E.)" - (Gure amak jakingo zituen horiek baina)

"Estekosu setan yakiñi pa (E.)" - (Ez daukazu zertan jakinik ba)

yalgi, dxalgi: erion, urustu

"Kare bere itten san baya, kare baño bestea obetzat botate san, kare botaten yakon gero, ori eintte karegas siketu apur bet, ori ein tte ostean, karegas siketu apur bet, eskun erabilteko ta seren baya, sulfato obligasiñoa modun, a, sulfatotan esetu dodas nik, euki, eta gero, bota, seosen ganean, ure yalgi dakion, ta kareagas bere bai esetu dot, baya karegas baño, geyau, sulfatoa da, inportantzie emoten yakona (Z.)" - (Karea ere egiten zen baina, karea baino bestea hobetzat botatzen zen, karea botatzen zitzaion gero, hori eginda kareagaz sikatu apur bat, hori egin eta ostean, kareagaz sikatu apur bat, eskuan

erabiltzeko eta zerean baina, sulfatoa obligazioa moduan, sulfatotan ezagutu ditut nik, eduki, eta gero, bota, zer edo zeren gainean, ura jalgi dakion, eta kareagaz baino, gehiago, sulfatoa da, garrantzia ematen zitzaien)

yan, dxan: jan

"Amari etzean yatea gustaten dako (Z.)" - (Amari etxean jatea gustatzen zaio)

"Gero bear batzuk eñ, gortakoak edo, eta gero ostean yan (A.)" - (Gero behar batzuk egin, kortakoak edo, eta gero ostean jan)

"Burue altzeute euki tte gure estauela yan eraitteutzeasan (Ll)" - (Burua altxatuta eduki eta gura ez duela jan eragiten zizkieten)

"Alkarreas yan du (Z.)" - (Elkarregaz jan dugu)

yantzi, dxantzi: jantzi

"Ba gantzardie yantzi barik axe yantzi, ba plegeute ta ondo, ta amarre bere, ondo, batzuk edoselan baya ondo, batzuk ondo yakitxeuden, e, selan yantzi (M.)" - (Ba galtzerdia jantzi barik huraxe jantzi, ba tolestuta eta ondo, eta amarrea ere, ondo, batzuek edozelan baina ondo, batzuek ondo jakiten zuten, zelan jantzi)

yarri: jesarri, eseri

yatzi: jatsi, eratsi

yaugetu: jaubetu

yaurti, dxaurti, dxeurti: jaurti, jaurtiki

yausi, dxausi, dxeusi: jausi

"Ori uretara yausi da" - (Hori uretara jausi da)

yayo, dxadxo: jaio

"Ni Laukarisen yayoa ta asie (La.)" - (Ni Laukarizen jaioa eta hazia)

yesarri, dxesarri: jesarri

yo, dxo: jo

"Beran aittek yo dau (Z.)" - (Beraren aitak jo du)

yoan, yon, dxon, dxoan: joan

"Iru etzetara yoa nas (Z.)" - (Hiru etxetara joan naiz)

"Ulea yoan daste (K.)" - (Ilea joan zait)

yokatu, dxokatu: 1. postura egin. 2. karta jokoan ibili, aritu

yorratu, dxorratu: jorratu

"Diferentzie da eratzien, bittarteko bedarra ebai baño estosu itten, baya yorratuten sausenean, bittarteko

bedarra ebai, eta ba artoa edo sera betetu itten dosu, lurregas betetu (E.)" - (Desberdintasuna da eratzien, bittarteko belarra ebaki baino ez duzu egiten, baina jorratzen zagozanean, bittarteko belarra ebaki, eta ba artoa edo zera bete egiten duzu, lurragaz bete)

yosi, dxosi: josi

23.2. ADITZ KONPOSATUAK

EGIN

aginke iñ, ainke iñ: haginka egin

"Aginke bai txarriek, e! uf txarrie! txarrik aginke bai, kontus txarriegas! (Z.)" - (Haginka bai txerriek, e! uf txerria! txerriak haginka bai, kontuz txerriagaz!)

"Ak ainke itten dau (Z.)" - (Hark haginka egiten du)

agirika iñ: agirika egin, errietan egin

agur iñ: agur egin

aitxaren eiñ, aitxearen eiñ: aitearen egin

alegiñe iñ: ahalegin egin

amesetan iñ: amesetan egin

andi iñ: handi egin

aproba iñ: aproba egin

argi iñ: argi egin

arillek eiñ: arilak egin, ganaduari errapean egiten zaion gaixoa

arrike iñ: harrika egin

arrikoa iñ: harrikoa egin

arrosi eiñ: aharrausi egin

asala iñ: 1. azala egin, zauri bat osatzen hasten denean azala egiten da. 2. lurra landutakoan eguzkiak erreta, azala egiten zaio

"Asala da, asala da makiñetu te sortzi egunean, a, eitten espotzu euririk, asal ona ein yotzo, ta lurre dauela erretan (Z.)" - (Azala da, azala makinatu eta zortzi egunean, egiten ez badizu euririk, azal ona egin dio, eta lurra dagoela erretzen)

"Asal barrie in da (Ll.)" - (Azal berria egin da)

"Ori de kasureko labreta osu, ta lurrek urteotzu umedo, umedo begire edo ba, labreu itteko kondesiñotan egon ber deu te, eta a badoa siketan, koi deu lau orduko edo bosteko eguskie, eta, ya siketan asten

da, ta orreri esaten dako asala in yotzo (L.)" - (Hori da kasurako lantzen duzu, eta lurrak irteten dizu heze, heze begira edo ba, landu egiteko baldintzetan egon behar du eta, eta hura badoa sikatzen, hartu du lau orduko edo bosteko eguzkia, eta ja sikatzen hasten da, eta horri esaten zaio azala egin dio)

aska iñ: hazka egin

astraka iñ: aztraka egin

astrakan iñ: aztrakan egin

ausi iñ, eusi iñ: ahausi egin

axe iñ: haizea egin

baltzigoan iñ: dantza lotuan egin

barre iñ: barre egin

barau iñ: barau egin

barausi iñ: barausi egin

barre iñ: barre egin

bat iñ: bat egin

bear iñ: behar egin

begiskoanes iñ, begiskones iñ: begizko egin

berba iñ: berba egin

"Bai, sarri in yu ori, olan berba (M.)" - (Bai, sarri egin dugu hori, holan berba)

bero iñ: bero egin

besaka iñ: besaka egin

"Besaka bere itxen deudea baya orretarako aik barridzek es, sarrak eitxen deude ori (L.)" - (Besaka ere egiten dute baina horretarako berri haiek ez, zaharrek egiten dute hori)

bidegintzen iñ: bidegintzan egin

bixerra iñ: bizarra egin

botike iñ, botikia iñ: botika eman, bota, gehienetan landareez berba egikeran esaten da

"Botike asko itten badake bere, estire gause, ostantzen beres (Z.)" - (Botika asko egiten bazaie ere, ez dira gauza, osterantzean ere ez)

buelta iñ: buelta egin

bueltan bueltan iñ: bueltan-bueltan egin

busti busti iñ: busti-busti egin

burle iñ: burla egin, txitxekar egin

damistiku iñ: damistiku egin

demandan iñ: demandan egin, eztabadaka egin

edurre iñ: elurra egin

"Oñ esteu eitten edurre or ere ariñ akabaten da edurre (Z.)" - (Orain ez du

egiten elurra hor ere arin amaitzen da elurra)

egas eiñ: hegaz egin

"Alan euki, eta alan puntera allegetan sanean, pirrii, egas eitxen seuen (M.)" - (Halan eduki, eta halan puntara ailegatzan zenean, pirrii, hegaz egiten zuen)

egune iñ: eguna egin

egurre iñ: egurra egin

enbarasu eiñ: enbarazu egin

erdi bana iñ: erdi bana egin

erdibi iñ: erdi bi egin

errekadu iñ: 1. maitasuna deklaratzera, lehenago bitartekaria bialtzea maitasun tratuak egiteko. 2. errekadu egin

erremata iñ: erremata egin

errittan eiñ, erritxan eiñ: errieltan egin

"Onek yoaten siren erromerire, erritxerik ein barik esiren etorten, orrek derrigor ein bear erritxan (K.)" - (Hauek joaten ziren erromeriara, errietarik egin barik ez ziren etortzen, horiek derrigor egin behar errietan)

erroidan iñ: errondan egin

estorbu iñ: enbarazu egin

"Gari yoteko beti prest, gu mutil txikerrak ixetan gintzenen, estorbu itteko baño espada be (Z.)" - (Garia jotzeko beti prest, gu mutil txikerrak izaten ginenean, enbarazu egiteko baino ez bada ere)

eurie iñ, auri iñ, euri iñ: euri egin

eusnar iñ: hausnar egin

fubolean iñ: futbolean egin

"Fubolean ta olan, e, akorta nas ni fubolean ta or, e, ni ego nitzenean pintxe, asi nitzenean barberien, e, an kalean, e, neskatoakas ta olgetan fubolean eitxen gendun, e, an yoskille bat eon san, e, beratxuau te, euki eusen iru lau neskato pintxe, ta an, e, ta an fubolean mutillek eta neskatoak eitxen gendun (K.)" - (Futbolean eta holan, gomutatzen naiz ni futbolean eta hor, ni egon nintzenean pintxe, hasi nintzenean bizartegian, han kalean, neskatoakaz eta olgatzan futbolean egiten genuen, han joskile bat egon zen, beheratxoago eta, eduki zituen hiru-lau neskato pintxe, eta han, eta han futbolean mutillak eta neskatoak egiten genuen)

ganes eiñ: ganez egin

garagarrak eiñ: garagarrak egin, astoek eta zaldiek behearen ganean bueltak egin

garbi garbi iñ: garbi-garbi egin
garbikusi iñ: garbikuzia egin
gatx eiñ: gaitz egin
gedar eiñ, gedar iñ: deiadar egin, deitu
girrintze iñ: zarata atera, girrintza egin
goruten eiñ: gorutan egin
guardie iñ: guardia egin
inder iñ, inyer eiñ: indar egin, bultzatu
kaka iñ: kaka egin
kalte iñ : kalte egin
"Nik estot gure iñori kalterik eiñ, esta? baya olan badoa, neuk artukot dana (E.)" - (Nik ez dut gura inori kalterik egin, ezta? baina holan badoa, neuk hartuko dut dena)
kare iñ: karea egin
kargu iñ: kargu egin
kartaka eiñ: kartaka egin
"Oin bere, oiñ len baño gitxiau daus, baya oin bere badaus kartaka itxeko lekuek, beti betzuk (K.)" - (Orain ere, orain lehen baino gutxiago dagoz, baina orain ere badagoz kartaka egiteko lekuak, beti batzuk)
kasan eiñ: ehizan egin
kasu iñ: kasu egin
kiñu iñ: keinu egin
kontra iñ: kontra egin
"Orrek alkateak ei eutzean akabuen kontra (E.)" - (Alkate horiek egin zioten azkenean kontra)
kopu bet eiñ: kopu bat egin
kosiñe iñ: suetean egin
kukurruku iñ: kukurruku egin
"Nobedadea dau, kukurruku itxen badau, gaueko amabidxez pase ta ostean (A.)" - (Albistea dago, kukurruku egiten badu, gaueko hamabiak pasatu eta ostean)
laban eiñ: laban egin
labasu iñ: labasu egin
laprast eiñ: laprast egin
"Kodañegas esiñ ebai ganeti pasaten da, laprast eitten dau (Z.)" - (Kodainagaz ezin ebaki gainetik pasatzen da, laprast egiten du)
lapurretan eiñ: lapurretan egin
lo iñ: lo egin
marka marka iñ: marka marka egin
mesede iñ: mesede egin
metxea iñ: metxa egin txakolinari
miñ eiñ: min egin
musturke iñ: murruka egin

negar eiñ: negar egin
on iñ: on egin
orro iñ: orro egin
parada iñ: jaurtikada, umeek haserre dagozela, ematen dituzten bultzakaden gainerako esaten da
"Niri es ein paradarik esatea les da ori (E.)" - (Niri ez egin paradarik esatea legez da hori)
paseoan eiñ: 1. paseoan egin. 2. andragai-gizongaiek elkarregaz irten
"Paseoan sarri ein yot nik neure nobiegas, baya en jeneral gitxi, osea, gero illunetan jentea, se eseuden gure ixetan, agas dabill tte orregas dabill yakitterik (E.)" - (Paseoan sarri egin dut nik neure andregaiagaz, baina gehienetan gutxi, hau da, gero ilunetan jentea, ze ez zuten gura izaten, haregaz dabil eta horregaz dabil jakitterik)
"Paseoan eitte san, a, Mungin be askotan, oiñ, e, diferentea da, orduen ba gramoleak yoten baeuen gramolea, ostantzean gero paseoan jentea, gora ta bera (T.)" - (Paseoan egiten zen, Mungian ere askotan, orain, desberdina da, orduan ba gramolak jotzen bazuen gramola, osterantzean gero paseoan jentea, gora eta behera)
pelotaka eiñ: pelotaka egin
peskan iñ: arrantzan egin
pikeka iñ: pikaka egin
posture iñ: postura egin
"Ta olau bokadillue posture in gendun (T.)" - (Eta holako bokadiloa postura egin genuen)
proba iñ: 1. proba egin. 2. hazi
"Adarra beti dau proba itxen (M.)" - (Adarra beti dago proba egiten)
promesa iñ: promesa egin
puntu iñ: puntu egin
putz eiñ: putz egin
saltu iñ: salto egin
santzo iñ: zantzo egin
sar eiñ: zahar egin, zahartu
sati sati iñ: zati-zati egin
satzetan eiñ: satsetan egin, neskari laguntzeko egiten zen proposamena satsetan egitekoa izaten ei zen
"Neskak esiren onak ixetan ta, igual biges imintxeuden satzetia ta (M.)" - (Neskak ez ziren onak izaten eta, beharbada bigaz ipintzen zuten sats egitea eta)

sintz iñ: zintz egin
sirkiñ eiñ: zirkin egin
sokorru iñ: oihu egin, alarau egin
su iñ, sue iñ: sua egin
surrut eiñ: zurrut egin
tela iñ: ehuna egin
tranpa iñ : tranpa egin
tratu iñ: tratu egin

"Yan seiñ edan, tratu in tte osten, a, tabernara yoan ta, yan edo edan sano eiñ (Z.)" - (Jan zein edan, tratu egin eta ostein, tabernara joan eta, jan edo edan sano egin)

txarra iñ: txarra egin
txitxekar eiñ: txitxekar egin, burla egin
txixe iñ: txiza egin

"Txinger batek salta dau, umetako gausek, ta esateuren gero oyan eingosu txise, ori bai, estosu entzun ori iños? (Z.)" - (Txingar batek saltatu du, umetako gauzak, eta esaten zuten gero ohean egingo duzu txiza, hori bai, ez duzu entzun hori inoiz?)

uger eiñ: igeri egin
ume iñ: ume egin
urrumede iñ: urrumada egin
usiñ eiñ: usain egin
ustela iñ: ustela egin
utz eiñ: huts egin

"Palu moduen errama batzuk sartzen siren, errama punte batzuk ebaten siren, ra ra, ra ra, koiten siren, se solo garbi garbi daunean, gause txikerra ikusten da eta, berak, e, bisterik arean beuko dabillenak, ba, pasaten da paren ta, utz, a, txikerragas sartzen deittus, bera aik illadak, e, estire utzitten, ta a gero, illadea koyukeran, ba au eraiñeko da, ta au, erainbakoa da ori (Z.)" - (Makila moduan abar batzuk sartzen ziren, abar punta batzuk ebakitzen ziren, ra-ra, ra-ra, hartzen ziren, ze soro garbi-garbi dagoenean, gauza txikerra ikusten da eta, berak, ikusmenik arean badauka dabilenak, ba, pasatzen da parean eta, huts, txikerragaz sartzen ditu, bera ilara haiek, ez dira husten, eta hura gero, ilara hartukeran, ba hau ereinekoa da, eta hau, ereinbakoa da hori)

yantzan eiñ, dxantzan eiñ: dantzan egin

"Mungin bere esan itxitxen, e, agarrata be yantzan eitxea (K.)" - (Mungian ere ez zen uzten, oratuta ere dantzan egitea)

yoko iñ: kartetan egin
yokoan iñ: kartetan egin

EGON

adi egon: begira egon, zain egon
agirien egon: agirian egon
albañen egon: albanean egon
altarik egon: alta egon
amarren egon, amarran on: amarran egon
aterri egon: aterri egon
begire egon: begira egon, zain egon
bistan egon: agerian egon
dardakadan egon: dardakadan egon
dariola on, daridxola egon: dariola egon
duden egon: ezbaian egon
enbarasuen egon: enbarazuan egon
esbaidxen egon: ezbaian egon
esun egon: ezagun egon
fijo egon: ziur egon
"Ni nau fijo (T.)" - (Ni ez nago ziur)
ganeska egon: gainezka egon
gosamenen egon: gozamenean egon
"Gosamenen egon siren iru nebarraba (E.)" - (Gozamenean egon ziren hiru nebarreba)
goses egon: gosez egon
gusture egon: gustura egon
igerrien egon: igarrian egon
kejas egon: kexaz egon
"Oin yausenari emoten baotzesue, solo bat, ba, surea ondo ongo da, baya ausokoak gustik eongo dire kejas (T.)" - (Orain dagozenei ematen badiezu, soro bat, ba, zurea ondo egongo da, baina auzokoak guztiak egongo dira kexaz)
ketan egon: ketan egon
konforme egon: ados egon, konforme egon
lantzar egon: lantzar egon, landu barik egon
larri on: larri egon
lo egon: lo egon
loran egon: loretan egon
majo egon: polito egon
modan egon: modan egon
muden egon: luma aldatzen egon
ona egon: ona egon
poderoso egon: poderoso egon
sobran on: sobran egon
sur egon, sur on: zuhur egon

suten egon: sutan egon
tenplen on: tenplean egon
tiren egon: tiraka egon
umedu egon: heze egon

EMON

abisu emon: abisu eman
akabu emon: amaiera eman
antoju emon: nazka eman
"Antoju emo lei girnekas (Bi.)" - (Antoju eman lezake girnakaz)
antza emon: antza eman
arduria emon: ardura eman
barriari emon: barreari eman
berbia emon: berba eman
bidia emon: bidea eman
buelta emon, buelte emon: buelta eman
deskantzu emon: deskantsua eman
garrote emon: garrote eman, egurra eman
gatza emon: gatza eman
giltze emon: giltza eman, giltzean itxi
golpe emon: kolpe eman
inportantzi emon: garrantzi eman
inyarra emon: indarra eman
ixerdi emon: izerdi eman
lepo bete emon: jipoia eman
liarra emon: legarra eman
mesea emon, mesia emon: meza eman
"An, e, mesia emon abadiak emeti doanak, ta mesia entzun te gero bakotxa al deuen lekure (L.)" - (Han, meza eman abadeak hemendik joanak, eta meza entzun eta gero bakoitza ahal duen lekura)
moskorra emon: mozkorra eman
"Ak mostoak, ak emoten deu moskorra akorde orduko (Z.)" - (Mosto hark, hark ematen du mozkorra gomutatu orduko)
pene emon: pena eman
su emon: su eman
sue emon: sua eman
"Bai, eskus yoten sireles gariak, atxiñe, eskus yoten sireles, ba txolea, txolak, a, lotxean siren, eta orduen emoten gentzean txolari sue, ta solorik solo ibiltzen gintzesan, a, sapoak eta sugoyak erre, artoak eta gariak gorde, kantetan gendun (M.)" - (Bai, eskuz jotzen zirenez gariak, antzina, eskuz jotzen zirenez, ba txola, txolak, lotzen ziren, eta orduan ematen genien txolei

sua, eta sororik soro ibiltzen ginen, zapoak eta sugeak erre, artoak eta gariak gorde, kantatzen genuen)

"Sue emon basoari txe, sarri ademas basoari sue, sarri, es baten, sarritxen! (M.)" - (Sua eman basoari eta, sarri gainera basoari sua, sarri, ez baten, sarritan!)

tasasiñoa emon: tasazioa eman
tenple emon: tenplea eman
tronbillek emon: tronbila eman, troinua eman
troñu emon: troinua eman

EDUKI

akordu euki: gomuta eduki
"Estot akorduri pere euki (Z.)" - (Ez dut gomutarik ere eduki)
alogeren euki: alogeran eduki
ardure euki: ardura eduki
bayestea euki: garo batua eduki
begiskoanes euki: begizkoa eduki
enbarasu euki: enbarazu eduki
eskolia euki, eskola euki: eskola eduki
eutzek euki: hautsak eduki, zorte ona eduki
gatxa euki: gaitza eduki
"Orrek matzak gatxa deko (G.)" - (Mahats horrek gaitza dauka)
gogoan euki: gogoan eduki
"Seuser apur be dekot gogoan (A.)" - (Zer edo zer apur bat daukat gogoan)
gomutan auki: gomutan eduki, gogoan eduki
"Ene! entzun bai, Peruna ta Mariñe, sarri entzun du baye oiñ, gomutan ba, aukitteko orrek, a, urte asko dire ta (A.)" - (Ene! entzun bai, Perurena eta Marirena, sarri entzun dugu baina orain, gomutan ba, edukitzeko horiek, urte asko dira eta)
kargu auki: kargua eduki
kontu euki: kontu eduki
leba euki: garrantzi eduki
"Baraurik obeto baya esteko lebarik (Ll.)" - (Baraurik hobeto baina ez dauka lebarik)
logure euki: logurea eduki
lo txarra euki: lo txarra eduki
memori euki: gomuta eduki
memorien auki, memoriñ euki, memoridxen euki: gogotan eduki
"Orrek atxiñekoa tire ta nok orrek auki memorien oiñ (A.)" - (Horiek antzinakoak dira eta nork horiek eduki gogoan orain)
promesa euki: promesa eduki
sor euki: zor eduki

"Antza orduko denporan, estaipa, milloren bat edo euki euen sor (E.)" - (Antza orduko sasoiari, ez dakit ba, miloiren bat edo eduki zuen zor)

HARTU

alkar artu: elkar hartu

"Bakotzak bere barrioan alkar artxean seudian (M.)" - (Bakoitzak ere auzotegian elkar hartzen zuten)

ardure artu: ardura hartu

arnasia artu: arnasa hartu

atakotzat artu: hartakotzat hartu

bañu artu: bainua hartu

beyek artu: behiak hartu, ernari lotu

buelte artu, bueltea artu: buelta hartu

burlesar artu: burlezar hartu, txitxekar hartu

errentan artu: errentan hartu

gatza artu: gatza hartu

golpe bat artu: kolpe bat hartu

kargu artu: kargu hartu

leba artu: leba hartu

leyek artu: leiak hartu

liarra artu: legarra hartu

loak artu: loak hartu

parte artu: parte hartu

sasiek artu: sasiek hartu

sue artu: sua hartu

suek artu: suak hartu

susto artu: ikara hartu

ugerrak artu: ugerrak hartu, ugertu

urek artu: urak hartu

IBILI

bille ibilli: bila ibili

drogan ibilli: drogan ibili, bihurrikerietan ibili

ekiñen ibilli: ekinean ibili

erroldan ibilli/yoan: errondan ibili

"Ointxe allege dire, geu pe yoan in bear du erroldan (T.)" - (Oraintxe ailegatu dira, geuk ere joan egin behar dugu errondan)

esken ibilli: eskean ibili

galapan ibilli: galapan ibili

jornalean ibilli: alogeran ibili

kartatan ibilli: kartetan ibili

kontus ibilli: kontuz ibili

larri ibilli: larri ibili

martxan ibilli: martxan ibili

peskan ibilli: arrantzan ibili

tratuen ibilli: tratuan ibili

IZAN

agiri ixen: ageri izan

alderako ixen: alderako izan

al ixen: ahal izan

"Al danik andiena erosi ber da (Z.)" - (Ahal denik handiena erosi behar da)

ardure ixen: ardura izan

aurrerako ixen: aurrerako izan

ayuntamintxus ixen: udalez izan

balio ixen, balidxo ixen: balio izan

"Oñ, e, nire berbeak asko esteu balio, nire berbeak gitxi balio deu oñ (Z.)" - (Orain, nire berbak asko ez du balio, nire berbak gutxi balio du orain)

"Ori sagar ona da, baya orrek esteu balio eukitako, ori de goxetik, aprobetxatako (Z.)" - (Hori sagar ona da, baina horrek ez du balio edukitzeko, hori da goizetik, aprobetxatzeko)

balioko ixen: balioko izan

bardiñ ixen: berdin izan

bat ixen: bat izan

bear ixen, ber ixen: behar izan

bero ixen: bero izan

bi ixen: bi izan, desberdinak izan

biostxarrekoa ixen: bihotz txarrekoa izan

biotz onekoa ixen: bihotz onekoa izan

billur(re) ixen, bildur(re) ixen: bildur izan

"Nik oin bere badotzet bildurre trugoyari, txeste beste asko pere bai (M.)" - (Nik orain ere badiot bildurra trumoiari, eta beste askok ere bai)

bixi ixen: bizi izan

"Neure nebarrebakas baño, nire nebarrebakas be egote nitzen, esta? baya asko ixekogas bere bai, bixi nitzen (A.)" - (Neure neba-arrebakaz baino, nire neba-arrebakaz ere egoten nintzen, ezta? baina asko izekoagaz ere bai, bizi nintzen)

egarri ixen: egarri izan

elixas ixen: elizaz izan

esiñ ixen: ezin izan

"Ostantzian ba ariñ atara biar, se burue barruti daueles, arnasia, tripe gustidxe apurtueskeron lusero an esi lei egon (M.)" - (Osterantzian ba arin atera behar, ze burua barrutik dagoenez gero, arnasa,

tripa guztia apurtuz gero luzero han ezin liteke egon)

esun ixen: ezagun izan

"Esun esun ixetan da trugoyak, a, koyu deuen arbolea (M.)" - (Ezagun ezagun izaten da trumoiak, hartu duen arbola)

falta ixen: falta izan

"Kadere falta sauen (A.)" - (Oina falta zuen)

"Agiñetan sarra ixenta bere, gu, barre bere, jentiak ein yosku iños, idi sarrak erosi Bitxuridxen ta, eta agiñeri aitxen tzeguleko barre jentiak, ba agiñek ganaduek golpe bat artute ba pere barik ego leixike, edo falta itxusela, ta gero falta itzela deko dxateko, eta ostantzian bere aitxen dako, ba adarratan igual muestra ona es, muestria orrek, e, lisu itxe otzeas adarrak eta, eta ia se, sarratute badau edo, se bost urte ingerues sarraten dakeas agiñek, baya orretarako be aitxen dako (M.)" - (Haginetan zaharra izanda ere, gu, barre ere, jendeak egin digu inoiz, idi zaharrak erosi Gasteizen eta, eta haginei aditzen diegulako barre jendeak, ba haginak ganaduak kolpe bat hartuta bat ere barik egon liteke, edo falta dituela, eta gero falta itzela dauka jateko, eta osterantzean ere aditzen zaio, ba adarretan beharbada muestra ona ez, mustra horiek, lisu egiten dizkiote adarrak eta, eta ea ze, zarratuta dagoen edo, ze bost urte ingurugaz zarratzen zaizkie haginak, baina horretarako ere aditzen zaio)

fameli ixen: familia izan, familia eduki

gause ixen: gauza izan

gause estana ixen: gauza ez dena izan

"Guk beterre esate otzegu, apur bet alan koittedue edo, personea gause estana bada, ba, ori beterre ba ta (Z.)" - (Guk beterre esaten diogu, apur bat halan koitadua edo, pertsona gauza ez dena bada, ba, hori beterre bat da)

gose ixen: gose izan

"Txarri kurrunkedaka dau, eta gose ixengo da (Z.)" - (Txerri kurrunkadaka dago, eta gose izango da)

gurau ixen: gurago izan, nahiago izan

gure ixen: gura izan

"Orrek amen egotea gure daurea (Z.)" - (Horiek hamen egotea gura dute)

"Etorri esteu in gure istan sikan (Z.)" - (Etorri ez du egin gura izaten behintzat)

"Esto kure esetan be (Z.)" - (Ez dut gura ezertan ere)

kapas ixen: gai izan

konforme ixen: ados izan

lagun ixen: lagun izan

leba ixen: ardura izan, leba izan

orri tristekoa ixen: orri tristekoa izan

"Illeda bat sartu neun or, ta, beti gaixogas, e, orri tristeko sagarra da (Z.)" - (Ilera bat sartu nuen hor, eta, beti gaixoagaz, orri tristeko sagarra da)

parrokis ixen: parrokiak izan

"Parrokis gu Mungi gara (Z.)" - (Parrokiz gu Mungia gara)

parte ixen: parte izan

uste ixen: uste izan

GAINERAKOAK

afarie yan: afaldu

agiñek serratu: haginak berdindu

aldean erabilli: aldean erabili

alperrik galdu: alperrik galdu

andan eron: andan eroan

angeruten ill: aingerutan hil, bataiatu baino lehen hil

arnasea betetu: arnasa bete

arnasea estutu: arnasa estutu

arto surittu: artoa zuritu

aspireak ekarri: azpirak ekarri, goseak ekarri

ausnarra ekarri: hausnarra ekarri

autze atara: hautsak atera, jipoitu

"Es, entzun dot, e, katikarrakas estirela arregletan ixen mungiararak, beti, autze atarate otzela (E.)" - (Ez, entzun dut, gatikarrakaz ez direla konpontzen izan mungiararak, beti, hautsa ateratzen ziotela)

begik epeldu, begiek epeldu: begiak epeldu

"Begik epelduten asi dastes (Bi.)" - (Begiak epeltzen hasi zaizkit)

beskari yan: bazkaldu

bigarrenes eskondu: bigarrenez ezkondu

"Gero bigarrenes eskondu san (E.)" - (Gero bigarrenez ezkondu zen)

biosganean lotu: bihotz gainean lotu, larri egon

"Biosganen lotu dat (Z.)" - (Bihozgainean lotu zait)

bisdes esetu: ikusita ezagutu
bixerra kendu: bizarra kendu
briskea yo, briske yo: azpia jo
bueltan etorri: bueltan etorri, itzuli
burus ikesi: buruz ikasi
burure etorri: burura etorri
burure yo: burura jo
enbarasuti kendu: enbarazutik kendu
eperditti bota: ipurditik bota
erara esan: erara esan
ernari lotu: ernari lotu
errapera bota: errapera bota
errope yo, erropa dxo: erropa jo
eser esean lotu: ezer ezean lotu
esetz ondu: ezetz ondu, idi-probetan esaten da portura egiteko
eskontzea imiñi: ezkontza atondu
esnia gorde, esnea gorde: esnea gorde, eratsikeran behiak bat-batean esnea ez ematean esaten da
"Itxi gure es igual, txala badeko, igual itxi gure es erasten, iños botata badau errapera, ta gero kendu txala, eta, espadako emoten, orduen gorde igual itxen deu, emon gure es (M.)" - (Utzi gura ez beharbada, txahala badauka, beharbada utzi gura ez erasten, inoiz botata badago errapera, eta gero kendu txahala, eta, ez bazaio ematen, orduan gorde beharbada egiten du, eman gura ez)
"Esnea gorde, beyek emon gure es, txala badeko, ta txala be akostunbreta badau, su erasten basoas solteu gure es, ta esiñ eratzi, esiñ eratzi, tiretu te tiretu, esnea gorde (Ll)" - (Esnea gorde, behiak eman gura ez, txahala badauka, eta txahala ere ekanduta badago, zu erasten bazoaz soltatu gura ez, eta ezin eratsi, ezin eratsi, tiratu eta tiratu, esnea gorde)
esneak sabaldu: esneak zabaldu
huri ekarri: euria ekarri
eusnarra ekarri: hausnarra ekarri
fue yo: fua bota, azpikoa bota karta jokoan
gari yo, garik yo: garia jo
"Txorixoa pai baya, lodiek, buskentzan modukoak, t'aik eitten siren, ba, alan, a, kurbiagas, eta gari yotetako (Z.)" - (Txorizoak bai baina, lodiak, buzkantzen modukoak, eta haiek egiten

ziren ba, halan, bihurguneagaz, eta gari jotzeetarako)
illedan bota: ilaran bota
kartak erabagi: kartak erabaki, kartak nahastu
kartea yo: karta jo, karta jokoan karta bat botatzea
konorta etorri: konortea etorri
kontrako lekuti yon: kontrako zulutik joan
"Kontrako lekuti yon dako (Bi.)" - (Kontrako lekutik joan zaio)
kontrara esan: kontrara esan
kontu atara: kontu atera
"Sille paño bere otzarak, lenautik, se gure aittitte bere emen, e, ibil sen ta aitte ba, il sala bere ogetamar urte dires ta larogei urtegas, emen yayo san, asiske kontu atara nosi tauen emen au, e, au bear itte au (E.)" - (Aulkiak baino ere otzarak, lehenagotik, ze gure aitaita ere hemen, ibili zen eta aita ba, hil zela ere hogeita hamar urte dira eta larogei urtegaz, hemen jaio zen, halandaze kontu atera noiztik dagoen hemen hau, hau behar egiteau)
kontu eskatu: kontu eskatu
kuñera ebai: zirira ebaki, talusean ebaki
lantzar itxi: lantzar utzi
lapiko ondu: lapikoa ondu
"Lapikoa ondutea da, ba urdie, txorixoa, sayeskie, t'orrek bota, lapikoari, tte ondu (Z.)" - (Lapikoa ondutzea da, ba urdaia, txorizoa, saiheskia, eta horiek bota, lapikoari, eta ondu)
martxan bota: martxan bota
memorire ekarri: gomutara ekarri
mesea atara: meza atera
"Mesak atarateko sera ixen san arrie (Ll.)" - (Mezak ateratzeko zera izan zen harria)
mesea entzun: meza entzun
mokil yo: mokil jo
nagiek atara: nagiak atera
ondo esan: ondo esan
paradea imiñi: parada ipini, zita ipini
preso koyu: preso hartu
senara etorri: senera etorri
satorrak yo, satorrak dxo: satorrak jo
satzak atara: satsak atera
serrara ebai: zerrara ebaki
seruketan saldu: lekan saldu
soñu yo: soinua jo
surrut edan: zurrut edan
talo yo: taloa jo

taluse(a)n ebai: talusean ebaki, aldeskin ebaki

"Talusen ebatea, esta besterik, e, osea, berorrek esan deun moduen bandea kasureko, len nik esan dotena allegeu esta bi bat eitteko talusean ebai kuñera, kuñera ebai, triangulo formara, ta biek alkarren ganean ein tte biek bat eiñ (Ll.)" - (Talusean ebakitzea, ez da besterik, hau da, berorrek esan duen moduan banda kasurako, lehen nik esan dudana ailegatu ezta bi bat egiteko talusean ebaki zirira, zirira ebaki, hiruki itxurara, eta biak elkarren ganean egin eta biek bat egin)

tirora eraiñ: tirora erein

"Es arto tirora, eraitten ixen da, oiñ eraitten ixen da baya len artorik tirora esan kasik aren bere eraitten (Z.)" - (Ez arto tirora, ereiten izan da, orain ereiten izan da baina lehen artorik tirora ez zen kasik arean ere ereiten)

txala iñ: txahalaz erditu

txarto esan: txarto esan

txispe koyu: txolindu

txistu yo, txistue dxo: txistu jo

txitxek atara: txitak atera

txorkora eraiñ: txorkora erein

"Txorkora bere bai eraitten san, atxurreas eraitten san, atxurreas txorko eiñ, eraiñ, eta tapau gero bera tapau eitten san (Z.)" - (Txorkora ere bai ereiten zen, aitzurragaz ereiten zen, aitzurragaz txorko egin, erein eta tapatu gero bera tapatu egiten zen)

ugerra ekarri: ugerra edo gorrina ekarri

umea eraiñ: umea eragin

23.3. PARTIZIPIO DEKLINATUAK

absolutua:

"Badakitt nondik sartu (Z.)" - (Badakit nondik sartu)

"Damutute nau belu etorrie (Z.)" - (Damututa nago belu etorria)

"Damutute nau dana yan esana (Z.)" - (Damututa nago dena yan ezana)

"Badakitt ser esan (Z.)" - (Badakit zer esan)
(Hori geuk eiñe da ori bere (E.))" - (Hori geuk egina da hori ere)

partitiboa:

"Estekosu setan yoanik (Z.)" - (Ez daukazu zertan joanik)

"Estekosu setan esanik (Z.)" - (Ez daukazu zertan esanik)

instrumentala:

"Gero pasetan da ba, urteak yoan etorri, orreri gauzeri estake inportantzirik emon, eta yoan dire galdues (E.)" - (Gero pasatzen da ba, urteak joan etorri, gauza horiei ez zaie garrantzirik eman, eta joan dira galduz)

eskeron, eskeron:

"Beiñ asieskeron akaba iñ bearko da (Z.)" - (Behin hasiz gero amaitu egin beharko da)

"Asala kendute san orrotzagaz, ba ekiñeskero ba (M.)" - (Azala kentzen zen orratzagaz, ba ekinez gero ba)

"An orrotzagaz imiñieskeroan es, ta sayegas olan, a, almudetxu beten moduen, olan imintxen ei seudean (M.)" - (Han orratzagaz ipiniz gero ez, eta zahiagaz holan, burrukotxo baten moduan, holan ipintzen ei zuten)

"Beiñ, a, febrero paseueskeroan, andik gora, eitten siren (Z.)" - (Behin, zezeila pasatuz gero, handik gora, egiten ziren)

"Trugoyak dxoeskeron, peligru egongo san (At.)" - (Trumoiak joz gero, arrisku egongo zen)

"Sakatu eitxen dotzenian orre pa, olan paraten dire en jeneral bide istue edo dauen lekuen, ostantzian normalian ibilli eskeronen ganadue esta olan paretan (M.)" - (Sakatu egiten dietenean horiek ba, holan paratzen dira gehienetan bide estua edo dagoen lekuan, osterantzean normalean ibiliz gero ganadua ez da holan paratzen)

leku genitiboa:

"Amen dau suk eiñekoa (Z.)" - (Hamen dago zuk eginekua)

"Orrek gixonak ekarrikua desaparesidu in ye (Z.)" - (Gizon horrek ekarrikua desagertu egin da)

"Suk ikusiko lango gastai bet erosi dot (Z.)"
- (Zuk ikusiko lako gastai bat erosi dut)
"Bilbotik ekarrikoa gordeta dau (Z.)" -
(Bilbotik ekarrikoa gordeta dago)

soziatiboa:

"Aurok pentzau eiñas bakarrik, bat ill ei
littike (E.)" - (Eurek pentsatu eginagaz
bakarrik, bat hil egin liteke)

23.4. PARTIZIPIOEN GEHIGARRIAK

ala:

"Koyu ala yateittus (Z.)" - (Hartu ahala
jaten ditu)

arren:

"Iru kuartillu edan arren eseutzen eraiñik
eitten (Ll)" - (Hiru kuartilu edan arren
ez zion eraginik egiten)

"Kontesta beres, yo arren bentanea, segun
selau konfiantza dauen, baya ni
nobiegana sarri yoa nas (E.)" -
(Erantzun ere ez, jo arren leihoa, segun
zelako konfiantza dagoen, baina ni
andregaiagana sarri joan naiz)

"Emen barruti ona badau, an ardiek yaten
on arren bestera adi ongo san pastorea
(Z.)" - (Hemen barruti ona badago, han
ardiak jaten egon arren bestera adi
egongo zen artzaina)

artean, artian, arten:

"Etorri arten emen eongo gara (Z.)" -
(Etorri arte hemen egongo gara)

"Akabe arten itxedongo datzu (Z.)" -
(Amaitu arte itxarongo zaizu)

"Neu bai ibil nas arotzien, bai bost urte
soldadu yoan artean ei nendusin (E.)" -
(Neu bai ibili naiz aroztegian, bai bost
urte soldadu joan arte egin nituen)

"Bigantxia bedxe ixen artian, urte bi
badekos bere, bigantxia esaten du (M.)"
- (Begantxa behia izan arte, urte bi
badauzka ere, begantxa esaten dugu)

baño ariñao/ariñau:

"Bai, etorri baño ariñao asten da olloa
eskapan (L.)" - (Bai, etorri baino arinago
hasten da oiloa eskapan)

"Ori sutia garbitxute imiñi, geubian oira
dxoan baño ariñau angeruek dxantzan ein
didxiin (L.)" - (Hori suetea garbituta ipini,
gauean ohera joan baino arinago
aingeruek dantzan egin dezaten)

baño lelau:

"Yan baño lelau eskuek garbittu ixus (Z.)" -
(Jan baino lehenago eskuak garbi itzazu)

"Ikusi baño lelau allegaten bada ara libre
(A.)" - (Ikusi baino lehenago ailegatzin
bada hara libre)

"A allega baño lelau beran lekure koyiten
basaun marro (A.)" - (Hura ailegatu baino
lehenago beraren lekura hartzen bazuen
marro)

barik:

"Ori eroaixu apurtu barik (Z.)" - (Hori eroan
ezazu apurtu barik)

"Iñusentekeriek esan barik ixilik obeto egongo
sara (Z.)" - (Inuzentekeriak esan barik isilik
hobeto egongo zara)

bearrean:

"Geuk iñ bearrean ohea da erosi (Z.)" - (Geuk
egin beharrean hobea da erosi)

"Etzean yan bearrean kalera yoango gara
(Z.)" - (Etzean jan beharrean kalera joango
gara)

"Gorantza yoan bearrean koyuxu berantza
(Z.)" - (Gorantz joan beharrean har ezazu
beherantz)

bearreko lekuen:

"Emeti etor bearreko lekuen gero atzera
yoaneko lekuti etorte san (E.)" -
(Hemendik etorri beharrean gero atzera
joaneko lekutik etortzen zen)

esean:

"Gero segidu esean astu itten dire onek (Ll.)"
- (Gero segitu ezear ahaztu egiten dira
hauek)

ezagutu ditut ostean, hortik barrura
gehiago ez dut egin)

esik:

"Jainkoak bereinketu deyela esan esik, ba
estala ona (M.)" - (Jangoikoak bedeinka
dezala esan ezik, ba ez dela ona)

"Onenak diputasiñok eukitten sittusen ta
andik ekarri esik, ba esegon serik (Z.)" -
(Onenak aldundiak edukitzen zituen eta
handik ekarri ezik, ba ez zegoen zerik)

"Peligro ote san orretan, e, baserrire
yoatea, se baserrien, e, esetu esik
ingerue ba, txixe posora (K.)" -
(Arriskua egoten zen horretan,
baserrira joatea, ze baserrian, ezagutu
ezik ingurua ba, txiza-putzura)

eurrean:

"Ta etorte san etzera, ba euntzegaittik edo
olan, e, yayo eurrean edo ta, umia
negar ta negar (Ll.)" - (Eta etortzen zen
etxera, ba ahuntzengatik edo holan, jaio
aurrean edo eta, umea negar eta negar)

ordureko:

"Allegau ordureko sartu de oyan (Z.)" -
(Ailegatu ordurako sartu da ohean)

"Etorri ordureko yoan san oira (Z.)" -
(Etorri ordurako joan zen ohera)

"Akaba ordureko apurtu da (Z.)" - (Amaitu
ordurako apurtu da)

"Gu yoan ordureko yoan siren (Z.)" - (Gu
joan ordurako joan ziren)

ostean

"Amen euki neuen erasona eintte, eta gero,
ba serak, imiñi osten, seraas, e, mendea
gogorragas, eta, ori, onek, e,
pratikanteak imiñi osten menda bat
gogorra (Ll.)" - (Hamen eduki nuen
erasoarena eginda, eta gero, ba zerak,
ipini ostean, zeragaz, benda
gogorragaz, eta, hori, honek,
pratikanteak ipini zidan benda bat
gogorra)

"Ortxe akaburengoak, nik esetu oas
ostean, orti barrure geyau estot eiñ
(Ll.)" - (Hortxe azkenengoak, nik

ta:

"Ori apurtute dau (Z.)" - (Hori apurtuta dago)

"Ori esanta dau (Z.)" - (Hori esanda dago)

"Entzunte dekot ori (Z.)" - (Entzunda daukat
hori)

"Posi nau seu ikusitte (Z.)" - (Pozik nago zeu
ikusita)

ta bere:

"Agiñetan sarra ixenta bere, gu, barre bere,
jentiak ein yosku iños, idi sarrak erosi
Bitxuridxen ta, eta agiñeri aitxen tzeguleko
barre jentiak (M.)" - (Haginetan zaharra
izanda ere, gu, barre ere, jendeak egin
digu inoiz, idi zaharrak erosi Gasteizen
eta, eta haginei aditzen diegulako barre
jendeak)

"Ak txuletea atarata bere, ak esteu gure
txuletarik (M.)" - (Hark txuleta aterata ere,
hark ez du gura txuletarik)

ta beres:

"Asike or esteure euki guri euskerarik
kentxerik gure ixenta beres (A.)" -
(Halandaze hor ez dute eduki guri
euskararik kentzerik gura izanda ere ez)

"Ni seña ixenas, oñikarren banas, bai baya
sarra ixenta bere, a seña da (Bi.)" - (Ni
seina izan naiz, oraindinokarren banaiz,
bai baina zaharra izanda ere, hura sein
da)

ta gero:

"Etzeko arrutzek, e, txitxek atarateko imiñi tte
gero kolore bardiñe taus beti etzian (A.)" -
(Etxeko arrautzak, txitak ateratzeko ipini
eta gero kolore berdinak dagoz beti
etxean)

"Urtu te gero an lotxen da ba, gogortute,
puxiken barruen (La.)" - (Urtu eta gero
han lotzen da ba, gogortuta, puxikaren
barruan)

ta laster:

"Asaroa da, ba eurie, erain tte laster antzean, a, asaro badator esaten da, erain tte, ba euri itten deueanean (Z.)" - (Azaroa da, ba euria, erein eta laster antzean, azaro badator esaten da, erein eta, ba euri egiten duenean)

"Len edoselan bere, ba umeak, e, yayo ta laster batiretuten siren (K.)" - (Lehen edozelan ere, ba umeak, jaio eta laster bataiatzen ziren)

ta ostean:

"Yan ta ostean etzera yoango gara (Z.)" - (Jan eta ostean etxera joango gara)

"Bear in tte ostean yango due (Z.)" - (Behar egin eta ostean jango dugu)

"Basotik ibil tte ostean afaritten yoan gara (Z.)" - (Basotik ibili eta ostean afaltzen joan gara)

aunke:

"Len guri Mungi asau eritxitte soksun, e? aunke oñes ibilli, asau (A.)" - (Lehen guri Mungia asago erizten zigun, e? oinez ibili arren, asago)

23.5. ADITZ IZENAK

-keran:

"Urtekeran atea ixii (Z.)" - (Irtekeran atea itxi)

"Irikeran apurtu in yat giltze (Z.)" - (Irekikeran apurtu egin zait giltza)

"Ixikeran apurtu in yat giltze (Z.)" - (Itxikeran apurtu egin zait giltza)

"Etorkeran ikusi saittut (Z.)" - (Etorkeran ikusi zaitut)

"Sue bistukeran erre in ye (Z.)" - (Sua biztukeran erre egin da)

-tea:

"Ibili esittea txarra da (Z.)" - (Ez ibiltzea txarra da)

"Ori esatea esta ona (Z.)" - (Hori esatea ez da ona)

"Basoan ibilttea ona da (Z.)" - (Basoan ibiltzea ona da)

"Umeari olgetea gustaten dakea (Z.)" - (Umeari olgatzea gustatzen zaie)

-tiak:

"Ondo ikusi esitteak buruko miñe emoten deu (Z.)" - (Ondo ez ikusteak buruko mina ematen du)

"Asko edateak kalte i leixu (Z.)" - (Asko edateak kalte egin liezazuke)

-tiari:

"Orrek itxi dotzo fumeteari (Z.)" - (Horrek utzi dio erretzeari)

-terik:

"Eseuen pentzetan eskontarik (E.)" - (Ez zuen pentsatzen ezkontzerik)

"Eseuden gure ixetan, agas dabill tte orregas dabill yakitterik (E.)" - (Ez zuten gura izaten, haregaz dabil eta horregaz dabil jakitterik)

"A bueltaterik esegoan ak ein berreun utzittu, barrien kargeu (Ll.)" - (Hura bueltatzerik ez zegoen, hark egin behar zuen hustu, berriro kargatu)

-teagas:

"Damututen nas belu etorteagas (Z.)" - (Damutzen naiz belu etortzeagaz)

"Posik nau amen egoteagas (Z.)" - (Pozik nago hamen egoteagaz)

"Egie esateagas naikoa da (Z.)" - (Egia esateagaz nahikoa da)

"Abrosidute nau itxedoteagas (Z.)" - (Abroziduta nago itxaroteagaz)

"Bedarrak ebaitteagas kantzata nau (Z.)" - (Belarrak ebakitzeagaz nekatuta nago)

-teagaittik:

"Ori itteudean, satza eitteagaittik, lur satza eitteagaittik (Ll.)" - (Hori egiten zuten, satsa egiteagatik)

-tearren

"Afarie yan esittearren yoan in dire (Z.)" - (Afaria ez jatearren joan egin dira)

"Yausi in ye ariñ ibilttearren (Z.)" - (Jausi egin da arin ibiltzearren)

"Kafea artutearren lori pere estot iñ (Z.)" - (Kafea hartzearren lorik ere ez dut egin)

"Dibujo eitxearren batzuk eitxen tzias orrek (L.)" - (Marrazki egitearren batzuk egiten dizkiote horiek)

"Len, e, naboa ereitteko imintte san, e, batzuk igual surteko autze bere bai, abonoa gasta esittearren (E.)" - (Lehen, arbia ereiteko ipintzen zan, batzuk beharbada surteko hautsa bere bai, ongarria gastatu ezitearren)

-ten:

"Orrek kantetan daki (Z.)" - (Horrek kantatzen daki)

"Ori gas dau siñestan (Z.)" - (Hori gaitz dago sinesten)

"Lagundu in tzut akabetan (Z.)" - (Lagundu egin dizut amaitzen)

"Ostuten koyu deurea (Z.)" - (Osten hartu dute)

"Afaritten lotu da (Z.)" - (Afaltzen lotu da)

"Etzera noa yaten (Z.)" - (Etxera noa jaten)

-teko:

"Berdurea yaten dot lodittu esitteko (Z.)" - (Berdura jaten dut ez loditzeko)

"Amak esan dau emen egoteko (Z.)" - (Amak esan du hemen egoteko)

"Akorda nas erosteko (Z.)" - (Gomutatu naiz erosteko)

"Ori etorteko dau (Z.)" - (Hori etortzeko dago)

"Esteko yateko ganarik (Z.)" - (Ez dauka jateko gogorik)

-teko lekuen:

"Seuri mille peseta ixetako lekuen, iru mille peseta emongo atzus (E.)" - (Zeuri mila pezeta izateko lekuan, hiru mila pezeta emango zaizkizu)

"Atxiñe lumia egote san ganian, oin mantia egoteko lekuen, lumia, ta a ba funde baten moduen sartute san (L.)" - (Antzina luma egoten zen gainean, orain manta egoteko lekuan, luma, eta hura ba azal baten moduan sartzen zen)

-teko moduen

"Neu o nitzen ori itteko moduen (E.)" - (Neu egon nintzen hori egiteko moduan)

-tekotan:

"Silloa botatekoan, parean, bustiñe imintte akon emen (Ll)" - (Gainean, zuloa botatzekoan, parean, buztina ipintzen zitzaion hemen)

"Eittekotan, ametik betik, betiko erri bideti ekarrixu eta eskiñetik gora eroixu te solo osorik itxixu (Ll.)" - (Egitekotan, hamendik behetik, betiko herri bidetik ekar ezazu eta eskinatik gora eroan ezazu eta soro osorik utz ezazu)

-tes:

"Goyeta Trobika da ixen eittes (T.)" - (Goieta Trobika da izan egitez)

24. POSPOSIZIOAK

Atal honetan, daukaten garratzia gogoan erabilita, jaso ditugun posposizioak eta euron erabileren esaldi eredu batzuk ematen ditugu.

alboan: alboan

"Nik neure etze alboan len baño ainbet txori geyau, ta ainbet abi geyau te ori ikusten dot (G.)" - (Nik neure etxe alboan lehen baino hainbat txori gehiago, eta hainbat habia gehiago eta hori ikusten dut)

alden, aldean: aldean

alderako: alderako

"Ori sera, dausen lekuen, denporadarako dausen lekuen ori, gorta bat itxi baotzea, satzan alderako, an eitteittusen ille bi edo iru, se satz asko itteuden, se trillue ta bota bear dakea, ta satz asko itteuden, ori bai satzan alderako (T.)" - (Hori zera, dagozen lekuan, denboraldirako dagozen lekuan hori, korta bat utzi badiete, satsaren alderako, han egiten zituzten hil bi edo hiru, ze sats asko egiten zuten, ze trilueta bota behar zaie, eta sats asko egiten zuten, hori bai satsaren alderako)

antza: antza

"Anbotoko señoren antza deko orrek (M.)"
- (Anbotoko andrearen antza dauka horrek)

antzean, antzen: antzean

"Saldidxe pere antzean eingo deu (A.)"
- (Zaldiak ere antzean egingo du)

antzekoa: antzekoa

"Ori de sure antzekoa (Z.)" - (Hori da zure antzekoa)

"Ori aisten antzekoa da (Z.)" - (Hori ahiztaren antzekoa da)

antzera: antzera

"Erri ganaduen antzeran, katanarra ya beste klase bat san (Ll)" - (Herri ganaduaren antzera, katanarra ja beste mota bat zen)

"Sulderran antzerara, baya, sulderra, ya beste tipo bat edo beste, klase bat ixen eittes, baya berak urtetan deu birekatxak, e, ya barruen agarreute asurrean balego les (Ll.)" - (Zuldarraren antzera, baina, zuldarra, ja beste era bat edo beste, mota bat izan egitez, baina berak irteten du birekaitzak, ja barruan oratuta hezurrean balego legez)

artean, arten: arte, artean

"Iruretararten egon gara (Z.)" - (Hiruretara arte egon gara)

"Bion arten in yu bearra (Z.)" - (Bion artean egingo dugu beharra)

aspi: azpia

"Brusen aspian txalekoa eroateudean, mangabako txalekoa, mangabako txalekoa ixeta san ori, nik esetu dot olan (M.)" - (Brusaren aspian txalekoa eroaten zuten, mahukabako txalekoa, mahukabako txalekoa izaten zen hori, nik ezagutu dut holan)

baño: 1. gonbaratiboetan berdintasuna adierazteko erabiltzen da. 2. baizik, baino

"Ori baño andie sara (Z.)" - (Hori baino handia zara)

"Su sara ni baño gastea (Z.)" - (Zu zara ni baino gaztea)

"Ori esta berdea asule baño (Z.)" - (Hori ez da berdea azula baino)

"Ori esta amekoa gernikekoa baño (Z.)" - (Hori ez da hamengoa Gernikakoa baino)

"Estoas ekarri bi baño (Z.)" - (Ez ditut ekarri bi baino)

"Etzean estau ama baño (Z.)" - (Etxean ez dago ama baino)

barik: barik

"Diru barik yoan dire (Z.)" - (Diru barik joan dira)

barru: barru

"Iru egun barru etorko da (Z.)" - (Hiru egun barru etorriko da)

begire: begira, zain

beste: beste

"Nire beste diru dekosu (Z.)" - (Nire beste diru daukazu)

"Orrek yan dau anayen beste (Z.)" - (Horrek jan du anaiaren beste)

"Oingo beste esan egoten (Z.)" - (Oraingo beste ez zen egoten)

bestekoa: bestekoa, gainakoa

"Seure buruen besteko suloa bakarri tekonean, ta andik alderditxi estutu gero a, ta gero kendu sestotxue (L.)" - (Zeure buruaren besteko zuloa bakarrik daukanean, eta handik alderditik estutu gero hura, eta gero kendu zarantxoa)

bille: bila

"Aitte bille yoan dire (Z.)" - (Aita bila joan dira)

"Su sera bille satos, esta? (Z.)" - (Zu zera bila zatoz, ezta?)

eske: eske

estiloko: erakoa

"Ori dau neurrire intte baya ostantzean, e, ba, normalean orren estilokoa astotzarea ixeten da, astoak albo banatan eroateusen estilokoa (E.)" - (Hori dago neurrira eginda baina osterantzean, ba, normalean horren erakoa astotzara izaten da, astoak albo banatan eroaten zituen erakoa)

faltan: faltan

ganean, ganen, ganian: gainean

"Orren ganean in du berba (Z.)" - (Horren gainean egin dugu berba)

grasik: eskerrak

"Grasik nebeari koyu gendun trenna (Z.)" - (Eskerrak nebari hartu genuen trenna)

ixen esean: izan ezean

"Danak etor dire ori ixen esean (Z.)" - (Denak etorri dira hori izan ezean)

"Danak yoan siren nebea ixen esean (Z.)" - (Denak joan ziren neba izan ezean)

klasean: eran

"Urdille, ba se esango tzut, onexen tamañu ingerukoa ixetan da, eta iri aulan, eta, egosi, tte kalloan klasean imintten da (Z.)" - (Urdaila, ba ze esango dizut, honexen tamainu ingurukoa izaten da, eta ireki haolan, eta, egosi, eta kailoaren erara ipintzen da)

kontra: kontra

"Orrek beran kontra daus (Z.)" - (Horiek beraren kontra dagoz)

"A etzia dau, basoan kontra kontra kontratxuen (At.)" - (Etxe hura dago, basoaren kontra-kontra kontratxoan)

kontrara: kontrara

"Barruko alderritik eukitten dau arek, ba, erruedea itzue danean, aren kontrara beste bat, aren besteak, e, olak, onetara badires, onetara, arek kontrara (E.)" - (Barruko alderditik edukitzen du hark, ba, gurpil itsua denean, haren kontrara beste bat, haren besteak, oholak, honetara badira, honetara, haiek kontrara)

konture: kontura

"Orrek aman konture bixi dire (Z.)" - (Horiek amaren lepotik bizi dira)

langoa: lakoa, langoa

"Ni sure langoa nas (Z.)" - (Ni zure lakoa naiz)

"Ori aitte langoa da (Z.)" - (Hori aita lakoa da)

laseko: laseko

lekuen: lekuan, ordez

"Galtzardien lekuen, a batxean suren, a, kaderan, eta gero imiñi abarkea (Z.)" - (Galtzerdiaren lekuan, hura batzen zuten, oinean, eta gero ipini abarka)

les: legez, lez

"Sure les in yot bearra (Z.)" - (Zure legez egin dut beharra)

moduen: moduan

"Au ein yot seure moduen (Z.)" - (Hau egin dut zeure moduan)

"Orren moduen in yot au (Z.)" - (Horren moduan egin dut hau)

modukoa: modukoa

"Ni nas sure modukoa (Z.)" - (Ni naiz zure modukoa)

modure: modura

"Or albatean usate san ba, tranka bat, egur beteas, korredereas, ate bateti bestera pasau, aurren a, uekutxuakas,

bixegra modure, esta? (K.)" - (Hor albatean usatzen zen ba, tranka bat, egur bateagaz, korrederagaz, ate batetik bestera pasatu, aurrean, hutsunetxoakaz, bisagra modura, ezta?)

ondo: ondoa

"Arbolak eukitxen gendusen, a, etzean ondoan ba (M.)" - (Arbolak edukitzen genituen, etxearen ondoan ba)

ordeas, ordes: ordez

"Lengusuen ordeas nebea etor san (Z.)" - (Lehengusuaren ordeaz neba etorri zen)

"Dultzaiñerue bai esetu ot, dultzaiñeas, e, ba, lenau erremeridxetan, e, ba tanbolitxeruen ordes, e, esetu ot ori (L.)" - (Dultzainerua bai ezagutu dut, dultzainagaz, ba, lehenago erromerietan, ba danbolinteruaren ordeaz, ezagutu dut hori)

parean: parean

"Bantzue esate aken, e, gero imintte aken, e, batzuk burriñeas eukitteuden, gurdie erruedean parean, ba ganean kargetan dosunean a istutu esteyen (E.)" - (Bantzua esaten zitzairen, gero ipintzen zitzairen, batzuek burdinagaz edukitzen zuten, gurdia gurpilaren parean, ba ganean kargatzen duzunean hura estu ez dezan)

"Andik, a, Billa Luisan paretik Palado t'orrek Trobika siren danak edoselan bere (T.)" - (Handik, Villa Luisa-ren paretik Palado eta horiek Trobika ziren denak edozelan ere)

partes: partez

pentzun: ustetan, pentsudan

porasus: poderioz

"Indisiñoan porasus te sostenittan dakea (Ll)" - (Injekzioen poderioz eta eusten zaie)

susuen: zuzuan

truke, trukes: truke

"Ainbeste bear eiñ, e? satzan truke (Z.)" - (Hainbeste behar egin, e? satsaren truke)

"Ori bai one tiñoa sera, satzan trukes, iru illebetea, egon, oin yatekoa euren konture ixengo san (T.)" - (Hori bai honek dinoena zera, satsaren truke, hiru hilabetea, egon, orain jatekoa euren kontura izango zen)

25. HOTS BERBAK

Atal honetan jaso ditugun hots berbak biltzen dira. Berbak sarri askotan agertzen izan

zaizkigu zarata edo hots zehatz batzuk irudikatu guran; egoerarik egoera eta hitzunik hitzun desberdinak izan daitezkeen arren, interesgarri eritzi diogu agertu direnak hemen ipintzeari, har bedi kontutan gehienetan esklamazio modura jaso ditugula.

broun!: trumoiaren zarata
eufa: eufa, gari jotzean elkarri adore emateko egiten zen hots berba
grak-grak: artosapa zigarroa ebakitzeko atzazalakaz ebakitzearen zarata
ki: oiloen zarata
klak: etenaren zarata
klask: errama bat haustearen zarata
parra parra: parra-parra
paute-paute: erretzearen zarata
pla-pla: txotzaren jausikeraren zarata
plasta-plasta: plasta-plasta
pri-pri: txakolinak irakikeran egiten duen zarata
praa: tabakoa zigarrotik jaustearen onomatopeia
pio-pio: antzarren zarata
pirriii: txorien hegazkadaren onomatopeia
poun!: jaustearen onomatopeia
pounba: jaustearen onomatopeia
puf: puf, nekea adierazteko hots berba
ra!: arin egiten denaren zarata
ranka: irinaren zarata errotan
ta!: kolpe txikerraren zarata
taka!: bat-batean ematen den kolpearen zarata
tin-tan: tin-tan
traka: ebakitzearen hotsa
tran-tran: txokoloen zarata
trast!: trast
txan-txan, tan-tan: kanpaien hotsa
txiki-txaka: txiki-txaka
txilin-txilin: txilin-txilin
yeu!: txondorraren zulotik suak irtetearen onomatopeia
yi: oineztuak jaustean egiten duen zarata

26. ESKLAMAZIOAK

Gure korpusean jaso ditugun esklamazioak eta, hainbat kasutan, euren erabileraren

testuinguruak ere batzen ditugu atal honetan.

aiko: hara, hara non
ara: hara
aufa: aufa
bai ba: bai ba
bai jaune: bai jauna
barres: barriz, barrez
binke: jakina
ene, enei: enei
ene bada: ene bada
ene jangoikoa: ene jangoikoa
fijo: ziur
"Orrek beti ibil dire saldiegas ta, orrek fijo dakie burriñoa ta selan (T.)" - (Horiek beti ibili dira zaldiaz eta, horiek fijo dakite burriñoa eta zelan)
garrote: garrote, latigo, jo eta ke
gero: gero
grasiek, grasidxe: eskerrak
ia ba: ea ba
jesus maria: Jesus Maria
jesus maria ta jose, josu, maria ta jose: Jesus Maria ta Jose
ka: bai zara
kaka: kaka
"Iñok etxok bedarrak ebai gure, neu sarra ei nok, umeak etxerek ein gure, ta kaka! antxe! (M.)" - (Inork ez ditik belarrak ebaki gura, neu zaharra egin nauk, umeek ez ditek egin gura, ta kaka! hantxe!)
karo : jakina
keba, kia: bai zera
kittu: kito
klaro, karo: jakina
kontxo: kontxo
kristona: kristorena
latigo, latigu: latigu
listo: listo
majo: majo
makala: makala
"Gorpue paseskeron deretxoa koiten dala ta, geuk esan gendun bai, akordu eukoeuden makala! (T.)" - (Gorpua pasatuz gero eskubidea hartzen dela eta, geuk esan genuen bai, gomuta edukiko zuten makala!)
ño: ño
oba: hobe, pentsatu ere ez

"Es, es, es, oba! beti bat es! (L.)" - (Ez, ez, ez, hobe! beti bat ez!)

oba es: hobe ez, jakina

"Bai, oba es! bai sulo eitxen bere arbolan, bai makiñe bat, okillek, politxe tire okillek (M.)" - (Bai, hobe ez! bai zulo egiten ere arbolan, bai makina bat, okilak, politak dira okilak)

plaust: plaust, jausikeran esaten da

santisimie: santisima

seguru: ziur

sentalle: zentaila

sikeran: gutxienez

siku: siku, zerraldo, ziplo

tire: tira

tire ba: tira ba

uxela: hobe

27. ESAKUNAK

Atal honetan adjektibo eta aditzondo esakunak aurkeztu ostean, jaso ditugun esaldi eginak eta atsotitzak batuko ditugu.

ADJEKTIBO ETA ADITZONDO ESAKUNAK

alau beten: halako baten

ankas bera: hankaz behera

ankas gora: hankaz gora

apur be gora bera: apur bat gora behera

apurke-apurke: apurka-apurka

"Ba itte seuren, urune imintte seuren, olan, sertxu bet, biribil bet eintte, eta erdi itxitte seuren, ba utzik, ta ara etxate seuren ure apurke apurke, ara erdire, eta a ure, eta gatza apur bet, eta yote siren apurke apurke (A.)" - (Ba egiten zuten, irina ipintzen zuten, holan, zertxo bat, biribil bat eginda, eta erdia uzten zuten, ba hutsik, eta hara botatzen zuten ura apurka-apurka, hara erdira, eta ur hura, eta gatza apur bat, eta joaten ziren apurka-apurka)

arteak artu esiñik: arteak hartu ezinik

asko bere asko: asko ere asko

"Bai, gari asko bere asko eraitte san (Z.)" - (Bai, gari asko ere asko ereiten zen)

asko dxota: asko jota

atzes aurrera: atzez aurrera

aurrez aurre: aurrez-aurre

badaespadan: badaezpada

banaka banaka: banaka-banaka

banan-banan: banan-banan

"Amar badaus igual erroldan yoanta, igual banan banan urtetan deude (E.)" - (Hamar badagoz beharbada errondan joanda, beharbada banan-banan irteten dute)

bardiñ antzean: berdin antzean

barrabas otzean: barrasbas hotsean

"Gero entere sanean, a, barrabas otzean pare san, a, enbrea (E.)" - (Gero enteratu zenean, barrabas hotsean paratu zen, andrea)

bastarra pete, basterrak bete: bazterrak bete

bates bere: batez ere

bekoki illune: bekoki iluna, haserrea

bera adi: behera adi, behera begira

bertan bera: bertan behera

bien bitxarte: bien bitartean

biñen biñen: binan-binan

bixi esiñekoa: bizi ezinekoa

"Mungien bixi esiñeko asko egon san, ta ondo bixi gurekoa bear gitxi einye, eta aldeanurik edo iñondik, osea mataderotik edo datorrenari, eser dakarrenari, lau peseta bada axe kentxeako (Ll.)" - (Mungian bizi ezineko asko egon zen, eta ondo bizi gurakoa behar gutxi eginda, eta baserritarrik edo inondik, hau da hiltegitik edo datorrenari, ezer dakarrenari, lau pezeta bada huraxe kentzeko)

bost uger: txonbo egin uretara

bueltan bueltan: bueltan-bueltan, inguru osoan

buruandie: buru handia, tematia

buru ariñe: buru arina

buru onekoa: buru onekoa

burus bera: buruz behera

dana dala: dena dela

dana dalakoa: dena delakoa

diru gitxikoa ixen: diru gutxikoa izan

"Pastorea pere diru gitxikoak ixeta siren ta, ba beti, ta alboan bedar ohea badau, ba beste alderdire yoan txakurregas, apur bet yan deyen edo (T.)" - (Artzainak ere diru gutxikoak izaten ziren eta, ba beti, eta alboan belar hobea badago, ba beste alderdira joan txakurragez, apur bat jan dezaten edo)

en jeneral: gehienetan
erdis erdis: erdiz-erdiz
es gause: ez gauza
esate baterako: esate baterako
esker onekoa: esker onekoa
esker txarrekoa: esker txarrekoa
esne gitxikoa: esne gutxikoa
garrote otzean: garrote hotsean
geldi geld: geldi-geldi
geldi geldike: geldi-geldika
"Pastoreakas, a, ongo san ori, se, beti albokoak negeta tzue, suk au soloa saldu basu onarte ta besteara bada, ardiek geldi geldike onena be yaten deude (T.)" - (Artzainakaz, egongo zen hori, ze, beti albokoek ukatzen dizute, zuk soro hau saldu baduzu honaino eta besteara bada, ardiek geldi-geldika honena ere jaten dute)
geldike-geldike: geldika-geldika
gitxi gora bera: gutxi gora behera
gora adi: gora adi, gora begira
gora bera: gora behera
justo-juston, justu-justun: ozta-ozta
karra-karran: karra-karran
kasu beterako: kasu baterako
kasu da se: kasua da ze
kasureko: kasurako
"Gartzelille da, ganaduen, bei beten kasureko, biskarra olan artes on ber deu eta badeko a erdigune baju, gartzelille ari esaten dako (Ll)" - (Galtzaia da, ganaduan, behi baten kasurako, bizkarra holan artez egon behar du eta badauka erdigune hura baxu, galtzaia hari esaten zaio)
"Oin bere egun bie tire kasureko, ba oiñ iñor yoan estoa (Z.)" - (Orain ere egun biak dira kasurako, ba orain inor joan ez doa)
lotza txarrekoa: lotsa txarrekoa, lotsa galdua
"Gamiskoak gero, beti ixen dire, lotzabakoaoak emekoa paño, lotza txarrekoaoak (E.)" - (Gamizkoak gero, beti izan dira, lotsabakoagoak hemengoak baino, lotsa txarrekoagoak)
modu antzean: modu antzean
piperrri pere: piperrrik ere, ezer ere
segun antza: segun antza, antza denez
"Ango alderdikoak eta emekoak, se ori Laukisko eskolea ixen san, segun antza

diputasiñoak eiñekoa, barriadeantzako (E.)" - (Hango alderdikoak eta hemengoak, ze hori Laukarizko eskola izan zen, antza denez aldundiak eginekora, auzotegiarentzat)

segun trasea: antza denez
seguru antzean: seguru antzean, ziur asko
selan edo alan: zelan edo halan
sentalle otzean: zentaila hotsean
tallepe baten yayo: teilape baten jaio, etxe baten jaio
txanka mea: txanka mehea
txanka pistola: txanka pistola, txanka mehea
txarrean- txarrean: txarrean-txarrean
ume lupue: ume lupua, ume okerra
yoan etorrie: joan-etorria

ESALDIAK

agindue bat eta emona bi, aginduegas konforme ixen adi: agindua bat eta emana bi aginduagaz konforme izan hadi
asto bateri bustena kendu te besteari imiñi: asto bati buztana kendu eta besteari ipini
"Ori bakixu nos esaten dun, geuse bateri, geuse bateri kendu ber dosune ta bestari imiñi, bai asto bateri bustena kendu te besteari imiñi in tzesu (M.)" - (Hori badakizu noiz esaten dugun, gauza bati, gauza bati kendu behar diozuna eta besteari ipini, bai asto bati buztana kendu eta besteari ipini egin diozu)
egun betek beste ba takar, eta urte akabuen san silbestre: egun batek beste bat dakar, eta urte amaieran San Silbestre
esana bat eta emona bi, esanagas konforme ixen adi: esana bat eta emana bi, esanagaz konforme izan hadi
garie basatara ta artoa prasatara: garia basatara eta artoa prasatara
"Garie basatara ta artoa prasatara ori bere olantxe da (Z.)" - (Garia basatara eta artoa txingarretara hori ere holantxe da)
gaue gaueskoantzako, egune eguneskoantzat: gaua gauezkoantzat eta eguna egunezkoantzat
jainkoak bereinketurik: jangoikoak bedekaturik
"Jainkoak bereinketu deyela esan esik, ba estala ona, umeantzako estala ona, ori esan bear lenau, jainkoak bereinketurik se ume ederra esan bear dala (M.)" -

(Jangoikoak bedeinka dezala esan ezik, ba ez dela ona, umearantzat ez dela ona, hori esan behar lehenago, jangoikoak bedeinkaturik ze ume ederra esan behar dela)

Katike artoa satike: Gatika artoa zatika
"Katikekoari esate otzean Mungikoak, Katike artoa satike, Katike artoa satike, ta Mungi, eurek lapur gustien abi (K.)"
- (Gatikakoei esaten zieten Mungiakoek, 'Katike artoa satike', 'Katike artoa satike', eta 'Mungi, eurek, lapur gustien abi')

mayetza pardue ta bagille klarue: maiatza pardo eta bagila klaroa

Mungi lapur gustiñ abi: Mungia lapur guztien habia

nongo sara? Gatikeko, ser yaten dosu? lapikoko: nongoa zara? Gatikakoa, zer yaten duzu? lapikokoa; esakuna hau erabiltzen zuten gatarrei txitxekar egiteko

obligasiñoa da garea ta burue debosiñoa: artoa gara egin egin behar dela adierazteko erabiltzen den esakuna

saldi suri: zaldi zuria, ohearen irudia
"Saldi surie batzuk igual oyari esango tzea (E.)" - (Zaldi zuria batzuek beharbada oheari esango diote)

saldi surien ganean egon: zaldi zuriaren ganean egon, ohean egon

umian sentzune etzian entzune: umearen zentzuna etxean entzuna

"Umian sentzune etzian entzune umeak, a, etzean entzune umeak konteu itxen daudela bere bai, esaten da baya, umeak gusurrik estaudela esaten, etzean entzune (M.)" - (Umearen zentzuna etxean entzuna umeek, etxean entzuna umeek kontatu egiten dutela ere bai, esaten da baina, umeek gezurrik ez dutela esaten, etxean entzuna)

28. HITZ ERATORRIAK

Atal honetan eratorpen atzizkirik garrantzitsuenak aurkezten ditugu. Era berean, bakoitzeko jaso ditugun adibideak ere emango ditugu.

ADA/KADA

abidxedea, abiede: abiada

adarkadea: adarkada

aginkedea: haginkada

altzadea: altxada

arrikedea: harrikada

askorakadea: aizkorakada

atxurkadea: aitzurkada

astokadia: astokada

astrakadia: aztrakada

baldekadea: baldekada

basukadea: basokada

betekadea: betekada

biorkadea: bihurkada

dardakadea: dardakada

denporadea: denporaldia

dxaurtikedea: jaurtakada

eskapadea: eskapada

eskutedea: eskutada

eupede: aupada

gurtede: gurtada

kamiokadea: kamiokada

karlistadea: karlistada

karrokadea: korrokada

karrotxilioskadea: karrotxilozkada

kollarakadea: koilarakada

laprastadea: laprastada

maikadia: mahaikada

ostikedia: ostikada

otzarakadea: otzarakada

palukedea: makilkada

parrastadia: purraztada

pikedea: ziztada

platerkadea, platerkadia: platerkada

porrustadia: purruztada

saparradea: zaparrada

sarankadea: zarankada

sardakadia: sardakada

sartenkadia: zartaginkada

tirekadea: tirakada

txorrotadea: txorrotada

unadea: unada

unekadea: unekada

yaurtekadea: jaurtakada

"Yaurtekada bat ein dost (Bi.)" - (Jaurtakada bat egin dit)

ALDE

atzekaldia: atzeko aldea

aurrekaldia: aurreko aldea

barrukaldia: barruko aldea
bekaldia: beheko aldea
elixelde, eleixaldia: elizaldea
errekaldia: errekaldea
goikaldea: goikaldea
goixaldia: goizaldea
kanpokaldia: kanpoko aldea
mungialdea: mungialdea

ALDI

berbaldie: berbaldia
denporaldie: denboraldia
egotaldie: egotaldia
erastaldie: erastaldia
estualdie: estualdia, larrialdia
geldialdidxe: geldialdia
ibiltaldie: ibiltaldia
ikustaldidxe: ikustaldia
larrialdie: larrialdia
lotaldie: lotaldia

BAKO

aginbakoa: haginbakoa
ainbakoa: hainbakoa
ardibakoa: ardibakoa
argibakoa: argibakoa
"Barrio asko on san argibakoa, asko (La.)"
- (*Auzo asko egon zen argibakoa, asko*)
arribakoa: harribakoa
asalbakoa: azalbakoa
asfaltabakoa: asfaltatubakoa
axebakoa: haizebakoa
belarribakoa: belarribakoa
bixerbakoa: bizarbakoa
burubakoa: burubakoa
bustenbakoa: buztanbakoa
eldubakoa: heldubakoa
erainbakoa: ereinbakoa
famelibakoa: familiabakoa, seme-
alababakoa
ganorabakoa: ganorabakoa
*"Batzuk, e, badakidxelakoan, e, ein txues
ganorabako biarra pere (M.)"* -
(*Batzuek, badakitelakoan, egin dituzte
ganorabako beharrak ere*)
ikisibakoa: ikasibakoa
kapeubakoa: kapatubakoa
kaskarabakoa: azalbakoa
kendubakoa: kendubakoa

labrabakoa, labrebako: landubakoa
lotzabakoa: lotsabakoa
mangabakoa: mahukabakoa
mendabakoa, mendebakoa: mendatubakoa
"Len asko oten san mendabakoa (G.)" -
(*Lehen asko egoten zen mendatubakoa*)
pasabakoa: pasatubakoa
"Estaitx se ni pasabakoa nas (At.)" - (*Ez dakit
ni pasatubakoa naiz*)
podabakoa: inausibakoa
sulobakoa: zulobakoa
sustentzibakoa: mamibakoa, ganorabakoa
takoibakoa: takoibakoa
trentinbakoa: trentinbakoa
ulebakoa: ilebakoa
urtenbakoa: irtenbakoa

BARRI

altzaparrie: altxaberria
asiparrie: hasiberria
ekarriparrie: ekarriberria
erneparrie: erneberria
eskonparrie: ezkonberria
einparrie, inparrie: eginberria
kenduparrie: kenduberria
sartuparrie: sartuberria
urtenparrie: irtenberria
"Agiñek urtenparri dekos (Bi.)" - (*Haginak
irtenberri dauzka*)
yayoparrie: jaioberria

DATE/DADE

bariedadea: barietatea
borondatea, borondadea: borondatea
edadea: edadea, adina
espesialidadea: berezitasuna
fasillidadea: erraztasuna
kalidadea: kalitatea
kantidadea: kantidadea, kopurua
kasualidadea: kasualitatea
libertadea: askatasuna
nesesidadea: beharrezana
nobedadea: berrikuntza
propiedadea: propietatea
sosiedadea: elkarte
umedadea: umeltasuna

D/TI

arboladidxe: arboladia
arestie, aristie: hariztia
artedie: artedia
fagodie: pagadia
gastañadie: gaztainadia
gurguxedidxe: gurbiztia
mastie: mahastia
piñudie: pinudia
sagardie: sagardia
txopodie: txopodia

DUN

arantzadune: arantzaduna
ardidune: ardiduna
ardune: harduna
argidune: argiduna
astadune: kirtenduna
belarridune: belarriduna
belenodune: pozoiduna
bigotedune: biboteduna
bixerdune: bizarduna
botoidune: botoiduna
brusdune: brusduna
burudune: buruduna
dirudune: diruduna
edatune: edatuna
egurdune: egurduna, egur saltzailea
erdeldune: erdalduna
erretratudune: azgazkiduna
errudune: erruduna
esnedune: esneduna, esne saltzailea
etzedune: etxeduna
euskeldune: euskalduna
gantxodune: gantxoduna
ibiltune: ibiltuna
ididune: ididuna
kajadune: kaxaduna
kamioidune: kamioiduna
karrodune: karroduna
loradune: loraduna
ogaserudune, obaserudune: ohezeruduna
partikedune: partikaduna
puntedune: puntaduna
sugoidune: sugoiduna
sulodune: zuloduna
takoidune: takoiduna
tapadune: tapaduna
txikerdune: txikerduna
yatune, dxatune: jatuna, ondo jaten duena

yakittune: jakituna

"Ni ori yakittun pare nitzen (E.)" - (Ni hori jakitun paratu nintzen)

yostune, dxostune: jostuna

ERIA

barberie: bizartegia
ferreterie: burdindenda
fruterie: fruitu denda
karnaserie, karneserie: harategia
panaderie: okindegia
pastelerie: pasteleria
pelukerie: ile apaindegia, bizartegia
peskaderie: arraindegia
sapaterie: zapategia
serbeserie: garagardotegia

Atzizki honen bidez multzoa ere adierazten da:

gasterie: gazteria

jitanerie: ijiteria

makiñerie: makineria

"Beti orretan dabillanak, e, bueno oin makiñeriekas ta orti dabiltzesena pa ya ba imintte dekotzue baya guk begire itten tzegu (E.)" - (Beti horretan dabilenak, beno, orain makinariakaz eta hortik dabiltzanak ba ja ba ipinita daukakizute baina guk begira egiten diegu)

saburreri, saborreri: zaborreria

sastarrerie: zztarrerria

tresnerie: tresneria

ugerreri: ugerreria

ERA

Atzizki honen erabileretako bat neurria adierazteko da:

lodidxeria, lodierea: lodiera

luserea: luzera

sabalerea: zabalera

sakonerea: sakonera

Egilea adierazteko erabiltzen da, baina andrezkoa denean:

bendejerea: bendejera

erregaterea, erregeterea: erre kardaria

fruteria: fruta saltzailea
galtzetera: galtzerdi egilea
kartera: postaria
kosiñeria: sukaldaria
parteria: emagina
peskaterea: arrain saltzailea
tabernere: tabernaria

Azkenik lekua adierazteko ere erabiltzen da:

kafetera: kafegailua
karteria: diru zorroa
simintteria, simintxerea: mintegia

ERU

Atziki hau egile funtzioa adierazteko erabiltzen da:

abarketerue: abarketaegilea
arrotzerue: arrautza saltzailea
barberue: bizargina
basurerue: zabor biltzailea
bayerue: bahe saltzailea
erregaterue: erre kardaria
fruterue: fruta saltzailea
jornalerue: alogerekoa
kafeterue: kafezalea, kafe saltzailea
kamiñerue: kaminerua
karniserue, karnaserue: harakina
karreterue: itzaina
karterue: postaria
kaserue: ehiztaria
letxerue: esneketaria
mariñerue: marinela
obrerue: behargina
panaderue: okina
peskaterue: arrain saltzailea
sakerue: zaku saltzailea
sapaterue: zapatagina
sesterue: otzaragilea
tabernerue: tabernaria
telerue: ehun saltzailea
tesorerue: diruzaina
txikiterue: txikiteroa
txokolaterue: txokolate egilea

Lekua adierazteko:

Egilea ezeze, lekua ere adieraz dezake, adibidez:

basurerue: zabortegia
erroperue: erroperoa
fruterue: fruntontzia
kandelerue: kandeleroa
metxerue: metxeroa
morterue: mortairua
txiskerue: metxeroa

ETA

amesetea: ametsa
berbetea, berbitte: berbeta

*"Alkarreas ori berbittea sarri, se orrek, e, uf!
orrek miñeas balientea tire! berbetan,
etorri terriblekoak (E.)" - (Elkarregaz
berbeta hori sarri, ze horiek, uf! horiek
mihiagaz ausartak dira! berbetan, etorri
itzelekoak)*

lapurretea: lapurreta

*"Tabernea dala ta lapurretarik, e, ni neuk, e,
estot entzun (LL.)" - (Taberna dela eta
lapurretarik, nik neuk, ez dut entzun)*

olgetea: olgeta

GARRI

antojogarrie: antojagarria

baragarrie: baragarria, baldarra,
moldegaitzari esaten zaio

ikusgarrie: ikusgarria

kaltegarrie: kaltegarria

*"Ori kaltegarrie da landarantzako (G.)" -
(Hori kaltegarria da landarentzat)*

kantzarrie: nekagarria

lotzarrie: lotsagarria

negargarrie: negargarria

penagarridxe: penagarria

posgarrie: pozgarria

yosgarrie: josgarria

Zer edo zeren materiala adierazteko ere erabiltzen da:

altzarrie: altzarria

aspigarrie: azpigarria

esungarrie: ezagungarria

gosagarrie: gozagarria

labagarrie: labagarria

ondugarrie: ondugarria

saltzarrie: saltsagarria

sugarrie: sugarria

GEI

abadegeye: abadegaia
"Abadegeye san a (Z.)" - (Abadegaia zen hura)

andrageye: adregaia

errangeye: erraingaia

eskongeye: ezkongaiia

gixongeye: gizongaia

salgei: salgai

suingeye: suhingaia

GIN

argiñe: hargina

biargiñe: behargina

bixergiñe: bizargina

ikesgiñe: ikazkina

IK

alperrik: alperrik

aratiñik: aratinik

"Imiñi mai ganian, ta aratiñik txarridxe (At.)" - (Ipini mahai gainean, eta aratinik txerria)

bakarrik: bakarrik

"Su esara bear emen ta esixus bakarrik itxi an ba (M.)" - (Zu ez zara behar hemen eta ez itzazu bakarrik utz han ba)

baltzik: beltzik

baraurik: baraurik

bernutzik: bernautsik

besutzik: besutsik

beterik: beterik

billusik: biluzik

bixirik: bizirik

burutzik: burutsik

bustirik: bustirik

esiñik: ezinik

gaixorik, geixorik: gaixorik

"Bai, baya a geixorik egon san (Ll.)" - (Bai, baina hura gaixorik egon zen)

geldirik: geldirik

gordiñik: gordinik

gorririk: gorririk

ixilik: isilik

kasik: kasik

koxorik: herrenka

majarik: galant (f.)

majorik: galant

makalik: makalik, gaixorik

oiñutzik, oñutzik: oinutsik

osorik: osorik

posik: pozik

sabalik: zabalik

suririk: zuririk

sutunik: zutunik, zutik

utzik: hutsik

KA

adarka: adarka

aginke: haginka

alaurike: uluka

alboska: albozka

apurke: apurka

arrantzaka: arrantzaka, zurrunka

arrastaka: narraz

arrike: harrika

arrosike: aharrausika

aska: hazka

astraka: aztraka, azterka

ausike, eusike: ahausika

banaka: banaka

barreka: barreka

besaka: besaka

bolaka: bolaka

bueltaka: bueltaka

dandiliske: dandilizka, zintzilik

eskapaka: iheska

estulke: eztulka

ganeska: gainezka

girrintzeka: girrintzaka

inyarka, inyerka: indarka

kantaka: kantaka

karraderaka: karraderaka

karraka: korrika, karraderan

kartaka: kartaka

kurrunkedaka: kurrunkadaka

loka: loka

musturke: musturka

ostikedaka: ostikadaka

ostikeka: ostikoka

ostuke: ohostuka, izkutuka

palukedaka: makilkadaka

pelotaka: pilotaka

poperreka: popaerreka

saltoka, saltuke: saltoka
santzoka: zantzoka
sarataka: zarataka
satike: zatika
sokorruke: aldarrika
tireka: idiek edo behiek buzterrian
kanporantz egiten dutenean
txirinbueltaka: txirinbueltaka
urruledaka: urrumadaka, urrumaka

KERIA

alperkerie: alperkeria
andikerie: handikeria
arrokerie: harrokeria
astokerie: astakeria
infernukerie: infernukeria
iñusentekerie: inuzentekeria, lelokeria
miskerie: mizkeria
sakelerie, saskelerie: sakeleria
sorginkerie: sorginkeria
txarrikerie: txerrikeria
ugerkerie: ugerkeria
umekerie: umekeria

KERA

agertukerea: agertukera
asikerea: hasikera
bajekerea: bajakera
berbakerea: berbakera
ebaikerea: ebakikera
egaskerea: hegazkera
esakerea: esakera
etorkerea: etorkera
ibilkerea, ibilkeria: ibelkera
iekerea: igokera
ixekerea: izakera
loak artukeria: loak hartukera
"Guk esaten du ba, loak artukera txarrekoa dala, guk ori esaten du, loak artukeria ba txarra deko (Z.)" - (Guk esaten dugu ba, loak hartukera txarrekoa dela, guk hori esaten dugu, loak hartukera ba txarra dauka)
lotuerea: lotuera
orraskerea: orrazkera
sartukerea: sartuera, sartukera
siñeskerea: sineskera
yokerea, dxokerea: joera

urtekerea: irtekera

KI

andikidxe: handikia
fraillekie: fraidekia
gaixokie, geixokie: gaixokia
ollokie: oilokia
sadxeskidxe: saiheskia
txarrikie: txerrikeria

KUNE

adikunea: adikunea
berbakunea: berbakunea
esakunea, esaunea: esakunea
ibilkunia: ibilkunea
korrikunea: korrikunea

KUNTZA

asarrakuntzea: haserre-kuntza
errakuntzia: errakuntza
larrakuntzea: larrakuntza

LARI

akularie: akuilaria
aurrekularie: aurrekularia
bertzolarie: bertsolaria
errementarie: errementaria
errolarie: errolaria
errotarie: errotaria
fumalarie: erretzailea
kantarie: kantaria
merketarie: merketaria
murrukelarie: murrukalaria
ostikelarie: ostikalaria
pelotarie: pilotaria
probalarie: probalaria
santzolarie: zantzolaria
"A santzolariak, beste gause ba tire, santzolarie tire bertzolarien moduen, bertzolariak, a, ba bertzotan dausen moduen, ba bestek eitten dure, santzoa (Z.)" - (A! zantzolariak, beste gauza bat dira, zantzolariak dira bertzolarien moduan, bertzolariak, ba bertzotan

*dagozen moduan, ba besteek egiten
dute, zantzoa)*

serrarie: zerraria
soñularie, sonularie: soinularia
testolarie: testolaria
trontzalarie: trontzalaria
txistularie: txistularia
yantzarie, dxantzarie: dantzaria
yokolarie: jokalaria

MENDU

aliminttue: elikagaia
aprobetxamentue: aprobetxamendua
entenamintxue, entrenaminttue:
entrenamendua
konosiminttue: sena
medikamentue, medikaminttue:
medikamendua
mogimintxue: mogimendua
pentzamentue: pentsamendua

NTZA

bengantzea: mendekua
esperantzea: esperantza, itxaropena
konfiantzea: konfidantza
labrantzea: nekazaritza
matantzea: txerri hiltzea
segurantzea: segurantza
sinifikantzea: esangura

NTZIA

alegerantzie: alegerantzia
diferentzie: desberdintasuna
distantzie: distantzia
erentzie: heredentzia
induljentzie: induljentzia
inportantzie: inportantzia, garrantzia
komenentzie: komenentzia
pasentzie: eroapena
sustentzie: mamia

ORE

abiadorea: abiadorea
afiladorea: zorrotzailea

enterradorea: lurpetzailea
erradorea: perratzailea
errentadorea: errentan dagoena
kantorea: kantaria
kobradorea: kobratzailea
korredorea: korrikalaria
pastorea: artzaina
peskadorea: arrain saltzailea
seladorea: zaindaria
serradorea: zerraria
tasadorea: erremandadeko tasatzailea

OI

abioya: hegazkina
balkoya: balkoia
botoya: botoia
busoya: buzoia
butroya: butroia
errasoya: arrazoia
frontoya: frontoia
garrafoya: garrafoia
kamioya: kamioia
kantoya: kantoia
kartoya: kartoia
kordoya: kordioa
limoya: limoia
morroya: morroia
sankarroya: zankarroia
takoya: takoia
turroya: turroia

OR

lotzorra: lotsorra
loyorra, lodxorra: lohiorra, zikinterraza
ustelorra: ustelorra

OSO

desgustoso: deserosoa
drogoso: drogoso, bihurria
engañoso: lausengaria, koipeztoa
erronkoso: erronkaria, erronkazalea
famosea: ospetsua (f.)
famoso: ospetsua
ganoso: gogotsua
grasiose: baregarria (f.)
grasioso: baregarria

gustoso: gustoso, erosoa
ideoso: ideosoa
itxuroso: itxurosoa, itxura onekoa
mañosea: mainatia (f.)
mañoso: mainatia
peligroso: arriskutsua
penoso: nekeza
tretoso: mainontzia
txantxoso: txantxa egilea
txeposo: konkorduna
txistoso: txantxoso

PE

arbolapea: arbolapea
arkupea: arkupea
arripea: harripea
atepia: atepea
aterpea: aterpea
besopia: besapea
egopea: hegopea, hegalpea
elispea: elizpea
errapia: errapea
gerispea: gerizpea
lurpea: lurpea
munepea: munapea
okospia: okozpea
parrapea: parrapea
sagarpea: sagarpea
surpia: surpea
tallepea: teilapea
tejabanapea: tejabanapea
tripepea: tripepea

RENGO

akaburengo: amaierengoa, azkena
andirengo: handirengo
asaurengo: asagorengo
aspirengo: azpirengo
atzerengo: atzerengoa
"Iñon estau eser, se gastiantzako atzerengoa da, eta guk ya esin yu (Z.)" - (Inon ez dago ezer, ze gazteentzat atzerengoa da, eta guk honezkeru ezin dugu)
aurrerengoa, eurrerengoa: aurrerengoa
berengoa: beherengoa
ganerengoa: gainerengoa
gorengo, goirengo: gorengo

kanporengo: kanporengoa
parajerengoa: parajerengoa
punterengoa: puntarengoa

RO

astiro: astiro
geldiro: geldiro
lusero: luzero

TAR

arritarra, arrietarra: arrietarra
atxuritarra: atxuritarra
bakiotarra, bakiostarra: bakiotarra
baserritarra, baserritxarra: baserritarra
basosabaltarra: basozabaltarra
belakostarra: belakoztarra
beñakarra: meñakarra
bermiotarra: bermeotarra
bilbotarra: bilbotarra
birlarra: birlarra
biskaitxarra: bizkaitarra
deriostarra: deriostarra
dxatabarra, yatabarra: jatabarra
emerandoarra, emerandotarra:
emerandotarra
gamistarra: gamiztarra
kaletarra: kaletarra
kanpostarra, kanpotarra: kanpotarra
katikarra: gatikarra
larroritarra: larrauritarra
laukistarra: laukiztarra
lemoistarra: lemoiztarra
lesamarra: lezamarra
markaidarra: markaidarra
mungiarra: mungiarra

TASUN

aberastasune: aberastasuna
argittasune, argitxasune: argitasuna
arrotasune: harrotasuna
berotasune: berotasuna
biguntasune: biguntasuna
bixittasune: bizitasuna
bustitxasune: bustitasuna
damutasune: damutasuna
errestasune: erraztasuna

estutasune: estutasuna
etzekotasune: etzekotasuna
garbittasune, garbitxasune: garbitasuna
gasittasune, gasitxasune: gazitasuna
gastetasune: gaztetasuna, gaztaroa
gorritasune, gorritxasune: gorritasuna
gortasune: gortasuna
illuntasune: iluntasuna
itxittasune: utzitasuna
ixiltasune: isiltasuna
laguntasune: laguntasuna
larrittasune, larritxasune: larritasuna
loittasune, loitxasune: lohitasuna
makaltasune: makaltasuna
osasune: osasuna
sakontasune: sakontasuna
suritxasune: zuritasuna
umetasune: umetasuna, umezaroa

TE

aixetea: haizetea
gerratea: gerratea
siketea: sikatea

TEGI

artegie: artegia, artaldeia
euntegie: ehuntegia
goitxegie: goitegia
lastategie, lastegie: lastategia
sastegie: sastegia
sutegie: sutegia

TI

bildurtie, billurtie: bildurtia
burletie: burlatia
eskertie: ezkertia
kakatie: kakatia
gusurtie: gezurtia
lotie: lotia
lotzatie: lotsatia
moskortie: mozkortia
negartie: negartia
selotie: zelotia
tematie: tematia
txixetie: txizatia
uskertie: uzkartia

TO/DO

ederto: ederto
oboto, obeto, ogeto, ogoto: hobeto
ondo: ondo
politto, politxo: polito
txarto: txarto

TOKI

ollotokie: oilotokia
orrostokie: orraztokia
sastokie: sastokia
txarritokie: txeritokia
umetokie: umetokia

TZA

alarguntzea: alarguntza
albañiltzea: igeltserotza
alkatetzea: alkatetza
argintzea: hargintza
artotzea: artotza
axetzea: haizetza
barberutzea: barberotza
basatzea: basatza
bedartzea: bedartza
bustitzea: bustitza
edurtzea: elurtza
eriotzea, eridxotzia: heriotza
errementaritzea: errementaritza
eskontzea: ezkontza
esnatzea: esnatza
euritzea: euritza
garitzea: garitza
laitzea: leitza
kamionerutzea: kamiolaritza
karreterutzea: karreterotza
ojalateritzea: iturgintza
pastoretzea: artzaintza
sasitzea: sasitza
yayotzea, dxadxotzia: jaiotza

TZU

aldatzatzue: aldastsua
arantzatzue: arantzatsua

aretzue: hareatsua
arritzue: harritsua
asaltzue: azaltsua
auritzue: euritsua
axetzue: haizetsua
barretzue: barretsua
barritzue: berritsua
benenotzue: pozoitsua
dirutzue: dirutsua
edoitzue: hedoitsua
eguskitzue: eguzkitsua
elixatzue: elizatsua
inyertzue: indartsua
ixurtzue: izurtsua
karetzue: karetsua
koipetzue: koipetsua
lañotzue: lainotsua
mamintzue: mamitsua
menditzue: menditsua
okelatzue: okelatsua
osasuntzue: osasuntsua
pixutzue: pisutsua
saldatzue: saldatsua
saratatzue: zaratatsua
uletzue: iletsua
urtetzue: urtetsua
urtzue: urtsua

UNE

aterrunea: aterrunea
bajunea: baxunea
baltzunea: beltzunea
esaunea: esaunea
erdiunea, erdigunea: erdiunea
eskutunea: izkutunea
gorriunea: gorriunea
illununea: ilununea
ixillunea: isilunea
lisuunea, lisunea: zeharrunea
lotuunea: lotunea
sabalunea: zabalunea
sakonunea: sakonunea
sarratunea: zerratunea
suriunea: zuriunea

ZALE

andrasalea: andrazalea
ardausalea: ardauzalea
buskentasalea: buzkentazalea

dirusalea: diruzalea
edarisalea: edarizalea
gixonsalea: gizonzalea
gososalea: gozozalea
tabakosalea: tabakozalea
yokosalea: jokozalea

ZINO/INO

afesiñoa: zaletasuna
alimentasiñoa: elikadura
apartasiño: banaketa
atentziñoa: adimena
autorisasiñoa: baimena
bakasiñoak: oporrak
bereinkesiñoa: bedeinkazioa
botasiñoa: bozketa
burutasiñoa: burutazioa
dijestiñoa: dijestioa
diputasiñoa: aldundia
diskusiñoa: eztabada
dokumentasiñoa: dokumentazioa
ebakuasiñoa: ebakuazioa
edukasiñoa: heziketa
errementasiñoa: errementazioa
errepetisiñoa: errepikapena
erreuniñoa: batzarra, bilkura
esplikasiñoa: azalpena
estasiñoa: geltokia
estimasiñoa: estimazioa
federasiñoa: federazioa
ilusiñoa: ilusioa
indesiñoa: injekzioa
intentziñoa: intentzioa
ixentasiñoa: izendazioa
jubilasiñoa: jubilazioa
kantzasiñoa: nekea, nekadura
komunikasiñoa: komunikazioa
komuniñoa: komuninoa
konbersasiñoa, konbertzasiñoa: elkarrizketa
kondesasiñoa: baldintza
konparasiñoa: gonbarazioa
konplikasiñoa: konplikazioa
konserbasiñoa: kontserbazioa
kontestasiñoa: erantzuna
kontribusiñoa: kontribuzio zerga
laguntziñoa: laguntasuna, laguntza
limitasiñoa: muga
maldesiñoa: madarikazioa
mareasiñoa: zorabioa
obligasiñoa: betebeharra

okasiñoa: abagunea
operasiñoa: ebakuntza
produsiñoa: produkzioa
selesiñoa: aukeraketa
separasiñoa: banaketa
tasasiñoa: tasazioa
telebisiñoa: telebista
tradisiñoa: tradizioa
umedasiñoa: hezetasuna
uniñoa: batzea, batasuna

ZKO

algodoiskoa: algodoizkoa
andraskoa: andrazkoa
ariskoa: harizkoa
arriskoa: harrizkoa
bearreskoa: beharrezkoa
bereskoa: berezkoa
burriñeskoa: burdinazkoa
derrigorreskoa: derrigorrezkoa
egieskoa: egiazkoa
egurrezkoa: egurrezkoa
erderaskoa: erdarazkoa
euskeraskoa, auskeraskoa: euskerazkoa
firuskoa: firuzkoa, harizkoa
ganoraskoa: ganorazkoa
gixoneskoa: gizonazkoa
"Gixoneskoak en jeneral, enbra paño giau gixoneskoak, enbra pere bai, esta? baya gixoneskoak giau (Z.)" - (Gizonezkoek gehienetan, andrazkoek baino gehiago gizonazkoek, andrazkoek ere bai ezta? baina gizonazkoek gehiago)
gomaskoa: gomazkoa
inyarreskoa: indarrezkoa
itzeleskoa: itzelezkoa
kañaberaskoa: kanaberazkoa
kirruskoa: kirruazkoa
kobreskoa: kobrezkoa
koloreskoa: kolorezkoa
kristeleskoa: kristalezkoa
kuadruskoa: kuadruezkoa
lanaskoa: artilezkoa
liñeskoa: lihozkoa
lurreskoa: lurrezkoa
miesaskoa: mihesezkoa
narruskoa: narruezkoa
obligasiñoskoa: beharrezkoa
oleskoa: oholezkoa
oñeskoa: oinezkoa
panaskoa: panazkoa

pañuskoa: ehunezkoa
perkaleskoa: perkalezkoa
plastikuskoa: plastikuzkoa
porselanaskoa, **portzelanaskoa:**
portzelanazkoa
puntilleskoa: puntilazkoa
sapaskoa: saspazkoa
sedaskoa: zetazkoa
sereskoa: zerezkoa
siñeskoa: zinezkoa
siskoa: zihizkoa
suerskoa: zurezkoa
terliseskoa: terlizezkoa
urregorriskoa: urregorritzkoa, urrezkoa
urreskoa: urrezkoa, urregorritzkoa
uruneskoa: irinezkoa
yiñeskoa: zinezkoa

ONA

andittonea: handia (f.)
andraskonea: andrazkona
gallardonea: handia eta ederra (f.)
sapastonea: sapastoa (f.)
txikitonea: txikitona

ZTO/DO

aldistoa: aldarte aldaketa handiak dauzkana
alperdoa: alperdoa
babastoa: babaztoa
bixerdoa: bizardoia
sapastoa: zapaztoa
sorrístoa: zorritztoa
ugerdoia: ugerdoia

ZULO

aittesulua: aitazulua
amasulua: amazulua
etzesulua: etxezulua, etxeakoa

29. JUNTAGAILUAK

Atal honetan jaso ditugun juntagailuen zerrendagaz batera, euron erabileraren adibidetzat agertzen izan zaizkigun esaldi eredu batzuk ere emango ditugu.

ain, ainbeste...:

"*Aiñ da andie esta sartuten atetik (Z.)*" -
(*Hain da handia ez da sartzen atetik*)
"*Ainbeste bero itten dau bearri pere esin
leike iñ (Z.)*" - (*Hainbeste bero egiten du
beharrik ere ezin liteke egin*)
"*Aiñ dau lodi makalik para leittike (Z.)*" -
(*Hain dago lodi makalik para liteke*)
"*Ainbeste diru deko setan gasta bere estaki
(Z.)*" - (*Hainbeste diru dauka zertan
gastatu ere ez daki*)

alandase

"*Alandase bakixu ser iñ ber dosun (Z.)*" -
(*Halandaze badakizu zer egin behar
duzun*)
"*Alandase eser bere esin geiñe iñ (Z.)*" -
(*Halandaze ezer ere ezin genezake egin*)

atagiñoko/atagiñoan

"*Atagiñoko ta kaperioak, es solubek edo
serean, erradurek eta egon siren an
(E.)*" - (*Hataginoko eta gaperioak, ez
solibak edo zerean, perrak eta egon
ziren han*)
"*Ba es, es, esan eroten edonondik, se,
gorpue erotiak inyar andie euki seuen,
a, gorpuen bidiak euki seuen inyar
andie, andie, oso andie, e? atagiñoan
ta, deretxo koiten seuen andixe jentia
ibiltzeko, gorpuek, gorpuek inyar andie
euki deu (M.)*" - (*Ba ez, ez, ez zen
eroaten edonondik, ze, gorpua eroateak
indar handia eduki zuen, gorpuen
bideak eduki zuen indar handia, handia,
sano handia, e? hataginoan eta,
eskubidea hartzen zuen handixik jendea
ibiltzeko, gorpuak, gorpuak indar
handia eduki du*)

bai...bai...

"*Bai basoan edo bai etzean beti daus
bearrean (Z.)*" - (*Bai basoan edo bai
etxean beti dagoz bearrean*)
"*Bai etzean ta bai kalean beti auskeras
berba itten daure (Z.)*" - (*Bai etxean eta
bai kalean beti euskaraz berba egiten
dute*)

bata... bestia:

"*Bat ixen da samudiokoa ta bestea lesamakoa
(Z.)*" - (*Bat izan da Zamudiokoa eta bestea
Lezamakoa*)
"*Batek ekar saun ardaa ta besteak ekar saun
ogie (Z.)*" - (*Batek ekarri zuen ardaa eta
besteak ekarri zuen ogia*)

baya:

"*Denpora ona itten dau baya atzaldean auri
ingo dau (Z.)*" - (*Eguraldi ona egiten du
baina arratsaldean euria egingo du*)
"*Guk emen, e, sera, gastañea, olan, urrutxe
edo eitteuden baya, gastañea normalen
(E.)*" - (*Guk hemen, zera, gaztaina, holan,
hurritza edo egiten zuten baina, gaztaina
normalean*)
"*Guk ya eskolan erderas eingo gendun, baya
guk emen gero, guresok eta, beti euskera
ein yules, guk euskera in yu beti, asike or
esteure euki guri euskerarik kentxerik gure
ixenta beres (A.)*" - (*Guk ja eskolan
erdaraz egingo genuen, baina guk hemen
gero, gurasoak eta, beti euskaraz egin
dugunez, guk euskara egin dugu beti,
halandaze hor ez dute eduki guri
euskararik kentzerik gura izanda ere ez*)

olan ta gusti bere:

"*Truretan etorko dire olan ta gusti bere belu
ixengo da (Z.)*" - (*Hiruretan etorriko dira
holan eta guzti ere belu izango da*)
"*Kotxean etorko dire baya olan ta gusti bere
belu ixengo da (Z.)*" - (*Kotxean etorriko dira
baina holan eta guzti ere belu izango da*)

alderri batetik... baya bestetik...

"*Alderri batetik dekot bildurre baya bestetik
yoan in gure neuke (Z.)*" - (*Alderdi batetik
daukat bildurra baina bestetik joan egin
gura nuke*)

batetik... bestetik...

"*Batetik diño etorri iñ gureko leukela baya
bestetik estekea kotxerik (Z.)*" - (*Batetik dino
etorri egin gurako luketela baina bestetik ez
daukate kotxerik*)

bere:

"Ekar dot yatekoa eta ogie bere erosi dot (Z.)" - (Ekarri dut jatekoa eta ogia ere erosi dut)

"Jakean ganera alkondarea bere erosiko neuke (Z.)" - (Jakaren gainera alkondara ere erosiko nuke)

"Nebean ganera legusue bere etorko da (Z.)" - (Nebearen gainera lehengusua ere etorriko da)

bere bai:

"Amak in yau beskarie ta afarie bere bai (Z.)" - (Amak egin du bazkaria eta afaria ere bai)

"Artxo bi il deittusea eta auntz bet bere bai (Z.)" - (Artxo bi hil dituzte eta ahuntz bat ere bai)

bere es:

"Umea esta etorko ta aitte beres (Z.)" - (Umea ez da etorriko eta aita ere ez)

"Orrek etzera estire yoango eta bearrean beres (Z.)" - (Horiek etxera ez dira joango eta beharrean ere ez)

edo:

"Gripe edo olan, koisten basendun edo, esate seuen esne bero koñak aputxu betegas ta oira sartu (A.)" - (Gripea edo holan, hartzen bazenuen edo, esaten zuen esne beroa koinak apurtxo bategaz eta ohera sartu)

"Ser gure dosu ori edo ori bestea? (Z.)" - (Zer gura duzu hori edo beste hori?)

"Bat edo bi, edo satos edo lotu itten sara? (Z.)" - (Bat edo bi, edo zatoz edo lotu egiten zara?)

"Estaitt amekoak edo bilbokoak badire (Z.)" - (Ez dakit hamengoak edo Bilbokoak diren)

ela:

"Goxeko sortzietako ela estaitt bederatzieta sartzin gintzesan ta etorri, ta gero egurdiko beskarie txokolatea ta ogie, edo seuser geyau

itten basan eta espabere, atzera gero, goseagas yoaten gintzesan etzera (Ll.)" - (Goizeko zortzietako ala ez dakit bederatzieta sartzin ginen eta etorri, eta gero egurdiko bazkaria txokolatea eta ogia, edo zer edo zer gehiago egiten bazen eta espabere, atzera gero, goseagaz joaten ginen etxera)

"Ser gure dosu ardaia ela ure? (Z.)" - (Zer gura duzu ardaia ala ura?)

"Estaitx, baya ori berbia sarri entzuten ixen du euntzerdera, selan? ser esan dosu? ser esan dosu? euntzerdera esan bear datzu ela? (M.)" - (Ez dakit, baina berba hori sarri entzuten izan dugu ahuntzerdera, zelan? zer esan duzu? zer esan duzu? ahuntzerdera esan behar zaizu ala?)

es... es...:

"Nik estot salduko es beye ta es idie bere (Z.)" - (Nik ez dut salduko ez behia eta ez idia ere)

"Orrek iñoas estaure ingo barbarik es suges es niges (Z.)" - (Horiek inogaz ez dute egingo barbarik ez zugaz ez nigaz)

es bakarrik ...bere:

"Ogi bakarrik estot ekarten ardaia bere bai (Z.)" - (Ogia bakarrik ez dut ekartzen ardaia ere bai)

"Umea bakarrik esta etorko ama bere bai (Z.)" - (Umea bakarrik ez da etorriko ama ere bai)

espadase

"Ari esakon toketan orduen a esatea, espadase, ori geusea aurreti esan bear da, esta? asanbleara baño lenau (E.)" - (Hari ez zitzaion tokatzen orduan hura esatea, espadaze, gauza hori aurretik esan behar da, ezta? asanbleara baino lehenago)

"Kaperioa taus, osea, lenengo dau tallea, goitti bera asi gaittesan, siminyue itten eskara asi, espadase gora yoan bagara, tire segidu deigun baya dana dala bardin ye, tallea lenengo, latea gero, kaperioak gero, eta gero daus frontalak (Ll.)" - (Gaperioak dagoz, hau da, lehenengo dago teila, goitik behera has gaitezen, oinarria egiten ez gara hasi, espadaze gora joan bagara, tira segi dezagun baina dena dela

berdin da, teila lehenengo, lata gero, gaperioak gero, eta gero dagoz frontalak)

"Batek olan poun emon es, espadase, asko batu baya gitxi bakotxak, eta aixe il deitzen emon gendun (M.)" - (Batek holan poun eman ez, ezpadaze, asko batu baina gutxi bakoitzak, eta huraxe hil dadin eman genuen)

eta:

1. kopulatiboa

"Orrek in yau bearra eta guk eroan du (Z.)" - (Horrek egin du beharra eta guk eroan dugu)

"Orrek ekar deittus olloak eta beren anayeak ill deittus (Z.)" - (Horrek ekarri ditu oiloak eta beraren anaiak hil ditu)

2. kausala

"Banoa belu de ta (Z.)" - (Banoa belu da eta)

"Gordosola eroixu aurie ingo daula esan leitte (Z.)" - (Goardasola eroan ezazu euria egingo duela esan liteke eta)

nai:

"Yoango sara tokire bille, esta? nai artaburuek emote otzesela nai emote otzesune emoten dosule, esteu etorri gure ixetan, orduen eskapaka eskapaka eskapaka jente diferentea ukusten badeu (Z.)" - (Joango zara tokira bila, ezta? nahi artaburuak ematen dizkiola nahi ematen diozuna ematen duzula, ez du etorri gura izaten, orduan eskapaka-eskapaka-jende desberdina ikusten badu)

"Au de gallurre, ta one tires bandak, ta au de sapatea, ormea ganean dauena, baya onek yoa leittikes ba, onartekoak nai ori satike, bakotxan, e, berenetik, ta gero onetara bestera latea (E.)" - (Hau da gailurra, eta hauek dira bandak, eta hau da zapata, horma gainean dagoena, baina hauek joan litezke ba, honainokoak nahi hori zatika,

bakoitzaren, berenetik, eta gero honetara bestera lata)

"Etzean, sei ume badaus, nai sortzi dausela erdi goses bere, etzean, ta sutondora batu te kontuek eusokoa pe etorritte ta an, kontuek kontetan (Ll.)" - (Etzean, sei ume badagoz, nahi zortzi dagozela erdi gosez ere, etzean, eta sutondora batu eta kontuak auzokoak ere etorrita eta han, kontuak kontatzen)

ostantzian, ostantzean:

"Mayatzean eta uregoran ebai bear da altza, baya asala kendu bear dako, al danik ariñen, e, se ariñen orduntxe galduten da ostantzean, nabartu te usteldu itten da, ba asala kendu eskeriñon es (E.)" - (Maiatzean eta urak goran ebaki behar da haltza, baina azala kendu behar zaio, ahal denik arinen, ze arinen orduantxe galtzen da osterantzean, nabartu eta usteldu egiten da, ba azala kenduz gero ez)

"Nik, e, bai, batak lapurrek urten dotzea, besteak ostu dotze baya, olan, a, julano ta bengano, esateko moduen nik es, ostantzean bai, orrek famea beti euki deu, lapur famea beti, beko kalea (Z.)" - (Nik, bai, batak lapurrek irten diote, besteak ostu diote baina, holan, urlia eta barandia, esateko moduan nik ez, osterantzean bai, horrek, ospea beti eduki du, lapur ospea beti, beheko kalea)

ostera:

"Ni etzen lotu nintzen ostera orrek kalera yoan siren (Z.)" - (Ni etzean lotu nintzen ostera horiek kalera joan ziren)

"Txakurre baltza da ostera katue surie da (Z.)" - (Txakurra beltza da ostera katua zuria da)

se:

"Ba alkar poderoso, estakitx ixengo bada ori, se guresoak erote seudean, seuser paseskeron, se atxiñe, fameli ixenkeran bere, ba jentea ill itte san, se etzean, jente asko iltxen san, oin baño geyau, se oiñ esta iltxen iñor, baya lenau bai itxen siren, se esetu dodas nik bi edo iru edo lau bere bai (M.)" - (Ba elkar poderosoa, ez dakit

izango den hori, ze gurasoek eroaten zuten, zer edo zer pasatuz gero, ze antzina, familia izakeran ere, ba jendea hil egiten zen, ze etxean, jende asko hiltzen zen, orain baino gehiago, ze orain ez da hiltzen inor, baina lehenago bai egiten ziren, ze ezagutu ditut nik bi edo hiru edo lau ere bai)

"Bai, beti egoten da diferentzidxe, se lenau, e, oin ba, garbitxu itxen deude oboto, korotza bere koyu te area bota ta, ba lenau libre egote san korotza, ta korotza koyuskero, ariñau itxe san (L.)" - (Bai, beti egoten da derberdintasuna, ze lehenago, orain ba, garbitu egiten dute hobeto, gorotza ere hartu eta harea bota eta, ba lehenago libre egoten zen gorotza, eta gorotza hartuz gero, arinago egiten zen) [idi proben gainean dabil]

se espabere

"Amen imin ber du se espabere estau lekurik (Z.)" - (Hamen ipini behar dugu ze ezpabere ez dago lekurik)

"Kotxean yoan berdu se espabere belu allegako gara (Z.)" - (Kotxean joan bear dugu ze ezpabere belu ailegatuko gara)

se ostantzean

"Bai ba pasadorak, ba sulotxuek sulotxue tekos, ta sakatuskero, ba urek urten eitxen deu, te sakatu apur bet eiñ ein bear dako se ostantzean, bueltia emokeran, ba apurtu ingo litxeke (M.)" - (Bai ba iraztontziak, ba zulotxoak-zulotxoak dauzka, eta sakatuz gero, ba urak irten egiten du, eta sakatu apur bat egin egin behar zaio ze osterantzean, buelta emakeran, ba apurtu egingo litzateke)

sein

"Andie ixen seiñ txikerra ixen bardin da (Z.)" - (Handia izan zein txikerra izan berdin da)

"Etzean ixen seiñ kanpoan ixen beti daus berbetan (Z.)" - (Etxean izan zein kanpoan izan beti dagoz berbetan)

"Etzean seiñ kanpoan bero andie itten dau (Z.)" - (Etxean zein kanpoan bero handia egiten du)

"Goxean seiñ arratzaldean bere jente asko ibiltten da (Z.)" - (Goizean zein arratsaldean ere jende asko ibiltzen da)

30. MENPERAGAILUAK

Atal honetan erabiltzen diren menperagailuak batzen ditugu. Menpeko esaldi guztiak BA, LA eta N menperagailuetan oinarritzen direnez gero, menperagailu hauen arabera, sailkatu eta bakoitzaren erabileraren esaldi ereduak emango ditugu.

30.1. BA-

baldintza erreala oraina

"Ori ekarten baostesu etzera eroangot (Z.)" - (Hori ekartzen badidazu etxera eroango dut)

"Erosten espadaure esin yu eroan (Z.)" - (Erosten ez badute ezin dugu eroan)

baldintza erreala iragana

"Etzera yoan bagintzesan ikusi ingo gendun (Z.)" - (Etxera joan baginen ikusi egingo genuen)

"Belarriko miñe edo egoten basan igual, ba orixe orio epeltxue (At.)" - (Belarriko mina edo egoten bazen beharbada, ba horixe olio epeltxoa)

"Etze batiretu, eitten san, ba umea, egoten basan erdi makal edo serean, etzean batiretu eitten san, eta gero ba, gero ondo paretan basan eroango san edo espabere, alan ilko san igual (Ll.)" - (Etxe bataioa, egiten zen, ba umea, egoten bazen erdi makal edo zerean, etxean bataiatu egiten zen, eta gero ba, gero ondo paratzen bazen eroango zen edo ezpabere, halan hilko zen beharbada)

baldintza irrealak

"Basora yoango baletikes galdu eingo letikes (Z.)" - (Basora joango balira galdu egingo lirateke)

"Suk ekarko baseunke guk eroango geunke (Z.)" - (Zuk ekarriko bazenu guk eroango genuke)

"Ori dendara yoango baleittike berak erosi al ixengo leuke (Z.)" - (Hori dendara joango balitz berak erosi ahal izango luke)

zehir galdera

"Estaitt ekarri badau (Z.)" - (Ez dakit ekarri duen)

"Ikusi dosu afarie yan badaurea (Z.)" - (Ikusi duzu afaria jan duten)

ba...bere:

"Amarretako akabeko baseunke bere belu ixengo letike (Z.)" - (Hamarretarako amaituko bazenu ere belu izango litzateke)

ba-...les

"Orrek itten dau berba balekiles (Z.)" - (Horrek egiten du berba baleki legez)

"Orrek gastaten dau aberatza balittikeles (Z.)" - (Horrek gastatzen du aberatsa balitz legez)

"Yentillek esango tzut ni pa! yentillek agertan direla, dabiltzela, onakoxe, soldadue balittikeles, gixon andi batzuk, altuek! (Ll.)" - (Jentilak esango dizut nik ba! jentilak agertzen direla, dabiltzela, honakoxe, soldadua balitz legez, gizon handi batzuk, altuak!)

zein ba- ... moduan

"Ta gora dau, egur bet, ba igual sein partike bat balitze modun dau sartute (Z.)" - (Eta gora dago, egur bat, ba beharbada zein partika bat balitz moduan dago sartuta)

30.2. -LA

konpletiboa

"Esan dau etorko dala (Z.)" - (Esan du etorriko dela)

"Esan dau ekarri ingo daula (Z.)" - (Esan du ekarri egingo duela)

"Pentzaten dot etor dala (Z.)" - (Pentsatzen dut etorri dela)

"Esan dotzut txarto daula (Z.)" - (Esan dizut txarto dagoela)

"Entzun dot etor direla (Z.)" - (Entzun dut etorri direla)

"Estaurea esan bier etorko direla (Z.)" - (Ez dute esan bihar etorriko direla)

"Estoste esan iñ ingo daureala (Z.)" - (Ez didate esan egin egingo dutela)

"Elei esan auri ingo daula (Z.)" - (Ez liteke esan euri egingo duela)

"Estot pentzaten ekar daureala (Z.)" - (Ez dut pentsatzen ekarri dutela)

"Nor esan dosu etor dala? (Z.)" - (Nor esan duzu etorri dela?)

"Nogas esan dosu etor dala? (Z.)" - (Nogaz esan duzu etorri dela?)

"Esan dosu etor dala? (Z.)" - (Esan duzu etorri dela?)

"Entzun dosu bier etorko direla? (Z.)" - (Entzun duzu bihar etorriko direla?)

"Estotzut esan erosi dotela ala?" - (Ez dizut esan erosi dudala ala?)

"Estotzut esan neuk ingodotela? (Z.)" - (Ez dizut esan neuk egingo dudala?)

se

"Esaeuen se ba, dimitidu itten deuela (E.)" - (Esan zuen ze ba, dimititu egiten duela)

"Ta esausten se bueno seuen konture etzea (E.)" - (Eta esan zidan ze beno zeuen kontura etxea)

subjuntiboagaz batera

"Esaiosu orreri etor daittela (Z.)" - (Esaioszu horri etor dadila)

"Esaiosu dana ekarri dayela (Z.)" - (Esaioszu dena ekar dezala)

gerundiala

"Afritten gausela argie yoan da (Z.)" - (Afaltzen gagozela argia joan da)

"Gorantza soasela ikusiko dosu (Z.)" - (Gorantz zoazela ikusiko duzu)

-lako

"Belu nator treña galdu otelako (Z.)" -
(Belu nator treña galdu dudalako)

"Esta etorri belu dalako (Z.)" - (Ez da etorri
belu delako)

"Seuser barik estau ños, edo golperan bat
artu deuelako, edo adarkadaran bat
beste ganadu betek emon tzolako, en
jeneral ixetan da (Ll)" - (Zer edo zer
barik ez dago inoiz, edo kolperen bat
hartu duelako, edo adarkadaren bat
beste ganadu batek eman diolako,
gehienetan izaten da)

-lako/-lako

"Etor dalakoa dekot (Z.)" - (Etorri delakoa
daukat)

"Ekar daulakoa dekot (Z.)" - (Ekarri
duelakoa daukat)

"Beko kalean on siren kiputzek eta,
lenauko, serrariak eta esateutzeanak
eta, ain familiek sirelakoa neuk
entzutea, aitte defuntuari beintzet (Ll.)"
- (Beheko kalean egon ziren giputzak
eta, lehenagoko, zerrariak eta esaten
zietenak eta, haien familiak zirelakoa
neuk entzutea, aita difuntuari behintzat)

"Gurean baten bota dakeselako dekot,
botikek (Z.)" - (Gurean baten bota
zaizkielakoa daukat, botikak)

-lakoan

"Batzuk, e, badakidxelakoan, e, ein txues
ganorabako biarra pere (M.)" -
(Batzuek, badakitelakoan, egin dituzte
ganorabako beharrak ere)

-la ta

"Sar dauela ta bota i neuen (M.)" - (Zahar
dagoela eta bota egin nuen)

"Ango usabak abiseu oskun besperan
dxoateko, ididzek oboto oten diela ta
(L.)" - (Hango uzabak abisatu zigun
bezperan joateko, idiak hobeto egoten
direla eta)

"Orrek esetu nittun etorten, ta emen bixi
direla ta an dabiltzela (Ll.)" - (Horiek
ezagutu nituen etortzen, eta hemen bixi
direla eta han dabiltzala)

-lan

"Solo munetxuetan ta olau lekuetan eitxen deu
txinyorak abidxia ta kukuek, e, aren
arrotzia ta, umia, asitxe dekolan txinyorak
(L.)" - (Soro munetxoetan eta holako
lekuetan egiten du txindorak habia eta
kukuak, haren arrautza eta, umea, hazita
daukalakoan txindorak)

30.3. -N

erlatiboak

"Giltze dekona esta etorri (Z.)" - (Giltza
daukana ez da etorri)

"Yesarri saren sillea apurtute dau (Z.)" -
(Jesarri zaren aulkia apurtuta dago)

"Gallurre, lenengo erdien imintten dana
gorengo (E.)" - (Gailurra, lehengo erdian
ipintzen dena goirengo)

"Bestea da beres erneta datorrena (Z.)" -
(Bestea da berez erneta datorrena)

subjuntiboak batera

"Gure dot etorri deitten (Z.)" - (Gura dut etorri
dadin)

"Orrek gure daude amen egon gaittesan (Z.)" -
(Horiek gura dute hamen egon gaitezen)

"Koyu iXu umea yausi estaitten (Z.)" - (Har
ezazu umea jausi ez dadin)

"Atea ixi ot otzittu estaitten (Z.)" - (Atea itxi dut
hotz ez dadin)

"Dekot bildurre etor daittesan (Z.)" - (Daukat
bildurra etor daitezen)

"Orrek deko bildurre kendu esteyen (Z.)" -
(Horrek dauka bildurra kendu ez diezaioten)

"ze" subjuntiboak batera:

"Ori trapun asuntue, odolagas, a, mantxe
seditten, baya ostantzean es (Z.)" -
(Trapuaren gora-behera hori, odolagaz,
lohitu ze dadin, baina osterantzean ez)

"Ba au postia geldi egon deitzen, andik, e,
lurretik ona imintzen da alan egur bet eta
ari erresumia esaten dako, dxosi edo
godxen, atzera eta dxoan seditxen eusteko,
olan talusian (L.)" - (Ba zutabe hau geldi
egon dadin, handik, lurretik hona ipintzen)

da halan egur bat eta hari erresuma esaten zaio, josi edo goian, atzera eta joan ze dadin eusteko, holan talusean)

"Bederatzi gixon eusten on dires ainbeste denporan, busterritxi solte barik, dxausi seditxen, ta beste bat indesiñoak emoten, e, bidxotza asi dakidxon, ointxe pase da aste onetan (L.)" - (Bederatzi gizon eusten egon dira hainbeste denboran, buztarritik soltatu barik, jausi ze dadin, eta beste bat injekzioak ematen, bihotza hasi dakion, oraintxe pasatu da aste honetan)

"Agas garbittuten gendun, ori lodoye etor se dakion (Z.)" - (Haregaz garbitzen genuen, lodoi hori etor ze dakion)

zehar galdera

"Estaitt nor etor dan (Z.)" - (Ez dakit nor etorri den)

"Estaitt nongoa saran (Z.)" - (Ez dakit nongoa den)

-na

"Badakitt astelena dana (Z.)" - (Badakit astelehena dena)

"Emen ikusten da jente asko dabillena (Z.)" - (Hemen ikusten da jente asko dabilena)

"Ulertu dotzut bier datosena (Z.)" - (Ulertu dizut bihar datozena)

"Konturetu nas or dauna (Z.)" - (Konturatu naiz hor dagoena)

"Esta egie etorri direna (Z.)" - (Ez da egia etorri direna)

"Enas enterau akaba daurena" - (Ez naiz enteratu amaitu dutena)

"Estot igerri amekoa sarena (Z.)" - (Ez dut igarri hamengoa zarena)

"Badakixu akaba daureana? (Z.)" - (Badakizu amaitu dutena?)

"Ikusi dosu jente asko dauna? (Z.)" - (Ikusi duzu jente asko dagoena?)

"Estakixu ondiño akaba dune ala? (Z.)" - (Ez dakizu oraindino amaitu duguna ala?)

"Estosu ondiño igerri amekoa nasena? (Z.)" - (Ez duzu oraindino igarri hamengoa naizena?)

"Orre pai esetu doas, karo esetu doasena! (A.)" - (Horiek bai ezagutu ditut, jakina ezagutu ditudana!)

-n artian

"Suok ori itten dosuen artean nik beskarie preparakot (Z.)" - (Zuok hori egiten duzuen artean nik bazkaria prestatuko dut)

"Suek akabaten dosuen artean etzera yoango gara (Z.)" - (Zuek amaitzen dozuen artean etxera joango gara)

"Ori estat astuko iños, e, bixi nasen arten estat astuko (Z.)" - (Hori ez zait ahaztuko inoiz, bizi naizen artean ez zait ahaztuko)

-n bakotxian

"Datorren bakotxean afaritten lotuten da (Z.)" - (Datorren bakoitzean afaltzen lotzen da)

"Berba itten daun bakotxean inñusentekeriren bat esaten dau (Z.)" - (Berba egiten duen bakoitzean inuzentekeriaren bat esaten du)

-n gustidxetan, gustidxen

"Datorren gustien seuser ekarten dau (Z.)" - (Datorren guztian zer edo zer ekartzen du)

"Datorren gustien dakar seuser (Z.)" - (Datorren guztian dakar zer edo zer)

"Urteten daun gustien belu etortzen da (Z.)" - (Irteten duen guztian belu etortzen da)

-n beste

"Amak esan daun beste ekar du (Z.)" - (Amak esan duen beste ekarri dugu)

"Suk esan dosun beste erosi dot (Z.)" - (Zuk esan duzun beste erosi dut)

-nian

"Akabaten dosunean etzera yoango gara (Z.)" - (Amaitzen duzunean etxera joango gara)

"Erosten dosunen erakutzikostesu (Z.)" - (Erosten duzunean erakutsiko didazu)

"An egon sanean ori etor san (Z.)" - (Han egon zenean hori etorri zen)

"Etzera yoan nasenean atea ixitte eon da (Z.)" - (Etxera joan naizenean atea itxita egon da)

"Aurie asi daunean kalean eon gara (Z.)" - (Euria hasi duenean kalean egon gara)

"Etor sarenean ikusi in saittut (Z.)" - (Etorri zarenean ikusi egin zaitut)
"Datorrenen eongo nas beragas (Z.)" - (Datorrenean egongo naiz beragaz)

-neko

"Sikue dauenean ondo baya, euri itxen daueneko ta olan esiren serak ixetan (M.)" - (Sikua dagoenean ondo baina, euri egiten dueneko eta holan ez ziren zerak izaten)
"Ni asi nitzeneko ba apur bet sar eintte egon san, esta? baya esetu neuen (E.)" - (Ni hasi nintzeneko ba apur bat zahar eginda egon zen, ezta? baina ezagutu nuen)

-nerako

"Satosenerako akabata eongo da (Z.)" - (Zatozenerako amaituta egongo da)
"Ertorten danerako akabata egongo da (Z.)" - (Ertortzen denerako amaituta egongo da)
"Akabaten dosunerako etorko da (Z.)" - (Amaitzen duzunerako etorriko da)
"Etzera etor danerako ni enas egon (Z.)" - (Etxera etorri denerako ni ez naiz egon)
"Aitte yaten datorrenerako ni bearrean nau ya (Z.)" - (Aita jaten datorrenerako ni beharrean nago ja)

-netik

"Esaten daurenetik orrek etzea salduko daurea (Z.)" - (Esaten dutenez horiek etxea salduko dute)
"Orrek diñoenetik bier etorko dire (Z.)" - (Horiek dinotenez bihar etorriko dira)
"Esan daurenetik gero etorko dire (Z.)" - (Esan dutenez gero etorriko dira)
"Ikusi dunetik etzea salduko daurelako ustea dekot (Z.)" - (Ikusi dugunez etxea salduko dutelako ustea daukat)

-nik

"Estot entzun makalik daonik (Z.)" - (Ez dut entzun makalik dagoenik)
"Estot ikusi afaririk yan daudenik (Z.)" - (Ez dut ikusi afaririk jan dutenik)

"Estau argi erosi daunik (Z.)" - (Ez dago argi erosi duenik)
"Estot pentzetan ekarri daudenik (Z.)" - (Ez dut pentsatzen ekarri dutenik)
"Estoste esan eingo daudenik (Z.)" - (Ez didate esan egingo dutenik)
"Enas konturetu amen daonik (Z.)" - (Ez naiz konturatu hamen dagoenik)
"Estakixu ondiño akaba dunik? (Z.)" - (Ez dakizu oraindino amaitu dugunik?)

-nik ona

"Etor danik ona estot ikusi (Z.)" - (Etorri denik hona ez dut ikusi)
"Ori ekar saunik ona esta etorri (Z.)" - (Hori ekarri zuenik hona ez da etorri)

-n moduen

"Einyu seuk esan dosun moduen (Z.)" - (Egin dugu zeuk esan duzun moduan)
"Amak esan daun moduen prepara due yatordue (Z.)" - (Amak esan duen moduan prestatu dugu jatordua)
"Irebasten dauren moduen gastaten daurea (Z.)" - (Irabazten duten moduan gastatzen dute)

-n modukoa

"Aitte tekon moduko yake bat ekar dot (Z.)" - (Aitak daukan moduko jaka bat ekarri dut)
"Neuk eiñe baya neurri kordela biar dan modukoa neuk eintxe dau au (M.)" - (Neuk egina baina neurri kordela behar den modukoa neuk eginda dago hau)

-n lango

"Au suk ikusi sendun lango andie da (Z.)" - (Hau zuk ikusi zenuen besteko handia da)
"Nik ekarri nendun lango txikerra da (Z.)" - (Nik ekarri nuen besteko txikerra da)

-n megiden

"Itten deittusen megiden saldu itten deittus (Z.)" - (Egiten dituen neurrian saldu egiten ditu)

-n les/leas

"Gaur astelena dales bearren yoan gara (Z.)" - (Gaur astelehena denez bearrean joan gara)

"Ori kanpokoa dales estaki auskeras (Z.)" - (Hori kanpokoa denez ez daki euskeraz)

"Ak itxosaldea gitxi koiko deu, se, itxoso partea, esteueles koiten fruteak, lorea kontzerbeu ondo (Z.)" - (Hark itsasaldea gutxi hartuko du, ze, itsaso alderdia, ez duenez hartzen frutak, lorea kontserbatu ondo)

"Atxiñe kuartu gitxi eukitxe saleas, apartasiñoa pe eingo seitxuesan (L.)" - (Antzina logela gutxi edukitzen zenez, banaketak ere egingo zituzten)

-n antzekoa:

"Ama tekon antzeko yake bat erosi dot (Z.)" - (Amak daukan antzeko jaka bat erosi dut)

"Suk erakutzi sostesun antzeko liburu bet ekar dot (Z.)" - (Zuk erakutsi zenidan antzeko liburu bat ekarri dut)

segun...-n

"Segun selan datosen alan yesarten dire (Z.)" - (Segun zelan datozen halan jesartzen dira)

"Abril erdi ingeruen martxeta suren, segun Aralarren se denpora dauen (Z.)" - (Apiril erdi inguruan alde egiten zuten, segun Aralarren ze eguraldi dagoen)

"Txakoliñeri, segun se epokatan dan edo, selan koiten deuen ixao da (Ll)" - (Txakolinari, segun ze sasoitari den edo, zelan hartzen duen izango da)

selan...-n

"Ondo memorin dekot arri betegas, are arri betegas selan gasta eutzen (Z.)" - (Ondo gogoan daukat harri betegaz, hare-harri betegaz zelan higatu zioten)

"An atxean selan dan arku bet olan, antxe, antxe saltxe san arraño (K.)" - (Han etxean zelan den arku bat holan, hantxe hantxe saltzen zen arraina)

"Igerri otzut selan emekoa saran (Z.)" - (Igarri dizut zelan hemengoa zaren)

"Konturetu nas selan etorri diren" - (Konturatu naiz zelan etorri diren)

"Akorda nas selan erosi osun (Z.)" - (Gomutatu naiz zelan erosi duzun)

sebet eta... -n

"Senbet eta gorao sausen obeto ikusten da (Z.)" - (Zenbat eta gorago zagozen hobeto ikusten da)

"Semet eta parajeao saosen obeto entzute osu (Z.)" - (Zenbat eta parajeago zagozen hobeto entzuten duzu)

"Semet eta giau dakasun obeto (Z.)" - (Zenbat eta gehiago dakarzun hobeto)

ya ke ta... -n

"Ya ke ta amen gausen ikusten yoango gara (Z.)" - (Hamen gagozenez gero ikusten joango gara)

"Ya ke ta asi saren akaba ixa (Z.)" - (Hasi zarenez gero amai ezazu)